


Antonio Zavala

Oiñez eta jakin miñez



Oiñez eta jakin miñez

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Antonio Zavala

Oiñez eta jakin miñez

Auspoa Liburutegia
(1997)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-57-7

Legezko Gordailu: S.S. 793/97

Aurkezpena

Esan zidatenean Antonio Zavalaren liburu oni itzaurrea egiteko, kezka sortu zitzaidan, ni ez nagoalako oitua idazlanetan.

Baiña, beste aldetik, pentsatu nuan liburu bat ere osatu nezakeala gure artu-emanak, istoriak, joan-etorriak, alkarrizketak eta, bera dala-eta, ezagutu ditudan beste errialdeetako idazle eta aditu ezagunak-eta aitatu. Baiña, ortarako, luma astintzeko oitua egon bear! Beste norbait zirikatuko det lan ori egiteko.

Ala ere, itz bi jarriko ditut emen; ez, noski, Zavalak merezi dituan taju eta itxuran, baiña bai borondate onez, atrebentzia barkatuko didazutelakoan.

Uste det 1961 urtean iritsi zala gure jaiotetxera, ez dakit nola, Auspoaren aurreneko alea: *Sagardoa-ren grazia*. Eta grazi egin zidan, gu sagardotegiko semeak eta sagardo-maitale sutsuak izanik. Urteetan sukaldeko apalean egon zan. Majiñatxo bat igurtzi artua, gero kearen eta urteen poderioz desegin zan arte!

Ordutik, Auspoa eta bere sortzaillea biotzez maite ditut. Ordutik ikasi nuan bertsoa eta bertsolaria maitatzen, eta erriak baduala bere itza eta bere bizia nereganatzen. Orregatik, zori ori ordaintzeko asmoz eta eskerrak emanez, Auspoak beti izango du nere biotza eta laguntza osoa.

Asko idatzi diteke Auspoaz. Batetik, Euskal Errian berak argitaratu dualako argitaratu gabeko dokumenturik geien. Bestetik, material ezinbestekoa dalako, euskal gizona, euskal istoria eta euskal nortasuna eta oiturak ezagutzeko. Baita literatura eta izkuntza ezagutzeko ere. Bera degu, izan ere, erriak euskera nola itzegiten duan jakiteko bearrezko katona. Gaiñera, or dute antropolojiak, istoriak, etnografiak eta literaturak altxor paregabea.

Baditut, nere paperen artean, Zavalari buruzko iritzi batzuk, kanpoko adituek idatziak. Al deten modurik laburrenean eta dauden-daudenean eskeintzea pentsatu det:

** "Antonio Zavala es un lujo para la vida intelectual de un País. Es una de esas personas que aparecen muy rara vez en cada generación de estudiosos".*

** "Oralidad ofrecida al lector con absoluta pulcritud y fidelidad a las fuentes".*

** "La etnografía de Zavala es de gran calidad, minuciosa y sensible y de verdadero rigor científico".*

** "Ha sido capaz de hacer evidente a todos lo que a duras penas otros investigadores del folklore sólo acertamos a vislumbrar".*

** "La sensibilidad y proximidad del profesor Zavala a sus informantes constituyen en sí mismo un modelo metodológico".*

** "Faltan epítetos para calibrar la ingente y valiosísima obra de Zavala. Es para los demás investigadores una pauta de trabajo, aunque nunca podrán parangonarse".*

** "El mundo está lleno de eruditos atrincherados en sus parcelas de dominio académico. Los vemos por todas partes, de congreso en congreso, sudando el currículum como sabios sin fronteras o ejecutivos del saber. En contraste con toda esa gente aún se aquilata mejor la valía de los pocos Zavalas que tenemos".*

Zenbat millaka orri makinaz edo ordenadorez para dituan iñork ez jakin! Zenbat ordu, zenbat gau

eta egun orretan emanak! Orrelako sekretario eta langille merkerik ez da sortu Euskal Errian oraindaño.

Gaur emen aurkezten degun liburua, *Oñez eta jakin miñez, El Diario Vasco* egunkarian argitaratutako idatziz osatua da. Irakurleak ikusiko duanez, gai libre eta desberdiñak dira, alkarrekin loturarik gabeak, eta askotan neurritz beartuak, egunkariko leku jakin batean sartu bearraren bearrez.

Irurogeitik gora dira idatziak. Gai oso politikak dituzte, geienak istorikoak edo leiendak, eta beti irakurlea gozatzeko egiñak. Idazkera garbia dute, errexa, dotorea. Maisu aundia baita Zavala gaia borobiltzen aurrenetik azkenera. Irakurtzen astea naikoa da gustora bukatzeko.

Orain illabete-edo, Donostiako Parte Zaarreko *Itzalpe* elkartean giñan, gerra aurrean elkarteko idazkari izan eta gaur idazle ezagun dan baten omenaldian. An giñan bazkideak, eta bai Antonio Zavala ere. Eta onela esan zion idazle orrek Zavalari erderaz:

- Antonio, leo con mucho gusto sus artículos del periódico, y los entiendo perfectamente, sin necesidad de estudiarlos.

Antonio Zavalaren idatziekin beste liburu batzuk ere aterako ditugu; asko idatzi baitu egunkarietan, urte askoan zear. Baiña zailtasunak ditugu danak biltzen, bere material-bilduma dagoan bezela egonik: pillatu eta baztertuta, leku aproposa baten faltan.

Esku arteko liburu au gustokoa izango dezu, irakurle. Ziur gaude. Alakoak ditu gaiak: kontaktun istoriko jakingarriak eta leienda politikak. Izan ere, ez dakit zein idazlek esan zuan bezela, leiendek naikoa dute politikak izatearekin. Gaiñera, ain daude dotore idatzita: errez irakurri eta asko ikasteko moduan! Maisu onaren meritua.

Bukatzeko, barkatuko al didazu, mendian erbia bezela saltoka ibili banaiz. Etorri alan jardun det, gogoeta batzuk eskeiñi naian. Besterik ez.

Joakin Berasategi

Itzaurrea

Aurkezpenean ain esku zabalez esaten diranak irakurri ondoren, on izango du irakurleak liburu au nola osatu dan jakitea.

Ibiltzalea betidanik izan naiz, bai oiñez eta bai kotxez. Bide eta toki berriak ezagutzea atsegin aundia izan da egundaiñotik neretzat. Bidenabar, toki oietako istoriak edo leiendak ikasten saiatu naiz, bai libururen batean irakurriz eta bai aitonen baten aotik entzunez ere. Tokiak, izan ere, pertsonak bezelaxe, zer kontatua beti izaten baitute.

Kontaera oiei, batez ere leiendak baldin badira, parre egiten diete gaur jakintsu usteko batzuek. Ez dira agian konturatzen literatur-jenero bat dirala; eta leiendak diran bezela artzen ez dakianak, jenero ori zer dan jabetzen ez danak alegia, literaturaren aldetik oso jantzia ez dala agertzen du.

Berasategik dionez, leiendak politak izatearekin naikoa dutela esan omen zuan norbaitek. Norbait ori Camilo José Cela da. Bere liburu batean Andalusian barrena egin zuan ibillaldia kontatzen digu. Ango Ama Birjin baten ermitara iritxi eta bertako leienda kontatzen du, ondoren onelatsu esanik: *“Las leyendas cumplen con ser bellas”*.

Chesterton-ek, berriz, bere idazkiren batean beste onela esaten duala uste det: “leienda edo istori bat toki bateko anima da”.

Egi aundia au ere. Aralarko San Migeletik, adibidez, Teodosio Goñiren kondaira kentzen badegu, edo Arantzazutik Rodrigo Baltzategirena, edo Orreagatik Erroldanena, edo Leiretik San Birilarena, toki eder oiek erabat murriztuta eta pobretuta geldituko zaizkigu, bere adarkera galdutako edo muskildutako zugaitz baten antzera.

Tokian tokiko zer kontatuak ikasteko zaletasun orrek, norbera bizi dan ingurua edo lurraldea liburu baten antzeko biurtzen du, dana kondaira eta istori ederrez betea.

Baiña gero, bide oietan lagunuen batekin joaten nintzanean, aoak biotzaren ugalden itzegiten baitu, ango eta emengo istoriak eta kondairak kontatu gabe ezin, bada, utzi. Itz-jario orrekin lagun oietako batzuk asper-asper eginda utziko nituan noski. Beste onela esan zidanik izan zan, ordea:

– Eta zergatik ez dituzu oiek idazten?

Ori eskatu zutenak, bat eta bi baiño geiago izan baitziran, prueba egitera beartu ninduten. Kontaera batzuk papereratu eta *El Diario Vasco* egunkariko euskal orrialdearen arduraduna dan Felix Ibargutxi adiskideari erakutsi nizkion; eta baietz esan zidan, idazki oiek argitara emateko lekua berak emango zidala.

Orrela asi nintzan. Eginkizun ori zama berria zan neretzat. Baiña etxetik ateratzera beartzen ninduan, eta toki zoragarri oiek ikusiz atsedeen-bidea ematen zidan.

Ondoren, berriz, Sendoa argitaletxearen nagusia dan Joakin Berasategik onela esan zidan:

– Ire egunkariko artikulak bildu itzak, Ausporen zenbaki batean aterako dizkiagu eta.

Bilduma ori ementxe dezu, irakurle, esku artean. Leenengo idazlana 1995-eko ekainaren 25-ean

agertu zan; eta azkena 1997-ko ekainaren 26-an. Bi urteko emaitza dezu, beraz.

Baiña ondo kontuan ar zazu esku artean dezu-na zer dan: ez azterketa sakon bat eta ez istori-liburu bat ere; ibiltzale batek ibiltzearen poderioz ikasi dituan ango eta emengo zer kontatuak baizik.

Orregatik, oar bat egin nai nuke. Oker dagoa-nik izan diteke orrialde auetan. Istori-liburuak mo-du batera eta nik bestera esandakorik, alegia. Orre-lakoetan badaki irakurleak zer egin bear duan: bes-te liburu oiek diotena onartu, eta nik gaizki papere-ratua bazterrera utzi.

Liburu onengandik bi frutu nai nituzke nik: ba-ta, bera eskuan artzen duanari txolarte gozo batzuk pasa araztea; eta, bestea, toki oiek ezagutzeko go-goa jende artean piztutzea. Nik egun zoriontsu asko igaro ditut paraje oietan. Zuri ere berdin gertatuko zaizulakoan seguru nago, irakurle.

A. Z.

Orokietara

Urte batzuk badira Saldiaetik Orokietara dijon kamioa egin zala. Ez nuan ezagutzen eta leengo batean izana naiz. Saldiaetik gora, bereala sartzen gera Naparroako pagadi arrigarrietan. Goiko gaiñak Gorostietako lepoa du izena. Emen bereizten dira Mediterraneo eta Kantabrikoa dijon urak. Ego aldera jetxi eta Orokietara bereala dago.

Erri aundietatik aspaldi igesi joan zan ixiltasuna nabari da emen. Ez da txorien kantua, iturriaren ur-otsa eta aur batzuen jolasa besterik entzuten. Beingoan, ordea, 1872-ko maiatzean, ederki uxatu ziran emengo pakeak.

Karlisten bigarren gerratea asi berria zan. Don Karlos ere, egun aietantxe mugaz beste aldetik etorria. Bera eta bere soldaduak lasai asko zeuden Orokietan eta Eltzaburun; guardiak-eta bear bezela jarri gabe, ordea. Baiña liberalak, Moriones jenerala buru zutela, Labaindik atera, agian Gorostietako lepo ortatik pasa, Orokietara jetxi, eta eraso egin zieten karlistei.

Auek, munizio gutxi baitzuten eta mutil asko oraindik ere armarik gabe baitzeuden, amor eman eta igesi egin bear izan zuten. Ez danak, ordea. Batzuk il, beste batzuk zauritu eta zazpireun baiño geiago prisionero arrapatuak izan ziran.

Don Karlos ere larri ibili zan. Etzan berak nai ordurako, Aldudetik barrena, mugaz beste aldera pasa. Onela dio kanta zaar batek:

Bat eta bi, iru ta lau,
bost eta sei zazpi,
Carlos séptimo Orokietan
ibili da gaizki.

Orokietako plazan arrizko pilare bat ikusten da, onela dion idazki batekin:

“A los héroes camilleros de Navarra de la Cruz Roja Española, en homenaje a su humanitaria actuación en la acción de Oroquieta los días 3, 4 y 5 de Mayo de 1872, por la que recibió su bautismo de sangre el actual cuerpo de tropas sanitarias de esta benemérita institución”.

Gurutze Gorria artean asi berria zan, bai Europan eta bai Españian ere. Baiña emen, beintzat, gerran ñoiz parte artu gabe zegoan, eta Orokietan es-traiñatu zan.

Orain bost urte, berriz, beste bi idazki erantsi zizkioten pilare zaarrari, bat erderaz eta bestea euskeraz. Ara onek nola dion:

“Españiako Gurutze Gorriak bere sorreraren 125 urteurrenean, Orokietako ekintzan parte hartu zuten erakundeko boluntarioen omenez. 1989-ko uztaila”.

Orokietan, beraz, egun berean, gizaki batzuk alkar iltzen saiatu ziran; beste batzuk, berriz, lagun urkoa salbatzen. Baiña urteen buruan, gizarteak ederki erabaki du bi jokaera oietan zein zan oroitarri batean idatzita gorde eta gogoratu bear zana.

Abarzuza

Abarzuza erria Naparroan dago, Ierri aranean, Lizarratik zazpi kilometrora, ipar aldera. Karlisten bigarren gerratean burrukaldi gogor bat izan zan erri orren ondoan, liburuetan *batalla de Abárzuza* deitzen dana, 1874-ko ekainaren 25, 26 eta 27-an.

Liberalak, Lizarra artu nairik, Abarzuza aldetik zetozen. Karlistak, berriz, Lizarrarako bidean dau-den mendixkak aukeratu zituzten aiei arpegi emateko.

Liberalak ezin izan zuten karlistak andik bialdu, eta auek gertatu ziran garaille.

Liberalen buru zana, Concha jenerala, zauritua izan zan, eta Abarzuzako etxe batean il. Balak jo zuan tokian antxe dago, gaur egunean ere, kamio ertzean, oroitarri bat: arri-pilare bat autsita, bur-nizko esi baten barruan.

Burruka orri buruz euskerazko bertso asko dago; baiña oiek beste aldi baterako utziko ditugu.

Gaurko ontan, Bilboko *Euskalzale* astekarian, 1897-ko maiatzaren 27-ko zenbakian, "M" letraz izenpetzen duan batek kontatzen duana aldatuko degu onera:

"Nok eztau gomuta, orduan bizi zirean artean, 1874-garren urtean Naparroa guztian zan agiraka

edo guda odoltsua? Urte atako bagillan, 28-garrenean, il zan Abarzuzan alde bateko Buru edo gerlari nagusia.

Bere menpekoak aurkitu zireanean Buru barik, iges egin eben alde guztietara banaturik, eta lagun illak lurperatu barik.

Beste aldekoak, leku atatik joan zireanean, billatu ebezan 31 arerio illik, Burua il zan urrean. Guztiak zirean gerlari gazteak, bat izan ezik; au komandante edo nagositariko agintari-lagun bat zan, eta egozan solo-goien batean.

Arerioak izan arren bizitzan, eriotzan areriorik eztagoalako, ekarri solo-erdira, egin obi edo sepultura andi bat goitik beera ta lurperatu ebezan ogeta maikak. Iñork ezautu ez arren, nagositarikoa edo agintari-laguna lurperatu eben beste guztien erdian. Lur landu edo solo onen jaubea zan, Burua il zan etxean jaubea, Munarriz jauna.

Bi edo iru urtetan ereiñ eban jaun onek garia solo atan, ta iñun baiño ederragoa azten zan obi ganean. Bost edo sei urte igarorik, aurkeztu zan Munarriz jaunagana Espaiñian bealdeko (Andaluziako) etxadi bat, eta itandu eutsan baekian edo ez nun il zan da nun lurperatua izan zan agintari-lagun edo komandante bat.

Soloan jaubeak ez eban gomutaten beste lurperatutasunik 31-ena baiño, ta etxadi aren eskarietara joan zan gari andiena ta ederrena egoan lekura, ta idigi eban obia erdi inguruan.


Billatu ebazan gizonen azurrak garbi-garbi, bat tak besteari eutsela ta baten paparrean kutun edo eskapulario garbi, ipiñi barri bat bazan bere ezautu eziñekoa. Onexegaiti ezautu eban aurrean egoan bat tek, agintari-lagunen emazteak bere senarrari imiñia zalako.

Bialdurik kutuna alargunari, ezautu eban berbera zala. Azur guztiak artu ta Abarzuzako ortu santu edo il-tokira eroan ebazan. Munarriz jauna bizi da oraindiño”.

Geroztik ogei ta iru urte paseak baziran ere, artean jende asko biziko zan gertaera latz aiek ikusi zituana.

Oietako bat Munarriz jauna; eta beraren aotik jasoak izango ziran, dudarik gabe, idazlan ortan kontatzen diranak.

Kontaera laburra berez, baiña garai artako ger-rak ere txantxetako gauza etzirala garbi asko erakusten diguna.



*Concha jenerala zauritua izan zan tokiaren oroitarria,
Abarzuza, Naparroa*

Barria

Salutadoreak zer ziran adierazi bearrez, onela esan zigun Pello Errotaren alaba Mikela zanak, *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua* liburuan jasota daukagunez:

“Zazpi seme segiduan baldin badira, zazpigarrena salutadorea da; zakur amorratuen kontrako birtutea arek du. Gero, ura estudiatzera bialdu bear omen da. Ta batzuek mingain azpian da beste batzuek gañean, gurutzea izaten dute”.

Itz oiek egiztatzen dituan idazki bat arkitu berria degu, eta nun eta gutxien uste genduan tokian: 1922-ko uztaillaren *Jesus'en Biotzaren Deia* aldizkarian, aita Kandido Basabe'ren *Salbatierra'ko Salutadorea* izeneko lan batean.

Onela dio:

“Iñoiz entzun izango zenduan Salbatierran salutadorea zala. Amaika bidar ikusi genduzan txikitán, txakur amurratuak ainka egindakoak arin-bai-arin Salbatierra'ra joaten, ogetak legoak oñez edo kartoletan eginda. Salutadore ori zer zala? Ez deutzazue atsoren bati entzun esaten, bene-benetan, zazpi seme erreskadan, alabarik tartean barik, izan ezkerro, zazpigarrenak miñean kurutzea ekarrela, ta kurutze orregaz ainka lekua mizkau ezkerro, ez zala amurru-rik artzen?”

Siniskeri oiek baztertu bearrak dirala esan ondoren, garai artako oitura baten berri ematen digu:

“Salbatierra'tik amarren bat kilometro, Gaizteiz'erako bidezabalean, Arantzazu-mendien oñean, lekaimetxe edo monjen komentu bat dago. *Barria* deritxo, euskal izena, inguruetakoko baserri ta mendi guztiena lez. Bernardotarrena da”.

Gaur egun komentuak zutik jarraitzen du. Baiña mojak alde egin bear izan zuten andik, eta Arabako Aldundiak bere kontura artu eta erabat berri-tua du.

Aita Basaberen jarraipena:

“Bernardo'tarren beste lekaretxietan lez, onespen edo benedeziñoak emoten dira, indar andia daukenak, batez be amurrukeriari jarkiteko. Ba onespau *Salutare* berbeagaz asten da, ortik auz *Saludadore* izena”.

Bere garaian, ordea, txakur amorratuak ainka edo kozka egindakoak medikuetara joaten zirala esaten du aita Basabek.

Baiña gaizki etzegoala, ala ere, Jaunari laguntza eskatzea, Barriara joaten zan jendeak giten zuan bezela.

“Asko joaten al dira Barriara? Igaro dan urtean bi milla ta geiago joan zirala esan eustan Bikario jaunak. Eta ezer lortu eben? Bat be ez zala amurratu ganeratu eustan. Geiago, ezta aurreko urtetan be ez ebala jakin araturikorik amurratu zanik.

Euskaldun asko joaten dira. Antxe nengola, euskal barbaroa ataien entzunda: “Eup!” nik goikaldetik. Begiratu eurak; eta: “Emen be euskalduna?” “Bai, gizonak!” Olaeta'ko lau edo bost mutil gazte ta gizon ziran; aitortu, jaunartu, onspena egin eta pozik etxeratu ziran”.

Olaeta ori Aramaioko auzo bat da, eta anakak ederki astindu bearko zituzten, andik Barriaraiño oiñez etorri baziran beintzat.

Azkenik, Vicente Vera-k, *Geografía general del País vasco-navarro, Provincia de Alava liburuan,* onela dio:

“A este monasterio acudían y acuden de toda la provincia a curarse las personas mordidas por animales rabiosos, los que creían estar embrujados, etc.”

Urrola

Martxoaren asieran, 1813-an, frantzesak España ere mendean artua zeukaten. Baiña guerrillak izeneko taldeak an eta emen piztuak ziran aien aurka.

Bai Euskal Errian ere: Longa, Bizkaian; Jauregi, *Artzaia*, Gipuzkoan; Espoz y Mina Naparroan.

Onen taldeko egin zan Berako Fermin Legia ere. Andik laster esaera au aoz ao zebillen:

Fermin Legia,
kontra biño alde obia.

Batean, gaua pasatzera bere etxera etorri zan, Bera-Bidasoako Urrola baserrira alegia, gurasoen-gana.

Gauean, etxeko danak lotara joanak zirala, alako batean, zakurra zaunkaz asi zan. Amak belarria erne para eta kantu-otsa entzun zuan, artean urruti baiña urbiltzen zijoana. Itzak ere ulertu zituan azkenean:

Urrolara, Urrolara,
Urrolara goazi,
ta norbaitek arara
laister egin dezala.

Zer ote zan? Frantzesak, salatariak beti izaten baitira, Fermin Legia bere etxean zala ikasia zuten.

Bai talde bat bialdu ere ura arrapatzera, bide-erakusletzat *Tipiri* izeneko bat artuz.

Baiña *Tipiri*, Legiaren laguna izanik, kantari asi zan. Frantzesak, berriz, utzi egin zioten, Urrolakokak, euskal kantu bat entzunik, zetorrena errikoren bat zala pentsa zezaten. Baiña *Tipiri*, kantu zaarrari itzak aldatuz, Urrolatarrak jakiñaren gaiñean jarzen ari zan.

Gertaera au Iturralde Suit idazleak kontatzen du, *Euskal-Erria* aldizkarian, 1888-an, berri oiek larogei ta amabi urteko aiton baten aotik jasota. Baiña bigarren puntua ondo artu ote zion? Agian onela bearko luke, zortziko aundia balitz beintzat:

eta norbaitek andikan laster
egin dezala igesi.

Amak korrika joan eta semea esnatu zuan. Au, berriz, leiotik salto egin eta basoan izkutatu zan.

Andik laster, etsaiei ordaiña ematearren, Ondarribiko gaztelua kenduko zien, gau batez amabost lagunekin ormetan gora igota.

Barojak ere badakar bertso au, pixka bat aldututa bada ere, *El aprendiz de conspirador* nobelan, gertaera 1830-ean ipiñita. Baiña Iturraldek, esan bezela, 1888-an agertu zuan bere lana; eta Barojak 1913-an bere nobela. Ala, arek gertaera urbillagoa zuan, eta sinisgarriagoa da.

Urrola baserria Berako Zia auzoan dago, mendi tartean, Lizuniagako lepo aldetik datorren errekatik gertu samar, alde batetik Aiako Arria bistan dala, eta bestetik Larrungo kaskoa.

Gebarako gaztelua

Aguraindik (Salvatierra) Gasteizera kamioz goazela, antxe ikusten da, eskubi aldera, tontor baten gainean, torre bat. Gebarako gaztelua da.

Gebarako erria baiño goraxeago, malda batean eta gaztelua altxatzen dan mendiaren oiñean, jau-regi eder bat ikusten da. Beraren torre bat berriztatuta dago: baiña gainontzekoa naiko erorita eta zarpailduta.

XIV mendekoa omen da goiko gaztelua, eta zer kontatu asko izango duana. Baiña guk aren bukaera nola izan zan adieraziko degu, argibideak bi liburu auetatik artuta: Mañé y Flaquer: *El Oasis*; eta Vicente Vera: *Geografía del País Vasco-navarro, Provincia de Alava*.

Karlisten leenengo gerratean, 1835-X-27-an, inguru artan burrukatu ziran karlistak eta liberalak. Aiek gaztelu ortan artu zuten babesa; baiña auek eraso jo eta bialdu egin zituzten andik. Ala ere, leku ura aintzakotzat artu ez eta bere gisa utzi zuten.

Karlisten jeneraletako bat, ordea, Bruno Villareal, andik bi illabetera gazteluraino igo eta ederki jabetu zan leku arek gerrarako zeukan balioaz. Sei duro besterik ez omen zituan patrikan. Aiekin patarraz gonbiratu zituan bere mendeko batalloi bateko mutillak. Auek arri bana igo omen zuten gazteluraino.

ño, bizkarrean artuta. Bear ziran langilleak ekarri eta andik iru egunera leku ura berriz ere gerrarako prest jarrita zegoan. Orduan oartu ziran liberalak beren utsegiteaz.

Izan berriak gera gain artan, Gebarako gaztelu ori ezagutzera joanak. Ederra da ango ikuspegia: apirilla zan eta Arabako lautada gari berriaren berdetasunez jantzia eta apaindua zegoan. Erri txiki politak nunai. Iparraldera, Aratz, Aizkorri, Elgea, Gorbea... Egoaldera, Urbasa, Entzia, Gasteizko mendiak... Gasteiz ere bistaren mende. Kamioan kotxeak gora eta beera...

Karlistak torrean begi txorrotzeko mutillen batzuk jarriko zituzten, eta aiek liberalen joan-etorriak ederki zaindu. Ondoren, seiñaleen bidez bertakoei abisuak pasa eta etsaia nundik nora zebillen jakiñaren gaiñean jarri.

Gasteizko liberaleri, berriz, gaztelu ori karlisten mende ori ikustea beatz-puntan arantza bat bezin gozoa izango zitzaien. Baiña etziran ari erasotzera ausartzen.

Ia lau urte igaro ziran era ortan. Azkenean eraso jo zuten liberalak. Karlistak bai arpegi eman ere. Emezortzi egunean antxe borrokatu ziran alkarrekin.

Bitartean, Bergarako besarkada gertatu zan. Arek ekarri zuan gerra orren bukaera. Don Karlosek Frantzira aldegin zuan, eta andik zenbait egunetara errenditu zan Gebarako gaztelua.

Baiña liberalak etzioten barkatu. 1839-ko azaroaren 30-ean, arratsaldeko ordubietan, gasteiztarak Gebarako gazteluari begira zeuden. Alako batean, ke lodi-illun batek nola estaltzen zuan ikusi zuten. Andik laster, trumoi indartsu baten antzekoa entzun zan. Aizeak tokia garbitu zuanean, gaztelurik etzan ageri. Lur jota zegoan. Ain zuzen, 288

arroa polbora erabili omen ziran arrizko pareta zaar aiek botatzeko.

Auen loditasuna arrigarria da, izan ere. Bi metro paseak. Torre bakarra da zutik irauten duana, baiña ez osorik, erdizka baizik.

Zutik eta osorik balego, gaztelu bikain eta dotorea izango zan ura. Ikusgarria benetan. Baiña berak ezeren errurik ez bazuan ere, ederki zigortu zuten. Aspaldiko esaera da, izan ere, artzaien kulpak ardiak pagatzen dituala.

Gasteizko burrukaldia

Sei urte ziran frantzestea deritzaion gerra asia zala. Frantzesak, leen arro eta aurrera bezela, orain umil eta atzeraka zijoazen. Ala, 1813-ko ekainaren 21-ean jipoi aundia jaso zuten Gazteiz inguruan. Onela dio orduko bertso batek:

Biba tropa españolak,
biba Bitoria,
andikan agertu jaku
guretzat argia.
Ain ekarren españolak
balore andia,
zatitu ta erreteko
frantzesa guztia.

Frantzesak zenbateraiñoko galera izan zuten adieraztearren, onela dio *Conde de Toreno*-k bere *Historia del levantamiento, guerra y revolución de España* liburuan:

“Abandonáronlo todo, artillería bagajes, almacenes, no conservando más que un cañón y un obús. Perdieron los enemigos 151 cañones y 8.000 hombres entre muertos y heridos...”

Arekin bat dator bertsolaria:

Kotxe ta karromato,
litera ta burdi,
Bitorian gelditu da
ondasuna lodi.
Gainera artilleria
bertan dabe itxi,
frantzesen erregeentzat
ezta lotsa gitxi.

Galdu zituzten gizonak, berriz, "lau milla prisioneru, amar milla illak".

Liburuak diotenez, frantzesen aurkako indarrak La Puebla'ko menditartetik barrena jo zuten eraso, beren eskubi aldetik alegia. Bertsoak, berriz, onela diote: "lenengo entradea Longaren mutilak". Longa ori Bizkaian gerra artan sortu zuen gerrillerorik ospetsuena izan zuen. Baiña berak Murgia aldetik zetorren, ezker aldetik.

Beste iru gerrillero ere aitatzen dira, Longarekin batera:

Mina ta Pastorea,
Longa irugarren,
Mugartegi jarri da
Bizkaian laugarren...

Mina naparra zuen; *Pastorea* edo *Artzaia* gipuzkoarra; eta bizkaitarra Mugartegi.

Burruka artako ardatza eta giltza Zadorra ibaia zuen: alkarren lagun ziran ingelesak, portugesak eta espagnolak erreka pasa bear; frantzesak, berriz, utzi nai ez.

Baiña Trasponteko zubia zaintzaillerik gabe utzia zuten, Vicente Vera-k *Geografia del País Vasco-navarro* liburuan dionez. Nekazari batek oartu eta beste aldera abisua pasa zuen. Orduan lord

Wellington-ek indar bat ara bialdu. Eta onek zubia igaro eta frantzesak atzetik arrapatu.

Baiña au ez ote da literatur-jokabide bat izango? Orren antzekoak beste zenbait burrukalditan ere kontatzen dira. Las Navas de Tolosa-koan, adibidez. An ere artzai batek erakutsi omen zien kristauei mendiak nundik igaro, moroei eraso al izateko.

Beste bertso batek onela dio:

Napoleonen anaia,
errege botilla,
traguak edateko
aura zan mutilla.
Ondoren dituela
Longa eta Mina,
basoan galdu ei du
bere espadina.

Ain zuzen, ara zer dion Georges Roux frantzes istorilariak bere *La guerra napoleónica de España* liburuan:

“Jourdan pierde su bastón de mando y José (Bonaparte) la hermosa espada de honor que le regalara la ciudad de Nápoles”.

Bertsoak aitatzen duten *espadina* izango da, ziur asko.

Bertso auek Azkueren esku-idatzietan arkitu genituan, berak Bizkaian, Ereño errian, bilduta, guzira bost bertso, sail luzeagoa izango bazan ere.

Baiña, erdizka egonik ere, zera erakusten digute: bertsogintza indarrean zala garai artan, orduko bertso gutxi iritxi bazaigu ere.

Denbora berean, bertso sail auek Euskal Erriaren histori apal eta errikoia eskeintzen digute.



Traspuente zubia, Araba.

Justiz

Ondarribiko Justiz baserriaren leyenda, Euskal-Erria aldizkarian, 1880-an, kontatzen da euskeraz, Jutziz deritzaion baserriaren jatorria izeneko bertso-sail batean.

Egillea nor dan ez da ageri. Baiña joskerari begiratuta eta arek olako beste istori batzuk ere bertsoan jarri baitzitian, Klaudio Otaegi izango da. Zegaman jaioa bera, 1836-an; eta Ondarribin illa, 1890-an, urte askoan bertako maisu izanda.

“Jaizkibelgo basoak aritzez josiak” zeuden garaia zan. Gaurko mendi soil ori basoz estalia zegoan, beraz, sinistek lan badu ere; eta napar erregeak eiza-lekutzat artua zuten:

Naparroako errege
zan Santxo Abarka,
mendiz mendi ibiltzen
zan sarri jiraka,
oian ugarietan
zakurrak zangaka,
zenbat basurde gogor
ill zuen lanzaka.

Bein, ordea, basurdeen partez *usoa* arkitu zuan:

Guadalupeko ermita
dagon sartaldera,
errekaxo bat doa
mur mur goitik bera;
pozkidaz zegoela
Errege begira,
neskatx bat zitzakion
agertu aurrera.

Erregea arritu egin zan, “beregán ziolarik: “Ote
da aingerua?” Eta:

Atzeman zuenean
ume bikañ ura,
lore ederragorikan
ez baita mundura,
“Gutziz ederra zera
-zion-, au itxura!
Nijoan maite nauen
galde egitera”.

Erregeak bortxatu egin zuan neskatxa, eta aur-
dun utzi. Aurra jaio zanean, mutilla bera, “gatziga-
tu zioten Santxo Erregeri”, eta onek agindu: “Bere
etxetik ikusten zituen lur danak / beti izan zitezela
ama-semerenak”.

Arrezkeroz baserri orrek, erregeak neskatxari
“Gutziz ederra” esan baitzion, *Justiz* du bere izena.

Bertan izana naiz. Guadalupetik kilometro ba-
tera dago, itxas aldera artuta. Baserri dotorea da,
jatetxe biurtua.

Zer nenbillen adierazi eta Felipe III-ren serbi-
tzari zan *Diego de Urbina*-ren agiri bat atera zida-
ten. Ona zati bat:


*“La casa y solar de Justiz (...) es casa muy anti-
gua y de muy antiguos fijosdalgo y cavalleros, la qual
casa y solar esta sita en la montaña de Jazquibel, los
quales vienen y decienden de un hijo del Rey Don*

Sancho Abarca de Navarra, del qual dizen y escriben que andando a caza en la dha montaña fue a posar a la dha casa y solar: en la qual había una señora donzella muy hermosa y el rey enamorado della la procuro y uvo en ella un hijo varon, de quien decienden los deste linage de Justiz”.

Agiria nork eskatuta egin zan ere itz auekin esaten da:

“Y para que dello coste de pedimiento del Capitan Martin de Justiz, vecino de la villa de Fuenterrabia, di esta carta (...) en Madrid a dos de Julio de mill y seys-cientos y treze años”.

Santxo Abarka erregea 994 urtean il zan. Igaz milla urte, beraz. Denbora asko da, baiña kontraera au orain ia lareun urte jendearen aotan zebillen. Ez da gutxi.



Justiz baserria, Guadalupe, Ondarribi, Gipuzkoa.

Nuestra Señora del Lago

Arrigarri samarra idurituko zaio askori or goiko erdal izenburu ori euskal idazlan batentzat. Baiña gaurko ontan euskera aspaldi galdu zan lurraldeetara joan bearrak gera, naiz eta Euskal Erri barruan egon. Burgosko muga oso urbil baitute.

Ala, Ama Birjin orri betidanik orrela deitu dioten ezkeru, izen ori erabiliko degu guk ere.

Ara joateko, Gasteiztik aruntz abiatu eta Gatzaga-Añana baiño leen ezkerrera artu genduan. Biloriatik pasa eta Arreo errixkara iritxi.

Arreo onek dozen erdi bat etxe izango ditu, eta malda batean dago. Urak egoaldera dijoaz, eta anxe, pare bat kilometrora, ur-putzu bat ageri da.

Ekin nion oiñez. Apirillean giñanez, gari-sorolak berde-berde zeuden. Mendi egaletako ariztiak, berriz, artean ostorik gabe eta illun. Txorien kantu alaia nunai entzuten zan. Aurreko muiñoen gaiñetik, Humión eta Arkamo mendiak ikusten ziran.

Putzura iritxi baiño leentxeago, ezkerrera, borda baten antzekoa ikusten da. Baiña Ama Birjiñaren ermita txiki eta umil bat da, inguruko jendeak *Virgen del Lago* izenarekin ezagutzen duana.

Oraingo berri ez dakit, baiña Kaizedoko erria abuztuko Ama Birjiñaren bezperan etortzen omen zan garai batean oneraiño erromerian.

Ermitaren *leyenda* Becerro de Bengoa arabar idazleak kontatzen digu, bere *Descripciones de Alava* liburuan.

Bide zaarraren ondoan benta bat omen zan garai batean. Ango nagusia, ordea, gaiztoa eta lapurra.

Gau batean, emakumezko pobre bat atea jo zuan, eta ostatu-eskea egin. Neskameak arrera ona egin zion, baiña nagusiak purrustada batez aurrean bialdu zuan. Andre arek, joan baiño leen, berekin etortzeko eskatu zion neskameari.

Abiatu eta, pixka bat aldendu ziranean, lur barrutik ura sortzen asi zan, benta ura erabat estali arte. Orixe da ango ur-putzua. Andre ura Ama Birjiña izan. Zigor ori izan zuan nagusi zakar arek.

Onen antzeko kontaerak beste zenbait tokitan ere entzuten edo irakurtzen dira. Etxe bakarra ez-ezik, erria osoa estali zuala urak, bere eliza eta guzi. Eta onen kanpaien otsa urtean bein San Juan egunean entzuten dala.

Auek danak umekeriak dirala esango du beren burua oso gizontzat daukatenak. Gure iritzirako, berriz, txikikeria zera da: *leyenda* umil auei olako kritika zorrotz eta legorra egitea.

Putzuraiño jetxi nintzan. Ur garbia, baiña kolore illunekoa bera. Bide ondoko ertzean, ur geldietan sortzen diran landareak. Arunzkoan, basoa eta mendi-malkarra, ura ikutzeraiño.

Au ez da, noski, argazkietan azaltzen diran Sui-zako ur-putzu ospetsuak bezin dotore eta ikusgarria. Baiña txoko paketsurik iñork ezagutu nai badu, oneraiño etorri izana etzaio damutuko.

Legardako Ama Birjiña

Mendabiatik Legardako Ama Birjiñaren ermitara ninjoala, kamio bazterrean eta ur-erreten baten ertzean, zutikako arri lodikote bat ikusi nuan; eta ari itsatsita, marmol beltzezko idazki au:

“A nuestros antepasados, que con malas herramientas y baldes de sudor consiguieron, después de dos intentos, cavar este río nuevo que tantos beneficios ha dado a sus descendientes agradecidos. Merdavia, 1990”.

Oroitarrak gizon ospetsuei altxatzen zaizkie; sarritan mesede baiño kalte geiago egin dutenei. Emen, berriz, erriko leengo guraso langille, ixil, apalak goratu nai izan dituzte. Oiek bai gure esker ona merezi dutela. Bejondaiela ori idatzi zutenei.

Atsegingarria da ordeka auetan ibiltzea. Goien zeru urdiña; lurra, San Juan astean gaudenez, urre koloreko galsoroz estalia; baratzak eta arboladiak, berde-berde. Artalde bat abaroan....

Ez nuan ermitan sartzerik izan. Kanpotik ikusi nuanarekin konformatu bear. Dotoreena, XII edo XIII mendeko ate-sarrera. Gaiñontzekoa, geroztikako eraskiñak osatzen dute. Joan dan mendekoa azkena.

Atariko jardiñean eseri eta Ama Birjin onen *leienda* gogoratu nuan, Jacinto Claveria-ren *Icono-*

grafia y Santuarios de la Virgen en Navarra (Madrid, 1944) liburuan irakurri dedanez.

XV mendean, 1468 urtean, Tomas Ramirez soldadua, Lodosako semea, Afrikan preso zegoan. Gizarajoak errosarioa maiz esaten zion Legardako Ama Birjin oni, morrontza artatik libra zezan.

Baiña beraren nagusiak errezatzen ikusi eta gaizki erabiltzen zuan. Kristau fedea ukatu eta moro biurtzeko; eta askatasuna emango ziola. Besteak ezetz. Orduan, jo ez-ezik, gauerako ere katez lotzen zuan, iges egingo zion bildurrez.

Maiatzeko Pazkoa eldu zan. Tomasi zera bururatu zitzaion; biaramonean bere erritarrak Legardako Ama Birjiñarengana erromeriz joango zirala. Lodoso eta Mendabia auzo-erriak baitira. Orduan otoitzari eman zion, begietatik malkoak zerizkiola.

Nagusiak, berriz, ori ikusita, katez lotu ez-ezik, kutxa baten barruan sartu zuan, eta bera gainean etzan, lotarako.

Eguna argitu zuanean, itxas zabalean antxe ikusi zan txalupa-moduko bat, naiz eta ez arraunik eta ez belarik izan, ikaragarrizko abiadan España aldera zijoana. Zer izango eta moroaren kutxa. Artean ere bera gainean zan, eta barruan Tomas, biak lotan.

Kutxa arek, itxasoa igaro, Ebro ibaian sartu eta gorako bidea artu zuan. Moroa orduan esnatu. Etzuan lurralde ura ezagutzen. Alako batean, *tan-tan-tan* ots bitxi bat. Barrukoa esna arazi eta galde-tu zion:

- Ots ori zer da?

Barrukoaren poza:

- Oiek kanpaiak dira! Kristau lurretan gera, beraz!

Kutxa ibaiaren bazterrean gelditu zan, Legardako ermitaren parean, kilometro batera. Moroak, le-

gorrera atera eta kutxa zabaldu zuan. Antxe zeuden, arriturik begira, Mendabiako Diego Sanz de la Ribera, Bernardo Pascual de Ugalde eta abar. Eta zer ikusiko eta beren ezaguna zan Tomas Ramirez, katez kargatuta, kutxatik ateratzen.

Onen leenengo lana ermitaraiño joan eta Ama Birjiñari eskerrak ematea izan zan. Urrena, bere adiskide aiei zer gertatu zitzaion kontatzea.

Tomas, Legardako Ama Birjiñaren serbitzari geratu zan il arte. Moroa, kristau fedea artu eta baitaiatua izan zan. Bi aitaponteko izan zituan: Lodosako eta Mendabiako alkateak.

Lodosako erriak, berriz, mirari ori eskertu nairik, zin egin zion Legardako Amari, maiatzeko Pazko bigarrenez, leen debozioz bezela, andik aurrera obligazioz etorriko zala.

Kontakizun auek oroitzeko, egokiak dira onelako toki paketsuak. Nere begiak alde guzietara bide luzea egiten zuten iñon eragozpenik arkitu gabe. Iparraldean, Naparroako eta Arabako mendiak ikusten nituan: Kodes, Kantabria, Toloño... Egoaldean, berriz, Errioxakoak. Eta zabaltasun orren ixiltasuna! Etzan txorien kanta besterik entzuten. Alako batean, ordea, Mendabiako kanpaiak entzun ziran, beren ots gozo-dotorea ordeka artan zabaltzen zala.

Altxa eta egoaldera jarraitu nuan, Ebro ibaiaren bazterreraiño. Naparroa antxe bukatzen da. Arunzko ibai-bazterra Errioxa baita.



Legardako Ama Birjinaren ermita, Mendabia, Nafarroa.

Nire arpegia emen

Bergaratik Durangora goazela. Elgeta pasa eta Elorrio aldera jexten asi baiño leen, baserri bakarti bat ikusten da kamioaren ertzean. Bera degu, ortik sartuta, Bizkaiko leenengo etxea.

Batean, aren parean gelditu eta egurasten nennillela, aiton igar luze bat azaldu zan, eta izketan asi giñan. Baserriaren izena galdetu nion, eta onela esan zidan:

- Elorrioko Pagatza. Elgetako kalea baiño berreun metro lenago, eskumara, beste baserri bat bada, Pagatza a be, baiña Elgetakoa. Oni San Roman be esaten deutse, garai baten or ermita bat egoalako. Baiña santua ostu egin eben, ermitea apurtu zan da orain ez dago ezebe.

Bizkaiko anaiak barka dezaidatela, beren euskalkia txarto idazten badet. Baiña aitonaren berbak aren aotik atera bezelaxe papereratzen alegindu nai nuke.

Toki ura Erdella eta Intxorta mendien arteko lepoa da, eta dana piñuz beztuta dago. Onela esan zidan aiton arek:

- Emen piñurik ez zan lenago. Emen egoan aretxa, pagoa ta gatzaiña; iru klase. Oillagorra be asko egoan. Kamiño ondoraiño etorten zan. Ta basurdeak be bai, negu-neguan, ola edurragaz-ta.

Arrezkeroz, andik pasatzen nintzanean, gelditu eta itz aspertu bat egiten genduan aitonak eta biok. Adiskide egin giñan. Izen-abizenak ere eman genizkion alkarri. Berarenak, Elias Agirrebeitia ziran.

Larogei ta bat urte zituala, arenak egin zuala eta iltzeko gogoia ere bazeukala zion:

– Kontzientzi onagaz iltea baiño oba zer?

Bein, bere ezagun batzuk urbildu ziran; eta nigatik, orduan Xabierren bizi bainintzan, onela esan zien:

– Au nire lagun bat da, Naparrotik etorri dana ni bisitetan.

Beste batean, gertaera au kontatu zidan:

“Askotan bezela, lengoan be ortxe atarian nengoan, da kotxe elegantea etorri. Bi emakume ziran, dotoreak. Nik pentsau neban Bergarara ondo joiazan preguntauko ebela. Baiña itzegiten asi giñan, da:

– Ezagutu dozu Santurtzeko tanbolinterua? Garaizabal dauka apeliua.

Ta nik:

– Bai. Elorrioko semea da. Ni eskola-mutikoa amar urtegaz, ta ak tanboliña joten eban. Nire lagun andia da aren anaia. Aitak ez eutsan itxi gura tanbolinteru, golfoak urteten ebelako. Baiña ak aura gura ebala eta aura gura ebala. Gazterik joan zan Santurtzera, ta famaua izan da. Onenatariko bat. Premioak irabazi be bai. A kanpoan ibili da beti.

Orduan, emakume aretako batek esan eustan:

– Onek, alboan datorren neska onek, zure arpegia eroan gura dau.

Orduan nik:

– Nire arpegia?

Jakea neukan onetaraxe, bizkarren ganean isegita, otzagaitik; eta bururaino igo neban, da arpegia tapau. Eta esan neutsan:

- Onek ez dau nire arpegia geiago ikusiko. Ez zuk be. Libre zagoze Santurtzerako. Agur, ondo bizi ta zorionak!

Nire fotografia atera gura eben areik makiñagaz. Baiña nik tapau ta ezin atera.

Ixil-ixilik joan ziran. Ni be etxe barrura listo. Bailarina negargarriren batzuk izango ziran.

Lelo-arpegia daukat nik euki be, baserritar netua, ez sonbrero ta ez tontakeririk, txapelagaz baiño, geure parajea geure parajeko gauzak bear dirata.

Areik pentsatzen eben nigaitik mundu guztiko barreak egingo zituela. Baiña nik be, neure tontotan, neuretzat lain badakit gero, ta nire arpegia emen geratu zan, Santurtzera eroan barik”.

Gauza jakingarri geiago ere entzun nizkion aitona ari. Baiña beste baterako utziko ditugu.

Ondoren, andik beste iru edo lau bat aldiz pasa eta ez nuan aitonarik ikusi. Baserriko atea ere itxita. Ala, batean, Elgetan gelditu eta ango gizaseme bati galdetu nion:

- Elorrioko Pagatza baserriko aitona ezaguna nuan. Elias Agirrebeitia beraren izen-abizenak. Iru-lau bat aldiz andik pasa naiz eta ez det ikusi.

Onela erantzun zidan:

- Ez dezu, bada, geiago ikusiko. Illa da.

Pena artu nuan. Bizkaitar jator bat gutxiago mundu ontan.

Ondoren, andik pasatzen naizen bakoitzean, baserria ikusitakoan, ango aitona beti oroitzen naiz.

Orain, berriz, nere zalantzak erabili ditut, gure aitonari Santurtzeko emakume aiekin gertatu zitzaiena kontatu ala ez. Bere arpegia andik inora eramaterik nai etzuanak, bere berbak ere bertan gelditzea naiko lukela iduritzen zitzaidan. Baiña gero zera pentsatu det: kontzientzi onagaz ildakoak joaten diran goi artatik begiratuta, gure mundu xixtrin ontako gauzak ez dituala orren xorrotx artuko.

Txintxarri-ots guziak ez dira berdiñak

Baroja-k, bere El aprendiz de conspirador nobelan, 1830-eko bertso batzuk aitatzen ditu. Oietako bat auxe:

Armada eder bat ekarri digu
Berara Fermin Legiak,
judu ta sastre, protestantiak,
ark ere eztitu beriak,
galtzaen neurriyak artu diyote
español kazadoriak.

Fermin Legia Bera-Bidasoakoa zan, Urrola baserrikoa, leen esan degunez, eta *frantzestea* izeneko gerratean (1808-1814) frantzesen aurka gogotik saiatua, Frantzisko Espoz Mina gerrillero famatuaren agindupean. Berau ere naparra zan, Ibargoitiko aranean, Idozin errian jaioa.

Realistak ziran 1830 urte ortan Españaiko nagusi. Oiek karlisten aurrekoak juzka ditezke. Baiña liberalak erreinuaren agintea eskuratu nairik zebiltzan. Ala, urte artako urrian *armada* edo talde armatu bat prestatu zuten Baionan.

Andik illaren 18-an atera eta urrengo egunaren illunabarrean Senpereko Zugarti basoan ziran; 20-

an, Berako mendietan; 21-ean, Beran; 22-an, Lesaka aldean; 25-ean, Irungo San Martzialen.

Baiña gobernuak zazpi bat milla gizon bialdu zituan aien aurka. Liberalak, lareun bat izanik, zer egiñik ez eta iges egin bear izan zuten.

Mina, berriz, 27-an, Ernani aldean omen zan; biaramonean, Tolosa inguruan. Andik eman zion berak igesari, eta ez da errez nundik nora ibili zan jakitea.

Laiñoa ere ba omen zan mendietan eta Mina, iru lagunekin, galduta zebillen. Zaldiak utzi eta baso batean sartu ziran. Baiña ura ere etsaiez beteta egon. Arkaitz baten azpian koba-moduko bat arkitu eta an izkutatu ziran. Andik laster, aien billatzaille-en izketa-otsa entzun-zuten:

- Zaldizkoak ez dira urruti izango.

Urrena, berriz, zakur-zaunkak, eta orduantxe etsi; aien sudur fiñak billatuko zituala alegia. Baiña une artantxe basauntz bat agertu zan; eta zakurrak aren atzetik jo, giza-arrastoaz aaztuta.

Ondoren, ardi-zintzarri baten otsa entzun zuten. Minaren laguneren poza orduan!

- Artalde bat! Artzaiak zuzenduko gaitu!

Baiña Minak:

- Ez mugitu! Zintzarri orri ez dio ardi batek eragiten, gure etsai baten eskuak baizik, gu izkututik atera arazi eta arrapatzeko.

Alaxe omen zan. Mina ori kale-umea izan balitz, etsaien atzaparretan itxu-itxuan eroriko ziran danak ere. Ura erri txiki bateko seme izateak salbatu zituan.

Bertan jarraitu zuten. Noizbait ere atera eta mendiz mendi abiatu, nun zebiltzan etzekitela, txabol batean emakume bat arkitu arte. Arek gidari bat billatu zien.

Baiña onek, gau euritsua zan eta bidea galdu, eta Zugarramurdira eraman zituan. Orduan jo atzera; eta, gose-egarriak eta nekearen nekez leer egin da, 30-aren goizean, Frantziara sartu ziran.

Esaera mamitsu au bere burutik atera zuanik bada: “asto guztiak ez dira igualak, antz aundia izanagatik”. Berdin esan genezake, kontatu degun gertakizun ontan ikusten danez, txintzarri-otsagatik ere.

Zudaire

Urbasaren ego aldeko ertzean nago. Emen mendia bat-batean erortzen da, Amezkoetako aranari leku egiñez. Nere oiñetan, amiltegi tente baten azpitik, Urederra ibaia sortzen da. Mendien egalak baso beltzez jantzita daude. Labore-lurrak urre koloreko galsoroak estaltzen dituzte. Erri batzuk ikusten dira: Gollano, Artaza, Bakedano, Zudaire...

Lokiz eta Azantza mendien artean, Lizarra alde-rako bidea, ia-ia Amezkoetako irteera bakarra. Aran au alde danetatik mendiz inguratuta baitago.

Zoko au orregatik aukeratu zuan Zumalakarregik bere gordelekutzat. Ortik berari erantsi zioten izengoitia: *Amezkoetako Otsoa*.

Baiña ez nator gaur gerra-gertakizunik kontatzera. Ezta ere mendiko konturik aitatzaera. Pake-gizon batzuei itxasoaren erdian zer pasa zitzairen berritu nai nuke.

XVI mendea zan. Jesuiten buru egiten zuan San Frantzisko Borjakoaren aginduz, Aita Inazio Azebedo eta beste irurogei ta bederatzi lagun Lisboatik iru itxasontzitan atera ziran, Brasil aldera mi-siolari joateko asmotan; eta Madeira ugartera iritxi.

Andik Kanarias aldera irten aurretik, Azebedok jakiñaren gaiñean jarri zituan berarekin batera

Santiago ontzian zijoazen lagunak: itxas-lapur ere-jeak bazebiltzala, eta aiekin topo egitea gerta ziteke-ala; iltzeko prest joan bear zutela, beraz; baiña iñork bildurrik baldin bazuan, bertan gelditzeko. Lau lagunek atzera egin zuten, eta besteak, berrogei guzira, aurrera jarraitu.

Ia La Palma-ra iritxi ziranean, itxasontzi batzuk ikusi zituzten. Nor izango eta Jacques Sourié itxas-lapurra, frantzesak eta erejea, *hugonotea*, bere gizonekin. Urbildu eta *Santiago* itxasontzira salto egin zuten. Bertakoak burruka gogorra jo zuten aien kontra, barrura sartu etzitezten. Baiña alperrik. Itxas-lapurrak nagusitu ziran.

Beren kapitanak, jesuitak ikusitakoan, danak il eta itxasora botatzeko agindu zuan.

Aita Azebedo-ri labankada bat eman zioten buruan, eta ondoren iru lantza-kolpe. Benito Castro-ri iru arkabuz-tiro; ondoren, ezpatarekin joka erabili; azkenean, artean bizirik zala, itxasora bota. Manuel Alvarez-i, arpegian jo, lurrera bota eta anka-besoak apurtu. Blas Ribero-ri, buruan joka muiñak atera. Pedro Fonseca-ri, labanarekin arpegian jo, eta mingaiña eta kokotza ebaki.

Bi lagun oian gaixorik zeuden. Zer gertatzen zan igerritakoan, martiri izateko egokiera galdu nai ez eta sotana jantzi, kanpora atera eta aiek ere illak izan ziran.

Simon Acosta emezortzi urteko mutillari, ea be-
ra ere jesuita zan galdetu zioten. Baietz, alaxe zala. Orduan lepoa moztu eta itxasora bota zuten.

Mutil gazte bat, itxas-lapurrak jesuitak aparta-
tzen asi ziranean, auen taldera pasa zan; eta ura ere antxe il zuten.

Besteak ere berdin tratatu zituzten. Danak il arte etziran gelditu. Gizona gizonarentzat otsoa zala esan zuanak erdiz erdi asmatu zuan.

Bakar bati barkatu zioten: jesuiten sukaldaria-ri. Baita berekin eraman ere, sukalde-lanak aientzat egin zitzaizkion. Baiña, Frantziara iritxita-koan, itxas-lapurren mendetik atera eta bera izan zan gertatuaren berri zabaldu zuana.

Ala ere, etzan lekuko bakarra izan. Mariñelak eta gainontzekoak ere beren begiz ikusitako izugarrikeri aiek an eta emen kontatu zituzten.

Eguna 1570-eko uztaren 15-a zan. Ildakoak berrogei izan ziran. Aietako bat, Esteban Zudaire, Amezkoetako Zudaire erriko semea, emeretzi urte-ekin jesuita sartua.

Amezkoetan gure izkuntza zan nagusi urte aietan, gaur egunean andik aldegiña bada ere. Esteban onek ere orixe ikasi zuan bere amarengandik. Eta euskeraz mintzatzen ziranei garai artan *vizcaínos* esateko oitura baitzan, berari ere orrela deitzen zioten.

Sastrea zan, eta Plasentzian zegoan, Extremaduran, aita Azebedo misiolari billa andik igaro zanean. Onela zion:

- Pozez noa, martiri izango naizelako. Jainkoak ala eman dit aditzera azken gogo-jardunetan.

Urteen buruan, berrogei lagun aiek doatsuen maillara altxa zituan Elizak.

Urbasatik Zudaire errira jetxi naiz. Itzalpe batean, bi aiton. Aiei galdetu:

- Esteban doatsuaren jaiotetxea nun da emen?
- Elizatik beera joan eta eskubira artu.

Bereala arkitu nuan. Ataria, margarita eta larrosez apainduta zegoan. Atearen saiets batean, gurutze bat; eta aren azpian, idazki au:

“En esta casa nació en 1548 el misionero del Brasil Beato Esteban de Zudaire, de la Compañía de Jesús, mártir de Cristo el 15 de julio de 1570. Sus últimas palabras fueron: In te Deum”.

Kalez kale asi naiz. Udara da, eta bazkalondoko ordu kiskalgarriak. Baiña iparraizea atera du, eta onek zugaitz-ostoak marmarka jarri ditu. Erri barruan iru iturri, ura oparo dariotela. Bakoitzean trago bana egin gabe nola utzi? Ur presko gozoa benetan. Edaten ari nintzala, ondotik zijoan batek:

– Urederra ibaiaren sorlekutik datorren ura dezu ori, kimikarik gabea. Mundua basamortu bat biurtzen ari omen da. Baiña emen, oraingoz beintzat, nun egarria kendu badegu. Edan, edan gogotik!

Aitonak leengo tokian jarraitzen dute. Ederra benetan orrelako itzalpea, udarako ordu beroak pasatzeko. Kanta zaarrak diona:

Iduzki denean
zoin den eder itzala...

Gazteluko Ama Birjiña

Miranda erriak, baiña Naparroan, Arga ibaia-
ren ertzean dagoanak, eliza bikaiña eta an-
tziñako jauregi ederrak ditu. Baiña kale aldapa-
tsuak danak ere.

Malda aiek igotzeari ekin nion. Eskerrak ipa-
rraizea zebillen. Erria igaro ondoren ere segi gora,
Gazteluko Ama Birjiñaren ermitara iritxi arte. Ateak
itxita zeuden. Ezin, beraz, barrura sartu. Saietseko
jardin txukun-politean atsedean artu nuan, denbora
berean Ama Birjin onen *leienda* oroitzuz.

XVIII-garren mendean, Mirandako seme bat,
Juan Antonio Zelaia, Ameriketara zebillen, España-
ko erregearen serbitzari, baiña goieneko karguetan:
Guayaquil-ko eta Popayan-go gobernadore, Quito-
ko kapitan jenerala eta abar.

Bein, ango gerra batean, etsai batek tiroa nola
tiratzen zion ikusi zuan. Bai berak ere bere jaiote-
rriko Ama Birjiñaz oroitu eta ari otoitz sutsu bat
egin:

- Gazteluko Ama Birjiña, salba nazazu!

Eta berari tira zioten bala, antxe ikusi zuan in-
darrik gabe bere oiñetan lurrera erortzen.

Bitartean, Mirandako jendea arriturik zegoan,
alkarri onela galdetzen ziotela:

- Gure Ama Birjiñari zer gertatu zaio? Beraren mantuan zulo bat azaldu da, buelta guzia beztuta eta erreta daukana. Balaren batek egiña dirudi.

Denborarekin Juan Antonio Zelaiaren eskutitza iritxi zan: Gazteluko Ama Birjiñari bizitza zor ziola; ala eta ola gertaturik, berak libratu zuala.

Mirandarrak orduan dana ulertu: Ama Birjiñak bere mantuarekin babestuko zuala Zelaia kapitana, eta balazoaren arrastoa izango zala zulo ura.

Zelaiak Ama Birjiñaren irudi berria egitea agindu omen zuan, berak pagaturik.

Bi oial ere ba omen dira miraria oroitarazteko: batean Ama Birjiña ikusten dana, Mirandako erriari babesa emanek; eta bestean, Zelaia kapitana, zaldi baten gaiñean, etsaiak tiroa tira zion eta Ama Birjiñak salbatu zuan unean.

Onen mantua, bere zuloarekin, urteetan gorde omen zan. Baiña onela esaten omen du aita Damian Janariz-ek Mirandako istoria-liburuan:

“El vestido de la Virgen, con el agujero y trozo quemado por la bala era de tisú de plata con bordados de oro de bastante mérito. Todavía viven personas fidedignas, cuando escribo estas líneas, que cuentan haberlo visto y que lo conservaban con gran cuidado hasta que el párroco, D. Francisco Núñez, lo vendió, el año 1772, para hacer obras necesarias en la ermita, pues el pueblo no podía contribuir por estar muy necesitado a causa de las muchas pérdidas que les ocasionó la guerra civil”.

“Esaten omen du” idatzi degu. Ez baitegu liburu ori eskuetan izan; eta itz oiek Jazinto Claveria-k bere *Iconografía y santuarios de la Virgen en Navarra* liburutik artuak ditugu.

Urteak, bearbada, 1872-garrena bearko luke; eta gerra zibilla karlisten leenengoa, edo bearbada bigarrena, izango litzake.

Baiña gutxiena ori da. Buruan ezin sartu zaiguna zera da: mantu ori erriko erretore batek saltzea...

Ama Birjin onek, ermitatik gora, mendixkaren tontorrean izan zan gazteluari zor dio izena: *Virgen del Castillo*.

Ain zuzen, 1511 urtean, gaztelarrak aren jabe eginda zeudela, mirandarrak altxa eta andik bota egin zituzten. Baita Juan Labrit erregeak erria sartu ere:

"...la hizo proclamar Buena Villa, con asiento en Cortes; le dio por armas un castillo de oro en campo de gules, además de otros títulos y privilegios".

Baiña, Naparroako beste ainbeste gaztelu bezela, Mirandako au ere Cisneros kardenalak bota arazi zuan.

Araño igo nintzan. Gaztelu zaarraren aztarrenak garbi-garbi ikusten dira gaur ere. Torre borobil bat ere antxe altxatzen da. Baiña geroztikakoa; karlisten gerraren batean eraikia, ziur asko.

Ederra benetan ango ikuspegia. Mendixka batek kentzen du ego aldeko bista. Ipar aldera, berriz, Erriberako ordeka aberatsa ikusten da, galsoroz eta baratza emankorrez estalia. Erditik, suge bat bezela, Arga ibaia, bere ur berdexka illunarekin.

Ondoren Naparroako mendiak: Uxue, Izko, Elo, Alaiz, Erreniega, Andia, Urbasa, Montejurra... Ni izan nintzanean, gandua zegoan eta aruntzago etzan ezer ageri. Baiña egun argietan Pirineoko tontorrak ere ederki ikusiko dira andik, batez ere elurraren zuritasuna zeru urdiñaren aurrean erakusten dutenean.

Santa Kasilda

Briviesca-tik amabi bat kilometrora, Santa Kasildako santutegia dago, leku ikusgarria benetan.

X mendean, moroak Españian zirala, Al-Mamun zeritzan Toledoko erregea. Onen alaba, berriz, Kasilda, dama gazte-ederra eta biotz onekoa.

Badira beraren ama kristaua zala diotenak. Batetik, alabaren sentimentuak olakoxeak ziralako; bestetik, bere illearen koloreagatik. Au gaur ere santutegian erliki bezela gordetzen baita; eta ez omen da beltza, mora batek bearko zuanez, rubioa baizik.

Besteen iritziz, gerraren batetik katibu ekarritako emakumeren bat Kasildaren mirabe izango zan, eta arek kristau dotriña erakutsi.

Aitaren jauregiko kartzeletan kristau katibu asko ziran; eta Kasildak, errukituta, mantala ogiz bete eta eraman egiten zien, iñori ezer esan gabe.

Baiña salatariak beti diranez, norbaitek aita jaikiñaren gaiñean jarri zuan. Ala, bein, Kasilda kristauengana zijoala, aita bidera irten zitzaion:

- Zer daramazu or?

Alabaren estuasuna! Zerbait esan bear eta:

- Arrosak.

Mantala zabaldu eta alaxe ziran: arrosak.

Mirari orren oroipengarri, Kasildaren iduria antxe ikusten da eliz barruan, mantala arrosez beteta duala eta aitak arrituta begiratzen diola.

Andik puska batera, Kasilda gaixotu egin zan. Medikuen alegiñak alperrik. Ura beti aultzen. Orduan kristau katibu batek:

– Zergatik ez dute San Bizenteren ur-putzuetara eramaten? Antxe sendatuko litzake.

Ur-putzu oiek, orain Santa Kasildaren santutegia dagoan mendiaren oiñean daude. Inguruan parke moduko bat duala, leku atsegiña da.

Kasildak ere amets egin zuan, ara joan eta sendatu egiten zala.

Aitak Gaztelako erregeari idatzi zion, alaba nora eta zertara zihoan eta babesa emateko ari.

Kasilda, lagun talde batekin, bidean jarri zan. Andik laster, ordea, batzuek diotenez, erregeari damutu alaba joaten utzia. Orduan soldaduak atzetik bialdu, ura ostera etxera ekartzeko. Baiña Jainkoak ala naita, Kasilda eta bere lagunak zaldien perrak aldrebesko arrastoa egin zuten, eta jarraitzailleak bidea galdu.

Kasilda-eta bidean zijoazela, iraunsuge bat aterra omen zitzaien, aotik sua zeriola. Baiña arek aurrrera segi, eskuarekin gurutzea eginga.

Garai artako santuen bizitzak orixe dute: egiazkoa danari erriak alako asmakizunak erantsi dizkiola. Baiña ez al dira kontaeraren edergarri?

San Bizenteren ur-putzuetara iritxita, Kasilda, bere burua antxe garbituz, erabat sendatu zan.

Orduan laguntzaille guziak bialdu egin zituan. Bataioa eskatu eta bertan gelditu zan, ondoko koba-zulo batean bere bizitza otoitz eta penitentziz eramanez.

Kasilda noiz il zan? Diotenez, 1073 urtea ezke-
roztik asko luzatu gabe. Eta erriak berak santa
izendatu zuan, Erromak zer zion itxogin gabe.

Leendik ere ezagutzen banuan ere, aurten be-
rriz izan naiz Santa Kasildan, Briviesca-tik joanda.
Kamioak bere aldapatxoak baditu, lurra zimurtzen
asia danez. Baiña ederra begiak artzen duten ikus-
pegia: aurrean Bureba izeneko ordeka, galsoroz es-
talia eta erri txikiz josia. Urrena, Obarenes men-
diak.

Nekazari bat kamio ertzeko soro batean. Izke-
tan asiak giñala, makurtu, lurretik arri koxkor bo-
robil batzuk jaso eta zera esan zidan: aiek, leengo
guraso zarrak ziotenez, Santa Kasildaren malkoak
zirala.

Bat-batean, santutegia aurre-aurrean, muiño
baten gainean, goizeko eguzkiarekin argi-argi.

Aldapa igo eta barrura sartu. Eliza txukun, gar-
bi, polita. Gaur dagoan bezela, XVI mendeko lana
da. Aldarean, arrizko kutxa edo illobi bat, barruan
Santa Kasildaren ezurrak dituala, eta gainean bera-
ren irudia. Otoitz-leku egokiak dira au bezelako to-
kiak.

Ormetan bertso batzuk, santaren goralpenera-
ko. Arrosen miraria aitatzten duanak onela dio:

*Rosas, Casilda en tu falda,
fecundo produjo el cielo,
por flores de tu piedad,
por frutos de tu honor regio.*

Kanpoan, ostatua eta plazatxoak. Alboko sala
batean, santari eskeiñitako oroipengarriak. Aietan
ikusten danez, Burgosko fededunak ez-ezik, Errioxa
eta Bizkaikoak ere jaiera aundia diote santa oni.

Kanpora atera eta inguruko bistak ikusi. Mendi borobillak emengoak. Arkaitz txuriak, belar oritua, arte-sastrakak, piñu aldatu berriak... Beeko zokoan San Bizenteren ur-putzuak, Buezo erria...

Aurreko mendian, koba-zulo bat. Erriak dionez, santak ogia erretzeko zuan labea omen da.

Eliz barruko beste bertso batekin buka dezagun:

*Paloma que entre las quiebras
del risco tienes asiento,
vuela donde eterno sol
te corone de luceros.*



Santa Casilda, Burgos.

San Juan de la Peña

Toki gutxitan ikus diteke izadiaren lana eta gizonarena San Juan de la Peña-n bezin egoki eta dotore uztartuta. Ikusgarriak ango baso itzaltsuak, arkaitz tenteak, goiko zelai berdea... Ikusgarria, baita ere, ango aizpeko eliza. Alako mendiak, izan ere, era ortako eliza eskatzen zuan; eta era ortako elizak, alako tokia.

VIII mendean, moroak Españiaz jabetu berriak zirala, kristau mordoska bat mendi ontara *-Pano* omen zuan orduan izena- etorri omen zan. Goiko zelaian erri bat altxatzen asi ere bai.

Baiña moroak jakin, soldadu-pilla bat bialdu eta erri ori apurtu egin zuten, gizonezkoak illik eta emakumeak eta aurrak katibu eramanez.

Egun batez, mende berean, Zaragozako zaldun bat, Voto izenekoa, mendi oietan eizean zebillen. Basauntz bat ikusi zuan. Asi ziran bata igesi eta bestea segika, basoan barrena. Baiña, usterik gutxienean, amildegi sakon batera zuzen-zuzen zijoala ikusi zuan zaldun orrek. San Juani laguntza eskatu eta zaldia arkaitzaren ertzean ozta-ozta gelditu zan. Onek gelditzearren egin zuan indarrarekin, bere anketako urratsak arkaitz bizian markatu zituan, eta antxe omen daude gaur egunean ere. Basauntza, berriz, goitik beera amilka joan zan.

Voto zalduna arkaitz ixkiñatik begira jarri zan, beeko zuloan zer ote zegoan. Koba-zulo aundi bat ikusi zuan, eta bertan ermitatxo bat.

Nola edo ala jetxi zan araiño, eta or ikusi zuan *ermitaño* baten gorputza, artean lur eman gabea, izena *Juan de Atarés* zuala adierazten zuan idazki batekin.

Zaldunak orduantxe sentitu zuan Jaunaren deia. Zaragozara biurtu eta bere anai Felixi gertatuaren berri eman zion, Beren ondasunak saldu, pobreen artean banatu eta koba-zulo artara etorri ziran, otoitz eta penitentzian bizitza igarotzera.

Ondoren, beste gizon batzuk bildu zitzaizkien asmo berarekin. Orrela asi zan ain komentu edo monastegi ospetsua izango zana. Aragoiko errege zaarrak ere toki uraxe aukeratu zuten beren ezurak uzteko.

Jesukristok azken aparian erabili zuan kaliza ere, erderaz *el Santo Grial* esaten zaiona, eliza ortan gorde omen zan urte mordoan, Balentziara eraman arte. Gai orrekin sortu zuan Wagner musikalaria ospetsuak bere *Parsifal* opera famatua.


San Juan de la Peña, berriz esango det, ikusgarria da, beeko eliza eta komentua, batez ere, arkaitza beste teillaturik ez dutela.

Leku otza ura negurako, alako toki altua eta laiotza izanik. Eskerrak egur-paltarik izango etzala. Baiña XVII mendean komentu berria altxa zutenango fraileak goiko zelaietan, leku alai eta eguzkitsuan.

Merezi du andik abiatu eta mendiaren ipar aldeko ertzeraiño iristea. Begientzat opari ederra da andik Auñamendi mendi-katea ikustea, neguan batez ere, zeru urdiñaren azpian ainbeste tontor txuri ikusten dirala. Ederra da, baita ere, ego aldeko ertzetik ikusten dan bista: mendi-pilla bat leenengo,

illun eta zakar; eta Hueska aldeko ordeka zabalak atzean...

San Juan de la Peña-n azken aldiz izan nintzeanean, an zeuden kotxeetan Donostiako matrikula asko ikusi nituan. Euskera entzun ere bai. Autoak ugaltzearekin, izan ere, euskalduna oso ibiltzale biurtu zaigu, Baiña biurtu? Leen ere, ainbesteko erreztazunik ez izan arren, ez ote zuan griña ori oso berea?



San Juan de la Peña, Hueska.

Aita Julian Lizardi

(Bizitza eta eriotza)

Aurtengo (1995) azaroaren 29-an, Aita Julian Lizardi jaio zanetik irureun urte bete dira.

Aren berri emateko, *Tolosan: F. Muguerzaren moldizteguien 1902-garren urtean agertutako liburuska batez baliatuko gera. Ona izenburua: Lizardico Aita Julianen jatorri, bicitza, bertute eta bere erreستا ilcorrezcoen aguermenaren berri labur bat. Baiña egillearen izenik ez da esaten.*

Lizardiren jaiotetxea, Urzuriaga baserria, Asteasuko Goiballa auzoan dago. Aiara goazela, Santa Marina ermita pasa eta *pista* bat ezkerretara goitik beera artuta, baserri zaar bat, mendi zoko batean. Ango gauzarik ikusgarriena gaztain zaarra da:

“Bere inguruan, eta estaliz bere adar ostotsuakin, altxatzen da oraindikan gaztain eder bat, zeñaren bollesia iya lur ondoan da amar metro edo 36 oñekoa. Zuaizak dauka barrena utsa, eta da esaera guztizkoa barren orretan gordetzen zala bere lenengo adiñean Aita Julian, itzekida gozoak zuzentzen Jaungoikoari”.

Julian, jesuitak Gaztelako Villagarcía de Campos errian zuten ikastetxera joan zan, eta bertan Lagundian sartu, amazapi urterekin, 1713-an.

Ondoren, Paraguay-ko Misioetara bialdu zuten. 1717-an Kadiztik atera, eta Buenos Airesa iritxi. Andik Córdoba-ra. Ikasketak Tucuman-en egin. Lan ori buruaren atsedengarri zuan. Berak onela esaten zuan:

– Banoa estudiatzera, leer egin artean, buruko miña det eta.

1721-XI-15-ean apaiztu zan.

Aren ametsa indio basatiak nola erasotzen zioten bere iduripenean ikustea omen zan, eta onela omen zion, leen aitaturako liburuskak dionez:

– Nik birla-jokuan tiratzen dedan indarrarekin –eta zuan txit ona– desparatuko dizkiet biotz-gabeai beren saetak edo erituko naute ezpatarekin.

Tucuman-etik Córdoba-ra. Bidean, lagun batek aita Julianek lo noiz egiten zuan jakin nai, eta ezin somatu, edozein ordutan errezatzen ikusten zuan eta.

1725-eko ilbeltzean, Paraguay-ra, guarani indioetara. Leenengo lana aien izkuntza ikastea.

Batean, Paraná ibaian zijoazela, aizeak aita Julianen ontzia irauli. Indioak bizirik ur-azalera atera. Baiña amabi ordu pasa bear izan zituan uraren mende, eta *asma* gaitza bereganatu.

Aingeru Guardakoaren *reducción* edo misio-lekuaren kargua eman zioten, eta an lau urte baño geiago egin.

Andik *txiriguano* indioetara. Eun da berrogei ta amar urte, misiolariak jentil oiek konbertitu naian zebiltzala; baiña alperrik.

Lurralde oiek Bolibiako sailletan daude, eta ez dute oso legunak izan bear, ainbat alditan aitaturako liburuska orrek dionez:

“Probintzi onetan bizi geranak, mendiz betea dalarikan, ezin ezagutu degu neke gabe zenbat geiago

menditsuagoa dan gure Aita Julian bizitu zan lekua. Dagokion errespetoakin begiratzten degu Ernioko mendia, milla metron goiendea dubelako itxasoko berdinkaiez. Pentsa, bada, zer izango dan Andes-ko erroitza, leku batzuetan eun legoa zabal dituana, luzean milla legoa baño geiago, eta sei ta zazpi milla metroko goiendeak”.

1735-eko martxoaren bukaeran, Kontzezio *Reduzio*-ko buru egin zuten aita Lizardi. Maiatzean txiriguanoak mixio orri erasotzeko asmotan zirala zabaldu zan otsa. Aita Julianek olakorik sinistu ez.

Maiatzaren 16-an meza ematen asi zan, erriko jende guzia inguruan zuala. Eskeintzerakon, txiriguanoak azaldu. Mutil batek ikusi eta elizara lasterka abisua ematera. Aita Julian eta sakristaua izan ezik, beste geienak korri basora, beren buruak gordetzera.

Txiriguanoak iritxi, aita Juliani eldu, mezetarako jantziak kendu, sotana urratu, larrugorririk utzi, eskuak lotu... Sakristaua eta beste ogei bat lagun preso artu ere bai.

Urrena, lapurretari ekin, eliza eta erriko etxe guziei su eman eta alde egin, prisionero guziak eramanez. Gauaren otzarekin aita Juliani asmaren kolpea etorri, eta pauso bat ezin emanik gelditu.

Indioak arkaitz aundi batean eseri arazi zuten. Bera, besoak gurutzeturik, noiz ilko zuten zai jarri. Azkenean, fletxaz josi zuten. Maiatzaren 17-a zan. Aren gorputza jasotakoan, ogei ta bi fletxa-zauri kontatu zizkioten, batek biotza erdiratzen ziola.

Gorputza aita Pons-ek billatu zuan, andik ogei ta bigarren egunera, garagarrillaren 7-an. Onela dio leengo liburuxkak:

“Arkitu zuan egaztiz jana, amar saieta bularran josirik, eta gañerakoak lurrean zabaldurik; oña bat larruzko galtzerdiakin eta zapatarekin, eta beste oñetik palta zituan iru beatz txikienak, eta baita matrai-


llezur bat ere. Gorputza zegoan lurrean etziña, ge-
ziazteko eseriazi zuten leku ondoan. Buru aldetik
zeukan brebiarioa, gorputz inguruan Aste Santuko
liburua...”.

Oial batean bildu eta Tarija errira ekarri zuan
aita Julianen gorputza. Emen zedroko kaja batean
sartu, Jesusen Lagundiko elizara ospe aundiz era-
man eta an obiratu...

Andik urte batzuetara, jesuitak Ameriketatik
eta Españiatik erbestera bota zituan Karlos III-ak.
Ondoren, lurralde aiek Españiaren mendetik atera
ziran. Ori aski ez balitz, erri aietan geroztik izanda-
ko gerrak eta iskanbillak...

Ala, aita Julianen oroitza jendearen burutik
atzendu eta iñor ere aretzaz gogoratzen etzala urte
asko pasa ziran...

Asteasun ere berdintsu. Beren erritar aretzaz
iñor gutxi oroitzen zala dirudi. Aita Lizardiren oroi-
pena berriro ere piztu zan orratik. Ori nola gertatu
zan, urrengo batean kontatuko degu.



Asteasu, Gipuzkoa.

Aita Julian Lizardi

(Erlkien agerpena)

Leengoan esaten genduanez, bere jaioterri Aste-lasun ere aita Julian Lizardiz urte mordoan iñor gutxi oroitu zala ematen du. Urzuriagako gaz-tain arrigarriaz, bai, ordea.

Ona adibide bat: Juan Bautista Agirre (1742-1823) izen ospetsua degu gure literaturan, aren *Erakusaldiak* izeneko liburuak dirala ta. Apaiz jaun onek, leengoan aitatzten genduan liburuskak dio-nez:

“Igaro bear izan zituan bere azken urteak oatua, eta oraindik bere etxe Elizegin dago oi ura zaitiraun-dua; eta norbaitek ongi naiezko itz-aspertzera bera-rengana joanik esaten zionean:

– Don Juan Bautista, gizon ederra dago, kolore onak eta...

Erantzuten zion:

– Bai; kolore onak bai; baño, Urzuriagako gaztai-ña bezela, barrundik ustela natxiok ordea”.

Gauzak ala zeudela, aita Julian il zutenetik eun da berrogei urtera, 1875-ean, Londresko kardena-lak bere anaia, Kenelm Vaughan, apaiza bera ere, Bolibiara bialdu zuan. Baiña gaixotu eta Tarija errian gelditu bear izan zuan, frantziskotarren etxean.

Denbora nolabait ere pasa bear eta liburutegian irakurgairen baten billa asi. Sitsak erdi austutako liburu bat arkitu, zabaldu eta esku-idazki bat izan: aita Julian Lizardiren bizitza aita Lozano-k idatzia.

Onek zionez, martiriaren gorputza garai batean jesuitena izan zan elizan obiratu zuten. Baiña galdetu eta nun egon zitekean iñork etzekian.

Elizaren lurpea arakatzen asi zan, eta aldare nagusiaren azpian, ondar pilla batean, ol txiki-zaar bat azaldu, aita Lizardiren gorputza an zegoala latinez esaten zuana.

Baiña ol ura nundik etorria ote zan? Gizon haar bati idazki ura nun egoten zan galdetu zion; eta arek, paretan zintzilik egoten zan lekua esan.

Pareta urratu eta antxe kutxa bat agertu. Arretaz jetxi, eliz eta erri-agintariak bertan bilduta zirala, eta kutxa ura aita Lozanok esaten zuan bezelakoxea zala dudarik etzegoan.

Iriki eta leenengo azaldu zana palma-adar bat izan zan, martirien seiñale edo ikurra alegia. Ondoren, agiri bat, aiek aita Lizardiren ezurrak zirala adierazten zuana. Azalpen ori aundikiro ospatu zan Tarija errian.

Ondoren, 1896 urtean, aita Vaugan Asteasura etorri zan. Baita Urzuriagara igo ere, aita Julianen jaiotetxea eta gaztain zaarra ezagutzera.

Ondoren, Donostian itzaldi bat eman zuan, aita Lizardiren ezurrak nola billatu zituan adieraziz.

Asteasuko erriak eskari au zuzendu zion Diputazioari: berak bakarrik ezin eta lagundu zezala, arren, aita Julianen erlikiak bere jaioterrira ekartzan, eta bai doatsu izendatzeko lanak aurrera eramaten ere. Diputazioak baiezkoa eman zuan.

Aita Vaugan Tarija-ra itzuli zan mandatu orrekin. Baiña bertako jendeak etzitan erliki oiek gal-

du nai. Azkenean, ango gotzai jaunak erabaki: beso bat Tarijan uzteko, eta gainontzekoa Asteasura eramateko.

Aita Vaugan-ek Tucuman-era ekarri zuan, eta andik Buenos Airesa. Urrena, *Reina María Cristina* baporean, Bartzelonara, 1902-IV-21-ean. Ango Diputazioan kutxa iriki eta, ezurrekin batera, antxe omen zegoan oraindik ere aren larruzko zapata.

Maiatzaren 25-ean ekarri zuten Asteasura. Udal eta eliz-gizonak eta erri guzia zai zegoan noski. Kutxa iritxitakoan, kanpai guziak bueltaka, su-zi-riak, Tolosako bandak musika jo... Andik Udaletxera eta parrokira; eta sakristian arrizko kutxa dotore batean utzi, idazki onekin:

“Aquí yace el cuerpo del Venerable Padre Julián de Lizardi, que por la predicación del Evangelio y defensa de la fe fue apresado mientras celebraba la santa misa por los bárbaros siriguayos, y siendo aseteado expiró el 17 de mayo de 1735”.

Il zuteneko berreungarren urteurrena iritxi zanean, oroitarri bat ipiñi zan aita Julianen jaiotetxean. Gaur ere an dago. Onela dio:

“Asteasuko Urzuriaga, / etxe ontan jaio ta / sinisgabeen artean / martiri il zan / Aita Lizardi gora-garriari, / gipuzkoar Andra Maritar / gazteak, Kristoren alde / lan egiteko indar zerutarra / eskatuaz. 1735-1935.”

Urzuriagan izan berriak gera; eta, alakorik baterere uste gabe, aita Julian jaio zala irureun urte betetzen ziran egun berean: azaroaren 29-an.

Gaztain zaarraren enbor-puskak ikus ditezke gaur ere. Puja berri ederrik atera eta frutu ematen jarraitzen du. Lurra gaztaiñez betea ageri zan. Bat edo beste artu eta jan ere egin genduan, erliki bati muin emango bagenio bezela. Gaztaiñaren barruan, gaztain landare berri bat aldatuta dago. Inguruan, arbol zaarraren babeserako, arrizko esi bat.

Txoko paketsua Urzuriagako au. Eskubitara, Ernioko erpiña, eta andik jexten diran egal aldapatsuak. Aurrean Santa Marina ermita kasko batean. Atzerago, Oria ibaiaren utsunea tartean dala, Uzturre mendia... Orain irureun urte ere berdintsu egongo zan inguru ori.

San Adrian, Tolosa eta Garcilaso de la Vega

L 532 urteko neguan, Araba alderik alde pasa, San Adriana igo eta Gipuzkoa aldera jexten asi ziran bi zaldun. Aizkorri mendia etzan gozoa egongo urte garai ortan. Aietako batek onela idatziko zuan gero:

*Los montes Pireneos, que se estima
de abajo que la cima está en el cielo,
y desde arriba el suelo en el infierno,
en medio del invierno atravesaba.
La nieve blanqueaba, y las corrientes
por debajo de puentes cristalinas
y por heladas minas van calladas.
El aire las cargadas ramas mueve,
que el peso de la nieve las desgaja.*

Zein ziran bi zaldun aiek? Bata, Fernando de Toledo, Albako Dukea; bestea aren lagun miña zan Garcilaso de la Vega erdal olerkari ospetsua.

Zerk ekarri zituan Gaztelatik onera negu gorrian? Alemaniako enperadorea eta Españaiko erregea zan Karlos V-ren deiak: Viena turkoen mende erori zorian zegoala, eta guda-gizon guziak iri ori aien atzaparretatik libratzera leenbaileen etorri zitezela.

Bi zaldun aiek otsaillaren 3-an Tolosan ziran. Baiña emen ustegabekoa gertatu zitzairen: Gipuzkoako agintariak Garcilaso preso artu. Zergatik ote?

Illabete batzuk leenago, onen illoba bat, Garcilaso de la Vega izenekoa bera ere, erregiñaren dama batekin ezkondua zalako. Baiña onen baimenik gabe eta osaba olerkariak lekuko egiten zuala.

Erregiñaren asarrea! Bere senarrak ezkontza ori balio gabekotzat jotzea lortu zuan. Andregaiak komentu batean sartu zuten. Senargaiak Portugala iges egin. Onen osaba, berriz, esan degunez, Tolosan kartzeleratu.

Baiña Albako Dukea tente jarri zan: etzala Viena joango, bere lagun Garcilaso gabe. Orduan erregiñak amor eman bear izan zuan.

Bi lagunak aurrera jarraitu eta Parisen sartu. Emen Dukea gaixotu. Sendatutakoan, bideari ekin berriz ere, Kolonian Rin ibaia igaro, Danubio ibai-ertzeraiño segi, aren uretan beera ontzi batean Ratisbonara iritxi. An ziran Europa guziko guda-gizonik geienak:

*“vieras un campo junto de naciones
diversas y razones, mas de un celo.*

Laster abiatu ziran Viena aldera, ontzietan sartu eta Danubio ibaian beera:

*“Al viento las banderas tremolando,
las ondas imitando en el moverse”.*

Eta:

*“remos iban metiendo con tal gana,
que iba de espuma cana el agua llena”.*

Turkoak, etsai-pilla ura ikusirik, bildurtu eta alde egin zuten:

*“y con arrebatado movimiento
sólo del salvamento platicaban”.*

Baiña erregiña etzegoan lotan. Atzetik mandatariak bialdu eta Garcilasoren kontra erregea berotu. Onek Danubio ibaiaren ugarte batera bialdu zuan, andik irteteko baimenik gabe.

Garcilasok illabete batzuk an pasa zituan. Berak zionez, leku atsegiña, derrigorrezkoa izan ez baltz:

*Con un manso ruido
de agua corriente y clara,
cerca el Danubio una isla que pudiera
ser lugar escogido
para que descansara
quien como yo está agora, no estuviera...*

Bitartean, Albako Dukeak sententziaren aldaketa lortu: Danubioko ugarte artatik Napoles irira joateko baimena, alegia. Emen egotea olerkariaren mesederako izan zan. Italiako *Renacimiento* edo Berpizkundearen literatur-aize berriak antxe arnastu baitzitian.

Tolosan, beraz, bi olerkari aundi giltzaperatuak izan dira: bat erdalduna, Garcilaso de la Vega; eta bestea euskalduna, Jose Maria Iparragirre. Onen bertsoa ez dakianik ez da izango:

Zibillak esan naute
biziro egoki
Tolosan biar dala
gauza erabaki.
Giltzapian sartu naute
poliki-poliki,
negar egingo luke
nere amak baleki.

Baiña bidegabekeri oietan etzuan Tolosako erriak zer ikusirik izan. Pekatariak kanpotarrak ziran. Ori esan bearra zegoan Gipuzkoako iriburu za-

arraren izen ona gordetzeko. Ez baita eraskin ondragarria "olerkariak giltzaperatzen dituan erria".

San Adriana igo berria naiz. Aurrean, Aizkorriko tontorrak goizeko eguzkiarekin diz-diz. Atzean Aralar eta San Donatoko erpiñak gandu urdin baten mendean. Bazterretan udazkeneko garo gorria. Zenbat gertakizun ikusia egongo da antziñako bide au? Zeletatxo bat leiotik ermitari. Arunzko aldean, galtzarak aurrera segi pagadian barrena. Bai guk ere, pauso bakoitzean orbela arrotuz.

Igandea baitzan, eta eguraldi ona zegoanez, bi-deak jendez beteta ikusten ziran. Garai batean, berri, bearrak ekarrita izan ezik, etzan iñortxo ere emen ibiliko. XVI mendeko bi zaldun aiek ere alaxe etorri ziran. Aiei esatea besterik etzegoan denborarekin jendea mendi auetara egurastera eta atsedean billa igoko zala, beste zer egiñik gabe...

Guadalupeko gurutze zaarra

Alfonso Maria Zabala (1847-1919) ernaniarra zan, eta apaiza. Bera da *Ondarrabiko Ama Guadalupe-koaren ziazaldea edo kondaira* lanaren egillea, 1883-ko Euskal Festetan saritua eta 1884-an *Euskal-Erria* aldizkarian agertua. Baita 1885-ean ere, Tolosako Eusebio Lopez-enean. Beste gauza askoren artean, Guadalupeko gurutze zaararen istoria kontatzen du:

“Esan det lenago azkeneko gure arteko guda negargarri eta kaltetsu ori iraun zuan artean, imajiña santa egon zala Uriko Elizan; baña bukatu zanean igo zutela berriz ere bere lekura, Urriaren 15-ean”.

Urterik ez du esaten; baiña 1876-a zan; eta gerra ori, karlisten bigarrena. Onela jarraitzen du:

“Arrigarria zan Birjiña Guadalupe’koari laguntzen igo zan jende-taldea, ez bakarrik Ondarrabi, Irun eta beste Españaiko errietatik, baita ere Prantzikoetatik. Bost millatetik igarotzen ziran egun artan Guadalupe-n inguratu zirenak. Elizatxo ez zan gai jende ura kabitzeko.

Au guztia aurrez gogoraturik, apez-aita jaunak baimena eskaturik zeukan apezpiku jaunari, meza kanpoan emateko. Esan zitekean aingeruak ere poz-tutzen zirela pesta artan. Zeru-goia zegoan urdin-urdiña, lañotxo bat gabe. Prestatu zan aldarea elizatxo-

aren ezkerrean dagoan mendi-tontorrean,... eta asi zan meza...”

Ondoren:

“Mendian eman zan mezaren oroimenak iraun zezan, sortu zitzaion... On Joakin Ollokoari -Ondarribiko erretoreari, alegia- an bertan altxatu bear zuala, al bazuan, munduan arkitzen dan arrizko gurutzerik aundiena”.

Ortarako,

“esan zion bere gogoan Antonio Berrotaran-go arotz eta artista abillari; eta laster onek billatu zuan *Arriestueta* deritzaion Jaizkibel-mendiko arrobian nai zuan bezelako arri galant bat, zeñak zeuzkan luzee-ran ogei ta bost oñ t’erdi, eta bere pisua zan gutxie-nez berreun kintalekoa.

Eraman bear zan zegoan lekutik iru milla kanaz urutiagora; eta, arri puska ura andik ateratzeko, bildu ziran eun da berrogei ta amar gizon, eta ogei ta bost idi pare. Lenengo egunean erabilli zuten milla kanan bezela, eta bigarreanean ekarri zuten jarri bear zan lekuraño.

Andik amar egunera atera ziran beste bi arri, bata amabost oñekoa, gurutzearen besoak egiteko; eta bestea zazpi t’erdikoa, gañerako.

Asko da jakitea gurutze onek dauzkala berrogei ta bi oñ t’erdi peñaren ondotik asi eta bururaño. Peañak dauzka bost malla inguru guzian, eta malla oetan egon ditezke jarririk eun ta ogei gizon, alkar asko estutu gabe.

Gurutze au ekustean, lan oetan adituak direnak esan izan dute, miraiturik:

– Bada norbait, alderdi edo gai geiago gabe, arri pixu oek txutik jarri dituana?”

Gurutzearen bedeinkapena abenduaren 31-n izan zan, elizatik gurutzeraiño prozesioa egiñez eta abar.

Ondoren, gurutzea zegoan tokitik ageri zan ikuspegi bikaiñaren berri ematen digu Zabala jaunak:

“Gurutze au dago Gipuzkoa-ko lekurik zoragarienean. Emendik ikusten dira esan dituan probintziaz gañera, arkaitz, mendi, baso eta oianak; agiri dira zelai-soro, ibar eta sagasti mardulak; agiri dira uri, erri eta borda, uso txuriak diruritenak arbol tartean; agiri dira burni-bide eta Irun eta Endaia-ko *estazioak*; agiri dira Burdeos-ko munu, Baiona-ko barra, Biarriz-ko erri, Sokoa-ko gaztelu, Ondarrabi eta Endaia-ko portu eta Abbadiren jauregi galanta; agiri dira itxaso zabal, Bidaso ibai eta errekatxo garbiak; agiri da Justiz aomen aundikoa, lotsatua bezela txarra tartean; agiri da Guadalupe-ko elizatxo bere dorre alaiarekin; ageri da gure uri noble, leial, errutsu eta beti piela, bere murru urratuakin; agiri da...”

Oiek irakurrita, gurutze ori ezagutzeko gogoan egin zitzaigun. Ala, Guadalupera joan giñan aurreko batean. Gurutze bat ikusi genduan elizatik bertako *fuerte* edo gaztelura bitartean. Urbildu giñan eta porlanezkoa zala ikusi. Buelta guztian, landutako arri-puska aundi batzuk lurrean.

Ondoren, Ama Birjiñari bisita. Eliz-zaintzaillea zirudian emakume bati onela galdetu genion:

– Or goien dagoan gurutzea noizkoa da?

– Ori berria da; orain berrogei bat urte ipiñia. Leenago beste bat izan zan, arrizkoa dana. Baiña azkeneko gerratean, nunbaitetik emengo fuerteari tiratako kaiñonazo batek jo eta apurtu egin zuan. Aren puskek antxe daude gaur ere, lurrean.

Florentino Portu-ren *Santuario de Guadalupe* liburua erosi nuan. Onek ere gurutze orri buruz itzegiten du. Beraren argazki bat ere badu, 1924-an egiña. Kaiñonazoak jo zuan eguna ere esaten du: “*Demolida el 18 de Agosto de 1936*”.

Gogoan artzekoa, beraz, gurutze orren gertaera: gerra baten ondoren pakearen pozarekin altxatu zana, urrengo gerrak lurrera bota... Edozeiñi zer pentsatua eman dezaiokena noski.

Arlaban aldeko gaizkilleak

Aita Jose Inazio Lasa zana ikertzaille aspergai-tza izan zan. Artxiboetatik ateratako berriekin, makiña bat idazlan argitaratu zituan an eta emen. Oien bilduma *Tejiendo historia* izeneko liburuan kaleratu zuan, 1977-an.

Irakurketa atsegiña benetan. Antziñako Euskal Erriari buruz milla berri ematen dituana. Atal baikoitzak gai bana jorratzen duan ezker, berdin da edozein orritatik liburua zabaltzea. Orixe da nik noizbeinka egiten detana; eta beti zerbait ikasi, denbora berean une gozo bat igaroz.

Azken aldian, gaizkille eta lapurrei buruz kontatzen dituanak irakurri ditut. Itxura danez, *Sierra Morena*-n ez-ezik, Euskal Errian ere izan genituan garai batean *bandoleroak*. Oien gertaera bat kontatuz osatu nai nuke idazlantxo au.

1815-eko udaberrian, Borbongo Dukea, frantzes, Fernando VII-aren leengusua, Madrillera zijoan, lagun edo serbitzari-talde batez inguratua.

Apirillaren 18-ko goizean, Mondragoien, bi idipare artu zituzten, itzai eta guzi, Dukearen kotxeari erantsi eta Arlabango aldapa errezago igotzearen.

Baiña gora iritxitakoan, ustez zailena egin zutenean, armaz jositako bost gizon atera ziran basotik; eta, aiek ikustean, dukea, serbitzariak eta itzaiak bildurrez arri biurtuta gelditu.

Gizon aietako bat aurrean jarri zan; beste bat atzean, eta gaiñontzekoak kotxea ustutzeari ekin. Beren lana bukatutakoan, berriro ere basoan izkutatatu ziran.

Dukea-eta Gasteiza iritxitakoan, gertatuaren berri eman zuten, galdutako gauzen zerrenda egiñez: urrezko txanponak eta erloju bat, paperak, pitiak...

Ramon Zubiak, Arabako Aldundiaren buru zanak, ertzaiñak edo *cuadrilleroak* segituan bialdu zituan lapurren billa.

Berak aitortu zuanez, Maria Anjeles Bidania, amazpi urteko neska, gatzagarra, bertan zan lapurreta egin zanean; lapurrak euskeraz jardun ziran, eta aien izkera Tolosa-Ernani aldekoa iruditu zitzaion. Berdin esan zuten bi itzaiak ere. Arantzazu aldean, berriz, dukearen kajoi bat azaldu zan.

Ori entzunik, Ramon Zubiak abisua pasa zion Gipuzkoako Aldundiaren buruari, eta onek ingurumari artako alkate guziak jakiñaren gaiñean jarri.

Ogei ta amar gizon armatuk Leintz, Legazpi eta Oñatiko mendiak orraztu zituzten. Baiña esku utsik itzuli ziran.

Zerbaiten arrastoa Oñatiko alkateak atera zuan: lapurreta egin zan aurreko gauean, bost gizon eldu zirala Urrexolako errotara, atea zabaltzeko aalegiñak egiñez. Andik Araozko tabernara pasa, eta ardoa eskatu. Goizeko lauretan, Aizkorbe-goi-koa baserriko atea jo, morroia gidaritzat artu nairik. An morroirik ez eta nagusia beartu zutela. Gatzagako gaiñera iritxitakoan, bost gizon aiek bertan gelditu zirala, eta bera etxera itzuli.

Eskoriatzako alkateak, berriz, auxe atera zuan: lapurretaren ondoko gauean, Bolibarko Agiriano baserrian, iru gizon armatuk zer jana eskatu zutela. Ogia, urdaia, arraultzak eta ura artu ondoren, nagusia eta morroia gidari artu zituztela. Aozaratzara iritxi eta ardoa edan zutela; eta Legazpiko mendietan, alkar agurtu.

Beste aztarrenik etzuten agintariak arkitu. Are geiago: Gatzagako gaiña toki arriskutsua biurtu zan, lapurrak noiznai azaltzen baitziran.

Gaitz ori nola kendu? *Sierra Morena*-n egin zanaren antzera, bizilagunak ugalduz. Ala, Gatzaga aldeko mendietan dozen erdi bat baserri berri altxaziran, basamortu aietan jendea bizi zedin, eta bai lapurretak urritzen asi ere.

Dana dala, Borbongo Dukea, erregearen leengusua izan arren, ederki lumatuta gelditu zan. Lapurrak, berriz, aske eta aberats.

Gure iritzirako, auxe gertatuko zan, gaizkille oiek Tolosa edo Ernani aldekoak baziran beintzat: Dukea eta bere taldea andik pasatzen ikusiko zituzten. Segituan, alkar artu eta, eiztariak beren paradetan zai jarri oi diran modura, berak Arlaban alde aukeratu, olako txoriari atzaparrak eransteke.

Ederra benetan Gipuzkoako txoko ori: Arlabango aldapa, Gatzaga erri bildu-polita, Dorletako Ama Birjiñaren ermita dotorea, udazkenak gorritutako mendi-egalak, aien gaiñetik Udalaitz eta Anbotoko tontor zuriak...

Leku basotsuak oiek gaur ere. Garai aietan, berriz, zer esanik ez. Urte gutxi ziran Espoz y Mina naparrak or bertan frantzesei bi aldiz egurra eman ziela. Era berdintsuan, gaiñera: basotik atera, kolpea jo eta atzera basora. Ea gaizkille oiek arengandik ikasi zuten beren jokoa nola egin...

Oketa mendiko altxorra

Gorbeia mendiaren egal bat eguzki aldera luzatzen da, ia Barazarko kamioa jotzeraiño. Antxe da kasko borobil bat: Oketa mendia, 1.020 metrokoa, pagadiz jantzia eta Arabako partean. Urbilleneko erriak Ubidea, Murua eta Etxaguen ditu.

Gerra-denboran, batez ere, Gorbea-txiki ere esaten zioten. Bertan gertatutako burrukaldi baten berri Sebastin Salaberriak ematen digu, bere *Neronek tirako nizkin* liburuan.

Ni bein izana naiz. Maiatzeko arratsalde eder bat zan. Eguzki ederra, zeru urdiña, ipar aize freskoa, pagoak orduantxe berdetzen asiak, izadi guzia diz-diz eta kantari...

Orain, berriz, gaillur oietan nundik nora ibiltzeko gida-liburu haar bat eskuratu det. *Cumbres legendarias. Aralar, Gorbea* beraren izenburua. Agertu zan urterik ez du esaten. Baiña, oker ez bango, 1955 urte ingurukoa da. Egille-izenik ere ez dakar. Baiña izadiarekin maitemindutako mendigozaleren bat degu, dudarik gabe. Zerana zerala, milla esker.

Liburuxka ortan arkitu det gaurko nere idazlan ontarako gaia. Kontaera polita bera. Ia-ia erderatik euskerara itzultzea beste lanik emango ez didana.

Urte-pilla omen zan gaixotegi batean aiton xaar bat il-zorira etorri zala. Baiña azken uneetan gaixozaiari bere sekretotxoak agertu nai izan zion.

Karlisten azken gerratean (1872-1876) ibilia zala. Bein, gogorki burukatu ondoren, erri koxkor batean sartu zala bere batalloia. Etxeak erdi lur jota zeudela. Illuna bazetorren eta soldaduak aal zuten tokian babestu zirala gauerako. Berari, beste bi lagunekin, torre-etxe batean sartzea egokitu.

Otzak baitzeuden, sua piztu nai izan zuten ango ol zaarrekin. Baiña abe bati tiraka asitakoan, bat-batean zulo bat zabaldu eta antxe bost lapiko agertu, bostak ontzurrez beteak! Inñori ezer esan gabe, beren motxilak eta poltxikoak bete egin zituzten idi-begi dizdizari aiekin.

Urrengo goizean, martxa berriz ere. Arabako Zuia aranean andik onera ibili ziran. Egun txarra ura iru soldadu aientzat: batetik, urrearen karga; bestetik, lagunak edo buruzagiak antzemango zieten bildurra.

Luzaroan orrela jarraitzerik etzegoanez, beren altxorra izkutatzea erabaki zuten. Ala, gauean, lagunengandik berezi, izarren argitan Oketa mendi aldera jo eta larre batera iritxi ziran. Alboan arkaitz-zulo bat ikusi zuten, eguzki aldera begira. Toki aproposa iruditu eta ontzurreak antxe gorde.

Biamonean, batalloiak atakea jo zuan Oketa mendian zeuden etsaien aurka. Ni izan nintzanean ere, antxe ikusi nituan gure azken gerrateko trintxeren arrastoak. Baita bonba-zuloak ere.

Baiña egun artan, iru lagun aietako bi antxe il ziran; bata buruan balazoa artuta; bestea, baionetakada batez.

Irugarrena, gerra bukatu zanean, Oketa mendira etorri eta egunetan batera eta bestera ibili zan egal eta baso aietan, mendi guzia aztertuz. Baiña alperrik.

Ala, egun bateko aberatsa izan zana, kanta zarrak dionez "arrote miserablea" bizi ondoren, era berean eman zuan azken arnasa gaixotegi batean. Azken orduan bere sekretua agertu ala ere gaixozaiari.

Andik denbora puska batera, artzai gazte bat bere txabolan zegoan Gorbeia mendian, Bizkai aldeko egaletan. Bat-batean, zakurra zaunkaz sentitu. Erten eta mutil gazte bat aurrean. Onek galdetu:

- Oketa mendia nun da?

- Gaur laiño dago eta berandu da. Ezagutzen ez badezu, etzera iritxiko.

- Biarko utziko det, gau-ostatua ematen badi-dazu.

- Pasa barrura.

Su ondoan apari-legea egiñez, kontu kontari asi eta azkenerako alkarrengana konfiantza egin.

- Zuk Bilboko fabrikaren batean lan egingo dezuzu?

- Ez; gaixozaia nazu. Ola eta ola etorri naiz.

Egunsentian antxe zijoazen biak, bakoitzak bere ametsak buruan, Egiriñao, Aldamiñape eta Aze-roganetik barrena, Oketa mendira.

Iritxitakoan, gogotik saiatu ziran, leer gaizto egin arte, arkaitz-zulo guziak arakatuz. Baiña aien egiñala ere alperrik. Etorri bezin utsik itzuli bear.

Urte mordoa pasa zan berriz ere. Garai bateko artzai gaztea xaartuta zegoan. Egun batez, arrotz batek aren baserriko atea jo. Ura ere xaarra. Bi mutil gaztek laguntzen zioten. Semeak zituan. Nor izango eta Oketa mendiko altxorra billatu nairik ibili zan gaixozaia. Bi aitonen poza alkar ezagutakoan!

Artzaiak etxeko gizonezkoak bildu zituan. Ura nor zan adierazi zienean, berriz ere altxorraren billa asteko gogo-berotu danak ere. Abiatu ziran, atxur,

piko eta pala-faltarik etzutela. Egin zuten berak ere beren aalegiña, baiña alperrik orduan ere.

Ori da gida-liburu orrek kontatzen diguna: aspaldian eguzkiaren argirik ikusi gabe eta txintxin-otsik egin gabe, ontzurre pillaren bat badagoala Oketa mendiko zokoren batean. Egia? Gezurra? Nork jakin?

Terranobaraiño joan etorriak

Ama Birjiña Itziarkuaren kondairatxoa izeneko liburuxka Tolosan argitaratu zan, 1884-an, *Francisco Muguerzaren moldiztegui*an. Beraren egi- lleak Bizente Aizpuru eta Frantzisko Maria Gorostegi izan ziran.

Jaun auek, Pedro Jose Aldazabal-ek 1767-an erderaz agertu zuana artu zuten oiñarriztat: *Breve historia de la aparición del más luminoso Astro y brillante estrella de la mar, la Milagrosa Imagen de María Santísima de Iziar*.

1884-ko orrek, bostgarren atalean, Itziarko Amak egindako mirarien berri ematen digu. Oietako bat onako au:

“1700-ren urtea zan gutxi gora-bera, Pasaiaiko portutik Amsterdam-erako irten zanean ontzi bat, agintari zuala Getariake seme Jeronimo Bengoetxea kapitana, Giron kapitanaren izenez ezagutuagoa.

Lana edo illez kargatua zijoan ontzia; eta bertan zijoazenen asmoa zan karga entregatuta bereala joa- tea Terranobara, baleen arrantzara; baña Ingalaterra- ko kanal edo itsasartera iritxi ziranean, ekaitz furio- tsu batek galerazo zien bizitzaren esperantza guzia.

Baziran bost egun bagen jostaketa egiña zebille- la ontzia, aetan surik ere ezin irazeki zutela, eta bi-

tartean bi ontzi ondatzen ikusteak galerazi zien bizitzaren esperantza guzia.

Kristauak ziran bezela, ontzian zijoazenak egiten zituzten seguru uste zuten eriotzarako prestaerako akto edo egintzak; eta ona emen non Zeledonio Zurbano zeritzan Debako mariñel bat oroitzen dan bere kofrean zedukanaz.

Ama Birjiña Itziarkoaren mantuaren puska bat zan, orduan bikario zan D. Juan Itziar-gandik alaja parebage eta erregalo preziotsu bat bezela iritxi zuana.

Au aditzean, kapitanak agindu zuan Pasaiako mariñel guzien artean animotsu batek para zezala erliki ura ontziaren goienean, promesa egiñaz barrika ta erdi lumera Ama Birjiña Itziarkoari erregalatzeko, libratzen bazituan eriotza seguru artatik eta arrantza ona izaten bazan, eta edozein moduz barrika bat, promes egiten zutela mariñelak ere Ama Birjiña bisitatzeko eta berari eskerrak emateko.

Paraturik erlikia ontziaren goienean, asi ziran Salbea kantatzen, eta bukatu zuen baño lenago aldegin zuan peligroak eta desegin zan ekaitza.

Karga Amsterdamen entregatuta, aurrera eraman zuten beren biajea Terranobara, eta añ ugaria izan zan arrantza, non amabost egun bakarretan artu zituzten 700 barrika lumera, zeña zan ontziak ekarri zezakeen guzia.

Beren etxetara biurtu ziranean, kunplitu zuten beren promesa, eramanaz agindu zuen limosna, zeñak balio izan zuan 45 eskutu.

Au da gertaeraren gañean Frai Joseph Jesus Maria eta Arakistaiñek kontatzen duana, bear dan moduan idikitako billaginde edo informazioaren ondoren bezela, egia jakiñ zediñ bear dan eran”.

Kontakizun onek bi alderdi ditu. Bata, Ama Birjiñaren laguntza edo miraria kontatzen diguna, eta ontaz nai duanak nai duana pentsa dezala, gaur egunean gai oni buruz ainbeste iritzi-mota diranez.

Bestea, berriz, gure antziñako itxas gizonen ibillerak zer ziran agertzen duana; eta ontaz danok bat etorriko gera: Pasaia, Ingalaterra, Amsterdam, Terranoba, baleen arrantza, karga-mota bat eraman, bestea ekarri, orduko ontziak, itxasoko arriskuak... Gizon bulartsuak benetan, gaurkoak ez ezik, garai bateko gure mariñelak.

Euskal literaturan aaztuta dauzkagu orain eun urte argitaratzen ziran liburuxka oiek; Itziarko Amari eskeiñitako au eta beste asko, alegia. Gure aur-denborako dotriña baiño txikiagoak eta meagoak izaten ziran, eta kristau jaieraren bat zabalteko edo santutegi baten berri emateko idatziak.

Nik banaka batzuk eskuratu ditut, eta bai atsegiñez irakurri ere. Berri jakingarriak ematen baitituzte. Pitxi ederrik atera diteke oietatik.

Bertso-paperen antza artzen diet nik liburuxka oiei. Biak ere, liburu-maillara irixten etziranak ditugu, eta erri xumeari zerbait esan nai zioten gizonak, bertsolariak edo apaizak, moldatuak.

Bertso zaarrei akatsak billatzen dizkiegun bezela, liburuxka auen izkerari ere oker nabarmenak edozeiñek arkituko dizkio. Baiña bertsoak erriaren biotzeraiño irixten ziran, eta argitalpen auengatik ere berdin esan diteke. Plazaratu ere orretxegatik egiten ziran. Eta, iñungo diru-laguntzarik gabe, beren buruari berak eusten zioten zutik.



Itziar, Gipuzkoa.

Nuestra Señora del Yugo

Izen ori duan Ama Birjiña Naparroako Erriberan degu, Argedasen.

Erri au muiño soil eta arritsu batzuen eguteraan dago. Aien artean gora dijoan artalde-bide bat artu det; *cañada real* deritzana alegia. Iraillean geranez, Bardeetan aurki sartuko dira Naparroako artaldek. Ego aldetik datorrenik baldin bada, emendik pasako da.

Guruzbidea asten dan tokitik ikusten da leenengoiz ermita, mendiaren erpiñean, zeru urdiñaren ertzean.

Bertaraiño iritxi naiz. Atea itxita dago noski. Kanpotik zuzendu bear, beraz, nere otoiztxoa. Ondoren, bistak ikusiz begiei gozatu bat eman.

Ego aldera, Ebro ibaiaren ordeka. Ortxe jotzen dute alkar iru probintziko sailak: Zaragoza, Errioxa eta Naparroa. Aruntzago, Soria aldeko mendiak.

Ipar aldera, Bardeetako basamortua: bere lur-estalkia galdutako eremu idorra, erririk gabea, neguko jelak eta udarako beroak erretakoa... Atzean mendiak: Uxue, Elomendi, Izaga, Leire, Peña, Santo Domingo...

Ermita inguruan piñu gazteak. Ez dakit orregatik aldatuko zituzten; baiña ermita onen leiendak zer ikusirik badu zugaitz-mota orrekin.

Nekazari erren batek, emen inguruan egoartea golde-lanetan eman ondoren, eguerdian ganaduei uztarria kendu eta piñu batean utzi zuan. Bazkaldu eta atseden artutakoan, uztarriaren billa joan eta antxe arkitu zuan Ama Birjiñaren iduri bat.

Errira jetxi eta gertatuaren berri eman. Baiña iñork sinistu ez. Mendira ostera, eta Ama Birjiñari agerpenaren ezaugarriren bat eskatu. Une artantxe bizi berria bere anka elbarrian sentitu, eta erabat sendatu. Korrika jetxi zan. Erritarrak orduan sinistu, eta iduria azaldutako tokian ermita altxa.

Argibide auek Jacinto Claveria-ren *Iconografía y Santuarios de la Virgen en Navarra* liburutik ditut. Baiña beste berri batzuk ere ematen dizkigu.

Adibidez, 1820 urtean gertatua. Orduan ere anai arteko gerra zebillen Españian. Batetik *realistas* izenekoak; bestetik, konstituzio-zaleak.

Auek eskutitz bat bialdu zioten Argedasko erriari, dirua eskatuz. Alkateak kasorik ez. Andik egun batzuetara soldaduak etorri. Aien buruzagiak alkateari kargu artu: ea zergatik etzuan eskatutakoa ematen. Alkatea ixilik. Buruzagi ura bialdutako eskutitzaren billa asi maai gaiñeko paperen artean. Antxe omen zegoan, baiña arkitu ez.

Asarre bizian kanpora atera eta ezpatarekin alkateari eraso. Onek, ordea, bere kaparekin ezpata-kolpeak gelditu. Denbora berean, Ama Birjiñari laguntza eskatu. Orduan, bestela ezin zuala eta militar arek pistolarekin iru tiro tira; baiña iruretan utsegin, eta alkatea salbatu.

Beste au Jose Maria Iribarren napar idazle ospetsuak kontatzen du, *Retablo de Curiosidades* liburuan. Bere aur-denboran Argedasko andre bat ezagutu omen zuan, erritarren enkarguak egitera Tudelara joaten zana. Batean, bere astoaren gaiñean zijoala, zezen bildurgarri bat zetorrela ikusi. Or-

duan Ama Birjin oni babesa eskatu. Eta zezenak bere adarkada tira bai, baiña alpargata kendu beste okerrik ez omen zion egin.

Zerbait geiago Felix Zapatero-ren *En el 9º de Navarra* nobelan arkitu det. Ermitaren bide-ertzean arri-pilla bat omen zan, garai batean beintzat. Erro-meri-egunean, maitemindutako neska-mutillak, ara iritxitakoan, arri bat eskuan artu, biak berari musu bana eman eta pillara botatzen zuten, ori egiñik beren ezkontza seguratuta zegoala uste osoan.

Ondoren, Ama Birjiñari gogotik kantatuko zioten:

*En las alas de tu amor
a un alto pino viniste
y alegre te apareciste
a un sencillo labrador,
quedando bajo tu huella
el yugo de corva hechura.*

*Sois de Dios paloma bella,
de cielo y tierra dulzura;
sed, del Yugo Virgen pura,
de mi navecilla estrella.*

Beeraka asi naiz. Soro batean zerbait erretzen ari dira; eta keak, iparraizeak eramanda, bide luzea egiten du lurrari itsasita, altxa eziñik. Beste soro batean goldetzen ari dira: eta eguzkiak urre-kolorez janzten du traktoreak arrotutako autsa.

Baiña zerua goibeltzen dijoa. Ala ere, laiño tar-teetatik eguzki-erraiñuak pasatzen dira, Ebro aldea an-emen argituz. Atzean, berriz, Moncayo mendia, aundi eta bikain, lurralde ontako erregea balitz bezela.

Iturengo ikaslea

(I)

Jose Antonio Muñagorri, Berastegin 1794-IV-2'an jaioa, bertako eskribaua izan zan. Erasungo Zumarrista burni-olan il zuten, 1841-X-14-ean.

Karlisten leenengo gerrateko seigarren urtea zan; 1838-garrena. Jendea gerraz aspertuta zegoan noski. Baiña irabazlea nor izango zan, etzan artean ikusten. Pake-erraiñurik etzan inñundik ageri.

Ala, apirillaren 18-an, dei bat egin zuan Muñagorrik: Euskal Erriak *pakea eta fueroak* besterik etzituala bear. Bertsoak atera arazi ere bai, bere asmoak agertuz. Aren oiua min aundia egin zien karlistei; eta auek izan ziran beraren etsairik gogorrenak. Ori ongi kontuan artu bear da, ondoren esango ditugunak ulertuko badira.

Bi milla gizon bildu zituan Muñagorrik. Lastaolan jarri zuan aientzako kanpamentua, Irun eta Endarlatza bitartean, eta urtearen bukaeran an zeuden.

Muñagorri buruz lan mamitsua agertu zuan Antonio Maria Labaien zanak. Argibide zeatzak nai dituanak badaki, beraz, nora jo bear duan.

Baiña aren liburuan ez dauden berri batzuk arkitu ditugu Pedro Migel Urruzunoren lantxo batean. *Gabon-gau bateko oroipenak* beraren izena, eta *Euskalzale* aldizkarian azaldua, 1898-an. Onela dio:

“Gipuzkoako bigarren batalloeko konpañian batzuek geunden Lesakan (Naparroan), elurra kanpoan eta gosea barruan giñuzela.

Agintzen digu kapitanak zortzi soldaduri, jarraitzeko kabo bati eta aren esana egiteko. Arratsalde erdian baguaz errekondo batean aurrera eta aurrera.

- Auxe dek, auxe -esaten giñon soldaduak elkarri-. Gabon gaba, goseak, oñutsik, elurretan, nora ta zertara goazen eztakigula. Alako batian “alto” egiñ giñon kabuari.

- Zer dezute, mutillak? -galdetu zigun berak.

- Eztegula oinkada bat ere eman nai, jakiñ gabe nora eta zertara goazen -erantzun giñon.

- Irungo baserri batean zeudek Muñagorriren mutill batzuek, eta aiek arrapatzera goazik -esan zigun kabuak.

- Eta eztegu ezer jatekorik?

- Nonbait ere zerbait billatuko al diagu.

Sartzen gera lenengo arkitzen degun baserrian eta artiriña beste jatekorik ez genduen arkitu.

Alare talo mordo bat egiñ, jan eta zerbait ase ta bete giñanean, ez baserri batean, baizik gaztelu batean sartzeko ere prest giñan.

Aurrera, ba, mutillak.

Urreratzen gera beste baserri batera, eta bazan antxe soñu, eresi edo kantu, dantza ta zarata. Agintzen digu kaboak jartzeko zortzi soldaduok etxe inguruan, baionetak kalaturik, eta sartzen da bera etxe barrura, bada Irundarra ta ango berri ondo zekiena zan. Laster ixildu ziran ango soñuak, eta asi zan jendea leioetatik saltaka.

Gau oso illuna zan, eta elurraren zuritasunak zerbait argitzen bazuen ere, etxe inguruan zeuden zugatz edo arbolak naikoa illun egiten zuten.

Arrapatu giñuzen bi Muñagorritar, baiña baita ere zauritu edo eritu genduen gerotako bat, itxumustuan eta illunpetan, arrapataka artan, Muñagorritarra zalakoan. Eta badakizute nola eraman bear izan

nuen Lesakaraño bi aietako bat, iru ordu bidean? Lepazamarretik eskuz oratuta.

Ikasle edo estudiantea omen zan, Ituiñdarra, au da, Ituiñ edo Ituren deitzen dan Naparroako erri bategoa: gizaseme gazte asko-asko ederragorik ikusi ere ezin diteken bezelakoa. Zein pozik libre utziko nion nere eskuan egon balitz uztea! Alako errukia ematen zidan gizaseme gazte arek! Baiña etzegoen nigan.


Azaldu zan Lesakara emakume ondo jantzi bat, Ituiñdarraren ama; egiñ zituen alegiñak bere semea libratzeko, baiño alperrik.

Andik egun gutxiren buruan, ai!, ez nuke esan nai baiño zergatik ez? Ai, guda, guda, zori gaiztozko guda! Afusilatua izan zan!...

Igaro dira berrogei ta amazpiren bat urte, baiño andik onerako Gabon gau guztietan oroipen onek ekarri oi dizkit biotzera samintasuna, begietara malakoak eta mingañera erregu bat Ituiñdar estudiante aren animagatik.”

Aitona baten itzak eskeintzen dizkigu, beraz, emen Urruzunok; gaztetan gau artan parte artu zuan baten testigantza alegia. Beraren izena ondoren ematen digu, baita aren esanak jaso zituan urtea ere: “Martínek 1894-an”.

Urruzunoren lana ez da or bukatzen. Bigarren zatia ere badu, baiña urrengo batean emango degu. An ikusiko degunez, Ituiñdar mutil ura karlistetan ibilia zan, eta gero Muñagorriren taldera sartua. Ala, desertoretzat artu zuten, eta eriotz-pena eman.



Ituren, Naparroa.

Iturengo ikaslea (eta II)

Muñagorri altxa zaneko gertaera samingarri bat eskeiñi genduan leengoan, Pedro Migel Urruzunok *Euskalzale* aldizkarian 1898-an agertu zuanez, berak aiton baten aotik entzuna papereratu. Baiña gertaera orren beste kontaera bat ere ematen digu elgoibartar idazleak lan berean, beste aitona bati jaso idatziz:

“Badator Gabon gaba, neretzat gogoangarria.

Karlos bostgarrenaren guda edo Karlos kintoren gerran, Naparruako amaikagarren batalloian baginān askotxo Yantzitarrak, au da, Yantzi deritzon errikoak, eta beste batzuekiñ batean andik iges egin eta joan giñan Muñagorrigana Yantzitar batzuek.

Irungo Lastaolan geunden, eta jaietan joan oi giñan Endarlatzera bitartean zegoan baserri batera, dantza ta jolasean denbora ematera. Gabon illuntzian ere joan giñan, eta dantzan aspertu-aldi bat eginta laster etxeratu giñan. Obe izan genduen, bai, orduan etxeratu giñan! Bada ustez uste gabe karlistak sartu ziran gu atera giñanetik ordu erdi baño len, eta an arrapatu zuten gure kabo furriela, Ituiñdarra, apaizetarako estudiantia, mutill oso ederra, eta izan ala ona. Ai zer atsekabea artu genduen! Anairik ere ez nuen nik aiñ maiterik. Aren amak eun ontzurre eskeintzen omen zituen ura libratzeagatik. Barkazioa edo indultua etorri omen zen, baiño be-

randu. Ordu bete lenago etorri balitz, libre zan mutil gizajoa. Baiño ordurako afusillatu zuten Lesakan. A gizajo gizajoa!

Geroztik, bein baiño geiagotan igaro naiz Irundik Endarlatzara, arrezkero egindako zalpurdi edo kotxe-bidean; baita ikusirik bidearen gañeko aldean base-ri ura, oroitu ere gau artako gertaeraz, Jaunari eskerrak emanaz, eriotzako arriskutik atera nindualako, eta erregutuaz Ituindar nere lagun maitearen animagatik. Igaro dira irurogei Gabon gau, baiño bizirik dago oraindik nere gogoan Ituindar gizajoa, eta beragatik erregutzen”.

Kontalariaren izena ere ematen du Urruzunok: *Batista*. Bai kontaera ori jaso zion urtea ere: 1898.

Irakurlea oartuko zanez, onen aurreko lanaren berri emalea, Martin, ituindar mutilla atxilotu zutenetako bat zan; gaurko au, berriz, Batista, beraren taldean zebillena eta juxtutik libratu zana.

Orain modako jarri da iñoren aotik olako kon- taerak jasotzea. Norbaitek istoria-gertakizun batean parte artu baldin badu, aren oroipenak bildu eta papereratzea. Dokumentuetan arkitzen ez dan bizi- tasuna billatzen diote orri.

Langintza ortan orain saiatzan geran guzioi ia eun urtez aurrea artu zigun, beraz, elgoibar idazle prestuak, era ontako lan gutxi utzi bazizkigun ere. Baiña garbi dago bestek idikitako bideari ekin bes- terik ez degula egin ondorengo guziak.

Ondoren onela jarraitzen du Urruzunok:

“Martín ill zala badira iru edo lau urte; Batista bizi da oraindik 82 urterekin, eta egunik geienetan berarekin itz egin det.

Bada Lesakan ola bat, Biurgaraikoa deitzen da- na, (bi ur edo bi erreka artzen dituen) eta andik bertan zelai lau-lau bat Burtsoro deitzen dana, non- bait bi errekek elkartzen diralako, bi uren erdian da- goelako; bada bi errekek elkaturik, dijoa alde bate- tik eta bestetik olako aldapara dijoan ura, eta erdian

zelaia edo soroa, bada guk zelaia deitzen diogunari an deitzen zaio soroa.

Zelai artan bazan orain berrogei urte burnizko gurutze bat, gaztaiñ zugatz edo arbola bati josita. Zenbat aldiz aren aurrean igaro izan nintzan (oraindik mutill gaztetxoa), beldur santu batekin, txapela erantzi, Aitaren egiñ eta Aita gure bat eta Abe Maria arrendu edo errezatuaz! Bai, beldur santu batekin! An ill zuten Ituindar estudiantea, aiñ ona gizajoa!...

Eta aren ama? Eztakit amagatik edo semeagatik adierazi oi zuten errukitasun geiago Lesakarrak, gertaera au kontatzean”.


Joanak gera Biurgarai toki ori ezagutzera. Urruzunok dionez, bi erreka an biltzen dira; bata, Biurgarai-erreka, sartaldetik dator; bestea, Endaine-erreka, iparraldetik. Soro edo zelai bat ere bada. Baiña gurutzearen arrastorik ez nuan ikusi.

Eguraldi ederra zegoanez, paseatzeari ekin nion. San Fernando iturriaren ondoan baserritar batekin topo egin nuan.

– Inguru ontan gurutze zaarren bat izan ote dan bai al dakizu? –galdetu nion.

– Gurutze berri bat or aurrean daukazu –erantzun zidan–, orain amar bat urte il zan batena. Baiña gurutze zaarra, arrizkoa, Oiartzungo kamioaren bazterrean daukazu. *Abarkero-gurutzea* deitzen diogu.

Joan nintzan eta antxe ikusi nuan, kamioaren ertzeko paretari itsatsita, arrizko gurutze zaar bat. Iturengo ikaslearena ez dala badakigu, ura burnizkoa zan eta. Baiña an ere, noiz eta nola ez dakigula, beste eriotzen bat gertatua izango da...



Lesaka, Naparroa.

San Adrián de Vadoluengo eta Atxurlarien Gurutzea

Petilla de Aragón erria Naparroan dago, baiña ugarte bat bezela Aragoiko lurretan sartua.

Aren jabe egin nairik, aragoitarrak inguratu egin zuten 1308 urtean, aita Moret-ek, bere *Anales del Reino de Navarra* istoria-liburuetan kontatzen duanez.

Naparrak, Zangotzakoak eta auzo-errikoak batez ere, bereala prestatu ziran ura salbatzera joateko. Luis Hutin erregeak bere zaldizkoak bialdu zituan. Danak bildutakoan, Petilla aldera jo zuten.

Aragoitarrak, Petilla ingurua leku egokia etzala-koan, bidera irten zitzaizkien. Bi etsaiak Filera de-ritzaion tokian jo zuten alkar.

Naparroako oiñezkoak erditik eraso zuten; zaldizkoak, bi saietsetatik. Aragoitarrak amor eman eta iges egin, batzuek Sos errira, besteak Ruesta gaztelura.

Etsi-erreza ez izan, ordea, ango jendea. Berriz ere indarra bildu eta Naparroan sartu ziran, Aragoi ibaia pasatzeko San Adriango ibia aukeratuz.

Zangotzatik kilometro batera, Aragoiko kamioaren ertzean, ermita bat ikusten da, erromanikoa bera, *San Adrián de Vadoluengo* izenekoa. *La Magda-*

lena ere esaten diote. Ibairaiño aldapatxo batez jetxi eta antxe da beste aldera pasatzeko leku edo ibia.

Aragoitarrak ara igaro eta Aibar, Tafalla eta Olite aldean ibili ziran, aal zituzten lapurretak eta kalteak egiñez. Ortatik naikoa zutela iritzi ziotenean, itzuli eta ostera San Adriango ibi ortara urbiltzen asi.

Illunbistan iritxi ziran. Etsaiak zai egongo ziran bildurrez, ibaia pasatzea urrengo goizerako utzi zuten. Baiña Aibarko jendea oartu eta Zangotzakoei abisua pasa.

Eguna zabaldutakoan, etsairik inun ageri ez eta ibia igarotzeeari ekin zioten Aragoikoak. Baiña uretan sartuta zeudela, beren gordelekuetatik an atera zitzaizkien Zangotzakoak ibaiaren ezker aldetik, eta Aibarkoak eskubitik.

Aragoitarrak igesari eman zioten. Baiña asko il ziran, batzuk fletxaz josita eta beste batzuk itota. Ibaia odolez gorrituta ikusten omen zan kilometrotan. Ildakoen gorputzak Kaparrosoraiño eraman zituhan urak. Jendea aga luze batzuekin gorputz oiek bazterrera ateratzen jardun zan, arropak-eta kentzeko.

Garaipen orrengatik titulu berria eman zion Napparroako erregeak Zangotzako erriari: *“la que nunca faltó”*.

Naparrak aragoitarren bandera arrapatu zuten. Baita prozesioetan eta festetan atera ere Zangotzako kaleetan barrena.

Ori ikusiz, aragoitarrak tripak jaten egoten ziran. Ala, Korpus egun batez aietako bat zai jarri zan. Prozesioa parera irixtean, zaldiari eragin, bandera zeramanari eraso, eskuetatik kendu eta iges egin zuan.

Baiña gaur kanposantua dagoan ortan, zaldia irrixtatu eta erori egin omen zan. Orduan, segika zetozenak iritxi eta il egin zuten aragoitarra.

Beste zenbaitek dionez, nekazari batzuk orduan antxe egokitu ziran; eta atzetik zetozenak oiur egin zaldizkoa gelditzeko arren. Gelditu ez-ezik, atxur-kolpeka il zuten.

Ondoren, oroigarritzat gurutze bat antxe altxatu zan, gaur ere *la Cruz de los Azadones* deitzen zaiona, eta euskeraz *Atxurlarien Gurutzea* esan genezake.

Zangotzakoak etzuten bandera ura geiago atera. Gazteluan, artxibo batean gordetzen zuten. Baiña 1937-an artxibo orrek su artu zuan, eta bandera erre egin zan. Ango leioa keak beztuta ikusten da gaur egunean ere, gazteluaren torre batean.

Urte mordoa da San Adrian ermita ezagutu nuala. Oso utzita zegoan. Markes edo aundizki batena izanik, eliza eta alboko etxea maizterrak erosi zituan. Onek dana erakutsi zigun. Eliz barrua gari-tegi biurtuta zegoan. Ibai alderako paretan bala zuloak ikusten ziran.

Urteen buruan urrena joandakoan, ermita erabat berrituta arkitu nuan. Naparroako Aldundiaren lana, bertako familiarekin alkar artuta. Nagusiarekin berriro itzegin nuan. Ibiagatik onela esan zidan:

- Gu garai batean, arunzko aldean soro bat genduanez, sarritan ibiltzen giñan emendik ara eta andik onera, batez ere garia ereiteko eta biltzeko garaietan. Orduan udazkena edo udara baita, ibaiak ur gutxi daukanean. Baiña Yesako urtegia egin zutenetik, ur berdintsua ekartzen du beti. Gerroztik arriskutsua da ortik pasatzea, eta ango soroa saldu egin genduan.

San Adriango ibi famatua Yesako urtegiak galdu zuala esan genezake, beraz.

Urrena, leen mutil-taldeak, jai illuntzetan, kitarra eta bandurriekin lagunduz, kalez kale kantatzen zituzten jotak aitatu genituan. Bai berak letra-

-mordo bat eman ere. Kopiatu eta gordeta dauzkat.
Baiña onako au buruz ikasi nion:

*Pa venir a nuestra boda
el día que nos casemos,
se pondrán alicas nuevas
los angelicos del cielo.*

Gerrak bein edo bitan odoldutako leku batean
bageunden ere, pakezko alkarrizketa gozoa izan
zan, beraz, guk egin genduana.



San Adrián de Vadoluengo, Zangotza, Naparroa.

Atondoko eriotzak

*Virgen Santa del Perdón,
Madre del Verbo Divino,
dame alientos al cantar
lo que en Atondo ha ocurrido.*

Orrela asten da bertso-sail zaar bat, erderazko kanta-paper bat alegia. Nik nundik dedan? *N Navarra. Temas de cultura popular* saillaren 311 zenbaki-tik. *Gestas y cantares* beraren izena, eta nere lagun zaarra dan Baleriano Ordóñez beraren egillea. An gazteleraz kontatzen dana euskeratuz osatuko det gaurko lana.

Atondo erria Izako Zendeian dago. Neguko goiz batez iritxi naiz bertara. Etxe bikaiñak emengoak, Naparroako alderdi ontakoak diran bezela. Elizarai-ño igo naiz eta andik begiak alde guzietara zabaldu.

Erri onek, Bizkai mendiaren eguteraan dagoanez, ego aldera du bista guzia. Eskubira, Oskiako menditarte estua. Ortik beraren izena: *Ate ondo*. Andik dator Arakil ibaia, Irurtzun azpian Larraun ibaiarekin bat eginda. Goien, Txurregi mendi lirai-ña. Ego aldera, Sarbil eta Andi mendiak.

Erri ontan, 1884-ko azaroaren 21-ean, Toribio Egia Esparzak, ogei ta bederatzi urtekoa bera, apaiz-etxeke atea jo zuan, gau-ostatua eskatuz.

– Ongi etorria. Pasa barrura.

Apaiza, onen neskame zan Martina Babaze, irurogei ta lau urtekoa, eta Toribio, pake-pakean apaldu eta lotara nor bere gelara joan ziran.

Urrengo goizean, apaiza elizara, meza ematera, neskameari onela esanez:

– Irten aurretik, gosaltzen eman Toribiori.

Gosaltzen ez-ezik, kontseju onak ere ematen asi zitzaion. Toribio ori atorrante bat baitzan. Baiña onek, aren esanak entzun ordez, etxean zan diru guzia eskatu zion, bizirik jarraitu nai bazuan. Neskame xaarrak ezetz eta ezetz. Eta Toribiok, eroturik, labana sartu eta il egin zuan.

Une artan, Juan, eliz-mutilla, enkarguren batekin etorri. Toribio irten zitzaion atera, neskamea kanpoan zala esanez eta andik bialduz.

Urrena, apaiza. Barrura pasa eta neskamearen gorputza antxe lurrean, odoletan.

– Zer egin dek? -esan zion.

Toribiok orduan apaizari eraso, amabi labankada eman eta illotzik utzi. Ondoren, etxean arkitu zuan dirua artu, 690 pezeta guzira, etxeko atea kanpotik giltzaz itxi eta alde egin zuan.

Iruñera joan zan. Emen *La Perla* izeneko ostatuan sartu. An, gela barruan, dirua kontatu; eta bai bizarra kendu ere, itxura aldatzearren.

Urrengo goizean, Atondoko apaizak mezarik eman ez. Erritarrak, arrituta, aren etxera urbildu. Elurra egiña zan, baiña atean oinkadarik ez. Zer ote zan? Barrura sartu eta ura ikuskizuna!

Poliziak bereala atera zuan Toribioren arrastoa. Bai atxitu ere. *La Perla* ostatuan zera salatu zuten: arropak odolez zikinduak ekarri zituala, eta gela barruan diru kontatzen jarduna zala. Diru-poltsa billatu zioten. Onek *Culto y Clero* idatzita zeukan.

Eliz-mutillarekin aurrez aurre jarri eta arek be-
reala ezagutu zuan, naiz eta orain bizarra kenduta
egon.

Toribiok onela esan zion orduan:

– Nik dizkiat kulpak, i ere akabatu ez autelako!

Eriotz-epaia eman eta Iruñen urkatu zuten(1).

Gertaera latz auek gogoratu ondoren, erri ba-
rruan paseatzen asi naiz. Zakurrak gogotik egiten
didate zaunka, baiña kristaurik ez da ageri. Alako
batean, kamioneta bat bozina joaz. Ogia dakarrena,
noski. Bereala, etxe guzietako atea zabaldu eta ba-
koitzetik emakume edo aiton bana azaldu.

Bear duten ogia erosi dute. Ni, pixkanaka, lau
ogi eder daramazkian aiton batengana urbildu naiz:

– Emen, orain eun urte paseak, apaiza il omen
zuten, ez da?

– Bai. Apaiza eta neskamea. Apaiz-etxea eliza-
ren goiko aldeko ori zan. Apaiza meza ematen ari
zala, il zuan iltzailleak neskamea. Garai artan,
erriko etxe guzietan egiten zan ogia. Apaiz-etxean
ez, ordea. Orregatik, etxe ontatik –Ibero du izena-
eramaten zioten. Ala, eliz-mutilla joan zan goiz ar-
tan ere ogiarekin. Atean iltzaillearekin topatu; bai-
ña onek zer egiña zuan jakin gabe bueltatu zan.
Elurra zegoan eta iñor etzan egun artan etxetik
atera. Biaramon-goizean, ordea, apaizak mezetara-
ko kanpaia jotzen etzuala eta danak arriturik. Jo-
an, etxean sartu, eta antxe arkitu zituzten bi gor-
putzak.

Erri au euskeraren mugan dago gaur, baiña
erderaren aldetik. Orduan ere mugan egongo zan,
baiña euskeraren aldetik. Ala ere, bertsoak erde-
raz jarri ziran. Onek, besterik gabe, zera agertzen
digu: bi izkuntzetan zein zan gora zijoana eta zein
beera.

Ona azken bertsoa:

*Dios le dé la salvación
al desgraciado Toribio,
Virgen Santa del Perdón,
Madre del Verbo Divino.*

(1) Eriotz-pena onen berri Pio Barojak ematen digu, bere *Vitrina pintoresca* liburuan, *Verdugos y ajusticiados* atalean:

“Una de las impresiones más profundas de mi juventud fue ver, de chico, desde el balcón de un cuarto de la calle Nueva, de Pamplona, el paso de un reo que llevaban a ejecutar en la Vuelta del Castillo. Iba en un carrito, rodeado de cuatro o cinco curas. Vestía una hopa amarilla pintada con llamas rojas y un birrete. Se llamaba Toribio Eguía. Había matado en Aoiz a un cura y a su sobrina(2).

Dos largas filas de disciplinantes, encapuchados, con sus cirios amarillos, cantando responsos o letanías, iban delante del carro. Detrás marchaba el verdugo, a pie, braceando. Era pequeño, rechoncho; llevaba traje de aldeano, sombrero pavelo y polainas. Todas las campanas de las iglesias del pueblo tocaban a muerto...

Luego, por la tarde, lleno de curiosidad, sabiendo que el agarrado estaba todavía en el patíbulo, fui a verle, y estuve de cerca contemplándole. Después apareció el verdugo a soltar el cadáver, y dió explicaciones ante un grupo de curiosos. Yo volví a casa temblando de horror”.

(2) Bi oker daude emen. Erria Atondo zan; ez Agoitz. Eta apaizarekin ildakoa ez da illoba, neskamea baizik.

Narros-ko jauregia (I)

Aita Luis Coloma, jesuita, (1851-1915), idazle ezaguna izan zan. Osperik aundiena bere *Pequeñeces* nobelak eman zion. Kontaera labur bat ere badu, *El salón azul* izenekoa, Zarautzen, Narrosko jauregian gertatzen dana.

1890-etik 1900-era bitarteko abuztu bateko 23-an, Donostiatik Zarautza joan zala kontatzen du, artean trenik ez eta zalgurdiz, eta illundu ondoren iritxi. Gau artan ziran urteak Parisen *hugonoteen* ilketa gertatua. Narrosko jauregi ortan eman zioten ostatu. Kontu kontari apalondoa luzatu ondoren, bere gelara erretiratu zan. Baiña etxeko bi seme zarrenak kanpoan ziran. Aiek ere agurtu nai eta lotara gabe zai gelditu zan, kinke baten argitan.

Gelara joateko, urdin-kolorezko sala batetik pasa bear zuan. Orman zintzilik iru kuadro zeuden: batean, Jakob lotan, ametsetan zeruraiñoko eskaillera ikusten zuala; beste batean, XVI mendeko zaldun bat; irugarrenean moja xaar bat.

Noizbait ere bi gazteak azaldu ziran. Aiekin itz aspertu bat eginda, bere gelara zetorren aita Coloma. Solairuan kolpe bat sentitu zuan orduan. Baita ere zerbaiten otsa lurrean, bola bat bueltaka balebil bezela. Denbora berean, indar batek bultzata, bera lurrera erori zan. Zutitu, sala urdiñean sartu eta an

solairutik sapairaiño argi bat ikusi zuan, ots arekin batera mugitzen zana. Biak, otsa eta argia, mójaren kuadroaren azpian bukatu ziran. Onen begiak zabaldu eta itxi egiten ziran, eta eskua kuadrotik kanpora aterata zeukan. Zaldunaren begiak, berriz, bi kandela bezin bizi eta gorri ikusi zituan.

Izua ezurretaraiño sartuta, bere gelan sartu eta oian zorabiatuta erori zan aita Coloma.

Urrengo goizean, kuadroak beti bezela zeuden. Ondoren Bilboko bidea artu eta illuntzerako Deustura iritxi zan aita Coloma.

Biamamonean, ango anai jesuita xaar batekin izketan asi. Nungoa zan galdetu eta Zarauzkoa. Narrosko jauregia ezagutzen ote zuan eta baietz.

– Eta agerpenik izaten al da an?

– Bai orixe! Sala urdiñean batez ere. Bein batez judu bat jauregira etorri baitzan. Kristaua zala esan, eta nagusiak, markesak alegia, sinistu. Gero, elizako kalizak-eta ostu eta gela ortan gorde zituan judu arek. Gaixotu, ordea, eta bertan il zan, eta aren anima deabruak inpernura eramán zuan. Baiña atzeko isatsa atean katiatuta gelditu zitzaion. Arrezkero, maiz etortzen da isatsaren billa.

– Gertaera orren berri xuxen dakianik bai al da?

– Bai. Alako aita. Zarauztarra bera ere, Filipinasetan urte-mordoa egiña. Aita eta anaia jauregi ortako administradoreak zituan.

Andik amabost bat egunera aita Coloma Loiolara etorri zan; eta aita zarauztar orrekin topo egin. Narrosko jauregiak galdetu eta onela erantzun zion:

– Zarautzen, orain urte asko, lapurreta bat egin zuan elizan atzerritar batek. Ori da anai xaar orrek aitatutako judua. Ala zan edo zer zan ez dakit. Arrapatu eta urkatu egin zuten. Baiña orrek ez du zer ikusirik jauregiko agerpen oiekin.

– Zerk du, bada?

– Sala urdiñaren kondaira, gure etxean kontatzen zanez, bestelakoa da. Orain irureun urte, jau-regira protestante bat etorri zan; *hugonote* bat. Ostatu eman eta sala urdiñean jarri zuten. Baiña gaxotu egin zan. Apaizak alperrik saiatu ziran Eliz Amaren altzora ekartzen. Il zan eta, diotenez, aren anima eta gorputza deabruak eraman zituan. Erriko iñork ez baitzuan jakin nun lurperatu zuten. Arrezkero, sala urdiñean ots bildurgarriak entzuten dira. Erriaren iritiz, ereje orren anima da.

– Eta ots oiek nolakoak dira?

– Billar-bola bat goitik eroriko balitz bezela. Gerro bueltaka erejearen oia zegoan tokiraiño dijoa.

Aita Coloma arrituta gelditu zan. Olakoxea baitzan berak ere entzundakoa.

– Zuk ots ori iñoiz entzun al dezu?

– Nik ez. Baiña 1830 urte inguruan, gu administradorearen etxean bizitzen giñan udaran; eta neguan, jauregian. Gau batez, errosarioa esaten ari giñala, ateko aldaba entzun genduan. Aita oian zan eta amak amasei urteko anai zaarrari balkoitik begiratzeko esan zion, nor ote zan. Anaia, kandela bat artu eta abiatu zan. Bai andik laster karrasika asi ere. Korrika joan eta anaia an ikusi genduan, izua-ren mende, sala urdiñean. Ango beste atea zabalik zegoan. Aitak etorri eta galdetu zuan: “Au nork iriki du?” Itxi nai eta ezin. Maratillak kendu gabe eta giltzarik gabe zabalduta baitzegoan. Gu oira bialdu giñuzten. Ondoren iñork etzuan gau artako gertakizunik bein ere aitatu.

Colomari azterketan asteko gogoa sortu ziztaion. Zer atera zuan urrengoan kontatuko degu.

Narros-ko jauregia (eta II)

Leengoan esan bezela, Aita Colomari Narrosko jauregiaren misterioa argitzeko gogoia sortu zitzaion. Leenengo argibidea 1863-IX-21-eko *La Época* egunkarian arkitu zuan, *Marqués del Amparo*-ren lan batean. Onen ondorengoak beren aurrekoaren paperak utzi, ari-mutur orri tiraka asi eta azkenerako zerbait atera zuan.

Juduarena 1586-koa da. Arrotz bat agertu zan Zarautzen, Lur Santutik zetorrela esanez. Genova-koa zan. Jauregiko nagusiak, Migel Zarautzek, osatu eman zion. Gau batez, ordea, kanpotar ori elizan sartu, ango pitxiak lapurtu, jauregira ekarri eta bere gelan gorde zituan, aien billa iñor ara joango etzalakoan. Baiña susmuak aren gain eta preso artua izan zan. Bai azkenean aitortu ere. Eta urkatu egin zuten.

Erejearena 1572-koa da. Pedro Zarautz zan orduan jauregiko nagusia. Semea, Migel, Frantziska Maellarekin ezkondata zegoan. Eta alaba, Mariana, ingles batekin, katolikoa zalako andik alde egiña.

Urrengo neguan, ekaitz zital bat altxa zan itxasoan, urak Mollarriko arkaitza ere estaltzeraiño. Olatu bat, jauregiko ormetan jo eta elizaraiño iritxi zan. Amasei itxas-gizon ere galdu ziran.

Itxasoa baretutakoan, an agertu zan txalupa bat, bizirik ozta-ozta zetozen bost gizonekin. Ospitalera eraman zituzten. Aietako bat, gaztea, iñork ulertzen etzuan mintzairaz asi zan. Baiña jauregiko alaba Marianak bere gizonarena zala igerri. Au etorri eta alkarrekin itzegin zuten. Inglesa izan. Pedro Zarautzek jauregira ekarri zuan orduan, eta sala urdiñean jarri.

Inglesak katolikoa zala esan zuan, Frantzitik Inglaterrara zijoala ekaitzak arrapatua.

Baiña gero eta gaixoago, eta azkenean il bearra gaiñean zuala esan bear izan zioten. Ura orduan, bere onetatik aterata, oitik salto egin eta oiuka ezpata bat eskatzen asi zan, bere burua katoliko txar aiengandik libratzeko, menenatu nai zutela ta.

Etxekoak etorri ziran. Ura etzan paketzen: protestantea zala; Parisen, San Bartolome gauean, katolikoek kontra burrukatua; leen gezurra esan zuala, bere burua salbatzeko. Au dana ingleseiz noski, baiña bertako alabaren senarrak dana ulertu.

Oieratu zuten. Bere erritarra alperrik alegindu zan ura gonbertitu nairik. Arek biraoka jarraitu zuan.

Errian orren berri zabaldutakoan, jendea jauregira urbidu zan: amazpi itxas-gizon aiek ereje aren erruz galduko zirala; oitik atera eta itxasora bota bear zala... Pedro Zarautz jaunak naiko lan izan zuan bere erritarrak pakeratzen.

Egunsentian il zan erejea. Ori ixilik gorde eta urrengo gauean parkean lur eman omen zioten. Itxasora bota zutela edo jauregiko orma batean sartu zutela diotenak ere badira. Ala, aren gorputza deabruak eraman zuala esan zuan norbaitek, eta erriak sinistu.

Orixe da aita Coloma-k atera zuana. Orduan jauregira itzultzeko gogo sortu zitzaion, ots aiek zer ziran garbitzera.

Iraillean etorri zan. Aurreko urteko gelan jarri zuten. An zeuden iru kuadro aiek: Jakob lotan, moja eta zalduna. Auek zein ziran ere ikasia zuan: moja, Mikaela Agirre, 1603-an jaio eta irurogei ta amabost urterekin Valladoliden illa, komentuko superiora zala. Zalduna, Migel Zarautz.

Gaua iritxi eta Aita Coloma bere gelara sartu zan. Sala urdiñaren ateak zabaldu zituan. Exeri eta irakurtzen asi. Erlojuak amabiak jo zituan. Etzan ezer gertatu, eta irakurtzen segi.

Alako batean, oinkada arin batzuk. Zer izango eta etxeko zakur bat. Ordubete pasa eta beste ots bat. Zer ote eta beste zakur bat, sukaldean puskarren bat arrapatu eta ura jaten ari zana.

Ostera zai jarri. Denbora aurrera. Baiña gau artan etzan ezer ere gertatu. San Bartolome gaua etzalako agian? Ez dakigu. Baiña aurreko urteko ots aiek zer ziran ezin garbiturik gelditu zan aita Coloma. Ondoren, dana paper zurira pasa zuan.

Kontatzen duana egia ote da? Ez al da nobelista aren asmakizunen bat izango? Baditeke. Baiña arek sekretu ori berekin eraman zuan beste mundura.

Narrosko jauregira urbildu naiz. Aren armarrarian onela irakurtzen da: *“Zarauz antes que Zarauz”*.

Coloma-k onela dio:

“Nada más triste que la entrada y el aspecto de esta antiquísima mansión señorial, que recuerda por lo artística y sombría una decoración de ópera romántica... Un gran parque semicircular de árboles seculares frondosos y copudos, sombreado en parte por la negra mole de la iglesia; bancos rústicos, un lago y una antigua cruz de piedra cubierta de yedra...”

Jauregia olaxe dago gaur ere. Baiña putzurik ez dago eta gurutzeak untzarik ez du. Beste aldean

Zarauzko ondartzza. Au eta jauregiko ormak kolorez berdintsuak dira. Baiña bai alde batetik eta bai bestetik, ate-leioak ondo itxita daude, etxe onek kanpoko munduarekin ezer ere nai ez balu bezela, bere sekretua obeto gordetzearren...

Jentil-zubi

Jentilzubiren leen aitamena, nik arkitu ditudanetan, Juan Ernesto Delmas (1822-1892) jaunak egiten duana da. *Euskal-Erria* aldizkarian agertu zan 1880-an.

Baiña jaun orrek leienda edo istori-sail bat idatzi eta inprentan zuan, eta andik artuta.

Delmas orrek dionez, *Jent-il-Zubi* bear omen du, ez *Jentil-zubi*; eta *Puente de la Muerte* bere esan naia, eta ez *Puente de los Gentiles*. Nekez arkitu da gaur iritzi orrekin bat etorriko danik. *Jentil-zubi* bear duala dudarik ez da.

Ondoren, leienda ori kontatzen du. San Antonio egun batez, Arratiako erromes-talde bat Dimatik Urkiolara zi Joan, oitura zaarrari jarraituz.

Egun kiskalgarria zan. Alako batez, laiño beltz batzuek eguzkia estali eta euri-erauntsi bildurgarria asi zuan.

Arratiar aiek, an urrean, Kobalde izeneko lekuan, Baltzolako kobak zirala bazekiten eta aruntz abiatu ziran, aterpe billa.

Baiña tximista batek geldi arazi zituan. Berriro ere ekin zioten, baiña beste tximista batek kobara joaterik etzegoala erakutsi zien. Orduan, abots bildurgarri bat entzun zuten:

– Errukarriak! Nere barrutian nola sartu zerate? Ez al dakizute zuen otoitzak ez dutela ezer baliu? Alde emendik, jende nazkagarria! Ez dago zuek emendik bizirik aterako zaituen San Antoniorik!

Erromes aiek, izuak arturik, onela zioten:

– San Antonio, lagundu gaitzazu!

Orduan mendi bat gainera zetorkiela ikusi zuten. Beren bizi azaldu, errezatzen asi ziran.

Baiña denbora aurrera eta ezer gertatu ez. Begiak altxa eta arkaitzak beren buruen gainean nolabait geldituta ikusi zituzten. Bai abots gozo bat entzun ere:

– Zuen bideari segi!

Aurrera jarraitu, Kobaldera iritxi eta an ikusi zuten arkaitzak arku arrigarri bat egiña zutela. Uraxe da geroztik *Jentilzubi* izenez ezagutzen dana.

Jose Migel Barandiaranek ere aitatzten du, bere *Diccionario de Mitología Vasca*-n: zubi ori berez egiña dala; inguruko kobetan jentillak bizi izan zirala; Urrusti menditik urrengo mendira joateko zubi or-tatik pasatzen zirala; ango Axlor izeneko ar-zuloan antziñako gizonen ezurrak eta aztarrenak azaldu dirala, eta abar.

Dimako Faustino Etxebarria bertsolariak, ber-
rriaz, onela dio bere *Nire gazte denpora* liburuan (1):

“Gure etxeti gertu dagoz Baltzolako Kobak esaten jaken kobak. Koba orren ondoan dago Jentilzubi esaten jakon atxezko zubia. Aren ganetik auntsak pasatzen dira, eta geu be gaztetan sarritan pasatzen giñan. Baña ez dago ondo pasatzeko.

Lengo zarrak esaten eben jentillak ebizala zubi ori ondo egiten, eta Dimeko kanpaia entzun ebela, ta koba barrura sartu zirala, eta oraindik koba barruan dagozala.

Agaiti, gabaz ara ondorantza ez joateko esaten euskuen aitak eta amak, ze jentillak gabaz urten laikiela kobati buelta bat emoten da.

Ba Jentilzubi ori an dago,
au da gauza seguruan,
baña ziuurrik nok egiña dan
ez da jarri liburuan.
Baña zubia tenterik dago
oin be lengo inguruan,
oraindik ziurtasunik barik
jakintsuaren buruan”.

Are geiago: Faustino Etxebarriak gogoan du Barandiaran jauna nola ibili zan Baltzolako kobak aztertzen, bere *Nor garan azaldu* liburuan dionez:

Etorri ziñan egun batean
ni jaio nintzan etxera,
Baltzola deitzen kobak ikusi
ta al zana billatzera.
Gure gerraren aurreti zan au,
banoa akordatzera,
nire aita ta ama orduan,
zeu be gogorauko zera,
egunez koban lan egin eta
gugaz gaba pasatzera.


Bertaraiño joan naiz: Dimatik Indusi auzora.
Andik Gibiltar baserrira. Urrena, erreka-zulo batean gora. Ura saltoka arkaitzetan beera. Goraxeago, erreka ori arri tartean sortzen dan lekua.

Bertan, goi aldetik, Jentilzubi ori. Arkaitz aundi batek arku bat egiten du; bidea azpitik pasa; arteak eta untza an eta emen arkaitzaren estalgarri.

Aurrera segi eta Kobaldera iritxi: amiltegi bat goizeko eguzkiarekin txuri-txuri; arte beltz batzuk aitz tartetan, erdi zintzilik, beren adarrak egoaizeak mugitzen dituala. Antxe kobako ao illuna.

Leku arrigarri oni begira egon naiz minutu batzuetan. Alako batean, burutapen bat sortu zait: toki au ez al da jentiltasunaren santutegi bat izango? Eta Jentilzubi au beraren atea? Ez dakit, baiña ez nuke ezetz esango.

(1) *Auspoa* 237, 1966.



Jentil-zubi, Dima, Bizkaia.

Aianzko gaztelua

Iruñetik Aragoi aldera goazela, Noaingo bide-gurutzean ezkerretara artu oi degu geienetan, Elortz eta Ibargoitiko aranak igaro, Loitiko gaiñera igo eta Liedenara eta Zangotzara jexteko.

Beste bide bat aukeratu det gaurkoan. Huarte atzean utzi eta bereala naiz Elkanon. Emen Joakin Lizarragaren (1748-1835) oroipena datorkit. Erri ontako seme eta bertako erretore izanik, ainbat sermoi euskeraz utzi ziguna.

Urrotz erria urrena. Izaga mendia ageri da aurrean, San Migel ermitarekin. Eskubira, Liberriko gaztelua. Billabetako eliz erromanikoaren ondotik segi. Agoitzko bidea ezkerretara utzi eta Aos errian gelditu naiz. Au gain batean dago, eta Longidako arana aurrez-aurre ikusten det: labore-soro ederrak berde-berde, aien erdian Aianzko gaztelua, eta Leireko mendi luzea urrutian.

XIV mendera atzeratu gaitezen orain. Karlos II (1349-1387) zan orduan Naparroako erregea. *El Malo* izengoitia erantsi ziotenez, etzan ura ere aldare batean jartzeko modukoa izango.

Errege ura Evreux etxekoa zan; frantzesak, bezaz. Frantzian erri eta gaztelu asko bereak zituana. Ango erregearen alabarekin ezkondu zan. Aitagiarrebari bereak zitudan eta aren mende zeuden lu-

rralde batzuk eskatzen zizkion. Baiña arek suiari entzungor egin.

Karlos II-ak zer egin zuan orduan? Naparroan gudarozte bat bildu, Baionara eraman, itxas-ontzietan sartu eta Normandian legorreratu. Ipar-amerikarrak eta inglesak 1944-an egin zutena ez da, beraz, itxas-ertz ontan egin dan leenengo *desembarcoa*. Ondoren, Karlos II-aren gizonak lurralde aietan barrena kalte aundiak egiñez ibili, al zutenari atzaparra erantsiz.

Frantziako erregearen semea Naparroako erregearen lagun miña zan, itxuraz beintzat. Ala, Ruan-go gazteluan bazkari batera gonbidatu zuan. Bazkari alai zijoan. Baiña alako batean eun zaldun azaldu ziran, armaz josita, eta Naparroako erregea eta bere lagunak preso artu zituzten.

Une artan, Frantziako erregea agertu zan, eta agindu au eman: presoak gela banatan sartzeko, aitortleren bat ekartzeko aiei, eta urkamendia prestatzeko. Mandatu oiek egin bitartean, Frantziako erregeak bapo bazkaldu. Ondoren, preso artutako bost zaldun urkamendira igo arazi eta an lepoa moztu. Naparroako erregea, berriz, Parisa eraman eta Louvre-ko torrean kartzelan sartu. Andik Cambresi lurraldeko Alleux-ko gaztelura aldatu.

Berri oiek sutan jarri zituzten Naparroako erregearen zaldunak: normandiarrak eta naparrak. Baita erregearen anaiak Inglaterraren laguntza lortu ere. Gerran gogor asi ziran. Baiña orduko gertakizun guziak ezin aitatu eta bakarra kontatuko degu.

Napar zaldun batzuek Normandiako beste batzuekin alkar artu zuten. Naparren izenak: Rodrigo Uriz, Korbaran Lehet, Karlos Artieda, Garroko barroia, Juan Azkona, Migel Etxahuz eta Fernando Aianz. Azken au aurrean daukagun gaztelukoa eta taldearen buru egiten zuana.

Ikazkin batzuekin izketatu ziran, eta aien arropak jantzi eta zaku ikatzak eta egur-zamak bizkarreran artu; baiña bai ezpatak ere, ondo izkutatuta. Illunabar batean Alleux-ko gazteluko atearak jo zituzten. Guardiak, ezer txarrik pentsatu gabe, aurrera pasatzen utzi. Aiek, ordea, barrura sartutakoan, beren ezpatak atera eta aurrean jartzen zana aldearik alde zulatu. Orrela libratu zuten beren erregea. 1357-ko azaroan gertatu zan ori.

Berri auek Frantzisko Aleson-en *Anales del Reino de Navarra*-tik artuak ditut, eta onek onela dio:

"...la hazaña... fue muy celebrada y dignamente aplaudida, no solamente en Navarra, sino también generalmente en Francia y en las otras Naciones de Europa. Y lo será eternamente en todas las del mundo a donde llegare su noticia, y tuviere estimación el honor y la valentía".

Betiko gorde zitezten, zaldun aien izenak idatzi egin ziran *Cámara de Comptos* dalakoan, *Árbol de la Fama* izenekoan. Erregeak ere ondo saritu zitu.

Gertaera oiek buruan erabili ondoren aurrera jarraitu det. Aos erria dagoan gaiñetik jetxi naiz, baiña Aianzko gazteluraino ezin iritxi, sarrera galezarazita dago eta.

Kamioa Irati ibaiaren ertza ikuitzen du zenbait alditan. Artiedako gaztelu ederra eskubira. Emengo ote zan Karlos Artieda, erregea libratu zuten zaldun aietako bat? Erripodas errian, Areta ibaia pasa. Ilunberri erria, gain batean. Ango *foz* edo menditarte estua ezkerrera. Urrena, *Venta de Judas* izeneko bide-gurutzea. Kamio au emen biltzen da Noaindik datorrenarekin.

Solferinoko itxua

Napoleon I edo Napoleon Aundia nor zan danok dakigu. Napoleon II, berriz, aren semea izan zan, ogei ta bat urterekin illa. Eta Napoleon III, aren illoba, aren anai Luisen semea.

Onek Frantziako leendakari izatea lortu zuan 1848-an; eta enperadore 1852-an. Osabaren bidea jarraitu nai zuala dirudi. Ala, nunai gerra egiten asi zan. Krimean Errusiaren aurka 1853-an; urrengo, Austriaren aurka Italian.

Onek, izan ere, zatitua egonik, batasuna nai zuan. Baiña Austria aren puska eder baten jabe zan. Ura ari kentzearren, Italia eta Frantzia alkartu egin ziran. Ortik asi zan gerra, 1859-an.

Mutil-bilketa ez dakigu nola egingo zan. Aietako batek betiko pena izango zuan joan bear izana:

Harmen hartzerat deitu ninduen
gazterik zorte etsaiak,
urrundu nintzen herri alderat
itzuliz usu begiak.

Frantziako soldaduak Italiara jo zuten, Alpes mendietan barrena, Napoleon aundiak irurogei ta iru urte leenago egin zuan bezelaxe. Aren illobak ori gogoan zeukala nork duda egin? Ala, Solferinoko

errira iritxi ziran. Baiña ura ez ikusia obeko zuan
onela esango zuanak:

Zorigaitzean baitut ikusi
Solferinoko hegia!
Alferrikan dut geroztik deitzen
iguzkiaren argia.

An jo zuten alkar bi etsaiak, Frantzia eta Italia
garaille gertatuz. Berrogei milla gizon il ziran. Pakea
bereala egin zan. Bizirik geratuak beren errietara
itzuli ere bai. Aietako batentzat alperrik izango zi-
ran andik aurrera eguzkia eta izarrak:

Nihoiz enetzat ez da jeikiren
goizeko argi ederra;
zeru gainetik nihoiz enetzat
distiraturen izarra.

Itxuturik baitzeturren:

Betiko gaua, gau lazgarria,
begietarat zait jautsi;
ene herria, ene lagunak
nihoiz ez behar ikusi!

Bere maiteen begiak ere ezin ikusi:

Ene amaren begi samurrak
betiko zaizkit estali.
Maiteñoaren begitarteak
behin betiko itzali.

Jaioterriaren inguru ederra ere ez:

Larrainetako haritz, gaztaina,
mendietako iturri,
horiek oro enetzat dire
amets histu bat iduri.

Baiña ongi entzuten zituan erriko mutillak:

Ene herrian gazte lagunak
kantuz plazara doatzi;
eta ni beltzik etxe xokoan
irri egiten ahantzi.

Andik bost urtera, 1864-an, olerki-sariketa ospatu zan Saran. Bialdutako sailen artean, *Solferinoko itsua* izenekoa etorri zan, A. *Salaberry*-k firmatua. Bigarren saria eman zioten.

Igaro berria baitzan, orduko jendeak etzeukan gerra ura zer izan zan iñork esan bearrik.

Baiña olerki onen misterioa ez da oraindik argitu. Onela dio 1959-ko *Gure Almanaka* urtekariak:

“Nehork ez du xilatu ahal izan nor zen Salaberri. Bizkitartean fama da J. B. Elissamburu kapitaina zela bertsu horien egilea. Orok badakite denbora hortan soldadoek ez zutela eskurik, zerbitzuan zireno, deus izkriburik ager arazteko beren izenarekin, eta askotan Elissanburuk gorde du bere deitura *Piarres Adame* sinatuz. Ez litake harritzeko Salaberri ere hura eta bera izaitea”.

Baiña Salaberri ori egiazko gizakia zala diotenak ere badira.


Napoleon III onek, gerraz ezin aspertuz, bere soldaduak Conchinchinara eta Mejikora bialdu zituan. Gero, Prusiari gerra eman 1870-an. Baiña aldi artan kukuak oker jo zion. Sedango burruka galdu eta prisionero egin zuten. Enperadoretza utzi eta Inglaterran il zan, 1873-an.

Beraren emaztea, Eugenia de Montijo, Granadako alaba zan. Baiña aurrekoren batzuk Bizkaikoak omen zituan, Arteagakoak. Ala, jauregi eder bat an altxatzea agindu zuan bere senarrak.

Bitartean zer egin ote zuan Solferinoko itxu dokabeak? Dudarik ez baita Solferinoko burrukal-dian ikusmena galdutako mutillen bat Saran edo auzo-erriren batean izan zanik.

Ala, bertso-sail eder onen egillea itxu ori bera ez bazan, Elizanburu edo besteren bat izanik alegia, onek gerra artan bista galdutako mutillen bat eza-gutu eta aren egoera adierazten digula garbi dago noski.

Andik urteetara berdin egingo zuan Pedro Maria Otañok ere: itxu bat limosna-eske ikusi eta ondoren *Limosnatxo bat* izeneko bertsoak jarri.



Sara, Lapurdi.

Lapurrak

Ondarroako Antiguán

Ondarroako Antiguako Ama Bijiñaren elizari buruz itzegingo det gaurkoan. Baiña erri orrek ainbat euskal idazle eman duan ezkerro, oieta-ko iñork ez ote du nere gai au leendik jorratu? Ala balitz, nere berriak oso zaarrak gertatu ditezke.

1879 urtean, *Euskal-izkribatzalleen indar-neur-tzea* ospatu zan Donostian. Saritutako lanak, urte berean *Antonio Baroja-ren moldizkiran* argitaratu ziran. Baiña, zergatik ez dakigula, egilleen izenak esan gabe. *Antiguako Ama Virjiña* izenburua zuanak, *lenbiziko sariaren aldaera* irabazi zuan.

Egillea Bilbotik Donostira itxasoz dator. Emen Ubako Ama Birjiñaren ermitara lagun batekin igo da, eta au antxe kontu kontari asten zaio.

Bein, amonarekin Ondarroako Antiguara igo omen zan, festa-bezperako Salbea entzutera. Eliza jendez beteta zegoan. Bera, ordea, beste gauza batez arritu zan: korupean gizon batzuk eskopetaz armatuta ikusteaz. Baiña entzun dezaiogun berari:

“Itandu neutsan amonari zertara etozen alan gizon areek.

– Goazen kanpora eta an esango deutzut.

Eta bertatik urten genduan eleizatik, eta jarri giñan eleiz aurrian eguan intxaurpian, eta alan egiztuten asi zan:

- Gaur lako egunen illun abarrian gure antxina-kuak etorri zian Salbera, Ama Birjiñagana biyotzak amodioz beterik. Gaur legez eleizia argiz beterik eguan. Birjiña Santiaren arpegiak zeruko eguzkieen argitasunagaz diztjatuten eban, ederturik bere ta Semiaren jantzi urreariz loratuakgaz, eta urre gorri garbizko koroiakaz, Ondarruako seme batek, Aita Done Agustinen eremutar, Filipiñeetako ugarteeko komentutik eskiñi eta bialduak. Salbia entzunik, jatxi zian guztiak eureen etxetara, biyamoneko jaiian oroitzia ipiñita.

Gauerdiko lo gozuan euazala, esnatu zan uriko jende guztia Antiguako kanpaien otsurru gogorragaz. Gizon bat legez, urten ebeen kalera erdi jantzirik, eta itanduten eutseen alkarri:

- Zer dago Antiguan? Zer esan nai dau kanpai otsurru ain gogor eta jarraituak? Guazen ara.

Eta gizonak eta emakumeak korrika al guztian igon ebeen aldatza; eta, erdi itorik arnas ezin egiñik, ikusi eben miragarrikkoa: kanpai biyak eurak bakarrrik otsurruten ebela. Eleizako atia zabal-zabalik euan; baita altarako argi guztiak biztuta; eta eleiz barruan iru gizon, guztiz itxura txarrekuak.

Bata ur bedeinkatu ontziyaren alboan euan; bestia eleiz erdiyan; eta irugarrena altara gañian, Ama Birjiñaren koroari oratuten eutsala ezker eskuagaz, eta Jesus Umiarenari eskumakuagaz, eta irurak zirkin ezin egiñik.

Uriko alkatia deituagaz, eratxi zitueezen uraistegira, eta ikaragarrikko legautsia ezagutu izan zanian, andik egun batzuetan eruan zitubezeen an gure aurrian dagon mendi gañera, estu-estu loturik, eta an ill zitubezeen, soka bat saman orapildu eta arbol adar baten loturik. Txarto dabiltzenak txarto amaituten dabee.

Iru lapur gaiztueen soñekuak eureen makilletan ipiñi zitubezeen eleiz onen uztaiziñeetan, eta oraindiño soñeko oneek ikusi leikez gaurko egunian ipiñi izan zian tokiyan.

Andik ona lau gizon eskopetadun etorten dira urtian-urtian, uriko Bilgumaren aginduz, Ama Birjiña gordetzeko alako lapurren eskuetatik”.

Oneraiño, beraren izenik ez dakigun bizkaitar jator orren itzak. Baiña kontaera au zer ote da berez? Benetako istoria ala leienda utsa?

Egia bada, lapur oiei auzia egingo zitzaien eta paperak or egongo dira artxiboren batean. Oietzek argituko ligukete gertaera guzia.

Lapurren soiñekoak artean an omen zeuden. Onezkero izkutatuak izango dira noski. Egun ortan lau eskopetadun igotzeko oitura ere galdua izango da.

Baiña Antiguako lapurren gertaera au leienda izango da. Beste zenbait santutegitan ere berdin kontatzen baita. San Migelen adibidez.

Toki oietan izan berria naiz. Deba, Mutriku eta Saturraran igaro eta bat-batean an agertu zait Ondarroa, bere eliz dotore eta antziñako zubiarekin. Eskubira itxas urdin-zabala. Ezkerrera Berriatuko mendiak; eta Artibai ibaia aien tartean bide egiñean.

Baiña nere begiak mendiaren erpiñera dijoaz. An ikusten baitet Antiguako eliza, goizeko eguzkiaren argitan. Zenbat olako kontaera gordetzen ote dituzte gure erri eta mendietako ermitak?

Arteagako jauregia

Bizkaiko Aldundiak, 1856-ko uztaren 17-an, Gernikako arbolaren itzalpean bilduta, oso erabaki berezia artu zuan: Bizkaitik urruti jaiotako aur bat bertako semetzat artzea.

Nor ote zan bera? Napoleon III-aren eta bere emazte Eugenia Montijoren semea, urte bereko martxoaren 16-an mundura etorria. Beraren ize-nak: Eujenio Luis Juan Jose.

Bizkaiak zer ikusteko zeukan orrekin? Amak, naiz Granadan jaioa izan, aurrekoak Gautegiz-Arteagako torre-etxeakoak zituala, eta onen jabea bera zala.

Berri ori ematera bi ordezkari bialdu zituan Bizkaiko Aldundiak Miarritzera, Frantziako Korteaa an baitzan udara pasatzen.

Andre Eujeniari oso atsegin izan zitzaion erabaki ori. Are geiago: M. Couvrechef arkitektoa Bizkaira bialdu zuan, Arteagako torre-etxe orrekin zer egin zitekean ikustera: edo leengo zaarra berritu edo berri-berria altxatu. Jaun orrek gauza arretaz aztertu eta planoak egin zituan.

Andik laster, 1857-ko maiatzean, lanak asi ziran, etxe zaarraren oiñarriak eta ormaren batzuk aprobetxatuz. Baiña beetik goraiño lujo aundiz. Marmola ere ez gutxi, Gautegizko eta Ereñoko arro-bietatik ekarrita.

Bitartean, Napoleon III-ak, bere osaba Napoleon aundiaren pausoak jarraitu nairik-edo, gerra eta naaspilletan sartu zituan bere mendeko soldaduak: Krimea, Austria, Mejiko, Conchinchina, Erroma...

Ondoren, 1870-ean, Prusiari eman zion gerra. Bera ere ara joan zan, Frantziako soldaduen buru, bere amalau urteko seme bakarra alboan zuala.

Baiña aldi ontan kukuak oker jo zion. Sedango burruka galdu eta bera prisionero erori. Ondoren, errepublika-zaleak gaillendu Frantzian, eta berak Inglaterrara alde egin bear. Antxe bildu ziran berri-ro senar-emazteak eta beren seme bakarra.

Napoleon III ondoezik asi eta 1873-ko ilbeltza-ren 9-an il zan.

Semea *Academia Militar* batean sartu eta emeretzi urte zituala, 1875-ean, ofiziale zan. Garai artan Inglaterra, ainbat alditan bezela, Afrikan gerran zebillen, *zulú* izeneko beltzen lurraldean.

Eujenio printzipeak arako eskeiñi zuan bere burua. Amak aalegiñak egin zituan ari amets txoro oiek burutik kentzearren. Baiña semeak bere kaske-tarekin segi. Etzan, bestela, Bonapartetarra izango.

Afrikan, egun batez, kapitan bat, printzipea eta sei soldadu gerra-ibillaldiren batera atera ziran. Atseden artzen zeudela, beltzak ixil-ixilik urbildu, eta bi soldadu il zituzten. Kapitanak-eta iges egin zuten.

Printzipea, bere zaldia aztoratuta, lurrera erori zan. Orduan legoi bat bezela burrukatu zan. Sei bat beltzen lanak egin ere bai. Baiña bera ere antxe lurreratu zan, amazapi zauri artuta.

Orrela il zan, 1879 urtean, Afrikako lurretan, ogei ta iru urteko mutil gazte ura, Frantziako printzipea eta Inglaterrako gudaroztean ofizialea izateaz gain, beste titulu bat ere berekin zeukana: Bizkaiak bere semetzat artua izana.

Franborough-eko komentuan lurperatua izan zan, aitaren ondoan. Ama ere ara eraman zuten, Madriden 1920-ko uztaren 11-n il zanean.


Onek berrogei urte igaro zituan, beraz, bakar-dadean, senarra eta semea galdu ondoren. Amets bat irudituko zitzaion orduan bera Frantziako *emperatriz* izan zan garai dizdiratsu ura. Baiña mundu ontako onoreak apar utsa omen dira ta...

Idazlan au egiteko erabili ditudan liburuetan arkitu ez detana zera da: andre Eujenia au jauregi ontara iñoiz etorri ote zan. Ni baiña jakintsuagoa bearko da puntu au argitzeko.

Arteagako gaztelua urrutitik ikusia neukan bein baiña geiagotan, Lekeitiotik Gernikara joan naizenetan. Baiña ez da denbora asko bertaratu naizela, idazlantxo au dala bide.

Jauregi dotorea da; arri sillare ederrez egiña eta inguruan jardiña edo parke bat duala. Ezagun du gastuaren bildurrik gabe altxatu zala. Berarekin zer ikusirik izan zuten gizakiak emendik urruti bizi eta il ziran. Baiña etxe onek aien oroipena zintzo gordetzen duala esan genezake.

Pena batekin etxeratu nintzan: jauregia utzi smartua ikusi nuala. Andre Eujenia ildakoan, aren illoba zan Peñarandako Dukearentzat gelditu omen zan. Beraren jabea gaur nor dan ez dakigu.



Arteagako jauregia, Gaulegiz-Arteaga, Bizkaia.

El voto de San Indalecio

San Juan de la Peña-n izan nintzan azkenaldian, *Geografía medieval del voto a San Indalecio* liburua eskuratu nuan. Ricardo Mur Saura beraren egillea. Onen lanaz baliatuko naiz gaur. *Voto* itz orrek zer ikusirik ez du gaurko ontan auteskundeekin. Jaungoikoari edo santuren bati ematen zaion itza edo egiten zaion ziña da. Erriak geienbat *promesa* itzarekin adierazi oi duana.

San Indalezio, berriz, Santiagoren ikaslea izan omen zan. Apostolu oni Ama Birjiña Zaragozan Ebro ibaiaren ertzean agertutakoan jarraitu ziona. Bere lagunak Tesifonte, Zezilio, Segundo, Hesikio, Torkuato eta Eufrasio omen zituan.

Andik Jerusalem joan ziran danak. Emen Santiagori lepoa moztu ziotenean, aren gorputza Galiziara ekarri zuten, eta Konpostelan lur eman. Urrena, San Pedrok eta San Pablok zazpi lagun oiek Erroman obispo egin zituzten, eta España gonbertitzera bialdu.

Emen nork bere bidea artu zuan. Indalezio toki askotan saiatu zan fedea zabaltzen. Azkenik, Urci irian, gaurko Almerian alegia. Baiña an itxasora botatu zuten, eta martiri il zan. Kristauak aren gorputza uretatik atera eta bertan lurperatu zuten.

Oraindaiñoakoak leienda dirala esan bearrik ez dago noski; eta urrena ez dakit zer izango dan.

Andik urteetara, 1084-an, Sancho Ramírez Aragoiko erregea zalarik, latinez onela zion arria azaldu zan Almerian: *Emen datza Indalezio, Urci iriko leenengo gotzaia*. Eta azpian San Indalezioaren gorpuzta. Atera eta San Juan de la Peña-ra ekarri zuten.

Orain, berriz, istoriaren barrutian sartuko gera bete-betean. Esango deguna 1187-ko dokumentu batek diona baita. Urte artan, berreun eta ogei ta zortzi errik promesa au egin zuten: legorteak ainbat estutzen zituan ezkeru, erri oietako etxe bakoitzetik lagun bana urtero etorriko zala San Juan de la Peña-ra, San Indalezioari euria eskatzera.

Idazki ortan erri oien izenak ere esaten dira. Geiegi, zerrenda osoa emen agertzeko. Baiña Ricardo Mur Saura jaunak iru taldetan banatzen ditu. Bate-tik, gaur egunean bizirik jarraitzen dutenak; urrena, illik edo usturik daudenak, baiña nun zeuden daki-gunak; azkenik, nun ziran ere ez dakigunak.

Guk beste iru taldetan banatu genezazke. Bate-tik, beren izenak garbi-garbi erderatik datozenak: Casanueva, Castiello, Centenero, Lobera, Lucientes, Miramont, Miranda, Paduls... Urrena, dudazko jatorria dutenak: Grosin, Guasa, Osia.. Azkenik, euskal jatorri garbia dutenak: Arres, Artaso, Artieda, Aisa, Biscarra, Borabe, Exavierre, Xavierregay, Ysuerre, Yzarbe...

Hueskako mendietan antziñako denboretan euskera itzezin zala salatzen dute izen oiek, noiz arte esatea oso gauza zaila bada ere. Latiña izango zan, ziur aski, izkuntza-aldaketa ekarri zuana.

Gizaldiz gizaldi, egindako promesa zintzo asko bete zuan berreun eta ogei ta zortzi erri oietako jendeak. Baiña urteen buruan gainbeera asi zan erromeri ori. XVIII mendean emezortzi erri joaten baitziran; besterik ez. Mende ontan, berriz, oitura zaarra il-zorira iritxi zan.

Orain urte batzuk, ordea, Jaka eta inguruko jaun batzuek erromeri ori salbatu asmoak artu zituzten. Bai lortu ere, gogotik saiatu ondoren. Gero ta geiago dira, beren aurrekoak egindako *voto* edo promesa kunplituz, San Juan de la Peña-ra etorzen diran erriak.

Baiña erri bakoitza bere gurutzearekin igotzen denez, ez dute esaten "oinbeste erri etorri dira", "oinbeste gurutze etorri dira" baizik. Promesa egin zala zortzireun urte betetakoan, 1987'an, berrogei ta zortzi gurutze bildu ziran.

Garagarrillaren asieran izaten da erromeri ori. Izadia edertasun betean egoten da urte-garai ortan, eta alderdi ura zer esanik ez. Ango basoak, ango zelai berdeak, ango arkaitz tenteak, andik ikusten dan Pirineo mendietako ikuspegia!

Baiña San Indalezio ez da ango santu bakarra. Santutzat dauzkate Ataresko Juan, eta Felix eta Voto anaiak ere. Nere adiskide miña zan Hilario Jarne jaunak egun ortan santu oiei kantatzeko bertsoak jarri zituan; eta alkarrekin egindako *Junto al fogaril de Atarés* idazlanean, irugarren tomoan, argitaratu. Ona oietako bat:

*Para que más se remonte
vuestra fama esclarecida,
en este elevado monte
vuestro patrocinio anida.
Con amor nuestra comarca
a suplicaros llegamos;
pilotos de nuestra barca,
en vosotros confiamos.*

Antiguako Ama (Orduña)

Antiguako Ama, Orduñakoa, Txarlazo mendia-
ren oiñean dago, aldapa leguntzen asten
danean, erritik kilometro batera, lorategi batez
apaindua, mendiz inguratutako ango ordeka eder
ura aurrean duala.

Erdi Aroko irudia da, eta aren azpiko zutoia zu-
gaitz-ostoz jantzita dago. Zergatik ote? Aren agerpe-
naren leiendak argituko digu ori.

Antziñako denboretan, mutiko bat, artzaia be-
ra, ardiak larrean utzi eta kabi billa omen zebillen
inguru ontan. Masustondo baten adarretan gora igo
eta Ama Birjiñaren irudia arkitu.

Masustondo ura galdu zan noski. Baiña aren
ondorengoa antxe dago gaur ere eliz-atarian.

Beste leienda bat ere badu irudi onek. Erensuge
aundi batek izututa zeukan Orduña aldeko jendea.
Iñor Antiguako ermitaren ingurura urbiltzen bazan,
arek, sasi tartetik atera, ito eta irentsi egiten zuan.

Bein batez, mutiko bat an zijoan, bizkarrean
igitaia zeramala; edo-ta aizkora, beste batzuek dio-
tenez. Etxerako egur-zama bat egin nai zuan. Baiña
alako batean erensugea atera. Aren begiak argi egi-
ten zuten, eta sudur-zuloak sua zerioten. Mutikoak,
Antiguako Amari erregu egin zion:

– Salba nazazu!

Denbora berean, bizkarrean zekarren igitaia edo aizkorarekin kolpe indartsu bat tira erensugeari, eta aren burua moztu. Kea eta kiratsa zerion odol-erreak nazkagarri bat atera omen zan aren lepotik, arriak beztuz eta sasi eta landareak errez.

Ori ikusi zutenak korrika urbildu ziran; eta mutikoa an ikusi zuten, lurra ikuitzen zuan lainño mee baten gaiñean, esku batean erensugearen burua eta bestean bere arma –igitaia edo aizkora– zuala.

Erensugea ermitaraiño eraman zuten. An aurrena Ama Birjiñari eskerrak eman. Gero, piztiari bizkar-egurra kendu eta larrutu. Aren azala urte askoan gorde omen zan ermitan. Baiña azkenerako auts biurtu eta galdu.

Antiguako Amaren festa maiatzaren 8-an da. Orduñak ez-ezik, Ama Birjin au oso maitea dute inguruko erriak: Aloria, Delika, Artomaña eta Tertanga, lauen artean Arrastaria izeneko arana osatzen dutenak. Aiek prozesioan etortzen ziran Orduñara.

Emengo jendea zai egoten zitzaien erri-sarrran. Danok batera ermitaraiño segi eta elizkizun eder bat egin. Andik atera eta Arrastariako gazte batzuek *entradillas* izeneko dantzak dantzatzen zituzten. Ondoren, prozesioa berriz ere erriaren irteeraiño. Antxe Arrastariako alkateak itzaldi sutu bat egiten zien orduñarrei, beren arrera onagatik eskerak emanez. Eta Orduñakoak beste itzaldi bat, aurrera ere batasunean jarraitzeko eskatuz. Ondoren, txaloak, su-ziriak, kanpaiak...

Gaurko eliza berria da, 1782 urtean bukatua, dotorea benetan. Baiña XII mendean Ama Birjiñaren ermita bat ba omen zan leku ontan. Ondoren, bertan bizitzea eskatu zuten serora batzuek; eta Urbano IV Aita Santuak baiezkoa eman, 1296-ko azaroaren 10-ean.

Euskal-Erria aldizkarian, 1883-an, Antiguako Ama oni eskeiñitako zenbait olerki agertu ziran. Erderaz geienak; baiña bai euskerazko zenbait bertso ere, aita Jose Inazio Arana azkoitiarrak moldatuak. Jaun onek urte batzuk Orduñan egin baitzitan, jesuitak emen zuten ikastetxean. Ona emen oietako batzuk, santutegi eder au nola altxa zan kontatzen dutenak:

Antziñakoan masusta ondoan
eliza jaso zanean,
Birjiña Amaren mesede ugari
isurtzen ziran danean;
orduban danak alkar arturik
ots-egiñ zuten batean:
“Eleiza andi bat egiñ Amari
Orduña uri gañean!”

Eta ara bertan kristabak eunka
alkarren leian lanera,
arrobietan batzuek pozik
arri galantak leuntzera;
besteak berriz arbola lodi
zabalak ebakitzera,
aixkoraz zuri, printzatu, leundu
ta abiak zuzen jartzera.

Nola dabillen erle-samalda
egaka lora gañetan,
erlauntzetara eramateko
eztigaia oñ-ertzetan,
langille danak dabiltza alegiñ
bakoitza bere lanetan,
eliz aundi bat eskañitzeko
Birjiña Amari benetan.



Antiguako Ama Birjiñaren eliza, Orduña, Bizkaia.

Valdejunquera

Gudarozte ikaragarri aundia bildu zuten moroak 921 urtean, eta ekainaren 5-ean Kordobatik irten, bide au egiteko: Toledo, Guadalajara, Medinaceli, Osma, San Esteban de Gormaz, Kalahorra eta Lizarra, emendik Iruñeko bidea artuz.

Sancho Ramírez zan orduan Naparroako erregea. Bere arma-gizonei deitu eta prest jarri zan etsaiari arpegi emateko. Bazekian Ordoño, Leongo erregea, laguntzera zetorkiola. Onen bidea: Burgos, Bureba, Araba... Ura poza leondarrak eta naparrak batu ziranean! Ala ere jende gutxi ziran moroen aldean.

Uztaren 26-an jo zuten alkar bi gudarozteak Gezalazko aranean, Valdejunquera izeneko tokian. Moroak oiua eta danbor-otsak mendiak dar-dar jartzeraiño; kristauak tronpeta soiñua; aiek, alfanje okerrak; auek, ezpata zuzenak; moroak aurrera ta atzera jokerak egin; kristauak beren lekuan tinko.

Asi ziran gizonak erortzen eta lurra gorritzen. Baiña geiago ziranak garaille atera, moroak alegia, triskantza aundia egiñez. Bizirik atera ziran kristauak atzera jo zuten; eta Sarbil eta Andimendiko bi-deak ondo itxi, etsaiak Iruñe aldera jarraitu etzezan.

Moroak etzuten aurrera segi. Iru aste pasa zituzten Naparroako Egoaldea ostu, erre eta ondatuz; eta abuztuaren 16-an beren etxerako bidea artu.

Moret istorialariak dionez, bere denboran, XVIII mendean alegia, artean burruka orren aztarrenak azaldu egiten ziran, batez ere nekazariak golde-lanak egiterakoan: ezurrak, armak eta abar.

Toki artan ii asko zalako dator *Valdejunquera* izena. Moret-ek dionez, bertako jendeak *Iunkadia* esaten omen zion. Muez-tik urbil, berriz, *Larraña-mauru* izeneko mendixka omen zegoan.

Leku ori ezagutzera joan berria naiz. Iruxo errian sartu eta andik ipar aldera begira jarri. Atzean, Andimendiko egalak. Aurrean soro ederrak. Ortxe izan omen zan triskantzarik aundiena. Elizaren ondoan bi gizon eta aiei galdetu:

– Emen Valdejunquera-ko burruka izan omen zan; ez da?

– Leengo zaarrak ala zioten. Gure gazte denboran inguru auetan ii asko zan. Ortik du toki onek izen ori. Mueztarrei, ain zuzen, *juncos* esaten zaie gaitz-izenez. Baiña *concentración parcelaria* egin zanean, lur guztiak goldetu eta emengo iiak orduan galdu ziran. Traktorrak etorri ziranean, oiek lan sakonagoa egiten baitute, giza-ezurrak nunai ateratzen ziran. Muez-tik ipar aldera gurutze bat ere antxe daukazu.

Gurutze ori bereala arkitu nuan. Dotorea benetan, arri ederrez egiña. Idazki batzuk ere baditu. Ego aldera: *Mi anterior fue destruida por una exhalación en 1877*. Mendebal aldera: *IHS* eta koro bat. Ipar aldera: *A mayor gloria de Dios*. Eguzki aldera: *Construido por Cayetano Echauri*.

Idazki oiek ez dute Valdejunquera-ko burrukarik aitatzen. Orrek zalantzan jartzen gaitu gurutzea zertarako altxatuko zan. Baiña jazar ura emen gertatu zanez, dagoan tokian ederki dagoala esan bear.

Burrukaldiaren biaramonean antzuolarrak irixi omen ziran. Moroei eraso eta auek bezperan

arrapatutako gauza asko kendu. Aien artean, sedazko bandera bat. Ortik festetan egiten duten ospakizuna, moro errege, eskopetadun jendea eta guzi, garai artan polbora-armarik ez bazan ere.

Iparragirrek bertsoak baditu, *Anzuolako batzarri / Mairuen bandera* izenburuarekin, 1878-an moldatuak. Ona leenengoa:

Nafarrak On Garzia
errege zutela,
odolez estali zan,
bai, Valdejunquera.
Afrikanoak orruz
legoiak bezela,
zioten kristau bizirik
utzi bear ez zala.

Errege-izen ori ez da Moret-ek ematen duana. Baiña Iparragirrek ala entzungo zuan eta ala idatzi.

Fr. Justo Pérez de Urbel-ek bere *Año Cristiano*-n dionez, Galiziako bi gotzai moroen mende erori ziran Valdejunquera-n: Dulcidio eta Hermojio. Au libratzeko bear zan dirua pagatu bitartean, aren lekurako norbait eskatu zuten mahomatarrak. Hermojioen illoba izan zan ortarako aukeratua, mutiko bat bera. Kordobara iritxi eta osabak onela esan omen zion:

– Moro auek eskatzen duten urrea biltzera noa. Laster etorriko naiz. Aurki arte.

Baiña denbora aurrera, dirurik etorri ez eta illoba kartzelan. Mutil ederra zan eta egun batean erregeak deitu. Bere griñak asetzeko nai zuan. Baiña aurrena moro biurtzeko. Mutikoak ezetz. Orduan ala pasa zan. Baiña erregeak berriro eraso. Mutikoak leen bezela uko. Orduan arek, asarretu eta iltzeko agindu. Zernai sufritu arazi ondoan, ca-

tapulta edo arri-bolak tiratzeko tramankulu batean jarri eta Guadalquivir ibaiaren alde batetik besteraino bota zuten. Baiña bizirik geratu, eta orduan soldadu batek lepoa moztu.

925 urtean gertatu zan ori. Mutiko uraxe da San Pelaio martiria, zarauztarren eta beste ainbat erriren zaindaria.



Valdejunquera-ko gurutzea, Muez, Gezalaz, Naparroa.

Rokaforte-ko San Bartolome

Ifioretti di San Francesco liburua euskeratu zala badakit. Baiña eskueran ez daukat eta ezin esan izenburua *San Frantziskoaren loretxoak* edo zer duan. Gaztelerazko *Las florecillas de San Francisco* badet, ordea, eta aren IV atalean onela irakurtzen da:

“En el principio y comienzo de la Orden, cuando eran pocos los Hermanos y no tenían todavía residencia fija, San Francisco, por su devoción, fue a Santiago de Galicia...”.

Aita Krispin Beobide frantziskotarrak (1849-1891), bere *Asis'ko Loria* liburuan, XII buruan, erromeri orren berri ematen digu:

“...Nabarratik Frantzisko Aitalen santua sartu zala Españan, zeren oñ gorrien gañian bidegiten zuten arrotzak bide au artzen zuten”.

Erromeri ori 1213 urtean egin zan. Ondoren:

“Sanguesatik milla pausora arkitzen da Nabarran Rocaforteko erri txikitxua, nun ere agertzen zaiugu Aita-lena lenbiziko aldiz bere lagun Quintabalko anai Bernardorekin. Lur zorioneko onetan egin zuten aurreneko gelditza. Ikusi zuan santuak eri bat biartasunik aundienian. Urrikaldurik arzaz, esan zion lagunari:

– Nere anai Bernardo: eri auxen biar dezu sendatu arretaz; ar ezazu onen kontua, nik nere lan-moduak Españ onetan egin arte.

Gusto guziarekin bere Aita-lenaren aginduari makurtu zion burua anai Bernardok...”

Komentu bat ere fundatu zuan bertan San Frantziskok:

“Rocaforten zimentatu zuan santuak Españako lenbiziko etxe santua. San Bartolome apostoluaren izenian emen egin zan elizatxo bat, gero geitu zana denborarekin...”.

Rokaforte ortan izan berria naiz. Auxe omen da leenengo Zangotza, Aragoi ibaiaren ertzekoa altxa aurretik. Erri xaarra, mendixka baten gainean jarria.

Errekara jetxi naiz. Maiatza danez, kirkirrak, kukua eta txoriak kantari. Baiña erretxiñola danen nagusi. Ez det arkitu orain urte batzuk emen ikusi nuan iturria. Gero jakingo nuanez, gaur sasiaren mende dago. Baiña onela esan zidan orduan aitona batek:

– San Frantziskok, emen zebillen batean, makilla lurrean kalkatu zuan, eta txulo artatik iturri auzortu zan.

Aldapa gora asi naiz. Otaberaren lore oriak, tomillaren urdiñak, margarita txuriak, sastraketan ardi-ille puskek, oliboak eta ezelak an eta emen...

Iritxi naiz San Bartolomera, 1821 urtera arte frantziskotarren eliza eta komentua izandakoa bera. Etxe zaarra eta xaartua; leioak zabalik, erdi eroria teillatua, abe ustelduak... Iñor bizi ez dan tokian gertatzen dan ondamendia, alegia.

Atea itxita dagoanez, ezin barrura sartu, eta ango masustondoa ikusi gabe gelditu bear. Masustondo ori, San Frantziskok arkaitz batean makilla kalkatu eta andik erne eta azia omen zan. Zugaitz

aundi eta ederra bera, eta aren ostoak zernai gaitz sendatzen zutenak.

Urteen buruan, igartu ordea. Baiña aren egurra oso ona bildur eta izuen aurka. Emakumeak noiz-nai Rokaforteko erretorearen etxean ate joka:

- Umea izuak artuta daukat. San Bartolomera noiz joango giñake?

Joan, labanarekin puxka bat kendu, poltsatxo batean sartu eta lepotik zintzilik erabili. Ori egñik, aurra ez omen zan geiago leku illunetan izutu eta negarrez asten.

Masustondo ori patio batean omen zegoan. Baiña, igartutakoan, atera eta eliz barrura aldatu zuten. Gaur ere an omen dago.

Ederra emendik ikusten dan bista: Rokaforte, aldapa bizian; Zangotza, Aragoi ibaiaren ertzean; atzean Valdonsella ordeka, mendiz inguratua.

Orain bide zabaletik nator, erreka igaro eta be-reun bat metrora, egurrezko esi bat, erderaz eta euskeraz idazki bat duana. Ona euskerazkoa:

“San Frantziskoren iturria. XVIII mendea. San Frantzisko erromes joan zen Santiagora eta Espainiako lehenbiziko frantziskotar komentua fundatu zuen Rocaforten (Zangotza zaharra)”.

Au ere Santiago bidea baita. Zangotzatik irten, emendik pasa, Aibarko gaiñera igo eta illuntzerako Elo edo Monreal-era irixten dira oiñezko erromesak.

Toki atsegingarria au. Iturri eta erreka marmarra; urbiltzerakoan, igelak putzura salto; lore txuriz jantzitako elorriak, itzal ederreko makalak...

San Bartolometan izaten da emengo festa, abuztuaren 24-an. Goizean, meza ermitan; eta iturri ontan bazkaria. Maats-aienekin egindako su-brasetan erretako arkume-saieskiak ez dira faltako.

Baiña ziur egon San Frantzisko Asiskoaren iturri ontako ur freskoak baiño istimazio ohea izango duala Zangotzako San Sebastian eta Liedenako San Frantzisko Xabierren ardo-kooperatibetako mama gozoak.

Gaztelugatxe

Rafael Murgak, 1892-an, Gaztelugatx izeneko idazkia argitaratu zuan. Onera osorik aldatzerik ez dagoanez, zati batzuk eskeiñiko ditugu, ango berri ikasteko, denbora berean bizkaiera zaarra irakurriz.

Gaztelugatxe Matxixako eta Bermeo tartean dago. Eta:

“Au da itxasoan dagoen atx andi bat, legorrari batuta begi biko zubi trosko batekin bakarrik; eta aiñ latza ze gañera eltzeko igon biar dira, zubian bertan asita, lareun bat armalla”.

San Juan eliza dago goien; eta:

“Jakiña da orraitio elex ori dala Bizkaiko zarrenetarikoa bat, eta amargarren gizaldean egiña dala”.

Gaztelua ere bazan, eta 1332-an:

“Gaztelako errege On Alonso amaikagarrenak, beretzako naita Bizkaiko jauntza, egieutsan gerra On Juan Nuñez de Lara-ri, zeñ zan Bizkaiko amazortzigarren Jauna, Ona Maria Lopez de Haro-ren senarra zalako.

Bizkaitarrak, erregeri aurre egiteko sendatu zitubezan lekuben artean, zan bat Gaztelugatx, eta ara batu zan Jauna bere mendapekoekin; jarraitu zituzan erregek, baña alperrik ernau zituzan Errialdeko aldapara, gaztelubaren aurrez aurre, bere soldadu eta orduban ziran gerrarako kaño eta makiña obeenak. Gaztelugatxean ziranak egieutsen aurre eta, zuchia pasatu eziñik, eziñ artu eban, gazteluban eta

kanpoko aldetik ziranak bere egiteutsen bezela al eben kaltea; ogeta amargarren egunean errege jira zan garaituba Gaztelaruntz...”.

XVI mendeko urrengo gertaera, 1509-ko iraillaren 9-koa:

“Ikusi ziran ontzi bat atxen gañera itxaskiak botata eta beste asko galernak eroiazala. Leku aretan ez zan, eta ez dago oraiñ bere, txaluparik ez ezer, galdu biar ziraneri laguntasuna emateko, eta ango jentea, biotza min-beratuba eta negarra begietan ebalatzen joan zan elexara santubari eskatutera mariñel gaixoren bizitza. Santubak entzun zituzan euroren negar eta eskabideak, eta, aldabatez itxaso baretu eta aizea jirata, ontziak jarraitu eben euron bidea. Au mesede au oroitzen da bestearen artean, zergaitik ontzi aretan etozan Frandestik Don Felipe, Españako Prinzipe, eta bere laguntasuneko jende andiak”.

Ango santua, San Juan, inguru artan debozio aundikoa da:

“Batez ere mariñelen artean. Oek euroren larritasunetan beti ara biurtuten ditube euron begiak eta biotza, eta santu arentzat izaten dira euroren agindu eta eskabideak. Sarri ikusten dira ara igoten, euroren txalupako tresnak ganean ditubezala, eta entzutea daukat inoz igon dabela, askoren artean lepoan ebela itxaskeari iges egin deutesen txalupagaz. Emakumeak ikusten dira, euroren senar edo umeak gaitik eskatutera dogazanak, arek armalla guztiak be-launbiko igoten”.

Ango erromeria abuztuaren 28-an izaten omen zan, eta ara joaten ziran:

“Mundaka, Mungia, Bakio eta beste leku askotako jenteak; lelengo izaten da meza eta sermoia, Bermeoko aiuntamentu guztia an dala, eta gero dira dantzak eta bazkariak”.

Ona, legorretik aruntz begiratuta, egun ortan ikusten zana:

“Gaztelugatxean gora eta bera dabilen jentea, aurrean itxaso zabala ontzi eta txalupaz beterik eta,

egun argia bada, Santander baño arutzago diran mendiak, eta Prantzia aldetik Kapbreton arte, eta norberan inguruban jente aren dantza eta joan-eto-rria, eta orren gañera euron barre, barriketa eta santso edo irrintzi alaiak entzutea”.


Baiña eliz berria omen da oraingoa:

“Amalau garren gizaldean egin zan elexa ez da geiago; denborak, aize gogorrak, itxaskiak, kresalak eta gizaldi onetan izan diran gerrarekin ez jaramon egiteak zartu eben, eta orain dagoena, debotuaren artean baturiko dirubaz egiña, egieban 1885-garren urtean On Seberiano Atxukarro bilbotar etxagilleak.

Elexa bota zanean barria egiteko, billatu ziran sepultura zarrak, eta Gaztelako errege On Fernando irugarren Santubaren dirubak, On Juan Delmas zanak bere liburu *Gaztelugatx*-en diñubanez. Liburu-bau ez da salduteko egiña; On Baleriano Gojeaskoetxea Delmas jaunaren suiñak egin deust mesede ikusteko ematea; liburu orretatik artu dodaz gauzak sortu ziran urte eta egunak; barriak neuk batubak dira, kondairan eta neure gazte denboran Mundakan bizi nitzanean”.

Baiña liburu ori, *Auñamendi* enziklopediak dienez, argitaratuta zegoan: *Gaztelugach, con su historia y tradiciones. Recogidas y escritas por J. E. Delmas* (Bilbao, 1888). Arritzekoa da Rafael Murga-k beraren berri ez izatea.

Murga-ren idazkiak Gaztelutatxe ezagutzeko gogoia piztu zidan. Orain bi illabete joan nintzan. Baiña beeko zubia konpontzen ari ziranez, ezin goraiño igo. Goitik ikusten danarekin konformatu bear. Ori bera naikoa da, ala ere, Bizkaiko ikuspeirik ederrenetako bat ura dala juzkatzeko.



Gaztelugatxe, Bizkaia.

Orioko balea

L 901-eko maiatzaren 14-ko goizean, sardiñez betetako txalupa batzuk Donostiara zetozela, bale bat ikusi zuten, sudur-zuloetatik ura botatzen zuala.

Arrantzaleak, kaian sartutakoan, etzioten iñori ezer esan, zekarten sardiña leenbaileen saldu, sokak eta arpoiak artu eta balearen billa joateko.

Amarretan, ordea, bapore bat iritxi zan, mariñelak Zumai aldean bale bat zebillela esanez.

Orduan amar txalupa atera ziran. Baiña berandu. Oriotarrak aurrea artu zieten. Erri ontakoak, izan ere, balea bederatzietan ikusi zuten, barraren aurrean, ondartza aldera. Zorriak zeuzkan eta:

bueltaka an zebillen
jun da etorriyan,
ondarra arrotubaz
murgill igariyan.

Zorriak azkure egiten eta berak ondarretan arraskatu. Baiña alperrik: zorririk ezin kendu.

Oriotarrak bereala prestatu zituzten arpoiak, dinamita eta sokak. Bost treiñeru atera ziran. Patroi enizenak: Manuel Olaizola, Eustakio Atxaga, Manuel Loidi, Gregorio Manterola eta Zesareo Uranga.

Txalupa oiek, eiztari onak otso zaarra bezela, balea erdian artu zuten, legorraren kontra. Zortzi arpoi tira, sei aldiz jo eta bereala il zuten. Legorretik bazan orduan biba, txalo eta deadarra.

Ala, Donostiako arrantzaleak urbildu ziraneko, oriotarrak balearen lanak eginda zeuzkaten.

Sokaz lotu, txalupen zagan jarri, arraunean ekin eta, marea kontra bazeukaten ere, amabietarako moillan ziran, egiteko guzia iru ordutan eginda.

Ona nolakoa zan balea:

Amabi metro luze,
gerriya amar lodi,
buztan pala lau zabal,
albietan pala bi;
ezpañetan bizarrak
beste illera bi,
orraziak bezela,
ain zeuzkan ederki.

Balearen albistea bereala zabaldu zan. Jendea nunaitik etorri zan ura ikustera. Oriotarrak bina erreal kobratzen zuten, eta milla pezetaraño bildu. Bi milla bisitari izango ziran, beraz.

Urrena, errematean atera zuten, milla ta bosteun pezetan. Baiña erostunik etzan azaldu. Orduan zera bururatu zitzaien: koipe biurtu eta olioia saldu. Irureun arrua atera zuten, eta zazpi milla erreal eskuratu, errematetik espero zutena baiño geiago.

Balea oso-osorik saldu zuten. Baita tripak, bizarrak eta egalak ere. Ala, gastu guziak pagatu eta lau milla pezeta garbi gelditu zitzaizkien.

Oriotarrak pozez txoratzen zeuden:

Gertatuba jarri det
egiyaren alde,
au orrela ez bada
jendiari galde;
biyotzez pozturikan
atsegintsu gaude,
"biba oriyotarrak!"
esan bildur gabe.

Balearen lanak bukatutakoan, ekainaren 6-an, Orioko udala bildu zan: Frantzisko Aiestaran, alkattea; eta Kalixto Arin, Jose Maria Salsamendi, Antonio Mutiozabal, Antonio Maria Loidi, Jose Luis Arostegi eta Juan Sagarna, kontzejalak.

Egun artan, beste arazoen artean, izendatutako bost patroï aien eskari bat zuten: berak eta beren mendeko berrogei ta amabost gizonak ildako balea zala-ta, erriak diru asko irabazia zuala, udalak eta tabernariak batez ere; eta ea ez ote zuten berak ezer merezi. Udal-gizonak, ao batez, eun pezeta aiei ematea onartu zuten, merienda bat egin zezaten.

Berri auek lau iturritatik jaso ditut: garai artako egunkariak; egillearen izenik gabeko bi bertso-paper: eta Orioko udal-liburuak.

Ura izan zan gure mariñelak arrapatutako azken balea.

Fuendetodos, Goya eta Zuloaga

Goya pintorea jaio zala, berreun ta berrogei ta amar urte omen dira aurten; eta Zuloaga il zala, berrogei ta amar. Ospakizun orrek, orain ogei bat urte egin nuan ibillaldia gogora arazi dit.

Zaragozan nengoan. Arratsalde batez, Goyaren jaioterria bisitatu nuan: Fuendetodos. Berrogei bat kilometro daude araiño, ego aldera artuta.

Goyaren jaiotetxea erakusten zuana gizon elbarri bat zan. Beso bat naiko okertua zeukala uste det.

– Gerrako oroipena det au –esan zidan–. Orduan emeretzi urte nituan nik. Erri au Francoren aldetik gertatu zan. Baiña 1937-ko abuztuan era-soa jo zuten errepublikazaleak, Belchite artuz. Ala ere, beren gogoz Zaragozaraiño joango ziranak, bi-dean gelditu ziran. Gu *héroe* batzuk izan giñala esan ziguten gero. Ez dakit, bada, ori egia dan. Geren biziaz etsita geundenez, katua tripaz gora beze-la burrukatu giñan.

Goyaren jaiotetxea naiko utzia zegoan. Sukalderaiño sartu giñan. Erakusleak nungoa nintzan galdetu zidan. Gipuzkoarra nintzala entzundakoan, onela esan zidan:

– Zuloagaren lurraldekoa, beraz. Etxe au arena zala bai al dakizu? 1915-ean erosi zuan. Noizean

bein emen izaten genduan. "Sendatzera etorri naiz" esaten zuan. Su eder bat sukaldean piztu arazi eta berari begira orduak pasatzen zituan. Gero, tabernara joanda, danekin tratatu eta danak gonbidatzen zituan. Gerratean eliza naiko puskatuta gelditu zan. Goyaren pintura batzuk bazituan eta aiek betiko galdu ziran. Eliza bera, berriz, len bezelaxe berritu zan. Ortarako, Zuloagak zituan argazki batzuek asko lagundu zuten. Etzaitezela erri ontan arengatik gaizki esaka asi, bizkarra berotuta atera nai ez badezu beintzat.

Andik Belchite-ra joan nintzan. Bi erri dira gaur: bata berria, jendea bizi dana; bestea zaarra, ustuta eta puskatua, gerrak utzi zuan bezela. Kale luze batean barrena, elizaraiño joan nintzan. Atean kopla edo jota au irakurri nuan:

*Pueblo viejo de Belchite,
ya no te rondan zagales;
ya no escuchas las joticas
que cantaban nuestros padres.*

Ari begira nengoala, artalde bat andik pasa zan, illunabarra zanez arditegira bidean-edo.

Ogei urteren buruan Fuendetodos errira berriro itzuli naiz. Eliz ondoan oroitarri bat:

"A Goya, para que el espíritu del artista inmortal, que la gloria extendió por todo el mundo, viva en el pueblo que le vio nacer, erigen este monumento Ignacio Zuloaga y sus amigos. 19 octubre de 1920".

Goyaren jatotetxean beste idazki bat:

"En esta humilde casa nació, para honor de la patria y asombro del arte, el insigne pintor Francisco Goya Lucientes, 21 marzo 1746 – 19 abril 1828. La admiración de todos rindió este homenaje a su imprecadora memoria".

Etxea berrituta eta txukunduta dago, bai kanpotik eta bai barrutik ere. Garai artako sukaldea, maaiaak, armarioa, oiak eta tresnak. Ez det uste iñork akatsik billatuko dionik. Orma batean auxe:

“Para mi casa no necesito de muchos muebles, pues me parece que con una estampa de Nuestra Señora del Pilar, una mesa, cinco sillas, una sartén, una bota, un tiple y asador y candil, todo lo demás es superfluo. Carta de Goya en 1780”.


Nere egun bateko lagun miña izan zan erakusle elbarri arengatik galdetu det. Erretiroa artu eta beste erri batean bizi dala erantzun didate.

Baiña jendea erruz gora eta beera, txingurritegi batean bezela. Alde ederra leengo bisitatik! Orduan erakuslea eta biok bakarrik, izketaldi gozoa egiñez. Gaur, berriz, alako builla, zarata eta zalaparta!

Alboko etxe batean, Goyaren pintura beltzak. Beste batean, Zuloagaren kuadro batzuk, Zumaitik-eta ekarriak. Baiña aiek pakean ikusteko girorik ez.

Belchiteraiño jarraitu det. Gerrak apurtutako erriari titulu berria eman diote: *Ruinas Históricas*. Elizaraiño joan naiz. Leengo koplak edo jotaren letra batzuk ageri dira oraindik ere atean.

Alako batez, leengoan bezela, artalde bat andik barrena. Erri batek, izan ere, naiz berez edo naiz gerrak txikituta ustu eta iltzen danean, azken bizi-lagunak artzaiak izan oi ditu. Baiña leenengo biztanleak eta fundatzaileak ere, artzaiak izango zitu, dudarik gabe. Nola asi, ala bukatu.



Fuendetodos, Zaragoza.

Tolosako altxorra

Tolosako udal-agirietan, 1854-ko ekainaren 21-ean, onela irakurtzen da:

“Concesión de un permiso del Gobierno Civil al alcalde de Tolosa para hacer un reconocimiento en el Prado pequeño, en presencia del delegado de Hacienda, con objeto de buscar un tesoro enterrado durante la guerra de la Independencia”.

Gerra artan, izan ere, frantzesak gauza askori erantsi zioten atzaparra. Ona zer dion *El Empecinado visto por un inglés* liburuak (1846):

“Pocos ejércitos habrán hecho uso tan amplio del privilegio del saqueo y el pillaje que tiene todo invasor, como los que Napoleón envió a España”.

Gero, atzeraka asitakoan, ostutako gauzak berekin eraman nai. Baiña etsaia urbiltxo sentitzean, ondasun oiek lurpean izkutatzen zituzten, batez ere Gasteizko burrukaldian, 1813-ko ekainaren 21-ean, jipoia jaso eta igesari eman ziotenean. Bai omen ziran gero bat-batean aberastutako arabar nekazariak, goldearekin-edo lurpeko oiek billatuz.

Urteen buruan, frantzesak etorri egiten ziran, leen lurperatuak argitara atera nairik. Oietakoak dira Tolosan azaldu ziranak ere, gerrate ura bukatu eta andik berrogei urtera.

Egun aietan Tolosan etzan beste izbiderik izango. Bertsoak ere badira, bere izenik esaten ez digun bertsolari batek jarriak. Ona bigarrena:

Frantzes oriek afañez
etorri ziran egunez,
aien aitonak gorde zituzten
diru aien galdez;
pentsamentubak aldrebés,
plano zuzenik ere ez;
ia ito nintzan oidi begira
ni beñepein farrez.

Planoren bat ere ekarri baitzuten. Jende dana, berriz, aiei begira.

Udal-agiriak dionez, Zumardi Txikian zulatzeko baimena zuten. Baiña San Frantzisko parean ere saiatu omen ziran:

Asi ziraden lanian
San Frantziskoren parian,
jendia franko antxe zeguan
diru-usayian;
frantzesak beren artian:
"Zaute, zaute pakian!
Aldegingo diau etxekoandrian
olluak jatian!"

Baita Jutzizi-Plazan ere:

Berriz ere esperantzan
Justizia'ko plazan,
nik uste gabe zulo aundi bat
antxen azaldu zan;
begira jarri nintzan
dirurik agiri ote zan;
beste bi aien paraderuan
antxen gelditu zan.

Urrengo zuloa Rondilla kalean. Kolpe utsa ura ere. Orduan bi katalan etorri, berak plano ohea zutela ta. Berriz an eta emen zulatu, eta beti alperrik.

Gero pelota-jokura
juan zan frantzes kuadrilla ura,
jende guziak egiten zioten
atzetikan burla;
zulatu dute lur ura
ez dakit zenbat modura;
billatu zuten arkaitz biziya
eta gañera ura.

Arkaitz biziari tiroak jarri. Jendeak atzetik bur-la. Langilleak keja, kobratzen etzutela ta. Frantzesei bost ajola, puru galantak erreaz. Azkenik, "emendik eskapa" egin zuten, Rikardo Ormaetxeari berrogei ta bi errealeko zorra utziz; etxekoandreari, berrogei ta zazpi duro; andre alargun bati, "artzekua ugari"; eta abar.

Frantzes aiek etziran utsaren peskizan etorriak. Baiña alperrik aien saioak, eta altxor orrek lurpean jarraituko du gaur ere. Ea norbaitek billatzeko suertea izaten duan. Bitartean, urrea zanpatuz ibiliko dira tolosarrak beren kaleetan barrena.

Baigorriarrak Austerlitz

1 805-eko otsaillean, kinta berria deitu zuten Frantzian. Napoleon jaunak bere ango eta emengo gerrak nola egin bestela? Urte bereko uztaillean Rin ibaiaren ertzean ziran soldaduak. Bi baigorriar ere bai. Batek onela esan zion bere lagunari:

– Ez al aiz gogoratzen zer itz eman genduan? Erriko festetan lau errikok lau kanpotarri pelotan jokatuko geniokela.

Beren kontuak egiten asi ziran:

– Gerra iraillean asiko omen dek. Badiagu, bezaz, joan-etorria egiteko denbora. Baiña baimena nola lortu?

Orduan Harispez oroitu ziran. Baigorriarra baitzan au ere, *Guerra de la Convención* izenekoan soldadu sartua, 1793-an; eta, gudarako abilla izanik, jeneral izateraiño iritxia. Arek beren jaioterrira joateko baimena emango ziela iduritzen zitzaien.

Nola-ala beren naia lortu zuten. Bai bideari ekin ere. Oiñez noski, Frantzia alderik alde igaro zuten, udara gorrian, basauntzak bezin arin, artizarrera gidari zutela.

Abuztuaren 2-an egunsenti ederra egokitu. Alako batean, mutil aietako batek oiuka asi zan:

– Begira an urrutiko mendiak! Ollandoi eta Jara dituk!

Baigorri ondoko bi mendi dira oiek.

Aien poza errira iritxitakoan! San Estebanetan ango festak, Abuztuaren 3-an. Bezpera izanik, kanpaiak jo eta jo ari ziran, mendietako oiartzunak aien otsa errepikatzen zutela.

Gau ura beren etxeetan gurasoekin egin ondoren, festa-eguna ere gozo asko igaro zuten.

Biamamonean partidua. Kanpoko jendea erruz, ikustera etorria. Pelotari zaarrak antxe berotzaille. Pello Bilozuri pasa-marran juez. Zortzi pelotariak sutsu jardun ziran. Burruka gogorra jo zuten. Baiña Rin aldetik etorritako mutil aietako bat oso abilla izan, eta ari eskerrak irabazi.

Neke-neke eginda eta izerditan blai bukatu zuten. Baiña erriko ardo ona edanez indarberritu. Ondoren, dantzan gogotik egin. Bazkaldu eta lagunei “Ikusi arte!” esan bear.

Berriz ere ankei eragin. Frantzia egotik iparrera pasa. Batalloira iritxi, andik laster gerra asi eta Napoleonen gudarozteak Rin ibaia igaro.

Alemanian sartu eta ia Europa erdia korritu. Austerlitz errian etsaiak alkar topo egin. Alde bate-tik Frantziako soldaduak; bestetik, Austria eta Rusiakoak. Iru nazio oiek nor bere enperadorearen mende zeuden orduan. Orregatik, Austerlitzko guda-keta orri *Iru enperadoreen burruka* esan oi zaio.

Alkar iltze bildurgarria gertatu zan. Goizean goiz asi eta illundu arte iraun zuana. Baigorriko bi mutillak an ere alkarren ondoan. Batek:

– Obe genikek Baigorri pelotan emen tiroka baiño!

Lagunak:

- Bai, motell! Baiña jo gogotik emen ere, an bezela irabazteko!

Rusoak frantzesen eskubiko egalari eraso zioten. Napoleonek orduan etsaiaren erdira bere indarrak bat-batean bota eta aien lerroa autsi egin zuan; eta azarikeri orren bidez garaipena lortu.

Berri auek nundik ditudan? Baigorriin, 1905 urtean, euskal festak ospatu ziran. Olerki sariketa ere egin zan. Gai jakiñarekin, ordea: Austerlitzko mutil oien gertaera.

Olerki auek saritu ziran: *Hirun Garaztarra* idazlearen *Bi soldado Baigorriarrak*; P. Zamarriparen *Euskaldun gudariak*; P. Dibarrarten *Eskualdun soldadoak*; eta B. Iraolaren *Euskaldun gudaria, 1805-ean*. Pepe Artolak *Soldadu euskalduna* bialdu zuan.

Nik, idazlantxo au moldatzeko, Dibarrart eta Artolaren bertsoak izan ditut esku artean.

Dibarrartek bi mutil aietako bat ezagutu zuala esaten digu:

Badazkit bien berriak,
bat auzoan bainuen.
Thuna harek erran hitzak
dituzue entzunen.

Iturriozko Benta

Atzerritar ikasle-talde berezi samar bat bazan Parisen 1535 urtean. Aietako bat gaixotu egin zan urdailletik. Medikuak etzioten sendabiderik arkitzen, eta bere jaioterriaren aizeak artzera joateko agindu zioten.

Ikasle orrek oiñez egin nai zuan bide ori. Baiña lagunak etzuten ori onartu. Nola utziko zioten ainbesteko bidea oiñez egiten, gaixorik zegoan eta erre-na zan bati? Ala, zalditxo bat erosi zioten.

Udaberriaren asieran abiatu zan, Paristik ego aldera artuz. Egun askoren ondoren, Baionara iritxi zan, eta an batedobatek ezagutu ere bai.

Andik Bidasoa igaro ta, Donosti aldera segi; emendik mendibidea artu eta Usurbil, San Esteban, Zarate eta Andatzarrate jo zituan.

Mendi oiek lapur-gordeleku ziran garai artan. Ala, bidelari arek or ikusi zituan bi gizon armatu, berarengana zetozela. Ondotik pasa ondoren, buelta eman zuten, berriz ere urbilduz.

Bestea bildurtzen asi ere bai. Baiña izketaldi bat egin eta Loiolako torre-etxeko bi morroi zirala igerri zien. Baionan ezagutu zuana an parte emana izan, alegia.

Illuntzean, Iturriotza iritxi zan. Iturriotz ori mendiko benta zaar bat da, Aiako partean, Ernio-

ko egalean eta Donostitik Azpeitirako bidean. Ermita ere badu alboan, San Juan izenekoa, azpian iturri bat duala. Jende asko igarotzen zan tokia garai batean. Leku bakartia ala ere, gaur dan bezelaxe.

Parisko bidelariak gau-ostatua eskatu zuan. Bai eman ere. Oraindik ere erakusten dute zein gelatan jarri zuten. Bera, ixil-ixilik, ara erretiratu zan.

Andik puska batera, Juan Egibar iritxi zan benta ortara: azpeitiarra bera, eta Loiolatik gertu dagoan Egibar baserrikoa. Azpeitiko arategiak aragiz ornitzen zituan, eta Behobira zijoan. Etxekoandreak onela esan zion:

- Gizon *extrañu* bat etorri zaigu gaur, azpeitiarra, baiña iñoiz ikusi ez degun bezelakoa.

Biak, Juan Egibar eta etxekoandrea, oin-puntetan gelaren ateraiño joan ziran, eta an Egibar ori zirikituetatik begira asi. Belauniko eta otoitzean ari zan gizon bat ikusi zuan. Bai ezagutu ere:

- Ene! Loiolako Iñigo dek!

Nola etzuan ezagutuko, biak ziur asko ugatz-anaiak izanik? Iñigoren amak bularrrik ez alegia, eta Egibarko etxekoandre gazteak azi baitzuan.

Baiña bere ugatz-anaiari agur ere egin gabe, goitik beera korrika bizian joan zan Egibar ori, bere eginkizun guzietaz aaztuta, Loiolan abisua ematera:

- Iñigo datorrela! Iturriotzen ikusi det!

Loiolako torre-etxeko nagusia zan Martin jaina, gauzak prestatzen asi zan, bere anai txikienari arrera ona egiteko.

Ala, apaiz bat bialdu zuan Iturriotza, Baltasar Garagalza, Iñigo xuxen-xuxen Loiolara ekartzeko aginduz. Apaiz ori Iturriotza iritxi eta andik Loiolara biak alkarrekin jetxiko ote ziran esan zion Iñigori.

Onek etzuan ori nai, eta zer egin zuan? Atzetik abiatu, eta laguna pixkanaka aldentzen utzi. Ala, bat aurretik, bestea gero eta atzerago, Etumetara iritxi ziran. An batek Azpeiti aldera zuzenean artu, Odria baserritik barrena. Eta besteak, Iñigok, esku-bitara, Erarrizaga baserri ondotik Arauntza mendia- ren erreka-zulora jetxi eta Lasaora atereaz. Emendik Azpeitiko sarreran zegoan, eta gaur ere dagoan, Madalena ospitalera iritxi, an ostatua eskatuz.

Bitartean, Loiolako Martin jaunak gizon-taldea bialdua zuan Odria aldera, Iñigoren bidera, au jaiotetxera ekar zezaten. Baiña ura beste bide batetik iges egiña zan.

Gizon talde ura Loiolara esku utsik agertu zanean, Martin jauna etzan goxoa jarriko noski. Onelatsu esango zuan:

– Nere anai txiki orrek leengo lepotik burua orain ere!

Martin jauna, izan ere, Iñigo gonbertitu eta etxetik zijoala, bakarka artu zuan, aren asmo berriak burutik kentzearren. Eta oraindik ere anaia zebillen bideak nun bukatuko zuan ezin somatu.

Iñigok Madalena ospitalean pasa zuan, aldi artan Azpeitian egin zuan denbora. Anaiaren aalegiñak ura Loiolara eramatearren, alperrik izan ziran. Oi eder bat ere bialdu zion, baiña anaiak lurrean lo egiten segi.

Bein bakarrik joan zan Loiolara, eta ori koiñatak eskatu ziolako, an ere zerbait konpondu bearra bazegoan-eta.

Azpeitian zer bizimodu egin zuan kontatzea beste baterako utziko degu. Iru illabete pasa zituan an. Ondoren, munduko bideetan zear oiñez joan zan, ekarritako zalditxo ospitalarentzat utzita. Iñigo etzan geiago bere errira itzuliko.

Urteetara, 1552-an, San Frantzisko Borjakoa Loiolara etorri zan. Madalena ospitalean an arkitu zuan Iñigoren zaldia, artean ere bizirik eta onik. Kanpora atera, gari-soroetan sartu, jateari ekin eta iñork ere etzuan andik bialtzen. Abereak, izan ere, pertsonak bezela, oso adu ezberdiñekoak izan oi dira. Baiña, ikusten danez, santu baten zaldia izatea suerterik onenetako bat izango da.

Amezketako erretorea

Juan Inazio Urretabizkaia zituan izen-abizenak. Amezketan jaio zan 1780-ean. Apaiz egin eta bere jaioterriko erretore egin zuten. Leenengo bataio-agiria 1806-an firmatu zuan. Ogei ta sei urte zituan orduan.

Amezketan bazan garai artan bertsolari ospetsu-zelebre bat, berrogei ta bi urtekoa. Andik amasei urtera ilko zan. Irakurleak igerri dio nor zan: Fernando.

Nork ez ditu entzun apaizak eta bien arteko arremanak? Pernandok kazuela nola jiratu zuan, aren aldera ezurrak jarriz, eta mamiak berera; "Aitaren eta Espiritu Santuaren izenean" errezatu ondoren, semea, berea alegia, deitu zuala; erretoreari zerria nola ostu zion; illargiraiño zenbat bide dagoan nola asmatu zuan eta abar. Baiña oiek berritzen ez gera orain asiko.

Bertsolaria zan apaiz ori. Bein, Fernando txar-teletara joan eta arek galdetu:

Esan bear dirazu
instante batean.
liburutik txartela
nik atera artean,
nola sinisten dezun
zuk zere artean
daudela iru pertsona
Jaungoiko batean.

Artzaiak onela erantzun zion:

Nola sinisten dedan
arrazoiarekin
orain esango diyot
sagartxo batekin:
usai ta saborea
kolorearekin,
orra iru jenero
gauza bat batekin.

Orduan apaizak:

Nerauek uste nuen
zerbait banintzala,
erresponditu didazu
galdetu bezela;
Jaunak urte askuan
kontserba zaitzala,
Fernando, zoaz etxera,
torizu txartela.

Aren karta bat ere bada iru bertsoan, bere la-
gun bati egiña:

Nere biotz guztiko
adiskide Kintin,
nola ote nagoan
naiko dezu jakin:
ni beti emen nago
nere gaitzarekin,
arren, lagun zaidazu
badezu zerekin.

Aza, meloi, kalabaz,
piper ta tomate,
erein bearrak dira
jango badirade;

azirik ez det eta
nagokizu eske,
bialdu zaizkiatzu
bertso oien truke.

Esatea daukazu
doña Frantziskari,
nere etxeakoandre eta
zure emazteari,
agindu nai badio
gotoso zarrari,
ementxen dagoela
bere serbitzari.

Ama eta bi anai zituan berekin etxean. Beste
anai bat Bilbon; bestea Iruñen. Onela kantatu zuan
batean:

Bi anai baditut
kanpo zabaletan,
bat Bilbaon dago,
bestia Pamplonan;
ondo bizi litezke
beren gustuetan,
destierroan nago
emen Amezketan.

Eta etxeke bi anaiengatik:

Beste bi ere baditut
oraindik etxean,
oiek mantendu bearra
nere bizkarrean;
beñere ez ditut
ikusten lanean,
maiera biltzen dira
jan bear danean.

Karten bidez etorkizuna asmatzen duten oien-
gatik bi bertso ditu. Bat auxe:

Zer dirala uste dezu
munduko aztiak?
Emakume galduak
dirade guztiak,
lapur, engañatzale,
puta zar urdiak,
anima galdutako
gezurti aundiak.

Ez del bada egiten (*sic*)
aztiyaren falta,
au badakigu ere
andre galdu bat da.
Zaldunik badijua
pronto dago sota,
tontuen bizkarretik
berotzeko poltsa.

Pernando 1823-an il zan. Aren eriotz-agiria ez
du erretore orrek firmatzen, Migel Inazio Oriozaba-
lak baizik, ordezkari bezela: “*firmé por el cabildo en-
cargado de la cura de almas*”.

Urte berean *absolutistas* izenekoak artu zuten
Españiako agintea. Amezketako erretoreak, Urreta-
bizkaia jaunak alegia, liberala izanik, aien kontra
bertsoak jarri zituan. Bat auxe:

Ai, bada, Pello, zuk ez dakizu
gaurko eguneko legia:
oroitu zaitez frailiak ere
daramatela doblia,
il eta ostu gaur libre dira
gorde ezkerro fedia.

Liberaltasuna zer zan adieraziz liburuxka bat idatzi zuan. Bere irizbideak zabalduz, Amezketan liberal asko egin zituan. Argatik, Goierrin onela esaten zuten:

– Amezketan Jaungoiko berria egin dute.

Baiña orduko agintariei ezin ori gustatu eta erbestera bota zuten, Oliteko komentura bializ.

1833-an karlisten gerratea piztu zan. Bai berak bertsoak jarri ere liberalen alde: *Bertso berriak, egia garbiak, idikitzeko begiak, Amezketako erretore jaunak jarriak.*

Bertso oiek ez dira agertu. Baiña bai ordaiñetan karlisten alde atereak: *Beraren anaia, apaiz Argia, anima zaia, ezaguturik gaia, eta egiñik erantzun naia, prestatzera noakio lelengo maia.*

Liberala eta bertso-jartzaillea zanez, Donostiara alde egin bear izan zuan Urretabizkaia jaunak. Bertan il zan, noiz ez dakigula. 1834-III-13-koa da arek bere errian firmatutako azken bataio-agiria.

Orra nor zan Amezketako erretorea, Pernandoren laguna. Gauzak labur esaten saiatu gera emen. Gure *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak* liburuan zeatzago kontatzen dira.

Muskildako Ama Birjiña

Naparroako erririk politenetako bat Otsagi (*Ochagavía*) da. Saraitzu araneko burua bera. Aren gainean, mendi baten tontorrean, ermita txuri bat ikusten da. Uraxe da Muskildako Ama Birjiñaren etxea.

Oraintsu arte, etzegoan araiño erritik zuzenean igotzen zan bide estu bat besterik. Gaur, berriz, kamio eder batek bertaraiño eramango gaitu, pagadi zoragarrietan barrena.

Ermita ori, Abodi menditik ego aldera luzatzen dan bizkar baten puntan dago. Beean, eguzki alde-
ra, Ori eta Otxogorri mendietatik datorren Anduña erreka-
ren zuloa; sartaldetik, Zatoia erreka-
rena, Abodi eta Areta mendietako urak biltzen dituana. Bi erreka oiek bat egindakoan asiera ematen diote Saraitzu ibaiari.

Ikuspegi ederra emengoa. Baso eta mendi ikusgarriak alde guzietara. Baiña tontorrik ederrenak Erronkari aldekoak, oraindik ere elurrez txurituak, maizatzean geranez: Auñamendi, Iru Errege Maaia, Petretxema, Atxerito...

Igandea danez, atea zabalik dago. Ermita txukun dotorea, erromaniko sarrerarekin. Ama Birjiñaren irudia ere Erdi Arokoa eta leienda eder bat duana, Jacinto Claveria-k bere *Iconografía y Santuarios de la Virgen en Navarra* kontatzen digunez.

Muskilda mendi ontan mutiko bat zebillen beitalde baten zai. Baiña, gaur bai eta biar ere berdin, zezena norabait joaten zitzaion. Egun batean aren billa asi eta an arkitu zuan, besoekin aztarka, aritz baten aurrean. Urbildu eta Ama Birjiñaren irudi bat antxe, zugaitzaren ondoan.

Mutikoak, pozez txoraturik, onela esaten zuan:

– Jesus! Baiña zer da au? Zer izan ote diteke?

Irudia besoetan artu eta berekin zeraman, ganaduaren atzetik. Baiña zama arekin beiei ezin segi; eta, galduko ote zituan bildurrez, berak aukeratuak toki batean utzi zuan.

Biaramonean ara itzuli zan, eta Ama Birjiña inun ageri ez. Mutikoaren pena! Baiña zezena osterare ere falta zala oartu. Orduan bezperako aritz ondoraño joan eta antxe arkitu zituan bai irudia eta bai zezena ere.

Bertaratu eta irudiarekin jostatzen asi zan. Baiña ortan ari zala, gizon bat andik barrena egokitu, eta zorrotz galdetu:

– Irudi au nundik ekarri dek?

Mutikoak:

– Inundik ez. Ementxe arkitu nuan atzo.

Gizonak:

– Gezurra. Nunbaitetik ostu egin dek ik ori.

Ala, irudia eta mutikoa artu eta Otsagira eraman zituan. Irudia elizan utzi zuten, eta mutikoa giltzapean sartu. Zaintzaille bat jarri ere bai, eta onek gabeen mutikoa izketan nabaitu zuan:

– Neskatxa, zu zerala medio sartu naute espetxe ontan. Beraz, zeuk libratu bear nazu, eta ori egingo dezula ziur naiz.


Biaramon-goizean zaintzailleak atea zabaldu eta mutikoa falta. Irudia ere bai elizatik. Orduan

danak Ama Birjiña agertutako tokira igo ziran, eta antxe arkitu zituzten biak: irudia eta mutikoa. Zeruko gauza zala orduan sinistu.

Mutiko ura praile bakartia egin zan. Ermita egiteko arria bear eta bera joaten zan billa astotxo batekin Mendi-itxusiraiño. Toki au Jaurrieta eta Areta bitartean dago. Joan-etorrian orrela ibili omen zan, ermita bukatu zan artean.

Otsagiarrak oso maitea dute Muskildako Ama Birjiña. Bere debozioaren ezaugarri ortxe dira, besteak beste, irudi onen aurrean dantzatzen dituzten dantza dotoreak. Baita kantatzen dizkioten kantak ere. Ona bertso bat:

*Hallóos el santo zagal
buscando al res estajado,
donde vio al uno postrado,
los otros apacentar,
debajo del árbol nombrado
que en honra del Pirineo
en Musquilda os puso Dios
para amparar todo el suelo.*



Otsagi, Naparroa.

Garesko txoria

Gares omen du euskal izena, erderaz *Puente la Reina* esaten zaion Naparroako erriak. Ango zubia Erdi Aroan erregin batek altxa arazi omen zuan, Santiagoko erromesak Arga ibaia errez pasa zezaten.

Gaurko kamioarentzat beste bat eraiki zan ondoren, zaarretik irureun bat metrora. Geroztik, ko-txean zubi berritik pasatzean, ez da izango burua jiratu eta zubi zaarrari begiratzen ez dionik.

Ikusgarriak dira, izan ere, aren arku zabalak eta egitura dotorea. Arriak egan asi eta alkarren laguntzarekin aidean geldituak dirudite.

Joan dan mendearen erdi alderaiño, zubiaren gaillurrean, torretxo bat omen zan; eta bertan Ama Birjiñaren arrizko irudi bat.

Txori bat, berriz, noizean bein etorri egiten zan, Ama Birjiñaren iduriari armiarma-sareak kendu eta aren ondoan geldi-geldi egon ondoren, ordu bazu-entzen buruan berriro aldegiteko. Olaxe gertatu zan 1825, 1834, 1840, 1842 eta 1843 urteetan. Baiña txori berezia omen zan, Naparroan ezagutzen ez dan motakoa.

Garestarrak, txoriaren etorreraz oartzten zirane-an, kanpaiak bueltaka jartzen zituzten. Erri osoa, agintariak eta apaizak aurretik, zubiko Ama Birji-

ñarengana joaten ziran. Baita elizkizun eta abarrekin ospatu ere.

1825-VIII-29-an txoria etorri zanean, garestarrak gau osoa pasa zuten errosarioak errezatuz, oiuz eta bibaka. Baiña txoria, batere izutu gabe, antxe segi. Aldi artan bi egun eta bi gau pasa omen zituan.

Txoriaren agerpena etorkizun onaren seinaleztat artzen zuan erriak. Eta kontuz arengatik iñork parre egin, Jainkoaren zigorra laster etorriko zitzaien eta.

1834-an karlisten leenengo gerratea beroenean zan. Viamanuel kondea, liberal jenerala, Garesera etorri eta bertan gelditu zan. Andik egun batzuetara txoria agertu. Garestarrak, beti bezela, aundikiro ospatu nai izan zuten aren etorrera, kanpaiak astinduz eta abar. Baiña Viamanuel orrek galerazi, ori siniskeri txoro bat besterik etzala eta.

Ala, beste txori bat arrapatu eta zubiko Ama Birjiñarengana eramán arazi zuan, andik aurrera irudiaren ondoan baten lekuan bi txori izango zirala esanez. Baiña bigarren txoria, eskutik askatu zutenean, egoei eragin eta laiñoetan galdu zan. Ori ikusirik, erri guzia parrez eta Viamanuel jauna asarre.

Orduan erriko apaiz xaarrena beartu zuan, kalez kale ibil zedin, txoriarena lelokeri bat zala esanez. Erriak etzuan ori begi onez ikusi.

Are geiago: gezur bat zabaldu arazi zuan jeneral orrek: Zumalakarregi erritik bi kilometrora zala, eta kanpai-ots arekin erriari erasotzeko abisua ematen ziotela. Ala, bere soldaduak tiroka asteko agindu zuan. Kale Nagusiaren irteeran kañoi bat jarri ere bai, eta kañoazoka ekin. Urrena, apaizak eta erriko beste jaun batzuk atxilotu egin zituan, karlistekin artu-emanetan zirala leporatuz.

Baiña andik bi aстера karlistak benetan azaldu ziran. Burrukan asi eta Viamanuel ori prisionero egin zuten. Ondoren afusillatua izan zan. Ori jakitean, garestarrak onela zioten:


- Txoriari parre egiten zion? Orra Jainkoaren zigorra!

1842 urtean txoria agertu zanean, jendearen poza! Erri guzia an bildu zan errezatuz eta oiuka. Argiak ere ekarri zituzten. Txoriari txapelak botatzen zizkioten. Baiña ura, izutu gabe, Ama Birjiñaren ondotik ibaira egan jeixten zan, ura ikuitzeraiño; ondoren igo eta egoekin Ama Birjiñaren irudia igurtzi eta garbitu.

Andik laster, zubia zabaltzea erabaki zan, gero lan ori egin ez bazan ere; eta Ama Birjiñaren irudia San Pedro elizara eraman zuten -gaur ere an dago-, eta zubiko torretxoak kendu.

Geroztik, ordea, ez da txoria geiago azaldu.(1)

(1) Jacinto Claveriaren *Iconografía y Santuarios de la Virgen en Navarra* liburutik artuak ditut idazlan ontarako argibideak.



Garesko zubia, Naparroa.

Beotibarko kantak

Beotibarko zelaia Berrobi eta Ibarra bitartean dago, menditarte estu batean. Antxe jo zuten alkar, 1321-eko iraillaren 19-an, naparrak eta gipuzkoarrak, eta auek garaille atera.

Orduan gertatua kontatzeko, leku aundia bear-ko litzake. Bestelako asmoa degu gaur: burruka arek sortu arazi zituan kantak eskeintzea.

Batek onela dio:

Milla urte igaro ta
ura bere bidian,
gipuztarrak sartu dira
Gaztelako etxian,
Beotibarren bildu dira
nafarrakin pelian.

Naparrak moldatutako kanta baten puska izan-
go da onako au, dudarik gabe luzeagoa izango zan
eta:

Beotibar, ai, Beotibar!
Ik daukak Martin de Aibar!

Erdal erromantze batek:

*De Amasa sale Gil López
de Oñaz y de Larrea,
al encuentro de franceses
para lidiar en pelea...*

Alfonso XI-ren poema Rodrigo Yáñez-ek idatzia da, Beotibarko burrukaldia gertatu zanetik ogei ta bost urtera. Poema onek emezortzi koplak ditu burruka oni buruz, 55-garrenetik 72-garreneira. Ona emen banaka batzuk:

*En aquesto acordaron
navarros e su conpañã.
Con muy gran poder entraron
por tierras de la Montaña,*

*menaçando castellanos
que todos serían muertos.
Sopiéronlo lepuzcoanos
e tomáronles los puertos.*

*Todos los de la Montaña
allí fueron ayuntados:
asaz poca de conpañã
e todos apeonados.*

*Dios les dio en aquel día
gran seso e gran saber
de una nueva maestría
que luego fueron fazer.*

*Las calderas que tenían
con sogas todas ataron,
e de piedras las hinchían,
por el monte las echaron.*

*Por fondón de una ladera
iban bien como varones;
dieron en la delantera
do estaban los pendones.*

*Los caballos s'espantaron,
que tener non los podían;
contra la zaga tornaron
que los franceses traían.*

Donostian, 1881-ean, *Beotibar* erdal antzerkia antzeztu zan. Egillea Manuel de Francisco y Morea zan, madriltarra, baiña Euskal Errian bizi zana. Inprentatu ote zan ez dakigu.

Tolosako Ramos Azkaratek, 1886-an, *Beotibar*'ko jatzarraren oroipena *Gaon judubaren galera-ekin* antzerkia moldatu zuan. Gai ezberdiñak ziran oiek, bata 1321 urtekoa eta bestea 1463-koa izanik. Dana dala, gipuzkoarren buru zan Gil Lopez onela mintzatzen da:

Gure odolak ez badirade
ur biurtutzen asiyak,
aztuta utzi bear ditugu
oraiñdañoko guziyak;
eska lenbizi oitu bezela
Jangoikuari graziyak,
Beotibarko zelaira goazen
onran galtzera biziyak!

Aren gizonak onela kantatzen dute:

Agur ta agur, gure Tolosa!
Agur, Amatxo Euskara!
Agur ta agur, jende leialak,
orañtxen goaz gerrara,
danboliñ-soñu ederrarekiñ
Beotibarko zelaira,
omenatuba gelditu dediñ
betiko gure kondaira.

Euskerak etzuan an zer ikusirik, bi etsaiak euskaldunak izanik. Baiña Azkarateren buruan gauzak naastuxeak zeudela dirudi.

Pedro Mari Otañoren *Kubako gure anaiai* sailak Mondragoen leenengo saria jaso zuan 1896 urtean. Bertso-paperetan argitaratu zan gero, eta Beotibarko aitamenik ez du. Baiña Otañoren esku-idatzietan ere agertu da sail ori, eta emen beste bertso bat du:

Beñere bestek ez du izandu
euskaldunak ainbat barren,
zeñek ez daki zer gertatu zan
bein batez Beotibarren?
Orduan ere arerioak
indar aundiya zekarren,
bañan geienak gelditu ziran
illak, maingu edo erren,
oraindik ere lengoak gera
askok ezetz uste arren.

Bertso ori argitara gabe utzi zuten, beraz, naparrak mindu egingo ziran bildurrez-edo.

Bertso geiago ere izango da Beotibarko burrukaldi oni buruz jarririk. Guk ezagutu ez, ordea.

Baiña beste oiek gabe ere galdera au egin genezake: gure Erdi Aroan bai ote da orrenbeste bertso sortu arazi duan guda-gertakizunik?

Nuestra Señora del Espino

Maiatzaren egun eguzkitsu bat zan. Miranda-tik aruntz joanda, Artzaiaren oroitarria igaro ta laster, eskubira artu nuan; Bilboko bide zaarra alegia.

Leenengo erria Encío, gain batean eliz erromaniko ederra duana.

Ezker aldera jarraitu nuan, pista berri batez, mendi eta baso tartean. Alako batean, Erdi Aroko *Santa María la Imperial de Obarenes* izeneko komentu zaarra agertu zitzaidan. Baiña, aspaldian prailerik gabe dagoanez, pixkanaka erortzen ari da, olakorik merezi ez bazuan ere.

Obarenes da bertako erri txiki eta ustuaeren izena ere. Baita Masako goi-ordekan asi eta Haro-raiño luzatzen dan mendi-lerroarena ere. Mendi oien kolko batean dago komentu zaar au.

Andik itzuli, kamioari segi eta Santa Gadea del Cid errira iritxi nintzan. Erdi Arokoa au ere, bere arresi eta ate zaarrekin, muiño batean gaztelu bat duala.

Andik bi kilometrora, *Nuestra Señora del Espino* santutegia. Aundi eta ederra, baratz edo jardin baten ondoan, eliz gotiko zoragarri batekin. Ango istoria ikasi naiez, liburuxka bat erosi nuan.

Orain ia seireun urte, 1399-an, martxoko Ama Birjiñaren biaramonean, mutil bat, Pedro García, bere aitaren ardiak zaintzen ari zan Montañana la Yerma zeritzaion tokian; eta, alako batean, elorri baten gainean andre eder bat agertu zitzaion, begiak itxi arazten zituan argi dizdiragarri batez inguraturua. Onela esan zion:

– Ni Ama Birjiña naiz. Toki au martiri-odolez gorrituta dago, eta zera nai nuke: onera beneditar praileak etortzea, komentu bat altxa dezaten, nere Semea adoraturua izan dedin. Ortarako laguntza ematen duten kristauak, nere babesa izango dute.

Leenengo ermitatxo bat egin zuten, eta bertara bizitzera Santa Gadeako sei apaiz etorri ziran. Ondoren, 1410-ean, Aita Santu Benedikto XIII-aren aginduz, apaiz oiek praile beneditar biurtu ziran, eta ermitatxoa komentu.

Onek urte zoriontsu asko ezagutu zituan. Barruan fraileak, otoitz eta lan (*ora et labora*). Kanpotik, berriz, kristau fedetsu asko etortzen ziran, Ama Birjiñari errezatzera.

Oietako batzuk pasaeran sartu-atera bat egiten zuten mandazaiak, Gaztelatik Bizkaira artillea, garia, olio, ardoa eta abar zeramatenak; eta Bizkaitik Gaztelara, berriz, arraia, burnia eta abar.

Gauzak erabat naastu ziran, ordea, XIX mendean. Leendabizi, frantzestea (1808-1814), eta ondoren leenengo karlistatea (1833-1839), gerra ontan komentua liberalen kuartela izanik.

Naikoa ez balitz bezela, 1835-an Mendizabalen agindua, praileak bialdu eta komentuetako jabe gobernua egiñik. Ala, Espino-ko au uts-utsik gelditu zan.

Baiña 1874-ko Gabonzar-bezperan, Martínez Campos jeneralak Alfonso XII errege gaztea ekarri zuan. Fraileekiko kontuak orduan aldatu ziran.

Baita zenbait komentu zaar berpiztu ere. Oietako bat, Espino-ko au. Esango degu nola.

Mirandan, 1879-IV-22-an, salgai atera eta bi erostun agertu ziran. Geiena pujatu zuana, Ameyugo-ko jaun bat izan zan. Emengo arria Sobróngo baiñu-etxeko ostatua egiteko nai zuan. Arentzat gelditu bearra zegoan, beraz, komentua. Baiña gutxixago eskeiñitako beste erostun bat ere bazan, Mirandakoa bera, eta onek galdera egin zuan:

- Jaun orrek nor dan adierazten duan txartel edo agiririk bai al du?


Bestea olakorik ezer ekarri gabea izan, eta orduan komentua Mirandakoarentzat gelditu zan.

Baiña onek etzuan komentua beretzat nai. Beste batzuen ordezkaria zan. Auek errendentoristak ziran, beren ikasleentzat etxe bat nai zuten eta.

Berak dira geroztik bertako biztanleak, Ama Birjiñaren santutegi au otoitz-etxea biurtu dutenak.

Ama Birjin onen agerpena Arantzazukoaren antzekoa da. Au elorri baten gainean agertu zitzaion Pedro García artzaiari 1399 urtean, andik urteetara, 1469-an, Oñatiko Errodrigo Balzategiri beste elorri batean azalduko zitzaion bezela.

Ni izan nintzanean, bi kolorek betetzen zituzten nere begiak: zeru garbiaren urdiñak eta soroetako gariaren berdeak. Onen buruak dantzan zerabilzki-
en iparraizeak. Bitartean, txoriak, kukua eta kirkirrak kantari. Arratsaldeko eguzkia makurtzen zijoan Pankorboko menditartearen gainetik Humión tontorraren aldera. Eta nere aurrean Miranda aldeko zabaldegia ikusten nuan, udaberriaren edertasunez gainezka.



Nuestra Señora del Espino, Santa Gadea del Cid, Burgos.

Miluzeko zubia

Juan Iturralde napar idazleak doai berezia zuan tokietako zer kontatuak kontatzeko. Ala, zenbait liburu atera zituan Naparroako istori zaarren berri emanez. Auetako bat, *El puente de Miluze* izenekoa.

Gai ori Andoaingo Joakin Larretak euskeratu egin zuan. Bai bere idazlan orrekin saria irabazi ere Iruñen 1882 urtean.

Bi lan oiek luzetxoak dira. Ala, kontraera ori guk berriro idatziko degu, al dan lasterren gauzak esanez.

1351-eko apirilla zan. Iruñeko kaleetan builla eta zarata nabari zan. Itz beroak, arpegi goibelak eta festa-usai gutxi. Zer ote zan? Iriko agintariak fueroen aurkako aginduren bat emana zutela.

Leen ere, Juana erregiña ildakoan, beste olako istilluren bat gertatua zan. Baiña aldi artan agintariak atzera egin bear izan zuten.

Karlos II errege berria, 1350-VI-27-an koroia jantzia, kanpotik Iruñera etortzekoa zan, eta arek gauzak bideratuko zituan uste osoan zeuden naparrak.

Bitartean jendea gero eta beroago. Irakiten dagoan eltzea zirudian erriak. Baillara bakarra ikusten zan ixil eta paketsu: juduena. Aiek etxe barruan sartu eta or konpon.

Naparrak erregeari ordezkari batzuk bialtzea erabaki zuten. Nortzuk, ordea? Ikamika askoren ondoan, batek onela atera zuan itza:

– Erregiña il zanean erregearengana joan ziran orkezkariak joan ditezela gaur ere aren aurrera. Oiek badakite gure fueroak nola zaindu bear diran.

Jendea txaloka. Ala, jaun auek aukeratu ziran: Beltran Rokafort, Ojer Mendiondo, Ramiro Asiain, Tristan Aibar, Yeñego Loiana eta beste zenbait.

Iruñetik sartaldera, Orkoiengo bidean eta Arga ibaiaren gainetik, bazan zubi bat. Erregea andik etorri bearra zala bazekiten eta antxe itxogitea pentsatu zuten. Ala, ara joan eta zai jarri ziran.

Zubiak torre bat zeukan jendearen joan-etorriak zaintzeko. Alako batean, andik zeletan zegoanak erregea eta bere lagunak bazetozela oiu egin zuan.

Erregea zubira iritxi zanean, ordezkariak bidera atera zitzaizkion, belaun bat lurreraiño eramanez.

Erregea gaztea zan, eta gizatxarra. Bere jauregira leenbaileen iritxi nai eta orain aien itz-jarioa entzun egin bear, denbora alperrik galduz.

Ordezkariak asi ziran zekarten mandatua adierazten. Erregeak zorrotz begiratzen zien, eta orduan ezagutu. Aietxek ziran leen ere beste olako lotsagabekeri batekin etorri zitzaizkionak.

– Ez al dezute ikasi erregeari zor zaion errespetua zer dan ez dakiten mingain berritsuak moztu egin bear dirala?

– Orrekin ez dezu ezer lortuko, jauna. Iruindar guziena moztu bearko zenduke, kejarik entzun nai ez badezu.

– Lotsagabeak zuek! Torre ontan lepotik zintzilik jarriko zaituet! Erriak orrela ikasiko du bere jaunna errespetatzen!

- Nai dezuna egin ezazu. Baiña alperrik izango da zure egiñala. Gu ez gera eriotzaren bildur.

Erregeak orduan, bere onetatik aterata:

- Torretik zintzilik jarri auek!

Soldaduak etzekiten zer egin. Jaun aiek Naparroako zaldun errespetagarrienak baitziran. Baiña erregearen arpegira begiratu eta ura txantxetan ari etzala garbi ikusi zuten. Jaun aiek artu eta torre barrura sartu zituzten.

Praile bat bazan an, erregearen aitorlea eta bi-daietan laguntzen ziona. Uraxe urbildu zitzaion:

- Jauna, gizon auen errukia izan ezazu. Errege guzien gaiñetik Jainkoa dago, eta egunen batean uraxe izango da zu juzkatuko zaituna.

- Iñork auen alde itzik ateratzen badu, bera ere torretik zintzilik jarriko degu! -erregeak.

Une artan errukarri aiek torre gaiñean azaldu ziran. Soldaduak, soka lepotik jarri eta kanpora bota zituzten. Antxe gelditu ziran zintzilik.

Nekazariren batzuk ba omen zeuden urbilletik begira, eta gertatuaren berri aiek eramane zuten Iruñera. Jendea nola jarriko zan esan bearrik ez da.


Erregea laster jabetu zan egin zuan astakeriaz. Iruindarren oiudeadarrak gero eta gertuago entzuten ziran. Orduan bildurtu. Zaldiari eragin, zubia ostera pasa eta etorritako bidetik igesi joan zan.

Andik laster jendea zubira iritxi. Beren ordezkariak antxe ikusi zituzten zintzilik, aizeak mugitzen zituala. Zera batez oartu ziran: danak ere mingaiña kanpora aterea zutela, ederki luzatuta gaiñera.

Ortik zubi orrek geroztik daukan izena: *Miluze*. Gaur ere antxe baitago, Argaren alde batetik bestera, ibai ertzeko baratza eta arboladien artean. Torrea falta zaiola; besterik ez.

Erregeari, berriz, *Karlos el Malo* izena jarri zioten, eta liburuetan ala esaten zaio gaur ere,

Orra or alde nabarmena: Iruñe aldeko jendeak, artean euskeraz egiten baitzuan, euskal izena ipiñi zion zubiari. Istorilariak, berriz, beren kronikak beti erderaz idatzi baidituzte, erregeari erdal izena erantsi. Erri arrunta batera eta gizon eskolatuak bestera, beraz. Ez al da ori gure izkuntzaren ondarmendia izan?



Miluzeko zubia, Iruñe, Naparroa.

Jokatu gabeko palanka-jokua

Zuaneta Matxinbentako baserri bat da. Bertakoa zan antziñako palankari bat. Onek, Iturriotzen, San Juan Txikietan, 1880-an, txapela altxatu zuan ziri baten puntan, eta Santa Luzietan bandera jarri, Gipuzkoan bera zala nagusi adieraztearren. Bestela, nai zuanak irteteko, zortzi librako palanka izatekotan.

Kontrarioa bereala azaldu zan: Errezilko Artxiola baserrikoa bera. Jose Inazio Lazkano Mendizabal izen-abizenak. Alde batekoak eta bestekoak Azpeitian bildu ziran urrengo Santo Tomasetan. Baita apustua zerratu ere: ilbeltzaren 24-an alkar neurtuko zutela, zortzi librako palankarekin eta iru aziotara.

Zuanetak Bidaniko Labaka artu zuan erakusle. Baita batedobat *espionajea* egitera bialdu ere. Onek astigar baten atzetik ikusi zuan Artxiolaren marka. Palanka noraiño botatzen zuan alegia. Itzuli eta Zuanetari salatu. Au, berriz, etzan araiño irixten.

Orduan abisua pasa Zuanetak Artxiolari: Bizkaian eta Naparroan beste bi palankari bazirala, eta biak, Artxiolak eta Zuanetak alegia, alkarri beren markak erakutsi eta onenak aien kontra jokatzeko. Artxiolak ezetz: aurrena alkar neurtzeko; onena nor zan an ikusiko zala.

Urrena, Zuanetak ama bialdu: semea apustua egiña zala etzekiala, eta berak etzuala joku ura onartzen. Artxiolak etzion ari ere kasorik egin.

Ilbeltzaren 24-an, Artxiola antxe zan Azpeitiko plazan. Zai-zai egonda, kontrariorik etzizaion azaldu. Seiñalea jaso eta etxera itzuli zan.

Urrengo larunbatean Tolosara joan zan. Bidaniko Labaka ere an egokitu. Onek anai bat bazuan palankari famatua, Montevideon zana, eta arekin neurtzeko desafioa egin zion Artxiolari. Baiña seiñalea lau milla durokoa izatekotan; eta apustua, ogei millakoa. Dirutza orrekin Artxiola bildurtu egingo zala uste zuan. Baiña au jokatzeko prest agertu, eta orduan Labakak atzera egin.

Orduan Artxiolak egundoko erronka jo zuan:

Mundu onen bost parte
oien danen kontra,
iñork irten nai badu
jotzen det erronka:
zortzitik amaseira
libra dan palenka,
arraian pasa gabe
eskuiko anka,
zeñek luzeagoa
plazan egin marka.

Bertsoak jarri arazi zituan, eta ori oietako bat. Ikus: *Auspoa* 183. Bertso ederrak, bost puntukoak, doiñu ederrez kantatzen diranak. Bertso oiei esker, jokatu gabeko apustu bat izan da gure kirol ontan famatuena.

Zuanetagatik onela jaso nion Azkoitiko Patxi Larrañaga bertsolaria zanari:

"Nere aitak zekan barberi bat Azkoitin, pelukeri bat. Eta Zuaneta, ain txuxen, zorionez ezagutu nuan. Agure galanta zan. Ta nere aitaren etxera bi-

zarra kentzera etortzen zan ostiraleetan. Ni umetxoa nintzan; zazpi edo zortzi urte, geienez. Aulki txiki batetik beratu oi nion bizarra, aitari laguntzeko. Aitari ikasiak nezkan nik bertso auek ordurako, eta Zuanetak etxera askotan eramaten nindun. Xextogiña zan bera, eta arekin antxe ibiltzen giñan endreazten. Baña, pelukerira sartzen zanean, ni asi oi nintzan, umeen kontuak:

Ni naiz palankaria
Artxiolakua...

Ta esan oi zidan:


– Motell, motell, egon adi ixilik eta beratu zak bizarra ondo!

Nik ez bainekin orduan zer esan nai zuan gauza arek”.

Artxiolaren berriak Basarrik eman zituan, *La Voz de España* egunkarian, 1968-VII-28-an, berak argibide oiek Ameriketako eskutitz batetik artuta:

“Amerikara jun, an bizi ta an il zan. Montevideon jarri zan bizitzen lenengo. An urtebete inguru egin zun. Buenos Airesera aldatu zan andik. Esneketa lana artu zuan. ainbat euskaldunek bezelaxe. Zaldia ta karroa artu ta esneak banatu. Artxiolak aña indar zun gizonik ez omen zan Arjentinan ezagutu. *Hércules vasco* deitzen omen zioten. Artxiola ta bere emaztea sorterria bixitatzer a etorriak ziran 1899-garren urtean. Tolosan bizi izan ziran iru urtez. 1902-garren urtean itzuli ziran Arjentinara.

Karlisten gerran ibillia zan Artxiola. *Teniente honorario* zan bere gradua. Soldata jasotzen zuan Arjentinan. 1948-garren urteko abuztuaren laugarren egunean il zan. 93 urte zituan”.



Artxiola baserria, Errezil, Gipuzkoa.

Euskal idazki bat Aragoiko lurretan

Bai. Aragoiko erreinu zaarrean, Zaragozako probintzian, Naparroatik urbil, Valdonsella lurraldean, Navardún errian, euskal idazki bat arkituko du bertara joaten danak, arrizko oroitarri batean.

Berrogei urte badira nik erri ori ezagutu nuala, Xabierretik ara urriko arratsalde batez bizikletan joanda. Eliz erromanikoa eta gaztelu zaarra bisitatu genituan. Andik etorri eta kurpil batean pintxazoa genduala ikusi. Nork konpondu lezakean galdetu eta errementaria zala **guk** bear genduana. Ekar arazi zuten eta asi zitzaigun mesede ori egiten. Artan ari zala, gizon bat inguratu zan, galtzak jasota eta anka zuztarrak gorri-gorri zituala. Maatsa zanpazteko garaia zanez, artan jarduna izan. Bueltan gentozela, illundu egin zuan. Baiña mendien gaiñetik illargi betea azaldu zan, bazter guziak esne-koloroko argi batez estaliz. Alako batean, artzai edo nekazariren batek jota bat kantatzeari ekin zion. **Guk** ez genduan bera ikusten eta berandu genbiltzan, baiña gelditu egin giñan obeto entzutearren. Une batez ordeka guzia bete zuan arek bere kantuaren edertasunarekin.

Garaitsu artan, edo geroxeago bearbada, erreto-re berria izendatu zuten Navardún errirako. Donostiarra bera, baiña Jakako eliz-barrutian meza emana. Jesus Aurizenea Garitazelaia izen-abizenak.

Etorri eta arrituta gelditu zan, gu bezela, eliza-rekin. Baita garbitu eta txukundu premia zuala ikusi ere. Zer egin zuan? Bear ziran baimenak lortu, dirua andik eta emendik bildu, erriko gizonak lanean jarri eta eliza gaur ikusten dan era zoragarrian utzi.

Otar bat egiten duanak eun ere egin ditzazkela da esaera zaarra, eta orduan ere orixe gertatu zan. Zenbat eliz berritu ote zituan Aurizenea jaunak andik aurrera Jakako eliz-barrutian? Ori zeatz jakiteko bertako gotzaitegian galdetu bearko litzake. Baiña ogei bat edo geiago bai.

Aurizeneak eliza berritutako beste erri bateko gizon bati onela entzun nion:

- Don Jesus arek doai berezia zuan gu danok lanean jartzeko. Aurrena bera asten zan. Eta, ura artan ikusita, gu ere gustora aren atzetik eta aren agindupean.

Baiña erio zitalak gazterik eraman zuan Aurizenea jauna. Jakatik Navardún-era bere kotxean zertorrela, errira irixteko kilometro bat falta zuala, atake bat izan zuan eta bertan gelditu. Artzai gazte bateg kontatu zigun nola gertatu zan:

"Ni ardi zai nenbillen. Alako batean kamioan an ikusi nuan kotxe bat, ni nengoan tokitik urruti gabe, biurgune batean era txarrean gelditua.

Nere arreba gazteena, berriz, kamioan paseatzen zijoan bere lagunekin. Gaizki gelditutako kotxe baten ondoan guardia zibillak zeuden, multa jartzera-edo inguratuak. Baiña txoferra ilda arkitu. Nexkak zetozela oartutakoan, aiengana urbildu ziran.

- Gizon ori ezagutzen al dezute?

Nexkak ondoratu, kotxe barrura begiratu eta erriko erretorea ilda ikusi zuten. Ikaratu eta guardiei ezer erantzun gabe igesari eman zioten.

Ni, ori ikusita, ardiak utzi eta bertaratu egin nintzan. Baiña susto ederra artu nuan nik ere, kotxe barruan don Jesus ilda ikusita.

Kotxetik atera gabe, batek kanpotik bolanteari eragiñez eta besteak atzetik bultzaka, errira ekarri genduan. Emengo kanposantuan lur eman genion”.

Oneraiño artzaiaren itzak.

Udaberri ontan izan berria naiz Navardún-en. Leenengo bisita gazteluari. Muiño baten gaiñean dago. Bista ederra andik ageri dana: Valdonsella-ko ordeka zabala gari berriaren berdetasunez jantzia. Zeruko sapaia urdin zoragarria. Mendiak jira guttian. Kukua eta kirkirrak kantari. Artalde baten zintzarri-otsa...

Errira jetxi, plazatxoan sartu eta antxe leen esan degun oroitarria, Aurizenea jaunaren arpegia-ekin, beraren gurasoak eta erriak altxa arazia. Idazkiak bi zutabe ditu, bata euskeraz eta bestea erderaz, itzak alkarren parean dirala:

“Emen il-tzan 47 urteakin apaiz / Aquí murió con 47 años Mosén / Jesus Aurizenea Garitazelaia. / Zeruan bego. Está en el cielo. / Navardún 31-VIII-1975”.

Euskera eta erdera alkarren etsaiak dirala? Ez Aragoiko erri txiki ontan. Emen ez du inork ikuituko euskal idazki ori. Gizon maitatua eta gogoratua baita gaur ere don Jesus ura. Zergatik ote? Iparra-girrerren aolkua ezin da obeto bete zualako: “eman da zabal zazu munduan frutua”.



Navardún, Zaragoza.

Leyreko txoria

Leyreko San Birilaren eta bertako txoriaren leienda oso ezaguna da noski. Ala ere, tokian tokiko zer kontatuak eskeintzen ditugun sail ontan orri ere leku eman bear zaiola uste degu.

X mendea zan. Santxo Garzes I Naparroako erregea; eta moroak artean Ebro inguruan zeuden.

Leyreko praileen nagusia Birila izeneko bat zan. Bertatik bistan dagoan Aragoiko Tiermas errian jaioa. Aren izena garai artako paper agirietan azaltzen da. Bene-benetako gizona izan zan, beraz, ura; ez inoren iduripenak sortua. Santu izendatua gainera, il ondoren. Beraren ezurrak Leyren gorde izan ziran urte askoan. Gaur Iruñeko katedralean dirala uste det. Aren irudiak, irudi zaarrak, arrizkoak, badira Leyreko komentuan. Baiña berari erantsi zaion leienda kontatzen asi gaitezen.

Elizgizon sutsua omen zan. Baiña bazeukan zantzantza gaizto bat, pipiak zura bezela barrua zultzen ziona: betikotasuna zer izan zitekean alegia.

Sarritan koroan praileak kantatzen zuten salmo batek onela zion: "Milla urte zure aurrean, Jauna, atzo pasa zan eguna bezelakoxeak dira".

Baiña berak onela zion bere kasa: "Ori eziñezkoa da. Jaungoikoa edertasun amairik gabea izanagatik, ura beste ikuskizunik ez dutela, azkenerako aspertu egingo dira zerutarrak".

Pentsamentu orrek etzuan gizarajoa pakean uzten. Udaberriko egun batez, bere kezka ori biotzean zuala, atsedernaldi bat artzera atera zan. Baso itxi batean sartu zan, eta etzan gelditu iturritxo baten ondora iritxi arte. Antxe atsedeten zegoala, txori bat kantari asi. Ari entzundakoan, Birilak:

- Ori txorrotxio lilluragarria! Musika oberik bai ote da inun?

Obeto entzutearren, arri konkor batean exeri zan, eta begiak itxi. Ura zoramena!

Txoria ixildutakoan, etxerako bidea artu zuan. Basotik atera eta komentua oso aldatua eta aunditua ikusi zuan. Nola izan zitekean ura?

Alderatu, praile batekin topo egin eta onek:

- Nor zaitugu zu? Zer nai zenduke?

San Birilak:

- Ni nor nazuten? Komentu ontako nagusia, paseatzera atera eta orain etxeratzen naizena.

- Ez. Ori ezin diteke. Komentuko nagusia Urliada. Deituko degu bera.

Nagusia deitu zuten, beste praile batzuk ere inguratu ziran eta danak ezezagunak Birila gizajoa-rentzat.

Besteak, berriz, beren buruari galdezka: "Basotik agertutako praile au nor izan diteke?" Baiña batek komentuko liburu zaarrak ekarri zituan, eta an azterka asi, bertako nagusi izandako praileen izenak aztertuz. Alako batean:

- Billatu det! Orain irureun urte Birila izeneko bat zan emengo nagusia. Baiña basoan galdu eta ez omen zan geiago azaldu.

Ara dana garbi. Orrenbeste denbora txoriari entzunez pasea izan ura. Praileak oiuka orduan:

- Mirari! Mirari bat degu au!

Danak elizara zuzen, Jainkoari eskerrak ematera. Zera esaten duan salmo ura kantatu zuten: "Milla urte zure aurrean, Jauna, atzo pasa zan eguna bezelakoxeak dira".

Orduan txori bat egan eliz barrura eraztun bat mokoan zekarrela, San Birilaren abade-eraztuna bera, eta onen beatzean sartu. Denbora berean goiko abots bat:

– Txoritxo baten kantua baiño ohea ez al da izango milloika aldiz Zeruko Jaunaren edertasuna?

Leienda au ez omen da Leyrekoa bakarrik. Galian eta Leonen ere kontatzen omen da. Baita Frantzian, Beljikan eta Ingalaterran ere. Alfontso X jakintsuak ere beraren berri ematen du bere *cántiga* batean. Baita aita Nieremberg-ek, Uhland Alemaniko olerkariak eta Valle Inclán idazleak ere.

Aurtengo maiatzean izan nintzan ni Leyren. Goiz eguzkitsu bat zan. Leenengo bisita elizari eta elizpe zoragarriari. Gero mendian gora, Erronkariko artaldean bidetik. Lurra margaritaz betea zegoan. Kukua eta kirkirrak kantari. Nere aurrean gaillur arkaiztsuak goizeko eguzkiarekin dizdiz. Baita ostoberritutako pagadiak ere. Burua jiratu eta Yesako urtegia, zeru urdiñaren ispillu. Atzean, berriz, mendiak: Oroel, San Juan de la Peña, Santo Domingo, Sos, Peña, Uxue...

San Birilaren iturriko bidea ondo señalatuta dago. Ari segika, basoan sartu nintzan. Arteak emen nagusi. Baiña ez nolanaikoak; eunka urte izango dituzten arbol aundi baldarrak. Baita gizon baten buruari eragiten dioten ezpel ikusgarriak ere. Arkaitz konkor aundiak ezker-eskubi, goroldioz jantzita. Lurra arte-orbelez estalia. Arkaitz batean itz auek idatzita:

"Mil años en tu presencia son como el día de ayer que pasó".

Beste batean Rabindrana Tagore-ren itz auek:

"Hace siglos que compones colores y canciones, pero tu paraíso es aún sólo un mero proyecto".

Iturrira iritxi naiz. Ur tragoska bat leenengo. Urrena, zugaitz eta arkaitzez inguratutako txoko artan, gizonaren betiko galderak nere buruan ere: Nola oneratu giñan? Zer gera? Nora goaz?...

Alako batean, alboko artean erretxiñol bat kantari asi. Ura zan dotoretasuna. Ari entzuten geldigeldirik egon nintzan. ixildu zan artean.

Bueltako bidea artu nuan. Pentsamentu bat orduan burura: "Nik ere irureun urte pasa ote ditut txoriari entzuten?". Alde batera gogoa banuan orrela gertatu eta emendik irureun urtera mundu auzer izango dan pixka bat bederen ikusteko.

Baiña ez. Basotik atera eta komentua leen bezelaxe zegoala ikusi nuan. Erlojuari begiratu nion eta nere joan-etorria, erretxiñolari entzutea eta guzi, ordu betekoa geienez ere...

Arditurriko minak

Arditurriko minak, irakurleak jakingo duanez, Oiartzunen daude, Aiako Arriaren oiñean, beeko zuloan. Ia bi milla urte badira erromatarrak or lanean aritu zirala.

Orain ia berreun urte, berriz, J. G. Thalacker izeneko injeniero bat etorri zan mina oiek aztertzerara. Frantzesak bera, oker ez bagaude. Ikusi zuana esanez idazlan bat argitaratu zuan gero, Madrilleko *Variedades de Ciencias, Literatura y Artes* aldizkarian, 1804 urtean.

Berri jakingarri asko ematen ditu mina oietaz: mineralaren barra nundik noraiñokoa zan; berrogei ta sei tunel eta larogei ta bi putzu ikusten zirala mendiaren egalean; barrukoak, berriz, ezin konta alak; amabost egunean ere ezin zitezkeela oiek danak korritu; seireun langillek berreun urtean etzuta lan ori dana egiterik; eta abar eta abar.

Batean larri ibili zan, ia bere bizitzaz etsitzeraiño. Goiz batez, zortziak aldera, Arditurrira iritxi zan, langille batekin. Au oiartzuarra izango zan, dudarik gabe. Oteleku aundi batera iritxi ziran. Gaur egunean ere arantzadun landare ori asko da malda oietan. Zulo bat arkitu zuten, mina oietarako sarre-
ra bat noski, eta barrura sartu ziran.

Batzuetan lau oiñean eta besteetan arkaitz tentetan gora igoz, ogei bat metro ibili ziran. Zuloa an

zabaldu egiten zan, eta zutik jarri ziran. Baita kandelak piztu ere.

Segi aurrera. Eliza aundi batek aiñako leku zuan paraje batera iritxi ziran. An, ordea, makiña bat tunel, bidegurutze, zulo eta putzu.

Tunel batean lareun bat metro aurreratu ziran, Urrena, putzu batera jetxi. Aurreraxeago, eskeleto bat aurkitu. Barrura sartu eta kanporako bidea ezin billaturik ildako batena, dudarik gabe.

Segi aurrera berriz ere, tunel aietan barrena. Injenieroa zoraturik bezela zebillen mineral puxkak-eta jasoz. Baiña alako batean oiartzuarrak:

– Aizu, jauna: berandu da. Nekaturik eta goseak gaude. Kandelak laster aituko zaizkigu.

Frantsesak ordulariari begiratu eta arratsaldeko ordubiak ziran. Kandelak ere azkenetan ikusi zituan. Ala, atzera jo zuten.

Baiña ordu laurden batera bidea galduta zeuden. Andik laster, kandelak itzali. Batzuetan eskuekin paretatik ikuituz eta besteetan lau oiñean, segi illunpeetan. Arri tiraka asi eta ur-soiñua entzuten zan.

Oiartzuarra, frantsesak dionez, ai-eneka eta negarrez asi zan. Bera gabe, bere familiarekin zer gertatuko zan? Leenbaileen bukatzeko, bere burua putzu aietako batera botako zuala, eta abar.

Okerrena zera zan: iñori ezer esan gabe sartuak zirala. Ala, kanpoko laguntzarik etzezaketan espero.

Ala ere, oiartzuarraren labanarekin, frantsesaren ardagai eta arriarekin, eta azufre pixka batekin paperen batzuk noizbeinka piztuz, aurrera jarraitu zuten. Alako batean, leen pasatako toki bat ezagutu. Baita aize pixka bat sentitu ere. Ari segitu eta orduan kanpora atera, barruan iru bat kilometro ibili ondoren eta ozta-ozta bizirik aterata. Ordulariari begiratu eta gaueko amaikak ziran.

Prantzesaren idazlanak dionez, bera ausarditsu portatu zan; oiartzuarra, berriz, kobarde. Egia ote da? Ez dakit. Danok dakigu geren burua edertzen eta lagun urkoarena itxusitzen. Erromatarrak irikitako zuloetan ibiliak ziran, eta ara Erromatar Esku-bideak zer dion: *Nemo inauditus damnetur*. Ez dago, berari entzun gabe, inor kondenatzerik. Oiartzuarra zer zion jakin bear genduke, beraz, auzi au ongi epaitzeko. Arek, ordea, etzuan ezer idatzi eta gu aren kontraeraz ezin enteratu.

Baiña idatzizkoa utzi ez bazuan ere, aozkoa ederki zabalduko zuala dudarik ez egin. Egun artan bertan ez bada, biaramonean tabernara edo sagardotegira joango zan ziur asko, sustoa pasatzera; eta an gertatuaren berri ederki kontatuko zuan. Frantzesarengatik epelak esan ere bai. Bertsoak ere izan omen ziran. Oietako bat auxe:

Egia esateko
bertso bat nik orra,
prantzes txoro batekin
pasa zait gogorra.
Zein burutan sartzen da
dala derriorra
kristaua biurtzea
lurpeko satorra?

Munarritz

Karlos, Bianako printzipea, Gaztelan jaio zan, Peñafiel errian, 1421-V-29-an. Ona aren gurasoak: Aragoiko Juan II eta Naparroako Blanka, Karlos III-ren alaba, erreinuaren koroia jantziko zuana.

Karlos III orrek billoba orrentzat sortu zuan Bianako printzipearen titulua, gaur Felipe printzipeari dagokiona. Aiton ori, billoba umea zala il zan. Ama, berriz, 1442-an, Naparroako koroia bere seme Karlos orri utzirik, baiña kondizio batekin: etzezala errege-izenik erabili aitaren baimenik gabe.

Aitak bigarren emaztea artu zuan, Juana Enríquez andrea; eta au Naparroako gobernari jarri zuan, semearekin batera.

Artean pakean bizi zan Naparroako erreinua, orduan naastu zan. Leenengo, Gaztelarekin gerran asi. Urrena, barruko gerra, aita eta semearen artean. Une ortan sortu ziran beamontarrak eta agramontarrak, Naparroa odolez gorrituko zutenak.

Gerra aietako gorabeera guziak ematerik ez dago noski. Baiña gertaera jakingarri bat kontatuko degu, Manuel Iribarrenek bere *El príncipe de Viana* liburuan dakarrenez.

Batean, 1448 urtean, aita Iruñetik igesi atera zan, eta Goñi-ibarko Munarritz errira iritxi. Semeak

atzetik segi. Aita, semearen eskuetan ez erortzearren, Munarrizko elizan babestu zan. Semea elizan sartzera zijoan, aita preso egin asmotan. Baiña erriko apaizak ur bedeinkatua eskeiñi zion. Baita printzipeak artu eta aitaren egin ere. Orduan apaizak:

– Berorrek nola esan du orain? Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, ez da?

– Bai.

– Eta zein esan du aurrena: Aita ala Semea?

– Aita.

– Ba, zeruan Aita aurretik bada, lurrean ere aita aitortu dezagun erregetzat leenengo, eta semea gero.

– Arrazoi dezu.

Semeak aita orduan atxilotu izan balu, Naparroaren etorkizuna oso bestelakoa izango zan. Baiña apaizaren itz oiekin, pakeagatik esanak izanik ere, gauzak zearo aldrebestu ziran.

Orduan egin zuten pakeak gutxi iraun baitzuan. Semea, izan ere, on puska bat zala garbi ageri da. Aita, berriz, maltzur utsa.

Berriro gerran asi ziran. Gorabeera asko erabili zituzten, batean bat eta bestean bestea garaille zilararik. Baiña 1451-n, Aibarko burrukan, aita semea guztiz menderatu zuan, eta preso artu ere bai.

Semea, arrezkeroztik, leenengo kartzelan bizi izan zan, eta urrena erbestean: Paris, Erroma, Napoles, Sizilia, Mallorca, Bartzelona. Emen ilko zan 1461-IX-23-an, menenatuta, batzuek diotenez.

Munarriz erria ezagutzearren, ara joan nintzan apirillaren arratsalde batez. Errian sartu eta pago-egur errearen usaia kaleetan. Bai etxeekin arrituta gelditu ere. Aundi, bikain, dotoreak danak edo geienak, armarri ederrekin. Eliza, berriz, gotiko

sarrera duana. Bianako printzipearen denboran egin berria izango zan.

Atean idazki bat. Zer esango eta arratsalde artan bertan, zazpi t'erdiak aldera, Aralarko Aingerua iritxiko zala. Ogei minutu falta ziran eta itxogitea erabaki nuan. Erriko sarreran jendea asi zan bilzen. Parrokiko gurutzea ere antxe.

Aingerua etorri zanean, onek eta gurutzeak muin eman zioten alkarri. San Migel ekarri zuan apaizak bere otoitzak egin zituan an bertan, eta lau aldeetara bedeinkazioa eman ere bai.

Funtzio apala benetan, baiña bai unkgarria. Bitartean, eguzkia makurtzen zijoan Andimendi aldera, eta zearka argitzen zituan gari-soro berdeak, artean ostorik gabeko pagadiak eta mendi gaillurak. Laiño zuriak zeru urdiñean. Aize freskoa, txorien kankak, mendi-ganaduen zintzarri-otsa...

Andik eliz aldera abiatu giñan. Sartu eta aurrena aingeruari muin ematea. Ni ere antxe joan nintzan eliztarren atzetik. Ondoren meza zan, baiña berandu nenbillen eta gelditzerik ez.

Andik nentorrela, burutazio bat nagusitu zitzaidan. Builla egiten duten gertaeren atzetik ibiltzen gerala geienetan. Ni ere alako baten arrastoen billa joana nintzan Munarritzera. Baiña erri onek urtero pake-pakean betetzen duan oitura bat erakutsi zidan. Ez al genduke obe auen billa saiatu, beste zaratatsu oiek bazterrera utzita?

Oka erreka-zuloa

Mundu guziko idazlerik onenen liburuak euskeratzen ari dira azken bolara ontan. Ongi derizkiot. Baiña Euskal Erriari buruzko makiña bat kontaera eta leienda bada gazteleraz idatzita. Oiek ez al dute gure izkuntzara ixurtzerik merezi? Baietz uste det, eta gaurkoan ortara noa.

Antonio Trueba bizkaitar idazle ospetsuak *Las tradiciones de Oca* izeneko idazlana argitaratu zuan *Euskal-Erria* aldizkarian 1886 urtean.

Zornotzatik Gernikara joateko, Auntzaganera igo bear da. Lepo ori Oiz menditik Bizkargira dijoan mendi-lerroan dago. Andik beera Okako erreka-zulo estua asten da. Ibai txikia bera, baiña Gernikako itxas-adar zabalean bukatzen dana.

Menditarte ortan daude, Gernika baiño leen, Zugaztieta, Areatza eta Astelarra erri edo auzuneak.

Leku itzaltsua omen zan ori Truebaren garaian. Intxaur, gaztain, sagarra eta gerezi arbolez beteta zegoana. Agian ortik izango du izena leen aitatu degun erriak: Zugaztieta. Gaur ere arbol eskasirik ez dago. Baiña piñu beltza zearo nagusitu da. Eta toki berdea zana "ederto baltzituta" dago.

Oka izeneko etxea omen zan or, XI mendean eraikia. Etxe ori, geroztik dotore berrituta, antxe ikusten omen zan Truebaren denboran, ibaia eta

trenbidearen artean. Gaur zutik irauten duan ez dakit.

Bertako jauna Gonzalo Saez Oka zeritzan. Leenengo ezkontzatik alaba bat zuan: Maria izenekoa, beraren ama bezela. Aita alargundu eta berriro ezkondu zan, Pastora Aramaiona andrearekin. Baiña onengandik etzuan familirik izan.

Gonzalo jauna, Bizkaiko garai artako beste zaldun guziak bezela, nekazaria zan. Baiña bear zanean atxurra utzi eta ezpata artzen zekiana.

Batean, moroen kontra gerrara joan bearra izan zuan. Etxean alaba eta onen amaordea gelditu ziran. Onek begitan artua zeukan bere alabaorde ori. Zera ekarriko zion burura: berak familirik ez eta lore ura bere senarrak beste emazte batengandik izana zuala. Ala, egun batez onela esan zion:

- Goazen basora. Egur-sorta bana ekarri bear degu surtarako.

Joan ziran. Baiña an zirala, Pastorak aizkorarekin bere alabaordea jo eta il egin zuan. Onek Ama Birjiñaren izena aitatzeko beste astirik ez omen zuan izan.

Ondoren, amaordeak zulo bat egin zuan lurrean, eta alabaordea an sartu, lurrez eta arlosez estalirik. Andik laster, illobi ori sasi, lore eta belarrez estalita zegoan.

Andik urtebetera, aita gerratik etorri zan, bere alaba maitea laztantzeko pozetan. Baiña emazteak onela esan zion:

- Gure neska basoan galdu zan. Egiñal guziak egin genituan ura bizirik edo illik billatzearren, baiña alperrik. Otsoak eramango zuten.

Egun batean, ordea, Gonzaloren aaide eta auzoa zan Iñigo Martinez jauna Oka mendira joan zan, idi baten billa, ura ere otsoak jana izango zala

pentsatzen bazuan ere. Baso batean bele-talde bat ikusi zuan eta aruntz zuzendu zituan bere pausok. Baiña inguratu eta abots gozo bat entzun zuan:

– Iñigo! Iñigo!

Gure gizonak berekiko: "Abots orrek igaz galdu zan Mariarena zirudik, ba!".

Aurrera segi eta dei ori lurpetik ateratzen zala oartu. Asi zan sasi tarteko arlosak apartatzen eta galdutako Maria an azaldu zitzaion, bizirik eta eder, ezeren okerrik izan ez balu bezela.

Mariak onela esan zion:

– Amaordeak aizkoraz jo nindunean, laguntza Ama Birjiñari eskatu nion; eta berak berpiztu nau. Baita urtebete ontan jaten eman eta lagundu ere.

Pastorak merezitako zigorra izan zuan. Maria, aitaren baimenarekin, Ama Birjiñaren serbitzari izan zan bere denbora guzian. Eriotza eta miraria gertatutako tokiak, berriz, Erroitegi izena izan zuan arrezkeroztik. Gonzalo jaunak ermita bat altxa arazi omen zuan an, Zeruko Amaren izenean.

Trueba jaunak nundik atera zuan kontakizun ori? Irureun urte omen ziran Zornotzako Juan Iñiguez Ibarguen idazle zaarrak ori argitara emanik, eta oni artua omen zuan. Etzuan, beraz, bere kabuz asmatua.

Mandatuak bialtzeko modu zelebrea

Karlisten leenengo gerratea, Fernando VII 1833/IX/29-an ildakoan asi zan. Zumalakarregi, pake-pakean Iruñen bizi zana, urte bereko azaroan pasa zan karlistetara. Urrengo urteko ilbeltzaren 24-an Ilunberrin zan. Baita liberalak aren atzetik ere, zakurrak erbiaren arrastoan bezela.

Baiña Zumalakarregik, eguna zabaldu baiño leen, batalloi bat, Naparroako irugarrena, Felix Itxasoren agindupean, Zirauki eta Lizarra aldera bialdu zuan. Beste batalloi bat, berriz, Naparroako leenengo, Frantzisko Iturralderen agindupean, Zangotza aldera.

Liberalak, karlisten soldadu guziak bi talde aietan zirala pentsaturik, beren indarrak zatitu egin zituzten. Erdiak Itxasoren atzetik abiatu ziran; eta beste erdiak, Iturralderen atzetik.

Bitartean, Ormaiztegiko azeria Ilunberrin bertan gelditu zan, beste batalloi batekin, ixil-ixilik. Eta liberalak alde batera eta bestera urrundu ziran, berak ipar aldera jo zuan, Orbaizetako armafabrikaraiño igotzeko. An ziran etsaiak errenditu eta berreun fusil eta munizio-pilla bat eskuratu zuan. Ondoren, Ilunberrira ostera ere jetxi.

Liberalen amorrua ori jakin zutenean! Beren indar guziak bildu eta arengana berriro ere. Ipar alde-ra jo zuan orduan ere Zumalakarregik, eta Aspurtzeko mendi-tartean gelditu. Mendi-tarte onetzaz ona nola dion Juan Antonio Zaratiegik bere *Vida y hechos de Don Tomas de Zumalacárregui* liburuan:

"...un boquete estrecho y de una extensión como de dos tiros de fusil, al cual se da el nombre de Foz de Aspurz. Esta garganta, por la que pasa el camino de Lumbier a Navascués, es de tal naturaleza, que casi sólo con piedras puede defenderse".

Bertan gelditu zan Zumalakarregi, bere gizonak komeni zan tokietan ipiñirik. Baiña banaka batzuk goiko erpiñetara bialdu zituan, etsaiaren joan-etorriak zaintzeko.

Orduak pasa, arratsaldea ere aurrera eta etzan ezer ere gertatzen. Alakoren batean, gizon bat ikusi zuten, arkaitz tartean presaka zetorrena. Begira jarrri eta artzai baten itxura artu zioten. Baiña bizkarran zer ote zekarren? Arlosa aundi bat!

Zumalakarregirengana iritxitakoan, bere zama lurrean utzi eta artan esaten zana irakurtzeko eskatu zuan. Arlosa idatzita baitzegoan: liberalak Iso errian geldituak zirala eta abar.

Ormaiztegiarrak zera pentsatu zuan orduan: urrengo egunean liberal batzuk aurretik etorriko zitzaizkiola, baiña beste batzuk atzetik, mendiari buelta emanda; eta ori gertatzera, berak gaizki ibili bearra zuala. Ala, lekua ustü egin zuan, eta Nabaskotzera alde egin.

Baiña zeñen buruko egiten da mandatu bat arlosa batean idatzita bialtzea? Zaratiegik onela erantzuten dio galdera orri:

"Sin duda el oficial que mandó al pastor con la piedra, le calificó de muy corta capacidad, cuando viéndose sin lo necesario para escribir, apeló a este nuevo modo de correspondencia".

Baiña artzaia kaskagogorra izatea beste ulerbiderik ez ote du gertaera onek? Baietz uste degu, naiz eta guk esango deguna ere segurutzat ezin artu. Danok dakigunez, euskerak eremu zabalagoak betetzen zituan garai aietan Naparroan. Ego aldera askoz geiago jexten zan. Ala, Aspurtz eta bere ingurua ez ote ziran orduan euskaldunak izango? Ditekena da ori ere. Eta, ala izanik, artzai arek erdera etzuan agian ulertuko, eta esan bearrak orretxegatik idatziko zizkioten arlosa artan, paper eta lumaren faltan arkitu ziran ezkerero.

Dana dala, Aspurtzeko menditarte ortan mandatuak bialtzeko modu zelebrea erabili zala esan bearrean gera.

Toki ori Ilunberri eta Nabaskotze bitartean dago. Menditarte estu bat da. Andik barrena aurrera dijoa Saraitzu ibaia, arrietan txuri-txuri egiñik eta amorraiez aberats. Alde batera eta bestera malkar zakarrak, artez eta piñuz ederki beztuta, arkaitz txuriak tartean dirala. Esku batera, Idokorri mendia; beste aldeko tontorrean, San Kiriko ermita. Zeruan, berriz, putreren batzuk egan.

Kilometro bat izango du luzeeran menditarte onek. Beste aldera pasa eta eskubi aldera benta zarrara. Garai batean emen biltzen omen ziran nekazariak, artzaiak, eiztariak, mandazaiak eta baita almadieroak ere, beren enborretan tente Arbaiungo menditarte estu eta bildurgarria igaro bear zutenak.

Ezker aldera, berriz, Aspurtzeko erria, muiño baten gaiñean, labore-soroz betetako erribera ederra inguruan duala.



Ilunberri, Naparroa.

Zumaiko txakur ernea

Bilbo-Donostiako autopista egin zan ezkeroztik, leengo kamioak aaztuxeak dauzkagu. Baiña ederra benetan Zarauztik Zumaira bitarteko itxas-ertzeko ura. Gaur ortik abiatu naiz.

Zarauztik Narrosko jauregiaren ondotik aterata, begiak eskubi aldera dijoaz. Ederki ikusten da emendik Gipuzkoako itxas-bazterraren zati aundi bat. Aurrean, berriz, Getaria eta San Anton mendia. Elkanoren oroitarriaren ondotik pasa eta kilometro batzuetara orra or gure itxas-ertzaren beste zati bat: Andutz, Debako sarrera, Arno, Bizkaiko mendiak... Zumaia ere aurrean: urre-koloreko ondartz, Zuloagaren jauregia, eliz ederra, Urola ibaia...

Bide ori egindako geienetan, Julene Azpeitia zaren oroipena datorkit burura. Euskal idazle saiatua bera, eta Zumaiko alaba. Ni iru bat aldiz izketatu nintzan berarekin. Andre errespetukoa eta gozoa benetan.

Beraren oroipenarekin batera, arek kontatutako pasadizo zaar batez gogoratzen naiz. Bere idazkietan kontatu zuan ez dakit. Billa saiatu naiz, baiña ez det arkitu. Irakurleak barka dezaidala, arren, gauzak errepikatzen baditut. Ala ere, ari entzuna idatzi egingo det, kontaera jakingarria danez.

Julene andrearen aurrekoren batzuk itxasgizonak omen ziran. Nola ez, zumaitar jatorrak izanik?

Garai artan, mariñelak zakur bat eraman oi zuten berekin, kaietan ontzia zaindu zezan, kate-zakurrak etxea bezelaxe. Ala, aiek ere bazuten berena.

Batean, itxas barruan Santanderko parean zirala, zakurrak imintzio itxusiren bat egin omen zion norbaiti.

Amorratuta zegoala pentsatuz, eta gaitz bildurgarri orrekin iñor kutsatu etzedin, zakurrari bulzada edo ostikoren bat eman eta uretara bota zuten. Ori egin ondoren, mariñel aiek beren lanetan jarraitu zuten.

Bitartean, etxekoak lasai asko zeuden Zumaian, aiek ere beren eginkizunetan murgilduta.

Alakoren batean, ordea, an ikusi zuten ontziko zakurra etxeko ate ondoan. Ura, uretara bota zuten tokitik legorrera atera eta andik Zumairaiño etorria izan, bere barruko sena gidari zuala. Berak jakingo zuan tarteko mendiak eta ibaiak nola pasa zituan.

Baiña zakurrak gertaeraren berri ezin eman, etxekoak ezin igerri, eta antxe izan zan angoa! Danak negarrez eta zotinka, ontzia eta mariñelak galdu eta zakurra bakarrik salbatua izango zalakoan. Beste ulerbiderik ez baitzeukan aren etorrerak. Ez dakit illetak nola ospatu pentsatzen ere ez ote ziran asi. Erri guzia aztoratu zan beintzat.

Baiña, andik egun batzuetara, galdutzat zeukaten ontzia antxe azaldu zan Zumaiko portuan, bere itxasgizon guziekin. Errian zer nolako aleluia izango zan esan bearrik ez dago.

Mariñelak, zakurraren uste gabeko agerpenaren berri jakin zutenean, parre-algara egin zuten. Ondoren, gertatuaren berri zeatz-meatz eman ere bai. Orduan pasadizo guzia garbi geratu.

Andik aurrera, zakurra etxean egoten zan. Egin zioten bidegabekeria kontuan artuta, obetoxeago tratatua izango zala derizkiot.

Baiña etxeko gizonak itxasorako prestamenak egiten asten ziranean, zakurra galdu egiten omen zan. Berak jakingo zuan nun gordetzen zan; baiña iñork etzuan ikusten, alik-eta mariñelak beren ontzian itxasoratzen ziran arte. Orduan osterera etxeko ateondoan agertu.

Zakurrak, izan ere, beste gaiñerako abere eta pizti guziak bezelaxe, adimenik ez dute izango, eta itzik ere ez dute egingo. Baiña tontotik ezer ere ez dutenak dirala dudarik ez egin.

San Juan de Ortega

Aita Flórez istorigilleak, bere *España Sagrada* lan arrigarrian, XXVII liburuan, onelatsu dio:

"Burgostik lau legua sortaldera, Villafranca de Oca erritik urbil, basamortu batean, Idubeda mendia-
ren egaletan, antxe dago San Juan de Ortega izene-
neko komentu edo monastegia".

Idubeba mendi ori, gaur egunean erderaz *Cordillera Ibérica* esaten deguna da. Mendi-lerro orren emengo zatia, berriz, *Montes de Oca* izenekoak osatzen dute. Aritzez jantzitako muiño zabal batzuk dira. Oietzek banatzen dituzte Ebrora eta Duerora dijoazen urak.

Txoko ortan dozen erdi bat famili bizi dira, nekazaritzara emanak. Ala ere, bi eliz arrigarri ditu. Bietan aundienak, XII mendeko erromaniko zoragarria du eliz-buruan. Baiña XV-ean zabaldu egin zuten, eta gaur dagoan bezela utzi.

Juan de Ortega santua 1080-an jaio zan, Burgostik amabi bat kilometrora dagoan Quintanaortuño errian.

Gaztetan Domingo de la Calzada santuaren ikasle izanik, meza eman ondoren Jerusalem joan zan. Onuntzakoan, itxasoa zakartu egin zitzaien. Juan de Ortega San Nikolas Bariren laguntza es-

katu eta itxasoa baretu. Orduan arek onen izenean eliz bat altxatuko zuala promesa egin zuan.

Okako mendi auetan barrena dijoa Santiago-bidea. Errioxa aldetik datorrela, Burgos aldera emendik igarotzen da. Baiña basamortu arriskutsua zan au garai artan. Gaizkilleak erromesak lapurtu eta il egiten zituzten.

Ala, gure santuak, bidegille gizarajoei babes emateko zerbait egin nairik, mendi oietan sasiz eta osiñez betetako –ortik Ortega izena– zoko bat ikusi zuan, eta uraxe aukeratu.

Lagun batzuk bazituan eta aientzat aterpe bat egiten asi zan. Baiña egunez altxatutakoa gaizkilleak gauetz etorri eta lurrera botatzen zuten. Iltzeko desafloa ere egin zioten santuari. Baiña onek, kasorik egin gabe, limosna banatzen zien gaizkille oiei berai, eta azkenean bide onera ekarri zituan.

Batean idi-pare bat erosi zuan lanerako. Dirua eman ere bai saltzailleari. Baiña onek, andik piska batera, pagatzeko arren. Santuak, berriz, zorra kitatua zegoala. Bai eta ez, juezarengana jo zuten. Santuak orduan:

– Egia nork dion jakiteko, sartu dezagun onek eta biok eskua lokaztegi ontan, eta garbirik ateratzen duanak izango du arrazoi.

Ala egin zuten, eta saltzailleak eskua zikin aterra. Santuak, berriz, garbi-garbi.

Ala, onek ermita bat altxatu zuan San Nikolas Bariren izenean. Erromesentzat etxe bat ere bai. Eta gaurko eliza eraikitzen asi. Ortaz gaiñera, Santiago-bidea an eta emen konpondu egin zuan. Zubi berriekin erosotu ere bai.

Gau batean, gaizkille batzuk etorri eta bi bei lapurtu zizkioten. Igesari eman eta gau guzian etziran gelditu. Baiña eguna zabaldu zuanean, iñora gabe bertan bueltaka ibiliak zirala oartu.

Beste batean, idi bat erosi zuan. Ogei sueldo beraren balioa. Amar segituan eman zituan, eta besteak andik zortzi egunera pagatuko zituala. Baiña epe ori pasa eta bost sueldo besterik ez patrikan. Poltsa batean sartu eta saltzailleari eman zizkion, palta ziranak geroxeago pagatzekotan. Baiña besteak poltsa iriki eta amar sueldo arkitu.

Beste bein, erromes pilla bat etorri. Santuak serbitzari bat ogi billa bialdu. Bestea joan eta otarra ia utsik arkitu. Itzuli eta santuari esan. Onek, joateko berriro. Joan eta oraingo ontan otarra ogiz beteta arkitu.

Beste onelako mirari asko kontatzen dira santu onek egiñak. Baiña danentzat lekurik ez emen.

Santuaren fama gero eta aundiagoa eta ikasle asko bildu zitzaizkion. Aiekin komunidadade bat osatu zuan, San Agustiñen erreglaren azpian.

1163-ko ekainaren 2-an il zan. Egun orretan ospatzen da santuaren festa. Ogei ta lau errik kofradi bat osatzen dute, eta nor bere gurutze eta banderarekin etortzen dira.

Eliz onek gauza bat badu oso aitagarria. Martxoaren 21-ean eta iraillaren 21-ean, eguzkiak leio batetik sartu eta kapitela batean jotzen du. Kapitela ortan zer izango eta Ama Birjiña eta aingeruaren irudiak, onek Jainkoaren Ama izango dala esaten dion unean.


Santuaren illobia bi aldiz iriki da, 1474 eta 1966-an, eta aren ezurrak ia bi metroko gizandi batenak omen dira.

Esan degunez, eliz, etxe eta zubi asko egin zituan santu onek. Orregatik, Espaiñiako arkitekto eta aparejadoreak bera aukeratu zuten beren zaindaritzat, 1970 urtean.

Beste zer esan asko legoke santutegi eder onetzaz. Baiña bertako oitura bat kontatuz buka dezaz.

gun. Gaur ere erromes asko pasatzen da ortik barrera; eta, aiei gonbidatzearren, baratzuri-zopa prestatzen omen dute illuntzero erritarrak...

Burgos aldera noala, bein baiño geiagotan artu izan det nik zear-bidea, San Juan de Ortegara joateko. Udarán, batez ere, leku zoragarria da ura. Ariztien berdetasuna, galsoroen urre-kolorea, zeruaren urdiña, iturriaren otsa, txorien kantua, eliz erromaniko zoragarria... Bertako leienda eder asko kontatzen dirala? Ez naiz arritzen, tokia ere alakoxea da eta.



San Juan de Ortega, Burgos.

Donostiako Orfeoia eta Pedro Maria Otaño

Donostiako Orfeoia, bere eungarren urtea bete ondoren, famaren gaillurrean degu. Egokiera ona, beraz, aren kondairaren zatitxo bat berritzeko; Zizurkilko Pedro Maria Otañorekin izan zituan artu-emanak gogoratzeko, alegia.

Pedro Maria Otaño Zizurkilko Errekalde base-rrian jaio zan, 1857-I-26-an. Iru aldiz joan zan Arjentinara, eta antxe il, 1910-V-7-an.

Bigarrenez 1890-ean etorri zan andik. Ordura-ko bere familia Donostiara aldatua zan. Ala, bera ere bertan jarri zan bizi izaten. Bai ezkondu ere, Maria Magdalena Alberdirekin, 1891-VI-11-n. Emen iru seme izan zituan; eta Arjentinan iru alaba.

Donostian garai artan zan euskal giroaz lillurata, bereala asi zan bera ere bertsoak moldatzen. Ondo txalotuak izan ziran aren emaitzak. Baiña gaillurra 1896-an jo zuan. Urte artan, izan ere, Mondragoien uztaren 4-tik 7-ra egin ziran Euskal Festetarako, bi bertso sail aurkeztu zituan, *Aitona gizagaisoa* eta *Kubako gure anaiari* izenekoak, eta biekin leenengo saria irabazi.

Berak bere eskuz jaso zituan sari oiek. Donostiatik araiñoko biajea ez dakigu nola egingo zuan.

Baiña bai festa aietan parte artu zuten beste ogei lagunek nola joan ziran: trenez eta zalgurdiz. Lagun oiek osatzen zuten sortu berria zan *Orfeón Donostiarra* taldea. Onek Mondragoien, uztaren 7-an kantatu zuan leenengo aldiz jende aurrean. *Euskal-Erria* aldizkariak onela dio:

"El Orfeón cantó con exquisita delicadeza y afinación varios aires euskaros, entre los que figuraban el Ume eder bat, Goizeko izarra, Boga-boga, Illunabarra, unos Coros suecos con letra bascongada, y el Gernikako arbola".

Ogei gizon aientzat ere egun dizdiratsua izango zan ura; eta are dizdiratsuagoa zera jakin izan balute: beren taldea andik eun urtera, bizirik iraun ez-ezik, mundu guzian ezaguna izango zala.

Euskal-Erria-k onela jarraitzen du:

"Los orfeonistas fueron obsequiados con café, licores, pastas y habanos en el comedor del balneario. Reinó la mayor expansión y se improvisó una sesión de bersolaris, en la que hicieron las delicias de los concurrentes los aplaudidos D. José Zapirain y D. Pedro María Otaño".

Orra, beraz, alkarren lagun miñak egiñak Donostiako kantariak eta Zizurkilko bertsolaria.

Baiña oni zail egiten zitzaion bizimodua ateratzea: famili aundia; pulamentuzko lantokirik ez; taberna jarri, baiña arekin ere eziña... Ala, berriz ere Ameriketara joatea erabaki zuan.

Aren asmoen berri zabaldu zanean, euskal jendea benetan goibeldu zan. Ala ere, agintariak ez dakit asko kezkatu ziran, ura emen geldi arazteko alegiñik iñork ere etzuan egin eta.

Dana dala, Donostiako Orfeoiak onako eskutitz au zuzendu zion Pedro Mariri:

"Al distinguido poeta éuskaro: El Orfeón Donostiarra, en prueba de cariño y consideración por sus hermosas composiciones poéticas éuskaras, y muy

especialmente por la dedicada a dicho Orfeón, titulada Lartaun, ha acordado nombrar a V. Socio Honorario del mismo y obsequiarle con una serenata el día de hoy, con motivo de su próxima marcha a América...".

Otañok, Ameriketara zijoan bezpera-gaua bere aita eta senideen etxean pasa zuan; eta Donostiako Orfeoiate ondora joan zitzaion azken agurra egitera. Onela dio Otañok berak:

"El Orfeón Donostiarra, con su director mi amigo Luzuriaga al frente, nos dio una cariñosa serenata a las 10 y media de la noche anterior, frente a la casa nº 10 (tienda) de la calle Loyola (S.S.), habitada por mi padre, mi hermano Bernardo y su familia..."

Al terminar el Orfeón su generoso cometido, les di las gracias como pude, pues la emoción me acongojaba, saliendo a la calle, colocándome en el centro de aquella simpática corporación e improvisando tres zortzikos..."

Biamamonean, Pasaian ontziratu zan gure Pedro Mari, bere familiarekin. Jende asko bildu zan ari azken agurra egitera. An ziran iru bertsolari ere: Gaztelu-Gorria, Txirrita eta Jose Maria Arregi. Bertso batzuk kantatu zizkioten. Baiña Pedro Marik ezin emozioarekin erantzun.

Ondoren, naiz eta Arjentinan bizi, Pedro Mariri etzitzaioren aaztutzen Donostiako Orfeoiak egin zion azken agur maitekor ura. Ala, bertso au bialdu zuan andik 1900-ean:

"Agur!" orain bi urte
esan zirazuten,
"Agur, kantaridiya"
erantzun nizuten;
agur aiek ez ditut
biyotzetik uzten.

Ai, bazeundete txulo
batetik ikusten,
nere animak nola
agurtzen zaituzten!

Beste sei urte igaro ziran. Alakoren batean, albiste onak iritxi ziran Arjentinara: Donostiako Orfeo-oiak garaipen aundia lortua zuala Parisen, Liongo eta Bruselasko beste bi orfeoien aurka, 1906-ko uztaillan. Baita egunkariak berri on ori aidatu ere. Otañoren poza ori jakin zuanean! Bereala iru bertso aukeratu zituan, *Oroitza* izenburuarekin:

Donostiyako kantaridiya
gallendu dala Parisen
El Pueblo Vasco-n irakurri det
eta zenbat poztu naizen!
Ezagututzen zaituztet eta
ni ez naiz ortzaz arritzen,
penaz bizi naiz ez detalako
zuen kanturik aditzen.

Orra merezi dezuten legez
zuen izena omendu,
len etziñaten orain bezela
mundu guztiyan lenendu;
euskaldun fiñen aunditasuna
iñork ez lezake kendu,
gallen giñake gauza denetan
elkar artuko bagendu.

Lenago ere nik zuek beziñ
iaiorik ez nuben senti,
egiyaz oraiñ egiñ zerate
ospatsu eta omenti;
eziñ agindu neizukete ta
biurtutzen naiz arrenti:
euskaldun jaio giñan guztiyok
elkar maita zagun beti.

Andik lau urtera ilko zan Pedro Mari, baiña aren bertsoak bizirik daude euskaldunen biotzetan; Orfeoia orduan osatzen zutenak ere illak; baiña beren taldea zutik eta indartsu. Bejondaiela bie! O-lako gizonak bear ditu Euskal Erriak.

"Alper-alperrik zabiltzate"

Orain berrogei bat urte gertatua izango da gaur papereratu nai dedana.

Urolako trena Zumarragan artu eta abiatu giñan Azkoiti aldera. Tren txikia ura, baiña balantza aundiak egiten zituana. Baita zarata galanta atera ere, tuneletan sartzerakoan eta abar, bere turuta-ots berezi ura jotzen zuanean.

Nerekin batera zetozenak, gizasemeak danak, ezezagunak nituan; baiña denbora asko baiño leen izketan asi giñan. Ari-ari giñala, orduko aurrerapenetara etorri zan gure izbidea.

Batek onela zion:

– Begien bistan ez izanik ere, bapore edo aideplanoren bat nundik eta nola datorren igertzen omen diote orain, radar izeneko tresna berri baten bidez.

Beste batek onela jarraitu zuan:

– Emendik urte batzuetara, gizona ere illargiraiño iritxiko dala diote.

Izan ere, gaur eguneko aurrerapenak arritzen bagaituzte, ordukoak ere etziran auntzaren gaberdiko eztula edo utsaren urrengo, eta jendeak bazuan zergatik aitarenka asi.

Baiña alakoren batean onela esan zuan beste batek:

- Bai; baiña ez al da nere aitona zanak esan zuana gertatuko?

- Zer zion arek, bada?

- Begira: gure aitona errezildarra zan, eta ume-tan sarritan joaten nintzan ni aren baserrira egun batzuk pasatzera. Orduantxe asi berriak ziran aide-planoak, baiña arek etzuan sinisten ori egia izan zitekeanik. Onela esaten zuan:

- Gizona aidean txoriak bezela? Ez didazute taimaiña ortako ziririk sartuko.

Baiña egun batean, ni an nintzala eta soroan artajorran ari giñala, zeru aldetik *run-run-run* otsa belarriratu zitzaigun. Zer izango burua altxa eta Urreki mendiaren gaiñetik an ikusi genduan aide-plano bat, astiro-astiro, ez noski gaurko errektore oien abiada ikaragarriarekin.

Nere osaba, aitonaren semea, arengana urbildu zan eta onela esan zion:

- Aita, ikusten al du or goien dijoan ori? Orain sinisten al du?

Aitona begira-begira egon zitzaion aidekoari denbora-puska batean, Ernioko erpiñak estali zuan arte. Eta orduan gure osabari, bere semeari, onela esan zion:

- Bai. Orain sinisten diat, ikusi det eta. Baiña alper-alperrik zabilzate. Etzerate gu baiño zoriontsuagoak biziko.

Oneraiño izan ziran gurekin trenean zetorren lagun aren itzak.

Gaurko aurrerapenak arrigarriagoak dirala danok dakigu. Ia egunero asmakizun berriren baten albistea irakurtzen degu egunkarietan. Baiña neri askotan datorkit burura Errezilko aitonaren arrazoi sakona.

Gizona gizon dan ezkeroztik, beraren amets nagusia zoriontsua izatea izan da noski. Orren atzetik aztarrika eta zalaparta bizian bizi gera. Gure egunotan, berriz, kurpil zoro batean bueltaka or gabiltza: zenbat eta geiago eskuratu, zenbat eta geiago gatzatzeko eta suntsitzeko. Baiña zoriontasunera daraman bidea ortik ote da? Alper-alperrik al gabiltza?

Kexaa (Quejana)

Sierra Salvada izeneko mendi-lerro luzeak Euskal Erri eta Gaztelaren arteko muga egiten du Orduñatik Anguloraiño.

Izen ori, Leongo erreinuaren gudaroztea antxe *salbatu* zalako omen datorkio, Arrigorriagako burrukaldian menderatua izan ondoren.

Goiko erpiña ikusgarria da: arkaitzak pelotaleku bateko ormak dirudite, eta kilometrotan ala jarraitzen dute. Kare-aitza danez, begientzat zoragarria benetan, goizeko eguzkiarekin txuri-txuri agertzen diranean, zeru urdiñaren aurrean.

Aiala barrutian euskera aspaldi galdu zan. Baiña tontor oien izenak beren jatorria garbi erakusten dute: Txarlazo, Bedarbide, Tologorri (Iturrigorri), Ungino, Eskutxi, Urieta... Ala, berak markatzen dute gaztelera eta euskeraren arteko garai bateko muga.

Goien, mendiaren sorbaldan, Burgos probintziako Losa barrutia asten da. Ango erri-izen batzuk: Villalba, Berberana, Mijala, Llorengez, Lastras, Villacián, Quincoces...

Beeko oiñean, Arabako Aiala barrutiko ogei ta lau erriak: Agiñiga, Añes, Beotegi, Kostera, Etxegoien, Erbi, Izoria, Lejarzo, Luxo, Luxaondo, Llanteño, Madaria, Maroño, Menagarai, Murga, Ozeka,

Olabezar, Kexaa (Quejana), Arespaldiza, Retes de Llanteno, Salmanton, Rojo eta Zuaza.

Antziña zaarrean gaztelako errege bat, Alfonso VI, eizean omen zebillen *Sierra Salvada* ortan, bere zaldunekin. Mendiaren ertzeraiño iritxi eta beeko zuloan an ikusi zuten Aialako barruti au, artean baso utsa zana. Don Bela izeneko zaldun batek onela esan zuan orduan:

– Ai, lurralde ori nerea balitz!

Eta erregeak:

– *Pues háyala.*

Ortik omen du barruti orrek *Aiala* izena.

Don Bela orri *Jaun Belako* esaten omen zioten euskeraz, eta santu-famarekin il zan. Arespaldizako elizan illobiratu zuten.

Aialako tokirik ikusgarriena Kexaa da (erderaz *Quejana*). Zoko batean, Ungila eta Perigaiña mendien artean, Izalde errekaaren bazterrean, antxe altxatzen da San Juango moja-komentua, bere eliz eder eta gaztelu-torre sendoarekin.

Elizako illobietan aitagarriena, Pedro Lopez de Aiala eta Leonor de Guzman bere emaztearena da. Jaun orri *Candiller Ayala* esan oi zioten, eta Gaztelako zaldunik famatuenetako bat izan zan XV mendean.

Bertan gordetzen da *Virgen del Cabello* izeneko irudia ere. Koroiaaren azpian Ama Birjiñaren ille bat omen du, eta ortik izen ori.

Antonio Trueba bizkaitar idazleak (1819-1889) bertako kondaira zaar bat kontatzen digu.

XV mendean ixkanbillak izan zituzten alkarren artean losatarrak eta aialatarrak, *Sierra Salvada* ortako larreak nola aprobe txatu ezin erabakirik.

Alkar ezin artuz, egun batez burrukan asi eta losatarrak iru aialatar il zituzten. Ori gertatu zan

lekuari geroztik Odolaren Aitza (*Peña de la Sangre*) deitzen omen zioten.

Auzitan denbora luzean ibili ondoren, ildakoen familikoak iltzailleei barkatu egin omen zieten, kondizio batekin ordea: San Juan egunez, Losako iru apaizek Kexaara etorri eta emen iru meza ematea, burruka artan il ziran aialatarren animen alde.

Ala, urtero, egun ortan, goizean goiz, beltzez jantzitako iru gizon agertzen ziran *Sierra Salvada* orren goiko arkaitzetan, iru apaiz alegia, beren eginkizuna betetzera goitik beera zetozenak.

Losatarrak, berentzat lotsakizuna zala-ta, bein baiño geiagotan nai izan zuten morrontza ortatik, diruaren truke bada ere, ateratzea. Baiña aialatarrak etzuten orrelakorik onartzen.

Truebaren denboran, lareun urte baiño geiago igaro arren, oraindik ere bizirik jarraitzen omen zuan oitura orrek.


Nik, azkena izan nintzanean, onela galdetu nion bertako gizon bati:

– Irakurri dedanez, iru gizon il omen ziran emen burrukaren batean.

Aren erantzuna:

– Bai, jauna. San Juanak ziran. Feria egiten zan emen egun ortan garai batean. Ijito batzuek orgoien jarri zuten beren kanpamentua. Alkarrekin asarretu eta labanaz edo ez dakit nola aietako iru il zituzten beren lagunak. Irurogei urte badira ori izan zala.

Ni ez nenbillen orren billa, baiña orra ustegabean beste basakeri baten berri ikasi. Nun eta bosteun urteren buruan toki berean gertatua. Leen eta orain gizona gizonarentzat otso. Ortan ez gera aldatu.



Kexaa (Quejana), Aiala, Araba.

Lesakako polakoa

Gipuzkoako Foru-Aldundian, Bonaparte printzipea zanaren esku-idazkietan, firmarik gabeko orri batzuk gordetzen dira, Naparroako euskeraz idatziak, *Euskaldun oroipenak* izenburuarekin eta beste kontakizun batzuen artean onako au dakartenak:

“Arkitzen ziran Lesakako erriyaren etxe batean pertsona bi, bizi ziranak aspaldiko denboretik onera beti elkarrekin; eta, aserraturik egun batean, jua zen bat urruti bizitzera. Bat zen euskalduna, Bozateko semea, zeñ bizi zen erriya orretan, iñork jakin gabe agota zala; bestia zen polakoa, Napoleonen gerra-denboran gelditua, zaldikotako sarjentoa zelik”.

Napoleonen gerra edo frantzestea 1814-an bukatu baitzan, andik laster gertatua izango da kontakizun au.

Polako orrek Lesakan bere kabia nola egin zuan adierazten da urrena:

“Gizona au arkitzen zan, esan dudan bezela, Euskal Erriyan; eta, nola ezin konprenditu zioten itz-keta, asi zen mintzatzen latinez, zeñekin jua zan apaiza batengana, eta esan zion bazekiyala jositzen, eskatzen ziola denbora berean aren adiskidetasuna, lana billatzeko”.

Apaiz orren bidez edo nola ez dakigula, Bozateko euskaldun aren etxean gelditzeko modu egin zuan arek; eta:

“Alojaturik euskaldun onen konpañian, ikasi zuen laister itzketa, eta espusatu zen euskaldun dama batekin. Izandu zuen seme bat, zeñ juan zen igesi amar urte zituelik, eta geroztik etzuten ezer jakindu non bizi zen”.

Bi lagunak berezi egin ziran, ordea:

“Lenago esan dedan bezela, polakoa au aparte juan zan betiko bere lagun maitiatik, kasorikan egin gabe, guzia aserraturik”.

Baiña, ala ere, alkarrekikoa etzuten orrekin bukatu:

“Andikan pilla bat urte zebillan gure euskalduna Senperako feriya ekusitzen, jarri zionean aldamenen gizon miserable bat, korputza guztiya llagaz eta porkeriyaz beterik, limosna eskatzen ziola negarrez.

Onek, limosna eman baño lenago, galdetu zion nongua, eta zer nola arritu zen esan zionean polakoa zela, ezautzian bere amasei urteko laguna! Zegoan aren diferente eta mudatua ala moduan, non gure euskaldunak etzuen ezagutu, esan zion artean polakoa zela. Jarririkan miserikordiyazko begiyak, esan zion euskaldunak:

– Zertikan –eskua gañian paratzen ziolik esan zion–; zertikan igesi egin zenduen nere aldamenetik? Uste al zenduben munduba gloriya dala?

Onetan gure pobre gaizoa asi zen negarrez; banan euskaldunak ixillatu zuen, esaten ziolik:

– Ez negarrik egin, ez; orai arrapatu dezu zere lagunik maitiana; eta onek jakingo du zer egin, zu bezelako urrikigarriya batekin. Nik det euskaldun biyotza, au da, odola nobleazkoa eta bondadosoa, eta ezta ajola zuk ez maitetzea, nik egiteko anparu eta karidadea zurekin. Begira –esan zion–: atoz nerekin ostatura, eta biyar joango gera etxera, non ezta zuretzat ezer paltako”.

Ala, biaramonean Lesakara joan ziran, baiña polakoa gero eta gaizkiago:

“Beste egunean joan ziraden etxera, non segitu zion gaitzak alako modu ikaragarriyan, zeñek gure polako gaizoa paratu zuen azkeneko atetan.

Gaitza juan zen txartzen, eta il zan seigarren illean, eta debalde da esatea nolako asistentziya eta laguntza izandu zuen denbora onetan; alako moduan non, gastaturik zuen guztiya, saldu zituen etxeko puska guztiyak, gelditzen zala bera bestia biziyen izandu zen beziñ pobrea”.

Pobre bai, baiña:

“Beste aldetik bizi zen mansedunbre eta pazientziya batekin, nolako ejemplo gutxi ematen digute istoriyak.

Egun batean, belauniko zegolik bere oraziyuak egiten, gelditu zen bere itxeko ate miserablearen aurrean zaldi ederra bat, gañian zubelik galaia gazte bat, txit galanta eta ondo jantziya. Denbora aunitz pasatu gabe jetxi zen, eta sartu zen aren etxean korputz airosarekin.

Ekusi zuen bezin laister estutu zuen bere pe-txoaren kontra gure penitente eta pazientziyadun agurea. Galaia ori zen polakoaren semea, txikiyan igesi egin zuena; eta gero, jakindurikan bere aitaren suertea, eldu zen, biyotza altxaturik, obligaziyo santua ori kunplitzera.

Au zan aberatsa eta euskaldun maitea; bizitu zan artea korresponditzen jakindu zuen aren konpañian, eriyotzan benda illunak begiyak estali artean”.

Polakoaren semea ere eskuzabal portatu zan, beraz, bere aita zanari alako laguntza egin zionarekin.

Au idatzi zuanak onela ematen dio bukaera bere kontaerari:

“Zer nolako gustoa artzen duen espirituak orlako gauzak aditzean, imitatu naizikan au bera!

Euskal Erriyaren koroa dago argiturik izar brillante eta enamoragarriya arekin, eta gaur beteko du seme gloriosoa onek merezi duen lekua, ango usaidun arrosa eta jazmina txarmantaetan, liliyaren ize-nakin.

Birtute aundiyak zituen gure paisanoak, eta gaur bedeinkatzen degu aren izena, kunplitzen degularik zorra batekin, eta azkenean estaltzen degu loreaz aren memoriya, kantatzen degularik alabantzan jakintsoarekin: *Edocere facinora iuventutem...*”.

Santa Felizia eta San Gillen

Liburu batzuetan Akitaniako dukearen alaba zala esaten da; beste batzuetan, berriz, Frantziako erregearena. Felizia zuan izena.

Gurasoen jauregian festa dizdiratsuak egiten ziran, baiña bera etzan aien zale. Otoitza naiago zuan, zeruko gauzetan biotza jarri alegia, berarekin ezkondu nai zuten galaiei muzin egiñez.

Santiagora erromeriz joateko gogoia agertu zien gurasoei; bere anai Gillenek lagunduko ziola. Gurasoak baietz, bada; joan zedilla.

Bide luze ori Naparroatik barrena egin zuten anai-arrebak. Onek, bitartean, asmo sendoa artu: familia eta ondasun guziak utzi eta bere bizitza bakardadean eramatea, penitentzia eta otoitza egiñez.

Bueltan zetozeala, bere erabakiaren berri eman zion anaiari. Onek, noski, etzezala alako zorakeririk egin. Baiña alperrik. Arrebak etzuan amor eman. Bertan gelditu zan eta anaiak bakar-bakarrik joan bear izan zuan gurasoen jauregira.

Felizia neskame jarri zan Naparroan, Amokain deritzaion etxe bakarti batean. Etxe ori Eguesko aranean dago, Belogain mendiaren egal batean, Elia errekaaren gainean, Iruñetik ogei bat kilometrora, ipar-eguzki aldera. Toki menditsua ura. Oker ez ba-

nago, inguru artako erriak gaur egun ustuta daude: Elia., Galdurotz, Aginaga, Beltzunegi...

Nekazari-lanetan jardun bear eta bizimodu berri ori benetan gogorra izan gurasoen jauregian ain bigun azitako batentzat. Baiña berak, bere eginkizunak betetzeaz gain, otoitzari ekiten zion, eta bere soldatatik eskekoei limosnak banatu.

Norbaitek salatu egin zuan, ordea: nagusiaren ondasunak alperrik galtzen ari zala. Ala, nagusi ori egokieraren zai jarri zan. Eta batean, itxuraz beintzat Felizia suilla buruan zuala iturrira zijoala, bidera atera zitzaion eta onela esan:

– Zer daramazu suil ortan?

Ogia zeraman, baiña Feliziak, bildurtuta:

– Arriak, jauna.

Suilla irauli eta arri kozkorrak goitik beera. Orduan nagusia ixilik eta neskamea aurrera. Bidean suilla berriro ogiz bete. Pobreengana joan eta aien artean banatu.

Bitartean, anaia etxera iritxi. Gurasoen amorrua alabarena jakindakoan! Etorritako bidetik atzera joateko, eta arrastaka bada ere arreba ekartzeko.

Gillen ori Naparroara itzuli zan. Galdezka jardun ondoren, Feliziaren arrastoa atera zuan. Arengana joan eta etxera arren eta arren etortzeko eskatu zion. Ondo alperrik, ordea. An asi ziran baietz eta ezetz. Azkenean, anaiak, bere onetatik aterata, gerrian zeraman labana edo aiztoa atera eta arrebari biotzean sartu.

Arreba il zuala ikusi zuanean, naigabearen naigabez, berriz Santiagora joan zan, bere pekatuaren barkazioa eskatzera. An berak ere arrebaren asmoa artu: penitentzian eta otoitzean bizitzea. Artarako, Obanos eta Gares (*Puente la Reina*) bitartean men-

di-tontor batean dagoan ermita bat aukeratu zuan: Arnotegiko Ama Birjiñarena bera. Bere denbora guzia an egin zuan, eta ildakoan santu izendatu zuten: San Gillen.

Amokaingo nagusia, neskamea falta zala oartu zanean, billa atera zan eta an arkitu zuan illotzik. Gorputza jaso eta elizan lur eman zioten. Andik laster, obitik klabelin eder bat sortua zala ikusi. Obia zabaldu eta klabelin ori Feliziaren zauritik, biotzetik alegia, jaioa zala ikusi zuten.

Orduan aren gorputza il-kutxa dotorean sartu zuten. Baiña mirariak egiten zituala eta ura jendearen emana nunaitik etortzen zana! Batean, ordea, il-kutxa ori falta zala. Amokaingo nagusia eta bere morroiak billa atera. Arkitu zutenean, leengo tokira eraman nai eta ezin mugitu.

Bertako apaizak esan zuan zer egin bear zan: il-kutxa mando baten gainean jarri eta aberea bere kasa utzi, nai zuan tokira joaten.

Mando zuri bat ekarri zuten. Orduan il-kutxari eskuak erantsi eta luma bezela altxa. Aberearen gainean jarri eta libre utzi zuten. Ikustekoa izango zan ura ere: mandoa bere zamarekin aurretik, eta jende-pilla atzetik, ari segika.

Bidean joan eta joan eta Labianora iritxi ziran. Erri ori Aranguren aranean dago, Iruñetik amabi bat kilometrora, Aragoi aldera. Ango San Pablo ize-neko ermitaren atarian mandoa lurrera erori.

Labianotarren poza orduan! Felizia beren zaindaritzat artu zuten, eta ermita ortan obiratu. Amokaingo jaun-andreak etziran etxera itzuli. Beren neskamearen serbitzari gelditu ziran.

Labianoko plazatik bosteun bat metrora dago ermita ori. Idazki batek onela dio: *Basílica de San Pablo y la reina Felicia*. Atea itxita zegoanez, ezin izan giñan barrura sartu. Alboan estalpe dotore


bat, lau zutaberen gainean eta idazki onekin: *Aquí cayó la mula*.

Garagarrillean egiten da ango festa, Iruñetik eta inguruko errietatik jende asko datorrela.

Toki ederra benetan. Eguzki aldera, piñuz eta aritzez jantzitako mendi batzuk. Beste aldera, Iruñe ez da ikusten; baiña bai aren zabaldegi ederra. labore-soroz estalia. Atzean mendiak: Sarbil, Andimendi, Aralar...

Anaiak penitentzia egin zuan tokia nun dan esan degu. Toki ederra ura ere, mendi-tontor batean, andik Naparroako Erdi-alde eta Erriberaren puska zabala ikusten dala.

Oraindik urte asko ez dala, Obanosen antzerki bat eskeintzen zuten urtero udaran, erriko plazan, bertako jendeak antzeztuta: *Auto sacramental del martirio de Santa Felicia y la penitencia de San Guillén*. Letraren egilleak: Santos Begiristain eta Manuel Iribarren; musikarena: Morondo maisua; Klaudio de la Torre antzezlarien zuzendaria. Jende asko biltzen zan. Baiña zailtasunak izango ziran eta bukatu zan ura ere.



San Pablo eta Santa Feliziaren ermita, Labiano, Naparroa.

Egizu on, begiratu gabe non

Kontaera au Telesforo Monzon-Olaso zanari entzun nion, mugaz beste aldean, orain ogei ta amabost bat urte. Ez det uste berak iñon idatzi eta argitaratu zuanik. Zabaltzea merezi dualakoan, artara noa. Bere adiskide bati gertatua omen da. Baiña beraren izenik etzidan esan.

Bizkaiko gerra bukatu berria zan: 1937-an, beraz. Eusko gudari batek Bizkaitik Arabara edo Nafarroara iges egitea nola edo ala lortu zuan. Baita ere an fraile-komenturen batean babesa arkitu. Baratzan-edo lan egiñez, bertan bizi zan.

Denbora aurrera zijoan eta iñor ere etzan arekin sartzen. Berak ere etzuan etxetik kanpora pausorik ematen, badaezbada ere. Soldatatxoa ematen zioten, ezeren gasturik etzuan eta diru puskatxo bat aurreratuta zeukan.

Egun batean, guardiazipil bat agertu zan komentuan. Urduri samar zebilela ikusita, gure gizonak onela galdetu zion:

– Larri ikusten zaitut. Zerbait ere badezu zuk kezketan jarri zaituana.

Guardiazibillak:

– Bai. Andrea gaixorik daukat eta arentzako medikuak eta sendagaiak pagatzeko diru-premian naiz. Soldata txikia degu eta ez dakit zer egin.

Gure gizonak orduan:

– Nik diru pixka bat badaukat aurreratuta, eta bear dezuna emango dizut.

– Ez, ez. Dirua nola artuko dizut, bada?

– Ar zazu. Agian zure laguntzaren bearrean arkituko naiz gaur edo bigar.

Artu zion, eskerrak eman eta banatu ziran.

Berriz ere denbora aurrera. Illunabar batean osteran agertu zan komentuan leengo guardiazi-billa, urduri oraingoan ere. Gure gizonaren galdea egin zuan. Au etorri zanean, onela esan zion:

– Jakiñaren gaiñean daude euskotarrekin ibilia zerala eta nor zeran. Bigar goizean zure billa etortzekoak dira. Orain bertan iges egin bearra daukazu.

Abiatu zan, bada, eta bai Iruñera iritxi ere. Emen Elizondoko autobusa artu zuan. Ala bearrez, txoferraren ondoko eserlekua egokitu zitzaion.

Baiña Belateko gaiña arrapatu zutenean, kamioaren erdian an ikusi zituan guardiazi-billak eskua altxata, autobusa geldi araziz. Etsi zuan orduan. Baiña aopetik itz auek esan zituan:

– Galdua naiz. Nik paperik ez daukat.

Salvoconducto izeneko agiria bear baitzan orduan iñora joateko. Baiña txoferrak entzun eta onela esan zion, aopetik berak ere:

– Nerekin jetxi zaite eta nik esandakoak egin itzazu.

Jetxi ziran eta txoferrak onela esan zien guardiazi-billei:

– Autobusa ez dabil ondo. Iruñetik mekaniko au ekarri degu, zer gerta ere. Zuek paperak eskatu bitartean, guk biok motorra begiratuko degu.

– Bai, bai. Begiratu.

An asi ziran motorra zabaldu, emen ikutu, an jo, destornilladorea eta *llave inglesa* erabili eta egundoko teatroak egiten. Guardizibillak, beren lana bukatutakoan, onela esan zioten txoferrari:

– Bukatu degu. Segi aurrera eta ondo ibili.

Ala, abiatu eta goitik beera asi ziran. Txoferra ixilik; gure gizona ere bai. Baiña Baztango erriren batera irixterakoan, arek onela esan zion bere ondokoari, orain ere aopean:

– Erri ontan jetxi zaite. Or goiko baserri ortara igo eta esan zazu alakoren partetik zoazela eta biar Elizondoko perira joan bear dezula.

Jetxi zan, baserriko atear jo eta onela esan zuan:

– Alakoren partetik nator. Biar Elizondoko perira joan bear det.

– Pasa barrura.

Apaltzen eman zioten, eta oia ere bai. Ez det uste gure gizonak gau artan lo asko egingo zuanik. Baiña, egunsentia baiño leen, etxejoaunak deitu:

– Jeiki. Perirako goiz da. Baiña zuk joan bear dezun tokira joateko, orain da garaia.

Ala, jeiki zan; eta, etxejoauna gidari zala, mendiz mendi mugaz beste aldera pasa ziran. Orrela salbatu zuan arek bere burua.

Mariaka indartsua

Asko maite ditut erri baten istoria kontatzen duten liburuak. Aspaldi agertuak eta gutxi zabalduak izanik, eskuratzen zaillak dira; baiña berri jakingarriak ematen dituzte.

Oietako bat degu Jose Madinabeitiak 1932 urtean argitaratu zuana, *El libro de Amurrio* izenburuarekin. Bertan arkitu det Mariaka indartsuaren leienda.

Artean moroak Aiala barrutitik eta Amurrio erritik urbil samar zebiltzan. Lurralde ortako buru, Arnaldo izeneko jaun urtetsu bat zan. Erria arengana zuzendu zan, moroen aurka burrukatzeko buruzagi bat izenda zezala eskatuz.

Arnaldo jaun orrek Fabian Mariaka autatu zuan. Gazte indartsu eta bikain bat omen zan au, armekin oso trebea eta danak asko maite zutena. Guda-gizon guziak arengana bildu ziran, pozik gaiñera.

Danak batera, batek ezpata, besteak lantza eta besterik etzuana atxur bat bizkarrean zuala, Lejazar gaiñera joan ziran, Jaungoikoari laguntza eskatzera. Eliza zaar bat omen zan an. Ziur aski, ortik tokiaren izena: Elexa-zar.

Beren otoitza bukatzerakoan, an urrutian atabal-otsa sentitu zuten. Moroak alegia.

- Aurrera, mutillak, etsaien aurka! -oiu egin zuan Mariakak.

Danak aiengana jo zuten. Baita aurrean eraman ere Orduñatik gora.

Bueltakoan, beren esker onez, jauregi bat egin zioten Mariakari Alturriaga gainean. Bera izan zan andik aurrera lurralde artako buru, indartsua ez-ezik, burutsua eta zuzena zanez.

Egun batean, ordea, errege-erregiñak, beren jauregian izketan ari zirala, eztabaida atera zuten, munduko indartsuenak nortzuk ziran: gizon zuriak ala beltzak. Erregea zurien alde zan; erregiña, berriz, beltzena.

Batera ezin etorririk, apustua egin zuten, ba-koitzak indartsu bana ekartzeko, alkarren artean burruka egin zezaten.

Erregeak bandoa jo arazi zuan bere lur-sailletan, indartsuren bat etortzeko arren, beltz batekin borroka egiteko.

Bando ori Amurrion ere zabaldu zan, baiña mendietako jendea enteratu ez. Ezta Mariaka ere. Izan zan, ordea, artaz oroitu zanik.

Mariaka ori, urte batzuk igaro arren, leen bezin indartsu baitzegoan. Bein batean, zezen bat ukabilkada batez akabatu omen zuan. Aritzak, berriz, atzaparrarekin eldu eta sustrai eta guzi ateratzen zituan, aur batek perejil-landareak atera oi dituan bezin errez. Babak ziran aren janaria, eta txakoliña edaria.

Ala, arengana joan eta erregearen bandoaren berri eman zioten. Baiña etzuan ez baiezkorik eta ez ezezkorik esan.

Amurriotarrak, ordea, erregeari abisua bialdu zioten: beren errian indartsu bat bazala, baiña azaldu nai etzuana.

Erregeak, ori jakin bezin laster, soldadu-talde bat bialdu zuan, kapitan baten esanera, gizon ura leenbaileen ekartzeko.

Mariaka soroan golde-lanetan ari omen zan, soldadu-talde ura iritxi zanean. Kapitanak onela galdetu zion:

– Adiskidea: Mariaka indartsua emen urrean bizi al da?

– Bai, jauna: ortxe.

Ori esatearekin bat, esku batekin goldea eta idi-parea altxatu zituan, etxea erakutsiz. Kapitanak orduan:

– Zerori al zera? Erregearen aginduz gurekin etorri bear dezu, bada, beltzik indartsuenarekin burruka egitera.

– Banoa. Eta milla bati baietz nik irabazi!

Errege-jauregira iritxi eta otorduetan oillaskoa eta basurdekia ematen zioten. Baiña Mariaka erabat argaldu zan, leengo itxura galtzeraiño. Orduan berak babak perejillarekin eskatu zituan. Ori jaten asi zanean, berriro indartu.

Bitartean, erregiñak beltz indartsu bat ekarri zuan nunbaitetik. Aren ezpain zabalak eta beso-zuztarrak!

Borroka-eguna iritxi zan. Oltzadura bat prestatu zuten. Plaza betetzeraiño bildu zan jendea. Errege-erregiñak antxe ziran, apaingarriz betetako balkoi batean.

Tronpeta-soiñua jo eta bi ate zabaldu ziran. Batetik, Mariaka agertu zan, bere eguneroko arropekin jantzia. Bestetik, beltz bildurgarri ura, erdi larrugorririk, baiña gorputz guzia olioz ederki igurtzita.

Asi ziran borrokan. Baiña Mariakak ezin bere etsaiari eldu, oliotan eskua irristatu egiten zitzaion

eta. Estuasun artan zer egin? Beatz txikia ipurtxu-
lotik sartu zion eta an bota zuan beltza aidean zili-
purdika, burrukarako gogoak kenduz. Plaza guzia
orduan oiuka:

- Gora Mariaka!

Erregeak:

- Nai dezuna eskatu.

- Aurrerakoan nere etxea zergarik gabe izatea.

- Ala izan dedilla, bada.

Mariaka ostera Amurrioko bere etxera etorri
zan, nekazaritzatik pake-pakean bizitzera.

Mariaka etxea nun dan? Amurriotik Baranbio
aldera, eguzki aldera alegia. Baiña erdi erorita
omen dago gaur egunean. Bertaraiño joan nai izan
nuan an nenbillen batean, baiña bide erakuslerik
ez nuan arkitu.

Amaika eta amaikagarrena ez dira berdiñak

Leenengo karlistatean, 1837 urtean, liberalak eraso indartsu batzuk jo zituzten Gipuzkoan. Oietako bat Ernanitik barrena, iraillaren 8-an, *Legión inglesa* zeritzana laguntzaille zutela. Karlistak ezin eutsi eta atzera egin bear. Andoain ere pasa eta Oria eta Leizaran ibaien beste aldetik gelditu ziran.

Bitartean, bertso-sail batek dionez, liberalak "panparroi oi zebiltzen etxeak erretzen". Pirala istorilariak idazten duanez, eun eta ogei ta sei baserri erre zituzten. Esan bearrik ez dago zer amorru artuko zuten baserritarrak, txikizio ori ikusita.

Euskal Erriko karlisten buru azpeitiar bat zan: Jose Inazio Uranga. Naparro aldean zebillen, Ziraukin, liberalen erasoaren berria iritxi zitzaionean, illaren 11-n. Bereala abiatu zan Andoain aldera, bi batalloirekin: bata naparra eta bestea gipuzkoarra. Biaramonean Tolosan zan; eta 13-an eraso prestatu zuan, etsaia indartsuagoa izanik ere.

Karlisten konpañi batzuek, gauez Oria ibaia Lasarten igaro, Buruntza mendira igo eta liberalen eskubiko egalari eraso zioten. Era berean, iru batalloi Leizaran ibaia Andoain baiño goragotik igaro eta liberalen ezkerreko egalari eraso, baionetak fusil-

-muturretan zituztela. Orduan beste karlista batzuk Leizaran ibaia Andoaingo zubitik pasa eta era-soa aiek ere. Liberalak, berriz, etsaia iru aldetatik zetorkiela eta iges. Ona nola dion Piralak:

“...no se daba cuartel porque los paisanos que habían perdido sus casas, mezclados con los soldados, vengaban matando el incendio de sus hogares y gritaban: “Ez da kuartelik su ematen dubenentzat”... Se hace horrible la mortandad...”.

O'Donnell jeneral liberalak “kapela galdu zuen, gañera zaldia”. Beste batena artuta salbatu zan.

Liberaletatik zenbat il ote ziran? Bertsoak diotenez, “zortzireun da piko”. Piralak seireun eta ogei esaten du. Urangak, berriz, milla baiño geiago.

Karlistak jenero ugariaz jabetu ziran: urdaia, baba, arroza, bakaillua, illarra, zapata, arropa, zaldi, olio... Orduko bertso batek onela dio:

Andoaingo elizan
olioa ugari,
arin iriki diye
karlistak beltzari;
den guztia utzita
juan ziran itzuri,
bastimentua eraman
diote ontzari.

Andoaiñen, izan ere, txori-mota orren faltarik etzan izango. Zortzireun bat fusil eta munizio-pilla ere eskuratu omen zituzten.

Baiña ez al zuten karlistak errezegi irabazi? Baietz dirudi. Nola edo zergatik, bada? Liburuak ez dute ori adierazten. Argibide bakarra Tolosako Manuel Urreta zanaren paperetan arkitu det, berak 1933-an egunkariren batean agertu zuan lan batean. Ez da segurua izango, baiña konta dezagun.

Uranga bi batalloirekin Naparrotik etorri zanean, Tolosara iritxi eta emakume xaar bat naparren-gana urbildu omen zan, onela galdetuz:

– *¿Qué batallón es éste?*

Onela erantzun zioten:

– *El once de Navarra.*

Atso ura ixpia zan, baiña erderaren oso jabe etzana, eta liberalei onela pasa zien abisua: “*que vienen once batallones de Navarra*”. Amaika bata-loi, alegia, amaikagarren batalloia esan bearrean. Berri ori orrela zabaldu omen zan soldaduen artean, eta ortik aien izua, karlistak eraso jotzean.

“Etzan geiago baña batalloi bakarra” diote, ain zuzen, guk eskuratutako paper guziak, batek izan ezik. Onek beste onela dio: “Eсан geiago baña bata-loi bakarra”. Onela ere esan-naia badu, baiña atsoarena jakinda. Onen berri ez izatera, ulertezina da. Agian ortik etorriko da aldaketa ori, *esan* idatzi bearrean *etzan* ezarriz.

Ori izan zan Andoaingo burrukaldia. Ingles asko il zan egun artan. Aiek etortzekoak zirala zabaldu zanean, kanpaiak bueltaka jarri zituzten liberalak: inglesak munduko soldadurik onenak zirala eta karlistekin nai zutena egingo zutela. Baiña amaren semeak toki guzietan jaiotzen diranez, Euskal Errian egurra jaso zuten bein baiño geiagotan.

Burruka ori iraillaren 14-an gertatu zan, Santa Krutz egunean. Orregatik, bertsolariak onela dio: “milagroa egin du gurutze santuak”. Baiña ez; ez da ori milagroa. Euskaldunak, orduan liberalak eta karlistak, alkartu eta pakean jarri izan balitu izango zan milagroa, eta aundia gainera, ori gaur gurekin gertatzera izango litzaken bezela.

Arrateko Amaren agerpena

Bi itzaldi eman zituan Arrateri buruz Polikarpo Larrañaga apaiz jaunak Donostian 1923-an, eta bertako Martin eta Mena-ren etxean argitaratu ziran, 1926-an.

Bi itzaldi oietako bigarrenean Arrateko Amaren agerpena kontatzen digu. Ona esan-gaiak nundik zituan:

“An, inguruko baserritar geienak ikusi ditut, eta beren aotik entzun ditudazan berriak jaso ta alkartuta, zuzendu da gurez Ama laztan orren agerkeria”.

Nik, berriz, Larrañagaren kontraera laburtu egingo det, emengo neurrietan sar dedin.

Euskaldun batzuk kristauak eta beste batzuk jentillak ziran garaia zan. Bein, gaur Arrateko eliza dagoan ortatik urbil, artzai bat lo zegoan bere ardi-ondoan. Alako batean, argi bizi batek esnatu zuan. Zer ikusiko eta Zeruko Ama, onela esaten zio-la:

– Emen bertan eliz bat jasotzea nai det.

Artzaiak adierazi zien inguruko baserritarrei Ama Birjiñaren eskaria. Baiña orra besterik gabe eztabaida sortu: batzuek, eliza artzaiak esandako tokian altxa bear zala; beste batzuek, berriz, beeko

ibai ondoan, kristau geiagoren mesederako izango zala eta. Bigarren iritzi au nagusitu zan. Bitartean, oraindik jentillak ziranak parre egiten zuten: Sagar-tegieta, Pagoaga, Barrenetxe, Zelai eta baserri geiagokoak.

Asi ziran eliza egiteko gaiak biltzen. Ekarritakoak txabola batean sartuta, nor bere etxera joan ziran lotara. Baiña urrengo goizean itzuli eta txabola uts-utsik.

– Jentil oien azioa dek au! –esan zuten.

Baiña orra nun artzaia irrintzika asten dan. Arek, leengo lekura joanda, eliz-gaiak antxe arkitu. Orduan danak:

– Zelaikoak eta Pagoagakoak dituk auek onera ekarri dituztenak.

Ango gizonak ekarrarazi zituzten, eta aiek ezetz; errudunak berak etzirala.

Gaiak berriz ere beera jetxi, txabolan sartu eta sarrail aundi batekin atea itxi. Bai Zelaiko eta Pagoagako gizonak zaintzen jarri ere, onela esanez:

– Biar auek emen badira, leengo lapurrak zuek zeratela esan naiko du; eta ez badaude, errudunak zuek izango zerate.

Orra, beraz, gizarajo aiek irtenbiderik gabe utzi. Baiña antxe biak gaur illunean zaindari. Alako batean, txabola barruan zerbaiten otsa. Atea ezin iriki, ordea. Orduan, aietako bat sarrail-zulotik zela-taka asi zan; eta bestea, makurtu eta azpiko zirrikitutik begira jarri.

Zer ikusiko eta neskatil lirain bat. Arek, luma balira bezela, eliz-gaiak gurdi eder batera jaso. Bei-pare zoragarria aurretik, bata txuria eta bestea beltza. Neskak akuillua artu eta eragin zien, onela ziola:

Aida, txuri ta belio...
Zelataka dagoanari
begiak urten bekio;
berriz makurka dagoana
oker gelditu beio.

Ori esatearekin bat, txabola alde guzietatik zabaldu egin zan. Odei argi batek gurdia eta beiak jaso eta aidean eraman zituan. Neska ura zeruko aingerua izan.

Zaindariak beren onera etorri ziranean, Pagoagakoak etzuan begi batetik ikusten; eta Zelaikoak bere gorputza ezin zuzendu.

Ala, Ama Birjiñak esandako tokian jaso zan Arrateko Amaren eliza. Txiki samarra leenengoa. Gaurkoa, berriz, XVI mendearen bukaeran eta XVII-aren asieran eraikia omen da.

Auek kontatu ondoren, onela esaten du Larrañaga jaunak: ez gaudela iñola ere gauza oietan sinistera beartuta, "Eleizak ez dualako bere jakindurian bearkizun ori ipiñi". Gaur ez det uste olako oar baten premian gaudenik. Baiña nork ukatuko du tokian tokiko leienda auek ederrak eta jakingarriak dirala?

Luxaondoko bi guda-gertakizun

Euskeraz Luxaondo eta erderaz Luyando esaten zaion Arabako erria Nerbioi ibaiaren ondoan dago. Bertatik igarotzen zan Bilbotik Orduñara eta Gaztelara zijoan bidea. Etxeak bide orren ertzean altxatu ziran, eta erri luzea osatzen dute.

Oraintsu arte bide ori kamio biurtuta baitzegoan, etzan giro erri barruan ibiltzen. Ango kotxeen eta kamioien emana! Baiña kanpotik autobia berria egin diotenetik, pake ederraren jabe egin dira luxaondotarrak.

Nik ere, leen iñoiz egin ez nuana egin det aurreko batean: gelditu, errian sartu eta puntatik puntara pasa. Baserririk geienak balkoi eder bat dute aldetik aldera. Eliz ederra gain batean. Bilbo aldeko irteeran Erdi Aroko zubi ikusgarria. Orduña aldekoan, berriz, arrizko gurutze bikaiña, idazki onekin:

“Éste es el sitio donde estaba el memorable árbol de Malato, de que hablan las historias y la ley quinta del título primero del muy noble y leal Señorío de Vizcaya, año de 1730”.

IX mendea zan. Zenon, Bizkaiko jauna izan bear zuana, kartzelan illa zan, Leongo erregea zan Alfonso Aundiaren mendean. Orduan bizkaitarrak onen aurka altxa ziran.

Bai erregeak gudarozte bat bialdu ere, bere seme Ordoñoren agindupean. Ari aurpegi emateko bizkaitarrak prestatu, ordea, Jaun Zuria buruzagi zutela eta Durangoko jauna zan Santxo Estingiz-en laguntzarekin.

Padura izena zuan erriaren ondoan jo zuten alkar bi etsaiak. Burruka latza izan omen zan, bertako arriak odolez gorritzeraiño. Arrezkeroztik erri orri Arrigorriaga deitzen zaio. Bizkaitarrak atera ziran garaille.

Diotenez, burrukan ari zirala, Jaun Zuriak bi otso ikusi zituan andik barrena pasatzen, arkume bana ortzetan zeramatela. Orregatik ditu bi otso Bizkaiko arma-arriak.

Leondarrak igesari eman ziotenean, bizkaitarrak atzetik jarraitu zieten, Luxaondora iritxi arte. Emen zugaitz bat markatu egin zuten, *maillatu* alegia, eta ortik omen dator *Arbol de Malato* izena. Kanta zaar batek onela dio, itzak bizkaitarren aoan ipiñiz:

Odoldurik eldu ginian
mallatu arbola onetara
eta urren datozenak bere
alan ikusi gaitube ba.

Ordoño, Leongo erregearen semea, gudaketa ortan il omen zan. Arrigorriagako parrokian illobiratu zuten. Illobi ori mendeetan errespetatua izan zan, Napoleonen soldaduak etorri ziran arte. Auek, bertan urrerik edo ondasunik izango zan ustetan, illobia zabaldu egin zuten. Baita ezurrak lurrera bota eta barruan agertu zan ezpata aundi bat berekin eraman ere.

Bizkaiko fueroak, berriz, onela esaten du, bizkaitarrak armetara nola joan bear zuten adieraztearren:

“Cuando el Señor llame a su servicio a los vizcaínos, éstos le seguirán sin sueldo alguno hasta el árbol Malato, que está en el límite meridional del Señorío, y para pasar de allí les ha de pagar el sueldo de dos meses si no pasasen de los puertos, y el de tres, si pasasen”.

Badaki, beraz, irakurleak gurutze ori zeren oroipengarri dan. Zugaitzak ere betikoak ez diranez, maillatutako ura ere galdu egingo zan; eta an gertatua aaztu etzedin, aren ordaiñez gurutze ori altxa.

Bigarren gertakizuna, berriz, andik milla bat urtera gertatu zan, 1835-ean. Juan Antonio Zaratiegi jeneral karlistak kontatzen digu, 1845-ean argitara eman zuan *Vida y hechos de Zumalacárregui* liburuan.

Karlistak, Ormaiztegiko seme argia buru zutela, gora zijoazen denbora zan. Espartero jeneral liberalak, berriz, eginkizun jakiña izaten zuan sarritan: Bilbotik Gasteiza joatea, gauza karraio zijoazenei babesa egiñez. Luxaondotik barrena egiten zuan bide ori.

Ura bere etxe aurretik igarotzen ainbeste aldirikustearekin, petralkeria bururatu zitzaion Luxaondoko baserritar bati: jeneral ura garbitzea.

Ortarako, enbor lodi bat artu eta barrutik ustu egin zuan, kañoi baten antzekoa egiñez. Bide ondolan jarri gero, eta aotik polboraz-eta ondo kargatu. Ala, Espartero parera iritxi zan batean, su eman zion, eta igesi abiatu.

Kañoiak bere tiroa tira zuan, ikaragarrizko otsa egiñez; baiña etzuan jeneralik arrapatu. Liberalak ura zer ote zan ikustera joan ziranean, etzuten enbor puskatu bat baizik arkitu.

Erruduna nor zan errez somatu zitekean. Baiña liberalak, ez bat eta ez bi, eskarmentu bat egin nai izan zuten, eta Luxaondoko erriari su eman zioten.

Gogorkeri orrekin ez det uste erriko jendea adiskide egingo zutenik.

Erriaren barrena nabillela, aiton batekin topo egin det. Bertakoa ote dan galdetu, eta baietz. Gurutzea zergatik zutitua izan zan ez dakianik ez da emen izango, idazkiak ori garbi adierazten baitu. Baiña gerraren batean erria nola erre zuten bai ote dakian galdetu diot. Aren erantzuna ezezkoa izan da; orrelakorik entzun gabea dala.

Erantzun orrek ez nau arritu. Aspaldi oartua naiz norbere erriaren gertakizun zaarrez aaztuta dagoala gaurko jendea, erri bat orrela bizitzea pertsona bat oroimenik gabe bizitzea bezelatsu bada ere.



Luxaondoko gurutzea, Araba.

O forao de os gabachos

Fago Hueskako erri bat da. Alde batera Napa-
rroa du, Erronkariko mendi eta basoak alegia;
beste aldera, Ansó erria; ipar aldera Pirineoko gai-
llurak; ego aldera, *Canal de Berdún* izeneko zabal-
degia.

Abenduko goiz eder batez joan nintzan araiño,
orain urte batzuk. Arako bidegurutzea Garde-tik
Ansó-ra dijoan kamioan dago, gain batean. Pirineo-
ko tontorrak ederki ikusten ziran andik egun artan:
Segarra, Bisaurín, Foratón, Collarada... Beren elu-
rrak diz-diz egiten zuten eguzkiaren argiarekin, ze-
ru urdiñaren azpian.

Mendi-malkar oietan beera abiatu nintzan.
Erriaren sarreran gizon xaar bat arkitu nuan.

– Egun on. Eguraldi ederra dagoanez etorri
naiz. Eta bai ere frantzesen leize-zuloari (*el agujero
de los franceses*) buruz zerbait entzun dedalako.

– Guk *o Forao de os Gabachos* deitzen diogu
emengo izkeraz –erantzun zidan–. Baiña aaztuxea
daukagu eta orain iñork ere ez dakigu.

Aragoiko izkuntza zaarragatik esan zidan ori; *la
fabla* alegia.

– Bai; baiña *forao* edo zulo orri buruz zer kon-
tatzen da?

- Frantzestean, emengo jendea frantzesen zai egoten zala; bat arrapatutakoan, amiltegi batetik buruz beera botatzen zutela, eta gero *forao* ortan sartu. Orrela entzun nien nik nere aitari eta aitona-ri. Ori egin bear zaie ajolik etzaien tokian muturra sartzen duten guziei. Eta egia izango da, orain den-bora asko ez dala andik giza-ezurak atera zituzten eta.

- Bai?

- Bai. Guardiazibillak etorri, sokekin jetxi eta eramán egin zituzten. Neronek ere, gaztetan, inguru artan artzai nenbillela, mendiak zelaitxo bat egiten duan toki batean, buru-ezur bat arkitu nuan. Ez dakit zer izango zan: piztiak aterea edo zulora sar-terakoan bakarren bat kanpoan gelditua.

- Frantzira joateko bideren bat bazan, beraz, emen.

- Garai bateko bide zaarrak, gaur egun basoak jan dituanak. Ango tontor ura ikusten al dezu? *La Peña Altiva* esaten diogu. Aren azpitik pasatzen da Villarreal-tik onera datozen bide zaarra eta kamio berria. Eta onen gainkaldean dago dalako *forao* ori.

- Nik arkitu al nezake?

- Kamioari segi. Tunel batera iritxitakoan, eskubira aitz luze bat ikusiko dezu. Leenengo zuloa antxe daukazu. Sartu. Barrua gela baten modukoa da. Eskubira beste zulo bat du. Uraxe da.

Arrizko etxe bikaiñak Fagokoak. Teillatu zorrotza dute, elurraren bildurrez. Kaleetan egur-kearen usaia aditzen da. Goizeko izotza ez du zokoetan kendu. Ezker-eskubi mendi zakarrak, aitz tente arroak, piñu, arte eta aritzak. Errekak erreten bat iriki du arkaitz bizian, eta aren marmarra oneraiño igotzen da. Menditarte estu oni *la Foz de Majones* deitzen zaio. Majones urrengo erria baita, gaztelu ederra eta eliz erromanikoa dituana.

Tunelera iritxi naiz. Eskubira arkaitz bat, kobazulo batekin. Toki txarra, ordea, ara igotzeko. Segi aurrera tunelaren beste alderaiño. Foz au emen bukatzen da. Leku basotsuak auek.

Banator bueltan, *o forao de os gabachos* ori ezin arkiturik. Baiña *land-rover* bat dator Fagotik onuntz. Bi gizon jetxi dira. Aienganatu eta:

– *O Forao de os Gabachos* emen al da?

– Ortxe daukazu. Ez zulo aundia, eskubi alde-raxeago dagoan txiki ori baizik.

– Frantzesak botatzen zituzten zuloa ori al da?

– Orixe bera. Aien zai jarri, bat arrapatutakoan amiltegi batetik beera bota eta gero ortxe sartu.

Gizon oietako batek laguntzen dit. Zulo-barrura sartu gera. Eskubira zugaitz-adar batzuk. Nere lagunak kendu ditu, arri bat bota eta onela dio:

– Jende asko etortzen zan onera. Arri bat tira eta adi-adi gelditzen ziran. Arriaren kolpeak entzun, oso urrutikoak iruditu eta onela esaten zuten: “Zulo au infernuraiño jetxiko da”.


– Eta ezurrak nola azaldu ziran?

– Jakako nere adiskide bat leize-zuloetara jeixten diran oietakoa da. Batean onela galdetu zidan: “Fago aldean leize-zulorik ez al dezute?” “Bai –erantzun nion–. *O Forao de os Gabachos* izenekoa”. “Egunen batean joango gera”. Igande batez etorri ziran eta onera ekarri nituan. Sokak eta argiak artu eta ondoraiño bereala jetxi ziran, eta aien oiua: “Au dana giza-ezurrez betea dago!” Otsa zabaldu zan, guardiazibillak etorri ziran, jetxi eta iru zaku giza-ezurrez bete zituzten. Buru, beso, gorputz eta anka-ezur, danetik zegoan. Kanposantuan utzi genituan. Andik Zaragozara eramán zituzten.

Nere lagunak itza darion bitartean, goitik erortzen diran ur-tanten otsa entzuten da. Kanpora be-

giratuta, ezkutatzera dijoan eguzkiak arunzko mendi-egala odol-kolorez gorritu duala ikusten da.

Bueltan natorrela, *Peña Altiva* dalakoa beltz-beltz ageri da illunabarraren azken argien kontra. Fago-tik igarotzerakoan gau illuna da. Goiko bide-gurutzera iritxitakoan, Pirineoko elurrak dizdiz egi-ten du goizean bezela, baiña oraingoan illargiaren argiak jota.



Fago. Hueska.

Arkibidea

Aurkezpena	7
Itzaurrea	11
Orokieta	15
Abarzuza	17
Barria	21
Urrola	24
Gebarako gaztelua	26
Gasteizko burrukaldia	29
Justiz	33
<i>Nuestra Señora del Lago</i>	37
Legardako Ama Birjiña	39
Nire arpegia emen	43
Txintzarri-ots guziak ez dira berdiñak	47
Zudaire	50
Gazteluko Ama Birjiña	54
Santa Kasilda	57
<i>San Juan de la Peña</i>	62
Aita Julian Lizardi (Bizitza eta eriotza)	66
Aita Julian Lizardi (Erlikien agerpena)	71
San Adrian, Tolosa eta Garcilado de la Vega ..	75
Guadalupeko gurutze zaarra	79
Arlaban aldeko gaizkilleak	83
Oketa mendiko altxorra	86
Terranobaraiñoeko joan-etorriak	90
<i>Nuestra Señora del Yugo</i>	94
Iturengo ikaslea (I)	97
Iturengo ikaslea (II)	101

<i>San Adrián de Vadoluengo</i> eta atxurlerien gurutzea	105
Atondoko eriotzak	110
Narros-ko jauregia (I)	114
Narros-ko jauregia (II)	117
Jentil-zubi	121
Aianzko gaztelua	126
Solferinoko itxua	129
Lapurrak Ondarroako Antiguan	134
Arteagako jauregia	137
<i>El voto de San Indalecio</i>	141
Antiguako Ama (Orduña)	144
Valdejunquera	148
Rokaforte-ko San Bartolome	153
Gaztelugatxe	157
Orioko balea	161
Fuendetodos, Goya eta Zuloaga	164
Tolosako altxorra	168
Baigorriarrak Austerlitz	171
Iturriozko Benta	174
Amezketako erretorea	178
Muskildako Ama Birjiña	183
Garesko txoria	187
Beotibarko kantak	191
<i>Nuestra Señora del Espino</i>	195
Miluzeko zubia	199
Jokatu gabeko palanka-jokua	204
Euskal idazki bat Aragoiko lurretan	208
Leyreko txoria	212
Arditurriko minak	216
Munarriz	219
Oka erreka-zuloa	222
Mandatuak bialtzeko modu zelebrea	225
Zumaiko txakur ernea	229
<i>San Juan de Ortega</i>	232
Donostiako Orfeoia eta Pedro Maria Otaño	237
Alper-alperrik zabiltzate	242
Kexaa (Quejana)	245

Lesakako polakoa	249
Santa Felizia eta San Gillen	253
Egizu on, begiratu gabe non	258
Amurrioko Mariaka indartsua	261
Amaika eta amaikagarrena ez dira berdiñak ..	265
Arrateko Amaren agerpena	268
Luxaondoko bi guda-gertakizun	271
<i>O forao de os gabachos</i>	276



1051088
G-128/105



Antonio Zavala

Jakinminez eta oinez. Jakiteko irrikaz eta apal. Maitasun-begiz eta eskuzabal. Gertaera eta gizon-emakumeengana xeratsu hurbilduz. Gertaera bakoitza egoki irakurriz: historia, historia bezala; eta kondaira, kondaira bezala, baina azalean geratu gabe; bakoitza, bere lekuan eta garaian kokatuz, hango eta orduko gizakien begi-bihotzez ikusi eta gozatuz. Beti, egiaren eta ederraren bila. Ezkutukoa azalduz. Topikoa saihestuz.

Horrela jaso, bereganatu eta eskaintzen dizkigu Antonio Zavalak kontakizun hauek, lehen *El Diario Vasco* egunkarian bezala orain liburu honetan. Hemen dauzkagu bizia dariela, batzuetan gozo eta bestetan gazi, baina beti eder. Horixe eskatzen baitiegu kontakizun orori: eder izatea.

“Oroitarrak gizon ospetsuei altxatzen zaizkie; sarritan mesede baiño kalte geiago egin dutenei”, dio Antonio Zavalak, pasarte batean. “Emen, berriz, erriko leengo guraso langille, ixil, apalak goratu nai izan dituzte” esanez jarraitzen du, oroitari baten egileak goratuz. Eta amaitu: “Oiek bai gure esker ona merezi dutela. Bejondalela ori idatzi zutenei”.

Bai. Antonio Zavalari esker dauzkagu kontakizun hauek orain geure eskuetan. Bejondaiola. Bejondai-gula.

Pello Esnal

ISBN 84-89080-57-7



9 788489 080577



Oiñez eta jakin miñez II

Antonio Zavala





Antonio Zavala

Tolosan jaio zan 1928-an. Leen ikasketak bertan burututa, Jesusen Lagundikoa egiñik osatu zituen gero Giza-Zientziak, Filosofia eta Teologia.

Xabierren eta Donostian irakasle izanik, bertso zaarrak biltzen asi zan; eta aiek argitaratu eta zabaltzeko, Auspoa liburu-bilduma sortu zuan 1961-ean, gaur 260 ale dituen, erdiak baino geiago berak idatzitakoak.

Baiña bertsolaritzarena ez-ezik, erri-literaturaren beste alor batzuk ere jorratu eta aztertu ditu; batik-bat, erromantzeena.

Gaiñera, ainbat eta ainbat gizon-emakume ipiñi ditu oroitzapenak eta bestelako liburuak idazten, nola euskaldunak ala erdaldunak ere. Ain zuzen, auentzat sortu zuan, 1993-an, *Biblioteca de Narrativa Popular* liburu-bilduma, dagoeneko amasei liburu dituana.

Antonio Zavala

**Oiñez
eta jakin miñez
(II)**

Auspoa Liburutegia

263



AUSPOA



SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Antonio Zavala

**Oiñez eta jakin
miñez
(II)**

Auspoa Liburutegia

(1999)

© SENDOA ARGITALDARIA

Obra completa - ISBN: 84-89080-95-X

Tomo II - ISBN: 84-89080-91-7

Depósito Legal: SS. 793-1997

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Estella (Navarra)

Irakurleari

JOXE MARI Aranalde nauzu, irakurle, eta enkargu batekin natorkizu: esku artean duzun liburu hau, oraindik erosi gabea bazenu eta erosi-erosi zalantzan bazenbiltza, erosi egiteko da nere enkargua. Eta ni norbaitzat naukazulako-edo -hori ere gerta baitaiteke-, nik esatea aski bada zuretzat nere esana egiteko, ez ezazu hitz bat bakarrik ere gehiago irakurri nere berriketa honetatik, eta zabal ezazu liburua nahi duzun kapitulutan eta has zaite irakurtzen. Eta orain artean norbaitzat banindukazun, areago edukiko nauzu hemendik aurrera.

Baina nere esanak, nerea delako bakarrik, babilio ez baldin badu zuretzat, eta argibideen bila baldin bazatozkit, esango dizut zergatik den nere gomendio hori.

Seguru nago egilearen izen-abizenek hurbil erazi zaituztela zu liburu honetara, Antonio Zavalaren ospea eta lanak ezagunak ditukezu lehendik ere, eta akaso mirestuak gainera. Tolosar honen kultur-ahalegina harrigarria da ederrez eta haundiz eta zabalez eta zehaztasunez eta argitasunez eta ez dakit nik zenbat tasun gehiagoz. Beraz, izen-abizen horien marka daraman liburu bat, zeinek bazter dezake nahita ere?

Ez, ez da erreza. Eta oraingo honetan zailagoa, nik uste. Zuk ba al dakizu, irakurle, liburu hau erostea hogeitamar bat liburu erostea bezela dela? Liburu honetako edozein kapitulu bada liburu bat

haina bere edukietan. Hor kontatzen diren historia edo istorio edo ipuin eta bat eta beste, askotan, dozenardi bat liburutatik bilduak daude, eta gainera, jakintza-iturririk aldrebesena ez den herriaren memoriatik osatuak. Kapitulu horietako bakoitzak zenbait liburuk baino askoz gehiago balio dizu. Beraz, irakurle, egin kontu zuk, “oiñez eta jakin miñez” erosten duzunean, dozenaka liburu erosten dituzula. Horrela ez duzu paga-beharraren minik hartuko.

Eta pertsona haundia baldin bazara, eta haurren bat edo beste baldin baduzu, eta haien ipuin-gosea ase ezinik ibiltzen baldin bazara, mila bider eskertuko didazu nere kontsejua. Almacen haundi bat duzu liburu hau horretarako. Eta baietz behin baino gehiagotan haurraren begietan malkoak ikusi liburu honetako istorioak entzuten dituen bitartean? “Aukeratu beharraren arriskua” edo “Jose Maria Zubia, Mari” eta horrelakoak kontatzen edo irakurtzen baldin bazaizkie, ikusiko duzu nola zure haur biguin horien begiak malkoz bustitzen diren. Nik ama bati erostekoa diot, seme ipuin-zale amorratu bat baibaitauka. Eskertuko dit ipuin-kontaketaren lana erreztu izana.

Eta nik ama bati egin behar diodala opari esan dizut; baina zuk, irakurle, zure ama edo aita edo aiton-amon adindu bati egin diezaiozuke opari, inolako zalantzarik gabe. Edozeini datorkio ondo, liburu bat hasi eta buka irakurtzeko gauza ez den edozeini. Kapitulu bakoitzak du bere osotasuna, eta ez dago hurrengora pasa beharrik eta hurrenagokora, zerbait hasi eta buka irakurtzeko. Irakurtzeko ohi-tura gutxi duen batentzat oso egokia da.

Eta ez dezala inork esan “Neri euskaraz irakurtzea kosta egiten zait” eta horrelakorik. Dotrina eskuetan ibili duen edozeinentzat modukoa da “Oiñez eta jakin-miñez”. Iparraldeko euskaldun batena kontatuko dizut.

Hitzaldi batzuk entzuten ari ginen, eta bat Antonio Zavalarena izan zen. Gure adiskide horrek hala esan zigun tolosarrarena entzun ondoren: "Nik Antonio Zavalarena dena konprenitzen dut". Baita zuk ere, irakurle, hala egingo duzu, zarena zarela. Ordu goxorik igaro dezateke, denbora nola pasa ez dakitela dauden gure adindu eta ezinduek.

Eta irakasle bazina, irakurle? Orduan eta lehenago erosi behar duzu "Oiñez eta jakin-miñez". Hala izan nahi izandu duen batek esaten dizu. Irakasle batek mila modutara informatu behar izaten du ikaslea, haren galderei erantzun jakina emanaz, nahiz nontsu aurki dezakeen adieraziz. Eta horretarako norberak informatua egon behar du.

Kostako da aurkitzen Zavalaren hau baino liburu informatzaile hoberik. Lehen esan dizut dozenaka liburu erosten dituzula gure tolosarraren "oiñez eta jakin-miñez" hau erostean. Ez da gehegikeria bat esatea. Jakintsu baten urteetako ibilien eta azterketen fruitua duzu eskuetan duzun liburua, neke askoren fruitua, eta zuk eroso asko balia dezazukeena. Ez daukagu guk suerte makala Antonio Zavala bezalako gizonekin. Ez dakit noiz eskertuko dugun gizona.

Suerteko gara, bai. Bidai-liburutarako ere apraposa duzu tolosarrarena. Euskal Herri osoan eta haren mugetan bidaiatu nahi baduzu batez ere, aparta duzu liburua. Kapitulu bakoitzaren izenak erakutsiko dizu nondik eta nora dabilen. Eta zuk ere nondik eta nora ibili behar duzun esango zaizu, eta autoa non utzi dezakezun ere bai, holako edo halako tokitara zoazenean. Bidai-mapa bat bezala da.

Mila modutara baliatu ahal izango zara liburuaraz, irakurle. Deskuidatzen bazara, zerorri bizi zaren txokoko berri ikasteko ere bai. Ez zinateke aurrenengoa izango.

Eta hori guztia eta gehiago, inoiz inorentzat hitz bat txarrik gabe, arrazoi txar bat gabe, purrusta bat gabe, dena orekan, dena neurriz, alderdikeria bat gabe, gertakizun nahiz arazo bakoitzean agertzen diren iritzi eta ikuspegi desberdinak jasoz. Horrelako obra duzu Zavalarena. Dena, axal eta mami, balekoa duen liburua duzu “Oiñez eta jakin-miñez”.

Eta nik, lotsa gutxi dutan honek, aitor dezadan ni baino aurkezle hoberik merezi zuela Antonio Zavalak. Gehiegizko ohore bat izan da hau neretzat. Adiskide merkeegiekin konformatzen da gure Antonio Zavala jaun txit miresgarria.

Joxe Mari Aranalde

Zumalakarregiren anai apaizak

ZUMALAKARREGI jeneralaren etxean amaika senide ziran: aietako lau Idiazabalen jaiokak, eta gaiñontzekoak Ormaiztegin. Anaietan bi, Eusebio Antonio eta Jose Manuel, apaiz egin ziran.

Jose Manuel, senideetan gazteena, Mutiloako erretorea izan zan. Berak erri ontan izenpetutako leen eriotz-agiria 1826-VIII-25-ekoa da; eta azkena, 1883-II-13-koa. Eta onen urrena, berarena dator, Frantzisko Telleria izeneko batek firmatuta. Jose Manuelek berrogei ta amazpi urte egin zituan, beraz, Goierriko erri ortan animen artzai. Beraren agiri ori 1883-IV-2-koa da, eta onela irakurtzen da:

"...José Manuel Zumalacarregui Imaz, cura propio que ha sido de esta parroquia, natural de la villa de Ormaiztegui. hijo legítimo de Francisco Antonio y María Ana... murió a la edad de noventa y dos años, a la una y media de la madrugada de ayer, de vejez, después de recibir con edificante fervor y disposiciones verdaderamente cristianas los Santos Sacramentos de Penitencia, Viático y Extrema-Unción..."

Beste anai apaiza, Eusebio Antonio, Ormaiztegi-ko erretorea izan zan. Berak erri ontan izenpetutako leen ezkontza-agiria 1811-I-28-koa da; eta azkena, 1853-I-31-koa. Berrogei ta bi urte egin zituan, beraz, ango animen artzai. Nun eta noiz il zan ez dakigu; edo, obeto esateko, aren eriotz-agiririk ez degu bere erriko eliz-liburuetan arkitu.

Eusebio Antonio oni buruzko idazlantxo bat argitaratu zuan Donostiako *Baserritarra* aldizkariak,

1907-IX-28-an, *Bi kontu* izenburuarekin eta Leandro Mujika dalako batek izenpetuta. Onela zion:

“Orain urte batzuek dirala zan Ormaiztegi-ko erre-tore Zumalakarregi jeneralaren anai bat. Beste erri as-kotan bezela, irixten ziran fraileak erretore-etxera ama-bietan, bazkaltzeko orduan, eta gañera sarritxo.

Zumalakarregi jauna aspertu zan ainbeste bazkari emanetz, eta asi zan zer edo zer asmatzen, geiago fraile-rik eguardietan agertu ez zedin etxean. Erosi zuan frai-leak jazten duten soñeko bat eta jartzen zuan zintzilik leio batetik, etxera bidetik ikusteko moduan.

Orrela, fraileak zetozenian, eta soñeko ura ikuste-an, esaten zuten:

– Arraiea! Or ezin sartuko gaituk, beste lagun-en batzuek or zeudek eta...

Eta, asmaizo onen bidez, Ormaiztegi-ko erretore jaunak irintxitzen zituan lasai neskame Marimikelak jartzen zizkan jakiak”.

Fraile eskale oiek billatuko zuten, ala ere, eguerdiko tripa-zorria iltzeko beste tokiren bat.

Ona Leandro Mujikak nola jarraitzen duan:

“Baserri batean ill zan bein emakume bat, eta eman ziyoten ezaguera Zumalakarregi jaunari, ill aren gorputzari laguntzeko elizara jua zediñ, oitura zan be-zela. Erretorea jua zan baserri aldera bide ona zegoen bitartean; baña bide-txigorra eta lokatza asitzen ziran tokira iritxitzean, esan ziyon laguntzalle mutill koskor-riari:

– Joan ari baserrira eta datozela irekin batera one-raño; emen itxoingo detala nik eleizara laguntzeko.

Ordaindu zan mandataria, esanaz baserrikoak zi-yotela joan zedilla erretore jauna bertaraño gorputzaren billa, obligaziyoa zeukan bezela.

Eta Zumalakarregi jaunak diyo mutill koskor laguntzalle eta mandatariari:

– Joan ari ostera eta esan akiok familiari itzuli naizela ni Ormaiztegi-ra, bai,... eta gorputza gorde de-zatela zeziñarako”.

Idazlan ori etzan danen gustokoa izan. Ala, "X" izkiarekin izenpetzen zuan batek idazlan bat agertu zuan *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian, Leandro Mujika orrengatik onela esanez:

"...quien deseoso de imitar sin duda a algunos chistosos, comienza y termina su escrito en términos poco propios para quien ama este noble solar euskalduna. Con el mayor descaro arremete contra el clero, y para ello se vale del glorioso apellido Zumalacarregui, diciendo que el hermano del finado general carlista fue párroco de Ormaiztegui, y dice (como si todo hubiera presenciado) ciertas estupideces traídas en tal forma, que no se encuentra calificativo que apropiarle".

Idazlan bero oni bi idazlek erantzun zioten *Baserritarra* dalako ortan: erderaz, aldizkariaren zuzendariak; eta euskeraz, Juan Inazio Urangak, biak ere ederki suminduta.

Euskaldunak benetan gogorrak gera, nere iritzirako, parre gozo bat egiteko diran gauzak ere alkarrekin asarretzeko aitzaki eta bide biurtzen ditugu eta.

Eusebio Antonio jaunaren beste gertaera bat *Espasa* iztegian arkitu det. Apaiz jaun ori eiztari purrukatua omen zan, eta oso punteri onekoa. Ala, aren fama urrutiraiño zabaldu zan.

Soldadu bat ere bai omen zan, *guardia de corp* izeneko bat alegia, oso punteri fiñekoa, Espaiñiako tiralari onena juzkatzen zana. Onen belarrietaraiño ere iritxi zan Ormaiztegiko erretorearen fama. Ala, 1830-ean, errege-erregiñak Euskal Erria bisitatzera etorri ziranean, bera ere aien laguntzailleen artean zanez, Ormaiztegira joan zan, zeñek zein autsiko zuan probatzera.

Neurketa ori mitxiguak egan iltzera zerratu zuten. Baiña txandaka eta tiralari bakoitzak besteak señalatzen zion mitxiguari tiratzekotan.

Batek tira eta mitxigua lurrera. Besteak tira eta berdin. Orrela jarraitu zuten zazpigarren tiroraiño.

Ontan, soldaduak uts egin zuan, eta erretoreak, besteetan bezela, mitxigua bota; eta bera nagusi.

Gertaera aukeratuak beste zerbait gogora arazi digute. Bonaparte printzipe euskaltzaleak, bein batez, Napparoko ez dakit zein erritako apaizak bildu omen zituan, eta galdezka asi zitzaien, au eta ura bertako euskeraz nola esaten zan. Danak asper-asper egite-raiño, ordea. Eta, Bonaparte joan zanean, apaiz aietako batek onela esan omen zien besteei:

– Eskerrak onek gerrarako griñarik ez duan, bere osabak bezela. Bestela, komeri ederrak genituan berriz ere.

Kastatik kondea, alegia. Eta gauza bera esan genezake Zumalakarregiren anaiarengatik. Gertaera oietan garbi asko ikusten danez, uste gabeko ateraldiak zituan gizona zan ura. Eta, apaiz egin bearrean, militar sartu eta gerran asi izan balitz, berak ere azarikeri ederrik egingo zien etsaiei, bere anai Tomasek egin oi zien bezela.

El Diario Vasco, 1997-VII-25

Naparroaren fueroen alde (1893)

JERMAN Gamazo Espaiñiako *Hacienda*-ministroak *Ley de presupuestos* izenekoa atera nai izan zuan 1893-an.

Lege orrek Naparroako zergak altxa egingo ziotuan, fueroak zapalduz eta erreinu zaarra beste probintzien maillara jetxiz.

Naparroa zutik jarri zan. Alderdi politikoak aaztu egin ziran bolada batean. Maiatzaren 28-an, Iruñeko Gaztelu-plazan, agerraldia egin zan, jendetza aundia bilduz. Berdin beste erri askotan ere.

Taldetxo bat armetan altxatu zan Gares aldean. Baiña bereala desegin zan. Erokeritzat jo zuten danak aien ekiñaldia.

Beste agerraldi bat ekainaren 4-erako antolatu zan, igandez eta Iruñen egitekotan, Naparroako jende guzia emen bilduta.

Orduan kotxerik etzanez, zaldiz eta oiñez jende asko etorri zan, baiña batez ere trenez. Larunbat-gauerdian, San Fermiñetan ainbat jende zebillen Iruñeko kaleetan.

Hermilio Oloriz-ek olerki bero bat atera zuan:

*Ya se alza en los hondos valles
rumor que el espacio llena;
ya un solo clamor resuena
desde el Ebro a Roncesvalles...*

Jota au ere entzuten zan:

*Si a Gamazo lo cortaran
en rajas como a un melón,
no tendrían los navarros
penas en el corazón.*

Arratsaldeko iruretan asi zan ibillaldia: Gaztelu-plaza, Udaletxea, Kale Nagusia, Takonera, Sarasate, Gobernu Zibilla. Diputaduak igo eta gobernadoreari Naparroaren protesta eskura eman zioten. Ondoren, Aldundiko atariraiño jarraitu zuten.

Urrengo egunetan, eun da ogei milla firma bildu ziran Naparroan, lege berriaren aurka.

Ondoren ikamika asi ziran Madrilleko gobernua eta Naparroa. Gamazok bere kargua utzi bear izan zuan; eta, lege berria etorri baiño leen, gobernu-aldaketa izan zan.

Naparrak orduan erabaki zuten fueroen monumentua eraikitzea. Liburu mardul bat ere argitaratu zan izenburu onekin: *Protesta foral de Navarra*.

Euskal bertso batzuk ere agertu ziran. Aita Damaso Intza zanaren eskutik jaso nituan. Ez dira onak: baiña orduko giroaren berri ederki ematen dute. Guziak ezin agertuz, ona banaka batzuk:

Fuero santua gañin
lau bat bertso berri
kontuatzeagatik
Napar erriari:
Sagasta ta Gamazo
dira agintari,
gu tontoak bagiña
ak lirake argi.

Ona fueroak noizkoak diran:

Naparroko fueroak
ez dira gaurkoak,
milla bost egun ta
amabiakoak;
kastellanoakin
gure gurasoak
ongi egin zituzten
txit konbenioak.

Napar jendea erne jartzen du urrengoak:

Kontserbatu ditzegun
dauzkigun fueroak,
bestela gerade
osoro galduak;
gubernazaleak
ala-olakoak
arrasatu dituzte
gure probintziak.

Zeruari laguntza eskatuz bukatzen du:

Gutziz maitagarria
gure estergiña,
begiratu gaitzazu,
Zeruko Erregiña;
gerrarik gabetanik
bizi al bagiña,
oraindaño izan degu
pakea jakiña.

Amaieran onela dio: "*Madoz, 26 de Marzo 1894. Juan Miguel Guruceaga*". Jaun au nor izan zan ez dakigu. Baiña bertsoen aurretik prosaz otoitz bat ezarri zuanez, baditeke apaizen bat izatea. Iruñeko

agerraldira joan ote zan ere ezin esan. Baiña ona gure iduripenean zer pentsatu degun.

Madotz erria Larraungoa da. Lekunberritik abiatu, San Migeleko kamioa utzi eta Alli, Astiz eta Oderitz pasako ditugu, pagadietan barrena. Ondoren, Zuarrarrateko gaiña. Urrena Madotz, bere etxe dotoreekin. Aurrera segi, mendiaren ertzera iritxi eta ikuspegi zoragarria an begientzat. Eskubira, Aralarko basoak; aurrean, Andimendiko gaillurrak: San Donato, Txurregi, Gaztelu... Beean, Sakanako zabaldegia, errixkaz josia.

Egun artan Altsatsutik Iruñera Sakanatik barrena pasa ziran trenak, fuerozale jende sutsua eramango zuten. Agian, Juan Migel Guruzeaga ori Irurtzun aldera jetxi eta aiekin batera joango zan. Bestela, ertz ontaraiño etorriko zan, tren aiei bere agurra ematearren. Iruñe aldera ere begiratuko zuan, emendik ikusten ez bada ere nuntsu dagoan ederki igertzen da eta.

El Diario Vasco, 1997-VIII-14

Castiliscar-ko illobia

ORAIN amabost bat urte, Xabierren nintzala, abisu bat artu nuan telefonoz: Gipuzkoako apaiz batzuk, don Manuel Lekuona zana buru zutela, Jakara etorriak zirala; nik inguruetako eliz eta gaztelu zaarrak ezagutuko nituala eta joateko mese-dez aien bide-erakusle egitera.

Joan nintzan eta Larrede, Oliván eta Iguacel-ko elizak ikusi genituan. Baita Basarangoa ere, arriz arri Formigalera aldatuta dagoana.

Egunari bukaera on bat emateko, Jakako katedralean eman genduan meza, Antxietaren aldare baten aurrean. Danak gustora, eta azken agurrean onela esan zidaten:

– Urrengoan, Jakara etorri bearrean, Xabierren bertan artuko degu ostatua, eta andik obeto zuzenduko gaituzu.

Ni nere arronkatxoa bota gabe ezin gelditu nunbait, eta onela erantzun nien:

– Etorri nai dezutenean. Baiña gaurkoan erro-manikoa bezela, urrengoan erromaniko aurrekoa erakutsiko dizuet.

Ala, urrengo maiatzean etorri ziran, eta aurrena Sos erria ikusi genduan; urrena, Uncastillo eta erri onen sailletan dagoan Los Bañales izeneko erromatar iria; eta, azkenik, Castiliscar-era eramán nituan. Aragoiko lurretan ibili giñan, beraz.

Iru erri oiek, Sos, Uncastillo eta Castiliscar alegia, Zaragozako probintzian daude, *Cinco Villas* izeneko lurralde parpoan.

Castiliscar-ko elizan *sarcófago* (illobia) *romano cristiano* izeneko bat gordetzen dute, atzo egiña baltz bezin berri eta garbi dagoana eta gaur egunean aldare nagusian daukatena. Aren irudietan Kanako eztaiak, Lazaroren piztuera, iru Erregeen adorazioa eta abar ikusten dira.

Don Manuel Lekuonaren poza, ura ikusi zuanean! Etzan aspertzen ari begira.

Egun auetan, berriz, F. Escalada-ren *La arqueología en la villa y castillo de Javier y sus contornos* liburua irakurtzen ari nintzala, *sarcófago* orren leienda arkitu det.

Ori irakurritakoan, beraren berri don Manuel zanari eman ez niola eta penaz gelditu naiz, olako kontaerak ain gustokoak zituan arek eta. Orduko utsunea orain beteko det, arentzat probetxurik izango ez badu ere.

Sarcófago ori Sos eta Castiliscar arteko mugan agertu omen zan. Arritzekoa ez danez, bi erri oiek eztabaidan asi ziran, batek pitxi ori beretzat nai zuala eta besteak ere bai.

Azkenean, Salomonek bere auzi famatu artan bezela, erditik ebakitzea eskatu zuan norbaitek, erri bakoitzak zati bana eraman zezan.

Ori egitera zijoazela, Sos eta Castiliscar-ko erretore jaun biak zutitu eta onelatsu esan zuten:

– Ez iñola ere! Salomon Itun Zaarrekoa zan, eta gu Berrikoak. Kalbario mendian, Jaunaren arropak beren artean banatu ondoren, beraren amak egingdako tunika ura, pieza batekoa, etzuten soldaduak partitu nai izan, norentzat izango zan zotz egin baik. Berdin joka dezagun guk ere.

Jesusen tunikaren aitamen au Escalada-kerantsia izango da. Ez du ematen txetasun ori erriaren aotik jasoa danik.

Dana dala, jendeak ontzat artu omen zuan eskari ori. Baiña, zotz egin bearrean, beste burutazio zelebreago bat izan zuten. Erri bakoitzak idi-parerik onena aukeratu eta *sarcófago* dalako orren bi aldeetan lotu, nor bere erri aldera begira.

Orra dema berezia benetan. Irabazten zuten ganaduak bereak zituan erria egingo zan *sarcófago* orren jabe.

Jende asko bildu zan; eta, tiraka asteko agindua eman zanean, ikusleen eztarrietatik atera zan *aida* oiua mendiak dar-dar jartzeraiñokoa izan zan. Akuilluak ere kupira gabe dantzatu ziran. Idi gaixoak antxe, sudurretatik lurruna eta aotik baba zeriotela, batzuetan belauniko eroriz.

Azkenean, Castiliscar-koak nagusitu ziran, eta geroztik antxe daukate *sarcófago* ori, elizaren apaingarri.

Castiliscar errian aurtengo ilbeltzean izan nintzan. Etxeak, lurralde auetan oi danez, arriz eta ladrilluz egiñak dira. Eliza eta gaztelua kaxko batean daude. Gain ontatik begira jarri ezker, ipar aldera mendiak agertzen dira, batzuk soillak eta besteak piñuz jantziak. Egoaldera, Ebro aldeko zabaldegia asten da, gari berdez estalia. Ixiltasuna nagusi emen. Ez da entzuten txorien kanta eta erriko jendearen izketa-otsa besterik.

Pake-lekuak dira orain au bezelako erriak, baiña gerrarako eraikiak izan ziran. Lurralde ontako zokoetan ugari dira orrelako gaztelu eta erriak: Peña, Sofuentes, Castiliscar, Uncastillo, Sádaba, Sibirana, Biel, Luesia, Agüero, Sarsamarcuello, Loarre... Danak ere mendi auetako sarrera eta zirrikiak ixteko egiñak. Muga emen egon baitzan urte-

-mordoan. Ipar aldera, Pirineoko gaillurretaraiño, kristau-erria, Aragoiko erreinu zaarra alegia. Egoaldera, berriz, moroen mendeko eremuak.

Ala, alderdi auetara datorrenak, istoria, arte eta izadiaren maitale baldin bada beintzat, begiak nun gozaturik errez arkituko du.

El Diario Vasco, 1997-IX-5

Azpeitiko Euskal Festak

(I)

ANTOINE d'Abbadie jauna Irlandako iriburuan jaio zan, Dublin-en, 1810-ean. Aita euskalduna zuan, zuberotarra, eta ama irlandarra. Ikasketak egin ondoren, mundu guzian barrena ibili zan, ikerlari bezela.

Baiña 1849-an Endaian jarri zan bizi izaten, ango bere jauregi ederrean. Urruñan, 1853 urtean, Euskal Festak antolatu arazi zituan, olerki-leiaketa bat ere egiñez. Urrengo urteetan gauza bera burutu zuan an eta emen, eta gure literaturari piztualdi ederra eman zion. 1897-an il zan. Aurten, beraz, eun urte.

Ala, 1893-ko iraillaren 3, 4 eta 5-ean, Euskal Festak Azpeitin ospatu bearrak ziran, auek ere d'Abbadie jaunaren esku zabalari esker.

Bera bezperatik etorri zan. Erriko agintariak beraren zai zeuden. Kaleetan festa-usai aundia aditzen zan: soiñua, etxafuegoak, bazter guziak jendez gaiñezka...

Artetxenean jarri zan ostatuz, Buztintxuriko plazatxoan. Apalondoan atarira etorri zitzaizkion erriko soiñujoleak eta bosteun bat mutil gazte, one-la oi u egiñez:

– Biba, biba don Antonio Abbadia!

Soiñujoleak *La Azpeitiana* izeneko vals bat eskeiñi zioten, eta urrena *Gernikako arbola*. Au asi orduko, bosteun mutil aiek txapela erantzi ta kantari asi ziran. Aien eztarritik trumoi bat bezela altxatu zan gure arbola santuaren kantua.

Festak biaramonean asi ziran. Goizeko amarretan, meza nagusia orkestarekin. Andik erriko plaza-
ra. D'Abbadie jauna eta agintariak udaletxeko bal-
koietan jarri ziran ospakizunak ikusteko.

Leendabizi, korrika-apustua. Arozpide zeritzan
eta aizkolari izana zan batek irabazi zuan. Korrika-
lari batek iztarra autsi zuan.

Urrena, pelota-partidua: Azpeitiko Inazio Alber-
di eta Jose Maria Beristain, Azkoitiko Modesto eta
Jabier Larrañagaren kontra. Ordu t'erdian jardun
ondoren 33-na zeudela, saria erdibana banatzea
erabaki zan.

Bazkalondoan, bertsolari-saioa, bost bat milla
entzuleren aurrean. Epailleak etziran nornai: Resu-
rrezion Maria Azkue, Txomin Agirre eta Felipe Arre-
se Beitia.

Beste bertsolari batzuk ere asi ziran, baiña las-
ter iru bakarrik gelditu ziran: Usurbilko Udarregi,
Asteasuko Pello Errota eta Zizurkilko Jose Bernardo
Otaño.

Au eta Udarregi nekazariak ziran; Pello, berriz,
errotaria. Arrazoi beltz guziak botatzen zizkioten
aiek oni. Baiña asteasuarrak etzien bazarik atera-
tzen uzten: bere kulpaa etzala aiek gari txarra ekar-
tzea; berak ezin zuala, bi anega ale emanda, iru
anega irin atera...

Urrena, Euskal Erriaren eta euskaldunen bata-
suna kantatu zuten. Bitartean, jendea oiuka:

– Biba, Pello! Biba, Pello!

Epailleak erabaki au artu zuten: saria Pellori
ematea. Baiña pena zutela Jose Bernardo eta
Udarregirentzat beste saririk ez izatea, bideko gas-
tuak ordaindu aal izateko beintzat.

Gauean, *Círculo Católico* izenekoan, beste festa-
ren bat ospatu zan. *Gernikako Arbola* kantatuz bu-
katu zan.

Andik irtenda, d'Abbadie jauna eta bere lagunak ostatu aldera zijoazen. Alako batean, bi bertsolari taberna batean kantari sumatu zituzten. Nor izango eta Pello Errota aietako bat. Bestea zein zan ez dakigu. Euskal Erriaren oitura zaarrak eta fueroak goratzen ari ziran. Jendeak, zoraturik, bertso ba-koitzari txalo beroak jotzen zizkion.

Pixka batean gelditu ziran aiei entzuten; eta, d'Abbadie jauna an zala konturatzean, onela kantatu zion Pellori beste bertsolariak: ixiltzeko, arren, ainbeste pantasirik gabe; erronka asko zuala, baiña bitartean etziola d'Abbadie jaunari agur ere egiten.

Pellok onelatsu erantzun zion:

- Ni ez; zu zaude gizalegearen faltan. Nik or ikusten baitet d'Abbadie jaunaren andrea; eta emen, besteetan bezela, andreak onratu bear dira aurrena.

Jendeak orduan:

- *Bravo, bravo, Pello!*

Jaun aiek erretiratu ziran; baiña bertsolariak eta entzuleak bertan jarraitu zuten ia gauerdiraiño.

Biamamonean, irrintzilariak, larogei urteko bi agurek parte artuz; aurrekua, musika-saioa...

Irugarren egunean, emakume korrikalariak, suilla bat ur buruan zutela. Azpeitiko amalau urteko neskatxa batek irabazi zuan. Gero, pelota-parti-dua, txistulariak, esnebei-erakusketa eta abar.

Olerki-sariketan, leenengo saria Frantzisko Lopez-Alen-en *Ama baten otsa seaskaren ondoan* izenekoarentzat izan zan; bigarrena, berriz, Felipe Kasal Otegiren *Ama Euskera eta bere umiak* eta Zaldu-biren *Gauden euskaldun* izenekoentzat.

Festak bukatu ziranean, d'Abbadie jaunak bere burutapenak egingo zituan: Azpeitian euskal jende leial eta jatorra bizi zan. Euskera galduko zan arris-

kurik etzan an nabari. Euskal olerkiaren loratze berria ikusi zuan. Bertsolari bikaiñak entzun ere bai. Bere diruak ondo gastatuak zeuden, beraz. Pozik eta gustora itzuli zitekean Endaiako bere jauregi zoragarria.

Baiña festa aiek zer ondorio ekarri bear zuten etzizaion burutik pasa ere egingo. Urrengo batean kontatuko degu.

El Diario Vasco, 1997-IX-18

Azpeitiko Euskal festak (eta II)

AZPEITIKO 1893-ko iraillaren egun alai eta gogoangarri aiek bukatutakoan, etzuan iñork us-teko an okerrik gertatua zanik. Baiña luzagarri ederra izan zuten. Gaiñontzeko Euskal Festak baiño famatuagoak orretxegatik egingo ziran.

Andik denbora-puska batera Usurbillen idi-dema bat jokatu zan, eta alkarrekin topo egin zuten Udarregik eta Pellok ango tabernaren batean. Baita kantuan lau puntuan asi eta onek galdetu ere:

– Azpeititik zer notizi?

Galdera mingarria benetan. Ori izan zan sua piztu zuan txingarra. Andik laster, bertso-saltzailleak onela asten zan bertso-papera zabaltzen zuten euskal plazetan:

Azpeitira dirate
bertsuetara deitu,
gizon balientia
naute eskojitu...

Udarregik ateratako sail sutsu bat zan: Azpeitira dolarez joan zala, eta utsik gelditu; premia, eun franko urretan edo amaika duro, Pellori eman ziotela, lagunei zerbait luzatzeko esanez; baiña berak ar-tu eta korri egin zuala... Berak, berriz, kotxe ta os-tatu bost duro utzirik, ezer ere kobratu etzuala; le-en ezin, baiña bera zaartutakoan Pello ederki balia-tu zala...

Urrena, onela asten zan beste sail bat saltzen zuten bertso-saltzailleak:

Bertsuak ipintzera
nua ni besterl,
lenago bestek ori
egin dit neri...

Pelloren erantzuna zan: saria bakarrarentzat jarria zala, onenarentzat alegia; juezak oso aldrebesak etzirala; bere kulpaa etzala Udarregi utsik atera izana... Azpeitian biak topo egin zutenean, berak onela esan ziola Udarregiri:

– Alkar ez degu galduko.

Eta usurbildarrak erantzun:

– Naita ere, ni galtzen erreza al da?

Arrazoi ori etzitzaion asteasuarrari gustatu. Ala, Azpeitiko diruak Jose Bernardorekin erdibana egin eta etxera itzuli zan, Udarregi utsik utzita.

Onen urrengo bertso-sailla:

Kargu egiñ biayot
Pello Errotari,
zergatikan dabillen
gezur kontari...

Aldi ontako arrazoiak ere enbor beraren ezpallak ziran. Baiña Jose Bernardo ere saltsan sartzen zuan: “Itzegiten laño Pello ta Otaño”.

Ala, onena izan zan urrengo txanda: zerbait “Pellorekin badezu konpon zaitetz ortik”. Azpeitian biltzean, berak onela galdetu ziola: “Premioaz zer berri?”. Udarregik: “Berdiñian etzala ura kontentu”; eta “guri pixka bana, au zan aren plana”. Orduan Pellok eta biak erdibana egitea erabaki zutela.

Jose Bernardoren illobak, Pedro Marik, aren bertsoak irakurritakoan, bertso au moldatu zuan:

Egondu naiz bedorren
bertsuei begira,
t'ez pentsatu nuala
inbusterira;
famatu bearrikan
ez dutenak dira,
nik aitortuko niyon
koxkorrak balira.
Azpeitiko jira
ta aren segira
orain etorri da
bear dan tokira,
arrazoizko gizonak
baldin badira.

Urrengo sailla Udarregik, Pello eta Jose Bernardoren aurka bero-bero eta onela bukatuz: "uste nuben zirala beste gizonik". Erantzuna Pelloren semeak, Miel Antonek, ogei ta bi urteko mutillak:

Gizonaren trazik,
ez daukazu kasik,
orrelakuak ezta
merezi galtzik.

Udarregiren txanda berriz ere: "Notiziya berri bat Astiasutikan, Konportako errota orretatikan...".

Juan Krutzek erantzun zion, Pelloren anaiak, Oiartzunen bizi zanak.

Pello ixildu eta semeak eta anaiak itzegin, beraz. Zergatik ote? Bertso batek argitzen du ori: "Orra Pello Errota Amerikara juan, sei illabeteko ta milla duruan".

Indiano batzuek Pello kantuan entzun, gustatu eta Arjentinara eramana baitzuten.

Udarregik etzuan gai ortaz bertso geiago jarri. Baiña aren alde agertu ziran beste zenbait bertsolari, nork bere sailla atereaz. Oietako bi, Miel Antonek bere bigarren bertsoan aitatzen ditu: Alzako Artzai Txikia eta Patxiko Arzak. Txirritak ere moldatu zuan berea: "Dozenatxo bat bertso bear ditut bota". Bai Orioko Errikotxiak eta Lexo bertsolariak ere.

Udarregi 1895-X-2-an il zan. Eriotz orrek emango zion bukaera bertsolarien eztabaida oni. Batzuek diotenez, Pello Errotari abisua bialdu zioten: Udarregi azkenetan zala eta joateko. Baiña au illa zan, bestea iritxi zanerako. Orduan onela kantatu omen zuan Pellok gorputzaren aurrean:

Ojala ikusi banu
onen eriyua,
alkarri eskatzeko
barkaziyua...

Bertso gordin oietan, bertsolariak sarritan aita-tzen dute d'Abbadie jauna. Baiña istillu oien berri berak jakin ote zuan? Ori ez dakigu.

Dana dala, bertsoen otsa aren belarrietara iritxi bazan, bi sentimentu erneko ziran arengan. Alde batetik, pena, berak antolatutako ospakizunak alako asarreak piztu zitualako. Bestetik, berriz, poza, ustegabeen alako bertso-festa jarri zualako.

Azpeitian saritutako olerkiak, izan ere, jakintzuen iritziañ onak ziran. Baiña erriak etzituan aintzat artu. Bertsolarien sail auek, berriz, buruz ikasiak izan ziran, bein baiño geiagotan argitara emanak eta sarritan kantatuak.

Arte batean azaldutako

Ama Birjiña

IZEN ortako santutegia Artziniaga erritik kilometro batera dago, Arabako sartaldean, Bizkaia eta Burgosko probintzietatik oso urbil.

Bertan izan nintzan batean, Jose Iturrateren *El Santuario de la Virgen de la Encina* (Vitoria, 1980) liburua eskuratu nuan. Artaz baliatuko naiz gaurko idalantxo au osatzeko.

Emengo Ama Birjiñaren irudia nexka batek arkitu omen zuan, ardiekin inguru artan zebillela, arte baten adarretan. Beste batzuek diotenez, Ama Birjiña bera izan zan an agertu zana. Ona zer dioten 1918-ko kopla batzuek:

*De luz rodeada
y eterno esplendor,
la Reina del cielo
aquí apareció.*

*A una pastorcilla
su gloria mostró,
radiante y hermosa,
más bella que el sol.*

*“Yo quiero -la dice-
por siempre desde hoy
hacer de esta encina
lugar de oración”.*

Bat ez-ezik, Zeruko Amaren lau irudi gordetzen ditu santutegi onek: bat, XII mendekoa; bestea, XIV-koa; irugarrena, aldare nagusikoa; eta lauga-

rrena, arrizko bat, atariko lorategian, idazki onekin: *La imagen de Nuestra Señora apareció aquí.*

Nexka errira joan zan berri ori ematera. Baita jendea etorri eta ermita bat altxatzeko asmoa artu ere. Baiña arte ori Artziniaga eta Aialako mugan zegoan eta ortik auzia sortu zan: ermita zein errik egingo zuan?

Alkar ezin artuz, gerra bizian asi ziran. Aiala atera zan garaille, eta Artziniagak amor eman bear. Ala, agiri bat egitera zijoazen, Ama Birjiña Aialako partean agertua zala esanez; baiña gauez, ermitarentzat bildutako gaiak, Aialatik Artziniagara pasatzen ziran. Ori ikusiz, Aialak gai danak Artziniagari erregalatu zizkion, ermitak berak eraiki zezan.

Baiña aldare nagusian bi gerra-gizon ikusten dira. Aurrean eskribau bat, idazten asi zorian. Baiña bista galtzen du, egazti batek artearen adar tartetik egindako ziriñarekin. Ori alde batean.

Bestean, berriz, Aialako ordezkaria. Eskribaua itxutzearekin nabarmen gelditu da gezurrezko agiria egitera zijoazela, eta orduan arek maillua eta eskua-dra ematen dizkio andre bati, Artziniagako erriaren ordezkariari alegia, ermita erri onek altxa dezan. Gaiñean Ama Birjiña ikusten da aingeruz inguratua.

Leenengo ermita suak erre zuan. Gaur dagoana XV mendearen bukaerakoa da, ederra benetan.

Mota askotako erromesak onera zetozenak: nekazariak, gaitzak jotakoak, indianoak, Afrikan kati-bu egondakoak, amak beren umeekin, itxas-gizonak... Auek *la Virgen de Montenegro* deitzen zioten Ama Birjin oni. Karlos V erregea ere emen izan zan. Alfonso XIII-ak, berriz, kaliz bat erregalatu zuan.

Elizaren ondoan parke dotorea. Ango arbolik ederrena arte bikain eta ikusgarri bat. Ama Birjiña agertutako arte zaarraren ondorengoa omen da,

1918-an aldatua. Gaur egun *zugaitz berezia* izendatuta dago.

XIX mendeko gerrak pake-leku au kupira gabe zigortu zuten. Orduko gorabeera guziak ezin aitatu. Baiña konta dezagun karlisten bigarren gerratean (1872-1876) bein batez emen gertatua.

Feri-eguna zan. Alako batean, tiroak entzun ziran. Andik pixka batera berriz ere tiroak, baiña alderago, eta bala batzuek arbol-adarretan jo. Orduan jendeak igesari eman zion.

Zetozen soldaduak liberalak ziran. Aien buru egiten zuana, Loma jenerala zan, Arabako Gatzaga-Añana erriko semea, Gipuzkoan ere ibilia eta emengo bertsolariak ainbat bertso jarri zizkiotena. Emakume lodi samar bat inguratu zitzaion, izerditan eta arnas larrian.

– Zer modu, Isabel? –jeneralak.

– Menako boluntarioak Artziniaga erre nai dutela. Petroleo-ontziak prestaturik dauzkate.

Jeneralak kapitan bati:

– Korri Artziniagara. Boluntarioen buruzagia onera ekarri zazute, eta kontuz iñork erriari kalterik egin.

Erria orrela salbatu zan. Isabel ori Lomaren ugatz-arreba zan. Biei emakume batek titia emana.

Izan berria naiz santutegi ontan. Eliza itxita zegoan eta ezin sartu. Saietsean museo bat antolatu dute, lurralde ontako nekazari-lanabesak bilduta. Baiña ura ere itxita.

Kamioaren arunzko aldean, beste parke bat, aritz ederrez ornitua. Egoaldera, *Sierra Salvada*-ko Ungino eta Eskutxi tontorrak.

Ama Birjin onek bere kanta berezia badu. Baiña ona, bukatzeko, bi erri-kopla:

*Los mocicos de Arceniega
tienen una guitarrica
para tocarle a la Virgen
de la Encina una jotica.*

*Locos son los de Arceniega,
locos y tienen razón,
que la Virgen de la Encina
los tiene locos de amor.*

El Diario Vasco, 1997-X-4

Bizubitako eriotza

GURE ama zanari entzundako kontraera bat eskeiñi nai nuke gaur. Berak Adunan ikasia zuala uste det.

Billabonak artean estaziorik etzuanean, bertako baserri bateko etxekoandrea aldizka Donostiara joaten zan tratuarekin. Goizean goiz abiatu eta Andoaña oiñez, emen trena artuz.

Auzo-baserri bateko morroiak laguntzen zion bidean, xox batzuen truke karga eramanez. Baiña nagusiak baimenik emango etziolakoan, ari ezer esan gabe leio batetik irteten zan etxetik, besteak mugitzerako leio beretik sartuta. Emezortzi urteko mutil gazte ederra zan bera. Bein baiño geiagotan egiña zan joku ori, eta beti ondo ibilia.

Gaurko kamioa, Andoaindik Adunako zubiraiño, burnibidearen ondotik dijoa. Bai garai artako erregebidea ere. Baiña au une batean burnibidearen azpitik pasatzen zan, arunzko aldetik puska batean joan, osteraz azpitik igaro eta leengo aldera itzuliz. Burnibidea egiteko bi zubi eraiki zituzten, beraz, trena gaiñetik eta erregebidea azpitik pasatzeko. Leku orri Bizubita deitzen zaio geroztik.

Batean, bikote ura bazijoan, oi bezela, lasai asko. Baiña Bizubitako ortan gizon armatu bat atera zitzaien. Mutillak, bere karga bota, burnibidera korrika igo, beste aldera jetxi eta estuasun artan ibaia ere pasa egin omen zuan.

Andik atzera begiratu eta etzuan ezer ikusten. Ezta txintik entzuten ere. Ala, itzuli egin zan. Ibaia

pasa, burnibidea ere bai eta Bizubitan sartu. Gizon armatuaren arrastorik etzan. Baiña etxeakoandrea antxe zegoan lurrian, labankadaz josia, odola zerio-la eta azken arnasetan.

Mutillak iltzen lagundu zion. Gero, morroi zegoan baserrira itzuli zan. Baiña etzion iñori gertatuaren berri eman.

Etxekoandrearen gorputza arkitutakoan, agintariak azterketan asi ziran. Eta mutillaren aurka argibide guziak: biak maiz joaten zirala Billabonatik Andoaiña; egun artan ere ikusi zituztela; bueltakoan arropak odolez zikinduta zituala; eta abar.

Mutillak gizon armatuarena kontatu zuan, baiña nork sinistu? Kondenatua izan zan; eta, garai artan espetxea Zeutan zegoanez, ara bialdu zuten.

Andik urteetara, gizon batek, Arjentinan-edo, eriotzako orduan, zera aitortu zuan: zazpi edo zortzi eriotz bazituala egiñak alako eta alako tokitan; eta, aien artean, Bizubitako au ere bai.

Abisua andik onera bialdu zuten. Bai emendik Zeutara ere: preso libre uzteko, arren. Baiña andik onela erantzun zuten: “Egun gutxi dira mutil ori il dala. Aren penarik aundiena auxe zan: bere etxeak ere erruduntzat zeukatela”.

Ori dana, gure ama zanak kontatzen ziguna.

Andik urteetara, Mikela Elizegi zanarekin *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua* liburua osatu genduan. Batean, izbidea artara etorrira, Bizubitako eriotza kontatu zidan. Arrituta gelditu nintzan, gure amak eta Mikelak txeetasun guziak berdin-berdin ematen baitzituzten.

Oraindik denbora asko ez dala, eriotz ori gertatutako tokia ezagutzera joan nintzan. Bizubita ori benetan zoko egiten da. Kotxeen zarata garbi entzuten da. Ez ikusten, ordea, burnibidearen muntoa tartean dalako. Bestetik, berriz, mendia dago, etxe

bakarra bistan duala: Amasako Otelar auzoko Zabalegi baserria. Baiña ortarako naiko zabaldegia baduala-ta, antxe da *Bengoetxea auto-eskola*, eta nagusiarekin topo egin nuan. Juan Bengoetxea beraren izen-abizenak.

- Leengo erregebidea au al da? -galdetu nion, alkar agurtu ondoren.

- Bai. Trena gaiñetik, bidea azpitik. Baiña Billa-bona aldeko zubia itxita dago. Ara emen bide zaarraren arrizko pareta, mendiaren kontra.

- Ba, nik umetan entzun nuanez, emen bada eriotzaren bat ola eta ola gertatua.

Eta berak:

- Gure aita zanak berdintsu kontatzen zuan. Bukaera bestela ematen zion, ordea: Ameriketatik abisua etorritakoan mutilla bizirik zala. Libratu ere egin zutela, baiña andik laster il zala. Aitor arazteko, arraultz egosi berriak, bero-beroak, galtzarpeetan jartzen zizkiotela. Nik ere, prueba egitearren, jarri izan ditut, eta ez dira gozoak.

- Eta eriotzaren oroigarriren bat bai al da?

- Arri bat ortxe dezu bide zaarraren paretaren gaiñean. Baiña zergatik jarria dan ez dakit.

Urbildu giñan. Ango letrak erdi borratuta daude. Nik au irakurri nuan: *Jose Jabia... natural de... 30 años... 1863. Jose ez da emakume-izena. Orrek bideak itxi egiten dizkigu.*

Bestela, 1863 ori ari-mutur genduala, bazegoan artxiboetan billa asterik. Gaur ere or nunbait egongo baitira epaiketako paperak. Ea norbaitek arkitzen dituan, eta gertaera goibel onen berri zeatz-meatz ematen digun.

Ni saio bat egiña naiz Amasako eliz-liburuetan, eriotz ori erri onen sailletan gertatu baitzan. Baiña alperrik.

Bitartean, nik umetan entzuna or dioa. Baiña kontuz: nik ez det dan-dana orrela gertatu zanik esaten, neri orrela kontatu zidatela baizik.

El Diario Vasco, 1997-X-9

* * *

Idazlan au *El Diario Vasco* egunkarian agertu eta andik egun batzuetara, il beraren 21-ean, telefono-dei bat izan nuan. Onelatsu esan zidaten:

- Ni Josepi Arin naiz, Andoaingo Ubagun base-
rrikoa. Gaur baserri ori bota ta galduta dago. Zuk
leengoan esaten zenduan gurutzea, gure soroaren
bazterrean zan. Ez zubitik barrura, kanpora baizik.
Gure aita zanak ipularrak ondo aprobetxatzea nai
izaten zuan; eta, goldearekin-edo gurutzea ikutu
edo mugitu egiten bagenduan, ura berriz ondo jar-
tzea nai izaten zuan.

An idatzita zeuden argibideak auetxek ziran:
*Francisca Echave, 44 años, natural de Cizúrquil,
1863.*

Gure aita zanak esaten zuanez, ez omen zuten
andre ori labankadaz il, losa batekin edo arri zo-
rrotz batekin buruan jota baizik. Mutillak korajerik
ez an zer gertatu zan esateko, eta gero erru guziak
beraren gain.

Gurutze ori gaur *Iveco* izeneko kamioi-enpresa
dagoan tokitik eun da berrogei ta amar bat metrora
zegoan

Garai bateko kamiñeroak ere errespetatu egiten
zuten gurutze ori. Baiña kamio ori *Nacional 1* da,
jakingo dezunez; eta orain ogei ta amar bat urte,
ura zabaltzerakoan-edo, gurutzea galdu egin zan.

Politikaren zipriztiñak

LORE-JOKOAK ospatu ziran Saran 1874-an ere, Antoine d'Abbadie-ren esku zabalari esker. Olerkiaren magal gozoan bizi nai zuten, beraz, ango euskaldunak. Emengoak, berriz, alkarri tiroka ari ziran, karlisten bigarren gerratea zebillen eta. Bida-soa ori erreka kokorra da; baiña bi mundu oso ezberdiñak banatu izan ditu sarritan.

Sariketaren epaia onela eman zan: leenengo, *Jaungoikua ta errija* sailla, *Bizkaitarra*-k bialdua. Bigarrena, *Betiri-Sanz*, senperetar batena. Sarako Agustin Etxeberriren *Kattalin-xume* izenekoak etzuan saririk jaso.

Irabazi zuan saillak ogei bertso zituan, eta gerarako dei sutsu bat zan. Ona asiera:

Ea, bada, mutillak,
jaki gogorturik,
fusillak, baionetak
artu ber-bertatik;
Jaungoikua ta Marija
doguz gure aldetik,
Europa kontra izanik
ez dogu beldurrik.

Erabaki ori etzan iñola ere danen gustokoa izan. M. Guilbeau jaunak onela zion *L'Avenir des Pyrénées* egunkarian, Auñamendi Enziklopediak dakarrenez:

“D’Abbadie-ren leiaketak beeraka dijoaz. Leenengo urteetan olerkari asko azaldu ziran, lan bikaiñak aurkeztuz. Orduan dana agerian egiten zan; orain, berriz, izkutuan. Baiña aurtengo ontan marka guziak autsi dira, politika sartzan utzita. Irabazi duan saillak asarrea piztu du. Sarako alkateak galarazi egin du jende aurrean kantatzea. Zergatik sartu karlistak Lore-Jokoetan? Naiago degu gure zelai eta mendien pakea, ango anai arteko gerra odoltsua baiño”.

Bertso-sail ori etzan orduan moldatua, bost urte leenago baizik. Isabel II erregiña 1868-an erbeste-ratu zanean, alderki politikoak alkarren aurka asi ziran bertso-paperen bidez. Bai karlistak gerra prestatzen ere.

Ordukoak dira Xenpelarren *Ia guriak egin du* bertso famatuak. Ordukoa, baita ere, Saran leen saria irabazitako sail au; 1869-koa alegia. Onela asten zan:

Oge ta amabost urte
diraz igaruak
agintzen deuskubela
liberal gaiztuak.
Astruzija andiakaz,
madarikatuak,
engañau zitubezan
karlista zintzuak.

Gero, egilleak berak edo beste norbaitek, Saran olerki-sariketa egin bearra zala jakin eta ara bialdu zuan sail ori, an eta emen ikutu eta aldaketa batzuk sartuz, egin berria bezela pasa zedin.

Onela zion, adibidez, 1869-koan: “Españan entzungo da laster bere orroia...”. Eta 1874-an: “Españan entzuten da orain bere orroia”.

Sarara bialdutako bertsoak firma bezela izki auek dituzte: *M. A. E.* Orrekin bakarrik ezin atera egillea nor izan zan.

Tolosako Manuel Urreta zanaren paperetan, berri-*rriz, Mikel*o izenordeaz firmatuta eta makinaz idatzi-*ta, Aguila*s Vasconas izeneko artikulua bat arkitu nuan, onela dion eskutitz batekin:

“Le envío estas tres cuartillas, con el ruego de que tan pronto le sea posible me las devuelva, bien corregido el texto vasco...”.

Eskutitz ori Madrillen 1936-ko uztaillaren 18-an idatzia da. Anai arteko gerra asi zan egun berean, alegia. Arritzekoa da fetxa ortan egindako karta Tolosaraño iritxi izana. Baiña Urretak bueltatzerik ez eta eskutitz eta idazlan oiek beraren paperen artean gelditu ziran.

Bertan esaten danez, *Mikel*o dalako ori-eta, Lekeitiora joan ziran arratsalde batez. Aiton batekin topo egin eta au izketan asi zitzaien:

– Karlismoa zer zan guk ez genekian. Baiña 1870-ean bertso batzuk eskuratu genituan: “Ogei ta amairu urte dira igaruak...”.

Bertso-sail onen 1869-ko asiera, alegia, urteak oker esaten baditu ere.

Aitonak onela jarraitu zuan:

– Apaizgaiak bereala ikasi genduan sail ori, eta bai bertsolarien gaiñontzeko bertsoak ere. Orduko gazte oietako bat oraindik ere bizi da, larogei ta zor-tzi urterekin: Bizente Egileor. *Bizentitxu* esaten diote.

Urrena, bertso auek antxe daude Madrilletik Tolosara etorritako idazlan ortan, baiña 1869 urtean agertu ziran bezela; ez Sarara 1874-an bialduta-ko moduan.

*Mikel*o-ren iritzi-*z, bertso* auek *Bizentitxu* orre-*nak* dira. Ditekena, noski. Baiña duda egin diteke.

Sail onek sortutako istilluak d'Abbadie jaunaren belarrietara ere iritxiko ziran. Dirudianez, ixilik irentsi zituan. Baiña samingarria egingo zitzaion, berak antolatutako Lore-Jokoak politikarekin zipriztinduta ikustea.

El Diario Vasco, 1997-X-18

Tres Mares tontorra (2175 m.)

BIZI geran peninsula ontan, ain menditsua izanik ere, tontor bakarra dago bere urak iru itxasotara ixurtzen dituana: Kantabriko, Mediterraneo eta Atlantikora, alegia. Ortik erantsi dioten izena: *Tres Mares*.

Kantabrian dago, Reinosatik aruntz. Kamio egoki batez *Fuente del Chivo* izena duan leporaiño igo diteke, ia bi milla metrora. Mendi soilla degu au; dana arkaitza eta larre motxa. Pagadiak beerago gelditu dira.

Oso bide eroso iriki dute gaillurreraiño, eta ordu erdi bat naikoa da araiño errez eta soseguz irixteko. Jende asko ibiltzen da gora eta beera, udapartean beintzat.

Arrigarriak benetan emengo bistak, mendi au bi milla metrotik gorako gaillurrak inguratzen dute-larik. Onera datorrenak gozamen ederra emango die bere begiei.

Aurre-aurrean, *Picos de Europa* izeneko gaillur tenteak: Peña Vieja, Peña Santa, Torre Cerredo, Llabrión, Naranjo de Bulnes... Ango arkaiztegiak txuri-txuri ageri dira goizeko eguzkiarekin; eta elurra ere ikusten zaie oraindik ere, udaran gauden arren.

Eskubi aldera, Peña Sagra. Erriak *Peña Sagráa* esaten diona. Aren egoaldeko egaletan orretxegatik egongo da, bearbada, *Nuestra Señora de la Luz* izeneko santutegi ospetsua.

Urrena, Cordel, Cornón, Cueto Horcada, Coto-
mañinos, Valdecebollas...

Ontan gaur ere oso garbi ikusten dira azken ge-
rrateko trintxerak. Urtebetean frentea ortxe egon
baitzan geldirik. Baiña 1937-VIII-14-an, ain zuzen
gaur irurogei urte, nazionalak ortik jo zuten atakea.
Mendi ori artu, aurrera segi eta etziran gelditu San-
tanderren sartu arte.

Sartalderuntz, Espigüete, Curavacas, Peña
Prieta. Ontan iru probintzik alkar jotzen dute: León,
Kantabria eta Palencia-k.

Espigüete ortan, udara osoa pasa zuan talde
batek, Espaiñiako 1/50.000 maparentzat neurketak
egin bearrez, andik Madrill aldeko Peña Lara tonto-
rra noiz ikusiko. Ez da erreza, izan ere, udarako
ganduarekin. Baiña beren naia lortu omen zuten
azkenik.

Curavacas mendian, berriz, udaran igotzen zi-
ran larre-beiak, gaixorik irixten baziran, ango aize,
ur eta belar osasungarriekin erabat sendatu egiten
ziran. Ortik mendiaren izena.

Tres Mares ontatik Kantabrikora dijoazen urak
Nansa ibaiari asiera ematen diote, Polaciones izene-
ko aranean.

Au emendik goitik beera begiratuta ikusten da,
belardiz eta pagadiz estalita eta errixkaz josia: Tre-
sabuela, Uznayo, Lombraña, Belmonte, San Ma-
més... Nansa ibai ori Tudanca erriaren azpitik pasa-
zen da.

Bertan da *La Casona* izeneko José María Cossío
zanaren etxea, bere liburutegi aberatsarekin. Erri
eta etxe ortan jarri zuan José María Pereda idazleak
Peñas Arriba nobelaren gertakizuna, erriari Tablan-
ca esanez.

Gero, Puentenansa eta Herrerias pasata, Tina
Menor itxas-adarrean bukatzen du ibai orrek bere
ibillera.

Atlantikora dijoazen urak Pisuerga ibaiak biltzen ditu. Au *Cueva del Cobre* izenekoan sortzen da, eta bide luzea du egin bearra: Santa María, Cervera, Aguilar, Herrera, Melgar... Burgos aldetik datozen Arlanza eta Arlanzón ibaiak bereganatzen ditu. Gero, Palencia ondotik segi, Valladolid pasa, Duero ibaiarekin bat egin, Portugalen sartu eta Oporton itxasoratu.

Mediterraneoko urak, berriz, Ebrok eramaten ditu. Batzuentzat, ibai au emendik ogei ta iru bat kilometrorra asten da, Fontibre izeneko errian. Erreka bat sortzen da an, idazkiz eta apaingarriz ondo ornitutako txoko batean.

Besteentzat, ordea, Ebroren benetako asiera Tres Mares gaillur ontako urak biltzen dituan Hijar ibaia da. Baiña lurpean izkututzen da, eta gero Fontibren azaldu.

Ispillu urdin bat ikusten da sortaldera. Ebro ibaiak Reinosatik aruntz osatzen duan urtegi zabala da. Ogei ta bi kilometro mutur batetik bestera, eta 540 milloi metro kubiko artzen ditu. Okerrena, erripilla ito edo estali zuala.

Probintzi-mordoa Ebro orrek ikutuko dituana: Kantabria, Burgos, Palencia, Errioxa, Araba, Nاپarroat, Zaragoza eta Tarragona.

Lur-zati aundia tontor ontatik ageri dana. Jen-de-mordoa bertan biziko da. Beren artean istilluak erabiliko dituzte. Baiña oien zaratarik ez da oneraino irixten. Or ikusten da geren arteko gataskak zenbat balio duten.

Ixiltasuna emengo nagusi. Ez da aizeak belarrietan egiten duan igurtzia eta mendi-ganaduen zintzarri-otsa besterik entzuten.

Ordubetea egin det tontor ontan, begiak ezin aserik. Baiña mendi auetako etsaia badator. Igo berrian an urrutian, Kantabriko aldean, ikusten ziran

laiñoak urbiltzen asi dira. Baita Peña Sagra inguraz-
tzen ere. Nagoan mendia aurki estaliko dute. Obe,
beraz, beerako bidea artzea...

El Diario Vasco, 1997-XI-2

“Limosnatxo bat...”

PEDRO MARIA Otañoren *Limosnatxo bat* izeneko bertsoak, sei guzira, 1893-koak dira. Argitaratu, beintzat, urte artan egin ziran, *Euskal-Eria* aldizkarian, izenburuaren azpian onela esanez: “*On Antonio Arzac jaunari donkitua*”.

Jaun au (1855-1904) euskal idazle eta olerkari ospetsua izan zan. Baita *Euskal-Eria*-ren zuzendaria ere, Pedro Marik aldizkari ortan bere bertsoak argitaratu zituan urteetan. Onek bere esker ona agertu naiko zion eskeintza orrekin.

Limosnatxo bat sail au kaleratu eta andik lau urtera, 1897-an, Euskal Festak ospatu ziran Donibane-Lohizunen, abuztuaren 15-etik 22-ra. Orduko itzaldiak eta idazlanak 1899-an argitaratu ziran, *La Tradition au Pays Basque, Paris, 1899*, liburuan.

Egun aietan danetik izan zan: meza nagusia, bazkaria, dantzariak, bertsolariak, txistulariak, pe-lotariak, pastoralak, maskarada, itzaldiak...

Antoine d'Abbadie jauna urte artan illa zanez, bost ordezkari Sarara joan ziran, an idazki au jarzera: *Antonio Abbadiari Eskual Herriaren orhoitzapena Agorrillaren 19'an 1897'an*.

Olerki-leiaketa ere izan zan. Leenengo saria, eun libera alegia, Donostiako Felipe Kasal Otegi irabazi zuan, *Gure ama maitia* izenekoarekin.

Bigarren sariaren irabazleak, biak berrogei ta amarna libera jasoz: *Harrazki*, Becas jauna, Bidar-

teko apaiza alegia, *Santsin* olerkiarekin, eta Pedro Maria Otaño, *Limosnatxo bat* onekin.

Beste berrogei ta amar libera Ortzaitzeko apaiza zan Diharasarry jaunak irabazi zituan, San Juanen omenez egindako doiñu eta bertso batzuegatik.

Limosnatxo bat saillean kontatzen danez, Otañok, aldamenean mutil koxkor bat duan itxu buru-soil eta bizar-zuri batekin topo egiten du. Au kale-eskiñan dago, bi makuluren gainean, iñora ezin jonianik, limosna eskatuz. Otañorena artutakoan, bere bizitzaren berri ematen dio.

Gerrateetan ibilia zan bera. Orduan, odola bero eta burua arro, aisa igotzen zuan aldaparik luzeena. Baiña, urteen buruan, "limosnatxo bat bildu eziñik Jainkuaren izenean" gertatu da.

Itxu ori ez da, gure iritzirako, iduripenaren asmakizun bat, benetako gizon bat baizik, Otañok bide edo kale-kantoiaren batean topo egin zuana.

Dana dala, leen saria irabazitako olerkia eta Otañorenaren parean gelditu zana, gaur ez ditu iñork ere ezagutzen. *Limosnatxo bat*, berriz, eun urteren buruan bizirik dago euskal jendearen artean. Bai egongo ere, euskerak arnas duan arte.

Aldi ontan bi epaille izan ziran, beraz. Bata, antolatzaileak izendatutako gizonak. Auek zer erabaki eman zuten esan degu. Bestea, berriz, erria, *Limosnatxo bat* saila aukeratu zuana. Nork zuan arrazoi? Gizon jakintsu aiek ala erriak? Onek, noski, iñungo zalantzarik gabe.

Baiña gauza batzuk baditu sail onek arrigarri samarrak. Bata, 1893-an argitara emandako bertsoak 1897-ko sariketa batera bialduak izatea.

Bestea, *La Tradition au Pays Basque* liburuan agertzen danez, Pedro Marik etzuala sail au bere izenean aurkeztu, bere aitarenean baizik: *Juan Pedro Otano, de Saint Sébastien*. Ez dakigu zergatik.

Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkariak 1908-an argitaratu zituan bertso auk. Baiña egillearen izena *Juan Pedro Olano* idatzirik. Frantzesez “ñ” letrarik ez danez, *La Tradition au Pays Basque* liburuan, *Otano* idatzi zuten. Gero, *La Baskonia*-k, *Otano* ezin zitekeala eta orra bigarren aldaketa sartu.

Garai artan Pedro Mari Arjentinan bizi zan, eta fama-puska bat ere bazuan ango euskaldunetan. Ziur asko, abizen-aldaketa ori irakurriko zuan, eta ez det uste grazi aundirik egingo zionik.

Beste gauza batez ez dakit konturatzen geran *Limosnatxo bat* bertso auk irakurtzen edo kantatzen ditugunean. Zizurkildar bertsolari aundiak Arjentinara orretxegatik joan bear izan zuala irugarren aldian: emen bizimodua ateratzea zailla egiten zitzaionez, itxu orren antzera ez ibiltzearren, alegia, “limosnatxo bat bildu eziñik Jainkuaren izenian”.

El Diario Vasco, 1997-XI-23



Nuestra Señora la Bien Aparecida, Cantabria.

Kantabriako Zaindaria

BIZKAITIK aruntz segi, Kantabrian sartu eta bide asko egin gabe egoaldera artu det. Limpias eta Ampuero igaro eta aldapa gora ekin. Bide-baztarran kalbarioak asi dira. Santutegi batera urbiltzen ari naizela señale garbia. *Nuestra Señora la Bien Aparecida* izenekoa bera.

Eliz ederra benetan. Emengo istoria kontatzen duan liburuska eskuratu det. Ontan irakurri dedanaz baliatuko naiz idazlan au osatzeko.

Elizan sartu eta eskubi aldeko orman leio itxu bat ikusten da, burni-makillez babestua eta goien idazki au duana: *El día 15 de septiembre de 1605 apareció en estas piedras Nra. Sra. Bien Aparecida.*

Ermita koxkor bat omen zan emen leen, San Markos izenarekin; arena izan gaur elizako orman dagoan leio itxu ori, eta artzai batzuek antxe arkitu zuten Ama Birjiñaren irudia.

Zenbaiten iritziz, irudi ori Santiagoko erromes batzuek zekartena izango zan eta bitatik bat: edo bi-dean galdua edo norbaitek aiei lapurtua, besteren ondasunen zaleak garai artan ere baziran eta.

Irudi ori 21'6 zentimetrokoa da, Espaiñiako elizetan ikus ditezken txikienetakoa. Marrón erriko parrokira eramatea erabaki zuten. Baiña ekaitz bildurgarri bat altxa eta ezin.

Andik laster, Marróngo jendea beren erriko San Sebastian ermitan irudi bat falta zala oartu zan. Artzaiak billatutakoa ura izango zala pentsatu zuten.

Baiña Ampueroko erriak ezetz. Auzitara jo eta bigarren erri onek irabazi zuan. Onela esan zuten:

– *No robada, sino bien aparecida.*

Ortik Ama Birjin onen izena.

Aren babespean kofradi bat sortu zan 1670-ean, Kantabriako fededunak ez-ezik, Burgos eta Bizkai aldekoak ere izena emanaz. Jaiera aundia zioten Ameriketara joandakoak eta mariñelak.

Azkenik, 1905-ean, agertu zaneko irureungarren urtemugan, Ama Birjin au Kantabriako Zaindaria izendatu zuten.

1936-ko gerratean, auzotarrak irudia artu eta izkutatu egin zuten, badaezpada ere. Bitartean, santutegia eta alboko komentua ospital bihurtuta egon ziran.

Elizatik kanpora ateratakoan, gozatu ederra dute nere begiak. Udaran gaudenez eta eguraldi ona dagoan ezkerro, zoragarriak benetan zeruaren urdina eta lurraren berdea. Nekazariak gogotik ari dira belar-lanetan. Aritzak, arteak, pagoak, gaztaiñak eta lizarrak dira emengo zugaitz zaarrak. Baiña berria ere bada: eukalipto etorkiña.

Santutegi au mendixka baten gaiñean dago, arboladi eder batez inguratua. Beean Asón ibaia, belardietan barrena aurrera dijoana, Santoña eta Laredo ondoan itxasoratzeko. Jira guzian mendiak. Nik ezagutzen ditudanak: Orduntekoak eta *Virgen de las Nieves* izeneko ermita, tontor txorrotx baten puntan. Bien artean dago, ikusten ez bada ere, Karrantza arana. Bizkaitik oso gertu gaude, beraz.


Ama Birjin onen kantarekin buka dezagun:

*¡O Virgen querida, Bien Aparecida!
Reina nuestra eres, danos tu favor.
En la cumbre alzaste tu trono de gloria,
alza en nuestros pechos un trono de amor.*

*Tiene nuestro cielo para ti doseles,
tienes por alfombra campos de verdor.
Hacia ti subiendo miles de hijos fieles
cantan como alondras cánticos de amor.*

*Oye, si gemimos, nuestro acerbo llanto,
trueca los lamentos en triunfal clamor;
oye complacida nuestro alegre canto,
si del pecho brotan himnos en tu honor.*

El Diario Vasco, 1997-XII-18



Nuestra Señora de la Encina. Artiziniaga, Araba.

Berdintasunik gabeko norgeiagoka

EUSKAL Festak ospatu bearrak ziran Donibane-Garazin, Antoine d'Abbadie jaunaren babespean, 1894-ko abuztuaren 26, 27, 28 eta 29-an.

Olerki-leiaketarako gai jakina jarri zuten: Madalena Larralde. Baiña au nor izan zan olerkari jendeak jakin zezan, idazki bat zabaldu zan, aren berri emanaz.

Madalena ori, beraren jaioterrian, Saran kontatzen zanez, bertako neska bat izana zan, orain berreun urte, amazapi urte zituala, gezurra ez esateagatik Frantziako Iraultzaren denboran lepoa moztu ziotena.

Baiña 1926-an J. B. Daranatz-ek Parisera jo zuan, auziaren paperak eskatuz; eta auetan ez da gertaera berdin kontatzen.

Olerki-sariketarako Sarako tradizioa zabaldu zan, ordea, eta bertso-jartzailleak ari jarraitu, beren lanak moldatzerakoan.

Saillak etzuten irurogei bertsoetik (*verso*) pasa bear. Baiña *verso* itza etzan *estrofa* edo aapalditzat artzen, euskal bertsolaritzan oi danez, bertso-lerrotzat baizik, erdal metrikak agintzen duanez.

Leenengo saria *Baigurako bi artzainek* irabazi zuten: Ortzaitzeko Diharasarrik eta Irisarriko Dagerrek, alegia, biak apaizak; eta bigarrena, Joanes Oxalde bertsolariak.

Urrengo urtean, Euskal Festak Bera-Bidasoan ospatu bearrak ziran. Olerkigintzarako gai bera jarri

zuten: Madalena Larralde; eta Pedro Maria Otañok
sei amarreko bialdu zituan. Ona oietako bi:

Erri ontako aingerutxo bat
Larraldeko Magdalena
zan, amazapi urte besterik
oraindik etzitubena,
guraso onak eska lezaken
alabarik leialena;
ikusirikan inguru artan
apaizik etzeguena,
konfesatzeagatikan sartu
zan Españian barrena.

Fedeagatik joan ta egondu
zan Naparroako Beran,
an konfesatu eta gaxoa
etxerunzko etorreran,
Españia ta Frantzia nola
zeuden gudan edo gerran,
katibaturik gelditu zuten
bere lurreko sarreran,
ta koitaduak zion: "Ez dakit
zertan gaizki egin deran!"

Azkena, berriz:

Jesus maiteak guruzpidea
igaro zuben modura,
barkazioa ta naitasuna
banatuaz ingurura,
Salve Regina kantatuaz ta
begiratuaz zerura,
gillotinara igo ta ill zan
zoragarrizko aur ura,
ta aingeruak eraman zuten
santuen bizi-lekura.

Olerkien epaia era ontan eman zan Beran:

“...que por no llenar las condiciones exigidas las composiciones escritas sobre la muerte de Magdalena Larralde, la mártir de Sara, se declaraba desierto el concurso, reservando el premio para las fiestas euskaras que se celebren el próximo año...”.

Erabaki orrek arrituta utziko zuan Pedro Maria Otaño. Bai gu ere, onen bertsoak onak dirala irizten diogu eta.

Ala, gai ori bera jarri zuten Mauleko Lore-Jokotarako ere, 1896-an, baldintza onekin: *“Esta balada vasca... no podrá tener más de cincuenta versos”*. Berrogei ta amar bertso-lerrotan errenditu bear, alegia.

Ona epaia: leenengo, Ortzaitzeko Diharasarry, apaiza; bigarren, Otxandioko Felipe Arrese; irugarren, Donostiako Frantzisko Lopez-Alen. Olerki oiek *Euskal-Erria* aldizkarian agertu ziran.

Pedro Marik aldi ontan zer egin ote zuan? Sei bertso baditu *Aur gurgarriari* izenarekin eta Madalena Larralderen gaiarekin. Oietako bost, zortziko txikiak; eta azkena, amarreko txikia. Berrogei ta amar bertso-lerro, alegia, Maulerako eskatzen ziranak. Ala, bertso oiek arako prestatuak izango zituala ematen du, eta bai bialduak ere. Saririk jaso ez, ordea.

Baiña orra zelebrekeria. Bidasoaz egoaldean oi danez, Otañok zortzi eta amar lerrotan eratu zituan bere bertso oiek. *Zortziko* eta *amarreko* izena ere ortik datorkie. Baiña irabazleak, Diharasarry jaunak, iparraldean oi danez idatzi zituan: zortzikoa lau lerrotan eta amarrekoa bost lerrotan. Ala, bi alako lekua zeukan gauzak esateko. Berrogei ta zortzi lerro idatzirik, amabi bertso aurkeztu zituan; Otañori, berriz, neurria sei bertsorekin bete zitzaion.

Bera-Bidasoako sariketan ere gauza bera gertatu zan. Irurogei lerro baiño geiago etziran onartzen,

eta Otañok oietzek bialdu, sei bertsoan. Iparraldekoak, berriz, amabi bertso osatzeraiño lekua zuten. Berdintasunik gabeko norgeiagoka izan zan, beraz, ura.

El Diario Vasco, 1998-1-4

“Ez nua borondatez, bearrak narama...”

Pedro Maria Otaño 1890-ean etorri zan bigarren aldiz Ameriketatik. Zortzi urte pasa zituan emen. Donostiako garai artako euskal pizkundean parte artu zuan, bere olerkiekin sari-mordoska irabaziz. Baita *Zerbait* liburua argitara eman ere. Aren izena oso maitea zuten orduko bertsozaleak. Ezkondu ere egin zan, eta iru mutiko izan zituan. Zorionak irripar egiten ziola dirudi, beraz. Zerk eraman zuan, bada, irugarrengoz itxasoz aruntz?

Ona zer dion Jeronimo Elizegi bertso-jartzailleak *Atoz, Pello Mari* izeneko sail batean:

Eraman zindun ezkeroztikan
sortu ziñan lur alaitik
bizi bearrak leku estura,
bai, Pello Mari, lasaitik...

Bere gogoz emen geldituko zan, bai, ura. Baiña zailla egiten zitzaion bizimodua ateratzea, eta Ameriketara berriz ere joatea erabaki zuan.

Azken gaua Donostiako Loiola kalean igaro zuan Pedro Marik, 10 zenbakian. Bertan bizi baitziran beraren aita, anai Bernardo eta onen familia.

Amar t'erdietan Donostiako Orfeoia atarira etorri zitzaion, kanta batzuen bidez azken agurra egitera. Kantari-talde ori eta Otaño Arrasaten egin ziran alkarren lagun, 1896-ko Euskal Festetan. Antxe azaldu baitzuan bere burua leen aldiz Orfeoiak; eta Pedro Marik bi sari irabazi ere bai, *Aitona gizagai-*

soa eta *Kubako gure anaiak* saillekin. Kantariak ixildutakoan, Otaño kalera atera zan, oso unkituta noski; aien erdian jarri eta iru bertso kantatu zituan. Inork jaso ez, ordea.

Gau artan ez det uste Pedro Marik lo askorik egingo zuanik. Biaramonean, berak berrogei ta bat urte betetzen zituan egunean, Pasai aldera abiatu zan 1898-ko ilbeltzaren 26-a zan. Egun auetan. beraz, eun urte. *Córsica* zuan izena itxas-ontziak. An sartu aurretik onela kantatu zuan:

Ez nua borondatez,
bearrak narama,
nerekin daramazkit
iru ume ta ama...

Jende asko bildu zan egun artan Pasaian, Otañori azken agurra egitera. Txirritak onela esango zuan: "Makiña bat jende Antxo aldera pausua eman deguna". Galdera au zebillen danen aotan:

- Ez al da gizon au emen geldi arazteko modurik?

Gazteluko Gorri, Txirrita eta Jose Maria Arregi bertsolariak ere an ziran. Ontziraiño urbildu eta bertso batzuk kantatu zituzten. Etzan erantzunik izan. Otañok auxe idatziko zuan gero: "*No pude contestarles porque la emoción me embargaba*".

Onela dio leen aitaturako Jeronimo Elizegik:

gogoratzen naiz nola joan ziñan
negarrez urtzen Pasaitik,
o, modu ortan ez det ikusi
sekulan aurraren aitik!

Itxasontzia abiatu zanean, Pedro Mari atzera begira joango zan noski. Baiña malkoak etzioten gu-

re lurra ondo ikusten utziko. Ezpata biotzetik bezin mingarria izango zan arentzat une ura.

Zizurkilko Teodoro Mujika adiskidearen idazkitxo bat artu berria naiz. Onela dio:

“Nere osaba Millan Salaberria Errekalde base-
rriko familiarekin oso itsatsirik bizitu zan gizona
zan. Bere aitormena da ondoren aipatzera noan au.

Buenos Airesko lurraldeak bistaratu zituenean,
itxas-ontziaren ertzetik, eskuan zeramakien bastoi
makilla altzarik agurtu omen zituen paraje aiek,
bertso gozo eta sentikor bat abestuz.

Nere osabak bertso ura osorik zekien. Neri er-
dizka gelditu zitzaidan gogoan. Era ontan asten zan:
Buenos Airesko... Bukaerako azken bi lerro edo
puntuak era ontan abesten zituen:

Bañan natorren bide beretik
jira nai nuke atzera,
ni jaiotako lur maiteari
ezurrak entregatzera”.

Berdintsu esango zuan andik bi urtera, Panpe-
tako *ombú* zugaitzari eskeiñitako bertsoetan: “ba-
ñan joan nai det ostera, Euskal-lurreko arbolpe ar-
tan nere ezurrak uztera”.

Nunbait ere pentsamentu orrekin kontsolatzen
zan aren biotza: erbeste ura betirako etzala, alegia.
Baiña usteak erdia ustela du, eta aldi artan ere bai.
Gizarajoa, dakigunez, etzan geiago etorriko.

Beste amabi urte egingo zituan Arjentinan,
1910-ean il zan arte. Bertso zoragarriak jarriko zi-
tuan an ere. Baiña barruko zauria etzitzaion iñoiz
sendatuko. Izan al da, bada, Euskal Erria arek bai-
ño geiago maite izan duanik? Ordubete ere etzuan
Ameriketan egingo, jaiotako lurraraz oroitu gabe. Ura-
xe izan zan gizon aren kalbarioa: gorputza toki ba-
tean eta biotza bestean zituala bizi bearra.

Bai; Euskal Erria gaizki portatu zan Otañorekin. Gaizki egiñak barruko arra piztutzen du, eta xomorro ori laster asi zan euskal kontzientzian kozkaka. Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkariak onela zion 1910-V-30-ean, aren il-berria ematerakoan:

“A luego de publicarse la colección de poesías bajo el título de Alkar, se pidió en un periódico de San Sebastián que la Diputación de Guipúzcoa creara para el poeta ausente una plaza de recopilador de cantos populares... El poeta hubiera recogido esas canciones, las hubiera depurado y vuelto a su primitivo estilo y la Diputación, al formar ese archivo, hubiera levantado un verdadero monumento a las letras patrias. Pero los diputados carlistas no podían hacer nada por el poeta, que era liberal, y los diputados liberales no podían hacer nada por el poeta, que era un desordenado”.

Kanta zaarrak biltzeko garai ona zan ura. Baita Otaño biltzaille egokia ere. Baiña sortzaillea zan ura paregabea. Ala, bertso berriak moldatzeagatik ari soldata ematea izango zan bidezkoena.

Agintariak ez entzuna egin zuten. Gure erri-literatura etzan garai artan aintzat artzen; eta gaur ere ez dakit, bear ainbat beintzat. Zertarako, bada, gizon bat jarri uskeri oiek jasotzen?

Utzikeri ura gure kalterako izan zan. Bere gizonik argienak erbestera joaten uzten duan erria gain-beera asiko da. Onela zion Elizegi dalako orrek:


Zertarako da zure doaia
berez jator etorriya?
Nola daukagu orren urruti
gizon bat orren argiya?
Ai, berriz ere egongo da, bai,
Euskera Ama eriya!

Esan bezela, Pedro Mari Ameriketara azken aldiz joan zala orain dira eun urte. Ori dala eta, ospa-

kizun batzuk antolatu dira, ez aren oroigarri bakarrik, baita euskal kontzientzia paketzeko ere.

Xalbadorri txistuak jo ondoren omenaldia egin zitzaionean, onela kantatu zuan Gorrotxategik: "Anoetako pekatariak barkazio eske gatoz". Pentsamentu egokia ori aldi ontarako ere. Otañorekin orduan gaizki portatua damu du Euskal Erriak. Baiña barkazio-itza aspalditik emana izango du Pedro Marrik, urepeldarrak bertan eman zuan bezela.

El Diario Vasco, 1998-1-16



Zalduondo, Araba.

Aukeratu bearraren arriskua

ORAIN ogei ta amar bat urte Euskal Erriko erri txiki batean nintzan. Ez det beraren izenik emango; ezta argazkirik azalduko ere. Zergatik ote? Irakurleak idazlerro aukeratu baino leen igerriko dio. Aspaldiko esaera baita pekatua salatu bear dala, baiña pekataria ez. Ezta ura nor izan zan somatzeko biderik eman ere.

Uztailleko arratsalde bikain bat zan, urte-sasoi ortan izaten diran lillura guziak berekin zituana: zeru urdiña, eguzki ederra, mendi eta zelaiak berde, txoriak eta kirkirrak kantari, iparraize gozo baten igurtzia...

Erri artako etxe eta baserri dotoreak ikusiz, eliz-atariraiño iritxi nintzan, eta an amona batekin topo egin eta izketan asi. Zer gai erabili genduan ez det gogoan, gure jarduna bat-batean moztuta gelditu baitzan.

Beste amona bat, izan ere, andik barrena pasatzea egokitu zan, eta nerekin zanak onela galdetu zion:

– Pasiatzen?

– Bai. Baiña gaur kanposantutik nator. Mariari loreak jartzen izan naiz.

Zein izen esan zuan ez naiz gogoratzen. Baiña kontatera zuzen eramateko zerbait bear eta ori aukeratu det. Leenengo amonak onela jarraitu zuan:

– Beste urtebete bat pasa da, beraz.

– Bai. Gure bizitza aguro dijoa aurrera.

Nik itz oiek argi eta garbi jaso nituan noski; baiña beraien azpian zer zegoan iñola ere ezin somatuz gelditu nintzan.

Bigarren amonak bere bidean jarraitu zuanean, nerekin zanak onela esan zidan:

- Zertaz jardun geran etzera jabetu noski.
- Alaxe da. Baraurik gelditu naiz.
- Esango dizut, bada.

Nik nere belarriak erne jarri nituan, eta berak urrengo gertaera au kontatu zidan:

- Maria ori erri ontako alaba zan. Neska ederra eta prestua benetan. Bi mutil asi ziran aren atzetik: bata euskalduna, bestea erdalduna. Neskak euskalduna aukeratu zuan, eta berarekin ezkondu. Baiña senar zarrastrajo bat gertatu zitzaion. Bere andre gajoari oso bizimodu txarra eman ziona. Ala, naigabea naigabearen gaiñean, gure erritar doakabe ura gaixotu eta gazterik il zan. Illetak egin eta emen, beraren jaioterriko kanposantuan, lur eman zioten. Urte-mordoa pasa da geroztik. Urteburua etortzen danean, aren senar izandakoaren berririk ez degu izaten. Ez da emen azaltzen, ez du ezer ere bialtzen, ez degu aren txintik sentitzen. Izango ez balitz bezela, alegia. Baztertutako mutillak, berriz, urtero-urtero, eguna iritxi aurretik, bi milla pezta bialtzen ditu. Milla apaizarentzat, berak maitatu eta eskuratu ezin izan zuan lorearen alde meza bat eman dezan; eta beste milla, illobiaren gaiñean loreak jartzeko. Lore oiek kanposantura eraman eta bueltan zeterren emendik pasa dan emakumea.

Orixen izan zan amona arek kontatu zidan gertakizuna, nere oroimenean bizi-bizi itsasi zana, eta erri artatik pasatzen naizen bakoitzean bururatzen zaidana.


Pertsonak aukera egiteko duan aalmena doai aundia izango da, dudarik gabe. Baiña baita ere,

denbora berean, arrisku aundikoa. Asmatuko duan ala ez ezin aurretik jakin. Zuzenbidetik joan nai eta agian okerbidea artu. Zorionari eutsi bearrez, zori-txarraren atzaparretan erori.

Gertaera arek leengo kanta zaar bat gogora arazi zidan, baztertutako mutillaren mingaiñean jarri litzakeana:

Gure mundua txoroa dala
jende guziak badaki;
nik maitetxo bat iduki eta
ura bestek eramaki,
utsa litzake biziko balitz
nerekin baiño obeki.

El Diario Vasco, 1998-I-25



Liebana-ko Santo Toribio, Kantabria.

Liebana-ko Santo Toribio

EUSKAL Erritik urrun, baiña ala ere Kantauritar Mendi-lerroaren barruan, bi milla metrotik gorako gaillurrez inguratua, bada lurralde bat, ikusgarria benetan, Liebana deritzana.

Araño joateko, Kantabria eta Asturiasko mugara iritxi bear da, Unquera errira. Emen itxasoratzen da Deba ibaia, izen ortakorik lurralde artan ere badago eta. Panes erria igaro eta La Hermida menditarte ikusgarrian sartu. Au bukatzean asten da Liebana ori. Potes beraren iriburua; eta andik iru bat kilometrora dago, mendian gora, Santo Toribio izeneko santutegia.

Covadongako garaipen ospetsuaren ondoren, VIII mendean, Asturiasko erregeak alderdi au jendez ornitzen aalegindu ziran, moroen mendetik igesi zetozen kristauei bizilekua bertan eskeñiz. Baita komentuak an-emen altxatuz ere. Oietako bat degu Santo Toribio au, leenengo izena San Martin bazuan ere.

Oi danez, agirietako berri zeatzak baiño leenagoak ditugu emen ere leiendak.

Toribio izeneko bat Astorgako obispoa omen zan V mendean. San Leon Aita Santuaren lagun miña izanik, Erromatik onera Jesus iltzatua izan zan gurutzearen pusketa bat ekarri zuan, munduan dan audiena esaten dutenez, beste zenbait erlikirekin batera.

Beste batzuen iritiz, VI mendean, Palencia-ko apaiz bat, au ere Toribio izenekoa, onera etorri zan

bost lagunekin, bertan otoitz-bizitza egitera, ortarako koba-zulo bat aukeratuz emendik gertu, Viorna mendian.

Bi Toribio oietako bat, eliza altxa nairik, idi batekin arri-karraio omen zebillen bein batez. Baiña artz batek, basotik atera eta idia il egin zuan. Toribiok erritan eman zion, gaiztakeri ori nola egin zuan arpegiratuz. Artza lotsatu eta andik aurrera idiaren lana berak egin zuan txintxo asko, santuaren aginduetara makurturik.

Beste batzuek diotenez, Toribioren idia eta basotik ateratako artza burrukan asi ziran. Baiña santuak aien artean pakeak egin eta alkarren lagun egin zituan. Arrezkerotik, arri-karraioa biak egiten zuten, artzak eta idiak alegia, uztarri berean lotuta.

XIII mendean, leengo zaarraren gainean eliz berria altxatu zan, gaur dagoana alegia, erromanikoa eta gotikoa, estilo biak batera dituana.

Zer ikusi geiago ere badu toki onek: klaustroa, Santo Toribioren irudia, gurutze santuaren puska gordetzen dan kapilla eta abar.

VIII mendean, *Beato* izeneko bat izan zan emengo frailerik ospetsuena. Ereje batzuk baziran garai artan, Jainko Aitak Jesukristo Semetzat artua eta izendatua zala ziotenak. *Adopcionistas* esaten zaie oiei. Baiña Beato ori aurka atera zitzaien, Jesukristo Jainko Aitaren benetako Semea zala esanez, gaur egunean ere Elizak erakusten duan bezela.

Beato orrek azterketa mardul eta sakon bat burutu zuan, *Apokalipsis* liburuaren esan-naiak adieraziz. Orduan inprentarik etzanez, liburuak eskuz kopiatzen zituzten komentuetan fraileak. Baita kolore askotako marrazkiz apaindu ere. Orrelako asko dituzte *Beato* onen idazlanak, eta benetan arrigarriak dira.

Liebanako lurralde au erri txikiz josita dago. Berrogeitik gora guztira, toki ikusgarrietan eraikiak: beeko zokoetan batzuk, eta mendi-egaletan besteak.

Bazuten oitura aitagarri bat. Astean bein, erri bakoitzetik bina gizon etorri bearrak ziran santutegi ontara otoitz egitera; baiña oiñez eta baraurik, batzuk gau erdian etxetik aterata eta beste batzuk ankutsik.

Ni azkena izan nintzanean, udara eta opor-garaia baitzan, jende asko zebillen Santo Toribio ortan. Euskera ere entzuten zan.


Elizatik atera eta San Migel ermitaraiño joan nintzan. Onek, mendi-bizkar batean dagoanez, ikuspegi ederra du.

Aurrean, aundi, tente eta latz, arkaitz gorrian egindako torreak balira bezela, *Picos de Europa* izenekoak. Beean, Deba ibaia, Fuentedé-tik datorrena. Eskubira, Potes erria. An-emen errikkak, beren teillatu gorriekin belardi eta basoen berdetasunaren erdian nabarmen.

Liebana ontan sartzen etzan garai batean erreza izango. Ainbesteko mendi-puskak inguratzen dute. Zalantzarik ez dago lurralde au beren bizilekutzat zergatik aukeratu zuten fraile zaar aiek eta gaiñontzeko kristauak: bestetan ez bezelako babesaren emen zutelako.

Frantziskotarrak dira komentu ontan gaur bizi diranak. Orregatik, baditeke an izandako fraile euskaldunen batek lerro auek irakurri eta okerren batzuk arkitzea. Barkazioa eskatzen diot, egun bateko bisitalariak txeetasun guziak xuxen ematea zailla da eta.

El Diario Vasco, 1998-II-7



Cruz del Saludo, Uxue, Naparroa.

Oiartzungo Euskal Festak (1897)

UR-BIDEREN bat egiten ari ziran Napparroan 1897 urteko udaran. Ogei ta amazapi urteko eta gorputz aundiko argin bat ere antxe zan lanean, bertsolaria bera. Irakurleak igerri dio nor zan: Jose Manuel Lujanbio, Txirrita alegia.

Alako batean, Oiartzuna bertsoetara joateko deia iritxi zitzaion: bertan Lore-Jokoak ospatzekoak zira-la eta bertsolariak bear zituztela.

Txirritak, erritik urruti baitzeuden eta nun gaturik ez izanik, bosteun bat pezeta aurreratuta zeuzkan, eta nagusiari emanak gordetzeko. Ala, onengana joan, diru dana eskatu eta Oiartzuna abiatu zan.

Leenengo egunean, uztaillaren 3-an, gotzai jaunari ongi etorria eta salbea.

Biamamonean, 4-an, meza nagusia leenengo; ondoren, bazkaria, aureskua eta Donostiako Orfeoia euskal kantuak.

5-ean, literatur-leiaketako sariak. Bertsoetarako gaia auxe zan: pakearen mesedeak. Pedro Maria Otañok irabazi zuan leenengo saria, *Anaitasuna* olerkiarekin; eta bigarrena Txomin Agirrek, *Ai, balekite* zeritzanarekin.

Otañoren lanak ez du ez zortzikorik, ez amarrekorik, ez orrelakorik. Puntu edo rima berarekin le-rrro-sail luzeak osatzen ditu. Edozein moduz, lan bi-kaiña da, eman zioten saria ondo merezitakoa. Ona asiera:

Ikusirikan arrai zatarrak,
arrapatutzean aula,
erruki gabe bizi-bizirik
sabeleratzen duala,
gisa berean pizti gogorak
menderaturik argala,
onen karraxiz kupitu gabe
puskatzera daramala,
gizonak oei begiraturik
esaten du bereala,
ikaraturik nola indarrak
daukan agintea ala,
“arrazoiaren argirik eta
zentzu gabeak dirala”;
ta sinisturik bera askozaz
biotz obekua dala,
jakiñik Jaunak zentzua eta
kupira eman dizkala,
pentsatutzen du alako lanik
egiño ez lukeala...
Aitortutzen det lotsa aundi bat
barrenen sartzen zaidala,
iduriturik iñoiz gizona
piztiak beziñ zitala.

Olerki au pakearen aldeko oiur garratz bat da, eun urteren buruan indarririk eta gaurkotasunik galdu ez duana.

Urrengo ospakizuna, San Juan kalean bertsolariak: Pello Errota eta Juan Krutz Elizegi anaiak; Esteban Elola; Txirrita eta Juan Jose Lujanbio, *Saiburu*, leengusuak; Juan Jose Sarasola, *Lexo*; *Artzai-Txikia* eta Jose Joakin Urbieta, *Kaskazuri*, au oiartzuarra.

Kantuan asi eta Txirrita jendearen gustoa egi ten ari omen zan. Entzule danak algaraz aren ateraldiekin. Baiña Pellok, euskal festak baitziran, eus-

kera goraltzeari ekin zion, saria eskuratzearren. Pedro Mari Otaño epai-maikoak zan eta onela esan zion Txirritari:

– Jendearen gustoa egiten ari aiz. Baiña arbola aitatzen ez badek, premia Pellorengana zia.

Orduan Txirritak zizurkildarrak adierazi zion bidetik artu zuan, besteen artean bertso famatu au kantatuz:

Gernikako arbola
igartu da orra,
ez daukate jarririk
olako enborra;
ari zañak ebaki
zizkion satorra,
berrogei kana luze
bazuen muturra,
ura etzan izango
euskaldun jatorra.

Epailleak Pello eta Txirrita berdin juzkatu zituzten; biak leendabizi; eta urrea, Saiburu.

Festak bukatutakoan, Txirritak Naparro aldera jo zuan berriz ere, bere lantegira. Iritxitakoan, nagusiak:

– Etorri al aiz, Joxe Manuel? Sobratuak nun dituk?

Eta Txirritak:

– A, motell, motell! Emen aurreratuak gastatu, an irabaziak gastatu eta ala ere zorretan etorri nauk...

Pedro Maria Otaño, berriz, txintxo asko itzuliko zan Donostiara. Pozik bai, saria irabazi eta egun ederrak igarota. Baiña ez lasai. Kezkaren eztena aren barrua zulatzen asia zan. Emen bizimodua ezin atera eta Arjentinarako asmoa indartzen ari zi-

tzaion. Andik urte erdira joango zan, emazte eta iru semeekin, 1898-ko ilbeltzaren 26-an, berrogei ta bat urte betetzen zituan egunean alegia, Pasaiko kaian itxasontziratuta.

El Diario Vasco, 1998-III-7

Uxueko Ama Birjiña

SAN Martin de Unx erritik gora artu det gaurkoan, Urte Berri egun ontan. Mendi legorrak dira onako auk. Txokoetan, berdetzen asiak, gari-sorolak. Bai maastiak ere. Maldetan, arte-sastrakak. Tarteka, almendro-saillak. Zenbat eta gorago, aibat eta zabalagoak bistak.

Mendi-lepo batean, arrizko gurutze eder bat. *La Cruz del Saludo* esaten diote. Emendik ikusten da leenengo aldiz Uxueko santutegia.

Ala, aurrean, kilometro ta erdira, tontor baten gainean, Uxueko erria eta eliza ditut, arratsaldeko eguzkiak argi egiten diela. Kotxetik jetxi eta ara bitartean, emengo leiendari berritu bat emateko aibat denbora badet.

Orain eunka urte asko dirala, mutil bat ardi zai zebillen mendi ontan. Alako batez uso bat ikusi zuan, arkaitz-tarte batean bein eta berriro sartzen zana. Arri bat tira zion. Usoa izutu, egan egin eta ostera arkaitz-tarte artara etorri zan. Mutillak beste arri bat tira. Bai usoak ere egan saio bat egin eta betiko tokira jetxi.

Arritu egin zan artzaia. Zer ote zuan an egazti arek? Arkaitzetan gora abiatu zan bera, koba-zulo batean sartu, eta an zer arkituko eta Ama Birjiñaren irudi eder bat, aren oiñetan usoa geldi-geldirik zegoala.

Korrika abiatu zan mutilla, La Blanca izeneko errikoa zan bera eta ara, erritarrei berri on ura ematera.

Artzaiari entzundakoan, talde aundia etorri zan, eta Ama Birjiña an ikusi zuten, artean ere usoa aren oiñetan zala, jendearengatik batere izutu gabe.

Batzuek onela esan zuten:

– Zeruko Ama eta Erregiña ez dago ondo toki zakar ontan. Errira eraman dezagun, gure zaindaria izan dedin.

Baiña beste batzuek:

– Ez; begirune geiago zor zaio. Ez dezagun bera gu bizi geran errira eraman, baizik-eta etorri gaitetzen gu berak aukeratu duan lekura.

Iritzi au nagusitu zan. Beren erria ustutu eta onera etorri ziran. Arkaitz baldar aiek bota, tontorra zelaitu eta eliza antxe altxatu zuten, beren etxeak inguruan zirala.

Baiña santutegi eta erri oni zer izen jarri? Ez al zan uso bat izan artzaiaren jakin-miña piztu zuana? *Uxue*, beraz, garai aietan alderdi auetan euskeraz egiten zanez, gaur izkuntzaren aldaketarekin *Ujué* esaten bazaio ere.

Agerpenaren berria bereala zabaldu zan Napparroan, eta erromesak andik eta emendik etortzen asi ziran.

Gaur ere, mendi onen jiran dauden erriak urtero igotzen dira onera udaberrian. Erromeri ikusgarria Tafallako erriak apirillaren azken igandez egiten duana, gizonezkoak beltzez jantzirik eta gurutze astun bana bizkarrean dutela.

Napparroako errege zaarrak ere oso maitea izan zuten Ama Birjin au. Karlos II-ak, adibidez, ara zer testamentu egin zuan: bere gorputza Iruñeko katedralean utzi zezatela; erraiak, Orreagan; eta biotza, Uxuen. Emen dago gaur egunean ere, aldare nagusiaren paretan, kristalezko kutxa batean, idazki onekin: “*Aquí yace el corazón de Carlos II, Rey de Navarra. Año 1386*”.

Emengo miraririk ezagutuena Gonzalo Bustos zaldunarena da. Bera zan Larako zazpi infante doakabeen aita. Itxutu egin zan, eta medikuen aalegiñak alperrik.

Ala, santutegi onen otsak entzun eta Gaztelatik onera etorri zan. *Cruz del Saludo* ortara iritxitakotan, Uxue bistan zala adierazi zioten lagunak. Orduan Gonzalo jauna zaldi gaiñetik jetxi, belauniko jarri eta belaunekin ibiliz bete zuan falta zan bidea. Odola zeriola iritxi zan. Begien argia eskatu zion Ama Birjiñari, eta orra beraren irudia bat-batean aurrez aurre ikusi.

Elizaraiño iritxi naiz. Sarrera dotorea du, arrian egindako irudiez ongi ornituta; eta oietako batzuek maats-mordoak, maatsondo-ostoak eta maasti-lanetan ari diran nekazariak agertzen dizkigute.

Barruan, aldare nagusian Ama Birjiñaren irudia, ederra benetan. Otoitz-leku egokiak Erdi Aroko arrizko eliza auek. Zenbat errezo egin ote dira emen mendez mende eta gizaldiz gizaldi?

Kanporakoan, bistak ikusiz begiei gozatu bat eman. Iparraldean, Elomendi, Izaga eta Arangoiti mendiak. Pirineoko tontor zuriak ederki ikusten dira emendik, eguraldi garbia dagoanean; baiña alde ori illun dago gaur. Egoaldea, berriz, oso argi. An ikusten da Erriberako zabaldegi oparoa, atzean Ebroz arunzko mendiak dirala.

Uxuetarrak ez dute aaztu beren aurrekoak La Blanca errian biziak zirala. Ala, urtero ara joaten dira erromerian, guraso zaar aien alde otoitz egitera eta eguna alkarrekin pasatzera.

Ni ere aruntz nijoa, Murillo el Fruto errira dijoan kamioan aurrera. Sei bat kilometrora, orra ermita xaar bat. Auxe omen da antziñako erri ura izan zan tokia. Arri-pillak an eta emen, etxeak ziran leketan.

Bitartean, eguzkia izkutatu egin da; eta odol-
-kolorea artu du zeruak. Onen aurrean, Moncayo
mendia ageri da, aundi eta beltz, erraldoi baten gi-
san bere burua gora altxatuz.

El Diario Vasco, 1998-III-22

Jose Maria Zubia, “Mari”

EKAITZ zakarra 1861-VII-13-koa. Donostiako kaieko komandantea itxasoari begira zegoan, beren *San Jose* izeneko txalupa galdu eta olatuen mende ziran arrantzale batzuei laguntza nola eman etzekiala.

Baiña patroï bat inguratu zitzaion, bederatzi mutillekin: aiek salbatzera berak joango zirala. Bai komandanteak baiezkoa pozik eman ere.

Erten ziran, bada, olatuen eta aizearen aurka arraunean egiñez. Urbiltzeko iru ordu laurden bear izan zituzten. Ito-zorian zeudenak asieran lau izanik, bat urak irentsi eta iru bakarrik geldituak ziran, ool-puska banari elduta.

Aiek salbatzera zetozen amar lagunak araiño sartu ziran. Ordu erdi bat bear izan zuten iru gizarajo aiek txalupa barrura jasotzeko. Ekin zioten kai aldera. Baiña, iritxi baiño leen, iru aietako batek azken arnasa eman zuan.

Nor ote ziran amar mariñel aiek? Mutillen izenak ez dakizkigu. Patroiarena bai: Jose Maria Zubia, *Mari* esaten ziotena, Zumaian 1809-III-15-ean jaioa, itxasoan bederatzi urterekin asia, Ameriketako joan-etorria maiz egiña eta txalupa-patroï bezela lan egiñez Donostian bizi zana.

Andik egun batzuetara, Donostiako *Teatro Zaa-rra* jendez gaiñezka zegoan. Jaialdi bat ospatzen baitzan itxasoan ildako arrantzaleen familien alde, *Adriana Lecowreur* izeneko antzerkia antzeztuz.

Andik urte gutxira Bilintx izango zan bertako konserjea. Eta, bearbada, egun artan antxe izango zan jende artean.

Asi aurretik, jendeak bat-batean txaloka ekin zion, agintarien lekura burua jiratuta. An ageri baitzan gizon aundi-indartsu bat, elastiko gorri batez jantzita. Ura Mari izan eta jendeak ezagutu. Bera, berriz, lotsaren lotsaz, bere burua nun ezkutatu etzekiala.

Antzerkia bukatutakoan, parte artutako guziak jende aurrera azaldu ziran, jendearen txaloak jasotzearren. Erdian Teodora Lamadrid zuten, jaialdia-
ren leen antzezlaria. Baiña une artan antxe agertu zan elastiko gorritz jantzitako gizon ura, koroï bat eskuetan zuala, eta Teodorari eskeiñi zion, onela esanez:

– Au zuretzat eman didate.

Teodoraren erantzuna, negarrari emanez:

– Neretzat? Ez, ez, ez! Zuretzat!

Eta koroïa arrantzalearen buruan jarri zuan.

Mariren bi lagun itxasoan galduak ziran, alar-
gunak eta umezurtzak utzita. Bai arek onela esan ere:

– Ni bizi naizen artean, miseriarik ez da zuen etxean sartuko.

Ala, itxasotik etorri eta arrantza banatzerakoan, itotako lagun aien parte antxe bereizten zuan Mar-
rik, bizirik baleude bezelaxe, aien familie bialtzeko.

Baiña 1866 urteko ilbeltzaren 9-a etorri zan, eta itxasoa berriz ere bere onetatik aterata zegoan. Aizea, euri-jasak, tximistak... Alako batez, oiubat entzun zan:

– Txalupa bat galdu dala!

Jendea korrika kai aldera, eta alaxe izan. Lau arrantzale Santa Klara ondoan ikusten ziran, txalu-

pa ondoratu eta berak olatuen jostailu, egur bati elduta.

Baiña treñneru bat badijoa aiek salbatzera. Arraunlariak gogor arraunean, besoak eten bearrean. Beren patroia nor izango eta Mari!

Alakoren batean, mendia aiñako olatu bat dator, ordea, aurrera dijoan eran erpiña zorrotzuz, eta azkenean goitik beera amiltzen da Mari eta bere lagunak gainean, aien treñnerua txotx bat balitz bezela aidean boteaz.

Ori ikusiz, kaiera bildutako donostiarren ezta-rrietatik karrasi samin bat erden zan. Andik laster, puntu beltz batzuk ikusi ziran olatuen aparren erdian, euliak esnetan ziruditenak. Treñneruko gizonak ziran, urak errukirik gabe gora eta beera zera-bilzkianak.

Aberaskume batek oiua orduan:

- Ontzurre bat gizon oiek salbatzera dijoanarentzat!

Arek borondate onez esango zuan ori noski, baiña arrantzale batek gaizki artu:

- Iñoiz ere ez goaz gu ortara diruagatik!

Ala, beste treñneru bat, *Holandés* izenekoa, aterra da. Puntu beltz aiengana urbildu, jaso eta badator kai aldera. Jendea pozez zorutzen, txaloka eta deadarka.

Alderatu danean, ordea, zenbat lagun datozen kontatzen asi eta bat falta dala. Nor izango eta Mari! Itxaso asarreak txalupa iraulitakoan, urak irentsi egin zuan, eta beraren lagunak etzuten geiango ikusi.

Gertaera oiek kontatuz bi idazlan agertu ziran *Euskal-Erria* aldizkarian. Bata, 1883-an, Joakin Jamar-ena; bestea, 1896-an, Antonio Peña y Goñi-rena, onek bere begiz ikusitakoak azalduz.

Euskal-Erria orrek bi bertso-sail ere baditu Ma-

riren omenez jarriak eta 1882-an agertuak. Bata Biktoriano Iraolarena; eta bestea, Ramon Artolarena.

Esker onez, Mariri oroitarri bat altxa zion kaian Udalak. Artan bertso au irakurtzen da, firma bezela A. A. izkiak, *Antonio Arzak* alegia, dituana:

Urikalduak salbatu naiaz
eman zenduben biziya,
ta gaur daukazu goitaltxatuaz
obiz itsaso aundiya.
Lo egin zazu baga soñuaz,
o gizon maitagarriya,
onraturikan zure gloriyaz
Donosti ta Kantauriya.

El Diario Vasco, 1998-III-28

Asturiasko erromeriak eta bat-bateko bertsogintza

GASPAR Melchor de Jovellanos Gijón-en jaio zan 1744-an; eta 1811-n il. Politiko argia eta liburu-zerrenda luzea osatu zuan idazlea izan zan. Aren eskutitz batzuk *Clásicos castellanos* saillean arkitu ditut (129, Madrid, 1969). Oietako zortzigarrenak gai polita du: *Romerías de Asturias*. Ango santutegietara egiten ziran peleginazioak, alegia.

Inguruan leku egoki bat aukeratuz, jateko gauzak eta beste zernai jenero saltzeko dendak jartzen ziran. Baita sagardo eta ardo-kupelak ere.

Erromeri geienak uda-partean izanik, erromes batzuk bezperatik etortzen ziran. Su aundi bat egin eta gau guzia dantza eta builla pasatzen zuten, gaita eta atabalari eragiñez eta kantu eta oiuzeriotela.

Goizean, eguzkiak zeleta egin ordurako, bideak jendez beteta ikusten ziran. Festazale geienak erri txikietakoak izan, ordea, batez ere gazteak, neska eta mutillak; sarritan joan-etorri oietan alkar ezagutu eta denborarekin ezkontzen ziranak.

Iritxitakoan, ermitara sartu eta errezo batzuk egin. Gero, meza eta prozesioa. Urrena, bear zana erosi, feri batean bezela an danetik saltzen baitzan.

Eguerdian, itzaletan taldeka eseri eta bakoitzak berak ekarri zuanetik jan: esnea, gazta, fruta, ogia, sagardoa... Bear zuanak kuluskaren bat egin eta orra danak dantzarako prest.

Neskak eta mutillak talde berezietan, ordea. Alkarri eskutik eldu, jiran jarri, eta kurpillaren mogi-

mentua egin, kantari ari ziran bitartean. Gizonezkoen taldean, eztarri oneko mutil batek erromantze zaar bat kantatzen zuan, lauko baten ondoren talde osoak kantarte bat errepikatuz.

Nork bere makilla utzi gabe dantzatu, ordea. Alako batez, mutillen bat erdira atera eta oi u egiten zuan bere erria goratuz. Bai auzo-errietakoak fuera-ka erantzun ere. Orduan makillak dantzan asi. Ura egur-otsa! Burruka oien berri Palacio Valdés-ek ederki ematen du bere *La aldea perdida* nobelan.

Euskal Errian ere berdintsu gertatzen zan, Iz-tuetak kontatzen digunez. Festa odolik gabe bukatzen bazan, gaitz erdi. Agintariak makillarekin ibiltzea galerazi nai izan zuten. Baiña ausartu ez, jendeak orduan labanak erabiliko zituan bildurrez.

Nesken dantzak paketsuagoak ziran. Aiek ere, batek koplak bat aizeetara bota ondoren, besteak onela asten zan kantartea errepikatzen zuten: *Hay un galán de esta villa...* Koplak oietako batzuk, antziñatik zetozenak ziran; besteak, erromerian gertatutako zerbaiti bat-batean moldatuak.

Bein, neska itxusi bat buruko sare nabarmen batekin azaldu zan. Laster zan koplak au egan:

*Quítate la rede negra
y ponte la colorada,
para que llucia la rede
lo que non llu la tu cara.*

Beste bein, emakume ezkondu bat jendearen aotan zebillen, zaldun batekin konpontzen ote zan. Urrengo erromerian koplak au entzun zan:

*El que tien la mujer guapa
cabo cas de los señores,
más trabajo tien con ella
que en cavar y fer borrones.*

Fer borrones landare, sustrai, belar eta lurra erretzea zan, gero autsa ongarri bezela erabiltzeko.

Beste batean, obispoa ermita batera joana zan festa-egunean. Bazkaltzeko, zenbait apaiz eta lagunekin bildu zan. Baiña neskak an bertan kantu, dantza eta zarata, eta jauntxo aiek ezin alkar uler-tu. Obispoak orduan agindu au eman zuan:

– *Buillosa oiek ixildu ditezela Jainkoarren!*

Apaizen batzuk joan eta mandamentua neskei pasa. Baita auek ixil-ixilik aldendu ere, baiña ez bi-de luzean, eta beren festarekin segi. Andik laster, kopla au iritxi zan obispoaren belarrietara:

*El señor obispo manda
que se acaben los cantares;
primero se han de acabar
obispos y capellanes.*

Illuntzean, taldeak etxeko bidea artzen zuten, kantu eta oiuz mendi eta basoak betetzen zituztela.

Emengoen antzekoak, beraz, ango erromeriak. Kantauri alde ontan klima eta lur-lana berdiñak diranez, festa-giroak ere ezin alde aundirik izan.

Bat-bateko bertsogintza ere indarrean zan, beraz, lurralde artan. Orduko gaztediak ezer gutxi be-ar zuan dantzan egiteko. Naikoak ziran pandereta baten otsa eta eztarri oneko emakume baten kantua. Onek leengo kopla zaarrak aidatzen zituan geienetan. Baiña aldizka, doai ori berekin zuanak beintzat, kopla berri bat asmatu eta bota egiten zuan, eskeiñi ditugun adibideak erakusten dutenez.

El Diario Vasco, 1998-IV-14



Alles, Peñamellera, Asturias.

Sandailiako koba-zuloa eta Araotz

OÑATITIK Arantzazura goazela, Araozko bidea eskubira artu, beeko zulora jetxi, erreka beste aldera pasa eta ango arkaitz tenteen azpian Sandailiako koba arkituko degu, ermita bat barruan duala. Baiña, ez omen da San Elias ango santua, Santa Julia baizik.

XV mendean ortxe gertatutako arazo baten berri guganaiño iritxi da. Baita orduko kanta bat ere. Argibide oietaz baliatuko gera gaurko lantxo au osatzeko.

Oñaztarrak eta ganboatarrak alkarrekin gerran zebiltzan garaia zan. Batean, Sancho Garzia Garibay aundikiaren morroiak Ernaniko mandazai batekin topo egin zuten San Adriango koba-zuloan –Juan Zaar beraren izena–, eta kortesia eskatu zioten; edatera konbidatzeko, alegia. Arek ez eman nai, ordea; eta orduan zer egin zioten? Zeraman diru guzia kendu.

Juan Zaar orrek salatu egin zituan agintarietara. Baita auek arma-gizonak bialdu ere lapur aiek nola edo ala baitzeko.

Baiña auek iges egin zuten Sandailiako zulo ortara. Goardiak, etziran ausartu barrura sartzen. Goseak atera araziko zitualakoan, sarrera zainduz gelditu ziran.

Koba orrek beste irteera bat ba omen zeukan atzetik, ordea, bi-iru bat kilometrora; eta izkutuko sarrera ortatik, *Zalagarda Malo* esaten zioten morroi

batek zernai gauza ekartzen zien, bai jateko eta bai edateko. Koba barrukoak bapo, beraz, tripa ondo berdinduta.

Are geiago: kanpoko goardien buru egiten zua-na Mendoza zeritzan; eta Gaztelatik arentzat zetorren ardoa, Madrigalgo ardo zuria, bidean arrapatu zuten koba-barrukoen lagunak, eta Sandailiako oiek edan:

Ardao zuri, ardao Madrigalgora,
ardao zuria Mendozagana doa;
alabaña Sandaili gogoa,
Zalagarda Sandailira doa.

Mama gozoagorik izan al diteke? Pentsa: debaldekoa eta etsaiari lapurtua.

Baiña kanpokoak zer egin zuten? Urdai-gizenak eta egurrak sarreran pillatu eta su eman, barrukoak ke nazkagarri arekin ezin burutuz atera zitezen.

Berdin egingo zuan andik urteetara Zumakaregik Naparroan, Erriberako erri batean. Liberalak eliz-torrean babestuak izanik, piper miñak eta abar errez atera arazi zituan andik. Baita Lizarragak ere Mondragoiko elizan ziran liberalekin. Erdi Arotik edo leenagotik zetorren azarikeria izango zan, beraz, ori.

Baiña dana alperrik Sandailian. Azkenean, goardiak alde egin bear izan zuten.

Zalagardak erabili zuan beste sarrera ura galdua omen da. Nun zan iñork ez daki gaur egunean. Baiña Zalagarda ori andik sartzan bazan, zergatik etzuten barrukoak bide beretik iges egin? Bearbada, etsaiarentzat burla ori baiño mingarriagorik etzala eta orregatik geldituko ziran bertan.

Koba-zulo ortan etxe xaar bat dago, leenengo. Urrena, ermitatxoa, idazki onekin: "*Sandaili ermita berriztatuaren inaugurapena. Araotz, 29-6-1980*".

Koba barruan toki eroso eta naiko zabala dago. Itoteen otsa entzuten da. Kanpoan, berriz, arkaitza, mendia, basoa eta Araozko errekaen urtegitxoa ikusten dira. Txorien kanta eta uraren murmurra belarrietara. Arantzazuko kamioaren zati bat arunzko mendiaren egalean, kotxeak gora eta beera dabiltzala.

Arabako erriren bat urtero etortzen omen zan ermita ontara. Batean, apaiz berria zanez, aren mendeko kristauak adierazi zioten zer oitura zuten, bera ere etor zedin. Baiña arek ezetz; bera etzegoala artara beartua eta etzijoala; parrokia gertuago zutela, errezatu nai bazuten. Ala, aldi artan erritarrak apaizik gabe egin zuten erromeria.

Negua alderatzean, ordea, erri artan auzo-lanean prestatzen zuten egurra famili guzientzat, eta bai apaizarentzat ere. Baiña urte artan batere gabe utzi zuten, eta erretore jaun ori asarre:

- Apaizarentzat egurra betiko oitura ez al da?

Erriaren erantzuna:

- Baita apaiza gurekin batera Sandailiara joatea ere.

Araotzeraiño jarraitu det. Mendi-zoko ikusgarria onako au. Ederrak benetan bai eliza eta bai baserriak ere. Jira guzian mendiak: Mugarriaundi, Aumategi, Artia, Saiturri, Andarto, Orkatzategi...

Emen jaio zan, 1518-an, Lope de Agirre fama-tua. Peru-ra joan, Amazonas ibaian sartu eta goitik beera Atlantikoraiño jetxi zan ontzi kaxkar batzuetan. Bidean danen nausia zan Pedro de Ursua napparra eta beste gizon asko il arazi zituan. *Aguirre el loco* eta *el traidor* esaten zioten. Felipe II erregeari eskutitz bat idatzi zion, bere burua aren mendetik

atereaz. Barquisimeto-n il zuten, 1561-ean.

Ura jaiotakoan, bukatu berriak ziran oñaztarren eta ganboarren burrukak. Aien gertaerak artean kontatuko ziran euskal sukaldeetan. Baita kantak kantatu ere. Aitonon batzuk ere ezagutuko zituan arek zalaparta aietan ibiliak. Giro ortan azia izanik, Agirre ori ere *banderizo* bat zan. Enbor beraren ezpala, alegia. Ameriketara joan eta bere izakera an azaldu zuana.

Batzuek, aren jaiotetxea elizatik beera dagoan Lopene baserria dala diote; besteak, elizatik gora dagoan Agerre. Gauza ziurrik iñork ez jakin, ordea.

El Diario Vasco, 1998-V-3

Urrestillako Eizagirre baserriko armarrria

ORAIN urte-mordoa, Azpeitiko baserri bateko atarian aiton batekin topo egin eta kontu kontari asi zitzaigun: Urrestillako Eizagirre baserriko seme batek moro batekin bakarkako burruka jo eta irabazi egin zuala. Orregatik, moro baten burua ageri zala etxe artako armarrarian.

Ala, urrengo batean bertara joan eta ate gainean an ikusi genduan arrizko buru ori, bere *turbante* eta guzi.

Orain, berriz, Juan Karlos Guerraren *Diccionario heráldico de la nobleza guipuzcoana, Apéndices* izeneko lana arkitu det *Euskal-Erria* aldizkarian, 1888-ko alean. An, Soraluze istorilariari kopiatuz, Eizagirre abizenaren berri ematen da, burruka ura zer izan zan azalduz.

Euskalerrriaren alde aldizkarian ere bada gai on-taz zerbait: Eufrasio Munarriz: *La hazaña de Eizagirre*. Onek, XVII-an Naparroako *Rey de Armas* zan Pedro Azkarragari kopiatzen dio. Bi iturri oietako urekin osatuko det gaurko atal au.

Gipuzkoa Naparroako erreinuaren puska bat zala, 1076-an, Santxo IV Garzes erregea il egin zuten bere senideak, Peñalén izeneko tokian amildegi batean goitik beera botata. Naparrak Aragoiko Santxo Ramirez artu zuten orduan erregetzat.

Aragoiko erreinua txikia zan garai artan. Hueska artean moroen mende baitzegoan. Kristauak inbiriz ikusten zuten beren mendietatik iri ori, erribe-

ra aberats baten erdian. Baita Hueskako moroak mendi oietara begiak zuzendu ere, kezka ordea, ango jende basatia noiz etorriko zitzairen.

Bai alaxe gertatu ere. Santxo Ramirez erregeari iri ori bereganatzeko asmoa piztu baitzitzaion. Ortarako, bere indar guziak bildu egin zituan. Antxe ziran, aragoitarrak ez-ezik, naparrak eta gipuzkoarrak ere. Bizkaitarrak eta arabarrak ere bai, seguru aski.

Leenengo, Montearagón izeneko gaztelua altxa zuten. Onen orma zaarrak an ageri dira gaur ere, kasko baten gainean. Urrena, Hueskako jira guzia itxi. Ala ere, emengo moroak amor eman nai ez.

Batean, Santxo Ramirez erregea iriko arresira geiegitxo urbildu zan, eta ango moro batek gezi bat tira eta saietsetik sartu zion. Ortatik il zan, bere seme Pedrori kostala ala kostala Hueska bereganatzeko aginduz.

Emengo erregeak, ordea, Zaragozakoari laguntza eskatu zion. Baita onek gudarozte aundi bat ari laguntzera bialdu ere. Aurreko gizonak Zuera errira iritxitakoan, atzekoak artean Zaragozan zeuden. Ogei kilometro daude batetik bestera.

Kristauak bidera irten zitzaizkien. Eguna, 1096-ko azaroaren 25-a zan. Alkorazko zelaian jo zuten alkar bi etsaiak, Hueskatik gertu, egoaldera. Burruka latza zijoan. Arratsaldeko laurak eta oraindik irabaztuna nor izango zan ezin igerri.

Baiña ordu ortan kristauak moroen gudaroztearen erdialdea apurtu zuten; eta orduan bi egalei eraso eta aurrean eraman.

Batzuek diotenez, San Jorje azaldu omen zan, zaldi bizkor batean, kristauen alde. Moroei, berriz, etzitzaien ganbelu batean iñungo laguntzaillerik etorri. Ala, zer egingo zuten? Izua mende erori eta igesari eman; eta kristauak atzetik segi, izugarriko arakintza egiñez. Gaur etorri zanean gelditu.

Goiza zabaldu eta aurrean etsairik ez. Segika asi eta Almudebar erriraiño iritxi. Moroak, ordea, gauez bide asko egiñak izan eta ezin arrapatu. Hueska, andik zortzi egunera errenditu zan.

Gataska orren aurretik burrukatu zan Eizagirreko semea. Alfontso zuan izena, eta Gipuzkoako gerra-gizonen buruzagia zan.

Soraluzek eta Guerrak diotenez, bi gudarozteak alkar txikitzen asi baiño leen, moroen zaldun batek desafioa egin zien kristauei, banakako burruka jokatzerara. Baita Eizagirrekoa artaratu ere, erregeari baimena eskatuta.

Lantza eskuan zutela nork bere zaldiari eragin, alkarren billa joan eta laster omen zan moroa lurrean. Eta Eizagirrekoak, jetxi eta ari lepoa moztu. Ortik armarrarian ikusten dana:

“Tal es lo que vienen a significar el brazo armado de espada y la cabeza del moro en la mano izquierda, sobre campo colorado, que figuran entre otras alegorías del Escudo de armas de la casa de Eizagirre, de Azpeitia...”.

Azkarragak eta Munarrizek diotenez, berriz, menditarte estu batean topo egin zuten alkarrekin moroak eta kristauak. Auek aurrera jarraitu nai, baiña aiek ez utzi nai.

Moroetako zaldun bat aurreratu zan, iru kristauekin txandaka burrukatuko zala oiukatuz. Eizagirrekoak aurrera pausoa eman, erregearen baimena lortu eta antxe abiatu zan moroaren aurka. Baita aren lanak bereala egin ere.

Eizagirren izan berria naiz, ta armarrria antxe ikusi det, eguzkiak argi egiten ziola. Lau zati ditu. Goien, ezkerrera, beso bat ezpata batekin; eskubira, moro baten burua. Beean, ezkerrera, zugaitz bat eta lau otso; eskubira, lau gaztelu edo torre.

Baserri au Urrestilla gaiñean dago, Izazpi mendi aldetik oneraiño luzatzen dan egal baten bukae-

ran. Alde batera Ibaieder ibaiaren zuloa ikusten da; bestera, Aratz-errekakoa. Aurrean, Azpeiti. Eta jira guzian mendiak: Izarraitz, Arauntza, Gazume, Urreki, Pagotxeta, Oleta, Oñatz, beren maldak baserri txuriz loratuta dituztela.

El Diario Vasco, 1998-V-9

San Formerio, Trebiñoko Zaindaria

MIRANDA baiño leenago, La Puebla de Arganzón errira irixterakoan, aurrean mendi zabal bat ikusten da, goien ermita bat duana. Uraxe degu Trebiñoko Zaindaria dan San Formerioren santutegia. Pangua erritik gora dijoa araiñoko kamioa.

Santu orren leienda Aita Flórez-en *España Sagrada*-ren (Madrid, 1781) XXXIII tomoan kontatzen da, zer esanak Juan Marietak XVII mendean idatzi zuan liburuska batetik artuz.

Santu au Kapadozian jaio omen zan, 348 urtean. Gurasoak *Siervo de Dios* izenarekin bataiatu zuten. Baiña berak ori baztertu eta *Firmus ero -Leiala izango naiz-* artu zuan. Ortik omen dator *Formerio*.

Amalau urterekin, Erromako enperadoreak kristauen aurka ekin zionean, jaiotetxea utzi eta artzai egin zan. Otoitz egiñez eta artaldearen esnetik janez bizi zan. Batean, zeruko abots bat entzun zuan:

- Jetxi menditik. Ebanjelioa arkituko dezu.
- Eta ebanjelioa nori erakutsi bear diot?
- Ori gero jakingo dezu. Leenago ermita bat altxa ezazu mendi ontan.

Formeriok ermita ori zutitu zuan. Ebanjelioa abots lodiz irakurtzen zuan andik; eta basa-piztiak basotik atera, alderatu, belaunikatu eta aren itzak arretaz entzuten zituzten. Gero, arrak joan egiten ziran, eta emeak bertan gelditu. Santuak jetzi egiten

zituan, eta esnearekin gazta egin pobreen artean banatzeko.

Baiña salatariren bat izan zan an ere: piztiak zoratu egiten zituala. Ala, erriko buru Alejandrok bi zaldun bialdu zituan santuaren billa. Onekin topo egin eta:

- Formerioren billa gatoz, azti bat dala eta.
- Etorri nerekin.

Ermitara eraman eta an gazta jatera gonbidatu zituan. Artan ari zirala, piztiak basotik ateratzen asi ziran. Ura taldea bildu zana! Aiek belauniko jarri eta santuak ebanjelioa irakurri zien. Urrena zaldun aiei:

- Zuek jetxi orain. Ni zuen atzetik bereala joango naiz.

Zaldun aiek joan eta Alejandrori onela esan zioten:

- Formerio Jainkoaren serbitzari bat da.
- Erosi al zaitue, aren alde itz egiteko?
- Ori ez. Baiña piztiak inguratzen zaizkio, aren itzak entzuteko.

Une ortan, Formerio azaldu zan; eta Alejandro orrek:

- Zer aztikeri darabilzkizu zuk, piztiak ortaraino zoratzeko?

- Aztikeriak Jaungoikoak gorroto ditu, aietan deabruari dei egiten zaiolako.

- Zuk gure jainkoak adoratu itzazu.

- Nik zeruko Jaun aalguztiduna adoratzen det.

- Zure adiñak pena ematen dit. Agindutakoa egin zazu. Bestela, oiñazetan il bearko dezu.

- Zuregatik izan zazu pena; ez neregatik. Nerekin nai dezuna egin dezakezu.

Alejandrok kartzelara bialdu zuan. An berrogei

bat kristaurekin topo egin zuan Formeriok. Onela esan zioten:

– Goseak il-zorian gaude.

Une ortan leiotik uso bat sartu zan, eta arek zekarren esne eta eztiz, asetzeraiño jan zuten danak. Gero, atea bat-batean zabaldu zan, eta santua ez beste danak iges egin zuten.

Orduan Alejandrok:

– Formerio ori bota zazute su-labera!

Bota zuten. Baiña santuak otoitz egin eta sua itzali egin zan. Alejandrok:

– Aztikeriak dira oiek. Ekar zazute onera.

Borreroak joan eta Formerio aingeru artean ikusi zuten. Baiña andik laster azken arnasa eman zuan. Eriotz ori iraillaren 25-ean gertatu zan, 362 urtean, Kapadoziako Zesarea errian. Baiña batzuen ustez, santu ori etzan angoa izango, Espaiñiako martiriren bat baizik.

Noiz ez dakigula, santuaren erlikiak kutxa batean sartu, beor baten gainean jarri eta libre utzi zuten. Abere ura egarriz itotzen zetorren.

Ermita dagoan baiño beerago, arkaitz bati ostikoa eman zion, eta andik iturri ugaria sortu. Gaur ere ur dario, eta *la Fuente de la Patada* esaten zaio.

Beorra, naikoa edan, gaillurrera igo eta an gelditu zan. Orduan, kutxa iriki eta santuaren ezurrak azaldu ziran. Bai ere aren martirioa idatzita zeukaten berunezko plantxa batzuk ere.

San Formeriora igazko udaran igo nintzan. Arri labratuz egindako ermita ederra da. Ikuspegi bikaiña angoa. Alako urte-sasoia zanez, iru kolore nagusitzen ziran: zeruko urdiña, soroen urre-kolorea eta mendi eta basoen berdea.

Alde batera, Badaia, Gorbeia, Izkiz, Kantabria, Toloño eta Gasteizko mendiak nituan. Bai Zadorra

ibaiaren menditartearen ere. Beste aldera, Pankorbo, Obarenes mendiak, eta Miranda, ango zelaietan berrina Ebro ibaia zijoala. Urrutian, La Demanda ize-neko mendi-lerroa. San Lorentzo ango tontorrik altuena.

San Lorentzo ortan ere ermita zan garai batean. Kantabria mendi-katean, berriz, beste ermita bat: San Tirso. Eta emen, San Formerio. Iru santu oiek anaiak omen ziran; eta ermita oietatik alkar ikusten zutenak. Bide luzea dago batetik bestera; baiña zer dira gure aragizko begi motelak zerutarren begi txorrotzekin konparatuta?

El Diario Vasco, 1998-V-26

Ebro ibai

jaio berriaren lurretan

EDERRA da Ebro ibai jaio berriaren urtegia. Reinostatik oso gertu dago, mendi legunez inguratua. Okerrena, bera egiteko erri-mordoa estali zala.

Iparraize gozo batek olatu txikiz kixkurtzen zuan ur-azala. Larre-beien txintzarri-otsa nunaitik zetorren. Iuliobriga erromatar iria ere antxe, ikusgarria benetan.

Urrena, ibaia eta kamioa aritez jantzitako sakon batean sartzten dira. Maldan gora asi eta laster iritxi nintzan *Nuestra Señora de Montesclaros* izeneko santutegira. Bertako berri ikastearren, liburuskak bat erosi nuan: *Reseña histórica*, alegia, Lucio Sáinz dominikarrak idatzia.

Jaun onek adierazten duanez, orain milla bat urte, mutil bat, bere bei-taldearekin emen inguru zebilela, idisko bat basoan izkutatu egiten zala oartu zan, denbora-puska bat nunerebait pasa eta ostera etortzeko.

Zer ote zuan jakin nairik, egun batez aren atzetik joan zan, eta koba-zulo baten aurrean belauniko arkitu zuan. Gaixorik egongo zalakoan, urbidu egin zitzaion; eta orduan Ama Birjiñaren irudi bat ikusi zuan kobaren barruan.

Errira lasterka joan zan, gertatuaren berri ematera. Erri orrek Carabeos du izena, eta iru auzo ditu: Barruelo, San Andrés eta Arroyal, bakoitza bere elizarekin.

Mutillari entzundakoan, apaizak eta erritarrak kobara etorri ziran. Aien poza, Ama Birjiña ikusi zutenean!

Zeruko Amari otoitz egin da gero, ondoen Barueloko elizan egongo zalakoan, irudia ara eraman zuten. An, elizkizun sutsu bat egin eta gero, nor bere etxera joan ziran.

Baiña biaramon-goizean, Ama Birjiña elizatik falta zala. An eta emen billa alperrik saiatu ondoren, kobara joan eta antxe arkitu zuten.

Beste elizaren batean naiko zualakoan, Arroyal-era eraman zuten, eta an ere berdin gertatu zitzairen. Urrena San Andres-era, eta gauza bera. Baiña orrela jabetu ziran Ama Birjiñak koba-zuloaren ondoan nai zuala, eta ermitatxo bat antxe altxatu zioten.

Eskuratutako liburuskak dionez, moroak Espainiaz jabetu eta kristauak iparraldera jo zutenean, igeslari aietakoren batek koba artan izkutatua izango zan irudi ori.

Kapellau batzuek kontu egin zieten lareun bat urtean irudiari eta ermitari. Ermitaiño bat ere bertan bizi omen zan. Baiña, zoritxarrez, onen etxetxoa iru bat aldiz erre zan, bertan gordetzen ziran papekin batera.

Inguruko erriak, berrogei ta bat guzira, urtean bein etortzen ziran Ama Birjin onen oiñetara erromeriz. Oraindik ere geienak eusten diote oitura orri.

Gaurko eliza XVII mendearen bukaera aldekoa da. Urrena, 1686-an, dominikoak etorri ziran, beren komentu bat bertan ezarriz.

1808-XI-13-an, Napoleonen irureun bat soldadu iritxi ziran onera. Fraileak, ordea, Ama Birjiñaren irudia, kalizak eta abar artu eta mendira iges egiñak ziran. Amabi bat egun antxe pasa zituzten. Frantzesak joandakoan itzuli ziran, eta eliza eta komentua ederki muskilduta arkitu zituzten. Zerbait balio zuanari atzaparra erantsia, alegia, bisitalari aiek.

Baiña bertakoak ere bai omen ziran, frantzesen aitzakiaz ederki baliatu ziranak. Erdal esaera zaa-

rrak diona, alegia: *A la sombra del gitano roba el aldeano.*

1835-ean, Mendizabal ministroak komentuen kendu zituanean, dominikoak emendik alde egin bear izan zuten; eta eliza zaintzaillerik gabe gelditu zan. Karlisten leenengo gerratea zebillen orduan, eta irudia Barrueloko elizara eramane zuten, badaezpada ere; eta 1842-an atzera ekarri.

Urrengo zalapartak, berriz, 1936-ko gerratean. Fraileak atzera etorriak ziran, eta aietako bost edo sei il zituzten.

1937-III-19-an, *Diablos Rojos* izenekoak onerako asmoa artu zuten. Bidean kamioietan zetozela, errietako gizonak beartu egiten zituzten, eskopeta artu eta berekin etortzera. Batzuek iges egin zieten; baiña beste batzuek ezin. Ala, zortzireun-bat gizon bildu omen zituzten.

Elizan sartu, Ama Birjiñaren irudia atera eta arri-pilla baten gainean jarri zuten. Fraileak, ordea, antziñako irudia izkutatua zuten, eta beraren orde besterri bat jarria. Aldaketa ortaz etzan iñor oartu; edo, oartu bazan, etzuan itzik atera.

Gizon danak lerroetan jarri arazi eta, buruzagiak agindutakoan, danak batera tiroa tira zioten Ama Birjiñari. Illuntzen asia zan eta, deskargaren kea garbitu arte itxogin gabe, izan ere alako lainoa sortuko zan-eta, irudiari etzioten begiratu ere egin, apurtuta egongo zalakoan. Ostera kamioietara igo eta alde egin zuten.

Gauean, ordea, beartutako gizon aietako batek ezin zuan lo artu. Barrengo arra kozkaka asia, alegia. Ala, oetik altxa, linterna bat artu eta santutegi ontara etorri zan.

Arri-pilla billatu eta linternaren argia zuzendu zion. Irudia antxe ikusi zuan, oso-osorik eta ikuturik txikienik ere gabe. Beartutako aiek, izan ere, ez det uste jotzera tirako zutenik. Eta besteetakoak ere ez danak, gure iritzirako beintzat.

Liburuska itzalpe batean irakurri ondoren, ar-
-onera ibili nintzan. Komentua eta ostatua arrizko-
ak eta benetan ederrak dira. Baiña nere begiak in-
guruko mendi zabal eta borobil aietara zijoazen.
Aien egaletan, baso itzaltsuak eta zenbait errixka
ikusten nituan. Beeko zulotik, berriz, Ebro ibaiaren
ur-marmarra niganaiño igotzen zan.

El Diario Vasco, 1998-VI-14

Zipriano Baraze,

Isabako semea

ZIPRIANO Baraze Naparroan jaio zan, Erronkarin, Isabako errian, 1641-ean. Jesuita sartu eta Peru-ra bialti zuten. Lima-n egin zan apaiz, 1673-an; eta *mojos* izeneko indioetara joan, beste bi lagunekin. Mixiolaririk iñoiz izan gabeko lurraldea zuten ura, gaurko Bolivia-ko sailletan dagoana.

Txalupaz amaika eguneko bidea egin zuten. Basamortu zabalak ziran aiek, baiña bai beroak eta sargoritsuak ere. Lastozko txabola bat altxatu zuten beren babeserako. Barazek, ango izkuntza ikasi ez- ezik, dotriña idatzi eta zenbait kantu moldatu ere egin zituan.

Jesuiten jokabidea basoetako indioak erri berrietan biltzea zan, *Reducciones del Paraguay* izenekoetan bezela. Baita ogibideren bat erakutsi ere: nekazari, errementari, arotz, eule, otargille...

Loreto erria eraiki zuten 1682-an, antxe sei-reun bat indio bildurik eta bataiaturik. Urrena, 1687-an, beste erri bat, Trinidad izeneko, *mayumana* indioekin.

Barazeren ibillaldi eta lan guzien berri ematerik ez dago. Zernai egiteko prest eta gogotsu beti ura. Baiña aren egintzetan badira bi oso jakingarriak eta ura nungo semea zan ederki agertzen digutenak.

Lurralde aietan ganadurik etzegoan. Baiña Barazeri jaioterriko oroipenak bururatu zitzaizkion. Erronkariko artaldeak urtero egiten zuten ibillaldia, alegia: eguraldi onarekin, maiatzean, Ebro ibai on-

dotik Pirineoko larre gozoetara igo; iraillean, berriz, otza eta elurra asi aurretik, andik jetxi eta Erriberaraiño segi. Orren antzeko zerbait zergatik ez egin an ere?

Santa Cruz de la Sierra izeneko errira joan zan. An ganaduzale aberatsik bazan. Aiei eskatuz, berreun buruko bei-taldea osatu zuan, Loretoraiño eramateko.

Abiatu ziran. Bosteun kilometro egin bear zizutzen, ibaiak gurutzatuz eta baso itxi aietan barrenana bidea irikiz. Erne, ordea, inguruko indioak lapurretarik egin etzezaten. Basoko piztiak, berriz, bigarren etsaia.

Berrogei ta amalau eguneko ibillaldia izan zan. Larogei ta lau bei iritxi ziran. Talde orrek eman zion asiera lurralde artako ganaduari. Gaur bi milloi buru baiño geiago omen dira an.

Lan da lan jarraitu zuan Barazek, erri berriak eraikiz eta indioak bildu eta bataiatuz.

Ango zailtasun eta aldrebeskeri bat zera zan, ordea: Peru-ra joateko itzuli luzea egin bearra zegoala. Barazek aditzera bazuan beste bide zuzenago bat izana zala *inca* indioen garaian, Andes mendi latz aietan barrena. Baiña galduta zegoan. Iñork ere etzekian aren berri.

Barazeri jaioterriko oroipenak burura etorri zitzaizkion berriz ere. Pirineoko oiñean jaioa eta gartetan tontor aietan oitua, ura etzuan mendiaren zartasunak bildurtzen. Ala, galdutako bidea zergatik ez billatu?

Indio-talde batekin abiatu zan. Egunak bota zizutzen mendi ikaragarri aietan, amiltzeko bildurrez eta ia beren biziaz etsita. Dana alperrik. Urrengo urtean beste ekiñaldi bat, eta berriz ere kale. Bai irugarrenean ere.

Laugarrenean asmatu orratik. Andesetako gailur batetik antxe ikusi zuten Peru-ko lurra. Baraze-

rekin zijoazen indioen poza! Aien oiua! Etzan gutxiagotarako. Leen berrogei eguneko bidea zana, andik aurrera amabostean egingo zan.

Aita Baraze *exploradore* bat zan, izan ere. Ara ta onera gelditu gabe zebillen. Orrela arkitu zituan *chacapuras* eta *baurés* izeneko indioak, Brasilgo mugan bizi ziranak. Aiengana segituan, lau indio *mojo* artuta.

Nunai ondo artua izaten zan beti. Bein, ordea, erri batean zala, atabal-otsa entzun zuan, bera izan gabeko erri batean jotzen zutena. Baita beste bate-tik erantzun ere. Baraze eta bere lagunak urduri jarri ziran.

Bertako indioak ere, bildurturik, leenbaileen alde egiteko esan zioten. Baiña beste erri batetik arako eskea etorri zitzaion. Joan zan, bada, oiñez eta txalupaz. Baiña gero, leengo errira atzera itzuli zanean, uts-utsik arkitu zuan. Orduan bai benetan kezkatu.

Irailaren 16-garrena iritxi zan, San Zipriano eguna, 1702-an. Eguzkiaren begiak, Ezkaurre tontorraren gaiñetik zeleta egindakoan, Isabako erria pozez gaiñezka eta festetan ikusi zuan: kanpaiak, musika, kantuak, meza nagusia... Bazkarian etziran bertako bildots gozoa eta Erriberako ardo bizia faltako.

Eguzkiak bere bidean jarraitu zuan. Atlantiko aundia pasa eta Ameriketan barrena aurrera zijoala, an ere isabatar bat ikusi zuan; baiña larri eta iges zebillena: gure Baraze, alegia, bere santu-eguna zuana.

Bere lagunekin zingira baten barrena zijoala, orra gezi-mordoa gaiñera, kazkabarra bezela. Baraze, iztarrean bat eta besoan bestea artuta, lurrera erori zan, eskuan zuan gurutzeari artean ere eusten ziola. Berarekin ziran indioak alde egin zuten or-

duan. Baiña sasi tartean izkutatu eta gelditu, andik zeleta egiteko.

Indio etsaiak etorri eta maza-kolpeka ekin zioten Barazeri, burua zanpatu arte. Urrena, gorputza zingira barrura sartu. Baiña sasi tarteko zelatariak dana ikusi, eta nun zegoan berak esan zuten gero. Aiei esker jaso ziran erliki aiek.

Ilbeltzean izan nintzan Isaban, erri orrek elurpean bear zuan garaian; baiña oso eguraldi epela zegoan.

Ango kaleetan barrena nenbillela, bi aitonekin topo egin nuan. Barazeren galdera egin eta aien borondatea! Jaiotetxea nun zegoan dudazkoa omen da. Alakotzat jotzen zan tokian, zaarra bota eta etxe berria egiña da.

Baiña elizara eramán ninduten, korora igo arazi ere bai, eta *relieve* eder bat erakutsi, Barazeren martirioa erakusten duana. Erri onek ez du, beraz, bere seme ospetsu ura aaztu.

El Diario Vasco, 1998-VII-3

Zalduondoko erria eta guda-gertakizun bat

FREDERICK Hardman, karlisten leenengo gerratean Espaiñian barrena ibilitako ingeles bat izan zan. Ondoren liburu bat idatzi zuan. Beraren bigarren zatia *Taurus* etxeak argitaratu zuan 1967-an, *La guerra carlista vista por un inglés* izenburuarekin. Ortik artu degu gaurko idazlanaren gaia.

Gerraren irugarren urtean, 1836-ko neguko gau batez, Gasteizko ateak itxi ta gero, soldadu-talde batek armetan prest jartzeko agindua jaso zuan. Bosteun gizon ziran, oiñezko eta zaldizko.

Beren buruzagia fama aundiko gizona zan: Martin Zurbano, Logroñon jaioa, *Barea* izengoitia zuana. Frantzeanean eta *guerra realista* izenekoan parte artua, orduan karlisten aurka zebillen.

Kalez kale abiatu, erritik atera eta iñork etzekian norako ziran. Gasteiz inguruko zelai zabal aietan barrena ixil-ixilik zijoazen, zigarrorik ere erre gabe. Bai-baitzekiten etsaiaren mendeko lurretan sartuak zirala. Eskerrak gau beltza zan eta aize zekarra zebillen.

Alako batez, etxe bakarti batera iritxi ziran. Atea indarrez zabaldu, sei bat gizon barrura sartu eta bi nekazari atera zituzten, bidea erakusteko be-ar zituztela eta.

Andik laster, soro baten erditik zijoazen, baso bat aldean zutela. Nekazari aietako bat korrika iges abiatu zan orduan. Baiña bi zaldizkok atzetik segi eta bereala arrapatu zuten. Ekarri eta:

- Onek iges egin nai zuan, jauna.

- Akaatu zazute, ba! - nagusiaren erantzuna.

Lantza batek laster bete zuan agindu ori. Segi aurrera. Alakoren batean erri bat ikusi zuten: Zalduondo, Araia barrutikoa, Gipuzkoako mugan.

Soldadu batzuk ezker eta eskubi banatu ziran, erria erdian artuz, iñork andik iges egin etzezan. Bestela, auzo-errietako karlistei abisoa pasa ezker, liberal talde arek gaizki ibili bearko zuan.

Bitartean besteak zai; eta, leenengoak beren eginkizuna betetakoan, auek erri barruan korrika sartu ziran.

Etxe baten aurrean gelditu ziran. Zarata puska bat egiña izango zuten eta leio bat zabaldu zan. Bai buru batzuk antxe agertu ere, eta batek:

- Nor zerate?

- Laster jakingo dezu -Zurbanoren erantzuna.

Onen soldaduak atea bota zuten. Sartu, eskaillerak lasterka igo eta sala batera iritxi ziran. An zazpi lagun zeuden: gizon zaar bat, bi ofizial gazte, iru neska eta dama bat.

Gizon zaarra Frantzisko Iturralde zan, karlisten jenerala. Dama eta neska aiek, beren emaztea eta alabak. Ofizialak, bat Iturralderen semea eta bestea alaba baten senargaia.

Iturralde ori, naparra, Arronitz-en jaioa, karlisten alde sarritan burrukatua zan, gaur garaile eta biar galtzaille gertatuz.

Bein, Karkar artu eta zelai batean atsedeten zeudela, liberalen zaldizkoak ustegabeen etorri zitzaizkien, eta egurra eman. Karlistak kondenatu egin zuten orduan Iturralde, bear ainbat arreta jarri etzualako, eta Zalduondora erbesteratu.

Baiña an zala Zurbanok jakin eta zer azarikeri egin zuan ikusi degu. Onela esan zion:

– Nere jenerala, prestatzen zeranean, etorri mesedez nerekin. Ni Martin Zurbano naiz.

– Bai; baiña nere emaztea eta alabak babestu itzazu, mesedez, gizona baldin bazera –erantzun zion Iturraldek.

– Nik ez diet sekula emakumezkoei gerrarik egi-ten. Baiña zu eta beste bi lagun auek asi zaitezte le- enbaileen errezatzen, bost minutu barru illak izango zerate eta.

Ori esan eta kanpora atera zituzten. Baiña bai ere Iturralderen emaztea eta alabak atzetik karraxi-ka segi, beren kutunak besarkatuz. Zurbanok, erru- kitu eta bizitza barkatu egin zien orduan.

Edo-ta, bestela, tiroak inguruko karlistak jaki- ñaren gaiñean jarriko zituztela pentsatuko zuan; eta Gasteizko sarrera ederragoa izango zala prisionero aiek eramanez.

Goizeko amarretan iritxi ziran Arabako iriburura, amabi ordutan irurogeitamar bat kilometro egin da gero.

Iturralde ori andik laster tristuraz il zan, prisionero zegoala. Zurbanok gerratean gogor jarraitu zuan, *mariscal de campo* izateraiño iritxiz. Baiña geldirik ezin egon eta, gerra bukatu ta gero, 1844- an, gobernuaren aurka altxa zan, larogei bat gizonekin. Aietako bi, bere semeak.

Baiña auek prisionero egin eta afusillatuak izan ziran. Baita urrena aita bera ere, Frantziako bidean arrapatuta.

Aldi artan ere bete zan, beraz, Jaunaren itza: “Ezpata erabiltzen duana, ezpataz ilko da”.

Zalduondo erri dotore eta patxaratsua da. Etxe ederrak, armarri bikaiñekin apainduak. Ni izan nintzanean, maiatzean giñanez, gal-soroak berde-berde zeuden. Aratz mendiaren arkaitzak txuri-txuri, arratsaldeko eguzkiarekin. Aren gaiñetik laiño ba-

tzuk egan, iparraizeak bultzata Gipuzkoa aldetik zetozenak.

Aiton batekin topo egin eta jeneral bat antxe nola atxitu zuten iñoiz entzun ote zuan galdetu nion. Batere etzekiala erantzun zidan, eta beste iñori galdetzeko gogoa ederki kendu zidan. Ezin esango degu oroipen oneko erria geranik.

El Diario Vasco, 1998-VIII-11

Orreagako Ama Birjiña, Becquer eta Xalbador

ORREAGA edo *Roncesvalles* itza entzun utsarekin arrotu egiten gera euskaldunak, ango burukaldi famatuan orduko erregerik indartsuenaren indarrak menderatu genituala eta.

Nik, ordea, ori dana alde bat utziko det gaurkorian, zeruko pake gozoa berekin duan bertako leienda bat gogoratzeko.

Artzai batzuk ardi zai omen zeuden ango larretan IX mendean. Gau batez, esnatu eta ara-onera mugitzen ziran argi batzuk ikusi zituzten. Arretaz begiratu eta orein (*ciervo*) bat zan, batera eta bestera korrika zebillena. Aren adarrak ziran argi aiek banatzen zituztenak.

Ametsen bat ote zuten? Baiña jeiki eta ez: benetakoa zan. Oreinaren atzetik joan ziran orduan. Au, berriz, belardi baten erdian gelditu zan. Eta orduan Ama Birjiñaren aintza adierazten zuten kanta batzuk entzun zituzten zerutik beera.

Arriturik, Ibañetako fraileetara joan ziran, gertatuaren berri ematera. Ondoren, artzaiak eta fraileak belardi artara inguratu ziran, eta zerutar kanta aiek entzun. Bai urrengo gauetan ere. Albo-errietato jendea ere asi zan etortzen.

Ala, Iruñera jo zuten, obispoa jakiñaren gainean jartzera. Eta onek:

- Bai. Neronek ere ametsetan ikusi det ori: orein bat ara-onera korrika, aren adarrak argia darriotela.

Orduan obispoa, fraileak, artzaiak eta errietako jendea Orreagara joan ziran berriz ere; eta oreiña gelditzen zan tokian zuloa egiten asi. Arri-sillare eder batzuk laster azaldu ziran, arku-moduko bat moldatzen zutenak; eta aren erdian, Ama Birjiñaren irudi eder bat.

Belauniko jarri ziran danak. Une artan, irikita-ko zulotik ura sortu zan. Bitartean, zeruko kanta eder aiek aizeak nonbaitetik egan zekarzkian.

Aurtengo maiatzean izan nintzan Orreagan. Arratsalde eguzkitsu bat egokitu zitzaidan. Zeru urdiña, larreak belar berriarekin jantzita, basoak berdetzen asiak, Astabizkar eta Ortzantzurieta mendien egaletan elur-arrasto batzuk, txorien eta kirki-
rren kantak, alde guzietan poza eta edertasuna gainezka...

Orreaga onek zer ikusi asko du: erromesen gurutzea, Sancti Spiritus eta Santiagoko ermitak, erromesen ezurtegia, klaustroa, Santxo Indartsua-
ren illobia, Navas de Tolosa-ko kateak...

Oiek danak pasaeran ikusi eta elizan sartu nintzan. Ederra benetan, bere gotiko egitura fiñarekin. Eguzkiak atzeko kristaletan jo eta ametsetako koloretan jarria zuan barrunbe guzia.

Aldare nagusian Ama Birjiña bere Semearekin. Baiña biak alkarri begira daudela, eta ez arpegia jendearen alderuntz dutela, beste irudi geienetan bezela.

Ama Birjiñaren iturrira joan naiz. Agerpenaren lekura, alegia. Oso gertu dago, *Itzandegia* esaten dioten eta garai batean erromesen ostatua zanaren azpiko aldean, belardi batean. Baiña oso utzia arkitu det: leengo arkurik ez du, eta aingeru baten irudia doi-doi ikusten da arri batean. Berriztatzeko asmotan omen dira, ordea, bertako apaiz batek esan zidanez.

Ikusgarria benetan Artze eta Aezkoa arantako fededunak onera egiten duten pelegrinazioa. Nik bein ikusi ditut. Erromes asko tunika beltzez jantzita eta gurutze banarekin. Baiña ez bizkarrean eramanez, baizik-eta besoak buru gaitetik luzatu eta goien eusten diotela. Unkiagarria da prozesio ori basoan barrena pasatzen ikustea.

Beste erromeri bat, baxenabartarrena. Beren kanta ederrekin elizkizun zoragarria egiten dute.

Bi olerkariren oroipena bururatu zait. G. A. Becquer bat, onera 1866-an etorri zana:

“serpenteando a lo largo de inmensos bosques de hayas”.

Erromesen gurutzera iritxi eta:

“Me senté al pie de la cruz, respiré a pleno pulmón el aire puro y sutil de la montaña... He aquí el punto donde el piadoso romero... se prosternaba poseído de hondo respeto a la vista del santuario... Las ideas guerreras y religiosas, el sentimiento de la gloria nacional y de la fe despertándose al eco de un nombre que ha consagrado la tradición, llenaban de piadoso recogimiento su alma, preparándola a penetrar con el entusiasmo del creyente en este maravilloso mundo de la leyenda... Nada ha cambiado aquí de cuanto le impresionaba... Pero hemos cambiado nosotros...”.

Bestea, Xalbador, ura onera sarritan etorria, baxenabartarren erromerian. Bein entzun nionez, Orreagako au zuan berak Ama Birjin guzietan maiteena. Batean, gai au eman zioten:

– Xalbadorri haur bat kolpatu dio otomobil bategen. Aita badijoa Orreagako Ama Birjinari otoitz egi-tera.

Lau bertso kantatu zituan. Bigarrena auxe:

Pentsa zazue aita batentzat
hau ez dela atsegina,

ezin jasanez hemen dadukat
ene bihotzeko mina;
oi, haur maitea, ene ustean
ene zoriontzat jina,
ez dadien gal otoizten zaitut,
Orreagako Birjina.

El Diario Vasco, 1998-VIII-11

* * *

Geroztik irakurri dedanez, Eduardo Marquina degu (1879-1946) Orreaga ontan izandako beste olerkari bat. Onela dio bere *Invocación a Santa María de Roncesvalles* olerkian:

*Tanto aire de montaña respirando,
tanto rumor de hayedo,
tanto riente prado,
medido al golpe de un andar tan quedo,
y todo, al fin, se desvanecería
sin recogerlo en ti, Señora mía.
Virgen del buen mirar condescendiente,
que un guardián de corderos
trajo, a darles virtud a estos oteros,
la tarde aquella en que le habló una fuente...*

Orduñako Txarlazo mendi-tontorreko Ama Birjiñaren irudia

ORDUÑA aldera irixtean, tontor baten gaiñean an ikusiko degu, ez gurutzea, mendirik geienetan zerbait jartzekotan jarri oi danez, baizik-eta Ama Birjiñaren irudi aundi bat.

Aren oiñean Antiguako Amaren santutegia dago. Goien, berriz, bederatzireun metro dituan Txarlazo mendiaren gaillurrean, beste irudi arrigarri ori. Au nola altxatu zan konta dezadan gaur, argibideak liburu ontatik artuz: *Tomás Gillín: La Virgen de Orduña "La Antigua" y su Santuario, 1931.*

Mende onen asiera zan. Jesuitak ikastetxe bat zuten garai artan Orduñan. Urteen buruan Euskal Errian zer esan aundia izango zuten zenbait gizon, ango ikasle ibili ziran mutikotan.

Rufino del Campo apaizak eta Jose Maria Palacios jesuitak tontor artan Zeruko Amaren irudi bat altxatzeko asmoa artu zuten, andik ageri dan lurralde zabala bedeinka zezan.

Izan ere, ogei ta bost erri ikusten omen dira; eta bost probintzi. Auetako iru, Burgos, Araba eta Bizkaia, gaillur ortantxe alkarri eskua ematen diotenak.

Mendi-tontorreko Ama Birjin au beeko santutegiko irudiaren kopia da. Oiñetik bururaiño ogei ta bost metro neurtzen ditu. Berrogei ta amar tonelada

porlan sartu bear izan ziran; eta ogei ta amar tonelada burni. Material oiek danak nola igo ote zituzten araiño?

Eun da berrogeitamar milla pezetako gastua egin zan. Diru asko, garai aietarako.

Lanak bukatzean, irudiaren bedeinkapena ospatu zan, 1904-ko urriaren 16-an. Festa orren berri emateko, aitatutako liburu orrek biaramoneko *La Gaceta del Norte* egunkariari kopiatzen dio. Guk ere berdin egingo degu.

Tren berezi bat jarri zan goizean-goiz Bilbotik Orduñara. Ura igarotzean, inguruetakoko baserritarrak txapelak eta zapiak eragiñez agur egiten zioten. Baita Ama Birjiñari bibaka ekin eta su-ziriak aide-ratu ere.

Goizeko zortziak eta laurdenetan iritxi ziran. Arrera beroa egin zitzairen. Estazioa jendez gaiñezka zegoan. An ziran orduñatarrak, parrokian bildu eta gurutze, bandera, musika eta guzi araiño etorriak. Bai udal-gizonak ere. Baita albo-errietako jendea eta jesuiten ikastetxeko ikasleak ere.

Bilbotarrak “¡Viva la Virgen de la Antigua!” oiugiten zuten; orduñatarrak, “¡Viva la Virgen de Begoña!” indartsu erantzun. Musika-banda jo eta jo ari zan. Gaiñetik, su-zirien tiroak, elizetako kanpaiak...

Orduñatarrak aurretik bide-erakusle zirala, ekin zioten danak mendian gora, errosarioa erreza-tuz. Iritxitakoan, Orduñako artzipresteak irudia bedeinkatu egin zuan, berari jira emanaz. Ondoren, meza eman.

Sermoa aita Palacios-ek egin zuan: bideko nekeagatik bildu zan jendetzari ongi-etorria eman; andik aurrera, beren lanetan ari zirala tontor ontako Ama Birjiña ikusiko zuten Burgos, Araba eta Bizkaiko erritarrei, alkarrekin pakean bizi zitezen eska-

tu; eta irudi ori altxatzen ainbat lan egin eta etxean gaixorik zegoan Rufino del Campo apaiz jaunari esker ona agertu.

Arratsaldean, Orduñako plazan, aureskua, ezpatadantza eta zernai festa.

Bilboko orfeoiak kanta batzuk kantatu zituan: *Festara, Bajo la enramada, Melodía del Valle, Juana Bixenta, Boga-boga, La hija del marino...* Eta, jendek eskatuta, *Gernikako arbola*.

Amar bat milla lagun bilduak ziran. Danak alai eta pakez, istillurik batere sortu gabe.

Idazlantxo au dala-ta, tontor ontara berriz igo naiz. Ama Birjiñari otoitz egin ondoren, bistak ikusiz begiei gozatu bat eman diet. Began, Orduñako erria. Aruntz, Arabako lurrak eta erriskak. Atzean, Gorbeia mendia. Beste aldera, Burgosko lurralde zabalak; Losako merindadea alegia.

Maiatza zanez, mendi artako larreak berde-berde zeuden, eta eunka bei, ardi eta beor antxe, beren zintzarriei eragiñez. Kukuak eta kirkirrak, berriz, ura sasoi!

Baiña, alde guzietara begira nagoala, oroipen zaar batzuk burura etorri zaizkit.

Batean, orain berrogeitamar bat urte onera igo giñan neguko arratsalde batez. Emendik kilometro pare batera ur-putzu aundi bat bada Losako ganaduantzat, eta eguzkiaren azken argiak an ispillu batean bezela jo eta gure begietara zetozen.

Bitartean, artzairen bat dultzaiña jo eta jo ari zan nunbait ere, Burgosko alderdi ontan oi zanez eta guk bera ikusten ez bagenduan ere.

Beste arratsalde batez, iraillean, tontor ontan giñala, nekazari-itxurako gizaseme bat iritxi zan. Onela esan zigun:

- Ni Arabako alako erritakoa naiz. Andik, lur-lanetan ari gerala, Ama Birjin au ikusten degu.

Ala, onerako gogoaspaletik neukan. Nere nai ori gaur bete det, gari-lanak bukatu ditugunean.

Bere erria erakutsi zigun, baiña izena aaztuta daukat. Gugandik pixka bat aldendu eta errezatzeari ekin zion. Ondoren, agur esan eta etxe aldera artu zuan. Iru edo lau bat orduko bidea zeukan: Orduñara ez jeixtearren, itzuli aundia egin bearra, alegia, Nerbioi ibaia sortzen dan ingurutik igarota.

El Diario Vasco, 1998-VIII-19

Oreinaren itxura

artzen zuan neskatxa

KALERATU berria degu *Euskal erromantzeak* bilduma. Kanta oietako bat, *Ipuiak* izeneko saillekoa, Piarres Lafitte zanari zor diogu. Berak *Gure Herria* aldizkarian agertu zuan, 1965-an, *Atlantika-Pirene-etako sinheste zaharrak* izeneko idazlanean.

Kanta au alkarrizketa bat da, neska batek, beraren amak eta anai batek egiten dutena.

Neskak, sorgiñen bidean ura ixuri eta doai berria bildua du Pazko-arratsean. Ala, gauaz Mayi da, bera alegia; eta egunez oreina, erderazko *cierva* alegia, eta etxeko zakurrak segika asten zaizkio.

Amak, zakurrak nun diran galdetzen du. Semeak, basoan oreinaren atzetik dirala erantutzen dio. Amak, orduan, larriturik, arreba salba dezala eskatzen dio.

Anaiak, ori egia danik ezin sinisturik, zakurrei txistu egiten die. Baiña auek oreina arrapatu eta kozkaka iltzen dute. Anaiak, labana artu eta piztia zatitzen du. Orduan nes karen abotsa entzuten da:

– Nere aragiz orra or pertza beteta. Bitartean, amak, etxe-zokoan negarrez ari zanak, azkenik puñala artu eta bere biotzean sartu du.

Orixe da kanta zaar orrek kontatzen digun gertakizuna, asmatua noski, *leyenda* utsa alegia, baiña bai benetan latza.

Orain egun batzuk, berriz, liburu au irakurtze-ari ekin nion: *Leandro Carré Alvarellos: Las leyen-*

das tradicionales gallegas. Colección Austral, 1609. Arkibideari begira asi eta ona *leyenda* oietako baten izenburua: *La doncella cierva*. Beste danak utzi eta bera irakurri nuan leenengo.

Galiziako gaztelu bateko nagusia Froyas izeneko jaun bat omen zan. Onek seme bat zuan, Egas; eta alaba bat, Aldara. Anai-arrebak oso alkar maiteak ziran, eta zaldiz paseatzera sarritan ateratzen ziran biak batera.

Aldara ori neska ederra zan oso. Senargaia ere bazuan: Aras izeneko mutil bat, lurralde artako beste gaztelu-nagusi baten semea.

Batean, otorduren bat iritxi eta Aldara etzala azaltzen. Nun ote zitekean galdetu eta iñork etzekian ezertxo ere. Asi ziran billa. Gaztelua goitik beerra miatu zuten; baiña arrastorik ez.

Azkenean, soldadu batek, bera atezai zegoala Aldara aterea zala esan zuan. Beeko zokoan zan erreka aldera jetxi ote zan iruditu zitzaiola. Ara joan ziran danak. Baiña an ere aztarrenik ez.

Badaezpada ere, mandatari bat bialdu zuten senargaiarengana. Au laster etorri zan bere serbitzariekin. Asi ziran danak billa, mendi, baso eta baserriak aztertuz. Egunak pasa zituzten zeregin ortan; baiña dana alperrik.

Etsi zuten, beraz, basurde edo artzaren batek edo otsoren batzuek illa izango zala pentsatuz.

Egun asko pasa ziran, eta Aldararen oroipena aaztutzen zijoan. Egun batez, anaia eizera atera zan. Zelai batean orein bat ikusi zuan, txuri-txuria eta jostatzen zebillena. Azkon bat (*flecha*) tira zion, eta orra oreina lurrera erori, illik.

Mutillak, karga ura berak bakarrik ezin etxeraturik, oreinari beso bat ebaki, poltsan sartu eta gaztelura zuzendu zan laguntzaren billa.

Iritxitakoan, bere poza ezin gorderik, aitari bereala kontatu zion zer-nolako piztia illa zuan. Baita


eskua poltsan sartu ere, oreinaren besoa erakusteko. Baiña andik zer aterako eta neska baten eskua. Esku txuria eta fiña; lan gogorrik egin gabekoa, etxe oneko alaba batena, noski. Eta beatz batean, urrezko eraztun bat, perla eder batekin. Aldararen eraztuna, ain zuzen!

Zaldi gaiñera igo eta an joan ziran danak korrika oreina ildako tokira. Iritxi eta an etzegoan oreiñik. Bai, ordea, Aldara gajoaren gorputz illa, bere jantzi txuriarekin, bular aldea dana odolez gorriturik. Anaiak azkona andik sartua, alegia. Eta beso bat, eskurik gabe.

Norbaitek sorgindua izan ura, beraz, eta orein-itxura artu arazia; eta, ildakoan, ostera bere izate jatorrera biurtua. Baiña nor izan ote zan ura artaratu zuan azti edo sorgiña? Orra or bein ere garbitu etzan kontua.

Leyenda bera kontatzen zan, beraz, aldaketa askorekin bada ere, Galizian eta Euskal-Errian. Ipui auek lurralde eta izkuntza batetik bestera errez pasatzen baitziran. Bidez bide zebiltzanak izaten ziran aien eramaleak. Apostu egingo nuke beste nunbait ere ezaguna dala.

El Diario Vasco, 1998-IX-13



Goikolexea, Bizkaia.

Bizkaiko fueroen zin-egilleen bidean barrena

TXORIERRIKO Deriora ekarri naute gaurko nere eginkizunak. Baiña bazkaldu eta txori bat bezin aske gelditu naiz. Ekin dezaiodan, beraz, Bizkaiko zokoak ezagutzeari.

Antziñako denboretan, Bizkaiko jaunak, naiz errege naiz aren ordezkoren bat izan, lau tokitan zin egin bear zuten, bertako fueroak zintzo gordeko zituztela itz emanaz.

Leenengo, Bilboko ateetan:

“...aya de jurar a las puertas de la villa de Vilbao, en manos del regimiento della, que promete, como Rey e señor, de guardar a la tierra llana de Vizcaya, e villas, e ciudad dél, e Durangueses y Encartaciones, y a los moradores en ellas. e en cada una dellas todos sus privilegios, franquezas e libertades, fueros e usos e costumbres, e tierras e mercedes que dél han, segun los ouieron en los tiempos pasados e les fueron guardados”.

Ondoren, zin-egillea eta bere laguntzailleak Santa Marinara igotzen ziran. Gain ori Artxandatik sortaldera luzatzen dan mendian dago. Andik Lezamara jexi, eta Larrabetzura segi.

Emendik pasa naiz ni ere, eta Goikolexea bailaran sartu. *Goiko elexea*, alegia, San Emeterio eta San Zeledoniori eskeiñia; beekoa, Andra Mari izenekoa eta berriagoa, erri barruan baitago. Goikolexeko eliza ontan, aldare aurrean, fueroak gordetzeko ziña berriz egin bear zuten antziñako jaun aiek; baiña ez nolana:

“...en manos de clérigo sacerdote, que tenga el cuerpo de Dios nuestro Señor consagrado en las manos...”.

Emakume batzuk itzalean daude, eliz ondoan, etxe bateko atarian. Aiek berbetan eta nik izketan pixka bat jardun ondoren, batek onela galdetu dit:

– Barrura sartu gura dozu?

Pozez beterik baietz esan diot, gaur egunean zorion ori gutxitan izaten baita.

Elizak zimitorio ederra du jira guzian. Antxe, eskubira, arrizko maai bat, zin egiterakoan erabiltzen zana. Eliz-barrua ere bikaiña da. Aldare-erdian, Ama Birjiña eder bat; eta aren ondoan, San Emeterio eta San Zeledonio. Baita auen martirioaren irudi batzuk ere.

Goikolexea ontatik Aretxabalaganera igo naiz. Azken gerratean ainbat odol ixuri zan Bizkargi eta Urkulu mendien arteko lepo bat da au.

Izen ori nundik datorkion? Garai batean ementxe, Gernikako kaltzara zaarraren ondoan, aritz bikain eta ikusgarri bat zalako. Gernikako ordezkariak oneraiño etortzen ziran, zin-egillearen bidera, alegia:

“Y dende viniendo para Guernica, en lo alto de Archabalaga, le han de recibir los Vizcaynos, e besarle la mano como a su Rey y señor”.

Aritz orrek lareun urte baiño geiago iraun zuan zutik eta osasuntsu. Baiña aren istoriari eta esanaiari begiratu gabe, bota egin zuten joan dan mendean, Juan E. Delmas jaunak, *Guía del Señorío de Vizcaya en 1864* liburuan dionez. Liburu ontatik artu ditut nik nere lan ontarako argibideak.

Idazle orrek esaten duanez, 1777 urtean zillarrrezko diruz betetako ontzi bat azaldu zan Aretxabalagane ontan. Orduko jakintsuak epaia onela eman zuten:

"...que eran monedas samaritanas, batidas por Si-meón Macabeo y traídas a España por los fenicios y grie-gos".

Gain ontatik Santiago-bide bat ere bazijoan, Bizkaia alderik alde igaroaz: Markina, Ziortza (Zena-rruza), Arbatzegi, Arrazua, Gernika, Morga, Aretxa-balagane au, Goikolexea, Larrabetzu, Lezama, Bil-bo, Balmaseda...

Bista ederra gain ontatik ikusten dana. Itxasal-dea, zoritxarrez, piñuak estaltzen dute. Ego aldera, berriz, mendi-aukera dago: Aramotz, Santa Marina, Artxanda, Mandoia, Untzueta-piko, Ganekogorta... Gandua dago eta Gorbeia ez da ikusten.

Morgara jetxi naiz, fueroen zin-egilleen bideari jarraituz, eta Errigoitira igo, bidean baserri-etxe do-toreak ikusiz eta makiña bat mendi-zoko igaroz. Be-lardi onak ere bai; baiña piñu beltza geiegi, begien gozamenerako beintzat.

Goitik beera segi eta Gernikan sartu naiz. Jun-ta-etxea urrutitik ikusi bai, baiña ez naiz bertaraiño joan, berandu da eta. An ere zin egiten zan:

"Y ansi, venido a la dicha Guernica, so el árbol de-lla, donde se acostumbran hazer las juntas de Vizcaya, ha de jurar e confirmar todas las libertades e privile-gios...".

Ondoren, zin-egilleak Bermeora joaten ziran, Forua eta Mundakatik barrena, beren eginkizuna ango Santa Eufemian betetzera. Baiña, esan bezela: apaiz batek ostia santua eskuan zuala.

Ni, berriz, araiño gaur beintzat ezin joanik, leen esandako Santio-bidetik jarraitu det: Arratzu, Arba-tzegi, Gerrikaitz, Bolibar, Markina... Eta etxera po-zik etorri, Bizkaia obetoxeago ezagutzen dedala eta.



Urrestillako Eizagirre baserriko atea, bere armariarekin.

Donostiako gaztelua eta Bordel bertsolaria

ESPAINIAKO agintea konstituzio zaleak eskuratu zuten, liberalen aurrekoak alegia, 1820 urtean. Ori zala-ta, beti bezela, batzuk pozik, besteak asarre.

Auetakoak ziran Europako zenbait gobernu: Frantzia, Austria, Prusia eta Rusia. Ala, Frantziako errege zan Luis XVIII-ak itzaldi sutsu bat egin zuan ango Biltzarrean, onelatsu esanez:

- Espaiña salbatu nai det. Ala, eun milla soldadu bialduko ditut ango Fernando VII erregea bere etsaien mendetik libratzera.

Soldadu oiei izen ospetsua jarri zitzaien: *San Luisen eun milla semeak*. Baiña berrogei ta amabost bat milla omen ziran guzira. Frantziako erregearen illoba, Angulemako Dukea, izan zuten buru.

Soldadu oiek 1823-IV-7-an igaro zuten Bidasoa ibaia. Nork lagundurik arkitu zuten emen: *realistak* izenekoak, karlisten aurrekoak alegia.

Ondarribi eta Pasaia bereala artu zituzten. Donostia inguratu ere bai. Andik Gasteiza eta Madrilla jarraitu zuten. Ontan maiatzaren 24-an sartu ziran. Bitartean, Donostiak etzuan bururik makurtu irailaren 27-a arte.

Iri ontako soldaduetan ogei ta amar urteko nappar bat ere bazan: Luzaideko Juan Etxamendi, *Bordel* bertsolaria alegia. Bai bere anai gazteago bat ere. Nola ote ziran aiek Gipuzkoako iriburuan? Manezaundi idazleak dionez, liberalak aien errian gaz-

te-talde bat indarrez edo bortxaz artua eta eramana zutelako.

Bordel orrek bertsoak jarri zituan gero, Donostiako bere ibillera kontatuz. Sail ortaz egoki mintzatu dira Manezaundi ori bera, Jose Mari Satrustegi eta Antonio Arrue zana. Jaun oietxen idazlanak izan ditut gaurko atal ontarako iturriak.

An zeudela, bederatzi mutillek, Bordel eta bere anaia taldeko zirala, iges egitea pentsatu zuten. *Desertatu*, alegia.

Bordel liberalen aldekoa izanik, nundik nora bururatu ote zitzaion asmo ori? Ez dakigu. Baiña beren alderdia gain-beera zijoala ikusiko zuten. Goseak ere egongo ziran, ziur aski. Beste aldera pasata, berriz, etxerako esperantza.

Ekainaren 12-n, gaueko bederatzietan abiatu ziran, eta murailen azpitik igaro eta urbide batean arrastaka aurrera segi.

Zubira urbiltzean, an guardiak izaten ziran eta arako bildurra. "Batek, berak joateko artu zuen plana". Baiña, beste zortzi lagunek ezer ere etzekitela, Judas bat bazuten taldean, eta uraxe izango zan.

Une artan, izan ere, bi aldetatik tiroka asi zitzaizkien. "Kosta aize bateki, lur barna tenpesta" alegia. Inguru guzia etsaiez beteta zeukaten. Lurrean etzanik salbatu zuten bizia.

Gero, frantzesetara segi. Aien buruzagi baten-gandik etzuten itz gozorik entzun. Ia beren buruaz etsi zuten. Baiña jauntxo arek jeneralarengana agertzeko agindua eman zien.

Bideari ekin zioten, bada. Arratserako Ernanin ziran, "an sala polizian alojatzen gira". Biaramonean, Tolosan. Emen, aien itxura ikusiz, "nigar iturrietan iru madamita".

Tolosatik atera eta bildur ziran, "Mitxelenaren plaza behar ginuela". Matias Mitxelena zan ori,

apaiz bat alegia, liberalak maiatzaren 3-an Urgull mendiko arkaitzetan beera itxasora bota zutena.

Urrena, Billafrankara. An “lehenbiziko pena zepuan sartzia”. “Bertze bi egunetan gero Mondragora”. Urrena, Gatzagatik gora, Arlaban gaiña. Emen, *unibertsalak* izeneko soldaduak, arropak-eta kendu egin zizkieten.

Andik “Bitoria aldera berehala martxe”; eta “gure kontra espantuz hango dama beltzek”. Gobernadorearengana agertu eta “gure manerak oro hari deklaratu”. Bai jaun arek ondo artu ere, eta loturetatik askatu. “Nola bere semeak harek konsolatu”. Eta “gure tribunalia zela Nafarruan” esan.

Nafarrora segi, beraz. Baiña “arribaturik ere gure eremura, purgatoriotarik sartu infernura”. Emen, izan ere, “Nafarruako serbil lepondo gorriak”, Erribera aldeko jendeak alegia, erruki gutxi agertu omen zuten aientzat, *montañesak*, mendi aldekoak alegia, danak traidoreak zirala esanez.

Ala, ango buru zanak, zortzi lagunei euna malkkada emateko agindu zuan.

Baiña Bordelen anaia gaixorik zegoan, eta zigor artatik bizirik aterako ote zan? Anaiak, orduan, berak berreun artzea eskatu zuan: bereak eta anaiarenak. Bai orrela egin ere.

Bordelek ez du esaten noiz libratu zuten eta noiz etxeratu zan. Baiña erriratu eta antxe bizi izan zan, 1879-an il zan arte.

Bitartean, bertsolari famatua egin zan, eta sail asko jarri zituan. Nai duanak, *Auspoa*-ren 45-46 zenbakian, Jose Mari Satrustegik prestatutako bilduman, arkituko ditu.

Nere begiak gozamen ederra artu izan dute beti, Orreagatik Ibañetara igo, emen geldialdi bat egin eta beera abiatu naizen guzietan. Ango pagadi zoragarrietan barrena jetxi, Bordel bertsolariaren etxea

ezkerretara, gain batean, utziz. Ondoren, Luzaideko erri apaiña.

Frantziako Karlos Aundia enperadorea, Errol-dan, amabi zaldunak, Turpin eta abarren oroipenaz gain, beste zer gogoraturik ere badu, bai, Naparroa-ko alderdi ikusgarri orrek.

El Diario Vasco, 1998-X-7

Donostia zer dan

DONOSTIAKO 1894-ko Lore-Jokoen araudiak onela zion:

“Zillarrezko luma urrezestali bat, *Donostiar argido-tarren bizitzen gañean*, itz-neurtu edo larrietan, lanik onena aurkezten duenari; edo Donostia zer nolako udal-lekua dan obeto agertzen duen lanaren egilleari.

Lenbiziko gaiari dagokionez, lan au izan liteke ala Uri ontako euren jakinduriaz, balore edo birtuteagatik berezitu izan diran seme guzien gutiste bat, nola aieta-ko batzuen gañeko erakasde bat”.

Ogei ta emezortzi idazlan jaso ziran. Oietako bat, Felipe Kasal Otegiren *Nere lur gurtuari* izeneko, *euskal biursari bikaiñ On Pedro M^a Otaño-ri* eskeiña. Onen ospea gora zijoan, beraz. Baiña aldi ontan Kasal Otegi ori igerle izan zala dirudi. Izan ere, leiaketa nork irabaziko eta Otañok berak, *Donostiya Uxua* sail luzearekin.

Filosofia utsa diran burutapenekin asten zaigu aldi ontan Pedro Mari: gauza asko, gugandik urrean egonagatik, Jaungoikoak betiko gordean dauzkala. Misterioarekin topo egin du, beraz, zizurkildar bertsolariak. Gure aalmen mugatuarekin argitu ezin ditugun illun-uneak, alegia.

Ortik gure betiko galdera: “Zergatikan da gauz au? Beste ori zer da?”. Ori argitzeko, gizonak “illun-petatik gauza asko du atera”. Baiña bere egiñaal guziak alperrik sarritan, eta galdera orri erantzunik ezin eman.

Ala ere, jakintsuak ixildutakoan, “izketan asten gera gutxi dakigunak”, dio Otañok. Ez bestek erakutsiak edo ikasbidetik irentsi diranak esateko, “baizikan ametsetan sortzen zaizkigunak”. Argatik, “Donostia zer da?” galdetzean, jakintsuak ixildu egiten dira. Amesgilleak, berriz, bat-batean onela erantzuten dute: “Kantauriko perla”; edo olako beste izen asko ematen dizkiote.

Amesgille oiek zein ote ditugu? Olerkariak noski. Zientziaz aparte bigarren jakinduri-bide bat badala erakusten du, beraz, emen Otañok: olerkia, iñolaz ere baztertu bear ez dan eder-sena, gizonak bizi aal izateko ain premizkoa duana.

Sarrera orrekin bidea garbitu eta legundu egin dio urrena datorrenari. Ipui bat da bera, kontakizun edo *leyenda* bat, alegia, Pedro Marik berak asmatua.

Liburu santuak diotenez, ujoldea bukatutakoan, Noek uso bat bialdu zuan kutxatik, iñon legorrik ote zan ikus zezan. Pizti ura “izpi bat txintxilika zubela mokotik” itzuli zan, lur-azala azaltzen ari zala adieraziz.

Urrena, kutxa Ararat mendira iritxi zan. Noek orduan nork bere bidea ar zezala agindu zien bere semeei; baiña biotzetik erregu bat egiten ziela: “ez lotsikan biraldu gure arpegira”. Bestetik, berriz, agindu au eman zuan: “Pixti denak bijoaz al duten tokira”.

Leengo usoa ere atera zan. Baiña gustagarrizko leku bat ikusia gogoan zeukan, eta egoei eragiñez alde artara zuzendu zan. Kantaurira etorri, kabia autu, bertan etzan eta geroztik ez da jeiki. Orixe da Donostia:

Buruba ageri du
Gaztelu orretan,
korputza Donostiko
etxe ederretan,

ta isatsa Loiola-
ko erriberetan;
eskuiko egua
Ategorriyetan,
eta ezkerrekoa
Antiguan bertan.

Bukatutzat eman zezakean Otañok bere lana. Baldintzak bete egin bear, ordea. *Donostiar argidotarren bizitzen gañean* etzuan ezer ere esan. Ortarako, berriz, istorilari izan bear. Jakintsuen bidean sartu, alegia. Baiña bera amesgillea zan, olerkaria. Zer egin zezakean? Beste puska au eranstea gogoratu zitzaion:

Beste pizti batzubek
egope onetan
ikusten dira iñoiz
uda-egunetan,
beren lumak bustiyaz
Kontxako oletan,
pozkidaz dabiltzala
jostatzen uretan...
Sartu gabe kondaira
luziaguetan,
orra nere iritziz
Donostiya zer dan.

Baldintzak beste elduleku bat ere bai-baitzuten: “edo Donostia zer nolako uda-lekua dan obeto agertzen duen lanaren egilleari”. Eta lerro oiekin Pedro Mari bete-betea sartzan zan gaiaren barruan eta mamian. Ala, esan bezela, berak irabazi zuan lehen saria.

Sari-banaketa urte bereko abenduaren 21-ean egin zan, Teatro Zaarrean. Ospakizunetako bat auxe izan zan:

“Izkribalari edo musikalarien indar neurtzan sariz-
tatuak izan diran izenen deia, eta sariya eraman duten
izkribuen irakurtza”.

Otañoren poza bere izena entzundakoan! Baiña
olerkia berak irakurri ote zuan? Egunkariren batek
argituko liguke agian ori. Baiña guk duda egiten de-
gu, Pedro Mari oso eztarri bajukoa zan eta. Ortik
aren izengoitia: *Kattarro*.

El Diario Vasco, 1998-X-29

San Saturio, Soriako Zaindaria

SORIATIK jetxi, Duero ibaiaren ezker aldera igaro eta oiñez asi naiz. Bidea untzez jantzitako etxe zaar baten azpitik dijoa, arkupe batetik barrena. San Polo izeneko komentu zaarra da au, tenplarioak altxa zutena.

Duero ibaia ispillu bat da emen. Bi aldeetako muiñoak garbi-garbi ikusten dira beraren uretan. Baita urre-kolorezko arboladiak, urrian geranez. Bi-
de ederra eta paketsua benetan onako au.

Ala, olerkariak oso maitea izan dute. Emen barrena ibiliak ziran Gustavo Adolfo Becquer, Antonio Machado, Gerardo Diego... Onen bertso bat arri batean idatzita dago:

*Río Duero, Río Duero,
nadie a estar contigo baja;
ya nadie quiere atender
tu eterna estrofa olvidada.*

Baiña ur ixilla du emen ibai onek. Bertso-kantari joango da, beraz, baiña aopean.

San Saturioren ermita aurrean ikusten det, ibai-ertzean zutitzen dan arkaitz aundi baten gaiñean, eta beste arkaitz tente baten azpian. Peñalba mendiaren egala atzean, an-emenka arte batzuk dirala.

Beste arri batean, A. Machadoren bertso au irakurtzen da:

*Estos chopos del río que acompaña
con el sonido de sus hojas secas
el son del agua cuando el viento sopla,
tienen en sus cortezas
grabadas iniciales que son nombres
de enamorados, cifras que son fechas.*

Bai; noizbeinka aize-kolpe batek orbela aurrean darama, zalapartaka eta zaratatsu, zakurrak ardiak erabili oi dituan antzera. Zugaitz-gerrietan, erdi gas-tatuak, lumeroak eta letrak ikusten dira.

Ermitak koba-zulo bat estaltzen du. Ikusgarria barruko eliza. Ez aundia, baiña bai ederki apain-dua. Goien, Antonio Zapatak 1704-1705-an pinta-tuta, santuaren bizitzaren irudiak.

San Saturio au V mendean jaio omen zan, 483 urte inguruan. Gurasoak ildakoan, berrogei bat ur-te zituala, bere ondasun guziak pobreen artean ba-natu eta koba-zulo ontara etorri zan, otoitz-bizitza egitera, San Migeli eskeiñitako ermitatxo bat bertan altxatuz.

Ia ogei ta amar urte bertan zeramazkiala, egun-senti batez, oi zuan bezela, kobaren atarira atera zan bere otoitza egitera; eta ibaiaren arunzko alde-an an ikusi zuan gazte bat, onuzko aldera pasa nai zuana. Baiña ur lodiak zetozen eta arrisku aundia zegoan. Santua, arri baten gaiñean jarri eta oiuka asi zitzaion, ibairik ez pasatzeko, arren!

Baiña gazteak, ari kasorik egin gabe, bere sor-baldako kapa uraren gaiñean zabaldu zuan, txalupa batean bezela aren gaiñean jarri eta beste aldera igaro zan, oiñik busti ere gabe.

Alkarganatu ziranean, santuak gaztea ermitara eramán zuan, Jainkoari eskerrak ematera. Ondoren onela galdetu zion:

- Nor zaitugu eta zertara zatoz?
- Ni zeruko bidea zugandik ikastera nator. Pru-

dentzio da nere izena, Arabako Armentiakoa nazu.

San Prudentzio, alegia, urteen buruan Arabako Zaindaria izango zana.

Bi santu oiek zazpi urte egin zituzten alkarrekin koba-zulo ontan, maisua ikaslearen besoetan 568-X-2-an il zan arte, irurogei ta amabost bat urte zituala. San Migel ermitatxoan lur eman zion gazteak zaarrari.

Urteak pasa ziran. San Prudentzio Tarazonako gotzaia zan. Baiña bere maisua gogoan beti arek. Onen koba-zuloa ere bere gotzai-barrutian zegoan. Ala, egun batez onera etorri zan. San Saturioren ezurak atera, kutxa eder batean sartu eta santu izendatu zuan.


Mirariak egin ere bai onek. Baiña bakarra aita-tuko det, koba-barru ontan gora ta beera nabillela, leio batean idatzita irakurri dedana:

“Romualdo Barranco, natural de Carbonera, niño de 6 años y medio, habiendo caído desde esta ventana hasta cerca de la orilla del Duero, fue hallado puesto de rodillas, sin haber recibido lesión alguna, por intercesión del Santo. Año 1772”.

Leio batetik kanpora begira jarri naiz. Aurrean, mendi-lepo baten gainean, Soriako etxe batzuk ikusten dira. Eguzkia izkutatzera dijoa, zerua eta ibaia odol-kolorez gorriturik. Beean uraren ispillu garbia, ibai-ertzeko zugaitzak buruz beera dituana. Pena ematen du pake-toki ontatik aldegitteak. Baiña ala bear eta banoa, A. Machadoren itzak nere barruan gogoratuz:

*Álamos del amor cerca del agua
que corre y pasa y sueña,
álamos de las márgenes del Duero,
conmigo vais, mi corazón os lleva.*

El Diario Vasco, 1998-XII-6



San Frutos, Segovia.

Duratón ibaiaren zintzurra

MADRILLETIK onuntza natorrela, egun guzia nere mende baitaukat, eta eguraldi bikaiña dagoan ezkerro, zertarako abaila bizian bidea egin, muturra apurtzeko zorian?

Somosierratik jetxi eta ezkerrera artu det, Gaztela Zaarrean sartuz. Lur zabal au an urrutian zeru urdiña ikutu arte luzatzen da. Soro emankorrek nun-nai: batzuk gari-zuztarrekin ori-ori: beste batzuk, goldetu berriak eta illun. Urrian geranez, nekazariak gogotik ari dira an eta emen lurra berriro maneatzten.

Sepúlveda-tik igaro naiz, ango eliz erromanikoak pasaeran ikusiz. Pedraza ez dago urrun. Zuloaga eibartarrak maiteak zituan leku auek.

Kotxea gelditu eta jetxi naiz. Ikuspegi bikaiña emengoa ere. Iparraldera, ordeka besterik ez da ikusten. Egoaldera, berriz, Madrillerako bidean altxatzen dan mendi-lerro luzea: Ayllón eta Riaza aldeko gaillurrak, Tres Provincias, Somosierra, Navarra, Peña Lara, Guadarrama...

Nora etorri naizen? Duratón ibaia Riaza aldeko mendietan sortzen da, eta bide egiten du, Peñafiel gazteluaren ondoan Duero ibaiarekin batu arte.

Baiña Sepúlveda baiño beeraxeago lur zelai auetan erreten sakon eta luze bat irekitzen du, ogei ta bost kilometrokoa, ezker-eskubi irurogei ta amar bat metroko paretak dituana eta sugea baiño bigurriagoa.

Gero, presa bat altxatu zuten irteeran, Burgo-millodo erriaren ondoan. Ibaiak urtegi lodi eta garbia egin zuan. Ur geldi oietan ederki ikusten dira, ispillu batean bezela, zeru urdiña, arkaitz tenteak eta piñu illunak. Ixiltasuna emen nagusi. Baiña, Alostorreko kantuan bezela, noizbeinka bele beltzak entzuten dira: *kua-kua-kua...*

Las Hoces del Duratón esaten diote erderaz leku oni. Latiñezko *faux-faucis* itzetik dator *hoz* ori, Aragoi eta Naparroan *foz* esaten dutena: *Foz de Lumbier, Foz de Arbayún...* Eta *zintzurra* adierazi nai duana.

Ain zuzen, Errotik egoaldera artu eta Urrotz aldera goazela, *foz* oietako bat igaro bear da, aundi eta ikusgarri oietakoa ez bada ere; eta berari *Txin-tzur* esaten diote.

Zintzur ontan bai omen daude, batzuk osorik eta besteak erdi galduta, istoria aurreko marrazkiak, erromatarrak egindako bide eta zubiak, bisigodoak eraikitako ermitak, eliz erromanikoak, *Nuestra Señora de la Hoz* izeneko komentua...

Emendik, oiñez eta aldapa beera, kilometro ta erdiko bidea egin bear da, bitarte ortan begien aurrean, arkaitz baten sorbaldan eta urtegia iru alde-tik duala, San Frutos izeneko eliz erromanikoa ikusten dala.

Santu au Segobian jaio zan, guraso aberatsengandik, VII mendean, bisigodoen denboran. Anai-arrebak bazituan; Balentin eta Engrazia. Iru senide oiek, beren ondasunak saldu eta pobreen artean banatu zituzten. Ondoren bideari ekin, bakardadean otoitz-bizitza egiteko toki egoki baten billa. Onera iritxitakoan, gustatu eta bertan gelditu ziran.

Emen urte-mordoa zeramatela, orra Espaiñiako gauzak bat-batean eta ustegabeen erabat aldatu. Moroak Gibraltar pasa eta Guadaletoko burrukal-

dian nagusi atera ziran, eta bisigodoen erreinuak lur jo zuan.

Andik laster, egun batez, Frutos bere otoitz-leku ontan zegoala, kristau-talde bat ikusi zuan, korrika eta larri iges zetorrena, mahomatarrak atzetik zirala.

Santuak zer egin zuan? Igeslariak pasatakoan, moroak iritxi aurretik, lurrean indartsu kalkatuz bere makilla alde batetik bestera eramane; eta ebaki sakon bat egin. Moroak araiño etorri eta ezin izan zuten iñola ere beste aldera pasa. Kristauak orrela salbatu ziran.

Ebaki ori antxe dago gaur egunean ere; eta *la Cuchillada de San Frutos* deitzen diote. Gaiñetik pasatzeko, zubi bat eginda dago.

Santu ori 715 urtean il zan, irurogei ta amairu bat urte zitularik. Anai-arrebak beraren ermitaxoan lur eman zioten.

Gero, anai-arreba oiek Caballar izeneko errira aldatu ziran. Baiña an moroak arrapatu eta il egin zituzten.

San Frutosen ezurrak, Segobiako Zaindaria denez, ango katedralean gordetzen dira gaur egunean. Beraren irudi bat ere bada an. Festa-eguna, berriz, urriaren 25-ean ospatzen da. Eta, diotenez, bezpera-gauean santuaren irudiak orri bat pasatzen dio eskuan daukan liburuari; eta, orriak bukatzean, munduaren bukaera izango omen da.

Beneditarrak, komentu bat altxa eta urte askoan bizi izan ziran emen, gobernuak 1835-ean fraile guziak beren etxeetatik bota zituan arte. Aiek altxatutako elizak –erromanikoa bera– zutik eta osorik irauten du gaur ere; baiña fraileen bizilekua erorita dago. Arrizko pareta zaarrak bakarrik zutik.

Elizaren egoaldeko orman, kanpo aldeko arri-sillare batean, onela irakurtzen da:

“Aqui yaze sepultada una muger de su marido des-peñada i no morio i hizo a esta casa lymosna de sus bienes”.

Ezin asperturik eta ezin alde egiñik, an ibili nintzan batera eta bestera, nere begiei gozatu ederra emanaz, batzuetan eliz zaarrari begira eta beste batzuetan lekuari. Bitartean, putre-talde bat zeru urdiñean egan eta jiraka zebillen, eta aien itzalak urtegiaren azal urdiñetik pasatzen ikusten ziran.

Bueltakoan, kotxean sartu baiño leen, orpoen gaiñean poliki-poliki gorputzari jira eman nion, ikuspegi eder, zabal eta aundi ura nere begien barruan josi eta gorde nairik. Leen ere emen izana nengoan, baiña urrian egin nuan ori ez dedilla ala ere azken aldia izan.

El Diario Vasco, 1998-I-3

Afrikako gerra (1859)

AURKI beteko dira eun ta berrogei urte Marruekos eta Espaiñiaren artean gerra piztu zala; 1859-an alegia.

Buruauste biurria sortu zitzairen orrekin gure probintzi auetako agintariei. Artean fueroak zutik irauten zuten eta emengo mutillak etzeuden ara joatera beartuak. Baiña euskaldunak gerra artan laguntzarik ez ematea begi txarrez ikusia izango zan; eta fueroen kalterako izan zitekean. Zer egin?

Gai ortaz itzegiteko, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ordezkariak Bergaran bildu ziran 1859-ko azaroaren 4-an, eta erabaki auek artu: lau milloi erreal gerrarako ematea; mutillak armetara deitzea, baiña fueroak eskatzen zuten erara; eta lau batalloi osatzea, oien gastuak emengo diputazioak pagatuta. Batalloi oiei *Tercios Vascongados* izena emango zitzairen.

Andik laster, azaroaren 10-ean, Gipuzkoako ordezkariak batzar berezia egin zuten Tolosan. Aurrena boluntarioak eskatzea erabaki zan; eta bear zan taldea osatzen ez bazan, erri guzietan zotz egitea. Diputazioaren eskutik bi milla ta bosteun erreal jasoko zituan mutil bakoitzak: bosteun, izena emate-rakoan; eta bi milla, gerratik etortzean. Inor iltzen bazan, bi milla oiek etxeoak artuko zituzten.

Bizkaitarrak Gernikan bildu ziran. Atzera Bilbora itzulitakoan, soiñu-banda kaxkar bat bildu eta kalez kale ibili ziran irureun bat lagun, bai egun ar-

tan eta bai urrengoetan, onela kantatuz:

Ai, ai, ai, mutillak,
biba bizkaitarrak,
ai, ai, ai mutillak,
muera Marruekuak!

Kopla ori borobildu zuan bertsolaria, ez det us-
te txapelketa batean txapeldun aterako zanik.

Arabarrak Gasteizen egin zuten beren batzarra,
aiek ere gauza guziak aal dan ondoen bideratuz.

Urte aietan, batetik industria asi berria eta bes-
tetik trenbidegintza, lan asko zebillen Gipuzkoan.
Orregatik, boluntariorik agertuko etzalakoan, kinta
deitu eta zotz egitea erabaki zan.

Baiña Oiartzungo mutillak, ori fueroen kontra
zala-ta, udaletxera sartu, zozketarako kutxa artu,
lurrera bota, puskatu eta iges egin zuten mendira.
Leengo esaera zaarrak diona, alegia: "Oiartzun, da-
karren monedan erantzun".

Aien billa soldadu-talde bat bialtzea nai zuan
agintaririk bazan. Beste batek, berriz, beste aldera
pentsatu zuan: mendi aietan eta mutil aien atzetik
soldaduak zer egiñik etzutela; ola asi ezkeru, fuero-
en kontrakoa zala bazter guzietara zabalduko zala,
eta Gipuzkoa guzian berdin gertatuko zala. Obe zala
onez onean gauzak konpontzea.

Ala, Oiartzungo alkatearen bitartez mutil aiek
erriratzea lortu zan. Orduan, agintariren bat erritan
asi zitzaien, moroen bildurrez zeuden kobarde ka-
katsu batzuk zirala arpegiratuz. Mutillak, orduan,
eztenkada ori artutakoan, boluntario joateko beren
izena berak eman zuten...

Araban ere bear ainbat boluntario ez; eta, Aia-
lako barrutiko mutillen artean zozketa egiteko,
Arespaldiza erria aukeratu zan. Ala, 1857-XII-27-

an, leenengo, meza nagusia eman zan elizan. Ondoren, bildutako jendea artuko zuan barrunberik errian etzanez, zozketa kanpoan egin zuten, iru arte aundiren ondoan. Eskerrak eguraldi ona zegoan.

Ogei ta amaika gazte bear ziran; eta, aiek berezitakoan, bazkaria. Guzira, eun ta berrogei ta amar bazkaldar: berezitako gazteak, agintariak, apaizak...

Bazkari au izan zuten: potaje ederra, leenengo, arroz, barbantzu eta bost arrua bei-aragirekin egiña. Zopa gozoa ere bai; eta postrerako, gaztaiñak.

Kexaako (*Quejana*) mojak eskapularioak egiñak zituzten gazte aientzat, eta meza nagusiko sermolarriak leporatu zizkien.

Biaramon-goizean, ogei ta amaika mutil aiek bezperako tokira bildu, bazkari arin bat egin eta Gasteiz aldera abiatu ziran, oiñez ziur aski, santsoka eta bibaka.

Geroztik, Arespaldizatik pasa izan naizenean, garai batean an egin ziran bazkari eta zozketa oietaz beti gogoratu naiz. Baserri eder-zabalak an-emen. Elizaren ondoan arte aundi batzuk ere bai. Ez dakit leen aitaturako oiek berak edo aien ondorengoak diran. Aldatu ere gutxi egingo zan erri au, eta ori laguntza ona da iñora joan eta leengo kontuak gogoratzeko. Benetan gustagarria da Aialako inguru ori, erri txiki-politez josia eta Sierra Salvada-ko tontor eta arkaitz tenteen azpian.

Leenengo batallioia Arabako mutillak osatu zuten; bigarrena, Gipuzkoakoak; irugarrena, bizkaitarrak; laugarrena, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak. Bigarren batallioiaren bandera, Donostiako diputazioan gordetzen da gaur egunean.

Jantzia, gero urte askoan mikeleteak erabiliko zutena zan: "*El uniforme se componía de poncho azul, pantalón encarnado, polainas de cuero y boina encarnada*".

Ofizialak militarretatik artuak izan ziran; baiña jaiotzez edo jatorriz euskaldunak ziranak.

Tercios Vascongados oiek eta gerra ura gai artuta, bertso-sail asko jarri ziran Euskal Errian. Gurre eskuetaraiño iritxi diranekin, *Auspoa*-ren 129 alea osatu genduan. Gerra ura zer izan zan ikasi nai duanak, liburu ortan argibide asko arkituko ditu. An esaten diranetan, badago au bezelako beste lantxo batzuentzako gaia. Idatzi ere egingo ditugu agian.

Baiña ona, bukatu aurretik, sail oietako batetik artutako bertsoa:

Obligazioz da eta
joan bear gerrara,
lege maitegarriak
gordeko badira;
Tanjerren ipiñirik
español bandera,
denbora labur barru
etxerako gera.

El Diario Vasco, 1999-I-17

Tximista baten lana

GARAI bateko egunkari eta aldizkariak aaztuta dauzkagun makiña bat gertaera kontatzen dituzte, gogoan edukitzea merezi bazuten ere. Oietako bat berritzera noa gaurko atal ontan.

Orain eun urte paseak, 1893-ko garagarrillean, goizeko iruretan, Debako treiñeru bat, *Jose Ramon* izenekoa, amaika arraunlari eta patroia barruan zitu- tuala, sardiñetara atera zan. Baita Itziarko parera iritxi ere.

Iñoiz irakurri dedanez, garai bateko guda-on- tziak, Itziar bistan zutela pasatzerakoan, kañoiak sutu egiten zituzten, Ama Birjiñaren omenez eta agur egitearren.

Barojaren *Angelus* ipuia ere ezaguna da. Trei- ñeru bat, *Arantza* izenekoa, amairu gizonezko eta emakumezko bat barruan dituala, Mutriikutik atera da. Eguzkia sartzera dijoa, laiñoak gorrituz. Itziarko eliz-kanpaiak abe-mariak jotzen dituzte. Mariñel aiek txapela erantzi eta errezatu egiten dute, ondo- renean aurrera jarraituz, txaluparen atzetik zillar- koloreko arrasto bat utzirik. Barojak itz auekin bu- katzen du:

“Eran trece los hombres, trece valientes, curtidos en el peligro y avezados a las luchas del mar”.

Debako beste mariñel aiek, berriz, Itziarko pa- rera iritxitakoan, kañoirik etzuten sutuko noski, baiña errezatu bearbada bai.

Dana dala, beren lanari zintzo eta gogoz ekin zioten.

Ekaitza zetorrelakoan, aterpe bat eratu zuten bela batekin eta arraun batzuekin. Aren azpian lau lagun babestu ziran, iru zaarrenak eta mutiko bat, gainontzekoak kanpoan geldituz, amorru aundirik gabeko euria ari zuan eta.

Eguerdi aldera, ordea, zerua erabat goibeldu zan, eta trumoiak asi. Eten gabe, ordea; eta gero eta indartsuagoak. Ordubatean, berriz, ikaragarrizko danbatekoa entzun zan, Debako etxeak ere dardar jarri zuana.

Okerrena, berriz, txaluparena izan zan. Patrioiak ondoren kontatu zuanez, bera erori egin zan eserita zegoan aulkitik, borra batekin buruan jo izan balute bezela.

Xuxpertz eta bere onera etorri zanean, txaluparen barruan zilipurdika an ikusi zuan arraunlari bat, Frantzisko Gorostela. Baiña bat-batean zutitu eta onela galdetu zuan?

– Zer gertatzen da emen?

Patrioiak:

– Zer gertatzen dan? Txalupa sutan daukagula! Ura bear degu! Ura!

Ori entzunez, besteak ere beren lo-zorrotik aterra eta gogotik asi ziran sua itzali nairik. Leen jarritako aterpea gar bizitan zegoan, txaluparen gainean erorita.

Ura altxatakoan, azpiko lau lagunak agertu ziran, baiña danak ill-otzik. Ori ezin sinisturik, bizirik ziranak antxe asi ziran aiek berpiztu nairik. Denbora berean txalupak lau zulo zituala ikusi zuten, eta andik lau ur-erreka sartzen zirala.

Tximista batek egiñak ziran kalte oiek danak. Arrantzaleak, berriz, ez omen zuten sugar aundi batzuk besterik ikusi, eta azufre-kirats garratz-nazkagarria aditu.

Pirineoko artzaiei bein baiño geiagotan entzun izan diedana, alegia: ikusten dan tximistak eta entzuten dan trumoiak arriskurik ez dutela, auek beren otsaren aurretik datoz eta; bai, ordea, ikusi eta entzuten ez diranak.

Izaturik, arraunak artu eta il edo bizi an ekin zioten mariñel aiek legor aldera, oiuka laguntza eskatzen zutela. Baiña Sakoneta deitzen zitzaion tokiko arkaitzetara alderatzean, txalupa ondora joan zan. Ala ere, bizirik zeuden zortzi lagunak onik atera ziran.

Ildako arrantzaleak onako auek ziran: Jose Maria Izagirre, irurogei ta amar urtekoa; Inazio Etxeberria, irurogeikoa; Bautista Etxeberria, irurogeikoa; eta Agustin Etxeberria, amaseikoa. Iru, beraz, abizen berdiña zutenak. Famili berekoak ote ziran? Ez dakigu.

Debatik bi txalupa atera ziran mariñel aiei laguntza eramatera. Aietako batean jueza eta medikua zetozen. Ildako lagunak gorputzak jaso zituzten, itxura danez ur-azalean geldituak izango ziran eta. Ondoren, erri aldera abiatu ziran.

Iritxi ziranerako, jendetza aundia bildua zan Debako kaian eta ondartzan. Eta ura negar-otsa eta aiek karrasiak, ildakoak ezagutzearekin batera!

Zenbat olako gertaera ikusiak izango ote dira, emen eta edonun, itxas-bazterreko erriak?

Esaera zaarra egiazkoa atera zan egun artan ere: "Mariñelaren emaztea, goizean senardun, arratsaldean alargun".

Treiñeru ura, batez ere lainoetatik begiratuta, puntutxo bat besterik etzan izango itxas zabalaren erdian. Erreza etzan, beraz, antxe zuzen-zuzenean jotzea. Baiña alaxe gertatu. Burnidun zerbait eramango zuten ziur aski mariñel aiek txalupan, eta arek erakarriko zuan tximista.

Bertsoak jarri ote ziran Debako ezbear negargarri oni buruz? Ditekena da ori ere, noski, oso gai egokia baitzan bertso unkigarri batzuk moldatu, inprentatu eta paperak erriz erri zabaltzeko. Baiña orrela egin ote zan ez dakigu. Alerik ez da, beintzat, gure eskuetaraiño iritxi.

El Diario Vasco, 1999-1-24

Erriak gerra guziak galdu

Frantzestea esaten zaion gerraren seigarren urtean, 1813-an alegia, frantzesak atzeraka zijozen. Aurrera, berriz, alkar artu eta aien aurka zetozen inglesak, portugesak eta espainiolak. Abuztuaren 31-n Donostia erre zaneko eguna izan zan. Egun berean, San Martzialko burrukaldia, frantzesak galtzaille gertaturik.

Ondoren Bidasoa ibaia gelditu zan bi etsaien arteko muga bezela jarria. Baiña Wellington jeneralak bereala izendatu zuan eraso jotzeko eguna: iraillaren 6-a, goizeko zazpitan.

Inglesak eta portugesak Ondarrabi aldetik ekin zioten, emengo kanpantorretik su-ziri bat sutu zanean Bidasoa ibaia igaro, Endaia artu eta aurrera jarraituz. Espainolentzako seiñalea, berriz, San Martzialko ermitan agertu zan bandera zuri-aundi bat izan zan. Biriatu artu zuten, baita ango mendiak ere, eta Urruña aldera segi. Bera-Bidasoa aldetik, berriz, Longa bizkaitarrak jo zuan, Larrun menditik barrena Sara aldera bide egiñez.

Napoleonon gerra guzietan, etsairik etzan bein ere aren erreinoan sartu. Uraxe izan zan, beraz, leendabiziko aldia. Ala, agintariak agindu au zabaldu zuten:

Etsaia heldu zela
Frantzian barnera,
ihes joaitia zela
gure hoberena.

Jendeak, bildurtuta, iges egin zuan, zituan
gauza guziak bertan utzita:

Zori gaixtoz joan ginen
guziak ihesi,
hemengo sarraskiak
ez nahiz ikusi.
Utzi gintuen onak
zituzten iretsi,
heien faltaz bakotxak
behar du miretsi.

Partitu ginenian
zoin gure herritik,
batzuk haurrak besotan,
bertzeak ondotik;
nigar egiten zuten
gaixoek gogotik,
inozentek sofrituz
hobendunen gatik.

Etsaia, ordea, orpoz orpo atzetik beti. Andik au-
rrera, maiz samar agertzen dira Lapurdiko erri-ize-
nak gerra artako istorietan: Sokoia, Sara, Azkain, Ai-
noa, Senpere, Donibane-Lohitzune...

Ingles soldadu batzuek Urruñako zenbait etxe
erre egin zituzten. Aietakoak omen ziran Donostia
kiskali zutenak ere. Orra gizona zertara zaletzen
dan batzuetan.

Baiña frantzes soldaduak ere bideak betean
zebiltzan ara eta onera; eta, iges zijoa jende xumea
ikusita, nazio berekoak zirala begiratu gabe, lapur-
tu egiten zioten:

Soldadoak gibelat
zoazin erretretan,

arrogatzen zituzten
jendiak bidetan.
Gintuenak ken eta
zoazin lorietan,
saindu onik ahal da
tropa horietan!

Igeslariak leku arrotzetara iritxi eta an ere
biotzgabekeria nagusi. Neguan kanpoan lo egin be-
ar, amaika aldiz bizi azetsita:

Arribatu ginenian
leku arrotzetan,
pietate gabeko
jende zorrotzetan,
gauak kanpuan eman ez
neguko hotzetan,
bizi azetsiturik
hogoi ta bortzetan.

Errukirik gabeko jende oiek gaskoiñak ziran:

Jende gogorak dire
guretzat kaskoinak,
eskualdun gaixoentzat
ez hainitz kasta onak.
Gure gustuz halere
jan tuzte gauza onak,
oilok egosiz eta
errerik gapoinak.

Saratik gertu, burrukaldi gogor bat gertatu zan
azaroaren 10-ean.

Ondoren, negua sartu zanean, frentea onela zi-
joan: Miarritz, Arrauntz, Uztaritz, Larresoro, Kan-
bo... Baiña muga ori ere igaro eta beste erri-izen ba-

tzuk aitatzen dira ondoren liburuetan: Milafranga, Urkurai, Hazparren, Donapaleu...

Sail ontako azken bertsoak, egillearen izena esaten digu: "Kantu hauien emaille Martin Bidarte". Martin Fagondo zeritzan, eta Bidarteko Abiene baserrikoa zan. Beraren berri Landerretxe apaiz jaunak eman zuan, *Gure Herria* aldizkarian, 1928-an.

Martin orrek bertsoak jarri zizkion Bidarteko 1824-ko mixioari ere. Sail ori *Gure Herria*-n agertu zan 1928-an, argibide onekin:

"Huna kobla batzu egungoak izan behar ez direnak. Adixkide batek igorri dauzku. Paper zahar mutur batean atxemanik etxeko selauruan, berak ez daki nundik etorriak ziren harat".

Txerrimuniak ordaiñetan izaten dira, eta orduan ere ala gertatu zan. Napoleon jaunaren soldaduak itxusi portatuak ziran, Espainian ez-ezik, Europako beste erreinu askotan ere. Baiña atzerritarak Frantzian sartutakoan, auek ere joku berdiña. Eta, ori dana aski ez balitz bezela, orra soldadu frantzesak ere lapurretan asi:

Frantziako armadaz
gare penatuak,
eta Espainiakoaz
arras finituak.

Erriak gerra guziak galtzen omen ditu. Arrazoi ori aldi artan ere egiazkoa atera zan.

El Diario Vasco, 1999-1-29

Laguna Negra ur-putzuan

SORIAKO lurretan barrena goaz gaur, *Laguna Negra* izeneko ur-putzura iritxi-asmotan. Kamioa bukatzen dan tokitik ordu-laurdentxo bat oiñez egin bear. Piñu ikusgarriak emengoak; baita pago batzuk ere. Larre motxa lurrean, eta garoa, txillarra, goroldioa...

Putzu onek ur garbia du noski, baiña beltza; eta beltzak dira inguruetako arkaitzak ere. Ortik, ziur aski, tokiari erantsi zaion izena. Iparraizeak zimumrez betetzen du ur-azala. Eguzkiak, berriz, argidizdizez.

Oiuak nunai entzuten dira, baiña zoriontsu dabilen jendearenak. Ezin gorde dute toki onen edertasunak ematen dien poza. Batzuk ur-bazterrean eserita daude; beste batzuk mendian gora dijoaz, Urbiongo gaillurrera igotzeko asmoz-edo. Mendi-beien zintzarri-otsa ere entzuten da. Aizeak, berriz, murmurka jarri ditu piñuak.

Leku onek ere badu bere leienda, Antonio Machado erdal olerkari ospetsuak kontatzen diguna. Berak erri-gizon baten aotik ikasi omen zuan.

Alvargonzález inguru auetako nekazari bat zan, ondasunez ondo zana: etxea, baratza, erleak, belardiak, soroak, idi-parea, artaldea, ardi eta eiz-zakurak... Emaztea ere etxeratu zuan, eztaietan festa ederra egiñez; eta iru seme izan zituzten. Zorionaren besoetan goxo-goxo bizi ziran, beraz.

Semeak, bi zaarrenak etxerako utzi zituan; eta gazteena Osmako apaizgaitegira bialdu.

Zaarrenak ezkondu ziran, eta erraiñak bereala asi ziran aita ildakoan zenbat tokatuko zitzaien kontuak ateratzen. Ala, aiek eta beren gizonak, Muazko eriotzaren bertsoak dioten bezela zebiltzan: “buru dana betia pentsamentu txarrez”.

Gazteena, berriz, apaiz-ikasketak utzi eta Ameriketara joan zan, bere seni-partea aitarengandik artu ondoren.

Urte-mordoa pasa zan. Aita, norabait bidean zi-joan batean, iturri baten ondoan eta zumar baten itzalean eseri zan. Baita lo artu ere.

Seme zaarrenak ere etxetik atereak ziran. Bidez bide zijoazela, aita lo zegoan iturriaren ondora iritxi ziran. Orduan, alako egokiera ikusita, seme batek aizkorakada bat eman zion lepoan; eta besteak lau labankada bularrean.

Ondoren, aitaren gorputza mendian gora *Laguna Negra* ontaraiño ekarri ondoren, arri aundi bat anketan lotu eta arkaitz batetik beera uretara bota zuten.

Iñork etzituan ikusi. Baiña aitaren manta iturriaren ondoan agertu zan, eta odol-arrastoak ere bai an eta emen. Ala, jendeak etzuan dudarik egiten aita semeak illa izango zala. Auek, ordea, testigu paltsoak erosi zituzten, eta erriz erri zebillen merkatarari gizarajo bat salatu, erru guzia erantsi eta Sorrian urkatua izan zan. Orrela egin ziran seme gaizto aiek aitaren ondasunen jabe.

Andik aurrera, ordea, lur emankor aiek erabat zikoiztu ziran. Soroak etzuten galbururik ematen; belar gaiztoa bai ugari. Fruta-arbolak udaberriko izotzak ondatzen zituan. Ardiak dozenaka iltzen ziran, sorgin batek begikoa egingo balie bezela.

Gau batez, elurra ari zuala, norbaitek etxeko atea jo zuan, eta onela esan:

– Atea zabaldu, anaiak!

Anai gazteena zan, zaldun dotore bat eginda zertorrena. Aitaren eriotzaren berri bazekian, baiña etzuan anaien susmorik egiten. Auek, berriz, etziran ausartzen ari arpegira begiratzen ere.

Ameriketatik etorritakoa, lur batzuk anaiei erosi eta bertan jarri zan bizi izaten. Lanean gogotik egiten zuan, eta antzututa zeuden lurrak uzta ugaria eman zuten andik aurrera.

Anaiak, berriz, diru beroa eskuetan artutakoan, kupira gabe gastatzeari ekin zioten, eta andik laster batere gabe zeuden osterera ere. Len bezela nekazartzan asi ziran orduan. Baiña aien lurrak etzuan ezer ekartzen. Anaiarenak, berriz, oparo ematen zuan. Onek lur guziak erosi zizkien orduan. Besteak, berriz, leengora: ardoa eta jokua, dana gastatu arte.

Batean, mozkor eginda gauez etxera zetozela, onela zion batak besteari:

- Gure anaiaren suertea! Orrek deabrua berekin dauka. Bestela, nola diteke?

Baratzaren ondotik pasatzean, gizon bat antxe lanean ikusi zuten. Anaia izango zalakoan aurrera zijoazela, arek burua altxatu zuan, eta beren aita zana zala ikusi zuten. Aien ikara!

Egun batean, orrela jarraitzerik etzegoala-ta, anai gaztea errotako presara bota zuten, eta an ito. Goiz batez aren gorputza ur-azalean azaldu zan beintzat. Jendeak aien errua egin zuan berriz ere. Aopean, ordea. Danak bildurrez zeuden eta etzituan iñork salatu.

Ala, lur guziak aingerutxo aientzat berriro ere. Leenengo urtean ondo eman zuten. Baiña bigarrenean erabat zekendu. Goldea pasa eta lurra ireki aalean itxi egiten zan. Baratzan atxur-lanean asi eta lurretik odola sortzen zan. Zer ote zan ura?

Illuntze batean bi anaiak ur-putzu onen bazterretik zijoazen. Izarrak zeruan piztutzen asiak izan,

eta ur-azalean ikusten ziran, ispillu batean bezela. Aitaren oroitza gogoratu zitzairen, berak ara bota zutena. Barrengo arrak eraginda-edo, "Aita!" oiukatu zuten; eta orduan irristatu-edo eta arkaitzetatik behera erori ziran, eta urak irentsi egin zituan.

Leienda ori, Antonio Machado olerkariak idatziz zuan bezela irakurtzea izango litzake onena; bere osotasunean, alegia. Ni, emengo neurrietan errenditu bearrez, labur antzean kontaktzen aalegindu naiz.

Ori dana gogoratuz denbora arin joan zait, alde guzietara begiraturaz. Jendea pozik eta alai ikusten da ara eta onera ur-bazterretan eta mendiaren egaldetan. Ez du ematen emengo kontakizun beltz ori gogoan dutenik.

Ona, bukatzeko, Machado-k *Laguna Negra* oni eskeiñitako bertso-lerro batzuk:

*Agua transparente y muda
que enorme muro de piedra
donde los buitres anidan
y el eco duerme, rodea;
agua clara donde beben
las águilas de la sierra,
donde el jabalí del monte
y el ciervo y el corzo abreven;
agua pura y silenciosa
que copia cosas eternas;
agua impasible que guarda
en su seno las estrellas...*

El Diario Vasco, 1999-II-16

Altsasuko eta Urdiaingo

San Pedro ermita

Bi erri oiek ermita orren puska banaren jabe dira, muga erdi-erditik pasatzen denez: aldea Urdiaingoa, eta atea Altsasukoa.

Araño nundik iritxi? Altsasutik Iruñe aldera goazela, Urdiaingo bide-gurutzean, eskubira artu bearrean, ezkerrera artu eta bost-bat kilometroan jarraituz. Kamio estua da, baiña eroso.

Bereala sartzten gera basoan. Aritz ikusgarri aundiak ezker-eskubi. Tamaiña ortakoak ez dira nunai ikusten.

Euskal Erriko basoak, guzi-guziak ez bada ere geien-geienak bai beintzat, mendi-maldetan izan oi dira. Au, berriz, leku ordeka batean da, Sakana ontan. Antziña zaarrean, orrelako zugaizti itxiz estaliak izango ziran gure erreka ondoetako zelaiak. Lengo euskaldun zaarrak, berriz, nekearen nekez alor edo soro biurtu zituzten oiek danak, au eta beste bakarren batzuk izan ezik.

Kamio au Altzania mendiaren oiñean bukatzen da. Gora igo nai duanak, pagadietan barrena oiñez ekin bearko dio. Jentillen kutsua bizi-bizirik dauka oraindik zoko onek. Gaur ere erakusten dira emengo arkaitzetan nun ziran aien eskaillerak, sukaldea, leioa...

Altsasuarrak eta urdiaindarrak ez dira beti ongi konpondu. Auek diotenez, ermita eta mendi auek danak Urdiaingoak ziran garai batean: baiña altsasuarrak mugak tranpaz aldatu zituzten. Orregatik,

erri ontako neska-mutillak onela kantatzen zuten:

San Pedro zeru altuko
giltzaren jabia,
San Pedro geurea ta
Zangitu geuria.

Zangitu, izan ere, inguru auetako mendien ize-
na omen da.

Altsasuarren esanera, berriz, urdiaindarrak er-
mita eta Zangitu mendi oiek txokolate edo patarra-
ren truke saldu omen zituzten.

Emengo festa San Pedro egunean ospatzen du-
te altsasuarrak. Bidea oiñez egin bear zanean, au-
rretik erriko gurutzea, txistulariak eta udal-gizonak
etortzen ziran, eta atzetik idi-gurdi batzuk, janariz
eta edariz ongi zamatuta. Meza ondorenean, zugaitz
tarteetan sua piztu eta jana maneatu.

Jende asko biltzen zan, Altsasutik eta Burun-
datik ez-ezik, Gipuzkoako Goierri aldetik ere. Gaur
egun, kamioa bertaraiño irixten danez, festazaleak
ugaldu egin dirala esan bearrik ez dago.

Andik urrengo igandean ospatzen dute urdiain-
darrak beren festa, gurutzea, udal-gizonak eta abar
etorriz.

Baiña atalburuko idazkiak ematen dio ermita
oni aintza eta famarik aundiena:

*"Año de setezientos y diezisiete a veinte de henero,
en esta yglesia de San Pedro de la valle de Burunda fue
electo y ungido por primer rei de Navarra Garcia Xime-
nez y esta eleccion confirmo el mesmo año el Papa Grego-
rio segundo como parece por su bula que la tiene la di-
cha valle en su archivo fue reedificada esta yglesia el
año 1647".*

Naparroako leenengo erregea emen koroatu za-
la, alegia. Ez dakit jakintsuak zer iritziko dioten

orri. Baiña beste bi toki ere badira ospe ori berentzat eskatzen dutenak: bata Abarzuzan eta bestea Erronkarin.

Dana dala, urdiaindarren kantik onela dio:

Urdiaingo Andre Maria
guzitan seinale,
antxe koronatu zen
Naparruako errege.

Urdiaindarren kantu ori R. M. Azkue zanak eta Jose Mari Satrustegi adiskideak jaso zuten; eta aien egunean kantatzen omen zan –gaur ere kantatzen dan ez dakigu–, neska-mutillak alkarri eskutik artuta, eta doiñuak agintzen zuan eran pausoka ibiliz.

Kanta orrek sutan jartzen omen zituan altsasuarak. Ala, mutur-jokak bein baiño geiagotan izan omen dira bi errien artean, beren festa ori oso-agoa izan dedin edo...

Ni San Pedro ontan aurtengo ilbeltzean izan nintzan. Etzan, beraz, txori eta kirkir-kantarik entzuten. Aien partez, bele beltzak alkarren leian buillaka. Eguzkia makurtzen zijoan, eta zugaitzen adar soillen tartetik zeleta egiten zuan. Nere ondotik artaldetxo bat igaro zan zintzarriei eragiñez, artzairik gabe, bordara bidean. Gozamen ederra artu nuan basoaren bakardadean. Izadia, izan ere, urte-garai guzietan ederra.

El Diario Vasco, 1999-III-14



San Pedro ermita, Altsasua eta Urldain artean, Naparroan.

Euskaldun baten etorrera

DONOSTIAN garai artan urtero egin oi zanez, Lore-Jokoak ospatu ziran 1892-ko abenduaren 30-ean, bertako Teatro Zaarrean.

Aurrena, euskal kanta batzuk kantatu ziran. Ondoren bi antzerki antzeztu: Biktoriano Iraolaren *Onentzaro gaba* eta Toribio Alzagaren *San Tomaseko feriya*. Urrena, “izkribilari eta musikalarien indar-neurtzan sariztatuak izan diran izenen deia, eta sariya eman duten izkribuen irakurtza”. Bukatzeko, bertsolari-saioa.

Leenengo saria *Lore bat* izenekoak irabazi zuan. Egillea, Jose Ansuarena. *Accesit* edo aldaera, *Gernikako Arbola* zeritzaionak. Beraren egillea Jose Zapi-rain zan, donostiarra edo bertan bizi zana beintzat.

Beste auek *mención honorífica* lortu zuten: Jose Marino Arrietaren *Bizi bedi euskara*; Toribio Elola-ren *Pirri... pipi... pi*; Rosario Artolaren *Ipuiak*; eta Pedro Maria Otañoren *Ama Euskara*.

Otaño au, Zizurkillen 1857-ko ilbeltzaren 26-an jaioa eta Arjentinan urte-mordoa eginda, 1890-ean Euskal Erriratu zan. Etorri berria zan, beraz. Bertso-sail batzuk bazituan Donostian argitaratuak. Baiña auxe da, uste degunez, leiaketa batera bialdu zuan leenengoa.

Izenburuak salatzen duanez, gure izkuntza zarrari ama baten irudia ematen dio Pedro Marik. Pertsona biurtu, alegia. Ori bera egin zuan *Amets bat* izeneko saillean.

Une ontan ez nuke esango ortan aurrena bera izan ote zan. Baiña jarraitzailleak izan zituala bai. Txirrita bertsolaria eta Tolosako Ramos Azkarate, adibidez.

Ama Euskara sail onek zizurkildar bertsolariaren bertso gintza dotorea begien aurrean jartzen digu, naiz eta aren lanetan leenengoetako bat izan. Ikasle ibili gabeko maixua izan zan ura. Baiña bertso auetatik beste zumu bat ere atera diteke. Nola? Zuzenean diona alde bat utzi eta zearka agertzen duana gogoan artuta.

Lekutxo txiki eta zekenean bizi zan *Ama Euskara*, bereen ondoan. Auek, lanean gogor saiaturaz, “iritxi ziran larreak baratz biurtzera azkenean”.

Ala ere, lur txiki artan guzien diña gauza etzegoanez, seme batzuek txit urrutira joan bear izan zuten. Nora? Ameriketara geien-geienak.

Pedro Mariri ere orixe gertatu zitzaionez, une ontatik argi eta garbi ikusten da zizurkildarra sail ontan bere bizitza azaltzen ari dala.

Euskaldun aiek erri-miñak penatzen zituan: “ama gaxoa beste gauzarik etzeramaten gogoan”. Baiña Euskal Erritik zetozen berriak etziran pozgarriak. Besteak beste, fueroen galera, itxas onunzko eta arunzko euskaldunen biotza ainbesteraiño goibeldu zuana. Ala, jaioterrira itzultzea erabakitzen du aietako batek. Nor izan diteke au, Otaño bera izan ezik?

“Egualdi otzak ziran denboran, Egoarriak alde-ra” iritxi zan. Au ez dator bat Otañoaren bizitzan kontatzen danarekin.

Ontan azaltzen danez, uztaillean etorri zan, erdi gaixorik eta udara izan arren arropa berogarri bat jantzita. Baiña olerkariak badute erderaz *licencia poética* esaten dana, gauzak komeni zaien bezela jartzeko; eta au oietako bat izan diteke. Donostiako

Lore-Jokoak abenduan ospatzen baitziran, eta Pedro Marik aietaz mintzatu nai zuan.

Atze-errian bizitutako euskaldun orrek, Euskal Erriratu eta kalean topo egiten duan bati onela galdetzen dio:

- Bai al dakizu gure Ama ona non dan?

Bestearen erantzuna:

- Gaur gauean bere onran festa degu. Argatik apainduta noa. Atoz nerekin.

Anai leial onek besteen ondora eramaten du. Nora? Bilguma eder batera. Donostiako Teatro Zarrera, alegia. Lore-Jokoak egiten ziran tokia uraxe baitzan.

Pedro Mari, emezortzi urterekin Zizurkildik Argentinara joana eta urte-mordoa an igaroa, olakorik iñoiz ikusi gabea zan. Orregatik:

Nola etzuben ikusitzea
espero alako gauzik,
"Ama" deadar egiñ nai zuben
ta eziñ somatu itzik,
barren-barrendik Jaungoikoari
esker ematea baizik.

Txundituta gelditu zan areto artan ikusi zituenekin: kantuak, bertsolariak, olerkiak, antzerkiak, euskaltzale jende sutsua...

Ona azken bertsoa:

Ama onratzen ikusirikan
bere anai ta lagunak,
au esan zuben urrutitikan
etorri zan euskaldunak:
"Euskaragatik albiste txarrak
guri eman dizkigunak,

ez ditu ondo ezagututzen
gure itz ezti legunak,
alkar maiteak izan gaitzen
izen santu au degunak”.

1890-eko Lore-Jokoak ziran oiek. Andik bi urtera, berak *Ama Euskara* izeneko sail au aurkeztu zuan. Beste batzuk ere bai urrena, eta ez Donostian bakarrik. Lagun-mordoa ere egin zuan: Ramon Artola, Biktoriano Iraola, Frantzisko Lopez-Alen, Jose Zapiain, ... Zeru txiki bat izan zan arentzat Donostia. Etzitzaion mingarria izango, zortzi urte zoriontsu emen pasa ondoren ostera Arjentinara aldegin bearra?

El Diario Vasco, 1999-IV-2

Garai bateko mutikoak

ARJENTINAKO Córdoba-n, 1926 urtean, *Las aventuras de Learte* izeneko liburua argitaratu zan. Baiña izenburu luzeagoa du berez: *Fracasos de la fortuna y sucesos varios acaecidos a Don Miguel de Learte Ladrón de Zegama, natural de la ciudad de Sangüesa en el reino de Navarra*.

Learte ori 1730 urte inguruan jaio zan. Bere denboran milla komeri ezagutu ondoren, 1788-an, Córdoba ortan zala, bere bizitza idatzi zuan. Laburtu eta aldatu ditzagun onera bere aurtzaroari buruz ematen dituan berriak.

Gose-urte batean jaio zan. Amak bularrik ez eta zazpi illabetean iru iñude aldatu zizkieten, baiña irurak il ziran. Aita laugarrena ekartzera zijoala, amak onela esan zuan:

– Aur onek izurrite batek baiño jende geiago garbitzen du. Bera galtzea obeko degu, iñude geiago baiño.

Ala, esne eta olio-zopak eman zizkion andik aurrera. Baiña oso argala azi zan. Gaixotu eta ia iltzat eman zuten. Ondoren, baztanga eta sukar gaizto bat arrapatu zituan. Batean, arrebak botilla bat ardo utzi zuan deskuidoaren oiaren aurrean. Gaixoak, berriz, egarriak baitzegoan, jeiki, botilla artu eta *zanga-zanga* ustu egin zuan. Baita zerraldo lurrera erori ere. Oira jaso zuten. Bi egun pasa zituan korderik gabe. Baiña sendatuta esnatu zan.

Bai indartzen asi ere. Ala, bederatzi urte zituztala, etzan errian, amalau urtez beerakoetan, indarrez

eta arintasunez irabaziko zionik. Ezta ura bezelako pelotari, palankari, toreatzaille eta arrikalaririk ere. Ontarako, abailla erabiltzen zuan.

Batean, bi mutiko-taldek alkar desafiatu zuten arrika burruka egitera, San Frantzisko komentua-ren ondoko zelai batean. Ekin zioten, bada. Ura arri-zaparrada alde batetik bestera! Baratzen lan egiten zuan frailea, oartu zanean, paretaren gainera igo eta deadarka asi zitzaien, ez olako astakeririk egiteko, arren!

Mutikoak orduan berari eraso zioten. Baita frai-lea pareta gainetik lasterka jetxi ere. Bearko! Baiña bi zakur aundi askatu eta mutikoengana xaxatu zituan. Auek, ordea, arrika aiei ekin, eta bat akaatu. Besteak iges egin bear izan zuan, mutikoak atzetik zituala.

Komentura alderatzean, atean bi fraile topo egin zituzten. Mutikoak arrika eraso, eta aiek ere barrura korrika. Orduan arriak leioetara zuzendu zituzten, aal zana puskatuz eta berak neke-neke egin arte. Errira kantuz itzuli ziran gero, gerra bat irabazi izan balute baiño alaiago.

Biaramonean, eskolan sartutakoan, maisuak, gertatuaren berri ongi zekianez, zigortu nai izan zituan. Gizarajoa! Danak berari eraso zioten, tinta-ontziak, liburuak eta ladrilluak tiraka. Eskerrak anka egin zuan. Bestela, bertan akaatuko zuten. Mutikoak kalera berriz, beren garaipena oiukatuz.

Baiña nor bere etxera joandakoan, an banaka artu zituzten, eta bai ipurdiak ederki berotu ere.

Udalak agindu bat eman zuan: gurasoak beren semeak etxean edukitzeko iru egunean; eta gero, arrika egindako bakoitzean, erruki gabe zigortzeko. Ori egiten etzuanari, multa emango ziotela.

Batean, ikasle batzuk erreka baten ondoan zira-la, lagunak Learteri:

- Ezetz abaillarekin arrikada aietaraiño luzatu!

Abaila atera, arri bat jarri, tira eta ikasle bati txorkatillan jo zion. Ura andimandi baten semea zan, ordea; eta aitak maisuari gertaeraren berri eman zion, gauzak aundiagotuz, noski. Egurra, beraz, Learterentzat. Baiña onek, irtendakoan, aberaskumea jipoitu egin zuan. Ala, besteak ostera salatu, maisuak Learte zigortu eta onek bere eskola-laguna berriz berotu... Gauza bera arratsaldean eta biaramonean.

Urrengo batean, Santiagoko eliz-atarian pelotan ari ziran mutikoak. Ordubata jotakoan, danak eskolara. Learte, ordea, berandu iritxi. Atezain egiten zuan mutikoarekin erritan asi zan, batek sartu nai eta besteak ez utziz. Leartek muturreko bat eman zion atezaiñari. Onek, ordea, ladrillu bat tira eta anketatik odoletan utzi zuan ura. Leartek, orduan, bestea atzaparrekin eldu eta ladrillu berarekin kolpe bat eman buruan, ia il-zorian jarriz.

Ura ala ikusitakoan, Leartek iges egin zuan kanpora. Maisua atzetik oiuka, deabru ura norbaitetik arrapatzeko, arren! Zapatari batzuk artara atera ziran. Baiña Learte etxe zaar ustu batean sartu zan. Mutiko batzuk aren segika. Leartek pareta gaiñetik arrika eraso zien, eta aietako bi elbarritu.

Ondoren, baratz batean sartu zan. Amona bat antxe; eta, mutiko ura lapurren bat zalakoan, karrasika asi. Amonak Learte arrapatu nai izan zuan, baiña onek bultzatu eta ura lurrera. Altxa eta berriro mutikoagana. Leartek, ordea, beste bultzakada bat eman zion, eta atsoa an joan zan ankaz gora.

Learte mendira orduan, eta an izkutatu. Illundutakoan, Ilunberrira pasa, aaide batzuegana, an egun batzuk egiñez. Ondoren, berriz ere eskolara.

Maisuak, batean, lau mutiko bialdu zituan, eta oien artean Learte, piperra egindako beste bi muti-

koren billa. Batek amor eman zuan. Besteak ez. Daren artean menderatu eta an zeramaten. Emakume batzuk, ordea, ura libratu asmoz urbildu ziran. Leartek bizkarrera jaso zuan orduan. Baiña emakume batek anketatik tira, eta mutikoa lurrera. Baita Learte aren gainera erori ere, eta azpikoari anka autsi. Onen osaba apaiza agertu une artan. Illoba artu eta etxera eraman zuan. Ondoren, eskolara joan eta an erru guziak Learteri erantsi.

Au iges abiatu zan, baiña berandu. Ezin atera; eta maisuak sententzi gogorra eman zuan: mutiko bakoitzak seiná zigorkada emateko ari. Bat azpian jarri, Learte gainean, eta besteak zigorra astindu.

Baiña Learte orrek azpikoaren lepondoari ortzak itsatsi eta odoletan jarri zuan. Maisua orduan berari zigorka ekin. Ango karraxiak! Eskerrak zaldun bat sartu eta festari bukaera eman zion. Learte *Ecce Homo* bat bezela gelditu zan. Beste mutiko arek, berriz, egunak pasa zituan, ezin sendaturik.

Gauzak ala zirala, Learteren aita biaketik etorri zan. Gertatutako istilluen berri ikasitakoan, maisu ura erritik bialtzea lortu zuan. Semea, berriz, eskolara gabe merkatari baten dendan asi zedilla.

Denda artatik, berriz, Madrillera aldatu zan. Bidean abentura berriak izan zituala esan bearrik ez dago. Beste baterako utziko ditugu.

Bai; gaurko mutikoak biurriak dirala sarritan esaten degu. Ez det gezurra danik esango. Baiña gaurkoak bakarrik?

El Diario Vasco, 1999-IV-6

“Zuk il zenduen artzaia”

ORAIN ogei ta amasei urte, Txirritaren bertsoak, ateraldiak eta gertaerak biltzen ari nintzala, ostegun-arratsalde batez Ereñozura jo nuan, bertako Jose Oiarbide zanarengana. Onek argibide pran-ko emana zidan leen ere; baiña nik ala ere geiago nai. Aren etxean onela esan zidaten, ordea:

– Ernaniko perian da. Ordu ontan, ara joaten bazera, Zinkoeneko tabernan arkituko dezu.

Atzera Ernanira, beraz. Kaleak baserritarrez beteta zeuden. Zinkoenean antxe zegoan nik bear nuana, lagun batekin maai batean eserita.

Kafetxo bat artzera konbidatu ninduten. Laukote polita egiten genduan. Aiek biak, txapela eta guzi. Ni, berriz, sotana beltzez, orduan bear zan bezela. Eta laugarrena? Maaian, fuente batean zegoan bixigua, baiña ezurak bakarrik, mamiak ederki kenduta.

Josek lagunaren ezaupidea eman zidan: Bizente Oiarbide, Ereñozuko Txilibita baserrikoa. Onek, zer nenbillen entzundakoan, onela esan zidan:

– Txirrita, nere ama zanaren leengusua zanez, urtero gure etxean izaten zan bazkaltzen, baillarako festetan, San Antoniotan. Aren istori bat kontatuko dizut, nik nere aitari entzuna, eta onek Txirritari berari.

Nik papera atera eta bixiguaren ondoan jarri nuan. Ura kontu kontari asi zan, eta ni idazten.

Karlisten leen gerraren bukaeran, *Bergarako Besarkada* egindakoan, konforme etziran karlistak Frantziara alde egin zuten; eta gaiñerakoak, nork bere arma entregatu eta etxera. Ori egiten zutenei, duro bana zillar ematen zieten liberalak.

Uxategietan, Urepel kaskoaren ondoan, soldadu-mordoska bat gelditu zan. Toki ori Urumea eta Leitzarain ibaien tarteko mendietan dago, Naparroako eta Gipuzkoako mugan. Zer egin etzekitela zeuden eta bati onela esan zioten:

– Joan adi i Tolosara, eta gero bueltan esango diguk nola tratatu auten.

Joan zan, eta fusilla kendu, duro bat zillar eta bazkaria eman eta libre utzi zuten. Lagunengana bueltatu eta onela esan zion:

– Motellek, ez natxiotek gaizki tratatu. Duro bat zillar eta bazkaria eman zizkidatek beintzat.

Orduan, bat ez beste danak Tolosara joan ziran. Joan gabekoa Antonio Diostegi zeritzan. Ijitoa zan. Arek bertan jarraitu zuan, jatekoak aitu zitzaizkion arte. Orduan abiatu zan bera ere bere fusilla eta guzti, baiña bere txokora, Ernaniko Fagollagara, joateko asmoz. Artzai bat arkitu eta onela esan zion:

– Fagollagako bidea erakutsi zaidazu.

Artzaia bildurtu egin zan gizon armatu arekin, eta onela erantzun zion:

– Eguraldi txarra dator, ordea, eta aziendak bildu egin bear ditut...

– Aziendak beren gisa utzi eta atoz nere aurretik bidea erakusten.

Ez dago gizon armatu baten esanera jarriko ez danik. Ala, antxe abiatu ziran artzaia aurretik eta Diostegi ori fusillarekin atzetik. Bide-puska bat egindakoan, onela esan zion artzaiak:

- Adiskidea, neretzat diferentzi aundia dago zurekin joan edo aziendak bildu. Igo zaite aurreko mendi ortara -Mandoegira-, eta segi gero gaiñez gain. Onyi mendia ikusiko dezu eta, ara irixtean, jexti besterik ez dezu, Fagollaraga joateko.

Baiña Diostegik onela erantzun zion:

- Bi urte auetan makiña bat buelta eman ditut mendi auetan, baiña beti toki ontara atera izan naiz, bidea ezin asmatu. Segi, ba, gelditu gabe.

Segi, beraz, artzaia aurretik eta Diostegi fusilla-ekin atzetik, gaiñez gain. Bide luzea korrituta, Lepatxikira aillegatu ziran. Andik Fagollaga ikusten da. Artzaiak orduan:

- Fusil ontako kargazoiak gizona nola iltzen duan ikusi bear det orain.

Eta tiroa tira eta artzaia il egin zuan. Gero etxera abiatu zan.

Urte asko igaro ziran. Diostegi ori oso zaartuta zegoan. Gorputza makurtua eta ibilli ere bi makulurekin, anka ankari ezin aurreraturik. Larogei bat urte zituan. Bakarrik eta eskean bizi zan. Etzuan inork maite. Aurak ere aren bildurrez izaten ziran eta iges egiten zioten.

Gauzak jakin egiten dira eta, nola edo ala, jendeak bazekian Diostegi zala artzaia il zuana.

Ala, egun batez, Txirrita Fagollagako tabernan zan. Izbidea orrela etorrita, Diostegi ortaz ari ziran. Bazekiten ara etorriko zana eta onela esan zuan Txirritak:

- Batere biotzik baldin badu, jo gabe ere jarriko det nik ura marruz.

- Naiko lan! Zearo gogortuta ziok ori...

- Bai; jo gabe ere jarriko det nik ura marruz, sartu bezin laster. Gogoratuko zaio oraindik...

Ala, Diostegi orrek sartu eta onela esan zuan:

– Egun on!

Iñork etzion “baita zuri ere” erantzun; ezta kasorik egin. Jendea ixil-ixilik zegoan, Txirritak zer esango zion. Diostegi baso bat ardo artu eta maaira alderatu zan, basoa eskuan zuala. Orduan, bat-batean, bertso au bota zion Txirritak:

Larogei urte pasatu ditu
dirudiyela etsaya,
orain bi anak arrastaka ta
burua soiltzen asiya:
gizarajuak badu beregan
makiña bat desgraziya,
ez dago garai batian bezin
arrua eta lasaya,
beste munduan ikusiko du
emen il zuan artzaya.

Diostegik onela esan zuan:

– Zergatik etzidan bidea erakutsi bear neri?

Oraingoan ere etzion ñork erantzun. Danak begira zeuden. Taberna guzian etzan txintik ere aditzen. Eta Txirritak beste bertso au kantatu zion:


Kulparik gabe bota zenion
fusillako kargazoia,
gizon gaxuak aserretzia
ez al zuen arrazoia?
Diabru zarrak aditzen dute
zure animan usaia,
eriotzaren etor-bidurrak
estututzen du lasaia,
zu baiño gizon formalago zan
zuk il zenduen artzaia.

Diostegik, orduan, *dak!* maaian basoa kolpean

utzi eta alde egin zuan kanpora marmarka. Andik egun asko gabe il omen zan.

Oietxek izan ziran Ereñozuko Txilibita baserriko Bizente Oiarbideren itzak. Ondoren, aiek beren etxeetara abiatu, eta ni nerera, pozez ordea, arratsaldea galdu ez nualakoan, Txirritaren liburuari beste kapitulu eder bat eranstekoa gaia emana zidaten eta.

El Diario Vasco, 1999-IV-1



Orduñako Antiguako Amaren irudia, Txalazo mendian.

Inglesen guruzbidea Gasteizen

LEENGOAN, Julio-César Santoyo-ren *La legión británica en Vitoria* liburua irakurtzeari ekin nion. Bertako Aurrezki-Kutxak 1972-an argitaratu zuan. Ortik artuko ditut gaurko idazlan ontarako gaiak.

Karlisten leen gerratean, 1835-ean, liberalak laguntza ederra lortu zuten: *legión inglesa* izeneko amar milla soldaduren taldea, Lacy Evans jauna buru zutela. Ontzietan sartu eta Santander, Bilbo eta Donostiara ekarri zituzten. Bertan soldadu-egin-kizunak erakutsi eta urrian Gasteizen danak bildu.

Iri onek amar bat milla bizi-lagun zituan orduan. Baiña ogei ta amar millaraiño iritxi omen zan, gerra zala-ta etorri zitzaizkion soldaduekin. Aientzat ostatua nun arkitu? Etxe, estalpe, eliz eta konbentu zaarretan sartu zituzten. Lasto eta orbel pixka bat lurrean zabaldu eta aren gaiñean lo egin bear. Neguko gau otzetan etzan giro izango.

Abenduaren 4-an, soldadu aien desfilea. Ikus-kizun ederra izan zan ura gasteiztarrentzat. Bukatutakoan, festa eta dantza, militarren musika-banda eta erriko txistuaren soiñuarekin.

Baiña Eguberriak igarotakoan, ingles aiek gai-xotzen asi ziran. Andik laster, ospital guziak gaiñezka zeuden. Egiñaal guziak alperrik, ordea. Egunero soldadu-mordoa iltzen zan. Jaten oso gaizki ematen zieten, izan ere. Ortaz gaiñera, otza eta babesleku txarrak. Soldatarik pagatu ere ez.

Konbentuetan ildakoei, bertako baratzetan lur ematen zieten. Edo elizetako antziñako illobien ar-

-losa altxa eta il berrien gorputzak antxe sartu, garai bateko ezur zaarren gainean. Baiña baratzik edo elizarik gertuan etzutenak ere baziran, eta gorputz illez betetako gurdiak noiznai ikusten ziran kaleetan barrena, kanposanturako bidean.

Batean, emen lekurik ez eta ateak itxi egin zituzten erriko lur-emaleak. Baiña inglesak beste gorputz-karga batekin etorri eta ateak bota.

Oso negu gogorra egokitu zan, gainera: elurra, izotza, bee-laiño otza, aizea... Soldaduak, erri barruko eta inguruko zugaitzak bota egiten zituzten, eta egurretarako ekarri. Gasteiz aldea ederki soildu omen zan orrela.

Otsaillean gaitzak indar berria artu zuan. Illak ugaldu eta zuloetan seinaka eta zazpinaka sartzen zituzten. Zenbat ingles il ote ziran negu artan Gasteizen? Zazpireun, idazle batek dionez. Beste batek, milla. Eta iru milla il zirala dionik ere bada.

Batek onela idatzi zuan: "Soldadu errukarri auek ibiltzeko ere gauza ez dira. Tifusak ondatu ditu". Gaitz kutsakor ori zebillela uste baitzuten.

Bitarte ortan, Gasteizko jendea beti bezin osasuntsu zebillen. Ori bai: badaezpada ere, inglesekin aal zan gutxiena tratatzen zuten.

Irlandarrak ere baziran *legión inglesa* artan, eta albo-erri batean zeuden: Arriagan. Aiek, ordea, bizkor zebiltzan. Ala, martxoaren 17-an, San Patrizio beren zaindariaren eguna ospatu zuten: gaita-soiñua, kantuak, dantzak, umore ona... Indarrez gainezka dauden gizon gazteak egin oi dituzten festak, alegia. Aiek ikusita, inglesetako buruzagiak arritu egiten ziran. Onela zioten:

- Gure mutillak zergatik etziran Donostian, Santanderren eta Bilbon gaixotu, eta emen bai? Irlandar auek ere sasoiz beteta ikusten ditugu. Zer deabrukeri gertatzen da emen?

Ingles mutillak, Gasteizen gauza onik etzegoa-la-ta, karlistetara pasatzen asi ziran. Oietako bat, Richardson sarjentoa. Andik eskutitz bat bialdu zion Nangles izeneko bere illoba bati, onela esanez:

“Emen ongi tratatzen gaituzte. Soldatak xuxen pagatu, eta jan ere ondo. Etorri zaitte. Orko okin baktek lagunduko dizu; Jose Eloseggi beraren izena”.

Illobak, ordea, osabaren esana egin bearrean, karta ori kapitanari erakutsi zion; onek bere nagusiei; eta auek beren azarikeria prestatu. Nangles ori Jose Elosegirengana joan zedilla, alegia, karlistetara pasa nai zuala esanez.

Elosegik etzion leenengo itzetan aurrerabiderik eman. Ingles soldadu guzientzat ogia egin bearra naikoa zuala erantzun zion, istillu berritan sartu gabe. Baiña besteak osabaren eskutitza erakutsi zion, eta orduan baietz: lagunduko ziola. Nangles orrek beste zazpi soldaduk ere pasa nai zutela esan zion; eta Elosegik, ezer txarrik usaitu gabe, aientzako ere baietz agindu. Eguna ere izendatu zuan.

Ala, esandako egunean, illundu eta gero, Nangles ori bere lagun batzuekin okindegian presentatu zan. Aien artean kapitan bat ere bai, sarjentoz jantzita. Elosegiren etxean karlisten ispi bat zai zuten. Etsaietara eramango zituana, alegia.

Elosegik baserritar jantziak eman zizkien, eta mando batzuk aientzat ekarri ere bai. Ala, talde ura an abiatu zan, arabar nekazari batzuk balira bezela. Baiña erritik kanpora baiño leen, soldaduak zein ziran agertu eta gidaria preso artu zuten. Andik Elosegiren etxera, eta ari ere atzaparra erantsi.

Gertatuaren berri laster zabaldu zan Gasteizen: bi ispi atxilotuak zirala; eta oietako bat Jose Eloseggi zala; inglesentzat ogia egiten zuana.

Orduan andik eta emendik azterketan asi, medikuak-edo analisak egin eta Elosegiren ogiak bi po-

zoi-mota zituala azaldu zan. Uraxe izan ingles soldaduak beste mundura bialtzen zituana! Aientzat patarra ere berak saltzen zuan, eta au ere pozoiduna. Aren etxean sartu, goitik beera miatu eta pozoi ugaria arkitu zuten.

Elosegik, bere buruaren alde zerbait ba ote zuan galdetutakoan, erruduna zala aitortu zuan, baiña errukia eskatzen zuala. Etzioten kasorik egin, ordea. Nola barkatuko zioten, gerra-denboran gaiñera, ainbeste eriotz egiña zanari?

Martxoaren 28-an, goizean goiz, maillu-ots ugarria zan Gasteizko Plaza Zaarrean. Oltzadura altxa bear zuten arotzak ziran. Bertako eta kanpoko jendea asi zan biltzen, eta bai ingles asko ere, plaza bete-bete egin arte. Arratsaldeko irurak aldera, beltzez jantzitako bi gizon azaldu ziran, borreroak alegia, eta beren prestaketak egin zituzten.

Urrena, danbor-otsa entzun zan, eta jendea ixildu. Soldadu-talde bat zetorren, jende tartean biga egiñez. Atzetik, berriz, ogei bat apaiz, eta ondolik kondenatuak.

Elosegi igo zan aurrena. Apaiz batekin zerbait itzegin zuan, eta gurutze bati musu eman. Gero, borreroak lotu, eseri arazi, lepoan uztaia jarri eta esututu egin zuan. Soldaduak pozezko oi u bat egin zuten. Urrena, bigarren errudunaren txanda.

Andik laster plaza utsik zegoan. Ildakoen gorputzak beste ordubete bat eduki zituzten kendu gabe, jendearen eskarmentagarri izan zitezen.

Erremate ura izan zuan, denbora geixeago izan balu, *legión inglesa* guzia garbituko zuan okin arek. Nolako arrera egin ote zioten beste munduan berak aurretik bialdutako aiek danak?

Zerutik lurrera zenbat bide

FRAY Santiago de la VoráGINE Frantziako domini-ko bat izan zan, 1264 urte aldera, liburu aundi bat latinez idatzi zuana; santu-bizitzen bilduma bat, alegia, gazteleraz *La leyenda dorada* esaten zaiona.

Liburu ori bein eta berriro kopiatu eta esku-idazkietan zabaldu zan berreun bat urtetan. In-
prenta etorri zanean, berriz, Jaungoikoak bakarrik daki zenbat aldiz eta zenbat izkuntzetan argitaratu zan moldezko letretan.

Liburu ortan, San Andresen berri ematerakoan, apostolu onek artean munduan bizi zala egindako zenbait mirari kontatzen dira. Baita zerutik egin zuan beste bat ere. Azkeneko au ager dezagun.

Nunbait ere ba omen zan gotzai bat birtutez oso jantzia eta San Andresi debozio aundia ziona. Egin-kizunen bat asterakoan onela esaten zuan beti: "Jaungoikoaren eta San Andresen aintzarako..."

Baiña inpernuko etsaia ura galdu bearrez zebillen. Damatxo polit baten itxura artu eta gotzai orren etxeko ateak jo zituan. Zer nai ote zuan galde-tu zionari, aitortu nai lukeala erantzun zion. Orta-rako zegoan apaizarengana joateko, bada. Baiña ezetz eta ezetz; berak gotzai jaunarekin bear zuala. Ala, au etorri eta damatxo orrek onela eman zion asiera bere aitortzari:

- Ni errege baten alaba nauzu, orain arte aren jauregian bizi izana. Oneraiño bakarrik eta erro-mes-jantzian nola etorri naizen? Nere aitak printzi-

pe batekin ezkondu arazi nauelako. Nik zera esan diot: ezkontzeko gogorik ez dedala, Kristoren emazte izan nai nukeala eta. Baiña alperrik. Aitak ez dit kasorik egiten, eta ni beartu-asmoak ditu. Ala, iges egin det. Zure birtuteen aditzera banuan, gotzai jauna, eta laguntza eske natorkizu. Jauregi ontan txokoren bat utziko al didazu, otoitz-bizitza egin aal izateko?

Gotzaiak onela erantzun zion:

– Bai, alaba, bai. Goiko Jaunagatik gauza asko utzi dituzu, eta ni aren serbitzari bat naiz. Nere etxe ontan jende asko bizi da, eta zurekin bat geiago. Gelaren bat aukeratu eta antxe geldi zindezke. Eta gaur nerekin bazkalduko dezu.

Jangelara sartu eta biak aurrez aurre eseri ziran. Ondoan, gaiñontzeko bazkaldarrak. Gotzaia erne zegoan, damatxo arek ezeren faltarik izan etzezan. Baiña begiratu bakoitzean onela pentsatzen zuan: “Olako lore ederrik ez det nik santa sekulan ikusi!”. Eta begiak ezin zituan iñola ere arpegi polit artatik kendu.

Alakoren batean, ateko aldaba-otsa entzun zan; eta gotzai jaunak onela esan zion aurrean zeukan damatxoari:

– Eskaleren bat izango da. Atea zabalduko al diogu?

Besteak erantzun:

– Aurretik zerbait galde dezaiogun, ea zer erantzuten duan. Or ikusiko degu burutsua dan ala ez. Argia bada, aurrera; ez bada, ez dedilla gotzai jauna molestatzera etorri.

– Ongi dago. Baiña zerorrek esango dezu zer galdetu bear zaion.

– Auxe galdetuko diogu, bada: zer ote da Jaungoikoak gauza txiki batean egindako miraririk aundiena?

Serbitzari bat ate ondora joan eta bereala etorri zan, onela esanez:

- Erromes bat da, eta onela erantzun du: Jau-naren miraririk aundiena gizakien arpegia dala. Munduaren asieratik zenbat milloika arpegi moldatu ote ditu? Mundua bukatu bitartean beste zenbat milloi moldatuko ditu? Ala ere, ez dira izan, eta ez izango ere, bi arpegi guztiz berdiñak. Ortaz gaiñera, leku txikitxo ortan pertsonaren zentzuak jarri ditu.

Bazkaldar guzien txaloak jaso zituan erantzun orrek. Baiña damatxo arek onela esan zuan:

- Bigarren galderatxo au egin dezaiogun orain: lurra nun ote dagoan zeruaren gaiñetik.

Ate ondoko erromesak onela erantzun zuan:

- Jaungoikoaren eskubi aldean. Antxe baitago Jesukristo, guk bezelako gorputza duana. Gurea, loiez egin baitzan, lurra da. Jesukristorena ere bai, beraz. Ala, lur ori zero guzien gaiñetik dago.

Bazkaldarrak arritu egin ziran erantzun egoki orrekin. Baiña damatxoak onela esan zuan:

- Irugarren galdera egin dezaiogun: zerutik lurrera zenbat bide dagoan.

Serbitzaria ate ondora joan zan, eta ango erromesak onela erantzun zion:

- Galdera ori neri egitea agindu dizunari auxe esan zaiozu: berak oso ondo jakingo duala edo jakin bear lukeala ori, ondo neurtzeko aukera ona izan zualako, goiko zerutik bota eta beeko zuloraiño erori zanean. Bidenabar esaiozu gotzai jaunari, aurrez aurre daukana ez dala berak uste duana.

Serbitzaria, ikaratuta, jangelara itzuli zan, eta ate ondokoaren erantzuna errepikatzen asi ere bai. Baiña bukatu baiño leen, damatxo ura danen begietatik galdu egin zan. Serbitzaria berriro ere atea ondora bialdu zuten orduan, ango erromesari barrura

sartzeko esatera. Baiña ura ere andik aldeginde zegoan.

Gotzai jaunak onela esan zuan orduan bere artean: "Damatxo ori inpernuko etsaia zan, beraz, ni tentatzera etorria. Ateondoko erromes ori, berriz, San Andres, ni salbatzera zerutik jetxi dana". Eta esker beroak eman zizkion bere biotzeko santu oni.

Irugarren galdera orrek ez al dio irakurleari zerbait ere gogora arazi? Batean, Gregorio Mujikak bere *Pernando Amezketarra* liburuan kontatzen duenez, bi frailek Pernandorekin topo egin eta onela galdetu zioten:

- Emendik illargira zenbat bide dago?

Eta amezketarrak erantzun:

- Emendik illargirako ori oso zailla da; baiña illargitik onera balitz, zerbait esan nezake: amabiak laurden gutxitan illargitik fraile bat botako baluteke, amabi-amabietan erretore-etxean...

Illargia esan bearrean, zerua jartzen badegu, damatxo baten itxura artutako deabruaren irugarren galdera degu.

Zer esan nai du orrek? Fraile aiek santuen bizitzak kontatzen dituan eta *La leyenda dorada* izenburua duan liburu ori irakurriak zirala. Pernando toreatzeko zerbait bear eta or ikasitako galdera orrekin asi zirala ari adarra jotzen.

Pernandori etzitzaion zeruko santurik laguntzera etorri. Baiña Jaunaren doai berezi eta arrigarri batez jantzita zegoan, eta arekin naikoa izan zuan praile aiekiko lanak egoki eta dotore egiteko.

El Diario Vasco, 1999-V-7

Patxi Erauskin bertsolaria eta Sanjurjo jenerala

PATXI Erauskin bertsolaria –Patxi Errota ere esaten zioten– Zaldibin jaio zan, 1874-IV-10-ean. Bertso-jartzaille ugaria izan zan. Aren bizitza eta bertsoekin *Auspoa*-ren iru liburu osatu genituan.

Soldaduskara joandakoan, Madrillera eraman zuten leenengo. Gero, kabo izendatu eta Kubara bialdu, ango gerra-urteak ziran eta. Habanara 1896-II-29-an iritxi zan.

Aren seme Joakinek aitaren *licencia absoluta* izeneko papera gordetzen du. Agiri onek Patxiren ango ibillerak azaltzen ditu, makiñatxo bat toki-izen emanez: Guanabaco, Managua, Cantarranas, Guanajey, Candelaria, Potrero Romea, Cayajabos, Guayabo, Frejolillo... Bi euskal izen ere bai: Mendieta eta Múgica. Emengo umeak lurralde aietara ere iritxiak, alegia.

Burrukaldiren batean, kubatarren buruzagiren bat il zan. Aren erlojua ofizial batek eraman zuan; baiña katea eta oni erantsita zegoan brujula Patxi Erauskinnek artu zituan. Gaur egunean, onen seme Joakiñek gordetzen ditu.

Cruz de plata del Mérito Militar eman zioten Patxiri. Etzan, beraz, atzean gelditzen diranetakoa.

Gerra artan ere makiña bat amaren seme alper-alperrik il zan. Baiña tiroka baiño geiago, lurralde bero aietako gaitzez.

Ona gerra orri buruz Patxik urteen buruan jarritako bertso bat:

Zenbait seme eder bala granadaz
ill da sartzen da lurpera,
arkaitzak negar egin lezake
konparazio batera;
zer estadutan arkitzen geran
ortik kontuak atera,
mutil solteroak izango ditin
andregaietzaz aukera.

1898-III-21-ean, gaixorik zegoala-ta *Montserrat* itxas-ontzian Kadizera bialdu zuten. Urrena, Donostiako kuartelera. Eta urtearen azken aldera, etxera, soldaduska bukatuta.

Andik laster sartu zan Ipar-Amerika gerran, Txirritak urteetara esango zuana gertaturik:

atzenerako estranjerua
egin zan islaren jabe,
len ere Kuba saldu ziteken
oinbeste gizon ill gabe.

Onera etorri eta pakezko bizitzari ekin zion Patxi: lan egin, ezkondu, seme-alabak azi... Baita bertsoak jarri eta paperetan zabaltzeari ere: Billafrankako 1913-ko misioa, Anton Enbustero eta Juana Patarrerak alkarri jarriak, Gora gure Euskalerrria, Amabost urteko katu gazte bati jarriak, "Amar artzai mutillak egin degu junta", eta abar eta abar.

Eusko abertzale sutsua zanez, bertsoen bidez zabaltzen zituan bere iritziak. Tamalez, garbitu-ustez, trakestu egin zuan bertsoetarako izkuntza.

Baiña Kubako oroipenak etzitzaizkion iñola ere atzentzen. Gogoan zeukan bere ango teniente bat, bera baiño bi urte zaarragoa. Iruñeko semea eta Jose Sanjurjo zeritzana. Au Donostiara etorri zan ba-

tean, alkar agurtu omen zuten.

Ala, 1932-V-2-an, eskutitz bat idatzi eta bialdu zion Patxik bere tenientea izan eta orduan jenerala zan orri. Osorik kopiatzeko luzetxoa izanik, ona zati bat:

“Estaba V. E. en Santi Spiritu enfermo el 7 de Julio, y no pudo acudir al combate de Asiento de Magulla. A mi regreso me dijo: ‘No he podido ir a ese combate y he perdido un ascenso, pero he sabido que tú te has portado bien y te voy a proponer para sargento’.

Recuerdo que al iniciarse este combate separé de un árbol un papel que decía: ‘Hoy morirán todos los españoles que pasen por aquí’. Entregué el papel a D. Arturo Albergorti, el cual sonrió despectivamente, pero me dijo: ‘¡Mucho cuidado, Cabo de Tiradores, que estamos enfrente del enemigo!’.

¿Se acuerda del Teniente Sanjurjo cuando nos enardecía con sus arengas? ‘¡Muchachos, mis soldados serán lo que se quiera, pero cobardes no!’ Poco después hirieron en un brazo a V. E. y fue ascendido a la península, pero le reintegraron pronto a la manigua.

La última noche que paré cerca de V. E. fue en Río Pelayo, cerca de la zona de Santi Spiritu. Por cierto que descansaba en una hamaca suspendida entre dos árboles; yo dormía en una corteza de palmera. V. E. me preguntó: ‘¿Qué tal, Cabo Erausquin?’. ‘Algo más molesto que V., mi Teniente’ le contesté. ‘Bueno –replicó V. E.–, estas cosas son interesantes para contarlas cuando seamos viejos’.

Erantzuna bereala etorri zan, 1932-V-9-n firmatuta:

“No sabe Vd. bien cuánto me ha deleitado la lectura de su cariñosa carta del 2. A Dios gracias, se ha cumplido para ambos la profecía que hicimos en Río Pelayo, de contarnos aquellas escenas cuando viejos. No se borra nada de mi imaginación y veo con complacencia que conserva Vd. una memoria feliz, pues las citas que hace están en lo suyo, perfectamente.

Me satisface infinito que se encuentre bien y tan elogiado entre los suyos por su sabiduría como el más famoso versolari”.

Patxik etzion bertsolaria zanik esaten. Baiña Sanjurjok bazekian ori eta zorionak ematen dizkio.

Aien politika-irritziak oso ezberdiñak ziran, Sanjurjo militar eta eskubitarra izanik, eta Patxi, esan degunez, eusko abertzalea. Beraiek ere ongi jakingo zuten ori. Alde batera utzi, ordea, gazte-denborako adiskidetasunarekin jarraitzeko.

Baiña andik lau illabetera, 1932-VIII-20-an, egunkari eta irratiak lau egaletara aideratu zuten Sanjurjoren izena. Sebillan armetan altxatua izan ura, errepublikaren aurka. Porrot egin zuan, ordea. Preso artu eta iltzera kondenatu zuten.

Berri oiek entzundakoan, zer iritzi ote zion Patxik? Pena artuko zuan, bere lagunaren asmoekin bat ez etorri arren. Baiña bizia barkatu egin zioten Sanjurjori; eta 1934-an, Duesoko presondegian bi urtean eduki ondoren, *amnistía* eman eta erbestera biali. Portugalera joan zan.

Andik bi urtera, uztaillean, Sanjurjoren izena berriz ere aoz ao, altxatutako militarren buru izatera zetorrela egazkiñak lur jo eta il zanez. Aideplanoaren gidaria gipuzkoarra zan, ain zuzen: Ansaldo, Aretxabaletako semea. Au bizirik atera zan.

Patxik, bere tenientea izandako ura zertara zertorren igerriko zion noski. Ala ere goibeldu egingo zan, bere gazetako laguna orrela bukatzearekin.

Geroztikako urteak tristeak izango ziran Patxi-rentzat. Arek gerraz geroztik jarritako bertsorik ez degu arkitu. Sanjurjoz oroitzen ote zan? Ez dakigu. Azkenean, burua pixka bat galdu egin zitzaion, odolak bear bezela korritzen ez eta. Ala, 1945-XII-22-an il zan, Ordizian, irurogei ta amaika urterekin.

Errioxako Zaindariaren oiñetan

NAJERATIK gora noa, Najerilla ibaiaren ondotik. Erreka-zulo beltza onako au, mendiak artez jantzita daudenez.

Anguiano erria pasa eta amar kilometrora eskubira artu det; eta, *Cruz Blanca* deritzaion gurutzera iritxitakoan, ara an urrutian Valvanerako Ama Birjiñaren eliza. Bera da Errioxako Zaindaria.

Iritxi baiño leen, ermita zaar bat, arkaitz biziaren azpian eta zugaitz tartean. Bertan idazki au: "*Aquí recibió el primer culto la Santísima Virgen de Valvanera, después de su descubrimiento*".

Santutegi au, Arantzazukoa bezela, menditarte estu eta sakon batean dago, egalean ordea, beeko zuloa baiño goraxeago. Baiña Arantzazu aldean arkaitza da nagusi; emen, berriz, basoa: aritza, artea, piñua, pagoa...

Mendi aundi-zabalak auek. *Sierra de la Demanda* esaten zaie gaur; leen, *Montes Distercios*. Elurra badute oraindik, martxoan geranez. Danen nagusi, San Lorenzo izenekoa, 2262 metroekin.

Arkupe batzuen azpitik pasa eta beste aldean iturria. Tragoska bat edan, eseri eta begiei gozatu bat eman bazterrak ikusiz.

Beste iturri bat ere bada beerago, erriak santutzat daukana. Gero joango nintzala, baiña aaztu. An edana omen zan Isabel *la Católica* erregiña. Felipe II-ak, berriz, berak bertaraiño ezin etorri eta emengou ura Zaragozaraiño eramatea agindu zuan.

Beste iturri onen ondoan nagoala, eta emengo berri ikastearren, liburu au irakurtzeari ekin diot: *Victoria Martínez López: Valvanera. Logroño, 1997.*

Batzuek diotenez, San Atanasio, Alejandriako gotzaia, Nizea-ko Batzar Nagusian Arrio erejearen aurka jardun ondoren, Espaiñiara iges etorri zan, eta Valvanera ontara erretiratu. Emen, berriz, sukaldari-lanak egin. Surtarako gurdikada egur asko ekartzen ziran. Bai gastatu ere; baiña errautsa beti neurri berean. Mirari ori ikusirik, errromesak errauts ori artu eta eraman egiten zuten.

Erdi Aroan, Nuño Oñez izeneko gizon bat, lapurra eta gizon-iltzaillea, inguru auetan zebillen. Batean, nekazari bat ikusi zuan, bere idi-parearekin lanera zijoana. Ari ganaduak ostutzea pentsatu zuan. Urbildu eta sasi baten atzetik zera ikusi zuan: nekazariak belaunikatu eta onela ziola:

– Zeruko Jauna, orain ereitera noan gari onek uzta ugaria eman dezala, arren, gizon guziak, bai onak eta bai gaiztoak, zer jana izan dezaten.

Itz oiek sasi tartetik zeletan zegoanaren biotza ikuitu zuten. Onela esan zuan:

– Gizon ori beti lanean eta danen alde otoitz egiten. Ni, berriz, munduko piztirik gaiztoena naiz, idi-parea ostu eta bera il egin nai nuana. Ez olakorik geiago! Aurrerantzean otoitz-bizitza egingo det!

Sasi tartetik negarrez atera zan, eta nekazariari barkazioa eskatu. Gero, Anguiano erriaren ondoko arkaitz-zulo bat artu zuan bizilekutzat. Semetxo bat ere berekin izaten zuan. Batean, aur ori uretara joan, arkaitzetan beera ibairaiño amilka erori eta an il zan. Aitak negar egin zion, baiña bere otoitz-bizitza ortan aurrera segitu zuan.

Brieva erritik gizon bat etorri zitzaion, Domingo izenekoa, apaiza, berak ere bizimodu ori egin nai zuala eta. Bein, Domingo ori zer janaren billa atera

zan. Nuño, berriz, arkaitz-zuloan gelditu, otoitz egiñez. Eta aingeru batek azaldu eta onela esan zion:

– Valvanera-ko zokoan, aritz aundi bat ikusiko dezu, beste ango zugaitzak baiño altuagoa, oiñetan iturri bat duana, eta barruan erlauntz bat. Joan eta arbol ori bota ezazu. Aren biotzean Zeruko Amaren irudi bat arkituko dezu. Toki ortan aldare bat egin ezazu; eta arbolaren zurarekin gurutze bat.

Nuño segituan abiatu zan, makil bat eskuan artuta; eta, errekan gora joanda, esandako lekura iritxi. Begiak altxa eta aritz bat antxe ikusi, burua beste zugaitz guzien gainetik altxatzen zuana. Bertara joan aal izateko, sasi tartean bidea irikitzen asi bear izan zuan. Bai egunak pasa ere egiteko ortan.

Bitartean, bere lagun Domingo arkaitz-zulora etorri eta an iñor ere ez. Tristetu zan. Baiña Nuño etzeterren eta, bakardade aundiagoko leku baten billa joana izango zalakoan, ekin zion berak ere errekan gora. Valvaneraiño iritxi eta an lagunak sasi tartean irikitako bidexiorra arkitu zuan. Laster ziran biak besarkada batean lotuta. Andik aurrera errezago iriki zuten bidea bien artean. Aritz mardul artaraiño iritxi ziran. Bai bota ere, eta ura erleen eman! Ondoren, ango ezta janda indarberritu. Eta Ama Birjiñaren irudia ere barruan. Gero, ermitatxo eta aldare bat altxa eta bertan gelditu ziran.

Erromesak nunaitik etortzen asi ziran. Eliza bat eraiki eta praile-talde bat bertan jarri ere bai, beneditarrak alegia. Ala, toki au santutegi eta komentu ospetsua izan zan XIX mendera arte.

Frantzestean, ordea, 1809-I-21-an, *guerrillero* batzuk emen babestu ziran. Baita atzetik etorri ziran frantzesei tiroka ekin ere, eta bi soldadu lurrera bota. Orduan frantzesak santutegiari su eman.

Beste zenbait urte-mordoska pasa zan; 1835-ean, praile guziak beren komentuetatik bialduak

izan ziran. Bai emengoak ere, lekua utsik utzita.
Ordukoa degu kopla au:

*Virgen de Valvanera,
¿qué haces ahí sola,
sentadita en tu roble
como pastora?*

Ori ikusirik, Brievako erriak bere parrokira eram-
an zuan irudia. Baiña 1880 urtean santutegi au
berritu asmoak artu ziran. Naparroko Kaskante
erriko semea zan eta Anai Tiburtzio esaten ziotena
bertan gelditu zan, zaintzaille bezela. Beneditarrak
atzera etorri ere bai ondoren. Eta azkenik, 1885-XII-
22-an, Ama Birjiñaren irudia bere betiko lekura
ekarri zuten, eta geroztik ementxe dago,

Elizan sartu naiz eta emengo argizai-usaia! Al-
dare nagusian, izan ere, kandela pilla piztuta dago
Ama Birjiñaren oiñetan. Usai orixe zan garai batean
elizetan arnasten zana, argizaiolak-eta zabaldua.
Nere sudurra bai bereala oartu eta oroitu ere.

Camarín izenekora igo naiz. Irudi ederra da, be-
etik dirudian eta Erdi Aroko auek izaten diran bai-
ño askozaz ere aundiagoa. Bakarrik bainago, den-
bora puska bat gustora egin det emen. Leioetako
kristaletan, Ama Birjiñaren agerpena adierazten du-
ten marrazkiak: Nuño, nekazaria iltzera eta idi-pa-
rea ostutzera dijoala, zerua zabaldu eta esku batek
beraren asmoak aldatu egiten ditu. Baita irudiaren
azalpena ere, aritz mardul baten barruan.

Kanpora irten naiz. Ez da entzuten beeko zulo-
ko errekaeren otsa besterik. Martxoan geranez, zozo-
ak ere asi dira kantari. Eguzkia atera da eta gaillu-
rretako elurrak diz-diz egiten du...

El Diario Vasco, 1999-V.26

Ama Birjiña, zalduna eta zubia

ZANGOTZAKO Santa Maria eliza erromanikoa da, eta 1889 urtea ezkeroztik *monumento nacional*. Bertako aldare nagusian, *Virgen del Rocamador* izeneko irudia ikusiko degu.

Ama Birjin onek ere badu bere *leyenda* edo kontakizuna. Baiña urak oso urrutitik artu bearko ditugu oraingo ontan.

Zakeo, Jesukristok konbertitu zuan zerga-kobratzaille ura, gure Salbatzaillea zerura igo ondoren, orduan Galia eta gaur Frantzia esaten zaionera etorri omen zan, Queroy lurraldera, *Valle Tenebroso* edo *Aran Illuna* esaten zitzaion basamortu batera, otoitz-bizitza egiteko asmoz.

Ama Birjiñaren kuadro bat ere ekarri omen zuan, San Lukasek berak pintatua, batzuek diotenez.

Inguru artako jendeak, aren bizimodua ikusiz, izen berria erantsi zion Zakeori, latinez noski, ango orduko izkuntza bera zanez: *Amator rupium*. Gazte-leraz *Rocamador*, alegia; eta euskeraz *Arkaitzen maitale* edo *Arkaitz-zale* esango gendukeana.

Baiña arek an altxatu zuan ermitatxoa, arkaitz batek zapaldu egin zuan, goitik beera amilduta. Orduan santutegi berria eraiki zan. Gaur dagoan bezela, XVII mendeko lana omen da.

Irudi ori, Ama Birjiña eserita eta Aurra aren be-launetan, Frantziako zaarrena omen da, eta zillarr-zko axial mee batez estalita dago.

Goiko kanpaia, Ama Birjiñaren mirariren bat zanean, bera bere kasa jotzen asten omen zan.

Andra Mari orren debozioa Frantziatik kanpora ere zabaldu zan. Ala, *Rocamador* izeneko santutegiak badira an eta emen. Oietako bat Zangotzako au. Bestea, Lizarran. Bestea, Sebillan. Tudelan ere izan omen zan garai batean. Bai Portugalen ere.

Zangotzako eliz onen barruan kuadro bat gordetzen da, Ama Birjin orren mirari baten oroigarri dana. An zubi bat ikusten da, beean ibaia eta gainean zaldun bat, aurretik eta atzetik etsaiak dituana. Beeko barrenean, berriz, itz auek: *Ex traditione perantiqua munita vetusto lapide pontis*. Euskeraz onela esango genduke: Zubiaren arri zaar batean oiñarrituta dagoan antziñako tradizio batetik.

Zaldun ori, diotenez, Aibarko burrukalditik zetorren. Ango gataska zer izan zan esan dezagun, beraz, Moret kondairalariak kontatzen duanez.

Anai arteko gerra zebillen orduan Naparroan. Alde batetik, Juan II, Aragoiko erregea jaiotzez eta Naparroakoa ezkontzaz. Bestetik, berriz, Karlos, Bianako printzipea, Naparroako errege-koroia amarengandik tokatzen zitzaiona. Aita-seme oiek etziran ondo konpontzen eta armetara jo zuten.

Aibarko erria semearen alde zegoan. Aitak, bere soldaduekin etorri eta inguratu egin zuan. Ori jakindakoan, semea ere ara urbildu zan bere gizonekin. Konponbidea ia egiñik zeukatela, ez bat eta ez bi, burrukan asi ziran.

Semearen indarrak eraso eta aitarenak aurrean zeramazkiten. Baiña auetako batek, Rodrigo de Rebolledo zeritzan zaldunak, bere lekuari gogor eutsi eta geldi arazi zituan etsaiak. Ori ikusiz, iges zijoa-zenak buelta eman zuten, eta orduan berak eraso. Ustegabeko orrekin atzeraka asi ziran printzipearen aldekoak. Onek, ala ere, bere aita ia arrapatu zuan.

Baiña onekin zan beste semeak saietsetik jo zuan orduan, ogei ta amar bat zaldunekin bakarrik bada ere, eta Karlosen gizonak sakabanatu egin ziran, Bera, berriz, preso erori.

Burrukaldi ori galdutakoan, semearen aldeko zaldun bat iges abiatu zan, etsaiak atzetik zituala. Aibartik Zangotzara etorri eta emengo zubian sartu zan. Baiña, erdiraiño iritxia zala, aurreko puntan an ikusi zuan, bidea itxiz, beste etsai-talde bat. Auen poza, alako txoria eskuan zutela ikusiz! Onela otsegin zioten:

- Errenditu zait!

Zaldun ura, bera zubiaren erdian eta aurrean eta atzean etsaiak zituala, galduta zegoan. Estuasun artan zer egin? Ama Birjiñari oi u eta erregu:

- *Rocamador*-ko Ama, salba nazazu!

Eta zaldiari eragin, zubi gaiñetik uretaraiño salto egin, ibai-bazterrera atera, ango makal arbolen tartetik izkutuan segi eta onik atera zan. Ilunberri-rariño joan eta an arkitu zuan babesa.

Zangotzako zubia oso aldatuta dago. Ordukoa erromanikoa omen zan. Dana arrizkoa, beraz. Gaurkoak, berriz, burni asko du, goiko aldean beintzat.

Nik, Zangotzara etorri eta denboraz banabil, pauso jakiñak izaten ditut beti edo geienetan. Kale nagusian barrena, udaletxeko arkupeetatik pasa. Aien artetik gaztelu zaarra ikusi. Urrena, Santa Maria eliza, bere torre eta sarrera ikusgarriekin.

Gero, zubiaren erdian gelditu, Aragoi ibai alde-
ra begira. Ur garbiak auek. Zenbat enbor pasa ote ziran garai batean emendik barrena, zenbat *al-
m-dia* alegia, Erronkaritik Zaragozaraiño edo Medite-
rraneoraiño joateko? Iparraldera, urrutian, Leireko
gaillurrak, Arangoiti izenekoa danen nagusi dutela.
Egoaldera, berriz, *Sierra de Peña* izenekoa. Gero,
Norako Ama Birjiñaren ermitaraiño joaten naiz.

Ala nabillela, zubitik beera salto egin zuan zalduna nola ez gogoratu? Baiña ari gertatua ijito bati ere gertatu zitzaion urte askoren buruan, Kasedako Humbelino Ayape zanak kontatu zidanez eta alkarren artean osatutako *Las tardes de la Bardena* ize-neko liburuetan argitaratu genduanez.

Ijito ori guardizibillen igesi zijoan. Baiña zubi ontan sartu eta bere etsaiak bi aldeetatik ikusi zituan. Arek ere bere burua goitik beera bota zuan, baiña ibaiaren eskubi aldetik gaur dagoan urbide edo *canal* batera. Ijito ori ere onik atera zan, eta iges egin zuan, gizarajoa gero arrapatuko bazuten ere.

Urte-mordoaren buruan gertaera berdintsua, beraz, leku berean.

El Diario Vasco, 1999-VI-2

Alderantziz bete dan kopla zaarra

LEENGO igande-arratsalde batean, Apirillaren 11-n, Aragoi aldera artu nuan. Onsella ibaia igaro, Navardún eta Urriés errien ondotik segi eta Cuatro Caminos gaiñera igo nintzan. Pirineoko tontor zu-riak begien aurrean nituan andik.

Pintano errian kamioetik atera eta oiñez ekin nion. Galsoro guziak berde-berde ageri ziran. Ez nuan kukuaren eta kirkirren kanturik entzun. Aurtengoa negu luzea izan degu, eta orregatik agian.

Arguilaré-ko Ama Birjiñaren ermitara iritxi nintzan. Gain batean dago. Aurrean, bi kilometrora, beste tontor batean, Pintano erria. Ermitaren alde-re-aldea erromanikoa da. Gaiñerakoa arrizkoa bai, baiña gerokoa. Atea itxita zegoan.

Andik jexterakoan, *landrover* bat zetorrela ikusi nuan. Nere parera iritxitakoan, gelditu egin zan. Zein izango eta guardiazibillak. Onela esan zidaten:

- Zer zabilta emen? Paseatzen?

- Bai. Ama Birjiñaren ermitaraño igo naiz. Zuek, berriz, ni nor naizen jakin naiko dezute, noski. Ba, Xabierko jesuita bat nazute.

- Angoa? Eta bai al dakizu emengo irudia, XII mendekoa, lapurtu berria dala?

- Ez; ez nekian. Baiña pitxi ori nola zeukaten ermita ontan, alako bakardadean?

- Arrazoi dezu. Baiña orixe da gertatu dana.

Aiek ermita aldera joan ziran. Nik, berriz, aurrera jarraitu nuan, galsoroetan barrena, ezker-eskubi aritzez eta ezpelez jantzitako mendiak nituala.

Bakardadea da emen nagusi. Zoko auetara nekazariak bakarrik etorriko dira, labore-lanak egiterakoan. Bai eiztariak ere basurdeetara. Artzaia izango da bestea, baiña ez det ardi-arrastorik ikusten.

Orain urte-mordoa, *maki* jendea ibili zan paraje auetan. Espaiñiako gerra-denboran errepublikaren alde saiatuak ziran oiek, eta ondoren Frantziara iges egiñak. Ango gerratean, berriz, alemanak aldegindakoan, mugaz onuntza pasa ziran, jendea Francoren aurka altxako zalakoan. Etzan orrelakorik gertatu, eta bolara batean mendi auetan ibili ziran, *corral* edo borda-modukoetan lo egiñez, artzaiei ardiren bat edo beste kenduz, guardien igesi, aal zutenak atzera mugaz aruntza itzuli ziran arte. Erri aue-tako zaarrak barra-barra kontatzen dituzte gaur ere aien gertakizunak. Emendik gertu, *Corral de Villacampa* izenekoan, batalla gogorra jo zuten *maki* aiek guardiazibillen aurka. Dana dala, aiek errespetatu egin zuten Ama Birjiñaren irudia.

Bueltakoan, *jeep* bat ikusi nuan ermitaren ondoan. Bai bi gizaseme ere. Eskuarekin alkar agurtu eta aurrera jarraitu nuan, nere artean onela pentsatuz: garai ederrean zabilzate Ama Birjiña zaintzen. Oni esaten zaio "amorraia pasa ta gero sarea bota"; edo-ta "ura joan da gero presa egin".

Beste bide bat artu eta aurrera joan nintzan. Udaberriko eguraldia oso aldakorra danez, eguzkia eta euri-tantak aldizka izan nituan.

Ondoren, kotxea artu eta kamiora ateratzera nijoala, antxe topo egin nituan, bidea itxiz, ermitan ikusitako bi gizon aiek.

- Paseatzen? -galdetu zidaten.

- Bai. Zuek, berriz, ni nor naizen jakin nairik, ori galdetzera ausartzen ez bazerate ere.

- Alaxe da. Baiña bai al dakizu Ama Birjiñaren irudia lapurtu egin digutela?

- Guardizibillak oraintxe esan didate. Nigmatik lasai egon, ordea. Xabierko jesuita bat naiz.

Ori entzundakoan, aietako batek:

- Orduan Urlia zera!

- Bai. Eta zu, berriz, Urlia!

Ezagun zaarrak biok, alkar ikusi gabe urte-mordoa pasa badegu ere. Bata besteari eskua eman eta izketaldi gozoa egin genduan andik aurrera.

Bikote arek esan zidanez, Ama Birjiña *Tres Cruces* izeneko tontorrean azaldu zan. Antxe iru erritako mugak juntatzen dira: Longás, Isuerre eta Pintano. Gero, San Bartolome ermitara jetxi zan; eta, azkenik, orain arte egon dan tokira.

Aurtengo otsaillaren azken aldera, bertan jaio eta orain kanpoan bizi diran senar-emazte batzuek loreak bialdu zituzten Ama Birjiñarentzat, eta irudia betiko tokian zegoan. San Jose egunean, berriz, erriko batzuk ara joan eta irudia falta zala. Mantu dotore bat ere bazuan, erriko emakumeak erregalatu; eta ura lurrean botata zegoan.

Oiek aitatu, alkarri agur egin eta erri aldera nor bere kotxean abiatu giñan.

Pintano-n sartu naiz. Erri auek, beren arrizko etxe eta eliza dotoreekin, Erdi Arokoak dira. Emengo ate-sarrerak eta arma-arriak! Leen kanpora joandakoak, berriz, orain asteburu eta oporretan etortzen diranez, beren etxeak dotore berritu dituzte.

Kaleetan ibili ondoren, alkate jauna agurtu nuan. Nere adiskide orren semea, ain zuzen, nik mutikoa zala ezagutu nuana. Esan zidanez, Ama

Birjiña berritu asmoa dute. Artistaren bati beste irudi bat, aalik-eta berdiñena, enkargatuko diote.

Andik irten eta neri bidean *alto* emandako bigarren gizonarekin topo egin nuan, beraren etxe-atarian. Barrura pasatzeko, arren. Sartu eta aritz-egurrarekin piztutako su baten ondoan eseri giñan. Leiotik begiratu eta inguruko mendiak ikusten ziran, izkutatzera zijoan eguzkiarekin gorri-gorri. Ogia, urdai-azpikoa eta ardoa atera zizkidaten, zein baiño zein irurak. Mendi-erriska auetan maastirik ez dute. Baiña Cariñenatik-edo ardoa ekarri, kupel batean sartu eta an eukitzen dute ongi ondu arte.

Irudia falta dan ezkeroztik, erria goibel omen dago, famili batean aita edo ama ildakoan bezela. Baiña larogei urteko amona batek onela zion:

- Ama Birjiña ez badago ere, nik berdin erreza-tuko diot. Baita leengo kanta zaarrak kantatu ere.

Etxe artatik ateratzean, berriz ere etortzeko eskatu zidaten. Nun ziran asierako begiratu zorrotzak? Adiskide min biurtuak giñan. Ez da ori zaila Aragoi aldeko jende noble eta biotz zabaleko onekin.

Nik ere, amonak zion bezela, andik pasatzean eta ermita ikustean, irudia ez badago ere, salbetxo bat leen bezelaxe errezatuko diot; beste Ama Birjin batzuegatik esan oi dan *jota* zaar au kantatu ere bai:

*La Virgen de Arguilaré
no es comprada ni es vendida,
que es bajada de los cielos
y en Pintano aparecida.*

Baiña aldi ontan, zoritxarrez eta gizon batzuen zitalkeriz, *jota* ori alderantziz bete da. Izkutatu, galdu edo, orain esaten danez, desagertu egin da, izan ere; eta onezkero saldu eta errosia izango da...

El Diario Vasco, 1999-VI-10

Egun zoriontsuak

LORE-JOKOAK ospatu bearrak ziran Arrasaten, 1896-ko uztaren 4, 5, 6 eta 7-an, Gipuzkoako Aldundiak antolatuta. Beste batzuen artean, sari auek iragarri ziran:

“Larogei pezetako sari bat eta bitezarra, edozein gai, neurti eta euskal izkera motan jarritako itz-neurtu edo bertso moldaera ederrenaren egilleari, ogei ta amar bertsotaldetik gora iragotzen ez dala.

Larogei pezetako sari bat eta bitezarra, Kubako gerran Españiaren osotasuna defenditzen duten soldaduak itz-neurtuetan donkitutako oroitzik onenari”.

Festa-egunak iritxi ziran: meza nagusia, aita Vinuesak sermoia, ondoren Antonio Arzak jaunaren itzaldia, esku-dantza, txistulari-sariketa eta abar.

Irugarren egunean, 6-an, arratsaldeko bostetan, literatur-sarien banaketa. Antonio Arzak jaunak irakurri zuan erabakia:

“Oroimengarri ontan irabazi dituzte sariyak, izkribatzallen artean: On Pedro Maria Otañok bi, *Kubako gure anaia* eta *Aitona gizagaisoa* izendatzen diranak”.

Otañok bi sari irabazi zituan, beraz, Mondragoiko Lore-joko aietan: bata gai librekoa eta bestea gai jakiñekoa.

Ona gaiñontzeko sariak edo aldaerak irabazitako beste idazle batzuen izenak: Felipe Arrese Beitia, Frantzisko Lopez-Alen, Txomin Agirre eta Pepe Artoia.

Erabakiaren berri adierazi ondorenean, idazlaren egilleak edo beren ordezkariak maaira alderatu

ziran, eta Lardizabal jaunaren eskutik saria jaso zuten.

Txomin Agirrek eta Felipe Arresek nork bere lana irakurri zuten; eta gaiñerako guziak, Iñarra, Etxegaray eta Zapirain jaunen aotik aideratu ziran. Otañorena ere bai, beraz.

Itxura danez, erabakiaren berri irabaztunak alde aurretik jakin zuten, eta Pedro Mari ere an zan, Donostiatik etorrita. Baiña onek oso eztarri aula zeukan.

Aitona gizagaisoa izeneko olerkia kontaera bat da. Egilleak, Otañok, Donosti inguruan atsedeten dabillega, aiton batekin topo egiten du, eta alkarrekin izketan asten dira.

Aitona oso triste eta goibel dago. Oso illun ikusten du gure izkuntzaren etorkizuna. Otaño, berriz, ura alaitzen aalegintzen da.

Gaia orixe da. Baiña nola erabilia! Dotoreziz, sentimentuz eta poesiz jantzita. Ez gera adieraztera ausartzen ere. Irakurri ezean ez dago olerki orren edertasunaz jabetzerik.

Bigarren saillaren gaia, berriz, *Kubako gure anaiai* izenekoarena alegia, urte aietan ugarte artan zebillen gerra zan, 1895-an asia eta ipar-amerikarrak erabakiko zutena, 1898-an jokoan sartuta.

Gerra arek espaiñiar abertzaletasunari sugar berriak eman zizkion. Bai Euskal Errian ere. Orre-gatik aukeratu zan gai ori.

Zizurkildar bertsolariak zuzen eta gogoz erantzun zion enbido orri, Espaiñiako eta Euskal Erriko istoriaren gertakariak aitatu, Ernioko leiendak aaztu gabe. Ona leenengo bertsoa:

Gure lenengo guraso aita
Adan ta ama Ebaren

lendabiziko semeak Kain
ta Abel izan ziraden;
bañan, kondairan ikusten danez,
biak anai sortu arren,
beñere eziñ bizitu ziran
txit adiskide elkarren;
orra guda ta gizon illtzeak
sustraia nondik dakarren.

Otañoren esku-idazkietan sail onek ogei ta zazpi bertso ditu. Baiña an eta emengo argitalpenetan, ogei ta sei; 16-garrena falta. Zergatik ote? Bertso ortan Beotibarko burruka aitatzen zalako, gipuzkoararak naparrei irabazia. Ziur aski, iñor mindu etzedin kenduko zuten.

Ona izkutatutako bertso ori:

Beñere bestek ez du izandu
euskaldunak ainbat barren
zeñek ez daki zer gertatu zan
bein batez Beotibarren?
Orduan ere arerioak
indar aundiya zekarren,
bañan geienak gelditu ziran
illik, maingu edo erren;
oraindik ere lengoak gera
askok ezetz uste arren.

Sariak banatu ondoren, bertsolariak saio bat egin zuten. Gauean, berriz, *Euskaldun Fedea* taldeak iru antzerki antzestu zituan: *Alkate berriya*, *Abek istillubak* eta *Aritzaren zumo gozua*.

Euskal festa aietan, besteak beste, baziran ogei bat lagun Donostiatik araiño trenez eta zalgurdiz joanak. *Orfeón* izeneko talde bat osatzen omen zuten. Zer esan nai ote zuan itz orrek? Kantari asi ziran eta orduan dana garbi.

Illundu ta gero, diputadu jaunen ostatura ur-bildu zan kantari-talde ori, eta an euskal kanta batzuk kantatu: *Goizeko izarra*, *Boga-boga*, *Illunabarra*, *Coros suecos* euskal letrarekin, eta *Gernikako arbola*.

Ondoren bertso-saioa egin zuten Jose Zapiirai-nek eta Pedro Maria Otañok, entzuleei gozatu ederra emanaz.

Egun zoriontsuak izango ziran Mondragoiko aiek zizurkildar bertsolariarentzat, bi sari batera irabazita. Baiña bestelakoak laster etorriko zitzaizkion ari, Ameriketara ostera joan bearrarekin.

El Diario Vasco, 1999-VI-18

Printzipea babestu zuan zugaitz-adarra

BIANATIK ipar alderuntz artu det gaurkoan, eta Aras errira etorri. Emendik, erreka-zulo batera jetxi, arunzko malda igo eta gain batean dagoan *San Juan del Ramo* izeneko ermitara iritxi naiz.

Zoritxarrez, teillatua lur jota dago. Arku gotiko aundi bat zutik eta osorik ala ere, leengo edertasunaren oroigarri. Ormak ere, arri sillarez egindako orma lodi mardulak, erdi erorita daude. Barruan, sasiak eta belarrak indarrean.

Naparroan makiña bat eliza zaar berriztatu dira. Onek, ordea, ez du olako suerterik izan. Baiña ez merezi etzualako. Bikain eta dotorea izango zan au garai batean.

Leienda polit batez apaindua, gaiñera, Juan Iturralde Suit zanak bere *Tradiciones y leyendas navarras* liburuan kontatzen duanez.

Uztaillaren egun bateko bazkalondoa zan, 1445 urtean. Bero sargoritsua egiten zuan. Nekazariak itzalean zeuden atsedeten; artaldeak abaroan; txoriak mutu; txitxarra bakarrik kantari.

Alako batean, zakur-zaunkak, zaldi-irrintziak eta anka-otsak, tutu-soiñuak, oiua... Eiztari-talde aundi bat zetorren. Aien armak dizdiz egiten zuten eguzkiak jota. Danen aurretik, gazte bat: on Karlos, Bianako printzipea. Bi zaldun urbildu zitzaizkion eta onela esan zien:

- Nere zaldi oni zer irizten diozute?

- A, jauna! Zaldia ez dakigu, baiña zu ausartegia zera.

- Jauregian, izan ere, ito egiten naiz. Orregatik, kanpora irtendakoan, ezin det soseguz ibili. Naparroagatik zer ez nuke nik egingo?

- Pakea emaiozu. Ori naikoa du.

Une artan basauntz bat agertu zan gertu samar. On Karlos, zaldiari eragin eta ari segika abiatu zan basoan barrena.

Bitartean, laiño beltzak zerua estali egin zuten. Aize bero bat atera zuan, zugaitz-adarrak astinduz. Andik laster, tximistak eta trumoiak eten gabe asi ziran. Euri-erauntsi gogor bat ondoren.

Ala, printzipearen zaldia gelditu egin zan. Baiña orra andik gertu ermita bat: *San Juan del Soto* izenekoa. On Karlos ara urbildu zan. Atea itxita zegoan. Baiña ondoko aritz baten azpian artu zuan babesa, onela esanez:

- San Juan, salba nazazu!

Une artantxe, tximista batek gorriz argitu ziotuan aritza, ermita, alboko soroak eta inguru guzia, printzipearen begiak itxutzeraiño. Auek beren onera etorritakoan, an ikusi zuan ermita kea zeriola; zaldia illik, erabat beztuta: aritza ikatz biurtuta, eta aren adarrak lurrera boteak. Baiña bere buruaren gaiñean zeukan adar lodia, uraxe bakarrik osorik; eta ari eskerrak bera salbatu.

On Karlosek belauniko jarri, Jaungoikoari eskerrak eman eta toki artan komentu eder bat erai-kiko zuala zin egin zuan.

Bai bere itza bete ere. Monastegi orri *San Juan del Ramo* esan zitzaion, printzipea babestu zuan adarraren oroipenez.

Atsegingarria benetan bidez bide ibili, inguruko bistak ikusi eta denbora berean tokian tokiko leiondak ausnartzea.

Iparraldera begiratu eta Aras erria ikusten da. malda batean zabaldua. Galsoroak, maastiak, fruta-arboladiak, oliboak. almendroak eta abar nunai. Muiño auetan gogotik egin du norbaitek lana. Baiña ez erreza zalako. Lurralde oni orregatik deituko dio-
te *la Ribera Brava*.

Atzean, Yoar mendiak bere burua altxatzen du. Aren oiñetan. emendik ikusten ez bada ere, Kodesko Ama Birjiñaren santutegi ikusgarria.

Egoaldera, Ebro ibaiaren Erribera. Logroño ere ageri da. Atzean, Soria eta Burgosko muga egiten duten mendiak. Aietan nagusi, San Lorentzo gaillurra, Sierra de la Demanda izenekoa.

Alako batez traktor baten otsa nere belarrietara. Urbildutakoan, eskua altxatu diot eta gelditu egin da. Irurogei ta amar bat urteko nekazari irri-partu bat da. Izketan asi eta onela dio:

- Nere birramonak emengo istoria kontatzen duan larruzko idazki bat gordeta omen zeukan. Baiña apaiz bati utzi zion, arek Madrillera eramateko bear zuala-ta, atzera bueltatzekotan noski; eta gaur arte. Ala ere, leengo zaarrak ziotenez, Bianako printzipea, eizean zebillela ekaitza etorri eta ortxe salbatu zan, zumar baten azpian.

- Ez al zan aritza? Nik ala irakurri det.

- Ez, ez. Zumarra. Aren sustraietatik sortutako sastrakak or dituzu oraindik ere bide bazterrean.

- Eta emen ez al zan komenturen bat izan?

- Ala dirudi. Ermita inguruan arri landu asko azaltzen da. Inguru oni *el Prado* esan diogu beti. Fraileak, izan ere, beiak izango zituzten eta emen ibiliko ziran larrean. Or beeko toki bat, berriz, *El Horno* deitzen da, ogia erretzeko labea or edukiko zuten eta. Eta erreka ondoan, *El Molino*, errota ere nai ta nai ezkoa danez.

- Eta noiz arte egon ziran emen fraileak?

- Ori ez nizuke esango. Baiña nere adiskide batek eliz barruan zuloa egin eta eskeleto bat atera zuan. Artu eta Logroñoko mediku bati eraman zion, ea noizkoa zan sumatuko ote zuan. Eta medikuak onela erantzun zion: "Ori ez dizut esango. Baiña beste zerbait bai: ezur auek zeuden tokira leenbaileen eramaten ez badituzu, kartzelara joan bearko dezula".

Baiña gaur ere eguraldi sargoritsua dago. Sierra de la Demanda-ren gainetik laiño beltzak azaldu dira, eta zabaltzen dijoaz, zerua estaliz. Trumoiak aurki joko duala dudarik ez da. Banoa, beraz, emendik, tximista erori ezkerro ni salbatuko nauan zugaitz-adarrik izango dan ez dakit eta.

Aurkibidea

Irakurleari.....	7
Zumalakarregiren anai apaizak	11
Naparroaren fueroen alde (1983)	15
Castiliscar-ko illobia.....	19
Azpeitiko Euskal Festak (I)	23
Azpeitiko Euskal festak (eta II).....	27
Arte batean azaldutako Ama Birjiña	31
Bizubitako eriotza.....	35
Politikaren zipriztiñak.....	39
Tres Mares tontorra (2175 m.)	43
“Limosnatxo bat...”	47
Kantabriako Zaindaria.....	51
Berdintasunik gabeko norgeiagoka	55
“Ez nua borondatez, bearrak narama”	59
Aukeratu bearraren arriskua.....	65
Liebana-ko Santo Toribio.....	69
Oiartzungo Euskal Festak (1897).....	73
Uxueko Ama Birjiña	77
Jose Maria Zubia, “Mari”	81
Asturiasko erromeriak eta bat-bateko bertsogintza	85
Sandailiako koba-zuloa eta Araotz	89
Urrestillako Eizagirre baserriko armarria.....	93
San Formerio, Trebiñoko Zaindaria	97

Ebro ibai jaio berriaren lurretan	101
Zipriano Baraze, Isabako semea	105
Zalduondoko erria eta guda-gertakizun bat ...	109
Orreagako Ama Birjiña, Becquer eta Xalbador	113
Orduñako Txarlazo mendi-tontorreko	
Ama Birjiñaren irudia.....	117
Oreinaren itxura artzen zuan neskatxa.....	121
Bizkaiko fueroen zin-egilleen	
bidean barrena.....	125
Donostiako gaztelua eta Bordel bertsolaria	129
Donostia zer dan	133
San Saturio, Soriako Zaindaria.....	137
Duratón ibaiaren zintzurra	141
Afrikako gerra (1859).....	145
Tximista baten lana	149
Erriak gerra guziak galdu	153
<i>Laguna Negra</i> ur-putzuan	157
Altsasuko eta Urdiaingo San Pedro ermita	161
Euskaldun baten etorrera.....	165
Garai bateko mutiloak.....	169
“Zuk il zenduen zrtzaia”	173
Inglesen guruzbidea Gasteizen.....	179
Zerutik lurrera zenbat bide.....	183
Patxi Erauskin bertsolaria eta	
Sanjurjo jenerala.....	187
Errioxako Zaindariaren oiñetan	191
Ama Birjiña, zalduna eta zubia.....	195
Alderantziz bete dan koplazarra	199
Egun zoriontsuak	203
Printzipea babestu zuan zugaitz-adarra	207

Antonio Zavalaren azken liburuak:

- Txirrita* (1993)
- Karlisten leenengo gerrateko bertsoak* (1993)
- Pello Errota* (1993)
- Pedro M^a Otaño eta bere ingurua (I)* (1993)
- Pedro M^a Otaño eta bere ingurua (II)* (1993)
- Xenpelar eta bere ingurua* (1993)
- Bilintx*
(*Bizitza eta bertsoak*) (1993)
- Auspoaren auspoa (I)* (1996)
- Auspoaren auspoa (II)* (1996)
- Oñez eta jakin miñez* (1997)
- Karlisten bigarren gerrateko bertsoak* (1997)
- Euskal erromantzeak* (1998)
- Ezkontza galdutako bertsoak (II)* (1999)
- Auspoaren auspoa (III)* (1999)
- Oñez eta jakin miñez (II)* (1999)





Liburu ontan bildu diran idazlanak *El Diario Vasco* egunkarian ikusi zuten leenengoz argia . Aurrena 1997-VII-25-an agertu zan; azkena, berriz, orain egun gutxi.

Idazlan oien egillea ibiltzale purrukatua degu, eta dijoan tokira dijoala bi eginkizun daramazkiana: bata, ango ikuspegi az egie gozatu bat eman: bestea, an ñoiz ezagutu dan gertaerarik nagusiena ikasi eta berritu.

Bide ortatik, tokiaren berri emateaz gain, garai bateko makiña bat leyenda eta istori eder kontatzen dizkigu liburu ontan, gure buruan ez-ezik biotzean ere ondo gordetzea merezi dutenak.

Biotzean esan degu, kontakizun oiek, jakingarri ez-ezik, guztiz maitagarri ere diralako, eta jaio eta bizi geran lurralde au geiago maitatzen erakutsiko digutenak.

ISBN 84-89080-95-X



9 788489 080959



Antonio Zavala

**Oiñez eta
jakin miñez
III**





Antonio Zavala

Antonio Zavala Tolosan jaio zen 1928an. Lehen ikasketak jaioterrian egin ostean Jesusen Lagundian sartu zen 1945ean. Apaiz-ikasketak Urduñan, Loiolan, Oñan, Xabierren eta Gandian burutuz. Xabierren zela hasi zen bertsopaper zaharrak jaso eta biltzen. 1956ko irailean eman zuen bere lehen hitzaldia Arantzazun: *En busca de la poesía popular a través del País Vasco. Bertso berrien billa Euskalerrian zear*. Gero Auspoa bilduma sortu zuen 1961ean, 300 liburu inguru argitara eman dituelarik dagoeneko. Baina herri-literaturan, bertsolaritza ez ezik, beste sail batzuk ere jorratu ditu, hainbat gizon-emakume idaztera animatuz, beren oroitzapen eta kontakizunak bakoitzak bere modura azalduz.

Auspoa, Auspoa sail berdea, Auspoaren sail nagusia (urdina), Euskal erroman-tzeak, Karlisten leenengo eta bigarren gerrateko bertsoak, Irriz eta malkoz (Lazkao-Txiki) eta abar argitaratu ditu. Erderaz, 1993an, *Biblioteca de Narrativa Popular* sortu zuen, eta 30 liburu inguru kaleratu dagoeneko.

Egindako lanaren esker onez, *Honoris Causa* Doktore izendatu zuen Deustuko Unibertsitateak 1999-11-17an; eta 2000-10-06an herriko *Seme kuttun* izendatu Tolosako udalak. *Joxemari Iriondo*.

Antonio Zavala

Oiñez eta jakin miñez
III

Auspoa Liburutegia

299

ZAVALA, Antonio

Oinez eta jakin minez / Antonio Zavala ; [sarrera, Adolfo Arejita]. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia, 2006.

<3> libk. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 299)

Aurkibidea

LG SS 684-2006. - ISBN 84-7907-520-1

1. Arejita, Adolfo, pr. II. Gipuzkoa. Dirección General de Cultura, ed. III. Título. IV. Serie.

821.361-43"19/20"

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 84-7907-520-1

Legezko Gordailua: S.S. 684/06

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Antonio Zavala

Oiñez eta jakin miñez III



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2006

Sortako hirugarren alea egiten du orain datorrenarekin Antonio Zabala ikertzaile eta idazleak *Oiñez eta jakin miñez* izenburua duten liburuetan. Izenburuak berak diosku oinez eta jakin minez ibilia dela gogoak eraman duen bazter-zokoetatik, eta ibili ahala ondu izan dituela beronetan bildurik dakartzan idatziok. Hauek ere, aurrekoak bezala, banaka-banaka egunkarian argitara izan dira, *El Diario Vasco*-n, 1999-ko irailean hasi lehenengoarekin eta 2006-ko ekainera bitartean.

Liburura jakinguraz hurbiltzen denak alperrekorik nekez aurkituko du ezer hemengo lerroetan; ez sobra dagoen kapitulurik, ez betegarriztat sarturiko esaldirik. Jakinguraz hurreratzen denak den-denean bilatuko du zer ikasi, hala dioenean nola esateko moduan, berdin gaian nahiz itxuran, edukian edo azalean.

Liburua ez da ibilbide bakarraren kontaera; ibilbide asko dira elkarrekin josiak; kapitulu bakoitzean bat, holaixe banan-banan garanduak: bakoitzean toki edo paraje bat, gertaera edo kontaera bat, ibilaldi bat kontatzera datorrigu idazlea, baina ale guztiok hari batez josirik daude; guztiok dute zer ikusi gure historia zaharrarekin, gure herri jakintzarekin. Literaturaren barrutian sail baten kokatu behar bagenitu, bidaiia-liburuen genero barruan sartuko genituzke lasai asko, bai hau eta honen aurreko biak.

Aita Zabalak idazle-ofizioa ondo ikasia eta landua du: maisutasun handiz daki istorioak kontatzen; ondo asmatzen du gertaera edo kontaeron erakuspenean, bai edukiaren aldetik, baina batez ere esango genuke kontatzeko moduaren aldetik.

Alderdi batera eta bestera egiten dituen ibilaldiez, epaituko genuke oharrez eginiko joan-etorriak direla. Ez dabil itsumustuan eta oharkabez dabilen lekuetatik, baizik zerbait berri ikasi nahirik, *jakin minez*. Gehientsuene-

tan berariaz doa doan lekura, hurretik eta modu zuzenez ezagutu nahirik liburuetan irakurriak dituen pasadizu edo kontaera zaharren aztarnak bilatu nahirik. Beti ere, behin leku batera ezker, den-denari ohartuko zaio, eta behar den iturrietara joko du gehiago jakiteko: norbaiti galdetuko dio batean; liburu-iturriren batera joko du bestean, tokiarekin zer ikusi duen guztia jakiteko.

Toki edo paraje batek ez du alderdi bakarra Zabala-arentzat; natura dago batetik, gizakia bestetik, eta biok elkartzen diren topagunean izaniko gertaera edo emaitzak dira azkenik. Natura bizia erakutsiko digu ibiltari nekaezin honek ostera bakoitzean, guztiari arreta jarritz: inguruko mendiak direla; eliza, ermita edo etxeen arkitektura dela; paraje hartan izandako gertaera historikoak direla, batez ere zaharrak; eta, azkenez, leku horri atxikirik gorde diren siniskera, esaunda, kontaera edo bertsoak; hau da, herri-literatura deitu ohi duguna. Zabala-arentzat kate beraren katenbegiak gara gaurko eta lehengo gizonak. Gaurko gizakiontzat ere jakin beharreko dira gure arbasoen esanak eta eginak. Eta ez ditu ahazteko gertaera zahar garrantzitsuak, odoltsuak eta mingarriak batzuetan, bakezkoak beste batzuetan.

Modu horretan gure idazleak jadetsiko du gehienontzat hila edo isila dirudien geografia biziz eta gizatasunez betetzea, hango historiak berrituz, hango etxe eta bazterrak jendez beteaz. Lehenaren pintura koloretsua logratuko digu, artista zaildu baten taiuz.

Behin baino sarriago entzun diogu liburu honen egi-leari, *Auspoa* bildumak gauza bat duela behintzat balio-koa, eta balio hori zaintzen saiatu dela batez ere bera: euskeraz pentsatzen duen jendearen hitzak idatzira ekartzea. Berak ere beste hainbeste egin duela esango genuke: ezagun du gure idazleak euskeraz bizi dela, euskerara barru-barruan daramala, txikitandik ikasi duen hizkera berezko horren begiekin ikusten eta ulertzen duela mundua. Horregatik, bada, berez-berezko hizkera dario bere lumari, munduko gorabeherak euskeraz bilbatzen dituen buruari darion hizkera naturala.

Zabalaren hizkerak hiztegiaren aldetik ere balio handiak dituela gaineratuko nuke; besteak beste, nekaritza munduko eta gaur galdu antzean dauden beste lanbide eta arlo batzuetako hamaika hitz darabiltza, gaurko gazteentzat ezagunak ez direnak. Hitzak ez dira ezagunak, askotan eurok adierazten dituzten gauzak ere ez direlako.

Apur bat zeheago azterkatuz, galde egin daiteke zeri dion atxikimendu apartekoa Zabalak; zeri edo zertzuei, hobeto esanda. Ertz batzuk aipatuko ditut labur.

Geografiaren aldetik, mendiek sortzen diote aparteko lilura. Idazlea bera ere mendizale amorratua izanik, atsegin du mendira igo, bidean artzainik edo hango ingurukorik ikusten badu, harekin hitz-aspertu bat egin, tontorrera igo, inguruari begiratu geldiro bat eman eta bertatik diren ikuspegiak gozatu. Lehiatz bilatu eta ikertuko ditu ikuspegiak diren mendi-tontor guztiak eta euron izenak emango dizkigu. Berdin egingo du, bidez doala bailara edo inguru batera heltzen delarik, hango herri, herriska eta auzoekin; gogoko izango du beti haien izenak gogora araztea, hurbil zein urrunago daudenenak. Izan ere toki bat, duen izenak adierazten du, eta gure idazle ibiltariak atsegin hartzen du izendatze horretan. Zalea dugu idazle-kazetaritza, dabilen lekuen izenak ikastera, behin baino sarrigo etimologian barrena ere sartzan dela. Irakur ezazu, irakurle, *Xabierretik Xaberrira* izeneko atala, diogunaren lekuko.

Herri-jakintza eta literaturaren aldetik, toki batekin zerikusia duten esaundak ezagutzen lehiatuko da, sarritan ahozko lekukoren batengana joaz. Artzainak dira maiz lekukorik bikainenak. Beste batzuetan liburu zahar edo ahaztu samarretan aurkituko du iturria. Batera zein bestera, kontaera-bilduma polita eskaini digu Zabalak *oinenez eta jakin minez* eginiko ibilbideotan; bilduma originala eta ereduakoa. Hor ageri du bere folklore-zaletasun senda, agian behar beste aitortzen ez zaiona.

Bertsoz eta hizlaur lehenean idatzitako testu bitxiak berritzen ere maisu dugu Aita Zabala. Edozein toki edo

gertaera mintzagai hartzen duela ere –demagun Gorbeia-ko gurutzea, 1912ko galerna edo Ama Birjina Erkudengo kasurako–, horri buruz diren bertso zaharrak gogoratuko dizkigu. Hizlauruz diren kontak bitxiak ere berdin, hala nola Napoleonen kontra gerran hainbesteko nabarmendu zen Longa jeneralaz Pedro Astarloak idazten dituenak, adibidez. Berdin egingo du gaztelaniaz ere erdal tokietakoak direnean.

Biografiak ere maite ditu, batez ere gizaki ibiltari eta jakin minez beterikoak direnen kasuan. Bildumako bat eredu: Frantzisko Xabierkoaren iloba izan zen Jeronimo jesuitarena, *enbor beraren ezpala*, idazleak dioen bezala.

Amaitzeko esan dezadan idazle berdingabea dugula Aita Zabala, batez ere kronika eta erreportaia genero inguruko idatzien arlo horretan. Funtsez osaturiko idazlanak eta itxuraz gozagarriak. Euskera zale gaztea bide segurutik ibiliko da liburuko orriotan barrena, baldin bere hizkuntza hobetu nahi badu, eta denbora atseginez igaroaz bide batez, hainbat gauza berri ikasiko ditu gure lurraz, gure lehenaz, gure herri-jakintzaz eta herri-literaturaz.

On deizula, irakurle.

Adolfo Arejita

Errioxako mendietan

Logroñotik Soriako bidean noa. Piqueras-ko gaiña igotzen asi eta Villoslada de Cameros aldera artu det. Erri au igaro, erreka-zulo batean aurrera joan, pagadi zoragarrri baten barrena gora ekin eta *Nuestra Señora de Lomos de Orio* izeneko ermitara iritxi naiz.

Izen ori latinetik dator, *Lumbus Aureus* itzetatik, eta *urrezko bizkarra* esan nai du. Alako dizdirak egiten dituzte, izan ere, goiz-illunabarretan emengo mendiak, luzarotan elurrez estalita egoten diranez.

Arrizko ermita ederra da, kanpotik sei arkupe ditua. Malda batean dago. Pago, piñu eta makalak inguruan. Iturri eder bat ondoan. Mendi aundiak emengoak. Egalak basoz beteta dituzte, eta goiko bizkarretan oraindik ere elur-arrastoak ageri dira, naiz eta maiatzaren bukaeran gauden.

Zakur gazte bat inguratu zait. Aren jolasgurea! Gero jakingo nuanez, *Atila* du izena. Bera ere ermitara sartu da nerekin batera. Baiña, barrura bezin laster, losintxak egiteari utzi eta txintxo portatu da.

Ermita au XVIII mendekoa da. Bai aldarea ere. Artan, Ama Birjiñaren irudia, Erdi Arokoa, ederra benetan. Atsegiña da leku auetan otoitz egitea.

Ermitazaiaren etxea alboan dago, eta emengo berri ematen duan liburua eskuratu det. Gero, maldan gora puska batean igo, arri batean eseri eta irakurtzeari ekin diot.

Irudi au aritz batean agertu zan, Cebollera izeneko mendian, aritz batean. Ori jakindakoan, Villoslada-ko erritarrak araiño igo ziran. Baita ermitatxo bat altxa ere, beerago, ordea, zelai batean. Baiña Ama Birjiñak, azaldu zan lekura iges egin zien. Aritz artan nai zuala ikusirik, villosladatarrak arbola bota, zurarekin jarleku bat moldatu,

irudia gainean jarri eta biak beeko ermitara jetxi zituzten. Irudiak etzuan geroztik geiago alde egin.

Beste ermita bat XVIII mendean altxatu zuten, gaur dagoan tokian. Artan ari zirala, batean, lau idi parek zeramaten enbor aundi batek, askatu, bueltaka asi eta itzai bat azpian arrapatu zuan. Francisco del Rincón beraren izena. Lagunak korrika inguratu zitzaizkion, gorputz guzia zanpatuta edukiko zualakoan. Baiña bera zutitu zan, iñoren laguntzarik gabe, eta ermitaraiño oiñez joan, Zeruko Amari eskerrak ematera. Ermita berriaren bedein-kapena 1722-ko uztaren 18-an izan zan, festa aundiak egiñez: prozesioak, mezak, sermoiak, zezenak...

Emendik ordu laurden batera koba-zulo bat omen da, eta antxe bizi izan omen zan, otoitz-bizitza egiñez, *Santo Gómez* esaten zioten ermitaño bat, mutiko bat lagun egiten ziola.

Orduan ere elurte aundiak izaten ziran emen neguan. Sarritan, bideak itxi eta ezin erriraiño jatekoen bila jetxi. Baiña alakoetan, egunero ordu jakiñean, bi orein etortzen zitzaizkien, emeak biak (*ciervas*). Ermitakoak ontzi batekin alderatu, abereak jetzi eta esne orrekin bapo mantentzen ziran.

Beste bein, Gabon gau batean, mutikoa iturrira joan zan. Bueltakean, suillatik ura ateratzen asi eta ardo biur-tuta zegoala! Kanako miraria, beraz, Eguberri-festak ongi ospatu aal izateko.

Santo Gómez ori zaartu zanean, San Asensio ondoko komentu batera erretiratu zan. Baiña ango praileak ezin burutu zuten artz batekin. Ganaduetan eta erlauntzetan kalte aundiak egiten zizkien. Orduan Gómez orrek, nagusiari baimena eskatuta, basora joan eta artza ekarri zuan, lepoan lokarri bat lotuta. Geroztik, pizti ura komentuan bizi izan zan il arte, ardi bat bezin otxan eta apal.

Mendi auetako artzaiak Extremadurara joaten ziran beren artaldeekin negua pasatzera. Udazkenean aruntz, udaberrian onuntz. Antziñako oitura da ori. Ara 1520 urtean zer gertatu zan.

Urte artan gerra zebillen Espaiñian. *Comuneros* ize-nekoak armetan altxatuak, alegia. Udaberrian, artzaiak erri aldera zetozela, komunero oien talde bat alderatu zitzaizen, ardiren batzuk bear zituztela eta. Artzaiak orduan promesa egin zioten Ama Birjiñari: ardirik galdu gabe libratzen bazituan, gutxienez irurogei buru zituzten artzai guziak ardi bana eta lakari bana gari emango ziotela urtero.

Une berean, laiño itxi batek estali zituan bai gizonak eta bai ardiak. Odei ura mugitu egiten zan, bear zan bidetik iñora baztertu gabe. Ala, artzaiak eta artaldeak, aren barruan zirala eta iñork ikusi gabe, bidea xuxen egin zuten. Geroztik, uztaillaren leenengoan, *la caridad grande* edo *la caridad de las corderas* izeneko eguna ospatzen da emen, etortzen diranei aragi-xerra bana eta opil bana banatuz.

Beste batean, villosladatarrak kezketan zeuden. Jela jelaren gainean egiten zuanez, pago eta aritz-ezkurak galdu egiten ziran. Ala emengo txerriak zerekin bazkatu? Orduan ere promesa egin zioten Ama Birjiñari: laguntzen bazituan, urtero, Pazkoaren urrengo igandean, txorizoa eta ogia banatuko zutela aren ermitan. Arrezkeroztik etzan ezkurrik galdu, eta fededunak beren itza urtero betetzen dute. Festa oni, berriz, *la caridad pequeña* o *la caridad de los torreznos* esan oi diote.

Mendi auetan artzai bat izaten zan udaran bere ardiekin. Goiz batez, esne-zopak gosaldtu, katillua lurrean utzi eta arditara joan zan. Bueltakoan, musker bat ikusi zuan, berari sobratutakoak jaten. Biaramonean ere berdin gertatu zan. Andik aurrera, artzaiak katillutxo bat esne-zopak in prestatzen zion muskerrari, eta nork berea antxe jaten zuten biak, pake ederrean. Esan bearrik ez dago muskerra aundi eta eder azi zala, orrela mantenduta. Baiña urria irixtean, artzaia Extremadurara joan zan, eta piztia bertan gelditu.

Andik bi urtera, artzai ura mendi ontara etorri zan udarako. Batean, ardiak oso izututa ikusi zituan. Otsoak izango zirala pentsatu zuan. Bai zera! Leengo muskerra

zan, ia metro ta erdikoa egiña. Okerrena, asarre zegoala. Artzaiak igesari eman zion. Baita muskerrak segi ere. Ura ere ikustekoa izango zan: kristaua aurretik, piztia atzetik, basoan barrena biak korrika. Artzaiak ermita ontara jo zuan, onela esanez: “Zeruko Ama, salba nazazu!”. Zorionez, ateak zabalik zeuden. Eta, ura sartzearekin batera, itxi egin ziran bat-batean eta indarrean. Baita muskerra erditik arrapatu eta ito ere. Aren larrua urtetan egon omen zan ermitaren atean. Baiña usteldu egingo zan, eta orain bi idi-adarrekin egindako musker baten irudia ikusten da ateburuan.


Leienda oiek irakurriz eta txorien eta kirkirren kantak entzunez, ordubete atsegiña igaro det.

Bitartean, nere lagun berriak, *Atila*-k alegia, zeregin polita artu du. Beorren bat bere umearekin ermitara urbiltzen bada, berak zaunkaka erasotzen dio, eta bai azkar asko aldendu erazi ere. Gero, nerekin batera jetxi da koxeraiño. Eta, abiatu naizenean, ispillutik ikusi det puska batean neri segika...

El Diario Vasco, 1999-07-18



Lomos de Orio, Errioxa.



Siresa, Huesca.

Printzipea eta artza

Aragoiko lurretan barrena noa gaur. Begien aurrean Pirineoko gaillurrak ditut, maiatzaren bukaera bada ere elurrez ongi zurituak: Peña Forca, Bisaurín, Picos de Aisa, Collarada...

Echo izeneko errira iritxi naiz. Arrizko etxe bikaiñak emengoak, gaillur txorrotxeko teillatuarekin. Elur-tokian gaudela seiñale garbia da ori. Etxe-mordo berriak ere ikusten dira, turismoak eraiki eraziak. Baiña, zorionez, leengo zaarrak eta oraingoak ez dituzte alkarrekin naastu.

Beste iru kilometro egin eta Siresa errira iritxi naiz. Komentu famatu bat izan zan antziña batean emen. Beraren leenengo aitamena IX mendekoa omen da. Zoritxarrez, gaur monastegi zaar orren aztarrenik ez dago. Baiña zutik dago eliza erromanikoa, geroztik erriko parrokia izan dana.

Atea itxita dagoanez, ezin barrura sartu. Baiña leen ikusia daukat eta gogoan det eliza aundi eta ederra dala. Benetako otoitz-lekua, dudarik gabe.

Erromatar arri-idazki bat ere bada bertan. Emendik, izan ere, garai artako galtzara bat zijoan, *Puerto del Palo* izenekora igo eta Frantziara jeixten zana.

Toki onek ere badu bere kontakizuna, Rafael Andolz gure adiskide miña zanak bere *Leyendas del Pirineo* (Huesca, 1994) liburuan kontatzen duanez.

XI mendera atzeratu gaitezen orain. *Alfonso I el Batallador* izenarekin Aragoiko eta Naparroako errege izan bearra, artean amabi bat urteko mutikoa zalarik, ementxe bizi zan, bertako praileak ikasketak-eta ematen zizkiotela.

Arratsalde batez, jai zutela-ta, kanpora atera ziran bai Alfonso printzipea eta bai aren eskola-lagunak ere.

Parrez eta oiuka, komentutik gertu dagoan *Boca del Infierno* izenekoaren ertzeroa iritxi ziran.

Izen ori ondo merezitako tokia degu bera. Mendi-tarte estu eta sakon bat da, zintzur bat alegia, alde batetik bestera zortzi edo hamar metro besterik ez duana. Arkaitzen zirrikitueta, piñuak, sasiak eta ezpelak ikusten dira. Beean, eun bat metrora, Aragón Subordán ibaiaren urak, arrien kontra jo eta orruz, txuri-txuri egin eta kea balitz bezela aparra dariotela. Begiratzeak ere bildurra ematen du.

Mutikoak zulo artara arri tiraka asi ziran, gaurkoak ere egingo luketen bezela. Ura aien gozamina! Baiña alakoren batean sasi batzuk mugitu, eta andik zer azalduko eta artz bildurgarri bat, marrua zeriola. Danak iges egin zuten korrika, Alfontsoak izan ezik. Ura izua zer zan etzekiana baitzan.

Zer egin zuan? Bizkarrean zintzilik zeukan uztaia artu, ari gezi bat erantsi, artzaren bularrera apuntatu eta tira. Baiña piztia leenaz gain asarre erazteko bestetarako etzan ura izan. Ala, mutikoagana alderatzen asi zan.

Onak, berriz, atzeraka ekin zion, arpegirik jiratu gabe, ordea, eta aiztoa eskuan zuala. Baiña amildegiaeren ertzeroa ustegabeen iritxi eta oiña irriztatu egin zitzaion. Erori eta beeko errekaraiño joango zan, eskuarekin ezpel bati eutsi izan ez balio.

Ura zan, beraz, mutikoaren egoera larria: bera ezpel xixtrin batetik zintzilik; beean, bildurgarriko zuloa; eta aurrean, deabru guziak berekin zituan artza. Eskua laster nekatu eta indargabetuko zitzaiola dudarik etzan. Zer egin?

San Pedrori laguntza eskatu zion, komentuko Zaindariari alegia, larritasun artatik libra zezan. Bitartean, artza ara-onera zebillen, atzaparra luzatu eta mutillari nundik erasoko zion. Baiña une artantxe arrikada indartsu batek piztiaren burua jo zuan. Segituan, bestea eta bestea. Artza orduan atzeraka joan zan, mutikoa utzita: eta onak itz auek entzun zituan:

- Eutsi, motell, eutsi, or gaituk eta!

Artzai batzuk ziran, artzaren orruak entzun eta korrika etorriak. Beren beso indartsuak printzipearengana luzatu eta bizirik eta onik gora atera zuten. Etzekiten aiek bere biziaz etsita zegoan gaztetxo ura nor zan. Baiña ori jakinda ere, egin zutena baiño geiago ezin egingo zuten.

Alfontso ori ogei ta amar urtean (1104-1134) izan zan Aragoiko eta Naparroako errege. *El Batallador* izengoitia etzioten noski utsaren truke erantsi. Moroei gerra asko egin zien, eta iri asko artu: Tudela, Zaragoza, Rueda, Ricla, Tarazona, Calatayud, Daroca, Monreal, Molina... Andaluziraiño ere iritxi zan bere soldaduekin. Ogei ta bost milla kilometro kuadratu kendu zien mahomatarrei. Okerrena, Urraka Gaztelako erregeiñarekin ezkondu eta etziralala alkarrekin konpondu.

Fraga erria artu nairik il zan, erreinua *órdenes militares* izenekoei ematen ziela testamentuan esanda. Baiña naparrak etzuten ori ontzat artu, eta Garcia Ramirez izendatu zuten errege. Aragoitarrak, berriz, errege zanaren anaia ekarri zuten, Ramiro I, komentu batean praile zegoana.

Baiña emengo artzaiei zor zien mesedea gogoan izan zuan beti Alfontso erregeak. Nola aaztuko zitzaizkion, izan ere, beeko zuloko arkaitzak eta erreka, eta artzaren atzaparrak, letagiñak eta kalparra? Ala, erri ontako jendearekin talde berezi bat osatu zuan, *Monteros Reales* izenarekin.

Nik, oiek danak buruan pasa eta *Boca del Infierno* ontan aurrera jarraitu det. Beste aldean, ordea, orra paradisoa aurkitu. Ozako baso zoragarria alegia: pago, piñu eta izaiez betea eta mendi-punta zorrotzez inguratua: Peña Forca, Chipeta, Castillo de Acher, Petrechema... Txoriak eta kirkirrak kantari ari dira. Mendi-beien zintzarriotsa bestea...

Basoa igaro, kotxea utzi eta ibiltzeari ekin nion, begien aurrean gaillurretako elurra nuala, eguzkiak jo ta

diz-diz egiten zuana. Emendik da *Aguas Tuertas* eta *Ibón de Estanés* ur-putzu ikusgarrira joateko bidea.

Udaran jendez beteta egoten da paraje au. Euskaldunak ere joera aundia dute onera. Gaur, berriz, iñor gutxi dabil emen. Orregatik, udaberria urteko sasoirik ederrena da iñora joan eta bazterrak ikusteko. Bakar-bakarrik ibiliko zera, mendi guzia zurea bazendu bezela.

El Diario Vasco, 1999-08-01

Basurde-eiztari ausartak

Orain irurogei ta amairu urte, 1926-an, komeri laztzak zituzten Ultzama parteko eta Arraitz erriko Kazteluzar baserrian; basurde bat soro batera sartzen zitzairen.

Ezin buruturik, abisua eman zieten Almandozko eiztari famatu batzuei. Baita aiek automobil batean eta Belatetik barrena etorri ere, pizti orren lanak errez egingo zituzten uste osoan.

Iritxi eta beste ezertan asi baiño leen, apaldu egin zuten, badaezpada ere. Etzan otordu ariña izango, noski. Gero, kafea artu eta purua piztuta, gizon bulartsu aiek edozertarako prest jarri ziran. Baita etsaiez eta kañoiez betetako mendi txorrotx bat artzeko ere.

Aietako bati, ordea, leiotik kanpora begiratzea bururatu zitzaion. Gaugiro ederra zegoan, illargi betea zeruaren erdian zala. Baiña zer ikusten dute aren begiak? Basurdea betiko soroan patxara ederrean!

Eskopeta eta naiko munizio artu eta oin-puntetan kanpora dijoa. Arritzekoa, ordea: basurdeak ez du iges egiten. Eiztariak orduan bi tiro tiratzen dizkio, eta zazpi posta sartu.

Tiro-otsak entzundakoan, lagun bat etxetik kanpora korrika ateratzen da, zer gerta ere laguntzera, eta basurdea an ikusten du azken arnasetan. Baiña berak ere bi tiro tiratzen dizkio, tirabidean artu bezin laster.

Taldeko beste lagun bat ere, Ameriketara izandakoa bera, antxe dator guztizko apuroan, galtzak ia galduan, beren txakurra, *Jurio* izenekoa, ondoan duala. Eiztari onek ere, gau illunean fiatzerik ez dagoanez, beste bi tiro sutu zizkion basurdeari.

Ondoren, eiztari guziak alkarrengana bildu ziran, kontsueloz beterik, gau artan suertoso samar zebiltzala eta:

Etzan txorakeria
oiek zuten poza,
basurdi ori janez
biar zutela goza.

Ala ere, inortxok etzuan basurdearengana pausorik eman, etxetik linterna bat ekarri artean. Ura eskuratu-takoan, badijoaz pixkanaka, eta gerturatzean ura uste-gabekoa! An illotzik zer izango eta etxeko txerri buztan-motz bat!

Ori ikusiagatik, zentzu oneko gizonak ziranez, etzuten bururik galdu. Onela mintzatu ziran:

- Lastimagarria! Baiña obeko degu segidan odolus-tutzea, al dana aprobe txatzeko, guzia alperrik galdu gabe.

Danen artean etxera eraman eta bear ziran lanak egin zizkioten. Gero, gibela prestatu eta berriz ere apaldu. Zertarako goseak egon?

Baiña jende umilla eta apala ziranez, etzuten inondik ere beren azaiñaren otsa eta fama zabaltzerik nai izan. Ona zer bururatu zitzaien:

Ongi pentsatu zuten
nola manejatu,
jendeak etzezala
asko murmuratu.
Esaten dute -baño
nola siñestatu?-
etxeko beiak diola
adarron bat sartu.

Ondoren, alaitasunez eta pozaren pozez, etxeko bidea artu zuten:

Eizilari oriek
amekak aldian
abiatu dirade
Baztana bidian;
oien guziengatik
umore ederrian,

sartu izan biaute
beuren errian.

Guretzat dudarik ez da onako kanta au edo antzeko
besteren bat kantatuz egin zutela etxera bidea:

Au dek umoria!
Utzi alde batera
euskaldun jendia!

Belate aldeko pago-adarretan pake-pakean zeuden
ontzak izutu eta zalapartaka iges egingo zuten gau artan.

Baiña izkutuko gauzak nola edo ala jakin egiten dira
mundu ziztrin ontan. Apustu egingo nuke eiztariak berak
ere etzutela beren sekretu ori bear bezela gorde.

Edozein moduz, andik denbora-puska batera izenbu-
rua onela zuan bertsopaper bat agertu eta zabaldu zan:
Bertso berriak gazte batek jarriak. Eta beeko barrenean
moldiztegiaren izena: *Bengaray Impresor - Pamplona*.

Paper ortatik artuak ditugu idazlantxo ontarako gai-
ak. Bertso-sail asko prosara errez itzuli ditezke, izan ere,
eta kontakizun dotore eta egoki biurtu. Ala, gaurko ontan
ortara saiatu gera.

Lerro auek idatzi ondoren, Belate aldera ninjoan ba-
tean, Arraizko erriraiño saieskatu nintzan, eta Kazteluzar
baserriaren galdea egin. Baiña izen ortako etxerik an ez
dagoala erantzun zidaten. Ez dakit zer izango dan: edo
bertsopapera gaizki ala baserri ori geroztik galdua.

El Diario Vasco, 1999-08-15



Arraiz, Ultzama.

Estibalizko Ama Birjiña

Estibalizko Amaren santutegia, irakurleak jakingo duanez, Gasteiztik sortaldera dago, gain batean. Muiño ori toki egokia da iñoren joan-etorriak andik zaintzeko. Arabako ordeka, izan ere, gaur ez-ezik, nai eta nai ezko igarobidea izan da betidanik. Ortik barrena zihoan Burdeostik Astorgarako erromatar galtzara ere.

Oitura berezi bat bazan Estibalitz ontan garai batean, Naparroako Santxo Aundia erregeak agiri batean ontzat emana, naiz eta istorilari batzuek idazki ori gezurrezkoztat jotzen duten.

Maiatzaren leenengo egunean, eguzkia mendien gainetik agertu orduko, jende-taldeak an eta emen ikusten ziran Arabako bideetan, danak ere Estibalitz aldera zijoazenak. Agintari batzuk leendik igo, bertako praile nagusiarekin bildu eta jendearen zai an egoten ziran eliz-atarian. Aietako batek onelatsu esaten zien bildutakoei:

-Dakizutenez, iñork iñori iraiñik edo okerrik egin badio, urte guzian ez da izango ezpataren bidez mendekurik edo ordaiñik eskatzeko eskubiderik. Ortarako eguna gaurkoa da, eguzkia mendien atzean ezkutatu arte. Asmo ori dutenak nigana ager ditezela, arren!

Ortara etorriak ziranak aurrera pausoa ematen zuten orduan, nork zer kalte egiña zion azalduz, etsai ori an bertan burrukatzera desafiatuz eta erabiliko ziran armak seiñalatu. Praile nagusiak onela esaten zien:

-Fede santuaren izenean, elizan sar gaitezen orain danok.

Sartu eta Ama Birjiñaren irudiaren aurrean meza ematen zan. Jendeak serio asko entzun ere bai: batzuk kezketan, andik atera eta burrukatu bearra izango zutelako; aien adiskide eta familikoak bildurrez, zer gertatuko ote zan; eta beste batzuk erreguka, burrukazale aiek arro-

keria baztertu eta adiskidetu zitezen. Bukatutakoan, apaizak onelatsu itzegiten zien:

–Jesukristo gure Jauna, bere etsaiantzat barkazioa eskatuz il zan gurutzean. Orregatik, nik auxe esango di-zuet: gorrotoa utzi eta pakea egin ezazute, arren!

Iru bider errepikatzen zituan itz oiek. Batzuk, bai, al-karri besarkada eman eta adiskidetu egiten ziran. Beste batzuk, berriz, beren gorrotozko setarekin segi.

Orduan ateak zabaldu eta agintariak elizatik kanpo-ra irteten ziran, eta arrizko aulki batean eseri. Atzetik, amore eman nai etzuten zaldunak kanporatzen ziran. Barruan, berriz, otoizka gelditzen ziran praileak, fededun batzuk eta adiskidetu berriak.

Ondoren, zelai artan ura arma-otsa! Etziran gelditzen etsaia illik edo zauriturik erori arte. Bertako belarra ederki gorritzen zan.

Egun luzeak dira maiatzekoak. Baiña noizbait ere eguzkia izkutatu egiten zan. Orduan bukatutzat ematen zan joko negargarri ura. Baita Estibalizko kanpaiak bueltaka asi ere, eta inguruko errikoak erantzun, urtebeteko pakea asia zala adieraztearren.

San Juan eguna ere ospetsua izaten zan emen. Ama Birjiñaren irudia prozesioan atera eta apaizak eta erri-jendeak laguntzen zioten. Kanpaien otsa goitik beera zala eta eunka kandelen erdian, Gasteiz ondoko Arriagara eramaten zuten. Iritxitakoan, ango San Juan Txiki ermitan meza eman.

Urrena, ondoko zelai batera. Arabako ordezkariak antxe biltzen ziran, aritz baten itzalean; eta, Bizkaikoak Gernikakoarenean bezela, beren erabakiak artu. Arriagako Kofradia zutik egon zan bitartean, oitura orrek ere iraun zuan. Baiña 1332-ko apirillaren 2-an galdu, Araba Gaztelarekin bildu zanean. Ortarako Alfonso XI erregea etorri zan; eta, Arabako fueroak eta legeak gordeko zituala zin egiterakoan, onela esan zuan:

–Zadorra ibaiaren urak beetik gora leenago joango dira, lege auek galduko diran baiño.

Orregatik, San Juan egunean eta urte mordoan, Arabako diputaduak Zadorra ibaiaren bazterrera joaten ziran, jende-mordo aundiarekin batera. Ara iritxi eta artarako zegoanak aitaren egin, paper edo eskutitz bati musu eman eta erre kara botatzen zuan. Urak beeruntz eramaten zuan noski, eta orduan danak pozik, txaloka eta oiuka, fuero zaarrak seguru zeudelakoan.

Batean, Eztibaliztik Arriagara prozesioa abiatzerakoan, Ama Birjiñaren aurrerako kandela aundi batzuk piztu zituzten. Batzuek, ordea, kandela oiek angarilletan bizkarrean eraman nai eta onela oi u egin zuten:

–Gain boa!


Beste batzuek, berriz, beerago nai zuten, besoa beeruntz luzatu eta eskuarekin elduta, eta aiek:

–Oiñez!

Ez bat eta ez bi, alkar txikitzen asi eta ortik sortu omen ziran *Ganboatarrak* eta *Oñaztarrak* izeneko alderdiak, Erdi Aroan Euskal Erria odolez gorrituko zutenak. Beste zenbaiten iritzi, berriz, Ulibarrin edo beste nunbait gertatu zan ori.

Martxoan izan nintzan Estibalitzen. Ama Birjiña eta eliza bisitatu ondoren, ara-onera ibili nintzan. Ederrakango bistak. Alde batera, Gorbeia, Anboto, Elgea, Aizkorri, Aratz... Bestera: Urbasa, Entzia, Gasteizko mendiak, Badaia... Gasteizko lautada guzia berde-berde ageri zan, galsoroak urte-garai ortan egoten diranez. Zenbat errixka ikusiko dira gain artatik?

El Diario Vasco, 1999-08-25



Estibalitz, Araba.

Oroel mendiko erensugea

Mendizaleak eta eskiadoreak ain maitea duten Jaka erritik egoaldera begiratuta, Oroel izeneko mendi aundi eta zabala ikusten da. Baiña Yesako urtegitik aurrera dijoazela, gaillur ori bera bide luzean izango dute begien aurrean; punta txorrotx bat bezela, ordea. Olakoxea degu San Donato mendia ere: Uarte-Arakil aldetik, mendi zabal-lodikotea; Etxarri-Aranaztik, berriz, tontor liraiña.

Oroel mendi orrek ere badu bere leienda. Liburuetan irakurri izan det. Baiña nik emen erri-gizon baten aotik entzun bezela kontatuko det. Hilario Jarne zeritzana bera, San Juan de la Peña santutegiaren ondoan dagoan Atarés errian jaio eta bizia. Berak bere bizitza kontatuta, *Junto al fogaril de Atarés* izeneko iru liburu osatu genituan alkarren artean.

Oroel mendian bai omen zan, leengo zaarrak ziotenez, leitza-zulo bat, erensuge bildurgarri baten babeslekua eta bizitokia zana. Andik erne asko zeletatzen zuan ganadurik iñun ageri zan. Mendiaren oiñetik antxe pasatzen baitziran Pirineoko lepoetatik Ebroko ibaiaren erribera aldera udazkenean zijoazen artaldeak; baita ere udaberrian bueltan igotzen ziranak ere.

Alakoetan, mendiaren egaletan beera jetxi, ganaduren batzuk zora arazi, bere zulora eramane, eta antxe ito eta jan egiten zituan.

Baiña ganadurik billatzen ez bazuan, gauza bera egiten zuan kristauekin ere. Jaka aldeko jendea bildurrez aidean bizi zan, beraz, pizti gaizto arekin ezin buruturik.

Batean, ordea, Jakako kuarteleko militarren batek okerren bat egiña zuan; eta juzkatu eta eriotz-pena eman zioten. Baiña barkatuko ziotela, orratik, erensuge ura akaatzen bazuan.



Atarés, Huesca.

Militar ura azti batengana joan zan orduan, lan ori nola egingo zuan galdetzera. Azti orrek, berriz, ispillu aundi bat eta ezpata bat eman zizkion, eta bai nola jokatu bear zuan erakutsi ere.

Militarra mendian gora abiatu zan, bere ispillu eta ezpatarekin. Erensugeak, berriz, bere zulotik antxe ikusi zuan gizontxo mukizu bat beetik gora nola zetorkion. Ura irentsi bearrez, berak goitik beera jo zuan, sudur-mintzetatik sua zeriola.

Alkarrekin topo egin zutenean, militarrek ispillua aurre-aurrean jarri zion erensugeari. Au, alako pizti itxusia aurrean ikusita, arrituta gelditu zan, ispillutik begirik ezin kendurik; eta orduan militarrek lepoa moztu zion ezpatarekin.

Hilario Jarne jaunak esaten zidanez, bera eta bere lagun bat mutikotan sarritan ibiltzen ziran auntzekin mendi ortan. Erensugearen kontua ipui utsa zala jakiñagatik, aren leitza-zuloa nun izan zitekean arretaz begiratzen omen zuten. Zulo txikiak, bai, ikusten zituzten; baiña pizti aundi arek bear zuan ainbestekorik ez.

Berdin egiten zuan Itsasondoko Urkia baillarako Bixente Barandiaran adiskideak ere, berak bere *Zartu gabe ezin bizi* liburuan kontatzen duanez: Murumendiko Damaren koba-zuloari begiak ondo itsatsi, naiz eta andre orrengan federik ez izan.

Bi aldiz igoa naiz ni Oroel mendi ortara. Batean, ipar aldetik. Egal basotsua da ori, piñu lerdenez jantzia. Martxoan zan eta eguraldi bikaiña zegoan. Pirineo mendi-katearen puska aundi bat ikusten zan goiko puntatik. Tontor-zerrenda luzea, alegia, danak txuri-txuri, zeru urdiñaren azpian. Ego aldera, berriz, lurralde legorra eta menditsua ageri zan, *Peña Guara* izenekoak bere burua danen gainetik altxatzen zuala. Aren atzean, Hueskako zabaldegia dago; baiña ez genduan ikusten.

Beste batean ego aldetik igo nintzan. Abuztua zan, eta eguraldi eguzkitsua egiten zuan. Ala ere, Pirineoko gaillurrak erdi estalita zeuden. Frantzia aldean euria zala

ematen zuan. Ango laiñoak onunzko aldera pasa nai, baiña mendiak ez uzten.

Egal au soillagoa da. Antxe ikusi nuan *Virgen de la Cueva* izenekoaren ermita edo koba-zuloa. Barrunbe ura utsik dago orain, Ama Birjiñaren irudia Jakara eraman zuten eta. Baiña zurezko aulki batzuen puskek an zeuden oraindik ere. Jaiera aundia zion inguruko jendeak Andre Mari oni. Aren festa gaur egunean Jakan egiten dutela uste det.

Roque Alberto Faci idazleak kontatzen duanez, mutil bat auntz-talde batekin ibiltzen zan mendi ontan, eta auntz bat koba ortan maiz sartzen zala ikusi zuan. Aren atzetik joan zan, bada, egun batean, eta Ama Birjiñaren irudi ori antxe aurkitu.

Virgen de la Cueva orrentzat sortua omen da kanta ezagun ura:

*Que llueva, que llueva,
la Virgen de la Cueva,
los pajaritos cantan,
las nubes se levantan...*

Gure ume-denboran, beintzat, askotan kantatzen genduan kanta ori, euria asten zanean batez ere. Txikitik ikasitakoa nundik zetorren zaartu ta gero ikasi nuan, beraz.

El Diario Vasco, 1999-08-29



Hilario Jarne jauna, Atarés.

San Pedro de Cardeña

San Juan aurreko egunak dira; urteak dituan luzee-
nak eta ederrenak. Burgos aldera etorria izanik eta egin-
kizun guziak goizean bukatu, egokiera ona det arra-
tsaldean San Pedro de Cardeña ezagutzera joateko.

Logroño bidea artu eta urrena eskubira. Zelai za-
balak onako aukerak. Bai altuak ere, ia milla metrora irixten
diranez. Zeru urdiña goien; soroak ezker-eskubi. Garia
burututa dago, eta kolore berdea argitzen asia. An urru-
tian Sierra de la Demanda izenekoaren gaillurrak ikusten
dira.

Alako batean ordeka onek magal gozo bat egiten du;
txoko bat, alegia, eta an ageri da, zugaitz ederrez ingura-
tuta, Cardeña-ko komentua.

Olako tokietan oi dedanez, bertako berri ematen
duan liburua leenbaileen eskuratu det: *Jesús Marrodán:*
San Pedro de Cardeña: Historia y arte, Burgos, 1993; eta
irakurtzeari ekin, itzalpe batean eserita, ateak zabaltu bi-
tarteetan.

Bisigodoen garaian, VI mendean, Teodorico printzi-
pea eizean zebillen inguru ontan. Iturri bat ikusi eta eda-
tera jetxi zan. Baiña logaleak menderatu eta lo artu zuan.
Andik laster, ordea, larri eta estu esnatu zan, eta bai il
ere. Aren amak, Santxak, etorri eta semearen gorputzari
bertako ermita batean lur ematea agindu zuan, asmo au
arturik: bertan, Arantzazuko kanta zaarrak diotenez, "ko-
mentu poderoso" egingo zuala.

Ala, auxe omen da beneditarren leenengo monaste-
gia Espaiñian, San Benito il berria zala eraikia. Orduko
aztarren batzuk ere agertu izan dira emen.

Baiña andik berreun bat urtera, IX mendean, moro-
ak Espaiña geienaren jabe ziran. Batean, 834 urtean-
edo, beren indar guziak bildu eta iparraldeko kristau lu-

rretan sartu ziran, eraman zezaketena lapurtuz eta ezin zutena kiskaliz. Onera etorri eta berreun bat praile il zituzten. Gero, komentuari su eman. Abuztuaren 6-an gertatu zan ori.


Moroak aldegindakoan, ildako praileak *clauastro* batean lurperatuak izan ziran. Baiña ondoren, urtero, egun ori irixtean, ango arri zaarrak busti eta gorritu egiten omen ziran. Martiri aien odola zala etzuan iñork ere dudarik egiten. Elizak praile aiek santu izendatu zituan 1602-an.

Komentu onek bereala altxatu zuan osterera ere bere burua. Ala, XI mendean, emen zituan bere andre eta alabak Cid Campeador zaldun famatuak.

Onak, erregeak erbesteratu zuanean, Arlanzón ibaia-
ren bazterrean egin bear izan zuan leenengo gaua, Bur-
gosen iñork ere ostaturik eman etziolako, erregearen bil-
durrez noski. Urrengo egunsentian iritxi zan onera eta
atea jo, oillarrak kukurruku ari zirala: *Aprisa cantan los gallos e quieren crebar albores*. Praileak errezatzen ari ziran eta presaka azaldu ziran, kandelak eskuan zituztela. Bai zaldunaren andrea eta alabak ere, azken auek beren neskameen besoetan. Egun gozo batzuk alkarrekin pasa ondoren, goiz batez meza entzun eta banatu ziran, azkazala aragitik kentzea bezin mingarria bazitzaien ere: *assis parten unos d'otros como la uña de la carne*.

Zaldun ura antxe joan zan bere mendekoeekin, moroei gerra egiñez bizimodua ateratzera. Baiña aren berriak etziran bere andreak nai bezin sarri oneraiño etortzen. Ala, eliz-torrera igotzen zan, eta an zai egon, mandatari-
ren bat noiz azalduko.

Andik urteetara, albiste pozgarria iritxi zan orratik: Cid jauna Balentziaz jabetua zala eta bere familia ara eramatea nai zuala. Alaxe egin zuten. Esan bearrik ez dago ondo artuak izan zirala. Iritxitakoan, torre batera igo eta arrituta gelditu ziran, Gaztelako lur gorrietan oituta, iria-
ren jiran alako baratz emankorra ikusita, aruntzago itxaso urdiña zala...



Cardena, Burgos.

Usterik gutxienean, ordea, orra Afrikatik beste olatu bildurgarri bat etorri, *almorávides* izeneko moroak alegia, aurrean arrapatutako guzia apurtu bearrez. Cid jaunak Balentziari eutsi zion, ala ere. Baiña 1099-ko uztaillaren 10-ean il zan, aurten bederatzireun urte, beraz. Andik iru urtera, alarguna lekua ustu bearrean aurkitu zan; eta bere senarraren gorputza artu eta Cardeña ontara ekarri zuan. Bera ere emen lurperatu zuten ildakoan.

Urteetara, 1808-an, Napoleonen soldaduak ederki astindu zituzten emengo gauzak. Aien jeneral batek, Thiebault jaunak, senar-emazte oien ezurrak Burgosko katedralera eramatea agindu zuan urrengo urtean, eta geroztik an daude.

Praile-komentu guziak itxi egin ziran 1835-ean. Cardeñako au ere utsik gelditu zan. Erljioso batzuk ibili ziran andik urteetara ikusmiran, berriz ere etorriko ote ziran. Baiña leen bezin utsik jarraitu zuan, gure anai arteko gerrara arte. Orduan presondegi biurtu zutenez, betekada ederra artu zuan, lau bat milla bizilagun izan ziran eta batera, gogo aundirik gabe, *ostatu* ontan.

Baiña Cister-ko praileak 1942-an etorri ziran, eta geroztik emen daude, komentu aundi-eder au zainduz.

Nere itzalpetik atera eta banoa, ateak orain, lauretan, zabalduko diranez. Eliza gotiko ederra da. Argia goiko leio estu-luzeetatik sartzen da, otoitz-giro ederra sortuz. Turista-mordoa barruan. Austriarrak dira. Alako batean, beren eliz-kanta bat kantatzeari ekin diote. Bai ederki ere, lurralde artakoak oi dutenez. Barrura goaz, praile erakuslea etorritakoan. Onek gazteleraz itzegiten du, aren esanak taldeko andre batek beren izkuntzara itzuliz.

Elizaren eskui aldera, kapilla aundi batean, antxe dago Cid jaunaren eta bere emaztearen illobia, aspaldian utsik dagoana. Ormetan, berriz, aien familiko askoren illobiak.

Ezker aldeko ate batetik atera eta martirien klaustro zaarrera iritxi gera. Esan degunez, emengo arriak urtero gorritzen ziran.

Kanpora atera eta paseatzen nabillela, orra zutikako arri bat ikusi, idazki bat duana. Irakurri eta zera izan: Cid jaunaren *Babieca* zaldia emen lurperatua dala.

Kotxean sartu eta banoa berriz ere lurralde auetan barrena. Orra nere bidea nundik nora joango dan: Okako mendiak, Brujulako gaiña, Briviesca, Burebako zabaldegia, Obarenes mendiak, Pankorboko menditartea, Miranda, Ebro ibaia, Araba... Begiak gozatu ederra, beraz, galsoroen berdea eta zeruaren urdiña edanez...

El Diario Vasco, 1999-09-10

Calatañazor, Almanzorrek atabala galdu zuan erria

Madril aldetik nator, Soriako lurretan barrena. Abuztuan geranez, ederrak benetan zelai auetako galsoroen urre-kolorea eta arboladien berdea. Goien, berriz, zeru urdiña eta laiño txuriak.

Riaza eta Aillón igaro eta Soria irira iritxi baiño leen, ezkerrera artu det; eta kilometro pare batera orra begien aurrean Calatañazor erria, muiño baten gainean, jira guzian *murallak* edo arresiak dituala.

Aldapa igo, errira sartu eta Erdi Arora aldatu ote naitzen pentsatu det. Baiña tokirik geienetan garai artako jauregiak izan oi dira gure egunetaraiño zutik iraun dutenak; emengoak, berriz, jende xeearen etxe xaarrak dira, arri, egur eta buztinarekin eraikiak. Azpietan, berriz, egurrezko zutabeekin egindako pasealeku estaliak, Gaztelako erri askotan ikusten diranak.

Eliza XVI mendekoa da; baiña sarrera erromanikoa. Bai bataio-ponte bat ere. Santo Kristo ikusgarri bat esku-bira. Ezkerrera, erriaren bi bandera, aundi eta gorri, prozesioetan aterako dituztenak. Beso indartsuak bearko dira oiek tente eramateko, aizea dabillenean batez ere.

Aurrera segi eta gazteluraino iritxi naiz. Arkaitz baten gainean dago, amildegiz inguratua. Iru torre oraindik ere zutik, nola-ala bada ere.

Calatañazor erriaren izena eskolatik ezaguna izango dute nere adiñekoak. Ala ere, berritu dezagun orain ia mila urte emen gertatua.

Garai artan Almanzor zan Espaiñiako moroen buru. Kalifa ez bazan ere, aginte guziak bere esku zituana. Kristauen etsai amorratua izanik, auen aurka berrogei ta amabi erasoaldi egin zituan ogei ta sei urtean. Kristau lurretan sartu, alegia, eta aietan aal zuana il edo preso artu, balioko gauza guziei atzaparra erantsi, erriak eta eli-

zak erre, gazteluak apurtu... Eta beti ere garaile atera oi zan ura.

Aren asarrea eta gorrotoa ondo probatuak ziran Zaragoza, Leon, Astorga, Gormaz, Bartzelona, Coimbra, Atienza, Osma eta abar eta abar.

Santiagoraiño sartu eta ango elizari lur jo erazi zion, apostoluaren illobia errespetatu bazuan ere. Gero, ango kanpaiak artu eta kristau prisioneroen sorbaldetan Kordobaraiño eraman zituan, ango mezkitan aoz gora jarri, olio bete eta argi egin zezaten.

Kristau erreinuak izuak artuta eta ia etsita zeuden, berriz ere moroen oinpean eroriko ziran.

Ala, 1002 urtean, Almanzor ori Errioxako San Millán de la Gogulla-raiño etorri zan, eta txikizio negargarria egin. Andik bueltan, Canales, Mansilla, Neila eta Muriel pasa eta Calatañazor ontara iritxi zan. Baiña emen kristau indarrekin topo egin zuan. Leongo eta Naparroako erregeak eta Gaztelako kondea alkar artu eta aren aurka etorriak ziran; eta aldi ontan beste txori batek jo zuan kuku. Almanzor galtzaille atera, alegia. Gaixorik zetorrela edo orduan gaixoturik, andik egun gutxira Medinaceli-n il zan, tristuraz esaten dutenez, abuztuaren 10-ean.

Almanzorrek, burrukaldi baten ondoren jantziak aldatzerakoan, erantsitako autsa jaso eta kutxa batean gordetzen zuan. Baita kutxa ori toki danetara eraman ere, ildakoan autsa bere gorputzaren gaiñera bota zezaten, orrek zeruko atea zabalduko ziolakoan. Aren nai ori txin-txo beteaz illobiratu zuten.

Gau artan, Kordoban, Guadalquivir ibaiaren bazterretan, artzai-itxurako bat agertu omen zan, negarrez eta zotinka onela ziola:

–*¡En Calatañazor Almanzor perdió el tambor!*

Ñor urbiltzean, iges egiten zuan; urrutiratu eta an bere kantarekin segi. Andik egun gutxira gertatuaren berri iritxi zan, eta orduan dana ulertu.

Burrukaldi ori gizaldietan orrela kontatu zan. Baiña gero istorilari txorrotxak etorri ziran, kronika zaarretan

txeetasun asko oker zeudela ikusi, eta gertakizun ori dana gezurra zala erabaki zuten.

Lasai geldituko ziran, epai orrek *in saecula saeculorum* zutik iraungo zualakoan. Baiña Sánchez Albornoiz jaunak dionez, orain urte batzuk, Afrikako Fez irian, mezkita batean zerbait konpontzen asirik, zoko batean Andaluziatik ekarritako esku-idazki batzuk azaldu ziran. Eta, aietan agertzen danez, Calatañazorko burrukaldia benetan gertatua da.

Almanzor miñez izaten zan, *arthritis gotosa* batek jota. Aragi geiegi janez sortzen da sarritan gaitz ori. Zaldi gainean ezin ibili eta angarilletan eramaten zuten. Berak onela zion:

–Millaka soldadu nere mende dauzkat. Baiña ni aiek danak baiño errukarriagoa naiz.

Gauean ezin lo artu eta onela esaten zuan:

–Nere mendekoak zurrungaka lasai egongo dira. Nik, berriz, iñoiz loak artzen banau, begi bat itxita eta bestea zabalik egon bear izaten det.


Gaztelutik jetxi eta kaleetan barrena nabillela, atari batean amona xaar batzuk topo egin ditut.

–Emengo bataillaz zer zioten leengo zaarrak?

–Etzan emen izan, emendik gertu dagoan *Cerro Milanos* izenekoan baizik. Anka-ezur batzuk agertu izan dira angosoro batean. Andik egun batzuetara, Almanzor ori Medinaceli-n il zan, eta bertan lurperatu zuten. Baiña aren illobia ez dute oraindik aurkitu, billa saiatu badira ere, gorputzarekin batera urrez betetako ontziren bat ere sartu omen zuten eta.

Erri au dotore berritzen ari dira. Ortarako diru asko bearko da, baiña bertako jendeak igerri dio beren etorkizuna nun dagoan. Suerte ona opa diegu. Ni, berriz, bertan ordu pare bat gustora igarota, banoa berriz ere nere bidean aurrera.

El Diario Vasco, 1999-09-22



Calatañazor, Soria.

Peña de Francia santutegian

Extremadurara joan bearrean naiz, Diego Rodríguez eta bion artean prestatutako *Aprendiz de gañán* liburua-
ren aurkezpena egitera. Abiatu aurretik mapa zabaldu eta
toki ikusgarriren bat aukeratu, arunzkoan bisitatzeko.
Nere begiak bereala berezi dute *Peña de Francia* santute-
gia, Salamanca eta Cáceres probintzien mugan dagoana.

Lurralde menditsua onako au, *Sistema Central* izene-
koan gaudenez. Maldak aritz, arte, gaztain eta piñuz jan-
tzita daude. An eta emen erri txikiak, beren teillatu go-
rriekin. Tontor bat urrutian, arri utsa dana, alboko men-
dien artean nabarmen. Nik nai dedana uraxe da.

Bista ederrak gaillurretik, onek 1.720 metro dauka-
nez. Iparraldera, Salamankako zabaldegiak; egoaldera,
Extremadurakoak; sortaldera, Avila aldeko mendiak, Cal-
vitero eta Gredos-ko gaillurrak. Sartaldera, Portugaleko
mendiak...

Baiña zergatik *Peña de Francia* izen ori? Seguruena
au izango da: moroak bialdutakoan, lurralde au bizilagun-
ez ornitzeko, frantzes-mordoren bat ekarriko zuala erre-
geak. Ortik inguruko zenbait izen: *Sierra de Francia*, *Río
Francia*, *Meseta del Francés*, *Nava de Francia*...

Albo-erri batean, Sequeros-en, bazan XV mendean
Juana izeneko neska bat, *la moza santa* esaten ziotena.
Batean, gaixotu, kordea galdu eta, bere onera etorritako-
an, zera esan zuan: *Peña de Francia* mendian Ama Birji-
ñaren irudi bat agertuko zala.

Andik amar urtera, Simon zeritzan frantzes batek ze-
ruko abisu bat artu zuan: *Peña de Francia* izeneko tokian
Zeruko Amaren irudi bat aurkituko zuala. Ala, Frantzia
barrena ara eta onera ibili zan bost urtean, toki ori ezin
billaturik. Baiña abots au noiznai entzuten zuan:

—¡Simón, vela! ¡Simón, vela y no duermas!

Simón Vela esan zioten berari andik aurrera.

Frantziako bideetan asperturik, Espaiñiara aldatu zan, Salamankara, emengo Unibertsidadean toki orren berri jakingo zutelakoan. Iri ontan zebillela, plaza batean nekazari batzuk izketan somatu zituan; eta, ondotik pasatzean, orra *Peña de Francia* izena entzun. Ori nun zan galdetu eta aiek bideratu zuten.

Mendi ontara igo, bi egun arkaitzetako zokoak aztertzen pasa eta alperrik. Urrengo gauean, orratik, Ama Birjiña bera azaldu, onela esanez:

–Ementxe zuloa egin eta aurkituko dezu.

San Martín del Castañar errira jetxi zan laguntza bila, eta bost gizonekin itzuli. Lanean gogotik egin eta ara Zeruko Erregiñaren irudia koba-zulo batean aurkitu. 1434-ko maiatzaren 19-a zan. Koba orren gaiñean ermitatxo bat dago gaur egunean.

Beste iru irudi ere agertu ziran: Santo Kristo bat, Santiago eta San Andres. Noizbait ere moroen bildurrez gordetakoak izango ziran danak ere.

Simon goien gelditu zan bere denbora guzira. Besteak beren errira jetxi eta agerpenaren albistea zabaldu zuten. Bereala, batetik eta bestetik gaiak eramanez, ermitatxo bat altxatu zan emen.

Andik bi urtera, gero eta jende geiago zetorrenez, Juan II erregeak dominikoak ekarri zituan onera, bertan komentu bat egiñik. Berak izan dira geroztik santutegi onen zaintzailleak.

Baiña 1835-ean *desamortizazioa* gertatu zan: praile guziak beren komentuetatik bota, alegia. Onako au uts-utsik egon zan ogei urtean. Baiña okerrena, irudia lapurtu egin zutela 1872-VIII-17-an. Betiko galdua zala etsi zuan jendeak.

Baiña andik amazapi urtera, 1889-an, apaiz batek nun zegoan esan, aitortza baten bidez ori ikasita. Etorri eta arkaitz-tarte batean billatu zuten. Baiña bitxiak eramanez, eta irudia oso zarpaildua. Ala, berria egin zuten, zaarraren puskak berriaren barruan sartuz.

Orixe da gaur egunean aldarean dagoana. Antxe ikusi genduan, kandela eta loreen erdian. Apaiz bat meza ematen ari zan, eta fededun-mordo bat ixil eta arretaz entzuten.

Arabako seme bat izan zan emen, dominikoa bera, Ama Birjiña onenganako debozioa xuxperten eta zabal-tzen geien saiaturako gizona: Constantino Martínez, beraren izena, Ulibarri-ganboan jaioa.

Beste euskaldun batek, Migel Unamunok, bere *Andanzas y visiones españolas* liburuan, atal bat eskeiñi zion santutegi oni, *El silencio de la cima* izenarekin. One-la dio:

«Unos días en la cumbre silenciosa, en el Santuario de Nuestra Señora de la Peña de Francia, teniendo a un lado, al norte, la llanada de Salamanca, como un mar de cálidos matices sembrados de islas de verdura, los manchones de los encinares, y de otro lado, al sur, las abruptas sierras de las Hurdes, y detrás la sábana de Extremadura. Y al pie los pueblecillos de la sierra de Francia, agazapados entre castaños, enviando al cielo limpio el humo de sus hogares, viviendo su vida recogida. Y allí arriba, en la soledad de la cumbre, entre los enhiestos y duros peñascos, un silencio divino, un silencio recreador. Silencio sobre todo.»

Ixiltasuna, beraz, leku ontan geiena gustatu zitzaiona. Baiña gaur etorriko balitz, zer esango ote luke? Ni izan nintzanean, udara eta eguraldi ona zanez, ura jendearen emana! Ura zarata! Bazter guziak kotxez beteta. Beste giro bat izango da, noski, negu-partean, menditontor au elurrez eta jelaz estali eta ekaitz guziak zigortzen dutela.

El Diario Vasco, 1999-10-10



Peña de Francia, Salamanca.

Beste San Fermin bat

Mirandatik gora Ebro ibaiaren ondotik joanda, Sobrón-go zintzur estuan sartu naiz. Mendi zakarrak ezker eta eskubi. Aien egaletan, arkaitz tente eta txuriak. Baita piñudi itxi-illunak ere. Oiek guziak ibaiaren azal garbian ispillu batean bezela ikusten ditut, presa batek emengo urak bildu eta gelditu egiten ditu eta. Ondoren, Tobalina-ko zabaldegia. Erri txiki politak nun-nai. Frías-ko erria ezkerrean, bere gaztelu ederra eta Erdi Aroko zubiarekin.

Trespaderne-n Oña-ko bidea artu det, egoaldera. Au-rean piñuz jantzitako mendiak ditut. Baita beste zintzur estu baten aoa ere. Andik barrena dator Ebro ibaia. Ni ere menditarte ortan sartu naiz. Emen ere arkaitz tente txuriak eta piñudiak ugari.

Bi kilometrora, eskubira artu eta Tartalés de Cilla-ra igo naiz. Erri au mendi-zoko batean dago, *Sierra de la Tesla* izenekoaren bukaeran. Soro txikiak ikusten dira, mendi-egaletan mailletan jarriak. Gogotik saiatuko ziran oietan leengo nekazariak; baiña gaur, ainbat tokitan bezela, geienak belardi biurtuta daude.

Erri au, beste asko bezela, ia utsik egoten da neguan, eta udaran bete-bete eginda. Ala, etxe zaarrak konpondu eta dotoretu egin dira. Berriak altxa ere bai.

Eliza txikia emengoa, erromanikoa. Onek erri au antziñakoa dala esaten digu. Orain milla bat urte gizon adoretzu batzuk onera etorriko ziran, mendiarekin eta baso-arekin burruka egiñez ogibidea irabaztera.

Sortaldera, oso gertu, baiña Ebro ibaia tartean dala, *Peña Mayor* izeneko mendia altxatzen da: goitik beera danna arkaitz soilla, pelotaleku baten aurreko pareta balitz bezela. Arratsaldeko eguzkiak argi egiten dio; eta aitz orren zuloetan putreak beren kabiak dituztenez, egazti oiek an ikusten dira mendiaren aurrean, patxara ederrean egan.

Erri ontara zerk ekarri nauan? Izenburuak dionez, beste San Fermin bat ere badala, eta nun eta mendi-zoko ontan. Orrela aurkitu det zenbait laguneren artean egindako liburu ontan: *Leyendas y fiestas populares del Norte de Burgos*, Villarcayo, 1988.

Erri ontan bazan, mende onen asieran, San Fermin ermita bat, eta bertan illobi bat idazki onekin: *Respices augustum de rupe precisum Fermini sepulchrum*. Euske-raz: Ona emen Ferminen illobi agurgarria, arkaitzetik aterea. Fermin au otoitz eta penitentzi-bizitza egindako bakarzale edo *ermitaño* bat izan zan, bere bizilekua Ebro ibaiaren mendi-zintzur onen sarreran zuana; eta lur eman ere bertan egin zioten, il zanean.

Andik urteetara, aren ezurrak erliki santuak zirala-ta, eramateko asmotan etorri zan Trespaderne-ko jendea. Illobiari eutsi eta indarra gogotik egin ere bai; baiña ezin iñola ere mugitu. Bein eta berriro saiatuagatik, beti alperrik. Azkenean, onela esan zuten:

–Emen badago gurea baiño indar aundiagoren bat, au guk eramaterik nai ez duana.

Orduan erri ontakoak etorri ziran, Tartaleskoak. Illobiari eskua erantsi eta luma bat balitz bezela altxatu zuten. Baita beren erri ontara errez asko ekarri ere. Orduan onela esan zuten danak ere:

–Erri ontan nai du.

Batean, Juan Alonsok, Villarcayo-ko aguazilla zanak, ermitan iñork ikusi gabe sartu, illobitik ezur bat atera eta etxera eraman zuan, familiaren osasuna arek ekarriko ziola-ta. Dana alderantziz gertatu, ordea: besteak leen bezin gaixo eta bera ere ondo-ezik jarri. Bere pekatua apaiz bati aitortu zion orduan. Onak santuaren erlikia bere illobira ekarri zuan, eta aguazilla eta danak besterik gabe sendatu ziran.

Beste bein, elizkizuneren batean, gizon bat illobiaren gaiñean eseri zan. Baiña orduan abots lodi bat entzun zan: “*Surge!*”. Altxatzeko, alegia, erliki aiei begirune geiago zor zitzaie la eta.

Oitura au zuten leen erri ontan: legortea zanean, San Ferminen erlikiak atera eta Ebroko ertzeraño jetxi, joan-
-etorria otoizka egiñez, errogatiban alegia.

Erri-sarrerako itzalpe batean eseri eta kontakizun auek buruan berritzen ari naizela, kotxe bat ondoan gel-
ditu eta bi gizaseme jetxi dira. Gipuzkoarra naizela esan-
dakoan, aietako bati begiak argitu egin zaizkio. Bera, ber-
tako semea izanik, urte askoan Billabonan lan egiña izan,
orain erretiroa artuta badago ere.

San Fermin ermitaren paretak ezagutu omen zituz-
ten berak. Erriko festak, santu onen omenez, irailaren
25-ean ospatzen dituzte. Aurten ere ala egingo dute.

Ebro ibaiak zintzur luze-estua du onako au, Valdi-
vielso arantetik Trespadeneko erriraiño; Montes Obarenes
dute izena emengo mendiak eta auetan barrena.

Zintzur oni *Desfiladero de la Horadada* esaten diote.
Izen ori leengo bide zaarra egiteko arkaitz bat *zulatu* zu-
telako erantsi zioten. Baiña erriak *leienda* bat atera zuan
ortik: kristauak, moroekin emen topo egin eta, burrukan
asterakoan, onela esan zutela:

-*Es la hora dada.*

Zintzur ontan sartu gabe, Cillaperlata-ko bidea artu-
ta, kilometro eskas batera eta piñudiz inguratua, Ama
Birjiñaren ermita bat dago: *Nuestra Señora de Encinillas*.
Aren inguruan bosteun bat illobi aurkitu ziran. Bertan
beste burrukaldi bat jo omen zuten alkarrekin moroak eta
kristauak; *Batalla del Negro Día* izenekoa. Moroetatik be-
deratzi milla il ziran; kristauen buruzagia Pelayo erregea
zan, Covadonga-ko garailea alegia; eta eguna 726 urteko
abuztuaren 9-garrena.

Baiña *leienda* oiek alde bat utzita, nere idazlantxo
onen elburua zera da: euskaldunei, eta batez ere napa-
rrei, beste San Fermin bat ere badala jakin eraztea, eta
aren festa-eguna noiz dan esatea, emengo San Fermin-
tara iñork etorri nai balu.



Tartalés de Cilla, Burgos.

Sotoscueva-ko lurpeko bideak

Sotoscueva Burgosko probintziaren iparraldeko lurralde edo *merindade* bat da. Izen orrek koba edo leitzairen batekin zer ikusirik baduala garbi aitortzen du. *Ojo Guareña* du koba orrek izena. Obeto esateko, ao eta zulo asko dira, lurpean alkarrekin lotzen diranak.

Toki ikusgarria da. Mendiaren goiko aldean, arkaitza aurrera ateratzen da, txapel bat bezela. Beean, ermita baten sarrera, barrunbea aitzaren biotzean duala. Zugaitzak an eta emen. Beeko zokoan izkututzen dan errekek, *Río Escondido* du izena.

Barruan istoria aurreko gizonen aztarren asko azaldu dira; brontzezko aizkorak, eltze-puskak eta abar. Aiek emen zuten, beraz, beren bizilekua.

Antziña zaarrear, koba au bizar luzeko gizon bakarti baten etxea izan zan. *Lan* beraren izena. Artz batek eta beste bi pizti bildurgarrik lagun egiten zioten.

Bisigodoen errege bat koba ontan sartu omen zan, ardi-zai zebillen neska baten segika. Aien atzetik erregearen medikua ere bai. Egunetan entzun ziran aien oiua eta zotiñak. Baiña denborarekin ixildu eta andik etzan ez erregerik, ez neskarik eta ez medikurik atera.

San Tirso izan zan ermita ontako leenengo santua, Toledon jainera aundia ziotena. Ala, moroak Espaiñiaz jabetutakoan, ango kristau batzuk onera etorri ziran igesi, eta santu ura aukeratu emen aldarean jartzeko.

Barrua, XVIII mendeko pinturak apaintzen dute, santuaren martirioa kontatuz. Jainko faltsorik adoratu nai ez eta zer sufri erazi zioten: sorbalda zigortu; anka-eskuak lotu eta belarrondokoak eman; betilleak eta begiak erre; ortzak apurtu; burnizko arantzez jositako oe batean etzan erazi; berun urtua ixuri; zerra batekin erdibitu nai eta ezin; piztietara bota eta aiek lagun egin; zaku batean

sartu, lotu eta itxasora bota, baiña aingeruak andik atera; burua aoz beera tupi batean sartu, urez bete eta irakin erazi nai, baiña tupia leertu...


Batean, gizon altu bat azaldu zan emen, edukatua eta fiña, baiña jantzi pobreekin. Urrutitik zetorrela esan zuan. Albo-errietan eskean ibili eta illuntzetan goiko koba onen barruan babesten zan. Iru egun orrela pasa eta alde egin zuan. Urtebetera, koba ondoan zebillen artzaitxo bati gizon altu ori bera agertu zitzaion, eta ez bildurtzeko esan; Bernabe zeritzala, eta inguruko jendearen zaindaria izan nai zuala. Eskale ura santu bat zala-ta, ura ere aldarean jarri zuan erriak.

San Bernabe esaten zaio geroztik ermita oni. Aren egunean egiten da festa, ekainaren 11-n. Jende asko datorrenez, kanpoan ematen dute meza, eta arrizko kurpitu polit bat ere antxe ikusten da.

Bi santu auen mirariak pintatuta daude arkaitzean: andre bat, otar aundi bat eltze zekarrela, goitik beera erori zala, berak eltzeak salbatzeko eskatu zuala, eta auek oso-osorik gelditu zirala, baiña bera il egin zala; gaixo bat onera arrastaka etorri eta onik atera zala; goitik beera amildu eta onik geratuak bat baiño geiago: itzai bat idi eta guzi eroria; beste bat gurdi eta guzi; beste bat, emengo bidea barra batekin konpontzen ari zana; egurgille bat; neska bat, au ere idiekin; auntekin zebillena bestea, belar bati elduta salbatua; elurretan irristatuta bestea... Leku arriskutsua, beraz, onako au; baiña emengo santuak beti erne laguntza emateko.

Moroak ere bizi izan ziran koba ontan. Urre-pipiak arkitzen zituzten koba barruko errekan eta ur oiek sortzen diran mendietan. Aien altxorak emen daude oraindik. Billatu nairik sartutakoak, aurrera joan, putzu batera iritxi eta an idazki bat topatu izan oi dute: *Sarrera alaiá, irteera tristea*. Ala, araiño joandakoak oso larri ibiliak dira ateratzeko.

Batean, beren arteko gerra bakarkako burruka batekin bukatzea erabaki nai izan zuten moroak eta kristauak. Auetatik *Yunyerro* izeneko indartsu bat atera zan.



Sotoscueva, Burgos.

Ura ikusi eta moroak bildurtu egin ziran. Arekin neurtze-
ra etzan iñor ausartzen. Orduan kristauak pike beltzez
igurtzi zuten *Yunyerro* ori, eta onek berriro moroei desa-
fioa egin. Auen amorrua, ura moro ernegatu bat zalako-
an! Ala, aietako bat atera zan, baiña esku utsez burru-
katzekotan. Alkar eldu, amilka joan eta, beera iritxitako-
an, kristauak moroa il egin zuan. Toki orri *Moroaren La-
rraiña* deitu zaio geroztik (*Era del Moro*).

Yunyerro orren erria ujolde batek ondatu zuan. Ango
jendea albo-errietara banatu zan bizi izatera, *Yunyerro* eta
bere emaztea izan ezik. Ura il zanean, iru errik mantendu
zuten alarguna. Baiña erri batean arbia besterik etzioten
ematen jateko; bestean babarruna bakarrik; irugarrene-
an, berriz, ogia, barbantzia eta potaje ederra. Ala, erri
oni, Cornejo izenekoari, utzi zion berak testamentuan se-
nar zanaren erriko lurra.

Sorgiñak ere baziran emen. Baiña San Bernabek da-
nak uxatu zituan, koba barruan bizitu zanean.

Emendik gertu arte aundi bat zan garai batean. In-
guruko gizonak aren oiñean egin oi zituzten beren batza-
rrak, bizkaitarrak Gernikako arbolaren itzalpean bezela.
Baiña XVII mendean, batzar oiek koba barruan egiten asi
ziran. Artxiboa ere bertan eduki zuten, 1924 urtera arte.
Kartzela ere emen izan zan.

Koba barru au aztertzen orain berrogei bat urte asi
ziran ortarako diranak. Lurpeko bideak sare bigurri aun-
di bat osatzen dute. Ala, eun bat kilometro barruan ibiliak
dira, baiña bukaera ez dute oraindik aurkitu.

Batean, lurpean zijoazela, oin-arrasto batzuk aurkitu
zituzten. Norenak izango eta istoria aurreko gizonenak.
Talde bat araiño sartua eta, lurra buztiznekoa zanez, au
legortutakoan urratsak antxe geldituak.

Gizon baten eskeletoarekin topo egin zuten bestean.
Jesukristo baiño seireun urte leenagokoa bera. Aoz gora
zegoan, besoak sabelaren gaiñean gurutzetuta zeuzkala.
Zer gerta ote zitzaion? Kobaren ao batetik gertu samar,
egoaldera, orduko jendearen bizileku bat agertu da. Ura,

ziur aski, angoa izango zan, eta koba barrura sartua, su-
zi baten argiarekin, egur bat ere aren gorputzaren ondo-
an azaldu zan eta. Barruan zebilela, iru metroko gain ba-
tetik zulo batera erori. Ezin bueltatu, eta antxe gelditu be-
ar, goseak il arte. Ur-ixuri bat bazan alboan, eta berak
putzu txiki bat egiña zuan, bertatik edateko.

Onako au toki berezia izan da, beraz, antziñatik; eta
zer esan geiago ere badu. Espinosa de los Monteros-tik
aruntzago dago, Euskal Erritik gertu samar, Bilbotik ba-
tez ere. Ango berri batzuk ematen jardun naiz, arako as-
moa artzen duanari damutuko etzaiolakoan.

El Diario Vasco, 1999-10-24

Bat-bateko bertso gintza Kantabrian

Gaurko ontan Kantabriara joango gera, Nansa ibaia-
ren ertzeraiño, eta aren ondotik gora artu, begiei gozatu
bat emanez: belardiak, basoak, arto-soroak, mendi zaba-
lak... Erri politak emengoak: Celis, Puentenansa, Obeso-
ko gaztelua, Cosío, La Lastra... Ezkerretara, Tudanca. Pe-
reda-k ortxe jartzen ditu *Peñas arriba* nobelaren gertaki-
zunak. Ondoren, menditarte estua eta aldapa latza, presa
aundi batekin. Urrena, Cohilla-ko urtegia eta Polaciones
esaten zaion lurraldea.

Onera artekoa begientzat atsegingarria izan baldin
bada, oraingo au areagoa. Mendi altuak inguruan: ipa-
rraldera, Peña Sagra; egoaldera, Cordel, Tres Mares, Peña
Labra... An eta emen erri txikiak: La Laguna, Pejanda,
San Mamés, Belmonte, Cotillos, Santa Eulalia, Salceda,
Puente Pumar, Lombraña, Uznayo eta Tresabuela.

Baiña toki ikusgarri bat ezagutzeaz gain, izan det
onera etortzeko beste arrazoi bat. Orain urte t'erdi, idaz-
lantxo bat atera nuan egunkari ontan, Asturias aldean
antziñako denboretan bat-bateko bertso gintza nola zan
zertxobait adieraziz.

Gaur, berriz, Kantabria aldekoaren berri eman nai
nuke, esatekoak liburu ontatik artuz: Jose María de Cos-
ío: *Rutas literarias de la Montaña*, (Santander, 1989).
Jaun ori zan, ain zuzen, Tudanca-ko *la Casona* deritzaio-
naren nagusia.

Ez dakit nungo bertsolari batek onela esan omen
zuan emengo jendearengatik:

*Polaciones, tarugones,
ladrones de media pierna,
que les roban los campanos
a las vacas de mi tierra.*

Zera esan nai du: gure artean ez-ezik, an ere, besteren aziendari kendutako txintzarriak merkeagoak dirala, dendan erositakoak baiño.

Noiz eta nola ez dakigula, Lombraña errian, tranparen bat jarri eta otsoa antxe erori omen zan. Kopla au laister zebillen jendearen aotan:

*De Polaciones no fies
aunque te den la palabra,
porque engañaron al lobo
en el corral de Lombraña.*

Batean, emengotar batzuk mendien beste aldera joan ziran eztai batzuetara, Palentziako partean dagoan Pernía izeneko lurraldera, oiñez noski. Bidean nola zetozen ikusita, auxe kantatu zien ango batek:

*Asómense a esas ventanas
y a esos altos corredores;
ahora verán venir
los tochos de Polaciones.*

Tocho itz orrek zer esan nai duan obeto jakiteko, erdal iztegia begiratu det, eta onako lore auek aurkitu ditut: *tosco, inculto, tonto, necio.*

Baiña emengotarrak Juan José Morante izeneko bat zuten taldean, eta onek onela erantzun zuan:

*Del valle de Polaciones
sacó el rey sus consejeros;
del condado de Pernía
pastores y borregueros.*

Pernía aldetik ateratzen baitziran mendi auetatik Extremadura eta Andaluziraiño udazkenean joaten ziran artaldeak eta artzaiak, udaberrian atzera etortzeko. Baiña erregearen kontsejatzaille oiek nortzuk ote ziran?

Ori jakiteko emengo erri batera joango gera. Tresa-buela beraren izena. Zoko batean dago. Belardi eder-opa-

roak nun-nai. Mendi-egaletan, pagadiak. Arrizko etxe ederrak. Orain egitezkeroz, zenbat kostako lirake? Elizaraiño iritxi naiz, eta ango orma batean onako idazki au ikusi det:

“Francisco de Rávago (1685-1783), teólogo preclaro, consejero de reyes, acreedor perpetuo a la gratitud de la Montaña, nació en este pueblo, fue bautizado en esta iglesia”.

Fernando VI erregearen aitorlea izateraiño iritxi zan emengo seme ura; eta, bere kargu ortatik, jaiotako erriari eta probintziari on egiten gogotik saiatu. Ortik koplalariaren ateraldia: erregeak emendik kontsejatzailleak ateratzen zituala; Perniako errietatik, berriz, artzai jendea besterik ez.

Aita Rávago orrek emengo eliza berritu erazi zuan; eta, jesuita txintxoia izanik, bi irudi erregalatu ere bai: San Frantzisko Xabierrekoa eta San Inazio Loiolakoa. Oni, prozesioetan ateratzen zutenean, *San Ignaciuco* esaten zion emengo jendeak. Orra, beraz, *gure Patroi aundia* kategoriz ederki bajatuta.

Erri barruan ibili naiz aruntz eta onuntz. Ez da aitona-amonak eta umeak besterik ikusten. Sasoiko guziak belar-lanetan ari dira. Eguraldi ona dute ortarako, egoaizea dabillenez.

Ondoren, Piedras Luengas izeneko gaiñera igo naiz. Basoz betetako mendiak auek. Garai batean, otso, artz, basurde, basauntz, azeri eta gaiñerako piztien babes-lekuak izango ziranak, noski. Bidean gora noala, lerden eta tente, goizeko eguzkiarekin txuri-txuri, *Picos de Europa* izeneko tontorrak agertu zaizkit. Nere begientzat beste gozagarri bat, beraz.

El Diario Vasco, 1999-11-14

1912 urteko galerna

Bermeotik aruntz, Matxixako muturra igaro ondoren, Gaztelugatxe azaldu zait, San Juan ermitarekin. Atzean, itxaso urdiña, zeruarekin bat egin arte luzatzen dana. Auxe da Euskal Erriko itxas-ikuspeirik ederrenetako bat. Nere begiei gozatu bat eman nairik, kotxea baztertu egin det. Baiña orra ustegabekoa: oroitarri bat altxatzen da emen, kamio-bazterrean eta itxas zabalaren aurrean, onela diona:

«Dediquemos una oración como recuerdo a los pescadores que durante la galerna de la noche del 12 al 13 de agosto de 1912 perecieron en el mar, entre ellos a los 116 arrantzales bermeanos».

Bertsoak ere badira gai ortaz: *Fermin Imazek eta Txiritak jarriyak, Kantabriako itxas-gizonai oroipen bat*. Bertsolari oiek erriz erri ibili ziran paperak saltzen. Sail ori *Auspoa*-ren 24-an argitaratu genduan, egunkarietako argibideak aurretik eskeñiz.

Ekaitz ori abuztuaren 12-an sortu zan, asteleenarekin. Izan zan, ordea, zer denborale zetorren igerriz zionik: Orkolaga apaiza, Ernaniko semea eta Zarauzko bikarioa, galernak aurretik usaitzen zekiana.

Aren abisua garaiz iritxi zan Gipuzkoako kosta-errietara, eta txalupa gutxi itxasoratu ziran.

Bizkaian, egun eguzkitsua zabaldu zuan ezkerro, Bermeotik, adibidez, txalupa guziak irten ziran, iru egun barru San Rokeren festetara etorriko ziralakoan. Gaiñerako errietatik ere berdintsu. Baiña Ondarroan, Santa Klara eguna izanik bertan festa egiten danez, arrantzale asko itxasora gabe gelditu ziran.

Eguna ondo igaro zan. Baiña illunabarrean:

Itxasua zitzaigun
asarretzen asi,
bendabal aldetik zan
aizia nagusi;
nork bere puestuari
ezin ziyon eutsi,
danak zatitu ditu,
iñor ez du utzi,
Gipuzkuan bertatik
ez da falta gutxi.

Mariñelak urruti zeuden: legorretik irurogei bat millara. Jo zuten kai aldera, baiña bidean txalupa eta gizon asko galdu ziran. Bermeotik geiena:

Eun da amaseikua
Bermeo bakarra,
aurten ez dute izan
suerte ederra;
erri txiki batentzat
ai ori negarra,
aurrak aita falta du
ta amak senarra,
badaukate anparo
on baten bearra.

Eun da berrogei ta iru
omen dira danak,
arrantzalietaik
ondata diranak,
gure Jaungoikuari
kontua emanak...

Belako ontzi bat, *Aita San Inaziyo* izenekoa, urpera joan zan amairu gizonekin. Auek galdu ziran; baiña santuaren irudia, "tenpestade gaixtuak jo ta puskatua", Habanako partean azaldu zan.

Juan Daniel Ezkurtza, ogei ta emeretzi urtekoa, bost seme-alabaren aita, Lekeitioko *San Nikolas* txaluparen patroia zan. Zortzi lagun ziran. Aizeak tantaia puskatu

zienean, arekin eta beste egur batekin, biak alkarri lotuta, gurutze bat egin zuten. Gau erdian itxasoak txalupa aoz beera irauli zuan. Zortzi lagunak ur-azalera atera ziran, eta gurutzeari eldu.

Andik laster, aizeak eta olatuak txalupa ostera zutik jarri zuten. Lau lagunek aruntz igeri ekin zioten orduan. Baiña, ezin iritxirik, atzera jo zuten, gurutze aldera; eta, au ezin arrapaturik, antxe ondatu ziran. Urrena, beste lagun bat galdu zan, bostgarrena, tantaiaren soka batekin trabatuta.

Iru gelditu ziran: Ezkurtza ori, Felix Laka, emeretzi urtekoa, eta Fidel Bengoetxea, ogeikoa. Bi auek argaltzen zijoazen, eta arek onela esaten zien:

–Eutsi, mutillak! Azalduko dek baporen bat!

Beste amabi ordu pasa ziran. Astearte eguerdian, errezzatu, barkazioa eskatu eta betiko agurra egin zioten alkarri, beren buruaz etsita.

Aurrena Felix galdu zan, indarrak aitu eta gurutzeari utzita. Urrena, Fidel. Juan Daniel an gelditu zan itxas erdian bakar-bakarrik, egarriz eta logalez. Orduan, bere txamarraz aoa estali egin zuan, urik ez irinstearren; eta polea bat kokotzaren azpian jarri, loak menderatutakoan, ura jo eta esnatzarren.

Illundu zuan. Gauda igaro zan eta asteazken-goiza zabaldu. Galduen billa ateratako bapore batzuk ikusi zituan Juan Danielek. Deadar egin ere bai; baiña itxasontzi aiek, bera ikusi gabe, alde egin zuten.

Ostegun-goizean, *Mamelena* baporea itxasoan zebillen, laguntza nori emango zion. Alako batez, mariñel bati oiuren bat entzun ote zuan iruditu zitzaion. Erne jarri eta ala izan. Gizon bat an ikusi zuten egur bati elduta, olatuen jostailu, deadarka eta besoak mugituz. Txalupa bat uretara bota eta jaso zuten, erioarekin berrogei ta amasei orduko burruka jo ondoren.

Oiek gogoratuz, ordu erdi bat emen igaro det, begiak itxas aldera zuzenduz. Au zoragarria da giro onarekin; baiña deabru guziak berekin dituana, asarretutakoan.

Gaizki ote legoke bertso auetakoren bat oroitarri oni eranstea? Onako au, adibidez:

Jesus maitiak eman
dezala argiya,
oraingo bolara ontan
badago premiya;
euskaldunen artian
au da pikardiya:
Bermeotik galdu da
jendien erdiya,
lutoz jantziya dago
kosta Kantabriya.

El Diario Vasco, 1999-12-29

Aínsa, Sobrarbeko iriburua

Sobrarbeko lurraldea Pirineo mendien oiñetan dago, Hueskako probintzian, Jakatik aruntz. Bertako iriburua, Aínsa, Cinca eta Ara ibaiak biltzen diran tokian aurkituko degu, gain batean. Erri ederra da. Arrizko etxeak, dotore berrituak. Plaza ikusgarria, arkupezu inguratua.

Saiets batean, eliza. Erromanikoa bera, klaustro, kripta eta torrearekin. Bestean, berriz, gaztelua, aundi eta sendoa. Arako bidean, arri bat, Sobrarbeko fueroetatik artutako idazki onekin:

“En paz y justicia regirás el reino y nos darás fueros mejores. Cuanto a los moros se conquistase, dividase no sólo entre ricos hombres, sí también entre los caballeros e infanzones, pero nada reciba el extranjero. No será lícito al rey legislar sin oír el dictamen de los súbditos; de comenzar guerra, de hacer paz, de ajustar tregua o de tratar otra cosa de grande interés te guardarás, oh rey, sin anuencia del consejo de los señores”.

Ez; gaurkoa ez-ezik, Erdi Aroko aragoitar jendea ere etzan iñoren aurrean kiskurtzen.

Gaztelu barruan plaza bat, futbol-zelai baten aiñakoa. Konpontzen ari dira, eta aitona batek onela esaten dit:

–Leengo zaarrak ziotenez, lurpeko bide bat omen zan gaztelutik Cinca ibairaña jeixten zana, uretara joateko zutena. Baiña galduta dago. Orain zai-zai gaude, obra onekin ea azaltzen dan.

Udazkeneko egun eguzkitsua danez, erri alde guzia turistak artuta dago. Nik, berriz, naiago det bakardadea. Banoa, beraz, erritik aruntz, bide zelai batean aurrera. Ezker-eskubi, galsoroak, maastiren bat edo beste, alpa-saillak, almendroak...

Alako batean, erritik kilometro ta erdira, estalpetxo bat, arrizko zortzi zutabek teillatuari eusten diotela. Barruan beste zutabe bat, enbor baten antzekoa, eta gainean gurutze bat. Onen izena: *La Cruz Cubierta*. Idazki bateg, berriz, onela dio:

“En este punto apareció milagrosamente la cruz llamada de Sobrarbe, blasón de este reino y de la villa de Aynsa...”.

Oroigarri au 1635 urtean altxatu omen zan. Baiña aizeak bota egin zuan, eta 1765-ean berriro jaso zuten.

IX mendean Garci Jimenez omen zan Naparroako eta Aragoiko erregea. Batean, bere arma-gizon guziak bildu eta onera etorri zan, Aínsako erria moroen mendetik atera nairik.

Baiña mahomatarrak bidera atera zitzaizkion, gaur *Cruz Cubierta* au altxatzen dan tokira. Bi gudarozteak emen jo zuten alkar. Kristauak, gutxiago izanik, larri zebiltzan. Ia etsita zeudela, bat-batean an ikusi zuten arteondo baten gainean gurutze bat sutan. Orrekin indarberrituta, berak nagusitu ziran, Aínsako erria berengantuz.

Arteondo eta gurutze ori Sobrarbeko arma-arrian daude geroztik. Sobrarbe izena bera ere ortik omen dator: *Super-arbem*, alegia: *Sobre el árbol*.

Burruka irabazitakoan, erregeak soldadu bat bialdu zuan erregeñarengana, oni garaipenaren berria ematera. Mutilla korrika abiatu zan, beraz; iritxi eta “Irabazi degu” esan zuan.

Maratoiko burrukan bezela, alegia. An ere grezitarrak, persiatarrak menderatutakoan, soldadu bat bialdu zuten Atenasko erriari berri ona ematearren. Korrika abiatu, iritxi, “Irabazi degu” esan eta nekearen nekez lurrera illik erori zan. Ortik *Maratoi* izeneko korrika-apusua, gaur ere jokatzen dana.

Emengo mutilla, berriz, Aragoiko menditar bat izango zan, gazte eta sasoikoa, aldapa latz auetan gora eta be-

era auntsak eta erbiak bezela ibiltzen oitua. Ala, zekarren albiste pozgarria eman eta etzan erori. Antxe egongo zan, bere anka-zuztarren gainean, tente, lerden eta sendo, alai eta irripartsu, erregiñaren aurrean.


Onek, berriz, nola edo ala eskertu egin nai alako mandataria. Baiña zer emango? Otorduren bat egiten ari zan eta eskuan zuan zillarrezko kutxara luzatu zion.

Geroztik, Ainsa ontan, erriko festetan, korrika-apustu bat urtero antolatzen da, antziñako mutil arek egin zuanaren oroigarri. Baiña irabaztunari ez diote ez koparik eta ez beste olako saririk ematen, kutxara bat baizik.

Oroipen zaar auek buruan darabilzkidan bitartean, iparraldera an ikusten ditut, zero urdiñaren azpian eta elur berriarekin zuri-zuri, Pirineoko tontorrak: Tres Sorores eta abar. Emendik gertu, berriz, artalde bat, bere txintzarrei eragiñez. Noizbeinka artzaiaren oiuren bat edo beste, eta zakurraren zaunkak...

Garai bateko garaipen orren oroigarri, bi urtean bein, iraillaren leen igandean, antzerki moduko bat egiten dute ainsatarrak, erri guziak parte arturik eta antziñako gertaerak berrituz. *La Morisma* du festa orrek izena. Urrena egiten dutenean etortzen banaiz, atsegin izango zait beraren berri irakurleari ematea.

El Diario Vasco, 2000-01-23



La Cruz Cubierta, Aínsa, Sobrarbe, Huesca.

Zuberoako Ama Birjiña

Zuberoako Amaren ermita ez dago izen bereko euskal probintzian, Pirineoz onunzko lurretan baizik, Naparroako Erronkarin, ia Aragoiko mugan.

Urriaren arratsalde eguzkitsu bat da. Garde erritik Ansó aldera joan eta bi kilometrora bidexigor batetik gora artu det. Baso itxia emengoa: piñu, aritz, eta ezpela. Las-ter det ermita aurrez aurre. Ederra da, arri-sillarez egiña. Ondoan, leengo ermita-zaintzaillearen etxea. Aurrean, plaza bat. Lurrean belar berdea, arboletatik eroritako orbel gorria gaiñean duala.

Malda au, egutera izanik, eguzkitan dago, udazkenaren koloreak bizi-bizi dirala. Alde ontako mendiak: Txamar, Barrena, Kalbeira, Nabarzatu... Beean Gardalar erreka. Beste aldeko malda, ospela danez, illun eta beltz ikusten da, zeru urdiñaren aurrean. Orko mendiak: Dozola, San Migel, Algaralleta...

Piñudi ederrak nun-nai emen. Tarteka, basoa soil-tzen dan uneetan, belardi bat, erdian borda zaarren bat dala. Bakardadea da emen nagusi. Mendi-ganaduaren zintzarri-otsa entzuten da; noizbeinka beleen oiuzakarra; urtearen azken loreetan dabiltzan erleak; egoaizearen igurtzia zugaitzetan...

Ona nundik detan emengo leienda: Jacinto Clavería: *Iconografía y Santuarios de la Virgen en Navarra, 1941*; eta Rafael Gamba: *Las Virgenes emigrantes, el misterioso origen de unas imágenes roncalesas*, Navarra, Temas de cultura popular, 287.

Gardeko mutiko bat bei zai zebillen mendi auetan. Baiña taldeko zezanak iges egiten zion gauero. Nora ote zijoan? Lepoan zintzarri aundi bat jarri zion, urrengoan atzetik jarraitzeko. Ala egin zuan. Mendiz mendi bide luzean joan ziran, illargiaren argitan, zezena aurretik eta

mutilla atzetik. Alako batez, zezena aritz baten aurrean gelditu zan, belauniko jarriz. Aren adarrak argi egiten zuten, aietan kandela bana balu bezela. Urreratu zan mutikoa an zer ikusiko, eta orra Ama Birjiñaren irudi eder bat!

Aren poza! Mendian beera korrika abiatu zan, berri on ori errian ematera. Gardetarrak bereala etorri ziran, eta irudia agurtu ere bai. Mendien oiñean asi ziran ermita egiten, tokirik erosoena ura izango zalakoan. Baiña egunez eraikitakoa lur jota ikusten zuten urrengo goizean. Ala, Zeruko Amak goien nai zuala pentsatu zuten, agertutako tokian. Antxe jaso zioten ermita, eta geroztik ez da paretarik erori. Baiña beean, asitako tokian, zutabe bat altxa zuten, eta kamio-bazterrean an dago gaur ere, ermita an egin nai izan zala, baiña Ama Birjiñak beste toki bat aukeratu zuala adieraziz.

Agerpen au XVI mendekoa da, *hugonoteak* izeneko erejeak Frantzian indartsu zebiltzan garaikoa. Batzuek diotenez, Zuberoako Ama onen ango ermita erre egin zuten. Baiña sua urreratzean, irudiak egan egin zuan; eta gero Gardeko mutiko oni agertu. Beste batzuen iritiz, ango katolikoak ekarria da irudi ori, ereje oien bildurrez noski. Españian ere moroen bildurrez izkutatu omen ziran irudi asko, eta denborarekin artzairen batek aurkitu.

Gardeko erretore zan Javier Garriz jaunak *La Villa de Garde* izeneko liburua argitaratu zuan Iruñen, 1923-an. Bertan dionez, Ama Birjiña onen leienda argitu nairik, Pabeko apaiz jakintsu bati idatzi zion, emen zer kontatzen zan adieraziz.

Erantzuna: Bidasoaz iparraldean ez dagoala Zuberoa izeneko erririk. Lurralde bat, bai; baiña an ez dala irudi-apurtzailerik izan. Ama Birjiñak etzuala, beraz, iñora zertan iges egin bear. Leienda ori gezur utsa dala, beraz.

Baiña garratz-aire bat ez al dute itz oiek? Frantziaren izen garbia ziprztindu egiten zala irudituko zitzaion apaiz orri.

Garai artan, hugonoteak zirala-ta, Bearne aldean batez ere, apaizak izkutatu egin omen ziran; eta katolikoak

ezin beren eliz-lanak egin. Ala, mugaz onunzko aldera etortzen ziran. Kontatzen danez, Iraultzaren denboran, berdin egin zuan Sarako Madalena Larralde, gezurra esan baiño leen bizitza galduz.

Pirineoz arunztik erromes asko etortzen ziran garai batean ermita ontara, zaldiz geienetan. Ori egiztatzan duan argazkirik ere bada. Isabatik-eta pasatzean, umeak iseka egiten zieten:

-Autxa, marrautxa, piperra eta sagarra!...

Batean, XVII mendean, Felipe Atotxa Maisterra, Gardeko semea, Napolestik ontzi batean zetorrela, itxas-lapurrak urbildu zitzaizkion. Bere ondasunen erdia agindu zion Zuberoako Amari, larritasun artatik onik ateratzen bazuan. Ala gertatu zan, eta diru orrekin berritu bat eman zioten ermitari.

Baiña eguzkia makurtzen dijoa eta banoa. Artzai bat aurkitu eta, izketan ari gerala, onela galdetu diot:

-Zer gertatzen da *Camile* izeneko artza orrekin?

Erantzuna:

-Ez gaituala bizitzen uzten. Ogei ardi akaatu dizkit neri iraillean, eta besteei beste orrenbeste edo geiago. Batetik, iltzen dituanak; eta, bestetik, ia egunero bordaraiño igotzera beartzen gaituala, ganadua ikustera, beste zeregin guziak utzita. Pizti orrek ere, besteak bezela, bizitzeko eskubidea izango du. Baiña artzaiak mantendu bear al degu?

Gardetarrak Pazko-bigarren bietan eta urriaren 15-ean igotzen dira onera. Onako ontan, 1855-ean, koleratik libratu eta erriak promesa egin zualako. Onela kantatzen diote Ama Birjiñari:

*Pues de vuestro honor el celo
en nuestro corazón arde,
Virgen de Zuberoa, a Garde
viniste a darnos consuelo...*

El Diario Vasco, 2000-03-05



Zuberoako Ama Birjiña, Garde, Erronkari, Nafarroa.

San Urbano, Odieta aranean

Odietako arana Naparroan dago. Osatzen duten erriak: Anozibar, Gaskue, Gelbentzu, Latasa, Ostiz, Ripa-Gendulain eta Ziaurriz. Nun dagoan? Iruñetik Belate aldera goazela, ezkerrera. Beste aran auek inguratzen dute: Anue, Atez, Juslapeña, Ezkabarte eta Olaibar. Ultzama eta Basaburua ere ez daude urruti.

Naparroako lurralde au ikusgarria da. Leengo soroak belardi biurtuta daude. Mendiak, ariztiz eta pagadiz jantzita. Erri bilduak, zein baiño zein politagoak, euskal egitura jatorra duten etxe dotoreekin.

Gaskuera etorri eta erreka-zulo batean gora artu det. Otsaillaren azken egunak diranez negua bada ere, eguraldi ederra dago. Txoriak asi dira kantari. Intzak dizdiz egiten du belardietan, eguzkiak jota.

Ordu erdi batera, orra ermita bat. San Urbano beraren izena. Onek ere badu bere leienda. Liburu ontan aurkitu det: Dolores Baleztena, Miguel Ángel Astiz: *Romerías navarras*, Pamplona, 1944.

San Urbano au Aita Santu bat zan, jentil asko kristau federa ekarri zituana; 223 urtean preso artu, zigortu eta lepoa moztu ziotena. Noiz eta nola ez dakigula, ermita bat altxatu zuten aren izenean Gaskue erri onen lurretan.

Artzai bat bazan emen, mutikoa bera eta errena, ardiak larrean ziran bitartean dultzaiña jotzen zuana. Gaur orrela eta biar berdin. Baiña mutikoa triste, anka elbarri ura arrastaka erabili bearrez.

Batean, San Urbanori errezatu eta dultzaiña jotzeari ekin zion. Baiña begiak altxa eta ara aurre-aurrean bere santu maitea, elorri baten gaiñetik irriparrez. Mutilla belauniko jarri zan, oartu gabe anka elbarriaren jokoa errez egiñez. Sendatuta zegoala ikusi zuanean, aren poza! Dantzan eta saltoka asi zan.

Gero, korrika abiatu eta errira jetxi. Santuak zer mesede egiña zion esan eta erritarrak pozez. Bereala igo ziran oneraiño, eskerrak ematera.

Ermitatik goiko bizkarretaraiño, dana basoa da. Mendiak inguru guzian: Txutxurro, Aldaun, Arranomen-di... Baditeke oien gaillurretatik Iruña ikustea.

Mendi eta baso oietan barrena albo-errietatik onera datozen bidexiorrak: Ziaurriz, Anozibar, Ostiz, Makirriain, Nabaz, Beltzuntze, Usi, Eguaras, Arostegi eta abarretik, alegia. Urte guzian utsik eta ixilik egongo diran bideak; baiña jende alaiez beteta santuaren festa-egunean, maiatzaren 25-ean.

Orra egun orrekin, 1830-ean, zer gertatu zan, Florencio Idoatek, bere *Rincones de la historia de Navarra*, Pamplona 1979 liburuan, kontatzen duanez.

Iraizozko Marizenez etxeko morroiak, labaindarra berez, eta Larraintzarko Larrañegikoak ermita ontan alkarrekin topo egin, izketan asi eta batek iseka egin zion besteari, euskera zelebrea zuala eta. Ortik asita, makillak jaso eta alkar berotzen asi ziran.

An zan Martin-Andi esaten zioten bat, iraizoztarra bera, makilkada batez Iruñeko bat ankaz gora bota berria zuana. Zergatik ote? Arraizko zapatariak errifa batean tranpa egiña zuala esateagatik. Martin-Andi ori beste bi oien burrukan sartu zan, bere erritarraren alde noski. Baiña inguruko jendeak geldi erazi zuan makil-dantza ori.

Arratsaldean, jendea Gaskuera jetxi zan, ango festa ikustera. Antxe zan Larrañegiko nagusia ere. Eta bere morroia jipoia artu eta burua lotuta zegoala ikusita, Martin-Andi orri erritan asi zitzaion.

Ortan zirala, Martin-Andiren illoba bat urbildu zan. Larrañegiko morroiak desafiatu egin zuan bakarka burrukatzera. Ekin eta morroi orrek bigarren jipoia artu zuan. Eta besteak, Gelbentzura alde egin.

Larrañegiren aldeko amabost bat lagunek atzetik jarraitu zioten, ordea, Martin-Andi ura iltzeko prest. Baiña

onen aldekorik ere bazan, eta Gelbentzuko bentan antxe asi ziran danak ere alkar joka.

Martin-Andik etsai bat lurrera bota zuan giltzurdiñetan jota. Iraizozko batek makilla autsi zuan. Besoekin burua estaliagatik, ura ere an gelditu zan lurrean. Bere taldea atzeraka zijoala-eta, Martin-Andi bentan sartu zan, ango oe baten azpian ezkutatuz. Baiña etsaiak atzetik segi, illetatik artu, kanpora arrastaka atera eta bapo berotu zuten. Eromen ura gelditu nairik, Larrain-tzarko zapataria tartean sartu zan; eta makilkadarik gogorrena berak jaso zuan.

Benteroak etxea itxi eta korrika joan zan alkatearen billa. Au etorri zanean, burrukalari guziak iges egiñak ziran, lurrean zeuden Martin-Andi, zapataria eta besteren bat izan ezik. Medikiak puska bateko lana izan zuan aien buruak sendatzen.

Agintariak iru illabeteko kartzela eman zioten Martin-Andi orri. Eta beste guziei, multa bana.

Andik iru urtera, karlisten leenengo gerra sortuko zan, eta mutil oiek makilla utzi eta fusilla artuko zuten. Alperrikako odol-ixurtze ortarako asko lagunduko zuan, bai, burrukarako griña txoro orrek.

Bueltan natorrela, zer ote da goitik beera datorren zarata ori? Begiak altxa eta ara an, kurrillo-banda aundi bat, zeru urdiñean aurrera. Egazti oiek pozik eta alai dijoaz, garai bateko San Urbanoko festazaleak bezela, baiña beren artean liskarrik sortu gabe. Piztiengandik ere bagenduke gizakiak zer ikasi...

El Diario Vasco, 2000-04-16



San Urbano, Gaskue, Odieta, Naparroa.

Longa jeneralaren berri

Durangotik Trabakua gaiñera igo eta, Markiñara jé-txi bearrean, sartaldera artu det, kamio estu batean aurrera. Oiz mendia ezkerrera daukat. Gere auzunea pasa eta Longa baserrira iritxi naiz.

Etxe au Bolibarkoa da, baiña Mallabiako mugan dagoana. Baserri dotorea, berritutzen ari dirana. Oneraiño zan gaurko nere ibillaldia. Emen jaioa baitzan Frantzisko Longa jenerala (1783-1831). Abizena Antxia zuan. Baiña jaiotetxearen izenagatik-edo, Longa esaten zioten. Gaur egunean bertan bizi diranak ere Antxia dira. Enbor beraren ezpalak izango dira, beraz.

Frantzisko Longa ori Arabako La Puebla de Arganzón errira joan zan gaztetan lanera, ango errementeri batera, eta nagusiaren alabarekin ezkondu 1807-an. Baiña urrengo urtean frantzestea asi zanez, berak ere gerrari ekin zion.

Aren orduko ibillerak istoria-liburuak kontatzen dituzte. Baiña idazlan ontarako beste iturri bat artu det: Pedro Astarloaren sermoi-bildumaren bigarren tomoa, 1818-an agertua, gerra bukatu eta lau urtera. Liburu au Longari eskeiñita dago, itzaurrean aren goralpenak egiten dirala, naiz eta sermoi-liburu batean gerra-kontaerak oso egoki ematen ez duten. Ona zati batzuk, bide batez bizkaiera zaar jatorra irakurriz goza gaitezen.

Guerrilla izeneko talde txikien jokabidea zer zan onela adierazten du:

“Ezagaturik etziriala berorregaz eukazanak apur puska bat baño arerijuen albuán, ezta eurakaz arpegiz arpegi ifinten, eztituz berorrenak ateraten ibar zabal, landa zelai eta aran an-dijetara; ezkutetan da mendi, muru, atxarte eta oijanetan; aintxe dago zelataka frantzesik agiri bada, eta ikurisik eztiriala igaroten dirianak berorrenak baño guztiz geijago, etxuten

da beingo-beinguan euren gañian, birrinduten ditu, banatuten ditu eta kentzen deutse daroiena”.

Longaren burrukaldien zerrenda ere egiten du:

“Eta zenbat arerijo il, zatitu eta katigatu eztitu modu onetan? Eun da iru izan zirian Friasko zubijan birrindu zitubanak; irurogeta bat Deskargan; eun da larogei Cabezonon; berreun da berrogeta amazazpi Pancorbo eta Bribiesca artian; zazpireun Sedanon; bosteun berrogeta iru Asperiletan; irureun eta ameka Pozan... Arraijo bizi bat eginik dabil batetik bestera; ain laster Bizkaijan, ain laster Gipuzkuan, ain laster Araban, ain laster Gaztelan, ain laster Montañan, ain laster Tobalina, Losa, Cabuerniga eta beste leku askotan...”.

Longaren garaipenik aundienetako bat Urduñakoa izan zan, 1811-ko urrian:

“Jakin eban berorrek andik igaro biar ziriala berrogeta amairu burdi frantzesen ondasunez beterik; nai leuzkijuezan kendu, baña ez jakan erraz, ez eukazalako berorregaz eun da amar zaldizko eta irurogei oñezko baño; burdijak jaoten etozanak, barriz, zirian bosteun eta berrogeta amar. Zer egiten dau, bada, berorren zurtasunak berorren goguagaz urteteko? Batuten dituz albait isilen mendigurenian eta bidien parian arri eta atx-pilo andijak, eta dago zelataka noz igaroten dirian frantzesak burdijakaz”.

Bilbo-Burgos bidea Urduñako aitzetara igotzen zan, eta an prestatu zuan Longak bere azerikeria.

“Eltzen dira oneek (frantzesak) atx eta arri-pilo parera, eta abijetan dira berorrenak atx eta arri urtika. Arri eskergak eta atx ikaragarrijak datoz mendija beera bilinbolaka. Eztakije frantzesak ez zer jazoten jaken, ez nundik datozan arri eta atxak, ez nok jaurtigiten dituzan, ez mendijak sustraitik urten ete dabeen ala ez, ez luikararen bat izan ete dan ala ez. Ezta-kije zer egin, nora juan edo ze modu artu, eta dagoz geldi-geldi subil bat eginik”.

Ikaragarritzko triskantza gertatu zan:

“Atx andi batek iruliten dituz burdi bat edo bi, eta ilten dituz euren idijak; arri bildurgarri batek daruaz beragaz mendija beera zortzi edo bederatzi zaldi euren zaldizkuakaz. Emen datzaz zaldi batzuk estiak darijuezala; an idi batzuk zapaldu-rik. Batetik ikusten dira gizonen gorputz il, buru, oin, beso eta iztar bagak; bestetik gizon, zaldi eta idi trimendu eta zapaldu-bak, dirianen antzik bere baga. Guztija da negarra, garrasija, uluba, zispuruba, aijarija, intzirija eta diadarra”.

Frantzesak etzekiten zer egin:

“Nai leukee iges egin frantzesak, baña eztauke nundik, bada alde guztijetatik dirautza esetsijaz arri eta atx urtikiani, ain zarratu, zer bizirik urten eben puskak ez eben euki beste iges egiteko modurik, euren burubak aldatz beera amilka eta jirabiraka botatia baño. Laureun eta larogei frantzes geratu zirian illik, eta itxi zitubezan berorren eskubetan zazpi milla pare zapata, bost milla martitz-soñeko, eta lau kutxa urre-galoe eta gerrari apaingarriz beterik”.

Andik aurrera, frantzesak bildurrez zebiltzan:

“Etzirian asartuten inora joaten, ez bidian ibilten, jendardi guztiz andijak ezpazirian...”.

Beren indar guziak bildu eta:

“Sartzen dira Longa daguala uste dabeen lekubetara al daijen isilen, eta uste dabeenian guzijen erdijan daukeela, eztabe aurkituten atx, larra, sasi, arantza, arri edo orbel-pillo bat baño”.

Frantzesak eun milla erreal eskeiñi zituzten Longaren buruagatik. Baita Ramon Jose Abezia, *Markiñako Estudiantea* esaten ziotenagatik ere. Ondo alperrik! Longa gero eta indartsuago:

“Baña arako geitu jakonian bere jentia, eta gertu eguanian, aurrez aurre arpegi emon eutsen frantzesai, ikusi zana legez Bilbo, Bitorija, Tolosa, Iantzi, Irun, Bera, Askain eta beste leku askotan, arerijuak España guztitik urten artian”.

Bertsoak badira Bitoriaiko garaipen aundiari buruz. Batek Longaren izena aitatzen du:

Mina ta Pastorea,
Longa irugarren...

San Martzialgo burrukan ere parte artu zuan, 1813-VIII-31-n. Beste milla berri eman ditezke Longari buruz, jakingarriak danak ere, baiña lekurik ez degu. Gerra ondoan goreneko kargutan ibili zan.

Longa baserriko bizilagunekin izketaldi gozo bat egin det. Paraje auetatik bista ederrak daude: Santa Eufemia, Kalamua, Urko, Eguarbitza mendiak... Baserri txuriak mendi-egaletan. Auxe izango da, dudarik gabe, Bizkaia-aren biotza. Txoko paketsua, bai, baiña gerra-kontuak gordetzen dituana...


Bolibarko plazan antxe dago Longaren irudia, arriz egiña, idazki onekin:

“A la memoria de Francisco Tomas de Anchía, que inmortalizó el nombre de su caserío natal “LONGA”, héroe de la guerra de la independencia, capitán general del ejército (1783-1831), dedica este homenaje la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, MXMD”.

El Diario Vasco. 2000-05-7



Longa baserria, Bolibar, Bizkaia.



Artaxona, Nafarroa.

Artaxonako mandatari bizkorra

Leengo igande-arratsalde batez Artaxonan izan nintzan. Erdi Aroko kutsua eta itxura ondo gordetzen ditu erri onek. Ango arresiak uztai-moduko bat egiten dutenez, *el Cerco* esaten diote erderaz. Eguraldi ona zegoan eta antxe ibili nintzan batera eta bestera, begiak ezin aserik. Ikusgarria, benetan, San Saturnimo elizaren sarrera. Barrua ere alaxe izango du; baiña ikusterik ez, itxita zegoanez.

Joan aurretik, ango berri liburu ontan irakurrita nengoan: *España / Sus monumentos y artes / Su naturaleza e historia / Navarra y Logroño por D. Pedro de Madrazo*, Tomo III / Barcelona 1886.

Or eta bestetan ere esaten danez, Leringo bigarren kondea, Luis Beaumont, ume bigurria sortu zan mundura. Naparro guziari ez-zezik, Artaxonako erriari ere buruauste pranko eman ziona.

Ala, 1494 urtean, Juan Labrit eta Katalina errege-erregiñen koroazio-egunean, Iruñen koplak batzuk kantatu ziran euskeraz; oietako bat auxe:

Labrit eta errege
aita- seme dirade:
Kondestable jauna
ar bizate anaie.

Onako au euskal koplari zaarrenetako bat degu, du-darik gabe: XV mendekoa, alajaiña.

“Kondestable jauna” Leringo konde ori bera zan; eta, bere izena erregearenaren parean ikustean, arrotu egingo zan, leenaz gain.

Ala, egun batez, Artaxonara etorri zan, erri au berea zuala aldarrikatuz, erregeak emanda. Bertakoak mandatari bat bialdu zuten erregearengana, eta onek arrazoia erriari eman. Baiña kondeak preso sartu zituan alkate eta

beste berrogei bat gizon. Erregeak bere gerra-gizonak bialdu bear izan zituan, kondeari laiñezak kentzeko.

Baiña 1512-an, Fernando el Católico-k, Leringo kondea alde baitzuan, Artaxonako erria berari eman zion. Eta andik aurrera beti auzitan.

Baiña bein-betirako erabakia 1596-ko abenduaren 18-an Iruñen eman bearra zala-ta, Artaxonako erria urduri zegoan, andik zer aterako zan; eta zera pentsatu zuten: erabaki orren berri Iruñetik Artaxonara aurrena ekartzen zuanari sari on bat ematea.

Ala, gazte batzuk auzitegian antxe ziran egun artan, erabakia eman bezin laster Artaxona aldera abiatzeko. Erabili dedan liburuan ez da esaten bide ori oiñez korrika ala zaldiz egin-asmotan ziran. Nola edo ala dala, erabakia irakurritakoan, eta orduan ere erriaren aldekoa, mutil aiek salatik antxe atera ziran, deabru guziak atzetik segika balituzte bezela.

Iruñetik Artaxonara ogei ta amaika kilometro daude gaurko kamiotik. Aiek, ordea, auskalo nundik joko zuten, bidea ondo estudiantuta izango zuten eta. Nolanai ere, arnas larrian iritxiko ziran berak edo beren zaldiak. Baiña ipurdiko ederra artu zuten, bai aurrena etorri zanak eta bai beste guziak ere: erriak erabakiaren berri bazekiala, alegia, beste norbaitek aurrea artuta noski. Baiña nola zitekean?

Berak auzitegian erabakiaren zai zeudela, etzioten kaso aundirik egin bertan zegoan gizon eldu bati. Oartu ere ez, bearbada, ura an zegoanik. Arengatik, izan ere, bildur gutxi aurrea nor iritxiko.

Baiña gizon ura Artaxonakoa zan, eta katetik zakur bat zeukan, emea bera eta umeak egin berria.

Erabakia eman zanean, eta gazte aiek alkarri bultzaka eta zalaparta bizian ateruntz abiatu ziranean, gizon arek pake-pakean paper bat atera eta bear zana antxe idatzi zuan. Gero, paper ura zakurrari lepoan edo sorbaldan lotu eta libre utzi zuan.

Zakurra, bere umeengana leenbaileen joan bearrez, antxe abiatu zan, korrikan baiño geiago egan egiten zua-

la, "lurrik ikutu gabe" kanta zaar batek dionez. Esan be-
arrik ez dago beste mandatari guziak bereala utzi zituala
atzean. Eta arek baiño bide zuzenagorik ere etzuan iñork
eramango.

Zakurra etxera iritxi zan. Etxekoandrea aren zai ze-
goan. Papera artu eta ura erakustera antxe joan zan erri-
ko agintariengana. Auek etzuten dudarik izan saria no-
rentzat zan. Ala ere, gazte aiei ere zerbait eman omen zien-
ten, sartutako ziriaren miña pixka bat gozatzearren-edo.

Artaxonan ara-onera nabillela, gertakizun ori dala-ta,
nere begiak iparraldera zuzendu ditut. Zakur eta mutil
aiek ortik etorriko baitziran. Mendi-kate bat ikusten da
alde ortan, Naparroako gerri guzia artzen duana: Monte-
jurra, Urbasa, Andia, Sarbil, Erreniega, Alaitz, Untzue,
Uxue... Gaur ez, gandua dagoalako; baiña bestetan Piri-
neoko gaillur zuriak ere ederki ikusiko dira emendik. Eta
egoaldera Moncayo, Demanda eta San Lorentzo ere bai
agian.

Ikuspegi zabala, beraz, emengoa; eta geiena berde-
berde, soroak gari berriaz jantzita daudenez. Goien, be-
rriz, zeru urdiña. Eguzkia makurtzen dijoa; eta, urrutiko
mendiak ia ikuitzerakoan, muiñoak eta zelaiak odol go-
rriaren koloreaz tintatu ditu.

El Diario Vasco, 2000-05-25



Zaldibi, Gipuzkoa.

Alzaa jeneralaren bukaera

Karlisten Karlos bostgarrenak, bere errege-eskubideak semeari pasa zizkion 1845-V-18-an. Onek Karlos Luis zuan izena, eta bere aldekoentzat Karlos VI izan zan andik aurrera.

Artean urte gutxi ziran leenengo liberalen eta karlisten gerratea bukatua zala. Ondo itzali gabeko sua izan, ordea, eta ostera piztu egin zan, batez ere Kataluñan. Gerra berriak, *Guerra de los Matiners* izenekoak, iru urte iraungo zuan.

Gipuzkoako karlisten buruzagi izateko, Joakin Julian Alzaa izan zan aukeratua, oñatiarra bera, lege-gizona, leengo gerratean ogei ta amabi urterekin jeneral izendatua. Orduan berrogei zituan.

1848-ko San Juan bezperan sartu zan Gipuzkoan, gizon talde batekin. Ona aren asmoak: andik lau egunera, illaren 27-an, Soraluzeko arma-fabrikaz, Ernanioko Santa Barbaraz eta Tolosako erriaz jabetu. Emen festak ziran, eta pelota-partidua jokatu bearra. Ala, agintariak ere pelotalekuan izango ziranez, aiek danak ustegabean preso artuko zituan.

Baiña karlisten buruzpideen berri andik edo emendik jakin zuten liberalak, eta berak ere bereala eta arretaz prestatu ziran aurpegi emateko: Iruran soldadu konpañia bat jarri zuten, erne-erne eta armak eskuan; Tolosako kuartelean, berriz, beste bi konpañia; Diputazioaren jau-regian, gaur egunean Kultur-etxea dagoan ortan, mikelete-talde bat; beste gudamutil-mordo bat pelotalekuan bertan...

Alzaa jenerala Tolosa ondoan zan, izkutuan noski; eta, etsaien prestakuntza oien berri jakindakoan, egoak moztutako txoria bezela gelditu zan. Aralar-mendira jo zuan, bere taldearekin. Bai liberalak atzetik ere. An ibili

ziran, Gipuzkoako eta Naparroako mendietan, erbia eta zakurra bezela.

Uztaren 2-an, Alzaa Aralar mendiko Baiarrate esaten dioten lekura iritxi zan bere taldearekin. Bertsoak ere badaira:

Ogei ta amazazpi
giñaden guziak,
fundamentuko armarik
ez gendun erdiak;
beltzak enboskaturik
txit ondo jarriak,
gu allegatzerako
arturik neurriak.

“Bestetik espia bat aietara juan zan -izan ere-, esanaz egoteko geldirikan bertan”.

Oiartzungo Arrondo pelotaria omen zan karlisten aurretik, sei lagunekin; eta liberalak pasatzen utzi: “printzipala nai zuten arrapatu beti”. Baiña Arrondok ango tranpa usaitu zuan, eta tiroa tira, atzetik zetozen lagunak jarkiñaren gaiñean jartzeko.

Orduan, “beltzak korneta joaz korrika gugana”; eta karlistak, “erretiratu giñan mendiak barrena”.

Alzaa jenerala leer eginda zetorren egun aietako ibiliek; eta bi gizonek eltzen zioten. Ori ikusi zutenean, liberalak ura nor zan igerri eta atzaparra bereala erantsi zioten.

Aren mutillak orduan:

Izugarrizko golpe
onen ondorendik,
dispersatu giñaden
nor bere aldetik;
beltzak amorratutzen
galdezka gugatik,
Frantzira sartu giñan
Berako mugatik.

Mutil aietako bat bertsolaria zan; eta, bein mugaz beste aldean, zera pentsatu zuan: "bi bertso paratzea noa al baneza". Amabi dira guzira. Eta arrigarria: Alzaarekin ondoren zer gertatu zan ez dute esaten.

Liberalak beren prisioneroa Zaldibira jetxi zuten, eta arekin zer egin bereala erabaki. Gipuzkoako jaun aalmentstu askok arentzat barkamena eskatu omen zuten. Baiña alperrik. Eriotz-pena eman zioten. Liberalak, izan ere, bildur ziran beste gerra bat sortuko zan, eta eskarmentua jarri nai zuten.

Baiña sententzia ori nork emango eta Urbiztondok. Au leengo gerratean karlisten jenerala izana zan; Alzaaren laguna, beraz. Baiña Bergarako besarkada onartu eta orduan liberaletan zan.

Apaiza etorri zan Alzaari azken une artan laguntzera. Ura nor izango eta Frantzisko Inazio Lardizabal jauna, *Testamentu zarreko eta berriko kondaira* liburu famatuaren egillea. Berarekin aitortu zan Alzaa, baiña ez omen zioten Jauna artzen utzi, eta ez testamentua egiten ere. Aren eriotz-agiriak onela dio: *"Recibió el Santo Sacramento de la Penitencia, para lo cual únicamente se le concedió tiempo. No testó..."*.

Preso artu zuten biaramon-goizean afusillatua izan zan, uztaren 3-an, alegia, goizeko zortzietan.

Zaldibin gero kontatzen zanez, mandatari bat bazetorren zaldiz lau oiñean, goragoko agintariak bialduta, Alzaari bizitza barkatzeko aginduarekin. Baiña erritik gertu zala, danbateko bat entzun zuan. Uraxe izan oñatiar jenerala bota zuan deskarga.

Karlistak oroitarri bat jarri zuten Zaldibin, 1923-an, Alzaaren onraz. Baita gurutze bat ere 1935-ean, Baiarraten. Zaldibiko oroitarriak zer egin zuan ez dakigu. Baiarrateko gurutzeagatik galdetu genduan bein batez. Zera erantzun ziguten: gurutze bat bazala an orain urte batzuk. Baiña pista berriren bat iriki zala an ere, eta makinak aurrean eramango zituala gurutzea eta danak. Zabarrak gera istoria-oroipenak gordetzen.

Ni bein izan naiz Baiarrate ortan, maiatzaren egun batean, euriak pagoen osto berrietan danbor-soiñua jotzen zuala. Gu Zaldibitik igo giñan; baiña errezago iritxi-ko da Lizarrustitik abiatzen dana.

El Diario Vasco, 2000-06-18

“Etzaitezte leenengo jarlekuen billa asi...”

Alegin bada txistulari-famili bat, Intxaustitarrak: aitona, Migel edo *Migel Txiki* esaten ziotena, txistulari; bai aita ere, Rikardo; eta bai billoba ere, Jerman.

Jerman au eskola laguna det. Gure mutiko garaian bazan, izan ere, Alegiko mutil taldetxo bat Tolosara eskolara etortzen zana, eskolapioetara; eta bera ere bai aien artean.

Geroztik, bai Alegin bertan eta bai bestetan ere, alkar agurtu izan degu, an edo emen topo egindakoan. Iñoiz aren etxera ere iritxia naiz. Baita leengo kontu zaarrak berrituz itz-aspertu bat egin eta berak bertsopaper zaar batzuk nere eskuetan jarri ere. Milla esker!

Aita ere, Rikardo, ezagutzeko zoria izan nuan, arratsalde batez, Alegira joan nintzan batean; eta berari entzundako gertaera zaar bat izango da gaurko nere idazlantxo onen gaia.

Lau bat lagun bagiñan alkarrekin; eta izbidea ez dakit nola etorri zan; baiña berak onela kontatu zigun, gutxi gorabeera:

«Ni, gero nere semeak ere egingo zuan bezela, Tolosako eskolapioetara joaten nintzan mutikotan eskola ikas-tera.

Banuan ortarako bizikleta polit bat, garai artan oso gutxik izaten zutena eta nik arretaz zaintzen nuana. Uraxe zan orduan nere maitea.

Etxean prestatutako bazkaritxoa artu eta, eguraldi on edo txar, antxe abiatzen nintzan ankei eragiñez Tolosa aldera, sarrera-ordurako ikastetxera txintxo asko iritxiz. Gero, eguerdian, nere otordutxoarekin barruko xomorroa ixildu eta illunabarrean atzera Alegira. Orixe izaten zan nere eguneroko martxa aste egunetan.

Bein, ordea, maiatz-aldean izango zala uste det, Españaiko Itzuliaren bukaera Donostian zuten txirrindulariak.

Nik ura inondik ere ikusi egin nai, baiña etxean bai-menik emango etzidatela ziur nengoan. Ala ere, ajola gutxi neri. Nola joan baneukan, zer bazkaldu ere bai, eta ara zer bururatu zitzaidan eta zer egin nuan.

Goizean, amaren esanera eguneroko orduan oia us-tu, gosaldtu, etxetik atera eta bizikletan Tolosara abiatu nintzan, oitura nuan bezela. Baiña, emen gelditu eta eskolara zuzen joan bearrean, aurrera jarraitu nuan eta, bizikletari eragin eta eragin, ez nintzan gelditu Donostiara arte.

An, eguerdia iritxi zanean, bazterren batean etxeko bazkaria jan eta arratsaldean txirrindularien sarrera eta ospakizun guziak aurre-aurreko puntatik ikusi nituan. Ura zoramena!

Gero, berriro ere bizikletaren gainean jarri eta leengo bidetik atzera illuntzean, betiko garaian, etxean nintzan. Egun zoriontsua izan zan ura neretzat. Baiña nere poza barruan gorde bear, inortxori ezer ere azaldu gabe.

Biaramonean, beti oi nuan bezela, jeiki eta Tolosako eskolapioetara eskolara. An eguna pasa eta illunabarrean etxera.

Baiña sartu bezin laster, itzik ere trukatu gabe, *zis-zas!*, bi belarrondoko eder oietakoak eman zizkidan bi masailletan, ezker eta eskubi, aitak. Ni negarrez eta protestan asi nintzan:

–Au ere ba al degu? Zergatik jotzen nau berorrek? Nik zer egin det, bada, orain? Ez dago deretxorik!

Eta aitak, leen bezelaxe, itzik ere egin gabe alegia, egunkaria zabal-zabalik maaian antxe zegoan eta beatza aren gainean jarri zuan, argazki bat erakutsiz.

Nik egunkaria eskuetan artu eta argazkiari begiratu nion an zer ote zegoan, eta nere burua ikusi nuan, Donostiako jende artean eta leenengo lerroan, txirrindularien sarrera ikusiz».

Oneraiño Alegiko Rikardo Intxausti jauna zanaren itzak. Bertan giñanak parrari eman genion, noski. Baiña berak, serio-serio, onela bukatu zuan bere kontaera:

–Gure aitari *Migel Txiki* esaten zioten, baiña neri eman zizkidan belarrondoko aiek etziran iñondik ere txikiak izan.

Orra, beraz, zer gertatu zitzaion egun artan mutiko ari, Jesusek ebanjelioan esaten duana kontuan artu etzualako: «Iñora joaten bazerate, etzaitezte leenengo jarlekuen billa asi...».

El Diario Vasco, 2000-06-25



Alegi, Gipuzkoa.

Efesoko zazpi lotiak

Efeso, Turkiako iri bat da gaur. Ama Birjiña eta San Juan Ebanjelista bertan bizi izan omen ziran.

Batean, III mendean, Dezio enperadorea bertara etorri zan. Ango kristandadea galdu nairik, jainko faltsoen omenez eliza batzuk altxa erazi zituan. Baita efesotar guziak aiei omen egin zezaiotela agindu ere; eta kristau guziak katez lotzeko.

Efeso ortan baziran zazpi mutil gazte, alkarren lagunak eta kristauak. Izkutuan bildu eta sarritan otoitz egiten zutenak. Baiña salatuak izan ziran. Deziok Jesusen jarraitzaille ote ziran galdetu zien. Baietz, besteak. Arek, orduan, bera kanpora zijoala, baiña bueltarako danak ere kristau fedeari uko egitea nai zuala. Gazte aiek, ordea, beren ondasunak pobreen artean banatu eta Zelion mendira iges egin zuten. Koba-zulo batean jarri ziran bizi izaten. Aldizka, aietako bat, Malko, eskale-arropak jantzi, Efeso-
ra jetxi eta jatekoak erosten zituan.

Dezio etorri zanean, gazte oien galdea egin zuan, eta iñork ezertxo etzekiala. Aietxek billatzeko agindu zuan, zigorra merezi zutela eta. Malko urrena irira jetxi zanean, izututa itzuli zan. Bai lagunei esan ere:

–Opil auek jan ditzagun, indartu gaitezen, arrapatzen bagaituzte, zerbaiten bearra izango degu eta.

Eseri eta opil aiek jan zituzten. Ondoren, Jainkoak ala naita, danak batera lo artu zuten.

Salatari bat izan zan, ordea: gazte aiek Zelion mendiko koba batera joanak zirala.

Asmo zitala artu zuan Deziok orduan: koba-zulo orren sarrera arrizko orma batez ixtea, danak ere antxe usteldu zitezzen. Orma ori altxatu zuten. Baiña bi kristau baziran argiñen artean; eta paper bat idatzi zuten gazte aien gertaerarekin, eta ormako arrien tartean izkutatu.

Dezio ori il zan. Ondoren, 372 urte pasa eta gero, Efesoko gizon batek Zelion mendian txabol batzuk egin nai izan zituan. Argiñak arri billa asi eta koba-sarreran orma zaar bat ikusi zuten. Arri bikain aiek andik ateratzearren, beren borrekin joka asi ziran. Kolpeekin barruko zazpi lotiak esnatu ere bai. Alkarri egun onak eman zizkioten, zortzi orduko loa egiña zutelakoan.

Ondoren, Malko jatekoen billa abiatu zan, beti beze-la. Irteerakoan, arritu egin zan, arri-pilla bat an ikusita. Efesoko ateetan gurutzea ikusirik, berriz, “Ni ametsetan ari ote naiz?” esaten zuan. Iri-barrua dana aldatuta zegoan. Okindegi batean sartu eta an ziranak Jesusen gorantzak egiten zituzten. Berekiko onela zion: “Zer da au? Atzo etzegoan Jesusen izena aitatzerik ere, eta gaur danak aren alde? Ni beste erri batera etorria izango naiz”. Baiña, badaezbada, ango jendeari erriaren izena galdetu zion; eta danak, ao batez, Efeso zala.

Erdi erotuta, ogiak artu zituan, eta pagatzeko diru batzuk atera ere bai. Baiña, aiek ikustean, an zeudenak onela galdetu zioten:

–Diru auek nundik dituzu? Ez baidira gaur egun dabilzanak. Aurpegi au antziñako enperadore batena da. Zuk altxorren bat billatu dezu nunbait.

Kalez kale eraman zuten, onela oiukatuz:

–Gazte onek altxorren bat aurkitu edo lapurtu du!

Jende asko bildu zan. Deadar aiek erriko agintarien eta gotzaiaren belarrietara ere iritxi ziran; eta morroi batzuei onela esan zieten:

–Gazte ori jendeartetik atera eta ekar zazute.

Ala egin zuten. Agintariak, diru aiek ikustean, onela galdetu zioten:

–Altxor ori nun aurkitu dezu?

–Iñun ez. Diru auek nere gurasoengandik ditut.

–Emaiguzu zure gurasoen izena eta zuzenbidea.

Eman zien. Aien billa morroiak bialdu ere bai. Baiña iñork etzitian ezagutzen. Orduan agintariak:

-Diru auek orain 372 urtekoak dira, Dezioren denborakoak. Zuk gurasoengandik badituzu, aiek aren garaikoak bearko lukete. Egia esaiguzu, arren!

-Ez dezute sinisten? Etorri nere lagunengana.

Zelion mendira igo ziran danak. Malko kobara sartu zan, lagunei abisua ematearren. Besteak sarreran zai zeudela, gotzaiak paper bat ikusi zuan arri tartean. Artu eta irakurri zuan, eta orduan dana garbi. Barrura sartu eta gazte aiek antxe, santuen irripar zorionsua aurpegian zutela.

Jainkoari eskerrak eman eta Teodoro enperadoreari abisatu zioten. Etorri zan bera ere mirari ura ikustera. Banaka besarkatu zituan zazpi mutillak, onela esanez:

-Lazaro piztua ikusten dedala iruditzen zait.

Gazte aietako batek onela erantzun zion:

-Bai; gu koba barruan lo egon gera, umea amaren sa-belean bezela. Or ikusten da gure fedea erakusten duana, illak piztuko dirala alegia, egia dala.

Ondoren, gazte aiek burua makurtu zuten, eta loak berriz artu zituan, oraingoan betirako.

Enperadoreak urrezko zazpi kutxa egitea agindu zuan gorputz aientzat. Baiña gauean gazteak ametsetan agertu zitzaizkion, onela esanez:

-Urtetan lurraren barruan lo egin degu. Lurrean utz gaitzazu, beraz, emendik aurrera ere.

Ala, lurrean utzi zituzten, baiña koba-barrua marmolez eta pitxiz apainduta.

Leienda au Santiago de la Voragine kontatzen du, 1264 urteko bere *La leyenda dorada* liburuan.


Baiña leienda onek ez al dio irakurleari gure arteko beste kontaera bat gogoratu? Bai, noski: Leireko San Birilarena. Au praile bat zan, buruzbide txoro bat ezin uxatu zuana: "Jainkoa edertasun neurri gabea izanagatik, betikotasun guzia berari begira igaro bear badegu, azkenerako aspertu egingo gera". Batean paseatzera irten, basoan sartu eta iturri bateraiño joan zan, gaur

egun San Birilaren iturria izenarekin ezagutzen dana. An zala, orra txori bat kantari asi. Gustora egon zan ari entzuten; eta, ixildutakoan, komentura itzuli. Baiña au oso aldatuta ikusi zuan. Ango prailerik ere etzuan eza gutzen. Irureun urte paseak baitzituan, txoriaren kantutarekin lilluraturik.


Kontakizun berdintsua, beraz, Efesokoa eta Leirekoa, Nola egin ote zuan bide andik onera edo emendik ara? Eta gertatua edo asmatua? Ajolarik ez du orrek. Betikotasuna zer dan agertu nai digu, eta ori da balio duana.

Leiren berriro izana naiz, uztaillaren illunabar batean. Zeruaren urdiña Yesako urtegiak berritzen zuan, ispi-llu batek bezela. Gal-soroak urrezkoak ziruditen. Basoak, berdez jantziak. Ara-onera ibiliz, begiei gozatu bat eman nien, eta etxe aldera artu nuan, zazpi loti aien omenez lo paketsu bat egitera.

El Diario Vasco, 2000-09-10



Leyre, Naparroa.



Anozibar, Odieta, Nafarroa.

Anozibarko sorgiñak

Iruñetik Belatera eramaten duan kamioa Odieta arnaren saiets batetik dijoa. Aran onek erri auek ditu: Gasque, Gelbentzu, Latasa, Ostiz, Ripa-Gendulain eta Ziaurritz. Ikusgarria da Naparroako alderdi au. Mendi alturik ez, baiña bai baso itzaltsuak: pagoa, aritza, piñua... Etxe dotoreak, erreka garbiak... Erri oietako batera joan nintzan leengoan: Anozibarrera

Ateburu batean urtea: "1723". Urrengoan: "*Me edificaron el año 1826, siendo dueños Miguel de Eguaras y Francisca de Iragui*". Irugarrengoan: "*Adame de Ciaurri y Maria de Navaz. Año de 1681*".

Erri onek ere badu zer kontatua, Florencio Idoatek bere *Rincones de la historia de Navarra* liburuetan, Pamploa, 1979, eskeintzen digunez.

XVI mendea zan, eta ona bertako bizi-lagun batzuk: Mariatxo, *Xandua* esaten zioten neska bat; Migel Zubiri eta Grazia, senar-emazteak; Mari-Juana, berrogei ta amar urteko neskazaarra; aren illobak, *Martinico* eta *Miguelico*, amar eta zazpi urtekoak.

Batean, bi mutiko oien gurasoak eta amona, Maria Larrainzar, apaizarengana azaldu ziran, au esateko:

-Bi mutiko auek emakume gaiztoren batek sorgindu egin ditu.

Apaiza, bi laguntzaille berekin zituala, galdezka asi zan. Ona atera zuana: Anozibarren jende asko zegoala sorgin biurtuta. Egan, iñork ikusi gabe, etxeetan sartzen zirala, zakur, katu eta beste abere askoren itxura artuz. Soroak galdu, elizetan sartu eta gurutzeari eta santuen irudiei burla egiten zietela...

Leen aitaturako Maria Larrainzar orrek zera esan zuan: bere etxeko iru ume, gauean onik oeratu eta urrengo eguerdirako illotzik aurkitu zituala.

Mari-Juanaren aitak apaiz bat ekarri zuan, alabari konjuruak egiteko. Baita ondoren urdaiazpiko bat erregalatu ere. Baiña etxera zijoala, Mari-Juana ori eta onen sorgin lagunak azaldu zitzaizkion apaizari; eta gizarajoa izutu eta andik egun gutxira il zan, urdaiazpikoa probatu ere gabe. Baiña Mari-Juanak zera esan zuan: bere aitaren poltsa eta sukaldea bapo ustutzen zituala apaiz arek, eta berez illa zala.

Ziotenez, Pedro Migel izeneko bat ere sorgin-jende orrek illa zan, arrats euritsu batean errira zetorrela. Erritar askoren soroak *illintia* izeneko gaitzak urtero galtzen omen zituan, baiña sorgin oien soroak uzta ona ematen zuten.

Grazia andreari, apaizak aginduagatik elizara joaten etzala leporatu zioten. Baiña emakume gajo orrek sei-bat urte zeramazkian ondo-ezik. Ala, oean ikasi zuan sorgin biurtuta zegoala.

Larriena, *Miguelico* eta *Martinico* bi mutikoak egindako salaketa. Gauez, ukendu batez gorputza igurtzi eta «laiño guzien azpitik eta sasi guzien gaiñetik» joaten ziralaa sorgin oiek, eta iritxitako tokian gogotik dantzatu, Migel Zubirik txistua jotzen zuala.

Migel Zubiri tormentupean jarri eta onela aitortu zuan: bi urte zirala azti biurtuta zegoala. Bere andrearekin eta *Xandua* neskarekin Akelarrera joaten zala; eta an akerrari ipurdian musu eman.

Grazia bere emazteak ukatu egin zuan ori, gauean ondoezik jartzen zala, burua galtzeraiño, esanez.

Mari-Juanak onela zion: txikitan gizon txiki-beltz bat ikusi zuala, eta arek euskeraz onela esan ziola: “Enea aiz”. Geroztik beltzez jantzita agertzen zitzaiola, “Enetako bear dun!” esanez. Ondoren, bera lurrera erortzen zala, gorputza dardarka asita. Aitak Orreagara eta Urdazubira eramane zuala. Emengo praile baten ustez, apaizak bataioan itz batzuk esan gabe utzi zitualako omen zegoan gaixorik. Ala, Arreko Trinidadera eramane zuten, eta an berriro bataiatu. Onik ez, ala ere.

Fiskala gogor mintzatu zan:

–*Apostasia, herejía* eta *idolatria* daude emen. Sorgin auek erre ditzagun, arrastorik ere utzi gabe.

Kartzelara eraman zituzten. Grazia ura negarrez joan zan, bere umeak aaide batzuekin utzita. Seigarren egunean, Mari-Juana eta Migel Zubiriren keja:

–Goseak il bear al degu?

Biak tormentupean jarri eta Mari-Juanak:

–Ez det iñor ere gezurretan salatuko. Naiago det gorputza galdu, anima baiño. Urkatu bear banazute, egin ezazute leenbaileen!

Olio irakiña ere ixuri zieten. Bitartean, Migel Zubiri Jainkoari eta Ama Birjiñari erreguka. Baiña azkenerako zernai esan erazi zioten. Nola ez? Pozoidun autsak banatzen zituala aitortu zuan; Mari-Juanak, berriz, Migelekin tratu zikiña zuala. Eta Grazia kartzelan il zan, jaberik gabeko zakurra bezela.

Larramendi izeneko bat izan zan auzian aien alde mintzatzeko jarria:

–Auen kontuak ez dira benetakoak, amets utsa baik. Itzetan ere ez datoz bat: onek deabrua gizon-itxuran ikusi du, arek enbor bat bezela; batek akelarrean ogei pertsona ikusi ditu, besteak bi milla; mutikoen esanak ez dira aintzat artzekoak; Mari-Juanak ikusitakoak, gaitzarenak dira. Auei leporatzen zaizkien eriotzak, berez gertatuak dira. Galdu diran soroak, berriz, urte txarra etorri dalako.

Zentzu oneko gizona, beraz, Larramendi au, besteak ez bezela. Alperrik aalegindu zan, ordea. Migel Zubiri eta Mari-Juanari eriotz-pena eman zieten 1575-XI-28-an: zaldi baten gaiñean kartzelatik ateratzeko; Iruñeko kaleetan barrena eramateko Takoneraiño; an urkatu eta beren gorputzak erretzeko. Mari-Juanari orrela egin zioten. Migeli, berriz, erre bakarrik, kartzelan berez il zan eta.

Ogei ta amabost urte leenago, Saraitzuko Espartzan, ango sorgin-ustekoentzat urtebeterako erbestea beste zi-

gorrik etzan izan. Emengoentzat, berriz, erruki-izpirik ere ez.

Epaileak, izan ere, sorgin-arrapatzaille izateko auke-ratuak ziran. Ala, sorgiñak bear zituzten, beren kargua ondo betetzezkeroz; eta sorgiñik ez bazan, asmatu. Beste era batera esanda: kontrabandistak izaten ziralako asma-tu ziran karabineroak; baiña ondoren karabineroak kontrabandistak bear zituzten, beren kargua aintzat artuko bazan. Maiz gertatzen dan jokoa da ori; eta ortik bidega-bekeri aundiak etorri ditezke.

Auzi-paperetan euskal itz batzuk ageri dira, irakurlea oartuko zanez: "Ilintia", "Enea aiz", "Enetako bear dun". Erri ontan euskeraz mintzatu da oraintsu arte. Baiña itz oiek besterik etziran agian izkuntza ortan idatziko. Bitar-tean, erdera ateburuetan, arrizko letretan. Orixe izan da gure portaera: euskeraz itzegin bai, baiña idatzi ez. Gero, gure izkuntzaren gainbeerakoa zerk ekarri duan galde-tzen degu.

Ego aldera jarraitu nuan, Anotzeraiño. Erri polita au ere. Gizon batek mendien izenak eman zizkidan: Aldaun, Ostiasko, Txutxurro, Berrondo... Gaillurretatik Iruña ikusten omen da; eta, prismatiko on batzuekin, an pase-atzen dabillen jendea ere bai.

El Diario Vasco, 2000-12-24

Naparroako Bizkaian barrena

Izenburu onek ez du okerrik. Naparroak, izan ere, badu Bizkaia deitzen dan lurralde bat, eta ara joan nintzan irailaren igande-arratsalde batez.

Bizkaia onek zazpi erri zituan: Loia, Arteta, Julio, Getadar, Sabaiza, Usunbeltz eta Gardalain. Gaur egun danak ustuta daude.

Ara joateko bi bide daude: bat, sartaldetik, Valdorba guzia igarota; bestea, sortaldetik, nik artu nuana: Aibar eta Sada atzean utzi; urrena, Ezprogi, ezkerrera, gain batean; eta ondoren, Moriones.

Emendik aurrera kamiorik ez da, lur-bide zabal bat baizik. Erreka-zuloa estutu egiten da. Egoaldera, mendilerro luze bat. Egaletan, arizti batzuk. Garai bateko basoa ori izango zan. Baiña piñu landatu berria da orain nagusi.

Erri auek ustutakoan, izan ere, emengo lurrak Diputazioak erosi zituan, eta piñu jartzeari ekin zion. Zuloak egitera albo-errietako gizonak etortzen ziran. Oietako bat, Kasedako Humbelino Ayape zana. Lan ori zer zuten, bere *Las tardes de la Bardena* liburuetan azaltzen du, *Las horas* izeneko atalean. Asteleen-goizean nor bere erritik oinez etorri, eta larunbat-arratsaldera arte emen gelditu, otorduak beraiek prestatuz eta lasto gainean lo egiñez.

Era ortan, baso ikaragarri aundia osatu zan emen, zazpi erri oietako saillak betetzen dituana. Baiña piñudia dalako aintzat artzen ez dana, Naparroan ospe guzia pagadiak eramaten du eta.

Iritxi naiz leenengo errira: Loia. Untzak artutako arrizko orma zaar batzuk ageri dira, piñu eta sasien tartean. Teillatuak lur jo zuten. *Diccionario geográfico-histórico de España* (1802) liburuak dionez, errixka onek garai artan emeretzi bizilagun zituan.

Piñudiak bista guzia estaltzen du. Ala, ez ditut Arteta eta Julio erriak ikusten. Arteta beeko zokoan dago, eta Julio andik gora. Artetak ogei ta zazpi bizilagun zituan 1802-an. Juliok, berriz, emezortzi.

Ayape jaunak bere liburuetan dionez, Julio ortan bazan garai artan gizon bat, indar-argirik ez eta gauean, aparia prestatzeko denboran, ezpel-punta batzuk pizten zituana. Ondoren, su ondoan kopa edo otar aundi batean ipurdiz sartu eta antxe lo egiten zuan.

Aurrera segi eta orra Getadar erria. Eliza berrituta dago. Bai alboko etxe bat ere. Inguruan larre soillak ditu, eta bista ederra alde guzietara. Onek irurogei ta iru bizilagun zituan 1802-an.

Urrena, eskubira artu eta erreka-zulora jetxi naiz. Putzu eder bat dago emen, presa batek urak bilduta. Kortexa bertan utzi, oiñez abiatu eta orra Usunbeltz. Etxe bakarra emen, baiña goibeeak jota.

Nik ogeitaka urte nituala, bide auek korritu genituan beste lagun batek eta biok. Baiña dana oiñez. Onera urbiltzean, zakurrak zaunkaz asi ziran. Baita etxeakoak aterra azaldu eta arritu ere. Bakardade auetan iñor gutxi ibiltzen baitzan, eta are gutxiago sotanaz jantzitakorik. Barrura pasatzeko, arren!

Sukalde ederra zuten. Etxekoandrea emakume zabal eta biotz oneko bat zan. Bereala arraultz-pare bana prejitu zizkigun, etxeko oilloenak noski. Gaiñetik, berak egingidako ogia eta Aibarko ardoa. Gustora jan genituan. Bitartean, ura galdera-zaparrada gure berri jakin nairik. Bai guk ere jator erantzun, zer izkutaturik ez genduan eta.

Batean, Aibarren misioak izanak zirala esan zigun, bera nexka koxkorra zala, eta sermolarien izenak ere eman zizkigun. Guk orduan:

-A esos predicadores nosotros no les conocimos.

Eta berak erantzun:

-¿Cómo les vais a conocer vosotros, si parece que estáis aún tomando la teta?

Aiek parrak! Mendi-ibillaldietan uste gabeko une zoriontsu oiek aaztu-eziñak dira. Ori dana oroitzuz, tristetu egin naiz orain, etxea lur jota ikusirik.

Egun artan, andik beera jarraitu genduan, atzera Morionesera. Gaur zearka jarraitu det piñudian barrena. Bat-batean, Gardalain erria agertu zait, urrutikø egal batean, eguteraan. An ere, pareta zaarrak besterik ez. Ogei ta amairu bizilagun zituan 1802-an.

Eskubira artuz, Irangoitiko Ama Birjiñaren ermitara iritxi naiz. Au ere ondatuta dago. Errixka auek ustutakotan, oietan jaiotakoak urtean beingo billera egiten zuten ermita ontan, onek zutik iraun zuan bitartean. Orain Sa-
baiza dute ortarako tokia.

Bueltan natorrela, kotxe bat nigana. Foralak dira. Nere parean gelditu eta batek:

-Zu Urlia al zera?

-Alaxe naiz. Kotxearen matrikulatik ikasi al dezute ori?

-Bai. Lapurtua ote zan jakiteko, Iruñera deitu degu.

Urrena, izketalditxo bat egin genduan alkarrekin, ezagun zaarrak bagiña bezela. Ori du mendiak: iñor gutxi ikusi; baiña topo egiten dezuna, lagun biurtu. Kanean, ber-
riz, jende asko bai, baiña danak ezezagun. Agur egitera-
koan, auxe esan zidaten:

-Mendi auetan mendi-bei asko dago, erasotzen daki-
tenak, eta kotxea utzi dezun putzura jeixten dira edatera. Kontuz ibili zaite.

Baiña adarkadarik artu gabe iritxi nintzan. Andik Sa-
baizara. Onek berrogei ta emeretzi bizilagun zituan 1802-
an. Eliza eta etxe bat berrituta daude. Inguru guzia, be-
rriz, parke dotore biurtu dute.

Lurralde oni jarritako bertsoak badira:

*Vayamos a la Vizcaya,
su capital Guetadar.
En Gardaláin buenos mozos,
malos para trabajar.*

*En Sabaiza comen uwas
cuando van a vendimiar...*

Bizkaia au, jendez ornitutako azken zokoa izango zan inguru ontan. Aragón ibaiaren ondoko lurrak, erriberakok alegia, leenago beteko ziran. Ondoren, beean ezer ga-be geldituak mendi auetara igoko ziran, soro bat egiteko ainbat lur nun aurkituko zuten. Orain, berriz, onera ogi billa etorri ziranen ondorengoak, atzera jetxiak dira bee alde oietara, berak ere bizimodu obearen billa. Eta mendi auek berriro ere basamortu biurtu...

El Diario Vasco, 2001-02-04

Guadalupeko berriak

Alfonso Maria Zabala apaiz jauna Ezkion jaio zan, 1847-an. Zegaman, Ondarribin, Donostian eta Ernanin bizi ondoren, azken erri ontan il zan, 1919-an. Besteak beste, *Ondarrabiko Ama Guadalupe-koaren kondaira* idatzi zuan, 1883-an saritua. Or esaten dituanak onera alda ditzagun labur bilduta, denbora berean euskal prosa zarragarria gogoratzen degula.

Jaizkibel mendiaren berri emanaz asten da:

«Da txit aberatsa bere arrobietan, eta orain eremu eta arbol edo zuaitz gabe badago ere, oraindik eunki onen asieran jua zitekean Ondarrabitik Pasaiaraño arteak egiten zuten itzalpean; orain zorigaiztoan gertatzen zaio Euskal-erriko baso geienai gertatzen zaiena: zur zarrak aizkoraz jo eta landaririk ipiñi ez. Antziñako denboretan... bertan arkitzen ziran basurde, basauntz, otso eta beste pizti mota asko...».

Ama Birjiña onen agerpena, «aoz ao guganaño etorri dan bezela», onela gertatu omen zan:

«Bi artzai gazte zebiltzan Jaizkibelgo mendian euren ardiak kontu artzen, eta ara nun biak batean ekusten duten oi ez bezelako argi eder bat, oraiñ elizatxo dagoan lekuan. “Zer ote degu argi ori?” esan zion bata besteari... Eta, alkar alaituaz, jua ziran mendi gañeraño eta pentsatu besterik ez dago nola arrituko ziran ekustean Maria Santisimaren imajiña, bere Semetxoa besoetan zuala eta eguzkiak bezela diztatuaz... Ezagutu zuten, nolana ere, Zeruko Erregiñak biraldu zuala bere antz edo imajiña leku artara, bertan onratua eta benertua izan nai zualako... Belaunikatu ziran, bada, errespetorik aundienarekin, erreztatu zioten gogora etorri zitzaizkien ototzak, eta artzai aietako bat bertan gelditurik, jatxi zan bestea amilka, zoroa ziruriela, erriko apez-aita eta alkateari ikusi zutenaren berria ematera».

Irudi askorentzat antzeko kontaera egiten da. Bai ortik aurrerakoa ere:

«...asi zan erri guztia mendia gora, eta zorioneko kristau on aiek gelditu ziran pozturik eta atsegiñez beterik... Bertatik asi ziran lanean eta laster jaso zuten elizatxo bat».

Eta *Guadalupe* izena nondik? Zabalaren iritzi, leenengo besteren bat izango zuan; eta gero, Extremadurako izen bereko Ama Birjiña ain ospetsua zanez, onen izena artu, Mejikon ere 1531-n egingo zuten bezela.

Santutegi onen unerik larrienak 1638-an izan ziran. Uztaillaren leen eguna zabaldu orduko, talde armatuak ikusi ziran Endaiako mendietan. Bai Bidasoa ibaia igarotzen ere. Frantzes gudarozte bildurgarri bat zetorren.

Maria Juana Mugarrieta zan Guadalupeko serora. Eta «aditu zituanean atabal eta sutunpen otsak, zaldien irrintziak eta gudarien ojuak», etsaien atzaparretatik Ama Birjiña libratzearren, aldarera igo, irudia maindire batean bildu, besoetan artu eta errira jetxi zuan. Zai zeuden apaiz, agintari eta erritarrak. Irudia elizara eraman eta aldarean jarri zuten. Errezatzaille-paltarik etzuan andik aurrera izan.

Frantzesak, 36.000 oiñezko ziran, 4.000 zaldizko, kañoi mordoa eta itxasontzi asko. Errian, berriz, 700 soldadu besterik ez; baña oei laguntzeko, «bertako gizon errutsuak eta emakume pizkorrak».

Frantzesak, Ondarribiko «muruak desegin, porrokatu eta egun batez zortzi aldiz asaldatu bazuten ere», ezin izan ziran erriaz jabetu. Era ortan «irurogei ta bederatzi egunez peleatu ziran».

Bitartean, Espaiñiako gudaroztea prestatu egin zan; irailleko Ama Birjin bezperan Jaizkibel mendia alderik alde pasa eta ujolde bat bezela erori zan etsaiaren gaiñean; eta:

«...illunabarrean bukatu zan jazarra ura, lagatuaz etsaiak, ez bakarrik euren illak, baita ere arrapatu ziezten

bost eun agintari eta soldadu, berrogei ta amar bandera, suntuña geienak... Bidasoako ibaian ito ziran bi milla eta geiago, bada ainbesterañokoa zan oen larria, nun eriosuarrean putzu onetara bota zituzten euren buruak...».

Zeruko Amaren miraritzat artu zan garaipen ori. Birtartean:

«Monsieur de la Forsak, ereje kalbinista prestuez ark, laga zuan Guadalupeko elizatxoa txit ondatua, tellaturik gabe, eta eskerrak Jainkoari lau paretak txutik gelditu zirala».

Irudia erriko elizan utzi zuten; 1639-III-21-ean, Maria Juana Mugarrieta ura Ama Birjiña bisitatzen izan zan; eta sankristauari zera eskatu zion:

«Ez zezala utzi iñoiz ere irazeki gabe aurrean zeukan zillarrezko argiontzia».

Bestearen erantzuna:

«Ez zitziola argirik paltatzen ez egunaz eta ez gaubaz».

Baiña:

«...biramonean, sankristauak eliza ireki, *Ave Mari* ezkillajo eta argiak piztutzero juañ zanean, ekusi zuan Ama Guadalupekoaren imajiña palta zala».

Laster jakin zan Guadalupen zala; eta danak sinistu zuten «aditzera eman nai zuala... Jaizkibelgo elizatxoa zala bere eserlekutzat berezi zuana».

Beste batean, 1760-ko legortean, Guadalupera igo bezin laster:

«...eraso zion alako euri jasari non egon bear izan zuten nai ta nai ez elizatxoan eta serora-etxean arratsaldeko ordubiak arte».

1855-ean, kolera zabaldu zan, eta irudia errira jetxi zuten:

«Makiña bat negar malko ixuri zala gau artan dio berri oek ematen dizkiranak, baña ez ziran alperrik izan negar oek eta ondarrabitarren eskaerak euren Ama gozoari; bada laster alde egin zuan ainbeste kalte egin zuan izurreak».

Andik urte batzuetara karlisten azken gerratea (1870-1876) piztu zan. Eta 1873-VIII-31-n:


«Probintzi onetan izandu dan guda galgarria orduan asitzen zan gogorkiro, eta uste izan zan onena izango zala errira jatxitzea, iñork bidegabekeriren bat egin baño lenago. Elizan egon zan, bada, guda bukatu arte».

Emen esandakoa ezaguna izango dute askok. Baiña ez dakianik ere izango da. Are geiago gaur egunean, andik onera ibiltzea ain erreza danez. Leen, berriz, olako lekutara taldean eta pelegrinazioan joaten zan jendea; eta apaizak komeni ziran berri guziak kurpitudetik eman.

Zabala jaunaren idazlan osoa eskuratzea izango luke onena irakurleak. Argibide geiago aurkituko ditu.

Zaartu naizelako izango da; baiña orain, olako toki bat aitatutakoan, ara egindako ibillaldiak gogoratzen zaizkit. Guadalupen maiz izan naiz; baiña leenengo aldia da nere gogoan bizienik dagoana. Amasei urte nituan. Apirilla zan, 1944-an, eta eguraldi bikaiña. Errenterira trenez; andik oiñez Lezo, Jaizkibel, Guadalupe, Ondarribi... Jaizkibelen bost bat soldadu zeuden. Beren eginkizuna itxas barrenean ikusten ziran ontzien kontua artzea zan. Aien prismatikoekin begira jardun giñan, Bidasoaz beste alde-ra, batez ere. An artean alemanak baitzeuden. Endaia ingurua ikusirik, nork esan bear zuan lurralde eder ori gerraren zigorpean zegoanik? Andik illabete t'erdira izango zan Normandiakoaren asiera.

El Diario Vasco, 2001-03-04



Guadalupe, Hondarribi, Gipuzkoa.



Virgen del Rocamador, Lizarra, Naparroa.

Ama Birjiña, lekuko edo testigu

Lizarrako *La Rúa* kaletik aurrera joanda, San Pedro eliza arrigarriaren azpitik pasa naiz. Baita Frai Diego de Estella jaio zan etxearen ataritik ere. Kultur-etxe biurtuta dago gaur egunean jauregi ori. Kale au Santiago-bidea da, eta pelegrin batzuk or dijoaz, beren motxila eta makillekin. Aien atzetik segi eta arresi zaarraren ate batetik irten gera danok ere. Bi izen ditu onek: San Nikolas edo Gaztelako atea.

Andik aurrerakoa leku soilla izango zan garai batean. Gaur, berriz, etxe berriz josita dago. Oraintsu arte, Iruñetik Logroñorako kamioa emendik zijoan. Orain ez, kanpotik bide berri bat egin dutelako. Baiña ala ere badabil zarrata eta mugimentu.

Aurreraxeago, ezkerrera, Rocamador-ko Amaren eliza ikusten da. Orren barruan bein izan naiz. Elizak itxita egoten diranez, larunbat-arratsalde batean emen egokitu eta orduan sartu nintzan, meza-ordua zanez. Jendearen artean an egon nintzan, Ama Birjiñari eta aldareari erne-erne begira.

Bai irudi au eta bai aldare-aldea XII mendekoak omen dira. Ikusgarriak biak. Ama Birjiña, Erdi Aroko irudirik geienak bezela, eserita dago, Aurra ezkerreko belauanean daukala.

Aterpe bat izan zan emen Santiagoko pelegriñentzat. Etxea eta eliza, alegia. Gaur, berriz, kaputxinoen komentua biurtuta dago.

Elizaren ataria 1691-koa da. An Ama Birjiñaren beste irudi bat ikusten da, arriz egiña, bera zutik eta Aurra eskubiko besoan duala.

Irudi onek ere badu bere leienda. Nik bi iturri auetan aurkitu det: Jacinto Clavería: *Iconografía y santuarios de la Virgen en Navarra*, (1944); eta *Navarra, Temas de cultura popular* saillean, *Rocamador*, 82 zenbakian.

Zein urtetan ez dakigula, San Felipe eta Santiago eguna zan, maiatzaren 11-garrena alegia, Lizarran festa egiten zana. Arronizko edo Los Arcos-ko gazte bat ere etorri zan. Bertako mutil-talde batean sartu eta aiekin batera antxe zebillen, dantza eta kantu. Baiña ardo berogarria ere izango zan tartean; eta beste koadrilla batekin topo egin, asarretu eta burrukan asi ziran, alkar joka. Baita labanak kanpora atera ere, eta mutil bat antxe erori zan illik.

Agintariak iltzaillearen billa asi ziranean, beste mutillak alkar artu eta danak ao batez kanpotar orri leporatu zioten ilketa. Berak ezetz eta ezetz, baiña alperrik, beste guziak baiezkoan zeudenez. Ala, eriotz-pena eman zioten.

Bezpera-gabean kalez kale ibili ziran onela oiukatzen zutenak:

–Jainkoari erregu egin zaiozute biar urkatu bear dutenaren animaren alde!

Eguna argitu zuanean, Lizarrako elizak il-kanpaia jotzen asi ziran.

Orrekin batera, mutil gizarajoa kartzelatik atera eta antxe eraman zuten, eskuak loturik eta gurdi baten gainean, San Nikolas edo Gaztelako ate ortatik barrena, Rocamador-ko Amaren eliza onen atarira.

Oltzadura baten gainera igo zuten. An zeuden, mutilla urkatzeko tantaia, soka eta borreroa. Oitura ala zanez, baimena eman zioten, jendeari zerbait esan nai ote zion. Bai mutillak abots garbiz onela esan ere:

–Nik ez daukat eriotz orrekin zer ikusirik. Nere eskuak garbi daudela ez dezute nik esanda sinisten. Baiña bada nere alde aterako dana. Orra eliz-atarian zer ikusiko dezuten orain danok: Ama Birjiña Jesus Aurra beso batetik bestera pasatzen.

Danen begiak irudi orri begiratu zioten. Eta orixe da, arri-arri egiñik, ikusi zutena: Zeruko Amak bere Aurra ezkerreko besotik eskubikora nola aldatzen zuan.

Esan bearrik ez dago mutilla aske utzia izan zala. Nola ez, beraren alde alako lekuko edo testigua agertuta?

Leen esan bezela, irudi onek Aurra eskubiko besoan dauka. Zeruko Amaren beste irudi geienak, berriz, ezkerrekoan izaten dute, munduko ama guziak bezela, esku-ezkerrak izan ezean. Bi besoetan abillena libre, alegia, aurraren lanak errezago egiteko. Ala, leienda au adierazpen bat izango da agian, irudi onek Aurra eskubian zergatik daukan argitu nairik.

Nik, Aurra eskubiko besoan duana, Aragoiko errixka batean ikusi nuan bestea, orain urte batzuk.

Beste bi leienda ere badira, orain bururatzen zaizkidanetan, onen antzekoak: errugabea kondenatu, alegia, eta zeruak libratua. Bata Errioxakoa, pelegin gazte bat urkatu eta bizirik iraun zuana. Mirari ori etzuan epaileak sinistu, jatera zijoazen oilloak zutik jarri eta kantatu zuan artean. Ez da izango esaera au entzun ez duanik: *Santo Domingo de la Calzada, que cantó la gallina después de asada*. Eta bestea, Jose Zorrilla-rena: *A buen juez mejor testigo*. Toledoko Santo Kristo bat, egurrari josita zeukan besoa askatu eta errugabearen alde zin egin zuana.

Santiago-bidea leienda jakingarriz beteta dago. Oiek danak bilduta, liburu ederra osatuko litzake. Baiña nik, beintzat, ez det lan ori egiteko ainbat jakinduri eta denbora. Ala ere, bide ortako kontakizun berriren bat entzuten edo irakurtzen dedanean, pozik jasotzen det. Oietako bat izan da gaur irakurleari eskeiñi diodana.

El Diario Vasco, 2001-04-22



Longás, Valdonsella, Zaragoza.

Aragoiko Santo Domingo mendia

Orain urte batzuk, Xabierretik Zangotzara joan bearra izan nuan, kotxea garajera eramatearren. Andik bi ordura etortzeko esan zidaten. Bitartean zer egin? Paseatzera irten nintzan, Aragoi aldera. Kilometro pare bat egingakoan, kamioaren ertzean artalde eder bat ikusi nuan. Artzaiarengana urbildu, alkar agurtu eta kontu kontari asi giñan.

Otsailla zan, eta eguraldi ederra. Aurrean genduan lurraldea Valdonsella deritza, ango ibaiaren izena *Onsella* danez. Ur ori Aragoi ibaiarekin biltzen da, gu geunden lekutik gertu. Sortu, berriz, an urrutian ageri zan Santo Domingo (1.517 m.) mendian. Erri bakarra ikusten genduan: Sos; baiña or daude Gabarderal, Camporeal, Navardún, Gordún, Petilla, Urriés, Isuerre, Lobera eta Longás ere.

Izketan ari-ari giñala, beste gai batzuk lasai asko jorratu ondoren, Santo Domingo mendia aitatu zuan artzaiak: bi udara ango larretan pasea zala artaldearekin. Ganaduarentzat leku ona zala esan zidan. Baiña malkor eta arkaiztegi batzuk bazituala; ardiak aldizka antxe sartzan zirala, eta gero ezin irten. Artzaiak joan bear izaten zutela ateratzera, leenago gerritik soka batekin ondo lotuta.

Mendi orrek bi tontor dituala, eta bien arteko lepoan Santo Domingo ermita dagoala. Berak aren ondoan zutela txabola edo aterpea; eta gauetan, lotara baiño leen, alde guzietara begira denbora pasa jarduten zirala, an eta emen ageri ziran argiak zein erritakoak izan zitezken igerrirri nairik. Eta ondoren mendi ortako leienda eder bat kontatu zidan, berak Aragoiko beste artzai bati ikasia. Esan bearrik ez da ni adi-adi entzun niola.

Antziñako garaietan, bei-talde bat omen zan mendi ortan. Goizero, ganadu ori larrera atera bezin laster, bei

bat aldapan gora artzen zuan. Antxe bistatik galdu eta gauerako atzera etorri.

Bei ori nora ote zijoan, bada? Zer ote zuan an goien? Urrango goiz batean, bei-zaiak aren atzetik joan ziran; eta, bi tontorren arteko lepora igotakoan, arrituta gelditu ziran.

Goiko lepoan, gaur ermita dagoan ortan, Santo Domingo bera bizi zan, eta beiaren errapetik esnea zanga-zanga edaten ikusi zuten. Itxura danez, ortatik bizi zan santu ura.

Oar bat: ez dezaidala iñork galdetu Santo Domingo ori nor ote zan: Silos-koa, Calzada-koa, Guzman-goia ala besteren bat. Nik ez nion txeetasun ori artzaiari galdetu, leiendak era ortako argibideak ez dituzte aintzat artzen eta, zeruan ere artuko ez diran bezela.

Bei-zaiei etzitzaien ori gustatu. Berak bei-taldea zaindu eta esnea besterentzat? Batek abailla artu, arri borobil bat jarri, aidean bueltaka eragin eta jaurti egin zuan. Baita ots edo txistu ederrarekin joan eta beiari kopeta erdian jo ere. Bei gajoa lurrera erori zan illik, eta adarra larrean sartu.

Gero, bei-zaiak ganadu ura jasotzerakoan, iñork usete etzuana gertatu zan: adarrak larrean egindako zulo artatik ura sortu zala.

Gaur ere antxe dago: ur-putzu bat, iturbegi bat, ur presko eta garbia dariona. Arrigarria da ia mendi-tontorrean ura nola sor ditekean. Baiña, dagoan lekuan egonda ere, ez da bein ere agortzen.

Bei-talde ori Ejea de los Caballeros erriko andre batena zan, eta bei-zaiak abisua bialdu zioten: Santo Domingo mendi ortan, ia-ia gaillurrean, iturbegi berri bat azaldua zala.

Andre orrek ori ezin zitekeala erantzun zien. Goi artan ura nundik etorriko zan, bada? Berak etzuala gezur ori sinistuko.

Baietz; egi-egia zala, bei-zaiak. Etor zedilla mendira, eta antxe ikusiko zuala egia zan ala ez. Joango zala, ba-

da. Igo ziran eta, leen etzan iturbegia ikusitakoan, orduan sinistu zuan, eta zeruko miraritzat artu.

Ala, poltsikotik errosarioa atera eta errezatzeari gogoz ekin zion, zeruari eskerrak ematearren, noski. Baiña errosarioak beatzartetik nola edo ala iges egin zion, putzu barrura erori eta urak irentsi egin zuan. An galdu zan, beintzat. Ura pena andre errezazale arek, bat-batean errosariorik gabe geldituta!

Menditik beera jetxi ziran, eta andik Ejea-ra. Batetik bestera kilometro asko daude, berrogei ta amar bat bai, gutxienez.

Urrengo goizean, Ejea ortan, egunero oi zuan bezela, andre orren neskamea uretara joan zan, eta suilla iturriaren azpian jarri. Eta orduan beste miraria: etzekoandrearen errosarioa antxe sartu zan suillaren barrura, urarekin batera.

Ol-ola kontatu zidan artzaiak. Bi orduko itxogin bearra aspergarria izan oi da; baiña egun artan oso laburra iruditu zitzaidan epe ori. Pozaren pozez itzuli nintzan garajera, artzaiaren esanak bidean nere buruan berrituz eta ausnartuz.

Ni lau bat aldiz izan naizela uste det Santo Domingo mendi ortan, beti ere Longás erritik abiatuta. Larreak, arkaitz tenteak, ezelak, piñuak eta pagoak bidean... Iritxitakoan, goiko iturbegian egarria kendu. Ermitaren atetik santuari otoitz bat egin. Gaillurrera igo eta begiei gozatu bat eman.

Ango bista zabalak! Iparraldera, Pirineoko tontorrak, bai Naparroakoak eta bai Aragoikoak: Ori, Auñamendi, Iru Erregeen Maaia, Peña Forca, Bisaurin, Aisa, Collarada... Eguzkialdera, Hueska probintziaren barruko mendiak: San Juan de la Peña, Oroel, Cancias, Pusilibro, Guara... Egoaldera, Ebroz arunzko mendiak: Moncayo, Cebollera, Urbión, Demanda... Sartaldera, Naparroakoak: Izaga, Elo, Aralar... Eta aitatutako mendi oiek mugatzen duten barrutian, zenbat erri, ibai, mendi, baso, gaztelu, sorol...

Mendi ederra benetan Santa Domingo ori. Ango festa-egunean izan ezik -uztaillean dala badakit, baiña ez zein egunetan- iñor gutxi igotzen da ara. Baiña joaten danari etzaio damutuko. Ni, beintzat, joandako bakoitzean, berriz itzultzeko gogoarekin itzuli naiz.

El Diario Vasco, 2001-06-05

Uitziko Santa Engrazia

Santa Engrazia eta bere emezortzi lagunak martiri izan ziran Zaragozan, III mendean. Beren erlikiak iri ortan daude gaur ere, izen bereko elizan.

Ermita bat badu santa onek Uitzin, emendik Lekunberri aldera abiatu, bi kilometrorra ezkerrera artu eta erreka-zulo batean gora joanda.

Orixek bere *Euskaldunak* poeman dionez, Etxeberriko Martin artzaiak gorri koloreko zerbait ikusi zuan pago tartean. Piztiren bat zalakoan, oi ugin zion, uxatzeko. Baiña abots bat entzun zuan: Engrazi martiria zala eta leku artan ermita bat nai zuala.

Erria asi zan arri-karraio, ermita altxatzeko Musulun-gaiña aukeratuz. Baiña ara igotako gaiak, ermita dagoan ortan ikusten ziran urrengo goizean.

Martin artzai ori zelatan jarri zan gau batez. Zer ikusiko eta San Isidro, idi-pare batekin arri-karraio. Santu oni, beraz, munduan zala, bera mezetara joan eta ainguruak egiten zizkioten soro-lanak. Zerutik, berriz, lur on-tara jeixten zan itzaintzan egitera...

Santuak, zelataria sumatu eta onela esan zuan:

–Aida! Zelatan dagoan orri atera ezkerreko begi!

Eta Martin ura “begi batekin da geldi”.

Ermita altxa nai zuten gain artan, arri zulatu bat utzi zuan San Isidrok, ontzi baten antzekoa. Erromesak atsedean antxe artzen zuten, eta beatzak ontzi-moduko orren uretan busti, aitaren egiteko.

Orixe sarritan etorriko zan onera gaztetan, Uitzin bizi izan zan urteetan. Ala, garai artako oroipenak izango ditu bere poeman esaten dituanak.

Uitzitik ez-ezik, “Leitza, Beruta, Larraun aldetik inguratu da jendea”. Alkar agurtuz ermitara sartzen dira.

Aldarean an daude Santa Engrazi erdian, eta San Isidro goien, "eskua zabal lurrerako ta zerura begira aurpegi". Otoitz ta kanta meza-denboran. Eta:

Sagarakoan isilgunea...
Atarin beor-irrintzi,
ardi-joale, beor-kalaska
ta beien kaskoin-zintzarri...
Aien gañetik ezkillarena,
biotzen eragingarri,
ta begientzat, lurrin tartean,
Opari-Ogia zuri.

Irten eta taldeka bildu, amarretakoa egitera. Korrika-apustu bat izan berria danez, izketarako gairik ez da palta. Poemaren bi maiteminduak gosari au dute: zizak, aarri-giltzurriñak, muin eta xerrak...

Kantapaper bat bada, *Santa Engraziaren bertsoak* izenburuarekin Tolosan: "Francisco Muguerza'ren moldiztegian" argitaratua. *Argia'ren Egutegia*-k ere agertu zituan, 1933-an; eta bai Aita Donostik ere, 1934-an, *Gure Herria* aldizkarian, doiñu eta guzi. Kanta au lau lerro auekin asten da:

Engrazia birjiña glorioso,
martir santa Jaunarena,
gutaz egin zazu otoitz ona,
Jesukristoren esposa.

Aita Donostiren iritziz, kanta au *bertso berriak* jenerokoa da. Baiña ez; ez da, iñola ere, bertsolari batek moldatua. Napparroako eta Aragoiko errietan *Gozos* izeneko kanta batzuk dituzte, santuen ermitetan kantatzeko. Talde batek bertsoak kantatzen ditu, eta erriak leenengo lau-koaren azken bi lerroekin erantzun. Kanta au ere eredu orren antzera egiña da. Ona bertso bat:

Gure balle Larraungoa
bere gaitz eta estupenetan

zugana die lasterkan,
Birjiña, gure gozoa;
izan zaitez defenza
beraz lur noble onetan.
Gutaz...

Ango festa nola ospatzen dan, Tolosako Periko Elosegi zanak adierazi zigun eskutitz baten bitartez, 1982-an, lerro auetan:

«Ermita, kuartana gaitzetik sendatutako Bernardo de Atondok egin omen zun aspaldi... Urteroko erromeria, Apirilaren 16an nola bait-dan Santa Engrazia, aurreko edo ondorengo igandean egiten da.

Gaur egun, uitziarrak eta Leizeko Erasote auzokoak etortzen dira pesta ontara. Leizarrak oraindiano oñez eta mendiz etortzen ziran, eta oraindik ere jende gaztea ala dator, eta jende larria autoan.

Amabik aldean asten da Meza, eta ermita naiz aundia izan, jendez josia egoten da. Aurtengo Meza garaiean Uitziko apezak Orixen *Euskaldunak* izeneko liburuko bertsoak irakurri zituan, aietan Santa Engraziaren pesta au asko aitatzen baita.

Meza bukaeran kantatzen dira zuk dakizkizun bertsoak... Meza ondoren Uitziko erriak amaiketakoa eskeintzen du. Ori, denbora batean jendea Jaunartzera etortzen zan eta barau egon bear zutelako. Orain bi edo iru urte, gonbitea gazta, ogi ta ardoa izan zan; baño, noski, ateratako danak segidan garbitu ote ziran, eta igaz etzan gonbiterik izan. Baño aurten lukainka, ogia ta ardoa erruz banatu zan.

Datorren jende tartean, pamili osoak ugari biltzen dira... Erromeri polita izaten da. Amaiketakoa ondoren, jendea banatzen da, eta zenbaitzuk sua piztu eta bertan janariak berotu eta jaten dituzte.

Pentekoste ondorengo ostegunean errogatibak izaten dira ermita ontan. Bertan biltzen dira apezak, alkate eta pamili bakoitzetik bat. Larraungo Udaletxeak bi kandel aundi eskeintzen ditu ermitarako».

Milla esker Periko Elosegi zanari. Gure lurra biotzez maite zuan mendizale purrukatu arek. Zer geiago esan nezake? Lantxo onek ermita ori ezagutu-gogoa inori egin badio, neretzako poza litzakela.

Maiatzaren goiz batean izan nintzan ni azkenekoz ermita ortan. Zeru urdiña goien. Mendiak eta basoak inguruan: pagoak, lizarrak, elorriak, urritzak, aritzak... Txoriak eta kirkirrak kantuz. Oiña nun jarri ezin asmatu, lorerik ez zanpatzearren. Paradisoaren txoko baten antzeko lekua, urte-sasoi ortan beintzat.

El Diario Vasco, 2001-06-08



Santa Engrazia, Huizi, Naparroa.

Txirritaren bertso ez-ezagun batzuk

Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkarian, 1903-ko urriaren 3-an, onako iru bertso auek agertu ziran, *Oroi-garri bat* izenburuarekin eta aurretik berri auek emanez:

“Del concurso. En el de bersolaris de Irún, se improvisaron el lunes los siguientes versos que publicamos gustosos y que son, como se ve, un delicado recuerdo al ilustre Derouledé.

Akordamen bat eman biayot
Don Pablo Deroulederi,
animatikan sentitutzen det
ezin esana berari...
Gauza geiegi dakiyelako
onontz etorri zan ori,
Jesukristoren konpañiako
apostolua diruri.

Len pasietan ezta ikusi,
datozenetan eztakit,
jende pobria aparatzeko
au bezin gizon politik.
Memoriari kalte egin ez,
eztu artu nai arditik,
fiña zalako bialdu zuten
bera bizi zan erritik.

Legian berri ondo zakiyen,
gañera berriz praktikan;
fiña zalako bialdu zuten,
etzuben beste faltikan.
Jende bajua gora igotzen
saiatu da gogotikan,
orain Parisen oroitzen dira
Deroulederengatikan.

Eta, ondoren, iru bertso oien egillea eta eguna: “Jose Manuel Lujanbio. Agorraren 29 jarriyak 1903”.

Jose Manuel Lujanbio Txirritaren izen-abizenak dirala, edozein bertsozalek daki.

Urte ortan, berriz, 1903-an alegia, berrogei ta iru urte zeuzkan, 1860-an jaioa zanez. Sasoi oneko gizona, beraz. Garai artan erriz erri ibiliko zan, bertsoan eta argintzan.

Itxurak diranez, Irunen bertso-saioren bat egin zan, berak ere antxe kantatuz, eta norbaitek iru bertso auek jaso zituan. Nola, ordea? Takigrafiaz agian. Baiña beste era ontara ere saiaturakoak izan ziran, magnetofonoa etorri aurreko garai aietan: zenbait lagunek alkar artu eta batek leenengo bi lerroak kopiatu; bigarrenak beste bi, eta orrela.

Pablo Derouledé jaun ori nor izan zan garai artako entzuleak eta irakurleak ongi jakingo zuten, eta gaur egunean ere aiton-amonen batek zerbait esango luke, bearbada. Baiña guk, beintzat, ezertxo ere ez dakigu. Orduko egunkarietan aren berri batzuk aurkituko lirake. Baiña azterketa ortarako denborarik ez degu. Naikoa izango da bertso auetatik atera ditekena adieraztea.

Abizen ori frantzesak izango da; eta, ain zuzen, azken bertsoak Paris aitatzen du.

Baiña «fiña zalako bialdu zuten bera bizi zan erritik». Erbesteraturen bat, beraz? Zergatik ote? Txirritaren iritiz, «gauza geiegi dakiyelako» eta «fiña zalako».

Ala, «apostolua diruri»; ez da ikusi «jende pobria aparatzeko au bezin gizon politik»; «jende bajua gora igozten saiatu da gogotikan»; «ztu artu nai arditik»... Or ikusten da aren fintasunak noraiño irixten ziran.

Baiña jaun ori zer ote zan? Txirritak ez digu olakorik esaten. Ala ere, medikua ote zan susmoa egiten degu.

Dana dala, gizon ospetsua izango zan ura garai artan. Txirrita, berriz, sagardotegiz sagardotegi zebillen bertsolari ajolakabe bat. Ura zan bezelako jaun agurgarri baten parean nola jarri, beraz, arlote ura?

Baiña orra gauzak nola aldatzen diran. Derouledera nor izan zan dakianik arkitzen oso zailla izango da gaur egunean; Txirritaren izena, berriz, jendearen aotan dabil oraindik ere, berak argi asko igerri zionez: «nere aitamenak izango dira beste larogei urtian».

Onek zer pentsaturik ematen du. Cervantes-en denboran, adibidez, Espaiñiako errege aaltuari belaunarekin lurra jo eta buru-makurka urbilduko zitzaizkion danak ere. Baiña nork begiratuko zion kartzela batean zegoan preso errukigarri bati? Denbora nolabait pasatzearen idatzi eta idatzi ari zan bati? Baiña era ortan eta toki artan beztutako paperetatik atera zan *El Quijote*; eta orain aren egillea gizon ospetsua da mundu guzian. Orduko erregea nor zan jakiteko, berriz, liburuak aztertzen asi bearra dago.

Gure artean ere berdin da. Nork daki, adibidez, Perandoren, Bilintxen edo Xenpelarren denboran nor zan Amezetako, Donostiako edo Errenteriko alkatea? Edo-ta Gipuzkoako gobernadorea?

Jesusek esana da aurrenak azken izango dirala, eta azkenak aurren. Eta egi utsa dala ikusteko, beste mundura joan gabe ere, emen bertan argibide ederrik badago.

El Diario Vasco, 2001-09-05

Bilbotik Donostiara 1870 urtean

Donostian, joan dan mendearen bukaeran, Lore joakoak urtero ospatu oi ziran, prosaz eta bertsoan moldatutako lanak sarituz eta argitaratuz.

Argitalpen oietako bat 1879-koa da, eta orduko idazlan bat, "lenbiziko sariaren aldeera" irabazia, *Antiguako Ama Virjiña* izenburua duana, bizkaieraz idatzita dago. Luzeegia da onera osorik aldatzeko. Egilleak –beraren izenik ez da esaten– Bilbotik Donostiraiñoko ibillaldi baten berri ematen digu

Bilboko *Irurak-bat* izeneko egunkarian agertutako berri batekin asten da:

«Gaur dira bederatzi urte –1870 urtean, beraz– irakurri nebala *Irurak-bat* deritxon eguniango paperian: 'Donostiako zezenak ikusi nai ditubeenak era ona daukee, bada biar goizeko egunsentian Arietzatik urtengo dau *Madrilko Uri* izeneko bao ontziyak, eta etzi gauerdiko orduan andik biurtuko da ona lau ordurako, uri polit artan egun bi egiñik».

Donostian zezenak ziran, beraz; eta *Villa de Madrid* izeneko itxas-ontziak zera eskeintzen zuan: egunsentian Bilbotik atera, Gipuzkoako iriburura joan, zezenak ikusi eta urrengo gauerdirako Bilbora atzera itzuli. Idazlan orren egillea bereala prestatu zan:

«Jai biren elduera, erdi dubazko juañ-etortia, eta Donostia ikusteko gogua, mugonegiyak zian ni baño buru astunago batek bere eskuetatik igesian itxiteko».

Presaka joan, gaua izarren azpian igaro, ontzira igo, txoko batean babestu eta an abiatu ziran, begira zeude-nak oiuka agurtzen zituztela:

«Begiyen irai-itxi baten jua nitzan Bilbora, eta gaba izar aurrian egiñik, ondiño illunez, *Madrilko Urian* neure gorputz gaixuak atzeko bazter baten billatu eban, da andik lau edo bost txistuka jorik, urten genduan bireun batzuek, piesta zale andiak, beste irurerun ikuszaleen artetik ajuju ez txikiyak aiziari emonik.»

Leenengo, Bilbotik itxas zabalera:

«Ibaizabaleko ur geldiyak atzian itxiten genduzan artian, nire piesta lagunak erabilleen poza ezin sinistu lei, guztiak, bada, euren ustian, urte txarretik, esanan bidez, atarako ebe- en sabela pozaldi, itxasozko joanera atan.»

Bilboko ibaiari ez dio *Nerviñon* esaten, *Ibaizabal* bai- zik, berez bear duan bezela. Baiña eguraldia trakestu egin zitzaien:

«Serantes nausiaren punta ez genduan ostian itxi orain- diño, agertu zianian sartaldetik odei pillu itxura txarrezkuak, eta bertan batera tximist eta trumoi ikaragarritzkuak. Gañetik geunkan aize ain gogorra ta euri añ ugaría, ze uste genduan zeru osua geure gañera etorrela. Jagi zian azkenerako mendi- yak lako olatuak, eta oneen artian ebillen bao ontziya batetik bestera, goitik beera, intxaur azala baño ariñago.»

Era ortan pasa zuten Bizkaiko itxas-ertz guzia: Plen- tzia, Gaztelugatxe, Matxixako, Bermeo, Mundaka eta Le- keitio, ondoren Ondarroara iritxiz:

«Ondarroako baiian aurrian gelditu giñanian, jagi nintzan etzanda neguan tokiyan, eta txapela eskuan arturik, Antigua- ko eleizan begiyak ipiñirik, agur egin neuntsan nire ume den- borako leku guztiei, malko senduak begiyetatik urteten euste- zela, bada eliz atzian obiratuta eguan neure aitaaita maitia.»

Idazle au Ondarroakoa genduan, beraz; edo ume- -denbora an egiña. Azkenerako orra Donostiara iritxi:

«Eldu giñan, bada, Donostiako baira eguerdiko inguruan, urten genduan *Madrilko Uri*-tik, Jaungoikoak eta Donostiar txalopa gizonak nai izan ebeen legez, eta lurrian bein oñak ipiñirik, nire laguna ta ni sartu giñan Itxasaldeko kapiian.»

Lagun berria egiña baitzuan. Baiña ez dira zezenetara joaten, Ubara baizik, berak *Euba* esaten badio ere, Bizkaiko erri baten izenarekin naastuta:

«Zezenetara juañ biarrian, artu genduan biyok Eubako komentuko bidia; igon genduan aldatz biguna, eta eldu giñanian komentu aurrera, pozez beterik ikusi ebeen gure begiyak aurrian geunkan Loiolako ibarraren iduri ederra. Eseri giñan arbolaz ingurutako zelaitxo batean, ezkerrian geunkala Loiolako ibarra, eskuman mendien katia, eta aurretik Donostia jaiez apaindurik, eta an urrutian itxaso zabala.»

Begientzat gozatu ederra gaur ere, eta are geiago orduan, ango ikuspegia. Loiola bai; begiak ondo artzen dute andik; eta urte aietako batean ango erromerian entzungo zuan Bilintxek *ja-jai* mingarri ura. Baiña Donostia eta itxas zabala ez det uste andik ageri diranik, Ametzagaiña mendia tartean danez. Onela jarraitzen du gure bizkaitarrak:

«...begiratu neban itxasgañera, eta ozta-ozta ikusi al izan nituan eguzki sartzaldiaren azkeneko ziargiyak. Orduan esan neuntsan (lagunari): "Jatxi gaitian urira; ara eldu orduko, zezenetatik urten izango dabee". Eta bertatik agur biotzeko bat egiñaz Eubako komentubari, eta ango ingurutako mendi ta zelai guztiai, biurtu giñan Donostiara...»

Ondoren, Bilbora. Etorri bezelatsu joango ziran, noski. Baiña ez du ortaz itzegiten. Egun orren oroipena geroztik gogoan duala esanez bukatzen du.

Orrela egin zuten joan-etorri ori zezenzale aiek, itsasotik alegia, legorretik baiño azkarrago noski. Pio Barojaren *Santi Andia* nobelan kontu berdiña degu. Santi ura

ere itxasoz dijoa Baionatik Luzarora. Baiña, itxas-gizona zanez, arritzekoa ez da. Idazki ontan ageri danez, berriz, bilbotar aiek ere etzuten Bilbotik Donostiara joateko era oberik aurkitu.

El Diario Vasco, 2001-10-25

Eguzkiaren azpian ezer berririk ez

Egun auetan mundua aztoratuta eta bildurtuta ikusten degu. Alakoxeak dira, izan ere, andik eta emendik datozen berriak. Orain arte bezela gerra ezpatarekin edo tiroka egin bearrean, eskutitz baten barruan kutsu gaizto bat korreoz bialtzea naikoa da orain, etsaia ankaz gora botatzeko.

Orri *guerra bacteriológica* esaten zaio gazteleraz; eta euskeraz nola esan genezaioken nik beintzat ez dakit. Danna dala, guda egiteko *estrategia* berria irizten diote danna, edo geienak beintzat.

Ez, bada; ez da inola ere berria, naiko zaarra baizik. Eun urte baiño geiago dira modu ori bera edo antzekoa erabili izan zala. Eta nun eta gure Euskal Erriaren eta Gipuzkoaren biotz-biotzean: Andoaiñen. Ala aurkitu det 1895-eko martxoaren 3-ko aldizkari batean.

Urte ortan, izan ere, erri jator orren inguruetan, eta bai bertako plaza eta kaleetan ere, zakur eta katu asko, eta bai ardiak ere, illik agertzen ziran. Laster igerri zion jendeak ondamendi negargarri ori nundik zetorren.

Esku gaiztoren batek lukainka edo txorizo-moduko batzuk uzten omen zituan an eta emen, bidexiorretan eta kaleetan, baiña eden, beneno, pozoi edo puzuni txarra barruan sartuta. Eta artatik probatzen zuanak, berealaxe egiten zion azken agurra mundu petral oni.

Gaur egunean edena eskutitzen barruan bialtzen dala, eta orduan lukainka baten barruan. Baiña bietan intentzio berdiña.

Jaunari eskerrak, etzan kristaurik izan lukainka oiek ikutu edo jan eta il zanik. Baiña bai gutxigatik iges egiñak banaka batzuk. Erriaren ondoko baserri batean, adibidez, bi aurrek lukainka oietako bi aurkitu omen zituzten nunbait ere. Aien orduko poza!

Etxera eraman, ala bear-eta gurasoak lanera-edo joan eta kanpoan zirala, burrunntzi baten puntan beren txorizo oiek sartu eta surtan jarri zituzten erretzen. Ura merienda gozoa arratsalde artan jango zutena!

Zeruetako mana ori gorri-gorri jarri eta koipea zerio-la ikusi zutenean, ari ortzak eranstera zijoazen, begiak diz-diz zituztela. Baiña une artantxe etxeko edo auzokoren bat sartu zan, sorotik edo menditik zetorrena. Aur aien aingeru goardakoak ekarriko zuten, noski.

Zertan ari ziran ikusi zuanean, eskuetatik kendu egin zien aur aiei beren mokadu goxo ura, eta etxeko zakurrari bota. Onek salto bat egin eta aidean arrapatuko zuan, lurrik ikuitzen ere utzi gabe; eta laster zuan tripa barrura bialia. Baiña bai segituan luze-luze erori ere illik. Or ikusten da puzuni txar orrek zenbateraiñoko indarra zuan.

Biamonean emakume bat, Josefa Ibarra izenekoa eta Zumea baillarako 14-garrenean bizi zana, erriko udal-etxean azaldu zan, lukainka oietako bat zekarrela, etxeko atarian norbaitek utzia zala esanez. Andre orrek ekarritakoa bereala bialdu zuan alkateak Donostiara, gobernardoreari. Bessón, beraren izena.

Onek, berriz, Tolosako epaileari bialdu zion, analisisa egiteko eta opari oiek banatzen zebillen esku zital ura nor zan leenbaileen argitzearren polizia-jendea lanean jartzeko. Denbora berean, negargarriren bat iñun ere gerta etzedin, Andoaingo alkate jaunak bandoa jo erazi zuan:

«Ero edo gaizkille batek bere moduko entretenigarria billatu du: benenez betetako txorizoak uzten ari da erri ontako kale eta bidexiorretan iñoren baimenik gabe, abereen bizitza arriskuan jarritz, eta bai kristaurena ere. Txorizo oietakorik ez dezala iñork aora sartu; baizik-eta arreta aundienarekin jaso eta udal ontara ekarri dezala. Eta nor dan jakin ezker, leenbaileen salatzea eskatzen zaio».

Aldizkariak ortxe bukatzen du bere kronikatxoa. Ezin esan nezake, beraz, gaizkille edo ero ura arrapatu zuten ala ez.

Bertso polit batzuk jartzeko gai egokia zan ori; eta be-
arbada moldatu ere egingo zituan bertsolariren batek, eta
kanta-paperetan zabalduko ziran, garai artako oitura ala
zanez; ez dira, ordea, gure eskuetaraiño iritxi, zoritxarrez,
orain artean beintzat.

Baiña burutazio ura orain eun ta sei urte izan zua-
naren jokabidea, eta gaurko auts benenatu ori bialtzen
duanarena oso antzekoak dirala dudarik ez da. Oraingo-
ak, leen esan bezela, eskutitz itxi batean banatzen duala
auts iltzaille ori; eta ordukoak lukainka tentagarri baten
barruan. Baiña ez al da gaiztakeri berdiña?

Ordukoak, nornai izanik ere, txapela erabiliko zuan
ziur aski; eta oraingoak, turbantea.

Andoaingo ura ez dakigu bere zulotik atera erazi eta
arrapatu zuten. Auts-banatzaillea ere iñork ere ezin esan,
oraingoz beintzat, bere gordelekutik uxatu eta txamarre-
tik atxituko duten.

Baiña alderik aundiena beste ontan dago: aspaldiko
gertaera orrekin irriparra egiten degula, eriotzik izan
etzala jakiñik, batez ere. Baiña gaurko gerra berri onek,
batetik bonbak bota eta bestetik deabruzko auts oiek ba-
natzen dirala, askoren begietan negar-malkoak jarriko di-
tu, asi besterik ez da egin eta gorputz geldituak eunka ba
omen dira eta.

Zer gertatuko dan zai egongo gera, beraz. Baiña bi-
tartean, leen txorizoen eta orain eskutitzen barruan zer
etorri diteken dakigularik, Bibliak esaten duana gogora
dezagun: *Nihil novi sub sole*. Eguzkiaren azpian ezer be-
rririk ez.

. *El Diario Vasco*, 2001-11-02



Andoain, Gipuzkoa.

Enbor beraren ezpala

Xabierko San Frantziskok lau senide izan zituan: Magdalena, Ana, Migel eta Juan, bera danetan gazteena izanik. Oietan bigarrena, Ana, Migel Ezpeletarekin ezkondu zan 1512-an, anai txikiak sei urte zituala. Migel Ezpeleta ori Beireko jauregiaren nagusia zan.

Senar-emazte auen seme bat, etxerako gelditu zana, lau seme-alabaren aita izan zan: Leon, Jeronimo, Bernardo eta Isabel. Jeronimo ori 1549-an jaio zan, osaba Frantzisko Indian eta Japon aldean zebillela.

Xabier eta Beire ez daude urruti. Ni leengo batean izana naiz. Zangotza, Aibar, Eslaba eta Lerga igaro nituan. Bide ortatik ederki ikusten dira Pirineoko tontor zuriak. Urrena, gain batera igo, Uxueko Amaren santutegia ezkerrera utziz. Gero, San Martin de Unx, Olite eta Beire, Moncayo begien aurrean dala.

Zaldizko batek egun berean egingo zuan bide ori; eta bi familiak alkarren berri jakingo zuten. Albisterik berezienak, Frantziskorenak izango ziran: urrutietan zebillela, alegia, India, Japon eta abarretan, besoa nekatzeraiño ainbat bataio egiñez.

Jeronimo Xabierko santu aundiaren illloba zan, bezaz. Baiña etzuten alkar ezagutu, osaba urruti artan ilzanez, illobak iru urte zituala. Aren ibillaldien berri ikasiko zuan ala ere gero, osabak bialdutako eskutitzak irakurriz eta abar.

Jeronimo au, emeretzi urterekin, Alkalako Unibertsitatera joan zan ikastera; eta an jesuita sartu, 1568-an. Osabaren antzeko izan nairik, Indiara joan nai zuan, eta bai sarri eskatu ere, baiezkoa eman zioten arte.

Lisboa-tik abiatu ziran. Egoaldera artu zuten, Afrika azken muturreraiño, andik iparraldera, eta gero India-ra. Osabak korritutako bidea orixe zala oso gogoan euki-

ko zuan illobak. Eta, Goara iritxitakoan, ura biotzaren zirrara osabaren gorputzaren aurrean!

Sermoilari asi zan leenengo. Gero, jesuita sartu berrien maisu. Osasunak etzion laguntzen, ordea. Agintea etzitzaion batere gogoko, baiña Bazaingo eta Cochingo jesuiten buru egin zuten; eta, urrena, Goakoena.

An zala, Akbar erregearen eskutitz bat iritxi zan, misiolari batzuk eskatuz; eta aita Jeronimo arako izendatu zuten. Akbar ori, Tamerlan aundiaren ondorengoa zan. Errege orren erreinua Asiaren erdi-erdian zegoan. Bera oso gerra-zalea izanik, lurralde asko mendean artuak zituan. Baiña jakin-zalea ere bazan. Ala, kristau misiolariak alboan nai zituan, auen erlijioa zer ote zan entzuteko.

Bere gauzeekin pardeltxo bat egin eta ara abiatu zan aita Jeronimo, beste bi jesuitarekin. Baiña irukote ori talde edo *caravana* aundi baten babespean sartuta, lareun kamelu bazijoazen eta. Basoak, basamortuak eta mendi zakarrak igaro ondoren, orra iritxi Akbar erregearen jau-regira. Arrera ona egin zien onek, eta persa izkuntza azkar ikasteko eskatu ere bai, alkarrekin bitartekorik gabe itzegin aal izateko.

Ordurarte aita Jeronimo deitzen zanari, Frantzisko Xabierkoaren illoba zala danak zekitenez, aita Xabier esaten asi zitzaizkion; eta berak ontzat artu. Ala, berez toki-izena dana, ponte-izena biurtu zan. Eta nork daki gaur munduan zenbat Xabier izango diran?

Batean, erregeak bere liburutegira eraman zuan aita Xabier ori, eta an beste liburu askoren artean zer ikusiko eta Santo Tomasen liburuak, San Inazioaren Ejertizioak eta baita ere Martin Azpilkuetaren *Theologia Moralis*. Arri-garriena au noski, Martin ori Xabier zaarraren eta gaztearen aurrekoa izanik.

Akbar erregea eta Xabier gaztea lagun miñak egin ziran. Alkarrekin sarritan itzegiten zuten erlijio-gaiaz. Kristau fedea zer zan ikasi nai zuan erregeak. Baiña emazte bakarrarekin bizi bear ori etzitzaion gustatzen, berak or-

tatik ere aukera nai zuanez. Bestetik, berriz, eguzkia ador-
ratzen zuan.

Batean, erregearen jauregiak su artu zuan, eta aren urrezko aulkia ere urtu egin zan. Erregeak orduan bere iriburua Katxemirara aldatzea erabaki zuan. Himalaya pasa bear, beraz. Ondoren, onela idatzi zuan aita Xabie-
rrek:

«Ez dago esaterik mendi oiek igarotzea zein neketsua dan. Pirineoak baiño askoz altuagoko tontorrak. Mendi latz bat igaro eta urrena latzagoa. Eta elurra eta otza, naiz eta maiatzaren azkenetan giñan.»

Erregea gerrara joan zan Agra izeneko lurraldera, eta aita Xabier berekin eraman zuan. Onek orduan idatzita-
ko eskutitzak, gerra ura zer izan zan jakiteko iturririk garbiena eta oparoena dute gaurko jakintsuak.

An zala, aita Xabier onek Txinako berri entzun zuan. Bere osabak bezela, alegia. Au ara itxasoz joan nairik eta lurralde ura begien bistan zuala il zan. Aita Xabier gaztea etzan abiatu, osasunak etzion laguntzen eta. Bai, ordea, anai Goes, portugaldarra eta jesuita bera ere, mendietan barrena bidea egiñez.

Ez dago aita Xabierrek errege orrekin izan zituan arremen guzien berri ematerik. Baita aren semearekin ere. Onek ere atsegin zuan napar misiolariarekin itzegi-
tea.

Onek, ikasi berria zuan pertsia izkuntzaz ebanjelioen eta salmoen itzulpena idatzi zuan; baita ere apostoluen eta martirien bizitza; izkuntza orren iztegia eta gramatika eta abar. Kristau fedearen azalpena ere bai; baiña azke-
neko au gau batez lapurren batek eraman zuan eta geia-
go azaldu ez.

Ogei urte pasa zituan aita Xabier Akbara erregearen lurraldeetan. Baiña, azkenera, «zaartzaroak arrapatu nau eta botikak ez dute neretzat balio» esaten zuan berak be-
re buruagatik.

Goako erretore berriro egin zuten. Batean, bazkal denboran Xabier zaarraren bizitza irakurtzen ari zirala,

Xabier gaztea beste mundura joanda bezela gelditu zan, begietatik negarra zeriola.

Bere biziaz etsita zegoan eta batean etxekoei azken agurra egiten jardun zan.

Ala, 1617-ko ekainaren 27-an, goizeko lauretan, etxe barruko kanpaia jo ta jo asi zan. Zer ote? Sua! Nundik eta aita Xabierren gelatik irteten zan kea. Atea zabaldu eta oeraiño urbildu zanak, an etzuan iñor billatu. Leioa irikitxera abiatu eta oiñarekin zerbait jo. Zer izango eta aita Xabierren gorputza. Ilda zegoan, eta erre aundiak zituan.

Zer gertatu ote zan? Ziur asko, irakurtzen edo erre-zatzen geldituko zala, eta ustegabeen lo artu, kandela itzali gabe. Au aitu zanean, berriz, maindireak-eta su artu. Irurogei ta zortzi urte zituan.

Andik iru urtera, 1622-an, aita Xabier zaarra santu izendatu zuan Aita Santuak. Gaztea ez da mailla ortaraiño igo. Ez du aaztutzerik merezi, ordea. Ondo erakutsi baitzuan enbor beraren ezpala zala.

El Diario Vasco, 2001-11-03



Beire, Naparroa.

Gorbeia mendiko gurutzeak eun urte

Aurten dira eun urte Gorbeia leen gurutzea zutitu zala. Ori dala-ta, itzaldi-sail bat antolatu da Deustuko Unibertsitatean. Egitaraua bialdu didate, eta bai gurutze orren istoria labur bat ere. Ontaz baliatuz, eta batez ere bertso zaarrak diotena bilduz, idazlantxo au osatuko det. Garai artako egunkariak zerbait esango dute; baiña oiek aztertzeko nik beintzat betarik ez det.

Zeanuriko eta Billaroko erretoreak izan ziran Gorbeia gurutzea altxatzeko asmoa atera zutenak: Juan Bartolome Alzibar eta Jose Mari Urretxa. Arkitektoa, berriz, Kasto Zabala. Gurutzeak ogei ta amairu metro izango zituan, Jesukristok ainbat urte, alegia.

Gurutzearen bedeinkazioa 1901-11-12-an izan zan. Baiña illabete bakarra iraun zuan zutik. Zer gertatu zan *Ibaizabal* astekariak adierazten du 1903-09-17-an:

«Gorbeia mendi ganean eregi edo jaso zan orain urte bi burdiñezko kurutze andi bat, eta negu atako aize indartsu batek lurreratu eban».

Etsi-errezak ez izan, ordea, bizkaitarrak; eta andik bi urtera berria altxa eta 1903-10-01-a aukeratu zuten bedeinkatzeko. Iru egun aurretik onela zion *Ibaizabal* orrek:

«Aurten berriro jaso dabe, ta erabagi dabe ipintzalleak Meza bat esatea bertan, Urriko illaren lenengo egunean. Lagun asko batuko dala uste dogu toki goi atan».

Baiña eguraldi zitala egokitu zan, *Ibaizabal* orrek 1903-10-11-n dionez:

«Lengo asteko egunean bedeinkatu eben Gorbeia ganeko kurutze andia. Egun txarra argitu zan, euria ta txingorra ta

otzagaz; eta, au ikusita, gogoratu jakon Zeanuriko abadeari obe izango zala beste egun baterako istea, baiña jentea eguraldiaren ardura barik gorantza joian, eta, beraz, igon bear. Baserrietako jentea, txingorrada batzuk gora-bera, ezta ikaratuten! Meza bat esan zan bertan, kurutzearen oiñean, jente talde andi batek entzuten ebala. Berbaldirik etzan izan, bada A. Baertel jauna etzan joan, uste izanik etzala egun atan izango bedeinkaziñoa».

Aren lekua bete zuanik izan zan, ordea. Otxandiotik igoa eta izen aundikoa: Felipe Arrese Beitia bertso-jartzaille ugaria. Ura etzan eguraldiarekin bildurtu, naiz eta irurogei ta bi urtekoa izan. Ona *Ibaizabal* orren itzak:

«Gure adiskide Felipe Arrese ereslaria bai joan zan, urte asko euki arren, da antxe irakurri ebazan lengo geian ipiñi genduzan bertso ederrak Gorbeiaiko kurutzeari atariak».

Etzituan, guk uste, bertso guziak irakurriko, berrogei ta lau dira eta. Bestela, zenbat txingor eta euri-jasa artu bearko zituan jendeak?

Bertso-sail orrek izenburua onela du: *Kurutzearen bedeinkaziño*ko egunean *Gorbeia ganerako gogoraziño batzuk bertsoetan*. Ona bertso bat:

O! Kurutze ederra, ona igotean,
zurtu gara, aiñ andi zu billatutean.
Ogeita-amairu metro badozuz luzean,
ezautu dogu dala Jesusek lurrean,
beste ainbeste urte, aragitutean,
ebazalako egiñ gizonen artean.

Azken bigarren bertsoak, berriz, onela zion.

Azkenez zu, Gorbeia, etzaita, arren, jausi,
mundua mundu buru zarra zutik euki;
gorputz indartsu ori zarden gorde beti,
tontor orretan dedin kurutz ori bizi,
zein nai dogun adarau guk errietati,
bedeinkatu gagizan berorrek emeti.

Baiña gurutze ori ere erori egin zan, andik urte t'erdira, 1906-02-12-an. Ez, ordea, bizkaitarrak orregatik kuxkurtu. Urrengo urtean irugarren gurutzea zutitua zuten, geroztik antxe dagoana.

Gorbeiako gurutzea, mendi gaiñean ez-ezik, bizkaitarren biotzetan ere josita dago. Ala, bertsolariak sarritan eskeiñi dizkiote bertsoak. Onako auek *Eusko Folklore* urtekaritik ditugu:

Agur, Salbagillearen
kurutze maitea,
zuri mun egin eta
nai geunke iltea;
eskuan zaitugula,
azken arnasea
Euskal Errian gura
geunke emotea.

Alaba ta Bizkaia,
kurutze santua,
besapean artu egizuz,
baita Gipuzkoa;
irurok gorde egizuz
garbi ta osoan.

Urteetara, 1931-garrenean, apaiz txiki-bizi bat azaldu zan Arratian, koba-zuloak, triku-arriak eta abar aztertzeraz etorria. Nor zan esan bearrik ez dago: Jose Migel Barandiaran jauna.

Artzai bertsolari batekin topo egin zuan: Zeanurikoa bera, Ramon Etxebarria, *Ramon Txikerra* esaten ziotena, eta Gorbeiako gurutzeari jarritako bertso-sail bat kopiatu zion. Ondoren, Manuel Lekuona jaunari bialdu; eta onek neri. Ona bertso bat:

Oe ta amaika urte aurten da
lelengoz dala jarria,
irugarrenez ipinirik dago
bitan dalako jausia.

Sarri askotan erabilten dau
indar andiko axia,
motibo orregaz bakar-bakarrik
bitan diogu jauzia.

Saillaren bi bertsoan bere buruaz mintzo da:

Jakiturian labur nago ni,
begira ondo pentsaute,
ume gazte bat etorri nintzan
bidean ondo kantsaute.
San Antonio bezperea zan
egun señaladamente,
egun onetan kunplidu ziran
berrogei eta zazpi urte.

Urteile atan kunplidurikan
nituala nik sei urte,
ainbeste edur da axe otz bere
banau lepoan artute...

Negu beltza pasa eta udaberrian mendira, alegia. Sei urte zituan orduan, eta ori zala berrogei eta zazpi urte ziran. Baiña oraindik ere gogoan zeukan orduko nekea.

Gaur egungo bertsolarietan badira bi Gorbeia mendiarri edo ango gurutzeari bertsoak jarriak. Oietako bat, Dimako Faustino Etxebarria, *Nor garan azaldu* liburuan. Ona saillaren 5-garrena:

Kurutzetikan nik egun baten
kantatu neban bertsoa;
«Anai-arrebok, etorri ona
artzeko aize freskua.
Ementxe dogu mendi ganean
kurutze bedeinkatua,
bizkaitar danok auxe daukagu
alkar artzeko lekua,
arabarrak be anaiak diraz,
luzatu geure eskua».

Bestea, Zeanuriko Basilio Pujana, *Oiuak* liburuan.
Ona saillaren 9-garrena:

Gorbei ganeko kurutz santua,
argi ta maitagarria,
zintzo diranen itxaropena,
goizaleen iturria,
zure azpian asetzen dogu
goimaitasun-egarria,
zaindu artzain ta mendigoizale
ta gure Euskal Erria.

Beste bertso-sail batzuk ere izango dira Gorbeiako gurutzeari jarriak. Baiña auetxek dira nere lantxo ontarako gogoratu zaizkidanak. Aitatu gabe utzi ditudanengatik barkazioa eskatzen det.

El Diario Vasco, 2001-12-28

Uretan azaldutako irudiak

Zaragozako probintziak ere badu *Cinco Villas* izeneko lurraldea. Sos, Uncastillo, Ejea, Tauste eta Sádaba erriak osatzen dute. Onako ontan izan berria naiz.

Erri ontatik, iparraldera, lurra zimurtzen asten da. Muño eta mendixka oiek dira Pirineoaren asiera. Ego aldera, berriz, Ebro aldeko ordekak eta zabaldegiak ditugu, Moncayo mendia, erraldoi baten antzekoa, sarritan elurrez txuri-txuri atzean dala.

Sádaba erri onek antziñako kutsu eta aztarren asko ditu: arku bat, berez erromatarrena, baiña emengo jendeak *el Altar de los Moros* esaten diona. Sinagoga izandako etxea ere erakusten dute. Baita El Cambrón izeneko moja-komentu zaarra ere.

Baiña danetan ikusgarriena, gaztelua da, aundi eta sendo, sei torre ederrekin. Orain ia milla urte egin zan, XI mendekoa danez. Artean moroak Hueska eta Zaragozan zeuden, kristauak iriburu oiek 1096-an eta 1118-an artu baitzituzten.

Sádaba au, Aragoiko erri zaar geienak bezela, ikusgarria da. Arrizko etxe eta jauregi dotore-ederrak kaleetan, ezker-eskubi. Bost txorrotatik ura darion iturria ere antxe ikusi genduan.

Urrena, elizan sartu giñan. Torre liraiña, begien atsegingarri. Beranduko gotikoa beraren egitura. Barrua aundía, bikaiña eta garbi-garbia. Bertako apaiz jaunak erakutsi zigun. Eskubitara, kapilla batean, Santo Kristo aundi bat.

Irudi onek badu bere istoria, liburu ontan kontatzen dana: *Sádaba y su Cristo, por el obispo de Jaca*. (Antolin López Peláez, Académico de la Historia, Pamplona, 1920).

Itxasoa emendik urruti egon arren, bertako seme bat, Tiburtzio Xinto edo Jinto, 1462-an jaioa, mariñela izan

zan, eta erregearen itxas-ontzien buru edo almirante izateraiño iritxia.

Bein, 1503-an, Kanarias aldean zebiltzala, ur gainean zerbait bazala ikusi zuten. Gizon batzuk txalupa batean urbildu ziran eta kutxa aundi bat aurkitu zuten.

Baiña alderatzen asitakoan, kutxak iges egiten zien. Tiburtzio jauna etorri zan orduan, eta kutxa, alde egin barrean, bera urreratu zan. Txeetasun auek geroko eraskiñak izango dira, noski. Dana dala, iriki zuten eta an zer azalduko eta Santo Kristo eder bat.

Tiburtzio jaunak bere jaioterrira ekarri zuan, eta geroztik bertan dago. *El Cristo Marino* esaten dio erriak; eta bai onela gogotik kantatu ere:

*De Sádaba a Zaragoza
los santos hacen sendero:
va mi Virgen del Pilar
y mi Cristo el Marino.*

Uretan azalduko beste irudirik ere badago. Zaragozako Santa Engrazian, Huerva ibaiak ujolde batean ekarritako beste Santo Kristo bat omen dute. Gallur izeneko errian, Ebro ibaian agertutako beste gurutze bat, burnizkoa izan arren ur gainean etorri zana. Pinseque errian, berriz, Nuestra Señora de la Ola, Jalón ibaiak jetxi zuana. Eta abar.

Orain ogei ta amar urte paseak, nere adiskide bati Donostiako kaiako etxe batera lagundu nion. Bertako salan giñala, txoko batean, txukun eta dotore jarrita, Santo Kristo baten burua ikusi nuan, bere arantza-koroia eta guzi. Zer ote zan galdetu eta onela erantzun zidan ango aitonak:

–Gure aurrekoak ere, gu gero izan giñan bezela, mariñelak ziran; eta batean, aietako bat –ez naiz oroitzen aitona edo aitonaren aita esan zuan– bere lagunekin itxasoan zebilela, irudi ori ur gainean aurkitu zuten. Etxera ekarri eta geroztik or dago.

Nere lagunak, adarra jotzearren, onela esan zion:

-Irudi au elizaren batera eramán bearko degu...

Eta aitonak, aguro eta sutsu:

-Ez ni bizi naizen artean!

Beste batean, orain urtebete, Logroñora joan bearra izan nuan. Nere eginkizuna bukatu eta ango Parte Zaa-rean ikusmiran nenbillela, eliza batera iritxi nintzan. Oker ez banago, Santa María de Palacio beraren izena. Iri-kita zegoan, barrura sartu eta saiets batean Erdi Aroko Ama Birjiña bat ikusi nuan, bera eserita eta Jesus Aurra magalean zuana.

Baiña arritu ninduena, aren alboan irakurri nuan idazkia izan zan. Onela zion:

«Esta devota imagen de Nuestra Señora la Virgen María con el Niño apareció en las aguas del Ebro a fines del siglo XIX.

Se encontraba lavando en las orillas del Ebro una piadosa mujer, cuando vio, sorprendida, que las aguas arrastraban una imagen que fue a parar a sus manos.

La imagen tiene las huellas de haber estado en el agua bastante tiempo hasta perder el color y decoración que tuvo en un principio.

En recuerdo del prodigioso encuentro de la imagen, cuya procedencia se desconoce, se le dio el nombre de Nuestra Señora del Ebro».

Sádabako eta Donostiako irudi oiek ontziren batean eramango zituzten bearbada; eta, au galdu eta ondoratutakoan, berak azalera igo, zurezkoak izanik; edo-ta agian mariñelak berak botako zuten uretara, ontzia urpera zijola ikusirik, irudia beintzat salba zedin.

Ebro ibaiak ekarritako Logroño-kori, berriz, nungoa ote zan? Azaldu zan tokitik gora, eta ibai orren bi aldeetan, antziñako erri asko dago, bai Errioxan, eta bai Araba, Burgos eta Kantabrian ere. Aietako batetik etorriko zan, ziur aski. Baiña galdu zuten errikoak ez ote ziran billa eta galdezka ibili? Ez du ematen, bada, abisu ori erriz erri pasatzea ain zaila izango zanik.

Irudi asko, Ama Birjiñarenak batez ere, mendiren batean artzairen bati azalduak izan oi dira. Leienda polit baina ere sarritan dute, agerpena adierazteko. Beste auek, berriz, batzuetan ur gaziak eta besteetan ur gezak ekarriak ditugu. Eta gure aurrekoak zeruko opari bat bezela jaso zituztenak.

El Diario Vasco, 2002-02-03



Sádaba, Zaragoza.



Elosiaga, Azpeitia, Gipuzkoa.

Urrakiko bidean barrena

Azpeititik Tolosara joateko, Urrakiko bidea artu det. Landetatik gora asi eta orra begien aurrean Ibaieder ibaiaren sakona, ezkerretik Aratz-errekakoa biltzen zaio-la. Urrestilla, beeko zuloan. Atzean, Oñatz, Oleta, Izazpi, Murumendi... Beste aldera, Azpeitia, Izarraitz, Azkarate, Irukurutzeta... Baserri txuriak nunai. Batetik, bei baten marrua; bestetik, zakur-zaunkak; bai oillarraren kuku-rrukua ere.

Ona orain Elosiagako ermita. San Inaziok iru illabete egin zituan Azpeitin 1535-ean, ondo-ezik zebillen eta Parisko medikuak sorterriko aizeak arnastera bialduta. Garai artan, inguruko ermitetara joaten ziran azpeitiarrak erromeriz: Oñazko San Juan, Loiolako San Pedro, Madalena, Eizmendiko San Migel, Urrestillako San Martin, Olazko Ama... Bai Elosiagako ontara ere. Errezil, Urrestilla, Bidani, Goiatz, Albiztur eta Beizamarrak ere etortzen ziran onera.

Azpeitin zan bolara artan, San Inazio ere igo zan Elosiagara litani-egun batean, eta sermoia berak egin; baiña aranondo batera igota, jendea elizan ezin kabituta. Euskeraz bearko zuan, iñork tutik ulertzezkeroz. Neskei erritan eman zien, beren buruak zapi oriekin estaltzen zute-la-ta, illea bistan utzita, mutillen tentagarri. Gaur zer esango luke, artara asita?

Goraxeago, orra Artxiola baserria, arunzko aldetik Ernio mendia ageri dala. Bertakoa zan Artxiola palankaria: Jose Inazio Lazkano Mendizabal. Bein beste palankari batek, Zuanetak, arronka jo zuan, Gipuzkoako nagusi bera zala esanez. Apustua laster zerratu zuten, zortzi librado palankarekin, iru aziotara eta 1881-01-24-an Azpeitin jokatzekotan. Baiña Zuaneta etzan azaldu, jokoa galduta zeukala ixprien bidez ikasita. Besteak bertsoak atera zituan orduan: «Mundu onen bost parte oien danen

kontra» erronka joaz. Etzan iñor ausartu. Artxiola Arjentinara joan zan, eta bertan il, 1948-an, 93 urterekin.

Lepo batera iritxi naiz. Emendik biak ageri dira: Ibaieder aldea eta Errezilkoa. Bertan alkartzen ziran Azpeititik Tolosara eta Urrestillatik Errezillera zijoazen bideak. Beasaingoa ere goraxeago asten zan.

Inguruko gaztediaren billera-lekua izan zan au garai batean. Alboan arri bat zan, eta aren gaiñean jartzen zan soiñujolea. Aurreko zabalunean, berriz, dantzan gogotik jardun, dantzari batek Aizkorriko tontorrak begien aurrean zituala; eta besteak, Erniokoa ez, baiña bai Gazumeakoa.

Benta bat ere bazan emen. Putzunbenta beraren izena. Putzua ezagutu nuan nik: ur geldi bat, ur-landarez erdi estalia. Gaur, berriz, lurrez beteta ikusi det, dana zelaituta. Bentaren ormarik ere ez da ageri.

Artxiola baserrian jaioa dan Nikolas Aldai adiskideari zera entzun izan diot: bein, baserritar bat egun guzia lanean pasa eta etxera omen zijoan, bere idi-pare eta gurdi. Nekatuta baitzegoan, gaiñera igo zan, eta bai lo artu ere. Idiak, berriz, onera iritxitakoan, egarriak baizetozen, putzura alderatu eta, edan ez-ezik, barrura ere sartu ziran. Sartu eta sartu eta antxe galdu eta betiko izkutatu ziran bai abereak eta bai gurdi gaiñean lotan zetorren itzaia ere. Orregatik, ondorik gabeko putzua zala esaten zuan jendeak.

Borda bat ere bazan emen garai batean, ijitoen aterpea izaten zana. Bein, elurte batek an arrapatu zituan; eta Nikolasen aitak zaku patata eraman zien, goseak il ez zitezen.

Nik, berriz, orain ogei bat urte, zugaitz-gerri batean josita ool bat ikusi nuan emen, idazki au zuala:

“Emakume, zapalduta ago. Konturatu al aiz? Ez aiz andara, ez. Ba libertadea nai baden, borroka adi. Libertadea eu aiz. Ez pentsa libertadea prinzipe urdiña dala. Libertadea eu aiz. Neska bat”.

Orra, beraz, emakumearen liberazioaren otsak gure lurraren azken zokoetaraino iritxita.

Urraki-gaiñera iritxi naiz; 679 metro ditu onek. Emen da Eibarko Inazio Zuloagaren aterpea. Kuadroak egiten artista izango zan ura, baiña bai lekuak aukeratzen ere: Zumaiako jauregia, Pedrazako gaztelua, Fuendetodos-en Goiaren jaiotetxea, onako au...

Ikuspegi ederra emengoa: beean, Errezilko erria; baserri txuriak nunai. Urrena, Arauntza, Etumeta, Gazume, Ernio, Erniozabal, Mendikute mendiak... Oria ibaiaz arunzkoak ere bai, danetan nagusi Aralar dala.

Ernio mendia itzal aundikoa degu. Ortik ango gurutzera egiten diran erromeriak, eta bai erromatarren eta euskaldunen arteko gerra ere. Leienda au ez dakit nork asmatua dan; baiña erriaren biotzean sartua dago. Zergatik? Gu, ain erri ezereza, erromatarren pareko egiten gaitualako. Goliat eta Dabiden arteko burruka oso gogokoa izan dute beti txikiak.

Une ontan bururatzen zaizkidanak, bost bertso-sail ere badira gai oni buruz, Iztueta, Txirrita, Biktoriano Iraola, Ramon Artola eta Ramos Azkaratek jarriak. Ona Iztueta ren bertso bat:

Bear bezela kunplitu zuten
beren itz onorezkua,
eskojituba zegoan bada
batallarako lekua:
Gipuzkoaren onra andirako
zelai bat Errezilkoa,
makiñaren bat erromatarrak
biziya utzitakoa,
egun beretik da erri ori
esan dan izenekoa.

Orra orain Otsabiaga baserria kamio-bazterrean. Onera azaltzen da Beizamako bidea. Oroipen bat dator kit burura: 1945-eko udaberrian. Donostiako *Fortuna* elkar teak mendi-ibillaldi bat antolatu zuan: Ordizia, Muru-

mendi, Beizama, Goiatz, Bidania, Gazume, Iturriotz, Zarate, Zizurkil eta Billabona; eta nik ere parte artu nuan. Orduko gure sasoiak nun ote dago?

Goiatz eta Bidanira iritxi naiz. Emen bukatzen da Urrakiko bidea. Oiek dira gaur neri bururatu zaizkidan kontuak. Baiña beste istori asko izango dira, noski, inguru auetan gertatuak. Eta nun ez? Baiña sarritan begirik iñun jarri gabe eta oroipenik berri gabe kilometroak pasatzen ditugu, ez luke orrela bear baiña.

El Diario Vasco, 2002-02-26

Arburuako Ama Birjiña

Igazko apirillean izan nintzan Arburuako Ama Birjiñaren ermitan. Naparroan dago, Saraitzuko aranean. Bertako Izal errira iritxi baiño bosteun bat metro leenago, eskubira artu eta oiñez eta aldapan gora asi dedilla araiño igo nai duana.

Ni joan nintzan goiz eguzkitsu-zoragarri artan, txoriak kantari ari ziran. Erreka mur-mur zijoan beeko zokoan. Artalde baten zintzarri-otsa ere entzuten zan. Gari-soroak berde-berde. Piñudiak illun. Arre-kolorea ariztiak, artean ostorik gabe zeudenez. Txuri-txuriak gaillurrerako arkaitzak. Urdiña zerua...

Bide-ertzetan ezpela. Onen orriak diz-diz egiten zuten, goizeko iintzaz bustita eta eguzkiak jota. Aldizka, patxarana, lorez beteta. Auek miliskatuz, erle bat edo beste. Etxea inguru ontan izango dute, enbor zaar baten zuloan.

Mendi-gaillurrera iritxi eta ara ermita. Garai bateko ermita-zaintzaillearen etxea ere bai. Biak ere ondo kontu eginda daude. Gaur egun toki guzietan bezela, atea itxita dago eta ezin barrura sartu. Zer egin? Ama Birjiñari otoitz bat kanpotik zuzendu eta begiei gozatu bat eman, alde guzietara begiratuz.

Iparraldean Pirineoko mendiak, artean elurrez jantzi-ta: Abodi, Ori, Otsogorrigane... Bioleta eta Santa Barbara mendiak Erronkariko tontorrak estaltzen dituzte. Gero, Aragoikoak: Atxer, Peña Forca, Bisaurin, Collarada... Atsegin da gain batetik inguruko mendiak ikustea, ezagutzea eta lagun zaarrei bezela agurtzea, izan ere alaxe dira eta. Egoaldera, Bardipeña, Ollate, San Quirico, Arangoiti, Olagato, Idokorri...

Erreka ondoko soroak gari berriarekin estalita ikusten dira, eta antxe errixka batzuk: Izal, Iziz, Guesa, Ustes, Ibiltzieta...

Alakoren batean, putre bat ortxe dijoa, ni baiño beerragotik, egoak zabal-zabal eta aizeari txistua eragiñez.

Baiña konta dezadan Ama Birjiña onen leienda, liburu ontan adierazten danez: Jacinto Clavería: *Iconografía y santuarios de la Virgen en Navarra*, (1941).

Ba omen zan neskatxa bat, Gallotze erriko alaba. Aren gurasoak pobreak ziran eta Izal erriko etxe batera neskame bialdu zuten. Emengo nagusiak ardi-zai jarri zuan. Egun guzian antxe ibiltzen zan bere artaldetxoarekin erri inguruko mendi eta larreetan, egokiera zuanean Zeruko Amari errezatuz.

Arburua gain ontara ere sarritan etortzen zan. Egun batean, ordea, bere begiak zer ikusiko eta Ama Birjiñaren irudi bat. Arrituta gelditu zan, otoitzen bat egin eta goitik beera korrika abiatu zan, errian berri on ori ematera. Izaltarrak gora igo ziran, eta Ama Birjiñaren irudia ikustez poztu.

Ermita altxatzeari gogotik ekin zioten, baiña beste toki erosoago batean. Irudiak, ordea, alde egin zien, iru alditaraiño gaiñera, eta agertutako tokira itzuli. Irugarrenean izaltarrak etsi eta amore eman zuten, ermita bertan egiñez.

Batean, Fermin Itxaso jauna, kaputxinoa eta zenbait urtetan Izalko erretorea izana, Ameriketara omen zijoan. Itxas-ontzia, ordea, ondora joan zan, eta berak antxe ikusi zuan bere burua ito-zorian. Arburuako Ama Birjiñari otoitz egin zion orduan, eta bere eskuak zer aurkituko eta ool edo egur bat ur gaiñean. Ari eldu eta orrela salbatu zan. Baita Ameriketatik eskutitz bat izaltarrei idatzi ere, mirari orren berri emanez.

Emengo erromeria Azentzio egunaren urrengo larunbatean egiten omen zan, garai batean beintzat. Ospakizun orri "*la fiesta de las siete cruces*" esaten zioten. Egun ortan, izan ere, zazpi erri igotzen ziran onera, nork bere gututzea aurretik zuala: Izal, Iziz, Ripalda, Gallotze, Uskarrrotze, Igal eta Guesa. Danen artean, "*el Quiñón de Atavea*" osatzen zuten.

Aitatu dedan liburu ortan argazki bat ere ikusten da, illun samarra, baiña benetan gogoangarria. Bertan apaiz eta erri-gizon batzuk ikusten dira, aiek sotana beltzarekin eta auek Saraitzuko jantzi zaarrarekin, nork bere erriko gurutzea eskuetan duala. Jantziari ez-ezik, izkuntza zaarriari ere eutsiko zioten artean.

Baiña beste zenbait erritatik ere etortzen ziran erromes-taldeak: Otsagi, Izaltzu, Jaurrieta, Nabaskotze, Aspurtz...

Meza eta sermoia entzun, eta Ama Birjiñari errezatu eta kantatu. Kanpora atera eta amarretako on bat egin... Ezer gutxirekin zoriontsu izaten zekiana zan garai artako jendea.

Beera abiatu naiz. Alakoren batean, ermitako kanpaiak orra amabietakoa jo. Orixe izango zan garai batean ermita-zaintzaillearen eginkizunetako bat: ordu jakiñetan kanpaia astintzea, beeko soroetan lanean ari ziran gizonezkoak eta etxe barruetan bazkaria prestatzen ari ziran etxeakoandreak otoitz egin zezaten. Ni ere gelditu eta artarra asi naiz.

Baiña nik ez det ermitan iñor ikusi. Kanpaiari nork eragin dio, beraz? Garai artan olakorik gertatu ezkerro, gure aitona zera pentsatuko zuten: bestela ezin zitekeala eta zerutarren lana zala.

Guri, berriz, beste zerbait bururatzen zaigu: gaurko sorginkeri berri oietakoren bat oneraiño ekarria eta erantsia izango dutela, ederki asko *programatuta*, ermitako kanpaiaren otsa bere orduetan alde guzietara zabaldu dedin. Eta, arro-arro, oni aurrerapena deitzen diogu; baiña orrela ote dan nik beintzat gero eta duda geiago egiten asia naiz.

Aitatutako liburu ortan erderazko bertso batzuk badaude Ama Birjin onen gorantzan jarriak. Oietako bat aitatuz buka dezadan:

*¡Virgen Santa de Arburúa,
que en la Peña se divisa*

*como un iris, como risa
en semblante de dolor!
¿Quién tus glorias y tus gestas
no se esfuerza por cantarte
y a la cumbre para honrarte
no camina con amor?*

El Diario Vasco, 2002-03-19



Arburuako Ama Birjiña, Saraitzu, Nafarroa.

“Narru”

Orain larogei bat urte, Bizkaiko mendi-baserri batean, gurasoak eta amar senide bizi ziran. Auetan zaarrena ia ogei urteko aldea zeukan gazteenarekin. Arratsalde batean, zaarren ori, adiskide batek bi txekor Eibarko mataderira eramanean bear zituala eta ari laguntzera prestatu zan. Bai gazteena ere, bide-puska batean aiekin joateko beintzat.

Abiatu ziran, bada. Bi gazte sasoiko eta mutiko bat ziran. Alako batean, gain bat igotzerakoan, gaztaiñadi bat ikusi zuten, dana kiskalduta, ordea; eta aren ondoan baserri bateko pareta zaarrak, auek ere erretea eta kearekin beltz-beltz eginda.

–Zer gertatu da emen? –galdetu zion txekorrak zera-mazkianak mutikoaren anaiari. Eta onek urrengo gerta-kizun au kontatu zuan.

Bein batez, baserritar bat Durangora zijoan, idi pare bat eta larruz kargatutako gurdiarekin. Baiña auzoko beste baserritar bat antxe zegoan bide-bazterrean gorde-ta; eta, ura pasatakoan, bigarrena ixil-ixilik atzetik joan, larru bat artu eta sasi baten barruan izkutatu zuan, illundutakoan etorri eta etxera eramatekotan.

Baiña apaizgai bat andik barrena igaro eta larrua ikustea egokitu zan. Zera pentsatu zuan: “Au baten batek lapurtua da, eta billa etorriko da”.

Bera orduan antxe izkutatu eta zai jarri zan. Orduak aurrera zijoazen. Alako batean, illundu eta gero, gizon bat astoarekin etorri zan, eta larrua altxatzen asi. Nor zan ezin ezagutu izan zuan apaizgaiak, gau beltza zanez. Oiu bat egin zuan, ordea, eta lapurrak igesari eman zion, larrua eta astoa bertan utzita.

Apaizgaiak onela esan zuan orduan berekiko: “Ajola gutxi! Jakingo diat, ala ere, nor dan!”

Makilkada bat eman zion astoari eta au pauso ariñean abiatu zan. Bat aurretik eta bestea atzetik, bide-puska bat korritu zuten, belarri-luzea baserri baten atarian gelditu zan arte.

Baserri ontakoei larruaren kargu artu zieten; baiña aiek onela erantzun zuten:

—Guk ez degu ortan zer ikusirik. Urliak astoa eskatu digu, eta utzi egin diogu. Berari galdetu.

Gertaera orren otsak inguru guzira zabaldu ziran, eta lapurrari izengoiti berria erantsi zioten: *Narru*, giputzak *larru* diogun bezela, bizkaitarrak *narru* esaten dute eta, irakurleak jakingo duanez.

Beste batean, *Narru* orrek milla pezeta aurreratuko ote zizkion eskatu zion beste baserritar bati, bei bat erosi bear zuala edo alako aitzakiren batekin. Bai besteak eman ere.

Baiña denbora aurrera eta *Narruk* dirurik bueltatzen ez. Besteak berea zuana eskatu zion. *Narruk* ukatu, ordea; berak etziola ari ezeren zorrik. Berotu eta alkar joka asi ziran. Dirua aurreratu zuanaren ukuilluan zeuden, eta *Narruk* sarde bat artu eta arekin bein eta berriro zualatu zuan bestea.

Gero, gorputza garoarekin estali eta su eman zion. Baserria erabat erre zan, eta bai alboko gatzaiñadia ere.

Ildakoaren gorputza ukuilluko leio estu oietako baten ondoan agertu omen zan, aoa aren zulora arrimatuta. Itxura danez, *Narruk* artean bizirik utzi zuan; eta, sua eta kea sumatu zituanean, leiora urbildu zan, arnasa artzearren.

Guardiak, ildakoaren zauriak ikusirik, norbaitek illa zala pentsatu zuten, eta *Narruren* susmoa egin. Baiña onek ezetz; gau ura Eibarren karta-jokoan pasea zuala. Ango lagunak ere aren alde atera ziran.

Gertakizun arek etzuan, beraz, garbituko zan itxura aundirik. Baiña *Narru* ezkondua zan, familirik ez bazuten ere. Eta, batean, andrea bere gurasoen etxera joan zan, zera galdetzera: eriotz ura *Narruren* lana zala,

eta ea zer egin bear zuan; senarrarekin bizitzeaz nazkatuta zegoala.

Gurasoak, guardiengana joan eta dan-dana zan bezelaze aitortu zezala esan zioten; berak lagundu eta babestuko zutela. Andreak ala egin zuan.

Narru, bestea il edo alakotzat utzi ondoren, etxera korrika joana zan. An arropaz aldatu. Baita andreari arropa zaarra lurpean sartzeko agindu ere. Gero, zaldi batean lau oiñean Eibarrera joan zan, eta an lagunekin karta-jokoan orduak pasa. Ezin sinistekoa omen zan alako bide luzea ain aguro egin izana. Andreak senarraren arropa nun zegoan salatu zuan, eta lurpetik atera zuten, artean odol-arrastoak ezagun zituala. Narru presondegira eramanean zuten, noski.

Ori zan, bi txekorrekin zijoazela, batek kontatu zuana. Lagunak arretaz entzungo zion; baiña bai anai txikiak ere. Au etxera bialdu nai izan zuten; baiña besteak ezetz. Kontakizun orrekin izuak artuta zegoan, eta etzala erretako baserriaren ondotik bakarrik pasako.

Aurrera jarraitu zuten, bada. Gaua kamio-bazterreko benta batean igaro zuten, bi anaiak gela batean lo egiñez. Goizean goiz Eibarrera joan, txekorrak utzi, bazkaldu eta bazetozen bueltan. Baiña sasoikoak beren pausoan, eta txikiak ezin segi eta pixkanaka atzean gelditzen zan. Orduan korri egiten zuan, lagunak arrapatu arte. Ogei ta amar bat kilometro era ortan egin zituzten.

Etxera iritxi eta bidea nola egin zuten jakindakoa, aitik erritan eman zion anai zaarrenari, anai txikia artara ibiltzera beartu zualako.

Andik urte batzuetara, mutiko ori apaiz ikastera joan zan, urrutira gaiñera.

Batean, literatur-irakasleak kontakizunen bat idaztea agindu zien. Berak Narrurena aukeratu zuan, eta oso nota ona irabazi.

Urteetara, errepublika eta anai arteko gerra igaro ondoren, leenengo meza ematera jaioterrira etorri zan, eta erretako gaztaiñadia eta baserriaren pareta zaarrak antxe

omen zeuden oraindik ere. Orduan onela galdetu zion anai zaarrari:

-Eta Narruk zer egin zuan?

-Zer egin zuan? Errepublika etorritakoan kartzelatik atera zuten. Beste eriotz bat egin zuan, ordea, eta berriz ere preso sartu eta aldi ortan urkatu egin zuten.

Ori dana mutiko izandako orrek kontatu zidan neri, arratsalde batez, berak ia larogei urte zituala; eta ia larogei ta amarrekin orain iru bat illabete utzi du mundu au. Beraren il-berria entzundakoan, aren aotik ikasitako Narruren gertakizuna gogoratu zitzaidan, eta ortxe du irakurleak.

El Diario Vasco, 2002-05-08

Jaizkibel mendiko arma-kontrabandoa

Urrengo gertaera au 1874 urteko urriaren 17-koa da, karlisten bigarren gerratea beroenean zan garaikoa.

Liberalak *Nieves* izeneko itxas-ontziaren susmoa egin zuten, karlistentzat armak Frantzitik ekartzen ote zituan. Ala, *Nieves* ori Sokoan zala jakin zuten batean, beste itxas-ontzi bat, *remolcador* bat, ara bialdu zuten, kapitaniari, Antonio García-ri, agindu auek emanaz: *Nieves* ortan armarik ote zegoan azter zezala; kaitik ateratzen bazan, aren ondotik ongi zainduz joan eta, frantzes uretatik atera bezin laster, artaz jabetu zedilla.

Kapitan ori, Sokoara iritxitakoan, *Nieves* ortan sartu nairik, txalupa bat bialdu zuan zenbait gizonekin. Baiña *Nieves*-ko mariñelak kopeta illunarekin eta armak eskuetan zituztela agertu omen ziran, eta besteak atzera egin bear izan zuten.

Orduan frantzes agintarietara jo zuan Antonio García orrek, *Nieves* ortan indarraren bitartez sartzeko baimena eskatuz.

Bitartean, ordea, *Nieves* itxasontziko mariñelak alde egin zuten, ondo estalitako pardel batzuk berekin eramanez. Aietakorik iñor atzera itzultzen etzala-ta, orduan Antonio García ori sartu egin zan bere gizonekin. Zer aurkituko eta itxas-ontzia uts-utsik, iñor gabe alegia, ezertarako gauza etzan mariñel xaar bat izan ezik.

Itxas-ontzia goitik beera miatzen asi ziran, baiña armarik etzuten aurkitu. Bai ordea paper asko: armak eta muni-zioak erosi eta eramateko fakturak, kontratoak eta agiriak. Paper oiek iru jaun auen izenean eginda zeuden: Esteban Pérez de Tafalla, Enrike Duchamp eta Pablo Aldamiz.

Liberal agintariak *Nieves* ontzi ortaz jabetu egin ziran orduan, "*declarándolo buena presa*"; rekisatu, alegia.

Pablo Aldamiz jaun orrek, berriz, aitzaki bat atera zuan: kontrato oiek aspaldikoak zirala eta balio gabeko-

ak, beraz; beren itxasontzi ori urriaren 2-an Royans-tik atera zala, eta 11-n Baionako parera iritxi; baiña eguraldi txarrarekin ara ezin sartu eta 14-an Sokoara zuzendu zala; etzuala, beraz, Gipuzkoako kostarik ikuitu ere egin. Ain gutxiago, beraz, arma-kontrabandorik sartu.

Ondarribiko komandanteak zera esan zuan: inguru artan arma-kontrabandorik egiten ote zan etzekiala seguru esateko; baiña errian zera zabaldua zegoala: itxasotik ekarritako armak Iger itxas-muturrean legorreatzen zituztela karlistak; eta mendi-bideetan barrena gurdiak ibiliak zirala, ongi estalita eta soldaduak ondoan zirala, guardia egiñez.

Marina-tik, berriz, onela erantzun zuten: urrillaren 13-garrenaren gauean, liberalen iru itxas-ontzik Iger inguru ori zaindua zutela, baiña ezertxo ere ikusi gabe. Gurdi oiek, berriz, jatekoak eta olakoak eramango zituztela agian.

Nieves ontziaren arazoa auzitara joan zan, eta gaurkoak ez-ezik, orduko auziak ere epaitegietan etziran gaue-tik goizera erabakitzen. Are geiago: batetik bestera ibili ziran, eta onek alde bati ematen zion arrazoa, eta arek besteari. Koska guzia txeetasun batean zegoan: itxas-ontzi orrek arma-kontrabandorik ekarria ote zuan ala ez.

Azken erabakia, goeneko auzitegiak emana, Pablo Aldamiz orren aurka izan zan, eta itxas-ontzirik gabe gelditu zan. Orretzaz gaiñera, diru-pilla ere gastatuko zuan auzitegietan, guk uste, paotxa ori gabe ez dago toki oietan ibiltzerik eta.

Oker ez banago, leendik irakurririk edo entzunik daukat Jaizkibel mendiaren atzeko itxas-zokoetara armak ekarri izan zituztela bein baiño geiagotan karlistak.

Istoria-liburuetan, gerrate baten berri ematerakoan, orduko burrukak kontatzen dira, ori naikoa balitz bezela. Baiña aldi ontan argi eta garbi ikusten danez, bataillak ez-ezik, Jaizkibelko arkaitzetako kontrabandoak zer esan aundia izan zuan guda ori erabakitzeko. Bere soldaduak armaz ondo ornitu gabe ezin karlistak gerra irabazi. Bes-tela ere, luzeegia izan zan, bai, odol-ixurtze ura.

Gertakizun au nundik ote dedan? Liberalen eta karlisten gerrate aietako berririk geienak ateratzen diran lekutik: *Historia Contemporánea / Segunda parte de la guerra civil, / Anales desde 1843 hasta el fallecimiento de Don Alfonso XII, por Don Antonio Pirala*. Madrid, 1907.

Jaizkibel mendiko itxas-alderdi ori ezagutu aal izateko, kamio ederra dago orain. Lezotik abiatu eta Pasai San Juanera iritxi gabe, eskubira eta gora artu bear da.

Gain aietatik ikuspegi arrigarria dago, batez ere egoaize-puntta bat dabillenean. Aurrean ur-zabaldegi neurrigabea eta urdiña. Beean, itxas-bazterreko arkaitzak olatuena apar zuriarekin. Ezker aldera, Ullia, Urgull, Mendizorrotz, Garate, Andutz eta Gipuzkoako eta Bizkaiko itxasertzeko beste mendi guziak, Matxitxakora arte. Eskubi aldera, Bidasoako zuloa eta Lapurdiko ondartzak...

Nai duana Jaizkibelera igo dedilla, eta andik Gipuzkoako, Naparroako eta Lapurdiko mendiak begizatutuko ditu. Pirineoko tontor zuriak ere ikusi nituan nik andik udaberriko goiz batean. Egun artako argitasuna eta edertasuna etzaizkit geroztik aaztutzen, oso aldi gutxitan egokitzen diran bezelakoak ziran eta.

El Diario Vasco, 2002-05-28

Erri bateko azken bizilagunak

Leengo batean, Aibarko gaiñetik igaro nintzan. Santiago-bidea omen da ura. Zangotza zaarra izan zan Rocaforte-tik dator; eta emendik, San Babil, Basobar, Olatz, Izko eta Abinزانotik barrena aurrera dijoa.

Ori dana ango ool batean irakurri nuan, eta bai Olatzko leiendaren kontatera ere.

Euskal Errian Olatz asko daude: Azpeitiko Olazko Ama Birjiña, San Inaziok salbea errezatzen ziona; Mutrikuko Olatz baillara; Naparroan bi erri txiki, Iruñetik urrutigabe; Olatza baserriak ere bai an eta emen.

Emengo Olatz ontara irixteko Aibarko gain ortatik ere ederki joan diteke. Baiña ni Loitiko gaiñetik abiatu nintzan urrengo igande-arratsalde batean, ortik laburragoa danez.

Piñudi batean aldapa gora ekin nion. Atzean Izaga mendia neukan, arunzko egalean San Migel ermita ikusgarria duana. Lepo batera iritxi eta antxe sartu nintzan Santiagobidean. Baiña beste aldera artu nuan, andik bueltan banentorren bezela.

Erreka-zulo onek, mapak dionez, Avellaneda du izena. Baiña gero izena aldatzen dio, Basobar esanez. Inguuru ontan, izan ere, euskerazko toki-izen asko dago: Ollankoa, Ugalmakurra, Txarramendi, Iturriotz, Azerizulo, Busibar, Elizazarraga... Baiña bai erderazkoak ere: El Saso Viejo, El Bojagar, La Facería, Carasol, La Rotura... Izkuntza aldatutako lurraldeetan orixe gertatzen da beti: leengo toki-izen zaar batzuek iraun egiten dute; baiña berriak gero eta ugariago sartzten dira.

Lurrezko bide zabal bat da nere oiñak gaur zanpatzen dutena. Ibiltzeko atsegiña. Kilometro t'erdia idazki bat, Olazko erria izandakoa emen zala adieraziz. Arri-pilla batzuk ikusten dira, ezpel, otamera eta aritz batzuen tarte-

an, orbelak eta goroldioak estalita. Orregatik, erreza da ezertaz oartu gabe emendik igarotzea.

Gaur arri-pilla bat besterik ez dan ontan, kristau-mordoska bizi izan zan, beraz, garai batean. Orain guk bezela, aiek ere edukiko zituzten beren maitasun eta gorrotoak, pozak eta naigabeak... Baiña orra zertara etorri dan aien mundua, gurea ere etorriko dan bezela.

Erdi Aroko erri bat izan omen zan au; istorialariak diotenez, XIV edo XV mendeko izurrite batean ustu zana, beste asko eta asko egin ziran bezela.

Baiña inguruko jendeak beste era batera kontatzen du. Gaiñontzeko guziak il edo alde egin eta bi aitona xaar omen ziran emengo azken bizilagunak. Bakardade ontan zer etorkizun zeukaten ikusirik, auzo-errietan laguntza eskatzea erabaki zuten, denbora gutxi barru ogipuska bat aora eramateko gauza ere etzerala izango eta.

Gertuena Ibargoiti araneko Izko erria zuten, iru bat kilometrora, eta ara joan ziran, Santiago-bideari jarraituz. Pelegriñen bat edo beste ibiliko zan egun artan ere andik barrena; eta zera esango zuten, bi agureak anak arrastaka ikusiz:

-Auek ere Santiagorako asmotan al dira?

Baiña Izko ortan geratu, beren eskea egin eta onela erantzun zieten aitona gizarajo aiei:

-Erri au, dakizutenez, oso txikia da, eta zuen kontua nola artuko degu, bada, gure gain?

Urrena, Aibarrera joan ziran. Onera bide luzea zuten. Tartean mendi bat ere bai, igo ta jetxi egin bearra. Agure biak etziran nai ordurako iritxiko. Eta an ere ezezkoa jasozuten:

-Zuen erri ori emendik urrutiegi dago.

Orduan Ilunberrira (Lumbier) joatea erabaki zuten. Olatz ontatik *Venta de Judas* izeneko bide-gurutzera aterako ziran; San Bartolome ermita ondotik segi; Irati ibaia zubitik igaro, aldapatxoa igo eta orra iritxi. An, berriz, baiezkua entzun zuten, eta aien poza!

Ondo zainduak izan ziran andik aurrera bi aitonak; eta, auek ildakoan, Olazko erria eta beraren lurak Ilun-berri erriarentzat gelditu ziran.

Leienda au toki askotan kontatzen da, Hueska aldean beintzat. Probintzi au omen da, ain zuzen, Espaiña osoan, erri geiena ustu dana. Alako mendi aundi eta zakarrez betetako lurraldea da, izan ere. Esaera berezia ere badute ori adierazteko: *Es un pueblo amortado*.

Baiña Naparroako Olazko ontan bi aiton bezela, Hueskan bi amona dira erri oietako azken bizilagunak. Eta auek ere erriz erri laguntza eske ibiliak; eta, ildakoan, aien erria, beraren lur guziekin, artuak izan ziran erriarentzat gelditu.

Erderaz *el mito de las dos abuelas* esaten diote orri. Leengo batean, Sabiñanigotik pasatzerakoan, gelditu eta ango Museora sartu nintzan; eta bertan kuadro eder bat ikusi nuan, bi amona xaarrekin eta azpian adierazpen onekin: *las dos abuelas*.


Olazko erri onek, ala ere, etzituan iñoiz bizi-lagun asko izango. Alako tokian baitago. Erreka-zulo estu bat da, sartaldetik sortaldera luzatzen dana, piñuz eta aritzez estalitako bi mendiren tartean. Baiña auek, arrikada batez batetik bestera irixteko modukoak. Eguzki aldera bakarririk bista pixka bat, eta urruti artan Arangoiti eta San Juan de la Peña-ko mendiak ikusten dira. Garai bateko soroak izango ziranak, berriz, erreka-ondoko lurak alegia, ganadu-larreak dira gaur.

Nere burua Santiago aldera jiratu eta banator orain bueltan. Txoriak kantuari ekin diote. Margarita batzuk ageri dira. Ezpelaren lorea ere bai. Baiña au ez da ikusten erreza. Bola txiki-txiki batzuk baitira, kolore berde-orixka dutenak, landare orren orritxoan artean sortuak.

Aurtengo neguan izotz galantak izan ditugu. Ala ere, ez ditu eltxo guziak akaatu. Nere sudurraren aurrean ortxe dabilta gelditu gabe gora eta beera egan, arratsaldeko eguzkiak argitzen ditu eta urre-kolorezko elur-malutak balira bezela.

Loitiko gainera iritxitakoan, Pirineoko tontorrak garbi-garbi ikusten ditut. Elur asko dute, baiña ordu ontan ez dira txuri-txuri agertzen, arrosa-kolorez baizik, izkutatzerara dijoan eguzki gorriak argitzen dituan ezker.

El Diario Vasco, 2002-07-13



Ilunberri, Nafarroa.

Santa Elena, Pirineo mendietan

Hueskako probintzian, Bieskastik lau bat kilometro-ra, menditarte estu bat da. Alde bateko eta besteko mendiak Telera eta Tendeñera dira, bi milla eta zortzireun metrotik gorakoak biak ere. Emendik gora, Tenako arana degu; beera, Bieskas erria.

Kamio-bazterrean, ermitatxo bat, santa batekin: esku batean gurutzea, bestean iru iltze eta buruan koroia. Santa Elena da, Konstantino enperadorearen ama, IV mendekoa. Aren buruzbidea izan zan, Jesus il zan gurutzea galduta zegoan eta ura aurkitzea. Ez ote zan Kalbarioan lurpean egongo? Ara joan eta asi ziran lurra arrotzen. Gurutze-pilla azaldu zan. Soldadu bat lepraz kutsatuta zegoan eta gurutze aiekin bera ikuitzen asi ziran. Besteekin alperrik, eta batekin orra erabat sendatu. Uraxe zan, beraz, Jesusen gurutzea. Ortik santa orren ezaugarriak, leen esandakoak. Lore berriak baditu; kandela piztuak ere bai. Arentzako debozioa bizirik dago, beraz, emen.

Beetik, bere urak arkaitzetan jo eta txuri-txuri egiñez dijoan ibaiak Gállego du izena. Baiña ez Galiziarekin zer ikusirik daukalako, Galia-ko mugan sortzen dalako bai-zik.

Alboko belardi batean, triku-arri edo dolmen bat, Aragoi aldean aurkitu zan leenengoa, 1933-an.

Aldapa gora dijoa pista bat, arkaitz bizian irikia eta suge baten antzera biurrika. Baiña ez Santa Elenaren santutegira joateko egiña, baizik-eta XIX mendean-edo emen altxa zuten *fortín* batera igotzeko. Bertara iritxi naiz. Arri-sillarez egindako etxe dotore eta bikaiña da. Baiña orain utsik eta alperrik dagoana, olako lan batek merezi ez duan eran, alegia.

Andik segi eta orra Santa Elenaren ermita, txuri-txuria. Onek ere -nola ez?- badu bere leienda.

Santa Elena, kristaua izanik, bere seme Konstantino enperadore egin aurretik igesi zebillen. Ala, inguru ontaraino iritxi zan. Nekatuta zetorren eta arri baten gainean eseri zan. Aren alboan iturri bat ikusi zuan, eta andik edan eta oiñak garbitu egin zituan. Toki orri *Silla de Santa Elena* esaten zaio orain, eta eserleku baten moduko arkaitz bat ere antxe du.

Nekazari batzuk inguru artan garia ereiten ari ziran, eta aiek urreratu zitzaizkion, zer ote zuan galdetzera. Bere fedegatik igesi zijoala esan zien; eta Jesusen dotriña adierazi. Bai entzule aien biotza mugitu ere, eta kristau egin ziran. Koba-zulo bat andik gertu nun zan erakutsi zioten. Santak, jarraitzailleak etortzean ez bera salatzeo eskatu zien; baiña gezurrik ere ez esateko. Gero, mendian gora joan eta koba ortan izkutatu zan.

Gau artan orra miraria: bezperan ereindako garia azi, burutu eta jasotzeko eran jarri zan. Jarraitzailleak etorri eta nekazariei onela galdetu zieten:

-Olako andre bat emendik pasa al da?

-Bai; pasa da, bai.

-Noiz?

-Ara: gari au ereiten ari giñala.

Etsi zuten, bada, ura arrapatzeaz. Baiña aurrera segi eta koba-zuloraino iritxi ziran. Santa barruan zan; baiña gau artan armiarma batek sare eder bat egiña zuan sarreran. Ala, jarraitzailleei etzitzaien burutik pasa ere egin antxe miatzea. Geroztik onela dio inguru ontako jendeak: "*Donde la araña tejió, Elena se escondió*".

Denborarekin ermita bat altxa zuten emen, Santa Elenaren izenean. Beraren leen aitamenak, Jaime I erregearen denborakoak omen dira. Baiña geroztik berrikuntza eta eraskin asko izan ditu. Santa Elena izkutatu zan kobara ermita barrutik sartzen da. Atea itxita dagoanez, ezin nik ikusi.

Ermita ondotik ura sortzen da, bistarentzat-eta sendagarri dana. *Fuente de la Gloriosa* esaten diote. Baiña aldizka, Santa Elena mundutar jendearen portaerarekin

konforme ez danean, agortu egiten da. Ala, 1490-ean, Beltrán de Hoz izeneko batek gaskoi bat il eta lapurtu egin zuan beeko bidean. Bai emengo ura gelditu ere; eta andik zazpi urtera, iltzaillea arrapatu eta urkatutakoan, orduan berriz asi.

Batean, ama bat bere aurra eskuetan zuala onera etorri zan. Deskuido batez umea uretara erori eta goitik beera Gállego ibairaiño amildu zan. Araiño jetxi ziranean, irriparez eta jostazen aurkitu zuten.

Beste bein, inguru ontako gizon bat Lur Santura joan zan, berak bere labanaren puntarekin marrazkiz apaindutako makil bat eramanez. An zala, Jordan ibaira ere iritxi zan, eta Jesus bataiatua izan zan tokian uretan sartu. Baiña ain maitea zuan makilla antxe galdu zuan. Onera itzulitakoan, Santa Elena ontara etorri eta emen otoitz-bizitza egiten gelditu zan. Bein, iturri au agorraldia bukatu eta ur-jario asia zala, bera begira zegoan eta orra galdutako makilla lurpetik agertu urarekin batera.

Batean Santo Domingo mendiarena kontatu genduan orri auetan: andre baten errosarioa ango iturrian galdu eta Ejea errian azaldu zala. Gaurko au aundiagoa da: Jordan ibaitik Pirineotaraiño...

Ni izan nintzanean, iturria ur zeriola zegoan. Ez gera, beraz, orren gaiztoak. Sortzen dan zuloaren aurrean eta bi saietsetan arrizko paretatxo bat du, eta onen gaiñean eta luzeera guztian erreten bat. Ura antxe sartu eta buelta emanek dijoa, edozeiñek makurtu eta errez edateko moduan. Gero, ermita-atariaren azpitik pasatzen da, ondoren goroldioz jantzitako arri tartetik beeko ibairaiño joateko.

Urtean irutan etortzen dira onera erromerian Tena araneke fededunak eta Bieskas ingurukoak: maiatzeko Pazkoetan, San Antoniotan eta Santa Elena egunean, abuztuaren 18-an, alegia.

Baiña beren ikamikak izan dituzte emengo erriak ermita au noren sailletan zegoan. Ori erabaki bearrez onera bildu ziran batean, apaiz batek zin egin zuan berak une

artan zanpatzen zuan lurra Bieskaskoa zala. Gezurrik etzion. Bera angoa izan eta onera abiatu aurretik oiñeta-koak bere erriko lurrez beteak baitzitian.

Mendi tenteak onako auek, eta piñuak beztutzen dituztenak. Baiña bestelako zugaitzik ere bada tarteka; eta, maiatzean geranez, osto berriaren berde argiaz alaitzen dira. Gorago, gaillurretako larre motxa, eta elur-arrastok an eta emen. Antxe egon nintzan alde guzietara begira, aspertu eziñik.

Argibide auek nundik ditudan? Batzuk, ermitaren atariko ool batetik; eta geienak, nere lagun min baten liburutik: Rafael Andolz zanaren *Leyendas del Pirineo*, (Huesca, 1994).

El Diario Vasco, 2002-07-20

Lizarraga jenerala eta Pedro Migel Urruzuno

Argia astekarian, 1923-II-4-an, idazlan bat agertu zan, *Kandelario* izenarekin, onela asten zana:

«1873-garren urteko Otsaillaren lenengo egunak gogoan-garriak dira; errepublikano ta karlisten guda edo gerra asi berri-rixa zan. Esan lezake norbaitek izan zirala iru egun garbi-leku edo purgatorioan».

Karlisten bigarren gerra, beraz, 1872-an asi eta 1876-an bukatuko zana. Espaiñiak leenengo errepublika zuan orduan. Idazki orrek 1873 urteko otsaillaren 1, 2 eta 3-ko gorabeerak kontatzen ditu:

«*Lenengo eguna*. Goizeko ordubiak inguruan ekarri zuten gaixotegi edo ospitale batera gudari oietako bat, agintari andi bat, ixill-ixillik. Pulmoniaz gaizki zegoena zan. Eguna igaro zan ainbestetxoan, baña illundu ta laister, zazpi orduetako inguruan, tiro-tiroka zebiltzan alde bietakoak gaixotegiko atarian, eta barruan zeudenak, au da, gaixotegiaren kontua zutenak, estutu ziran; ez ainbeste gaixoa bera, bada esaten zuan: “Ni arrapatzeko eztute tirorik egin bearrik, baizik atea jotzea naikua dute”. Zauritu bat utzi ta joan ziran guziak elkarren igesi».

Biarmona egun seiñalea zan, *Kandelario* alegia, eta idazlan orrek onela ematen du beraren berri:

«Goizian goiz eman zitzaizkan gaixoari elizakoak, gaizki arkitzen zalako, baña etzan askoz obeki arkitu artsaldean. Ordu bi t'erdietako garaian, etsaiak inguratu zuten gaixotegia, sartu ziran batzuek barrura eta etxe guztiko bazter guziak -bi gelaz osteangoak- oarkarristu edo errekestatu zituzten, esan gabe zeren billa zetozen, eta illuntzian joan ziran esanaz bar-

katzeko, bada sospetxa txiki bat iduki zutela. Gau artan artu zan gaixotegian gaztigu edo abisu bat ernai egoteko, bada berrogei ta zortzi ordu barru berriz biurtuko zala jende ura erri-
ra gaixoaren billa, ziur zekitelako errian zala».

Alde bateko eta besteko ixpiak lanean gogor jardunak ziran, beraz: liberalak bazekiten, norbaitek salatuta, karlistetako buruzagi ura errian zala; eta bai gaixotegiko arduradunak ere liberalak berriz etortzekoak zirala. Baiña ona *irugarren eguna*:

«Beste tropa bat, ez lengoetakoa, baña etsaia ura ere, bazetorren errira eta gelditu zan gaixotegiko ateetan. Sartu zan barrura teniente bat, eta eskatu zuan mesedez litx edo ilatxa batzuek balaren urratu bat sendatzeko; eman zitzaizkan eta juan zan eskerrak emanaz, troparekin batean. Atera ziran erritik, baña berriz ere atzera biurtu ziran. Ala ta guztiz ere berriro joan ziran. Artsaldea igaro zan estu samar, baño pakean. Gaberdian etorri ziran agintari gaixoaren mendeko soldadu batzuek, artu zuten beren agintaria oitxo edo kamilla baten, alik ondoen estalita, eta eraman zuten. Onenbesterekin amaitu zan iru egunetako purgatorioa...».

Urrena, argibideak ematen dira: erria Elgoibar da; karlistetako buruzagia, Lizarraga jenerala; alkarri tiroka jardundakoak, Bikuña karlistaren taldea eta Eibarko nazionalak. Irugarren egunean gaixotegira agertutako liberal tropa, Blanco koronelarena. Eta gaixoa eraman zutenak, Bikuñaren gizonak.

Lizarraga jenerala esku-eskuan izan zuten, beraz, liberalak; baiña txoriak iges egin zien. Arrapatu izan balute, ipurdiko aundia artuko zuten karlistak, asi berriak ziran artan.

Gertaera orretzaz zerbait geiago jakin nairik, gerra orren istoria-liburua eskuratu det: *Historia Contemporánea / Segunda parte de la guerra civil, / Anales desde 1843 hasta el fallecimiento de Don Alfonso XII, por Don Antonio Pirala. Madrid, 1907.*

Piralak dionez, jeneral ori Antonio Lizarraga zan. Gipuzkoako altxaldia prestatu nairik, Bidasoa ibaia 1873-ko Urte Berri egunean pasa zuana. Ondoren batetik bestera ibili zan: Lasarte, Usurbil, Elgoibar, Urdaneta, Lasur, Mendaro... Ilbeltzaren 27-an, Seguran Ollo jeneralarakin bildu eta 29-an Azpeitiko erriari eraso zioten. Ondoren, oar batean, onela dio Piralak:

«Durante el ataque enfermó gravemente Lizárraga, conduciéndole a casa del párroco de Elgóibar, y de allí en gravísimo estado y en hombros de su leal secretario Nájera, al hospital del pueblo. Con alguna noticia los liberales de Eibar, fueron en su busca al hospital, registraron minuciosamente hasta la celda de la superiora y las de las hermanas de la caridad y la tumbilla de un muerto que de cuerpo presente había en la iglesia, y ni se les ocurrió abrir una puerta que estaba sólo entornada, pasando varias veces por delante de ella, y era la del cuarto en que se hallaban Lizárraga con los señores Ponce y Nájera. Retiráronse los voluntarios y a la noche siguiente le trasladaron a un caserío inmediato, donde permaneció bien cuidado y con excelente asistencia médica, hasta el 19 de Marzo que volvió a campaña...».

Batera datoz biak: *Argia* astekaria eta Pirala istorialaria. Batek falta duana, besteak kontatzen du, alkar osatuz.

Argia-ren idazlana nork idatzi zuan ez da esaten. Ala ere, Pedro Migel Urruzunorena zala pentsatu nuan nik irakurritakoan. Baita beraren *Sasiletrau baten ziria ta abar* izeneko ipui-bilduman agertu ere (*Auspoa*, 113), ondoren onela adieraziz:

«Ez da egillearen izenik esaten, bañan Urruzunorena da, dudarik gabe. Idaz-tankerak garbiro salatzen du, guk uste, umearen aita nor dan. Gañera, Elgoibarren gertatua ta egillea bertako semea. Urruzunok ogei ta bederatzi urte zituan orduan, eta ordurako apaiza zan. Nola ote zegoan gaixotegi orretan? Apaiz bezela ala gaixorik zegoalako?».

Onen erantzuna, 1930 urtean, *Urruzuno'tar P. M.'en ipuiak* izenburuarekin Iruñan agertutako liburu batek ematen digu. Asieran, amalau bertso datoz, Elgoibarko Toribio Iriondo apaizarenak, Urruzunori eskeñiak eta argibide au ematen dutenak:

«Garagartza-Mendaron bilduak zirala, Urrilleko 2-an, 1920-an, Urruzunok meza berria eman zuaneko urre-eztaiak, berrogei ta amar urteak alegia, betetzen ziralako».

1870-ean egin zan, beraz, apaiz Pedro Migel Urruzuno jauna, ogei ta sei urterekin.

Eta laugarren bertsoak onela dio, Urruzunoren nondik norakoak adierazterakoan: “Leen eritegian gaxoak zaindutzen”. Gaixotegian zan, beraz, Lizarraga ara eraman zutenean. Ala, *Argia*-k lerro auek eransten dizkio idazlanari, ziur asko Urruzunok berak bialiak:

«Idatzi au bialdu digunak, berak ere iru egunetako *purgatorio* ortan estualdi ederrak igaro bearra izan zuen: Elgoibar'ko gaxotegian arkitzen zan, bada, egun abetan, eta emen esaten dan guzia berak ikusia da».

Bai; oso estu ikusiko zuan bere burua, bai-baitzekian liberalak Lizarraga aurkitu ezkeru berari ere kargu artuko ziotela. Egun larri oien oroipena ondo itsatsi zitzaion. Ala ere, ixilik gorde zuan. Baiña andik berrogeitamar urtera, bera irurogei ta emeretzi egitera zijoala, gertaera aitortu naia egin zitzaion, eta idatzi eta *Argia*-ra bialdu zuan, esan bezela, 1923-02-04-an. Ondo garaiz ere, andik laster, Apirillaren 14-an, il baitzan.

El Diario Vasco, 2002-08-14

Emakumezkoak irabazitako gudaldia

Gero eta geiago dira Pirineo aldera dijoazen euskaldunak. Jakara baiño leentxeago, bertako kanposantua ikusiko dute. Ango elizatxoa ere bai. Baiña au *Nuestra Señora de la Victoria* izendatzen dala eta bere leienda ere baduala ez dute askok jakingo.

VIII mendearen asiera zan; moroak Espaiñian sartu berriak, beraz. Ebro aldeko Erribera guziaz jabetuak ziran. Batean, 716 urtean, gudarozte aundi bat prestatu eta Pirineo aldera jo zuten. Jaka artu, Aragoi ibaiaren bazterretik segi, eta Naparroan ere sartu omen ziran. Kristauak, beren burua salbatzearren, mendi-zokoetan eta aal zuanak aal zuan tokian izkutatu ziran.

Baiña auk ere indartzen asi ziran, eta andik berrogei bat urtera, Aznar zeritzan buruzagi baten agindupean, Jakako erria ostera eskuratu zuten. Aznar ori orduan izendatu zuten Aragoiko kondea.

Andik bi urtera, 760-an, moroak berriro etorri ziran, larogei ta amar bat milla gizon, Jaka artu nairik. Andik onuntzaxeago, Gas ibai txikia Aragoi ibai aundiarekin biltzen da. Bien tartean ordeka bat dago. Moroak an jarri zuten beren kanpamentua. Toki orri *Campo de las Tiendas* esaten zaio geroztik. Ortxe daude gaur kanposantua eta esan degun elizatxoa.

Aznar ori eta bere gizonak etziran kokildu. Etsaiei aurpegi ematea erabaki zuten, aien aldean lau katu baziran ere.

Maiatzaren leen asteazkena zan. Illundu eta gero, ekaitz bildurgarria sortu zan: tximistak, trumoiak, euria, kazkabarra... Kristauak, Zeruko Amari laguntza eskatu, Jakatik irten eta moroen kanpamentuari eraso zioten. Auk, ustegabeko orrekin, ardiak otsoaren aurrean oi dutena egin zuten, egiñaalean korri, alegia.

Baiña ostera arnasa artu, burua jiratu, nor bere tokian tente jarri eta kristauei ortzak erakutsi zizkieten. Urrengo eguna eta gaua burruka bizian igaro zituzten, alkar txikituz eta ezin menderatuz. Baiña luzapen ori kristautentzat kaltegarriagoa zan askoz ere, gutxiago ziranez.

Bitartean, Jakako erriaren barruan estu eta larri antxe zeuden aiton-amonak, emakumeak eta aurrak, arreziaren gaiñetik begira, nor gailen aterako zan ezin antze-manetz.

Ostiral-goizean, eguzkia irtetzearekin batera, emakumeak buruzbide ausarditsua artu zuten. Atorra zuriak jantzi, beren buruak trapu txuriz apaindu gudarako kasakoak balira bezela, eskuetan makillak artu, batalloi baten antzeko taldea eratu eta burruka zan tokira urbiltzen asi.

Berak eguzkia atzetik zuten. Moroak, berriz, aurretik. Auek antxe ikusi zuten diz-diz egiten zuan talde aundi bat urreratzen. Diz-diz ori eguzkiak armetan jota egiña zala iruditu zitzaien; ez trapu txuriak zirala. Nundik ez bazekiten ere, kristauei indar berria zetorkien, beraz. Ala, biotza erori zitzaien. Izutu, bizkarra eman eta orpoak jaso zituzten.

Igesbidean, leen esan degunez, bi ibai zituzten, ordea: Aragón eta Gas, bezperako euriarekin aundituta zetozenak. Aiek nola igaro? Bitartean, kristauak atzetik ez-pata zorrotzekin. Urak arre-arre omen zetozen, baiña odollez gorri-gorri jarri omen ziran egun artan.

Ildakoen artean, lau gorputz agertu ziran gero, buruan koroia zutenak. Koroitutako lau buru oiek Jakako armarrarian ikusten dira geroztik.

Garaipen ori lortu zuten tokian, eliza bat altxatzea erabaki zan, *Nuestra Señora de la Victoria* izenarekin, gertaeraren oroigarri izan zedin eta Zeruko Erregiñari esker ona agertzearren. Aren ondoan jarri zuten gero kanposantua.

Jakak jai egiten du geroztik urtero maiatzaren leen ostiralean. Agintariak eta erria ermita ontara etortzen dira goizetik, eta meza santua entzun. Mutillak, nekazari-

-jantziz eta burukoak lorez apainduta. Auetako batzuek eskopeta-tiroak tiratzen dituzte. Umeak, berriz, petardoak. Ostera erriratu eta festarekin segi.

Leengo batean, andik pasatzerakoan, gelditu eta ermita ori bisitatu nuan. Sarreran onela irakurri nuan:

«*Esta antigua Basílica de la Victoria fue erigida para conmemorar la legendaria victoria sobre los musulmanes. Reedificada en 1816 y restaurada por el Gobierno de Aragón en 1998.*»

Ermita txukun eta garbia da, baiña antziñako kutsu aundirik gabea, zaar-itxura berrikuntza oietan galduko zuan eta.

Ataritik bista ederra dago. Aragoi ibaiak bide egiten du Jakatik Yesaraiño, lurralde menditsu ontan erreten zabal baten antzeko aran luze bat irikiz. Orregatik, eta Berdún erria ortxe dagoalako, *Canal de Berdún* esaten diote. Mendiz inguratua dago, beraz, eta Pirineoko tontorrak ere ikusten dira, txuri-txuri beti edo geienetan. So-roen kolorea, berriz, aldakorra da: lurrarena, udazkenean; berde-berdea, udaberrian; eta errearen antzekoa, udaran.

Idazlantxo ontarako gaiak nundik ditudan esan dezadan: Rafael Leante y García: *Culto de María en la diócesis de Jaca, Lérida*, (1889).

Nere irakurleetan Pirineo aldera dijoan mendizalerik baldin bada, gaur geroztik jakin dezala, idazlantxo onen bidez, leienda polit bat arako bidean zein tokitan daukan. Emakumezkoak gudaldi odoltsu bat nola irabazi zuten, alegia. Mendien edertasunaz gozatzen dakianak, kontakizun umil eta polit auek ere gogokoak izango ditualakoan nago.

El Diario Vasco, 2002-09-15



Nuestra Señora de la Victoria, Jaca, Huesca.

Munduko ondasun guziak baiño geiago balio duana

Piedra ibaia *Cordillera Ibérica* izenekoan sortzen da. Iparraldera artzen du, lurralde legor batean barrena. Muiño soil batzuk ezker-eskubi. Baratzak eta zugaitzak, erre-karen bi ertzetan bakarrik. Olakoxeak dira alderdi ontako beste ibai guziak ere.

Baiña au, bere bidean dijoala, azpian lurrik gabe gelditzen da bat-batean. Urak goitik beera erortzen dira bein eta berriro, ur-saltoak edo ur-jausiak egiñez, erderazko *cascada*-k alegia, zein baiño zein ikusgarriagoak. Beren izenak: *Cascada Iris, Trinidad, Caprichosa, Los Fresnos, Los Chorreaderos, La Solitaria, La Sombria, La Cola del Caballo...* Tarteka ur-putzu garbiak, xpillu baten antzekoak; eta inguruan, zoragarritzko arboladiak. Leku ederra benetan.

Gero, urak beeko zulora edo maillara iritxitakoan, leen bezela jarraitzen dute, muiño gorri artean, Jalón eta Ebro ibaiekin biltzeko.

Emen leenago zer zan ez dakigu. Baiña XII mendean, 1194-ko maiatzean, Kataluniako Poblet monastegitik amairu praile irten ziran, Ganfrido de Rocaberti buru zutela. Nunerebait komentu berri bat eraiki nai zuten. Txoko au ezagutu, lekuaren edertasunaz lilluratu eta bertan gelditu ziran. Bereala ekin zioten lanari eta komentu dotorea altxa zuten: eliza, klaustroa, batzar-lekua, sarrerako torrea, eskaillera bikaiña, praileen gelak, baratzako arresia...

Ez dedilla presaka ibili onera datorrena. Ordubetea bearko du eliza eta komentua ikusteko; eta geiago parkean ibiltzeko, ur-jausi eder oiek ikusiz. Baiña etzaio damutuko.

Onerako bidea nundik dan? Euskal Erritik goazela, Zaragozara baiño leen, Alagón erriaren parean, ego alde-

ra ar dezala; Calatayud atzean utzi eta bereala iritxiko da, mapa on baten laguntzarekin.

Ni izan nintzanean, *Nuevas leyendas del Monasterio de Piedra* izeneko liburua erosi nuan ango dendan. Beraren egilleak Fco. Javier Agirre eta Jose Uña Zugasti, aragoitarrak jaiotzez, baiña beren aurrekoak nungoak ziran ezin ukatu dezaketanak. Etxerakoan irakurtzeari ekin nion, eta *El vaso de jade* izeneko kontaera aukeratu det idazlan au osatzeko.

XV mendea zan. Arratsalde batean, zaldun gazte bat tek jo zuan emengo atea. Bartzelonatik zetorrela, opari bat ekartzera. Bere anai bat, senideetan gazteena, Mediterraneo itxasoan barrena sortaldeko lurretara joana zala. Bitartean, famili guzia, ama batez ere, kezketan, ari zer gertatuko zitzaion. Amak orduan promes egin zuala: semea onik etortzen bazan, opari on bana egingo ziela Aragoiko erreinuaren iru monastegi famatuenei: Monserrat, Poblet eta Piedra izeneko oni.

Iru urte eta zazpi asteren buruan azaldua zala anaia. Etxekoen poza! Bere ibillaldien berri eman ziela: milla leku zoragarri ikusia zala eta abar. Iru kutxa ere ekarri zituala, bakoitzak pitxi bana zuana.

Amak, emakumea izan, bereala ikusi nai izan zuala aien barrukoa. Leenengoa iriki eta ura pitxi ederra! Bigarrena zabaldu eta berdin. Irugarrenean, berriz, kopa eder bat omen zan, *jade* izeneko gai balio aundikoaz egiña eta perlaz apaindua. Kopari begira zeudela, eguzkiak argitu zuan, leiotik sartuta. Orduan diz-diz egin zuan, eta amaren begiak itxutu. Urrengo goizean jeiki eta artean gandu batekin ikusten zituan gauzak. Baiña orduan bere promesa bururatu zitzaion, eta onela esan:

-Bai; nik iru opari egiteko promesa egin nuan. Pitxi auek monastegi oientzat izan ditezela, bada.

Ori esan eta bista leengo onera biurtu zitzaiola.

Monserraten eta Pobleten izana zala, eta aietan kutxa bana utzi ere bai. Ara irugarrena zekarrela, kopa baliotsu ura, alegia.

Komentuko nagusiak etxeko praile guziak batzar-lekura deitu zituan, kopa arekin zer egin bear zuten erabaki aal izateko.

Batzuek zera esan zuten: kopa ura, ain ederra izanik, kaliza izan zedilla, jai aundietan meza emateko erabiliko zana.

Beste batzuek ezetz; kopa ura fedegabekoak beren aztikerietan ibilia izango zala, eta kristau aldare batean meza santua emateko din etzala inola ere.

Beste batzuek, berriz, *exorcismo* batzuk egin eta deabru-kutsu guzietatik garbituko zala kopa ura; eta ondoren elizkizunetarako ona izango zala.

Eztabaidan asi ziran praileak, nork bere arrazoia aurrera eraman nairik. Baiña gero eta beroago eta indartsuago, alkarri ojuka eta deadarka, lepoko zaiñak eten bearrean jarrita. Ura ixkanbilla!

Txoko batean praile zaar bat zegoan. Komentuko zaarrena zanez, bera izan omen zan izketan asi zana, kopa ura mezetan kaliz bezela erabiltzearen alde itzegiñez. Baiña geroztik ixil-ixilik zegoan, gela artan gertatzen zanari erne-erne begira.

Alako batean zutik jarri zan, eta nagusiari zerbait esateko baimena eskatu. Bai eman ere; eta erreza etzan izango, baiña danak ixildu ziran. Praile zaarrak orduan onela esan zuan:

–Kopa onekin zer egin bear degun nik esango dizuet; baiña itxogin zazute, mesedez, pixka batean.

Ori esan eta kanpora atera zan. Baiña bereala atzera sartu, eskuetan maillu aundi bat zekarrela; argiñak eta arrobizaleak erabiltzen duten borra aundi oietako bat, alegia. Eta onela esan zuan:

–Onekin zer egin bear degun? Auxel!

Eta maillua gora altxa eta bere indar guziekin kolpe indartsu bat eman zion kopari, au milla pusketan zirtzilatuta utzirik. Orduan danak:

–Zergatik egin dezu ori?

-Zergatik? Kopa onek munduko ondasun guziak baiño geiago balio duana galeraziko digulako: alkarren arteko pakea!

Danak konforme gelditu omen ziran, arrazoi osoa zuala esanez.

Nik, berriz, liburutik begiak altxa eta onela esan nuan nereko: «Alajaiña! Badegu gure artean olako praile baten bearra! Baiña zenbat maillukada jo bearko lituzke?».

El Diario Vasco, 2002-10-15



Monasterio de Piedra, Zaragoza.

Rocaforte-ko zikoin zuriak eta putre beltza

Zangotzara baiño leen, ango Papeleraren atzean, muiño batean, erri txiki bat ikusten da. Rocaforte du izena. Bera izan omen zan Zangotza zaarra. Gero, errege baten aginduz, ibaiaren ertzean berria eraiki zuten.

Rocaforterren gainean kasko soil-borobil bat altxatzen da. Moroek gaztelu bat antxe izan zan, baiña kristauak artu zuten. Moroak artaz berriro jabetu nai arren, beren aalegin guziak alperrik.

Ontan, moro indartsu bat etorri zan, Erribera aldean jauntxo ospetsua zana. Arek zin egin zuan gaztelu ori kristauei kenduko ziela. Artarako, azerikeri bat prestatu zuan.

Batean, festa aundia ospatzera zijoazen Leireko monastegian. Hueskan bi neska gazte, bi aizpa, Nunilona eta Alodia, martiri illak ziran moroen eskuetan, kristau fedea ez ukatzearren, eta aien erlikiak ekartzekoak ziran. Ori zala-ta, jende asko espero zan: Naparroako errege-erregiñak, beren seme-alabak eta nunaitik etorritako kristauak.

Rocaforteko nausia eta bere emaztea ere joatekoak ziran. Bi alaba zituzten, bixkiak eta emezortzi urtekoak: Esperantza eta Kontsuelo. Joan nai aiek ere, baiña gurasoak gelditzeko agindu zieten, gaztelua zaintzearren.

Ordua irixtitakoan, bazkaltzen asi ziran, baiña kanpoan, atarian, leku alaiagoa zala-ta. Artan ari zirala, eskale bat urbildu zitzairen, kapa zaar batez jantzita eta errenka. Zera esan zien: Santiagora zijoala eta limosnatxo bat emango ote zioten.

Aizpatxo aiek biotz onekoak izan eta baietz erantzun zioten. Pasatzeko barrura eta zerbait emango ziotela. Sartutakoan, ordea, eskalea tente jarri zan, kapa bota zuan eta ura gizon-puska! Leen esan degun moro indartsu ura zan. Ezpata atera eta zera esan zien:

-Zuek eramatera etorri naiz, nai badezute eta nai ez badezute!

Bi aizpak igesari eman zioten, baiña moroak bata bestearen ondoren bereala arrapatu zituan, eta lepoa moztu.

Gazteluan *Zai* izeneko zakur bat zuten, bi aizpak asko maite zituana. Egunez etzan aietatik apartatzen; eta gauez, aien oe azpian lo egiten zuan. Egun artan, berak nai ez arren, Leirera joatera beartu zuan nagusiak.

Leiren, *Zai* orrek etzuan mokadurik artu nai bazkal-tzerakoan. An zebillen urduri eta intzirika. Azkenean, zaunka luze-mingarri bat egin eta korrikari eman zion, danak arrituta utzita. Zer ote zuan?

Leiretik Rocaforte-ra amalau kilometro dira; baiña zakurrak egan bezela pasa zituan. Bertara irixtean, moroa orduan atean zan, alde egiteko asmoan, alfanjea odol-lez gorri-gorri eskuan zuala. Zakurrak aren lepora salto egin eta ozkaka txikitu zuan. Etzan gelditu illotzik utzi arte. Gaztelu barrura sartu zan gero; eta bi aizpatxoek gorputzak aurkitutakoan, aren negarra eta aien aurpegia miazkatu bearra!

Gurasoak itzuli ziranean, zer zan ura? Moro bat atean, zakurrak txikituta. Barruan, bi alabatxoek gorputzak, odol-putzu bana ondoan zutela eta zakurra antxe lantuan.

Biaramonean lur eman zieten. Bereala, bi azuzena txuri azaldu ziran illobitik. Baita zeruan ere bi zikoin txuri. Gazteluaren torrera jetxi ziran, eta antxe gelditu bizi izatera. Gurasoak, beste ondorengorik etzutenez, negarrari ezin eutsi zioten. Baiña egun batean bi zikoin txuri aiek onela esan zieten:

-Gu zuen alaba maiteen animak gera. Neguan alde egin bearko degu otzagatik; baiña udaberriro etorriko gera, zuekin izatera.

Moroaren anima, berriz, inpernura joan zan, eta an putre tzarra biurtu. Beltz-beltza, gaiñera, kondenuatu bat zanez. Batean, egan etorri eta goitik beera tximista bat bezela gazteluaren torrera zijoan, ango bi zikoin txuri aiek il

nairik. Baiña bertako nagusiak garaiz ikusi zuan, eta azkon bat bota, bete-betean jo eta akaatu egin zuan. Putrea elizako teillatura erori zan, eta arrizkoa biurtu.

Antxe da gaur ere, iparraldeko orman. *La Molindanga* deitzen diote. Erriko mutikoak, gaurkoak ez dakit, baiña orain artekoak bai beintzat, noiznai arrika erasotzen zioten, ain gaiztoa izan zalako. Pasada ederrik artua da arrizko egazti ori.

Urteen buruan, Rocaforteko gaztelua bota egin zuten gerraren batean. Zikoin zuri aiek Zangotzako San Salvador eliz-torrera aldatu ziran orduan. Antxe egin zuten beren kabia, Rocaforte aurre-aurrean zutela. Garai batean orixe omen zan inguru ontara zetorren bikote bakarra. Geroztik ugaldu dira, ordea, eta Zangotzan bertan askotxo ikusten dira.

Baiña leen esan degun arrizko egazti ori zer ote da berez? Goiko gaztelua, moro eta kristauen aurretik, erromatarrak altxatu zuten. Auen guda-mutillen ikur edo bandera arranoa zan. Arrizkorik ere izango zuten beren gaztelu ortan, eta oietako bat izan diteke *Molindanga* ori.

Leienda au Aita Frantzisko Escalada-k kontatzen du, *La arqueología en la villa y castillo de Javier y sus contornos* (1943) liburuan, aurretik onela diola:

«Ahora no sería lícito dejar pasar, con esta ocasión, en silencio una sentida leyenda que en Rocaforte y sus contornos corre de boca en boca y tienen gusto especial en contar, sobre todo, las ancianas para hacer dormir a los niños».

Lo arrerazteko ez dakit, oerakoan moro gaizto orren oroipenak bildur-izua emango zien eta. Baiña leienda au ao zabalik entzungo zutela, ori bai; ortan dudarik ez dago. Ortik gero *Molindanga* dalako orrek artu bear zituan arri-jasak.

El Diario Vasco, 2002-11-09

Xabierko erensugea

Javier giza-izena da orain, mundu guzira zabaldua. Urkiolakoa bezela, Naparroako Zaindaria ere “askoren biotzeko santu debotua” baita. Berez toki-izena da, ordea, euskerazkoa gaiñera. *Etxaberri* zan asieran, gero erdal kutsuarekin, *Xaberri*, *Xabier* eta *Javier* biurtua. Baiña Xabierkoa *etxe berria* bada, nun zan *etxe zaarra*? Egoaldera dagoan *El Castellar* mendira igo ezkerro, arri-pillak ikusten dira, antziñako erri baten kondarrak. Orixe omen da *etxe zaarra*.

Garai batean, ba omen zan inguru auetan erensuge bat, eliza bat bezin aundia eta zazpi buru zituana. Bein, otorduren bat egin ondoren, siesta egitera Elomendiko (*Iga de Monreal*) koba-zulo batera sartu zan. Antxe, mendi guzia dardar jartzen zuten zurrungak egiñez, eun urte lo pasa omen zituan.

Esnatu zanean, aren gosea! Lurpetik atera nai, baiña irtenbidea itxita zegoan. Ekin zion lurra arrotzeari, baiña alperrik. Orduan koba-zuloan aurrera jarraitu zuan. Luzaroan illunpean ibili ondoren, argi-izpi bat ikusi zuan. Ara joan, zirrikitu ura atzaparrekin zabaldu eta bere burua eguzkipean ikusi zuan. Nun zegoan? Xabier ondoko *El Castellar* ortan.

Beeko larrean artalde aundi bat ikusi zuan. Pozaren pozez egin zuan orruarekin, ardi guziak il zituan, eta ondoren aitaren batean danak irentsi. Urrena, inguruko erri batera joan zan, eta ango gizakiak eta ganaduak, danak sabelera.

Gero, siesta egitera, *El Castellar*-ko koba-zulora itzuli zan. Bitartean, inguruko jendea bildu eta erensugea iltzera etorri zan, ezpata, lantza, eta aizkorak eskuetan artuta. Baiña erensugeak beste orru bat egin eta ankaz gora bota zituan danak. Ura korrika-saioa egin zuten! Piztia, berriz, koba-zulora, ea siesta pakean egiten uzten zioten.

Biamamonean, albo-errietakoak berriro bildu ziran, erensugea nola akaatuko zuten; eta batek:

–Erraldoi bat azaldu berria da. Gizon-puska orrek kanpoan lo egiten du, arentzat etxe guziak txikiak diralako. Uraxe ekar dezagun. Orreagan omen da.

Bi mandatari bialdu zituzten. Erraldoia pago batzuen itzalpean aurkitu zuten, iru aari jan eta siesta egiten. Zer nai zuten adierazi eta arek:

–Joango nauk, bai. Nik ez diat iñoren bildurrik. Bi gurdi gari besapean artu eta lastoa balitz bezela eramaten dizkiat. Leengoan, Pirineoetan, amar legoi atera zitzaizkidaken. Enbor bat eskuetan artu eta danak txikitu nizkian. Erensugetxo bat zer da neretzat, naiz eta zazpi buru izan?

Abiatu ziran mendi eta basoetan barrena. Leireko gaillurrera igo ziran; Arangoitira, alegia. Andik Xabier alde ongi ikusten da. Erensugea an zan, *El Castellar* orren oiñean, lotan. Erraldoiak ogei arruako arri bat artu eta tira egin zion. Bai bizkar erdian jo ere. Piztia orru bat egiñez esnatu zan. Arria, berriz, boteka Aragoi ibaiaren ertzeraño joan zan.

Erraldoiak beste arri bat tira zion. Bai jo ere. Erensugeak orduan bere zazpi buruak altxa, alde danetara begiratu eta erraldoia an ikusi zuan mendiaren puntan. Pizti ura orduan beeko zelaiak pasa eta aldapa gora asi zan, arkaitz eta zugaitzak sustraitik atereaz, bere etsai ura arrapatzearren.

Erraldoiak igesari eman zion, orpoak airoso astinduz. Etzan geratu Orreagara iritxi arte. Emengo orduko eliza katedral bat bezin aundia omen zan. Erraldoia bertan sartu eta ate-leioak ondo itxi zituan. Erensugea etorri eta, barrura ezin sarturik, eliza gaiñean etzan zan. Pisuarekin, teillatuak lur jo eta antxe zanpatu zituan erraldoia eta arekin ziran beste guziak.

Erraldoiak tiratako arriak urteetan egon ziran Aragoi ibaiaren ondoan. Gero Xabierko gaztelura jaso ziran, eta gaur Iruñeko Museoan daudela uste det. Jakintsuak bi *menhir* dirala diote.

Gaua baiño leen, erensugea atzera *El Castellar* ortan zan. Ura berriro ikusi zutenean, inguruko kristauen izual Zer egin etzekitela, amaren besoetan zan aur batek, titiari utzi eta onela esan zuan:

-Ama Birjiñari! Ama Birjiñari!

Zeruko abisutzat artu zan ori. Bai; leenengo, aingeruen Erregiñari iru eguneko errogatibak egin zizkioten. Irugarrenean, «*Auxilium christianorum, ora pro nobis*» esaterakoan, zerua iriki eta Ama Birjiña ikusi zuten Jesus Aurra besoetan eta San Migel goi-aingerua alboan zituaila. *El Castellar* orren aurrean menditxo baten puntan gelditu eta onela esan zuan:

-Nere seme-alaba maiteak, zuek salbatzera nator. San Migelek egingo ditu pizti tzar orren lanak.

Goi-aingeruak ezpata atera eta egan antxe joan zan erensugearekin burruka egitera. Au erne zegoan, bere zazpi aetatik sua zeriola. Beraren buru bat moztu zuan San Migelek leen kolpean; beste bat bigarrenean. Baiña bat galdu orduko, bestea berriro egiten zitzaion piztiari. Ingurua buruz bete zan. Baiña erensugea zazpi bururekin beti ere. San Migel nekatzen asia zan, eta orduan Ama Birjiñak:

-Gilborretik! Gilborretik!

Oiu ori bera egin zien Lartaun oiartzuarrak bere lagunei, erromatarren kontra burrukan ari zirala.

San Migelek ori egin zuan, ezpata piztiaren gilborretik sartuz. Orduan zazpi orru entzun ziran, zazpi trumoi baiño lodiagoak, eta erensugea illotzik erori zan, zazpi aetatik kea eta kiratsa zeriola.

Ama-Semeak eta San Migel zerura itzuli ziran, jende-ari kristau onak izateko eskatuz. Auek esker onekoak izan eta Ama Birjiñari ermita bat altxa zioten, bera azaldu zan mendi-puntan. Laguntzera etorri baitzitzaien, *Nuestra Señora del Socorro* jarri zioten izena. Ermita ori an dago gaur ere, txuri-txuri, tontor batean. Xabierko gazteluak ere San Migel du zaindaritzat, eta onen irudia bertan ikus diteke, ezpata gora altxata eta erensugea oinpean duala.


Leienda au nundik ote dedan? Liburu ontatik: *La Arqueología en la Villa y Castillo de Javier y sus contornos*, por Francisco Escalada, S. J. (1943). Eta jaun onek nundik? Berak esaten du:

«Por las vertientes españolas del Pirineo abundan sobremanera hermosas y variadas narraciones legendarias, que guardan como oro en paño esas ancianas venerables, con el fin de entretener y a veces atemorizar a la pequeña grey infantil, que les escucha con la boca abierta y sin pestañear...».

Inguruko fededunak udaberriro datoz ermita ontara erromeriz. Xabierkoak onela kantatzen dute;

*No permitirá pasar
año el pueblo de Javier
sin veniros a ofrecer
memorias a vuestro altar.
En aflicciones serenas
siempre que os busca rendido,
dad, Señora, al desvalido
tu socorro a manos llenas.*

El Diario Vasco, 2003-01-15



Nuestra Señora del Socorro, Zangotza, Naparroa.

Deabruaren zubia ala Jesusen zubia?

Nork ez daki *La Foz de Lumbier* izenekoa nun dan? Ilunberri eta Liedena tartean Irati ibaiak arkaitz bizian irikitako menditarte estua, alegia. *Foz* itza latiniñetik dator: *faux-faucis*. *Zintzurra*, *garganta*, *fauces* esan nai du. Napparroan eta Aragoi aldean asierako «f» ori gorde egiten da; baiña Gaztela aldean «h» biurtzen, *hoz* esanez. Menditarte oni, beraz, *Ilunberriko Zintzurra* esan genezaioke.

Zintzur orren irteeran, ibaiaz eskubira, kamioaren ondoan, erromatar *villa* edo jauregi bat izan zan. Beraren kondarrak ageri dira gaur ere. An bizi zan Madalen printzesa, neska ederra eta ona, danak maite zutena. Gaixorik zebillen eta medikuak etzekiten nola sendatu. Batean, neskame batek, Kliastelak, onela esan zion:

–Liskar iturriaren urarekin sendatuko ziñake, bai, zu.

–Ekar zaidazu, bada.

Liskar iturri ori ibaiaz beste aldean dago, Liedenako partean. Ura arkaizpetik sortzen da.

Kliastelak urrezko suil bat buruan artu eta Liedena aldera jo zuan. Erri au ibaiaz ezkerrera dago; baiña aren parean txalupa bat izaten zan, alde batetik bestera pasatzeko. Kliastela ori kantari zijoan, txoriak baiño ere alaiago:

*¡Oh Liscar de mi vida, fuente exquisita!
Para mí son tus aguas agua bendita.
Cuando sed en el cielo la Virgen tiene,
a Liscar a por agua un ángel viene.
Bebe el agua la Virgen, la quiere el Niño;
y dásela su Madre con gran cariño.*

Baiña ibaia aundituta zetorren, eta txalupa eta txalupa-zalea eramanak zituan. Kliastela orrek ezin pasa, beraz, beste aldera. Onela zion:

-Zergatik ez ote dute Jupiterrek edo bere lagunak zintzuraren irteeran zubi bat egiten, bi aldeetako arkaitzak ain urbil egonik? Orduan aitaren batean joango nintzake Liskar iturriraiño.

Bat-batean, zaldun bat ikusi zuan alboan:

-Zergatik egiten dezu Jupiterren duda? Ni aren morroia naiz, eta zubi ori egingo nizuke. Ori bai: ordaiñetan zerbait eman bearko didazu.

-Zer?

-Zure anima.

-Baiña noizko egingo dezu?

-Gaur gaueko amarretan asi eta biar goizeko seiretarako egiña.

-Konforme!

Gaueko amarretan sekulako ots eta zarata entzuten zan zintzuraren irteeran. Lanean asiak ziran amar milla deabru, zaldun arek inpernutik ekarriak, bera ere deabrua izanik.

Ots aiek entzunik, Madalen eta Kliastela larri ziran. Auek artean bataiatu gabe zeuden; baiña etxean bazuten Ama Birjiñaren iruditxo bat, Leireko San Birilak, txoriari entzunez irureun urte pasa zituan praileak, erregalatua. Kliastelak, aren aurrean belaunikatu eta laguntza eskatu zion.

Bai eman ere. Urrengo goizean, eguzkia ordubete leenago atera zan. Orrezaz etzan oartu zaldun deabru ura. Eta ustez goizeko seiretan Kliastelarengana joan zanean, neska irripartsu aurkitu zuan.

-Orra or zuk nai zenduan zubia. Ea, bada, orain neri zure anima.

-Zubia, bai, or dago. Baiña berandu egiña.

-Berandu? Goizeko seiak ez al dira, bada?

-Ez. Begira ango eguzki-erlojuak zer dion.

Zaldunak begiratu zuan eta zazpiak markatzen zituan. Aren amorrua! Eta Kliastelak:

-Zuen lana izanagatik, etzaio orri *Deabruen zubia* esango, *Jesusen zubia* baizik.

Ori esan eta Kliastela Liskar iturrira joan zan, bere urrezko suilla buruan zuala. Ango ura ekarri, Madalenak edan eta bereala sendatu zan.


Madalen, Kliastela eta etxeke guziak bataiatu egin ziran, eta jauregia komentu biurtu. Ildakoan, onako idazki au jarri zitzairen illobian:

*Hic requiescit Magdalena,
meritis et gratia plena;
hic jacet Cliastela,
sub Virginis tutela.*

(Emen da Magdalena, merituz eta graziz betea; emen Kliastela, Ama Birjiñaren babespean).

Leienda ori leku askotan kontatzen da. Euskal Errian, une ontan oroitzen zaizkidanak: Andoaiñen, Tolosan, Kastresanan, Bidarrain... Ni lan ontarako liburu onek dionaz baliatu zaiz: Francisco Escalada: *La arqueología en la villa y castillo de Javier y sus contornos* (1943).

Ilunberriko Zintzurraren zubi ori pasabidea izan zan urte askoan, Naparroatik Aragoi aldera eta andik onera. Santiagoko erromesak ere ortik ibiltzen ziran. Gaur, arkuaren asiera ikusten zaio bi ertzetan, baiña puskatuta dago. Dinamitaz bota zuan Espoz y Mina jeneralak frantzestean, etsaiaren joan-etorriak mozteko. Baiña berritze-ko asmoak badirala entzunda nago.



Xabier, Naparroa.

Santa Nunilo eta Santa Alodia

Nunilo eta Alodia IX mendeko bi aizpa ziran, artean gaztetxoak. Beren erria, Adahuesca, Hueskatik berrogei bat kilometrora dago, eguzki aldera. Garai artan, lurralde ori moroen mende zegoan.

Alaxe zan aizpa oien aita ere: moroa. Ama, berriz, kristaua. Ango legez, guraso bat moroa eta bestea kristaua zutenak, Mahomaren erlijioa artzera beartuta zuden. Baiña aita gazterik il zan eta amak kristau fedean azi zituan bere alabak.

Ama ere il zan eta bi aizpak aitaren anai baten etxera pasa ziran. Osabak, illobak zer erlijio zuten jakindakoa, kristau fedea uka zezatela eskatu zien arren eta arren. Alperrik, ordea. Zer egin? Illobak zer ziran zabaltzen bazan, berari ere kontu txorrotxak eskatuko zizkioten. Ala, salatu egin zituan.

Epailea Galaf izeneko bat zan. Onek aizpa oiek deitu egin zituan. Auek oiñutsik joan ziran arengana, Alquézar errira. Emen gaur ere erakusten dute bi aizpak egondako kartzela. Galaf orrek galdetu zien:

-Zuen aita zana kristau ernegatua al zan?

Nunilok, zaarrena zanez:

-Ez dakigu, bera gu txikiak giñala il zan eta. Baiña gure ama kristaua zan, eta gu ere alaxe gera.

Errukitu zan Galaf ori. Gauzak obeto pentsatzeko esan eta libre utzi zituan. Baiña bi emakumeri nexka aiekin arremanetan asteko eskatu zien, eta moroen legera ekartzeko. Ori ere alperrik, ordea, bi aizpa oien fedea ain zan sutsua eta.

Gauzak leen bezela, beraz, eta osaba kezketan. Berriz salatu zituan, aldi ontan Hueskan.

Hueskako epailea Zimael izeneko bat zan. Bi aizpak bere aurrera deitu zituan. Auek, leengoan bezela, anku-tsik etorri ziran, oiñetatik odola zeriota.



Alahuesca, Huesca.

-Aitaren fedea ukatu omen dezute. Zuzenbidera biur-
tu zaitezte. Bestela, bizia kenduko dizuegu.

-Guk, amari esker, kristau fedea degu, eta ez degu
utziko.

Moro-etxe banatara eramán zituzten: ondo trata zi-
tzatela, baiña tema artan jarraitu ezkeró zer zetorkien
garbi adierazteko. Aizpak amore eman zuala ere esateko
bakoitzari gezurretan. Egunetan orrela edukita, ostera
epailearengana. Onek zeru-lurrak eskeiñi zizkien, fedea
uka zezaten. Aiek, ordea:

-Dana simaurra zaigu, kristau fedearen aldean.

-Zuen lepoarekin pagatuko dezute, bada.

-Nai dezuna. Guk ez degu iñola ere gure federik uka-
tuko.

Epaileak apaiz ernegatu bat ekarri erazi zuan. Eta
onek:

-Epailearentzat naikoa litzake zuek bi edo iru leku-
koren aurrean zuen fedea ukatu-itxura egitea.

-Ala ere, egunen batean il bearko degu. Orain il gai-
tezen, bada, betiko bizitza irabazi dezagun.

Denbora galtzen ari zirala eta epaileak borreroa ekar
erazi zuan. Au alfanje aundi batekin etorri zan. Nexka aiei
zer egin bear zien entzundakoan, goibeldu egin zan. Nu-
nilok onela esan zion bere aizpari:

-Nik egiten detana egin zazu zuk ere.

Ondoren, buruko illea bildu egin zuan, lepoa ondo
agertzearren, borreroari onela esanez:

-Jo zazu azkar!

Onek kolpea jo zuan. Eroritakoan, Nuniloren oiñak
agerian gelditu ziran. Alodiak, joan eta gonekin estali ziz-
kion. Orduan bere illearen lokarria askatu eta bere gonak
lotu egin zituan. Epaileak:

-Uka ezazu zure fedea, eta ongi biziko zera.

-Ez. Lepoa moztu zaidazute leenbaileen, zerura nere
aizparekin batera joan nai nuke eta.

Eta begiak zerurontz altxata:

-Aizpa maitea, itxogin zazu, ni ere banoa eta.

Illea bildu zuan, lepoa agertuz. Borreroak bere lana egin zuan, eta Alodia aizparen gaiñera erori zan. 841-garren urteko urriaren 21-garrena zan.

Moroak gorputzak erritik atera zituzten, eta kanpoan utzi, pizti tzarrak jan zituzten. Auek etzituzten ikutu ere egin, ordea. Epaileak, orduan, gorputz aiek putzu-zulo batera botatzea agindu zuan, arriekin-eta ondo estaliz. Kristauen eskuetatik kendu, alegia, erlikitzat jasoak izan etzitezten.

Gertaera oien berri zabaldu zan kristau lurretara. Naparroako erregiña, Oñeka, Leiren zan. Hueska gertu zanez, erliki aiek ekartzerik ez ote zegoan?

Leiretik ego aldera, Xabier ondoan, Lerda erria zan orduan. Ura izan zan kaxkoan, arri-pillak ikusten dira gaur egunean. Bertan Auriato izeneko gizon bat bizi zan. Gau batean, ametsetan onela entzun zuan:

–Nunilo eta Alodia martirien gorputzak Hueskan daude, putzu baten barruan. Joan eta ekarri itzazu.

Biaramonean Leirera joan zan. Bere ametsaren berri eman zion ango praileen nagusiari, eta onek erregiñari. Jokabidea onela prestatu zuten: Auriatok merkatari-jantzia artuko zuan; salgai gauzez zamatutako mando-talde batekin Hueskara joango zan lagun batzuekin; emen, saltzekoak saldu bitartean, martirien gorputzak nun ziran ixilka enteratuko zan.

Joan, eramandakoak saltzen asi eta jakin nai zuana ikasi zuan, ango kristauen aotik. Gau batez bertara joan, putzua ustu eta nai zuten altxorra antxe aurkitu zuten. Erliki aiek artu, abereen gaiñean jarri eta lau oiñean abiatu ziran, moroak enteratu baiño leen kristau lurretara irixtearren.

Leiren ondo artuak izan ziran. Errege-erregiñak, obispoa, bertako praileak, erri-jendea, an zeuden zai. Erliki oiek urte askoan gorde ziran bertako elizan, moroen lana zan kutxa ikusgarri baten barruan.

Santa auenganako jaiera asko zabaldu zan. Aien irudiak eliza askotan ikusten dira: Aragoien, Naparroan, Araban, Errioxan, Andaluzian...

Aspalditik neukan santa oien jaioterria ezagutu naia. Leengo batean izan naiz. Lur oparoa ematen du angoak: gari-soroak, maastiak, almendroak, artadiak... Egoaldera, Ebroraiño luzatzen diran lur zabalak. Ipar aldera, Pirineo mendien asiera, bi milla metro dituan Guara gaillurrarekin.

Kale estuak. Etxeak arriz eta ladrilluz egiñak. Kantantorre bikaiña elizak. Oni erantsita, etxe koxkor bat, leio bakarrarekin. Bera omen zan santa auen etxea. Kapilla biurtuta dago. Itxita zegoan eta ezin ikusi. Erri onek onela kantatzen die aizpa auei:

*Pues por Dios, nobles, las vidas
disteis, Nunilo y Alodia,
sed nuestro amparo y custodia,
vírgenes esclarecidas.*

El Diario Vasco, 2003-03-22

San Julian, Ororbiako Zaindaria

Abenduko goiz eguzkitsu bat da. Soroak berdetu dira gari berriarekin. Mendi-tontorrak, berriz, txuri-txuri. Zeru urdiña goien. Iruña ondotik pasa eta Ororbia errira iritxi naiz. Sarreran, arrizko gurutze bikain bat, XVI mendekoa. Ondoren, Arga ibaia igarotzeko, arrizko zubi zaar bat, bost begirekin. Erri-barruan, etxe zabal-bikaiñak, arku-sarreraren gainean arma-arri ederra dutenak. Baita ere porlanezko etxe berriak, txaletak eta fabrikak, Iruñatik gertu gaudenez.

Emengo Zaindaria San Julian da eta santu onen leienda liburu onek kontatzen du: *Santiago de la Voragine: La leyenda dorada*. Egillea Italiako praile bat izan zan, XIII mendekoa; eta ordurarteko santuen bizitzak idatzi zituan. Liburu ori sarritan argitaratu da. Orain esango ditudanak bertatik artuak ditut.

Lau San Julian omen dira, guk bear deguna laugarrena izanik. Etxe oneko zaldun gazte bat zan. Bein, eizean zebilela, orein (*ciervo*) baten atzetik zijoan. Baiña onek burua jiratu eta onela esan zion:

-Zergatik kendu bear didazu neri ere bizia, zere gurasoak zerorrek ilko dituzu eta?

Julian arrituta gelditu zan. Itz oiek bete etzitezzen zer egin? Gurasoengandik aparte bizi. Ala, urrutiko beste lurralde batera joan zan, eta ango erregearen soldadu sartu.

Soldadu adoretzua izan zan, mailla guziak igo zitua. Baiña Txirritak esaten duan bidetik: «aziyuetan irabazita jazten zituzten graduak». Ala, erregeak kargu aunditan jarri zuan, eta bai aundizkietako emakume batekin ezkondu erazi ere, eztaio-paritizat gaztelu eder bat erregalatu.

Bitartean, Julianen gurasoak beren etxea itxi eta erriz erri galdezka asiak ziran, semearen aztarrenik ate-

rako ote zuten. Batean, onen gaztelura iritxi ziran eta ango atea jo. Julianen emaztea atera eta zer nai zuten galdetu zien. Ola eta ola semea galduta zeukatela eta aren billa zebiltzala. Bai etxeoandrea oartu ere etorkin aiek bere senarraren gurasoak zituala. Aren poza! Barrura sartu erazi, apaltzen eman eta gauerako gelarik onenera eramán zituan: bere eta bere senarraren lo-tokira.

Biamamonean, etxeoandrea goizean goiz jeiki eta mezetara joan zan; eta, bera an zegoala, senarra nunbaitetik etorri. Etxean sartu, bere gelara joan eta oean bi lagun! Ezpata atera eta bien lepoak moztu zituan! Andik irten eta atean nor eta bere emaztea!

–Zu emen? Gure oean nor ziran, bada?

–Zure gurasoak. Atzo etorri ziran. Urteak daramazkite zure billa. Ezagututakoan, gure gelan sartu nituan.

Julian gizajoaren naigabea! Orra oreinaren abisua kunplitu!

–Nere pekatua! Emen nola bizi? Banoa! Penitentzi gogorra egingo det, Jainkoak barkatu arte!

–Ni ere banoa zurekin –esan zion emazteak–. Zorionean bezela, zoritxarrean ere lagun izango nauzu.

Gaztelua utzi, urrutira joan eta ibai aundi baten ertzerá iritxi ziran. Bideak betean etortzen zan ara jendea; baiña ibaia pasatzerakoan larri ibiltzen ziran; eta banaka batzuk ito ere bai. Ala, gure senar-emazteak bertan gelditu ziran, bidelariak alde batetik bestera txalupa batean eramateko. Bai ibai-ertzean ostatu bat altxa ere, pobreen aterpea izan zedin.

Lantegi ortan urte asko zeramazkitela, gau batean, Julianek urrutiko abots bat entzun zuan. Norbait negarrez ari zala iruditu zitzaion, eta beraren izenez deitzen zuala, laguntzera leenbaileen joan zedin. Altxa eta ara ablatu zan. Ibaiaren beste aldean, eskale bat aurkitu zuan, lurrean luze-luze, otzak eta erdi illik. Besoetan artu, txalupan ibaia berriz pasa, etxera eramán eta su ondoan jarri zuan. Baiña etzan berotzen, eta orduan bere oean sartu zuan, naiz eta legenardun (*leproso*) bat zala ikusi.

Bat-batean, ordea, eskalearen aurpegia eta arropak garbitu eta argi zeriotea jarri ziran, berak onela ziola:

–Aingeru bat naiz, zure penitentzia onartua izan dala esatera Jaunak bialdua. Zu eta zure emaztea aurki zerura joango zerate, betiko atsedenera.

Bai egun gutxi barru ala gertatu ere.

Irakurlea oartuko zanez, leienda au eta Goñiko Teodosioren berdintsuak dira. San Migeleko santutegia eta Ororbiako erri au ez daude alkarrengandik urrun. Are geiago: Aralarko aingerua urtero etortzen da onera udaberrian. Egun batez, beraz, San Julianen kontaera entzungo dute emengo fededunak; eta beste egun batean, Goñiko zaldunarena. Orra txapel batez bi buru estali, beraz.


Kaleetan barrena, elizaraiño iritxi naiz. Sarrera gotikoa du. Nere poza atea zabalik ikustean! Barrua ere gotikoa. Bai ederra eta arretaz kontu egiña ere.

Apaizak argi guziak piztu dizkit, eta aldarearen ederra! Goitik beera aurre guzia artzen duana da. Erdi-erdian, erri ontako zaindaria bera danez, San Julian, eiztariz jantzita. Goien eta saietsetan amabi bat kuadro, XVI mendekoak, Jesusen aurtzaroko gertaerak erakusten dituztenak.

Eta bean, lau kuadro, San Julianen leiendaren adierazgarriak. Batean, oreinak bere abisua ematen diola; bestean, andreak Juliani oean ildakoak bere gurasoak dituala esaterakoan; irugarrenean, pobreen babeslekua izango dan ostatua altxatzen ari dirala; eta laugarrenean, legenardun itxurako aingerua txalupan sartutakoan. Artista on baten lana danak ere.

Elizan bakar-bakarrrik aiei begira nengoala, batenbat koroan organoa gozo-gozo jotzen ari zan. Esan bearrik ez dago ordu laurden zoriotsua antxe igaro nuala.

El Diario Vasco, 2003-04-11



Ororbia, Naparroa.

San Fausto nekazaria eta Buxandako erria

Arabako Buxandako erria Muela mendiaren oiñetan dago, magal gozo batean. Eliza eta dozena bat etxe dira. Mendiaren gaillurrean, arkaitz zuriak; egaletan ariztiak, udaberriko kolore argiarekin; soroak, gari mardulez estaliak. Txoriak, kukua eta kirkirrak kantuz. Erleak, berriz, lorez lore.

Emengo elizan San Fausto nekazariaren gorputza gordetzen da, usteldu gabe. Banoa eliza aldera. Atarian, arri-sillarez egindako aulki luze bat, ia kuadroa egiten duana. Mezetatik atera, or eseri eta makiña bat tertuli egiña izango da emengo jendea.

Sarreran idazki bat bi izkuntzatan, Buxanda, Antoñana, Korres eta Durruma-Kanpezu (*San Román de Campezo*) erriak garai batean elkarte bat osatzen zutela oroitazteko.

Eliza itxita dago, gaur erri danetan bezela. Ezin ikusi, beraz, San Faustoren aldarea eta gorputzaren kutxa. Kanpotik bijoakio nere agurra.

Santuaren berri liburuska onek ematen du: *Vida, Gloria póstuma y Novena de San Fausto Labrador, cuyo incorrupto cuerpo se venera en el pueblo de Bujanda, Hermandad de Campezo, en la M. N. y M. L. provincia de Alava, particular protector en la fecundidad de los matrimonios y fiel custodio de los campos y frutos*. Vitoria (1926)". Nik bigarren argitalpena det: "*Reimpresión: Imp. Matos - Monreal, Vitoria (1983)*".

Santu au Katalunian jaioa zan, Alguayre errian, eta txikitandik birtutez jantzia: pobreen laguntzaille, naigabetuen poz emale, ezjakiñen erakusle...

Batean, norabait joateko itxasoratu egin zan; Mediterraneoan, noski. Baiña moroak, Espaiñian artean sartu gabe bazeuden ere, Ipar Afrika guzia berena zuten. VII

mendea, beraz. Ala, aietako itxas-lapur batzuk santua zi-joan ontziaz jabetu ziran. Afrikara eramane eta biotz gogorreko nagusi baten mende jarri zuten. Onek baratza-lana agindu zion. Baiña errezatzen ikusi eta zigortu egiten zuan. Santuak orduan zer lan egin bear zuan goizero esateko eskatu zion; eta etzuala bukatu gabe utziko.

Nagusia konforme. Biaramonean, landu bearreko puska seiñalatu zion. Baiña santua ara joan, atxurra lurrean utzi, bera belauniko jarri eta errezatzeari ekin zion, begiak zerurontz zituala: eta atxurra orra lanean bakarrik asi, iñork erabili gabe.

Mirari au San Isidrorena baiño aundixeagoa da. Santu au mezetan zala, idi-parea aingeru batek eramaten zuan; baiña San Faustoren atxurra, esan bezela, bera bakarrik mugitzen zan.

Andik puska batera, nagusia etorri eta baratzako atearen zirrikitu batetik zelatan jarri zan. Santua belauniko eta atxurra bera bakarrik lanean ikusi zuanean, aitarenka etzan asi, moroa zanez; baiña bai txorabiatu eta korderik gabe lurrera erori.

Arek erortzerakoan egin zuan otsa entzunda, santua zutitu eta berarengana joan zan. Nagusia bere onera etorri zan, eta ondoko egunetan San Faustok Jesusen dotriña erakutsi zion, eta moroa kristau egiteko prest jarri. Iñori ezer esan gabe, biak ontzi batean sartu ziran. Alguayre-ra, santuaren jaioterrira, etorri eta moroa bertan bataiatua izan zan. Bai andik aurrera biak alkarrekin bizi ere, santua il zan arte. Oni onela galdetu zioten erioztaren orduan:

–Nun nai dezu zure gorputzari lur ematea?

–Ni il ondoren –erantzun zien–, nere gorputza nere zaldiaren gainean jarriko dezute, eta libre utzi. Ura gelditzen dan tokian, antxe lur eman neri.

Ala egin zuten. Zaldiak, berriz, bideari ekin zion, eta segi eta segi, lau ibai aundi pasatuz: Ebro, Cinca, Aragón eta Ega. Lurralde auek korritu zituan, beraz: Katalunia, Aragoi, Naparroa eta Araba.

Zaldia Buxanda erri ontara iritxi zan, eta orain eliza dagoan ortara igotzen asi. Iru aldiz erori zan, ordea; eta leku oiek gurutze banarekin seiñalatuta daude. Irugarrenez eroritakoan, etzan geiago zutitu. Uraxe zan, beraz, santuak nai zuan tokia; eta eliza antxe altxatu zuten aren izenean.

Erromesak asi ziran nunaitik etortzen. Miraririk aundiena, aren gorputza ez usteltzea. Baiña beste pare bat konta dezagun.

Jende asko zan batean, gorputz santuaren kutxa kanpora atera zuten. Gizon eskomunikatu bat ere bazan tartean. Arek ere kutxa ikutu nai, eta alderatzen asi zan. Baiña kutxak atzeraka iges egiten zion. Orduan gizon ura damutu eta konfesatu egin zan. Gero etorri eta etzan kuxarik mugitu.

Naparroako erri batetik etorri ziran batean erromeriz; eta gizon batek, santuari mun ematerakoan, imurtzi egin eta puskatxo bat kendu zion, erliki bezela beren errira eraman eta elizan jartzeko. Bueltakoan abiatu ziran, bada, etorri bezelaxe, danak batera. Baiña Buxandako mugara irixterakoan, andik aurrera iñork ere ezin pausorik eman. Zer zan ura? Erruduna an azaldu zan lotsa-lotsa eginda, eta bere pekatua aitortu. Danak itzuli ziran orduan barkazio eske, ostutakoa bere lekuan uztera. Ori egindakoan, etzuten errira bidean eragozpenik aurkitu.

Kalez kale asi naiz. Etxe ederrik bada; bai arma-arri dotorerik ere. Kale-izenak euskeraz eta erderaz daude. Euskeraz: Eguzki kalea, Kale Nagusia, Plaza San Fausto, Iturri kalea, Arrosondo kalea (*Calle el Rosal*), Urdai Gutxi kalea (*Calle Poco Tocino*)...

Zakur bat zaunkaz asi zait. Erriko beste guziak ere bai ondoren. Orra aitona bat, kereixondo baten itzalpean. Onek esan zidanez, eliz-artxiboa erre egin zan, eta santuari buruzko paperak orduan galdu. Zakurrak, naiz eta etxe barruan egon, kotxe bat kaletik pasatzerakoan, errikoa baldin bada, ixilik gelditzen dira. Baiña kanpotarra bada, zaunkaz asi. Ori nola ezagutzen ote dute? Auskalo!

Errian barrena ibiliz, bistak ikusiz, leienda gogoratu-
tuz, bi ordu gustora pasa ditut. Baiña santu onek bere go-
zos edo kantak baditu. Ona bertso bat:

*Bujanda, pueblo dichoso,
posee tu Cuerpo Santo
incorrupto, y por tanto
en todo el mundo famoso;
en él todo es prodigioso,
todo belleza y primor:
dadnos a todos consuelo,
¡oh San Fausto Labrador!*

El Diario Vasco, 2003-05-17



Buxanda, Araba.

Baztan Berri (*Nuevo Baztán*)

Madrilleko probintziaren barruan bada *Nuevo Baztán* izeneko erria. Guk idazlantxo ontan, euskeraz ari geranez, Baztan Berri esango diogu. Arako bidea nundik dan? Madrilletik ogei ta amar bat kilometrora, eguzki aldera, Alcalá de Henares erri ospetsua aurkituko degu. Andik berriz, ego aldera eta ogei bat kilometrora Baztan Berri ori azalduko zaigu.

Lurralde oni *la Alcarria Madrileña* esaten diote. Baiña Alcarria-ren puskarik aundiena Guadalajarako probintzian dago, eta oso famatua da, leen eztiarengatik, eta orain Camilo José Cela zanak *Viaje a la Alcarria* izeneko liburua idatzi zualako.

Lurralde au ordeka aundi eta zabala da, gari-soroz ondo ornitua. An urrutian jotzen dute alkar lurrak eta zeruak, onek eta itxasoak egiten duten antzera.

Tarteka, ordea, ibaiak erreten luzeak ireki dituzte. Orregatik, kamioa gora-beeraka dijoa. Erriak, berriz, batzuk sakonetan daude; besteak, berriz, lurraren sorbalda gaiñetan.

Ni joan nintzanean, udazkena zan. Eguzki ederra, zeru urdiña, makalak-eta urre-kolorez jantziak. Eguraldi zoragarria. Udaletxean erriaren berri ematen duan paper txukun-dotore bat eman zidaten. Andik artuak dira orain esango ditudanak.

Juan Goienetxe, Arizkunen 1656-an jaioa, gurasoak Madrillera bialdu zuten, jesuiten ango ikastetxera. Beraren maisu bat Aita Bartolome Alcázar izan zan, 1714-an gaztelerazko Akademia sortu zuana.

Gure arizkundarra Madrillen gelditu zan bizi izaten. *La Gaceta de Madrid* izenekoa ateratzeko baimena lortu zuan 1697-an. Espaiñiako leen periodikoa uraxe izan omen zan. Karlos II erregeak konfiantzazko gizona zuan, eta kargu aunditan jarri ere bai. Baiña Goienetxek ez



Baztan Berri, Madrid.

omen zuan konde edo markes-titulorik nai izan. Aren iri-tziz, erreinuaren etorkizuna etzegoan aundi-mandietan, lanean baizik.

Gauden leku ontan erri berri bat eraikitzeko asmoak artu zituan. Zer izen jarri? Bera jaiotako lurra bururatu zitzaion une ortan, eta *Nuevo Baztán* aukeratu; Baztan Berri, alegia.

Kristala, jaboia, eltzeak eta abar egiteko lantokiak sortu zituan, langilleak andik eta emendik ekarriz. Auentzat etxeak eta eliza egin zituan: eta bai bera bizi izateko jauregi eder-bikaiña altxa ere. Ortaz gaiñera, ostatua eta gaixotegia. Churriguera zan garai artan Espaiñiako arkitetorik ospetsuena; eta ura deitu zuan emengo lanak egitera.

Eliza berria noren izenean jarri? Ori galdera! Ez al de-gu esan Goienetxe au naparra zala? Xabierko San Fran-tzisko aukeratu zuan, beraz, emengo zaindaria izateko. Are geiago, santu onen ama ere baztandarra zan jatorriz, Azpilkuetakoa, eta erri au eta Arizkun muiño banatan daude, alkarri begira.

Karlos II ondorengorik gabe ildakoan, gerra piztu zan errege berria nor izango (1700-1714). Goienetxe Borbon-tarren alde jarri zan. Auek irabazi zuten eta errege be-rriak, Felipe V-ak, maitea izan zuan gure arizkundarra. Bein batez onela esan omen zuan:

–Beste bi Goienetxe banitu, Espaiña laister jarriko nuke atzerriko erreinu guzien aurretik.

Juan Goienetxe 1735-eko apirillaren 12-an il zan, be-rak sortutako Baztan Berri ontan, eta bertako elizgaiñean edo *bóvedan* illobiratu zuten.

XVIII mendearen erdi aldera, erri onek larogei bat etxe omen zituan, eta berreun eta berrogei ta amar bat bi-zilagun. Baiña aita ildakoan, ondorengoak leengo martxa-ri ezin eutsi izan zioten, eta emengo lantokiak bereala asi omen ziran gainbeera.

Eliza eta jauregia alkarri itsatsita daude. Aurrean, plaza ederra. Ezker-eskubi, etxe zaarrak, arrizkoak, plan-ta bakarrekoak, Goienetxek altxa eraziak.

Eliza atzean beste plaza zabal-eder bat, alde danetik itxia, balkoi luze batekin. Bertan zezenak jokatzeko omen ziran; eta Felipe V erregea bein-edo etorri zan ikustera.

Elizara urbildu naiz. Sarreraren gainean, Xabierko santuaren irudi bat ikusten det. Baiña ez eskuan gurutzeara gora altxata duala, baizik eta makil sendo-lodi bati eusten diola, eta bera pausoa airosu ematen ari dala, sotanaren egalak mugituz eta munduko azken puntaraino joateko asmoak balitu bezela.

Atea zabalik dago, barruan langille batzuk ari diran ezkerrean, eta barrura sartu naiz. Xabierko San Frantziskoren marmolezko irudi bat aldare nagusian. Ezkerrera, Guadalupeko Ama Birjiña. Goiko sapaian, Xabierko santua, Santa Teresa, San Inazio eta San Isidro, lauak egun berean santu izendatu ziran ezkerrean, 1622-ko martxoaren 12-an.

Irten, jauregi aldera joan eta ara or, atearen gainean, baztandarren arma-arria, *ajedrezado* alegia, Navas de Tolosa burrukaldian irabazia.

Batera eta bestera goiz eder artan bazterrak ikusten ibili ondoren, ostatura sartu nintzan. Andre bat zegoan ostalari, eta itz aspertu bat egin genduan.

–Nere aurrekoak erria sortu zanean etorri ziran erri ontara –esan zidan–. Geroztik gure familiaren zazpi belaunaldi bizi izan dira emen, etxe berean. Baztan Berritarretan zaarretakoak gera, beraz. Naparroako Baztan Zaarrea izana naiz ni, ura ezagutzera joanda. Andik onera ere etortzen dira au ezagutu naiez. Are geiago: Madrill, Balladolid, Balentzia, Toledo, Cuenca, Segobia eta inguru auetan bizi diran naparrak, onera etortzen dira martxoan, beren *javierada* egitera. Milla bat lagun biltzen dira. Meza entzun eta ondoren festa ederra. Ura jotak eta abar kantatu bearra!

Aurten, 2003 urtean, martxoaren 16-an ospatu omen zuten. Goizean, Zintruenigoko musikariak kalejira. Urrena, guruzbidea. Ordu batean meza, Peraltako kantari-taldeak kantatua. Bazkaria kanpoan, jauregiaren ondoan.

Urrena, musika, dantzak, kantuak. Azken agurra egiteko, *No te voyas de Navarra* kantu ezaguna danak batera, eta nor bere etxera.

Ni ere banoa nerera, urruti nago eta udazkenean egunak laburrak izaten diranez.

El Diario Vasco, 2003-05-30

Xabierretik Xaberrira

Meotz Naparroako Longida araneko erri bat da. Igan-de-arratsalde batez joan nintzan ara. Arrizko etxe ederrak ditu, batzuk dotore berrituak.

Andik, pista batean aurrera jarraitu nuan. Iraillaren asiera zan, eta eguraldi ederra zegoan. Soroak artean ori-ori agertzen ziran, naiz eta garia jasota zegoan; eta mendi illunak jira guzian, zeru urdiñaren azpian: Iruña aldekoak, Izaga, Illon, Leire... Urrutian, San Donato eta Aralar. Bi San Migel, beraz, alkarri begira: Izagakoa eta Aralarkoa.

Ordubete bat oiñez egindakoan, beste erri txiki batera iritxi naiz. Obeto esateko, erri izandako batera. Ez baita orain emen iñor bizi. Pareta zaar puskatuak nunai. Eli-za ere erdi erorita.

Aspalditik neukan onera etortzeko gogoia. Zergatik ote? Ni *Xabierren* bizi naizelako, eta erri onen izena *Xaberrri* dalako; *Javerri* erderaz.

Toki-izen ugaria da orixe inguru auetan. Bai Hueska aldean ere: Javierre, Javierregai, Javierrelatre... Zer esan nai duan edozeiñek daki: Etxaberri.

Ni bizi naizen Xabier ontan, beste gaztelu bat omen zan leenago, El Castellar izeneko mendian. Aren kondarrak izan bear dute gaur ere kasko ortan agiri diran arri-pillak. Ala, beste bat altxatzen asitakoan, Etxaberri jarri zioten izena.

Javerri au, berriz, mendi-zoko batean dago. Aurrena, beeko soro oparoak goldetuko ziran. Denborarekin, an ezer gabe geldituak, oneraiño etorriko ziran, basoa garbituz lur berri batzuk egitera. Etxea ere altxako zuten; eta Etxaberri izena jarri.

Izen berdiña, beraz, Xabier eta Xaberri. Baiña ezberdintasun bat badute, oso txikia itxuraz, baiña esan-nai

aundikoa. Leenengoa, berez *Xaberri* edo *Exaberri* bazan ere, *Xabier* biurtu zala. Berdin egin zuten *Ilunberri* *Lunbier* biurtuz; eta *Arteta*, *Artieda*. Erderaren joera da ori. Ala, latinezko *terra* eta *petra*, gaztelera *tierra* eta *piedra* ditugu.

Xabierreko santuaren denboran, eta bai leenago ere, onen gazteluari *Javier* esaten zioten. Ala azaltzen da agiri guzietan. Santuak ere beti *Javier* idatzi zuala uste det. Bein ere ez *Xaberri*. Aren garaian, euskeraz egingo zan inguru auetan, baiña gaztelera ere indarrean jarria, jende eskolatuen artean batez ere. Ala, erderaren eragiñez, *Javier* era berria onartua zegoan; eta *Xaberri* era zaarra baztertuxea.

Gaur ustuta dagoan erri onek, berriz, eutsi egin zion jatorrizko era zaarrari. Zer esan nai du orrek? Xabier, Lumbier eta Artieda, naiz eta emendik gertu dauden, au baiño leenago erdaldundu zirala; emen euskerak denbora geiago iraun zuala bizirik.

Inguru auetako toki-izen asko euskaldunak ditugu: Txurriko, Zuringo, Auzola, Terralde, Txukarte, Bardaziaga, Gendulain, Mugeta, Uli, Sasoia, Lareki, Artanga, Urtakain, Etxazar eta abar. Erdal izenik ere bada, ordea: Nieveras, Casas Viejas, Tres Mugas, Balsetas, Saleras, Boyeral... Aiek izen zaarrak dira; auek, berriak. Izkuntzak, izan ere, alkar jotzen dutenean, jendearen ezpainen ez-ezik, toki-izenetan ere alkarri bultzaka asten dira. Ala, toki-izenak izkuntza-aldaketaren pausoak erakusten dizkigute.

Pentsamentu oiek buruan nerabilzkiala, itzalpe batera urbildu nintzan, eta an zer ikusiko eta gizon bat, boseadore jantzian, *hamaca* batean etzanda, prismatiko batzuk tripa gainean zituala.

-Barkatu, siesta galerazi dizut eta.

-Ez, ez. Esna nengoan. Errian gelditzera, taberna-zuloan pasa bearko nuan arratsaldea. Emen, berriz, aize garbia arnastuz; eta egan dijoazen aideplanoak prismatiko auekin ikusiz, alde ederra!

Galdezka asi nintzaion, inguruetako berri jakin nairik. Berak ere bai jator erantzuten. Baiña bat-batean onela esan zidan:

–Toki oiek ezagutu nai badituzu, *katxarro* ontan eramango zaitut.

Berak ala esan zion, baiña *todo-terreno* eder askoa zan. Barrura sartu eta antxe abiatu giñan, mendi aietan barrena, gora eta beera, bide zakarretan aurrera. Basoa zan an nagusi: piñua, aritza, artea, ezpela, otea...

Noizbeinka, zintzilikario batzuk ikusten ziran zuzgaitz-adarretan.

–Zertarako dira oiek: bidea erakusteko?

–Ez. Basurdetara etortzen diranentzat, eiztari bakoitzak nun itxogin bear duan adieraztearren.

Basurdetik izango da, bai, aukera baso auetan. Dozenaka iltzen omen dituzte; baiña gero eta geiago da, ala ere. Arte-ezcurraren faltarik ez dute emendik aurrera izango. Bestelako eiza ere ugari da emen: usoa, oillagorra, erbia...

Iru bat aldiz gelditu egin giñan, ango ikuspegiaz begiei gozatu bat emateko. Alde batera, Ilunberri aldeko zabaldegia, erri txikiz josita. Eta an urrutian, Jaka aldeko mendiak: Collarada eta abar. Bestera, berriz, Irati eta Urrobi ibaien sakona eta inguruko mendiak: Areta, Elke, Rala, Artxuba...


Arizkuren erri izandakoaren ondotik igaro giñan. Gaur *jipi* batzuk bizi omen dira an, beren auntsak-eta zainduz.

Urrena, beeraka asi giñan, baso itxi eta illun batean aurrera, beeko zokoraiño jetxi arte. An zer ikusiko eta ermita eder bat, erromanikoaren bukaerakoa, oso txukun berritua.

Au ere erria izana, Zarikieta izenekoa. Etxe zaarren arriak an ikusten ziran pilletan. Baiña menditarte estu ontan bizimodua nola aterako zuten? Neguan etzuten eguzki askorik ikusiko.

Andik beera segi, errekaen ertzetik. Agoitz baiño le-
enago ezkerrera artu, eta berriz ere Meotz errira. Antxe
eman nion azken agurra nere lagun berriari, aspaldiko la-
gun zaarrak bagiña bezela, alkarren berri jakingo degula
eta abar aginduz.

El Diario Vasco, 2003-06-10



Zarikieta, Nafarroa.

Ai zer nolako irukotea!

Abenduaren erdi aldeko bazkalondo bat da. Tudela-tik abiatu eta Tarazonara nijo. Aurre-aurrean Moncayo aundia ikusten det. Oso beltz agertzen zait, eguzkiak atzetik jotzen du eta. Ertzak, berriz, elurrarekin txuri-txuri eta diz-diz.

Los Fayos izeneko errira iritxi naiz. Onerako zan gaurko nere asmoa. Aurrean Queiles ibaia du; atzean, mendi soil eta gorri baten arkaiztegia. Onen gaiñean gaztelu bat izan omen zan garai batean.


Etxeak ladrilluz egiñak dira. Kaleak, berriz, estu-estuak. Tximinietatik gora ke urdiña dijoa. Onek laiño mee bat jarri du teillatuen gaiñean. Baita erri guzia usai atsegingarri batez bete ere. Zer egur-mota ote da sukaldeetan erretzen ari dana?

Elizaren ondotik pasa eta arkaiztegiaren oiñera iritxi naiz. Burnizko eskaillera baten gora joan eta koba zulo aundi batean sartu. Andik ederki ikusten ditut, zeru urdiñaren azpian, erriko teillatuak, eliz-torrea, baratzak, so-roak eta muiñoak...

Arkaiztegi ontan koba asko ageri dira. Baiña ni nagan au danetan ospatsuena, Kako lapur famatuaren gordelekua izan zalako. Euskeraz ez; baiña erderaz iñori Kako deitzea, lapurra esatea da. Era berean, norbait oso indartsua dala adierazteko, Sansón edo Hércules bat dala esan oi degu.

Kako ura, lapurra izateaz gaiñera, erraldoi bat zan, gizon aundi ikaragarri bat, indar izugarria zuana.

Tarazona errian, berriz, beste bi erraldoi bizi ziran: Herkules eta Pierres. Kakoren berri jakin zuten, eta ura ezagutzera Los Fayos erri ontara etorri ziran. Sarreran emakumezko bat ikusi zuten soro batean, idi-parearekin goldean ari zala.



Los Fayos, Zaragoza.

Aren parera iritxi ziranean, onako galdera au egin zloten:

–Kako indartsua nun bizi da?

Emakume ura onen arreba zan; eta esku batekin goldea eta idi-parea gora altxatuz eta koba-zuloa seiñalatuz, onela erantzun zien:

–Antxe.

Herkules eta Pierres kobara zuzendu ziran. Kako asko poztu zan aiek ikustearekin. Baso ardo bana atera zien. Baiña basoak ez nolanaikoak. Bakoitzak ogei ta bost kantara artzen zituan, izan ere; eta kantara bakoitzak amar litro ditu. Aiek, ordea, esku bakarrarekin errez maneja zitezuten ontzitxo aiek.

Besterik gabe lagun miñak egin ziran iru erraldoi aiek, eta Moncayo aldera eizera joatea pentsatu zuten. Antxe ibili ziran baso, arkaitz eta malkarretan barrena, aruntz eta onuntz, gora eta beera. Alperrik, ordea: etzuten eizik ikusi ere egin.

Kopet-illun eta umore txarrez zetozen, beraz. Baiña alako batez orra legoi aundi-ikaragarri bat azaldu. Kako arengana joan, kokotzatik eta sudurretik artu eta goitik beera ireki zuan, aizkorarekin jo eta egur bat pitzatzen dan bezela.

Pierres izeneko beste indartsu arek, berriz, mendi-bei bat ikusi zuan larrean, eta arengana joan, anketatik artu, bizkarrera jaso eta etxeraiño bizirik eta buruz beera zintzilik ekarri zuan.

Eta Herkules, irugarren indartsua? Onek ere egin zuan berea. Pagalizar aundi bat sustrai eta guzi lurretik atera eta Tarazonaraiño eraman zuan, bastoi bat balitz bezela.

Argibide auek liburu ontatik artuak ditut: Juan Domínguez Lasierra, *Aragón Legendario, I* (Zaragoza, 1984). Baiña kobatik jetxi eta berriz ere kaleetan barrena nijoala, ona aitona bat non datorren. Onek beste berri batzuk ematen dizkit:

-Muiño orren gaiñean izan zan gaztelua Pierres eta Kakok egin zuten. Pierres orrek, arunzko mendi-punta artatik lurrez betetako otarrak botatzen zituan, aidean eta erriaren gaiñetik. Kako, berriz, beste mendi ortan zegoan, eta otarrak besoetan artzen zituan, lurrik batere galdu gabe.

Aitonari galdera egiten diot:

-Nondik nora ibiltzen zan Kako bere lapurretak egin bearrez?

Aren erantzuna:

-Ez, jauna, ez. Arek etzuan iñun ere lapurretarik egin ten. Arek aberatsei kendu egiten zien, baiña pobreei emateko.

Kakoren berri Tacito erromatar idazleak ere ematen du. Onek dionez, Herkules famatuak, Gerion gaiztagiña il ondoren, Tiber ibaia bazter batetik bestera pasa zuan, aurretik bere beiak zituala. Gauerako larre batean utzi zituan. Eta berak, lurrean etzan eta lo artu zuan. Inguruko artzai bat etorri zan orduan, Kako izenekoa eta indartsua bera ere. Bei eder aiek ikusi eta koba-zulo batera eraman zituan, ez danak, baiña bai mordo bat; isatsetik tiraka, ordea, eta atzeraka, oin-arrastoak aldrebes marka zitzaten. Goizean Herkules esnatu eta bei asko falta! Aien arrastoa segi eta alperrik. Baiña alakoren batean, gelditutako bei aietako batek *muuu* egin zuan, eta koba-zulotik beste batek *muuu* erantzun zion. Entzundakoan, Herkules korrika joan zan ara. Kako bidera atera zitzaion. Baiña Herkules orrek enbor lodi bat eskuan edo bizkarrean eramateko oitura zuan. Orregatik, leen esan degunez, menditik ekarri zuan pagalizarra. Ala, enbor ura gora jaso, arekin Kakori buruan jo eta illotzik utzi zuan. Gero, bei guziak ostera bildu eta bere bidean aurrera segitu zuan.

Herkules eta Kako, beraz, Erroma aldean alkarren etsai amorratuak ziran. Aragoiko txoko ontan, berriz, adiskide miñak.

Erriaren kaleetan barrena joan eta ibai ertzera iño jetxi naiz. Onen urak Moncayoko elurretatik datoz. Eguz-

kia ezkutatzera dijoa eta paseatzera irtendako aiton-amonak badijoaz etxeko epelaren billa.

Ni, berriz, erabat illundu baiño leen, Tarazonara ni-joa. Emengo udaletxean an baitaude, balkoi tartetan, Pierres, Herkules eta Kakoren irudiak. Aiek ikusi eta ni ere banoa etxeko epelaren billa...

El Diario Vasco, 2003-10-10

Euskaldun bat Veracruz-en

Eusebio Maria Azkue (1813-1873), Resurrezion Maria Azkueren aita, Lekeitioko semea, nautika-irakasle eta euskal olerkari saiaturia izan zan. Aren bertsoak semeak bildu eta *Parnasorako bidea* izenburuarekin argitaratu zituan 1896-an. Liburu ori leio bat da orduko Bizkaia zer zan ikusteko.

Semeak, itzaurrean dionez, ikutu batzuk egin zituan aitaren bertsoetan: «Berak erakutsiriko erderakada bat edo beste euskerazkotuta agertutea ona izango da». Orre-gatik, bertsoen itzak ez ditut semeak ateratako liburutik artuko, Aita J. A. Uriarteren bildumatik baizik, eta *Euskaldun bat Veracruz-en* izeneko atala izango da gaurko nere gaia.

Lekeitio-Mundaka aldeko mutil bat zan. Aren ama, «errijan zan ederrena»; aita, «gizon biargin ta on bat». «Amar urte nituzala –esaten du berak–, jakin zan errege il zala».

Fernando VII zan ori, 1833-IX-29-an illa. Ondoren, batzuek Doña Isabel nai eta besteak Don Karlos, gerra piztu zan. Gure mutilla 1823-an jaioa zan, beraz; eta: «ez nekijan nik / asiko zanik / agaitik gerran jentia / ta ain gitxi zer zan gerria».

Au dionak, amar urtekoa izanik, etzuan armarik artuko. Baiña aren begiak erne egongo ziran gertatzen zana gogoan artzeko. Ala, «zenbat ta zenbat euskaldun, / neuk nituzanak ezagun, / gazte bizkorak, / suan gogorak, / ai!, gerra onetan ill dira...».

Mutil orren aita ere familia utzi eta gerrara joan zan, eta: «Hernani ganen / eritu eben / eta etorri zan etxera, / zaurija sendatutera». Zer ote zuan? «Puskatuta eukan besua, / galduta erdiko txokua». Baiña «imiñi barik / iñok bendarik, / noz biar zan orduan uts, / gelditu nintzan umezurtz».

Noizbait bear eta: «egin zan gero bakia / guk galdu baga gerria». Karlidak ez baitziran garaituak izan. Alde bateko eta besteko buruzagiak, Esparterok eta Marotok alegia, konponketa bat egin zuten 1839-an, *Bergarako Bersarkada* esaten zaiona.

Auek danak mutil orren aoran jartzen ditu Azkuek; baiña berak ondo ikusiak zituan, gerra asitakoan ogei urtekoa izanik karlistetara joan zan eta.

Pakea etorritakoan, gure mutillak: «Amazazpi urte daukadaz / ta nago osasun onagaz». Ama alargundu da, «baña munduan / daukazu seme kutuna, / izatia zor dautzuna». Ogibidea nun aurkitu? «Itxasuetan / gaur geijentan / irabazten da geijago, / eta aberastu lenago». Asmo ori artuz, «eldu zan laster eguna, / neure amarentzat illuna, / zeñaen goxian / juañ giñian / euskaldun portu batera / ontzi bat billatutera». Bilbora joango ziran, ziur aski.

An «fragata eder bat eguan / Habanarako goguan; enbarkau nintzan / morroe gisan / ta berrogei egunian / Habanara eldu giñian».

Bai lantokia aurkitu ere: «Ontzijaen armadoriak, / bizkaitar gizon nobliak, / bere etxian, / almazengan, / kapitanaen esanagaz / artu ninduen pozagaz».

Mutillak, kapitanak eta armadoreak esku-dantza egin zuten, beraz. Euskaldun izatea naikoa zan garai artan emengotarrak alkarri laguntzeko. Gaur, berriz, ortaz gaiñera gure taldekoa izan bearko du; eta, ez bada, egurra burutik beera.

Almazan batean lana du, beraz, gure mutillak, eta: «Habanen neukan bizija / zan amak erakutsija: / goxian gox jagi / egon baga nagi, / mezia entzun ta gosaldu, / gero almazena zabaldu».

Bizimodu orrekin nagusiaren konfiantza irabaziko zuan, bai. Ala, «urte bi igaro ta gero, / neu ondo ezagutu ezkerro, / jeneruagaz / ta ugazabaz / juañ nintzan Veracruz-era / beste etxe bat imintera».

Veracruz ori Mejikoko itxas-portu bat da. Mejiko, berriz, Espaiñiaren mendetik atera berria zan.

An, «ekandu txarrik» gabe eta lanean gogor egiñez, euneko ogei irabazten zuan gure mutillak.

Ala, leenengo urtean eun ogerleko, eun duro eder bialdu zizkion andik amari. Diru asko, garai artarako. Eta gero gerokoak: «etxeko kaxan / dirua bazan / eta sarritan amari / bialdu neutsan ugari».

Baiña «egoten ginian sarri / españolak guztiz larri». Mejikotarrak, izan ere, beren askatasuna lortu berri artan, etzuten begi onez ikusten itxasoaz arunztik etorritakorik. Ala, «eldu zirian / ordu txarrian / Cuernavaca-ko matantzak, españolentzat garratzak». *Espasa* entziklopedian *Cuernavaca* itza begiratu det, baiña ez da *matantza* oien berririk ematen. Ala ere, lur ura nola edo ala odolez gorritua izango zan.

Albiste oiek kezketan jarri zuten gure mutilla. Eta bai bildur zuana gertatu ere: «Barijaku gau batian / eldu jatazan atian / soldadu batzuk, / igonda zeintzuk, / lotu ninduten sokakin / diadarrez: ¡*Muera el cachupín!*!».

Cachupín, erdal iztegiak dionez, zera da: *español establecido en América*. Baiña eraskin onekin: *despectivo*. Gaitz-izena, beraz.

Espetxera sartzen dute. «Ordutik ona kartzelan / bizi naz ez dakit zelan». Mutil gizarajoa bere buruaz etsita dago: «sarri ta askotan / daukat gogotan / amaituko balitzat bizija / ain daukat estu ta larrija».

Laguntzarik inondik ez. «Españako konsula / kontu egin ez daukagula / ez daukelako / emen aintzako». Bizkaian dagoan amaz oroitzen da: «Neure ama bijotzekua! / Nun dozu orain Jaungoikua, / alkantzetako / semiarentzako / zeuk euki zenduan indarra, / ill jatzunian senarra?». Aita ildakoan amak izan zuan balorea nai du semeak espetxean.

Or bukatzen da bertso-sailla. Onen gaia ez da, gure iritzirako beintzat, inoren burutik sortua, benetan gertatua baizik. Bearbada, mutillak eskutitzen bat bialduko zion amari, eta onek Eusebio Maria Azkueri berri triste oiek pasa.

Euskal bertsolariak, izan ere, istoria eskeintzen digute sarritan beren bertsoetan. Berak itz neurtuetan esana, oso errez biur diteke prosazko kontraera.

Baiña mutil ura kartzelatik atera al zuten? Euskal Errira osterera etorri ote zan? Etorri bazan, ama bizirik aurkitu al zuan? Izen-abizenak nola ote zituan? Orra inoiz erantzunik izango ez duten galderak...

El Diario Vasco, 2003-11-07



Lekeitio, Bizkaia.

Irureun urteko lo-aldi gozoa berriz ere

Liburu au eskuan artu nuan leengoan: Miguel Díez R. eta Paz Díez-Taboada: *La memoria de los cuentos (Un viaje por los cuentos populares del mundo)*. Bai; ipui oiek irakurtzea mundua korritzea da: Grezia, Italia, Alemania, Ingalterra, Frantzia, Irlanda, Errusia, Arabia, Siria, India, Txina, Tibet, Afrika, Ego-Amerika, Galizia, Leon, Toledo...

Ipui batek, Japongoa bera, zera kontatzen du: Urashima arrantzale gazte bat zala, itxasotik familia mantentzeko ainbat arrai egunero ekartzen zuana. Bein, mutikotalde bat ondartzan ikusi zuan, tortuga bati makilka eta arrika. Txanpon batzuen truke aien mendetik libratu eta uretara eraman zuan. Piztia, berriz, aldendu aurretik, bere salbatzailleari begira egon zitzaion puska batean.

Urashimak leengo bizimoduari jarraitu zion. Goiz batez, txalupatik arrantzan ari zala, itxasoa oso bare zegoan eta bere izena entzun zuan:

-Urashima! Urashima!

Begira jarri eta an ikusi zuan berak salbatutako tortuga. Onek itz auek esan zizkion:

-Eskerrak ematera etorri naiz. Itxas azpiko erregearen berri ez dakit dakizun. Baiña nik aren jauregira eramango zaitut, ango printzesaren mirabe naiz eta. Jarri nere gainean.

Urashimak ala egin zuan, eta biak antxe joan ziran, ur-azaletik leenengo eta azpitik urrena, arrai-taldeak aurretik eta atzetik zituztela. Ango erregearen jauregi zora-garrira iritxi ziran. Urashima kanpoan gelditu zan; tortuga, berriz, barrura sartu eta bereala itzuli:

-Printzesak ezagutu nai zaitu. Goazen.

Ango edertasuna! Ormak zillarrez, urrez edo perlaz egiñak izango ziran, argi egiten zuten eta. Printzesarengana iritxi ziran, eta onek:

–Milla esker egin zenduanagatik. Emen geldi zaite. Gaur nerekin bazkalduko dezu.

Otordu bikaiña egin zuten. Ondoren, printzesak ango ikusgarri guziak erakutsi zizkion. Urashimak ametsetan zala uste zuan. Andik iñora irten? Ez iñola ere, aal bazuan beintzat. Baiña eguna joan eta eguna etorri, eta beti alkarrekin zirala, printzesa eta Urashima maitemindu egin ziran. Bai ezkondu ere. Zorion aundiagorik izan al di-teke?

Urashima seme zintzoa zan, ordea; eta bere gurasoak gogoan zituan. Nola ote ziran? Bisitatxo bat gustora egingo zien, bada. Joan-etorri bat besterik ez. Bere naia agertu zion printzesari. Au tristetu egin zan, eta onela esan zion:

–Zoaz, bada, eta aguro etorri. Kutxa au eraman ezazu. Baiña etzazula iñola ere iriki.

Urashimak kutxa artu, tortugaren gaiñean jarri eta etorritako bidetik abiatu ziran. Urrutitik jaioterria ikusi zuan. Tortugak esan zion:

–Zai izango nauzu, atzera jauregira eramateko.

Errian sartu eta dana aldatuta ikusi zuan. Bere jaiotetxera iritxi zan, baiña lur jota zegoan. Jendea bazebillen ara-onera, baiña berak etzuan iñor ezagutzen. Amona bati galdetu zion:

–Urashimatarrak ez al ziran emen bizi?

–Ni emen jaioa naiz –erantzun zion–, eta etxe ori orrela ezagutu det beti. Baiña Urashima izeneko baten gertaera kontatzen zuten leengo zaarrak. Bein itxasora joan eta etzala geiago etorri. Tortuga baten gaiñean ikusi zuten, itxas barrura zijoala. Baiña irureun urte izango dira ori gertaturik.

Urashima txundituta gelditu zan. Berak urtebetekoa zala uste eta irureun urteko ametsa izan. Buru makur itxas-bazterrera joan zan berriro.

Orduan eskuetan zeukan kutxaz oroitu zan. Ura ez irikitzeke esan zion printzesak; baiña berak, zer egin

etzekianez, estalkia altxatu egin zuan. Barrutik laino gorri bat atera zan orduan; eta, ura aizeak eraman zuanean, bizkarra okertzen eta makurtzen asi zitzaion Urashimari; bista laburtzen eta galtzen; besoak eta anakak baldartzen eta aultzen; itz batean esateko, bera erabat agurtzen. Orduan oartu zan:

–Kutxa ontan nere gaztetasuna zegoan. Printzesak orregatik esan zidan ez irekitzeko. Baiña egin det eta nigandik betiko alde egin du!

Txoko batean eseri eta antxe egon zan, negarrez eta goibel, eriotzak eraman zuan arte.

San Birilaren leienda ez al da berdintsua? Birila Leireko praile bat zan, tentazio batek pakean uzten etzua: Jainkoa azken gabeko edertasuna da; baiña betikotasun guzian ari begira egon bearrarekin, azkenerako aspertu egingo gera. Batean, basora joan zan, eta iturri baten ondoan eseri. Txori bat txorrotxioka asi zan, eta bera an gelditu, ari entzunez. Ixildutakoan, buelta etxera. Basotik atera eta komentua aldatuta zegoan. Bertaratu eta ango praileak etzuten bera ezagutzen, eta berak ere ez ango prailerik. Zer zan ura? Irureun urte paseak zituan. Txori bati entzunez ainbat denbora zoriontsu igaro bazuan, Jainkoari begira etzan, beraz, betikotasun guzian aspertuko.

Beste leienda bat, *Efesoko zazpi lotiak* izenekoa degu. Zazpi gazte, alegia, Erromako enperadore bat kristauak iltzen asi zanean, koba-zulo batera sartu eta irureun bat urte lotan pasa zutenak.


Leienda au, norbait aldendu eta andik urteetara beirriro azaltzen dana, alegia, Galizian eta Alemanian ere kontatzen da. Eta toki geiagotan ere bai, ziur aski. Bai Japonen ere, ikusi degunez.

Orain iduripena egan jarri eta, erderaz *ciencia-ficción* esaten zaiona egiten dan bezela, guk *historia-ficción* egingo degu. Istorioa-nobelak (*novelas históricas*, alegia) bide beretik ez al datoz? Kontu egin dezagun, bada, Xabierko Santua orain ia bosteun urte Japonera joan zanean, an-

go batek Urashimaren ipuia kontatu ziola. Santua erabat arrituta geldituko zan. Berak Xabierko gazteluan edo Leirera igotako batean entzuna, an ere kontatzen zala, alajaiña!

Batzuek diotenez, santu ori Japonera iritxitako leen europarra da. Bearbada bai. Baiña naparra ara baiño leen, ipui orrek bide ori egiña izango zuan, zenbait txeetasun aldatuz, andik onera edo emendik ara.

El Diario Vasco, 2004-01-03



Kodes, Naparroa.

Kodesko Ama Birjiña, Juan Lobo gaizkillea eta abar

Kodes izeneko mendi-kate luzea Naparroa eta Arabako mugan dago, Errioxatik ere urbil. Ioar deritzaio ango gaillurrik altuenari. Ipar aldera, pagadiak ditu; ego aldera, arkaiztegiak eta aritzak. Eta oiñean, Kodesko Ama Birjiñaren santutegia.

Ontaz asko idatzi da. Nik emen esango ditudanak, jaun-andre auen lanetatik artuak dira: Jazinto Clavería, Baleriano Ordóñez, Dolores Baleztena eta Migel Angel Astiz.

Kantabria izeneko erria ba omen zan garai batean Logroñotik gertu, mendixka batean. Oni el *Cerro de Cantabria* esan oi diote gaur egunean ere. Baiña Leovigildo erregeak bere gerra-gizonak ara eraman eta apurtu egin zuan 575 urtean.

Ala ere, angotar batzuek iges egin zuten, Ama Birjiñaren irudi bat berekin artuta. Kodesko santutegia dagoan tokia baso itxia omen zan orduan, eta irudia antxe izkutatu zuten.

Urteetara, 1350-an, inguruko jendea argi batzuk ikusten asi zan baso ortan gauetan. Urbildu eta arkaitz-zulo batean Zeruko Amaren irudia aurkitu zuten. Aien poza! Eliza altxatzeari ekin zioten. Gaur dagoana, ostatua alboan duala, geroztikakoa da. Toki egokia egun batzuk pakean pasatzeko.

Baiña XVI mendean, lurralde au bildurrez bizi zan. Emendik oso gertu, Punikastro izeneko mendian, gaztelu zaar bat zan. Uraxe artua zuten beren babeslekutzat gaizkille batzuek, Juan Lobo kapitanarekin. Albo-errietan eriotzak eta lapurretak egin, onera ekarri eta bapo bizi ziran. Emakume bat ere bazuten otorduak prestatzeko. Aien aurka sarritan atera zan inguruko jendea, baiña alperrik.

Bein, etxekojaun bat bidean zijoala, lapur oiek atera, dirua kendu eta gizarajoa beren gaztelura eramán zuten. Antxe zeukaten ederki lotuta. Arek, ordea, Kodesko Amari biotzez erregutzen zion.

Goiz batez, artzai batzuek, ermita ondotik pasatzera-koan, gizon bat ikusi zuten lotan, anka-besoak lotuta zeuzkala. Esnatu zuten, askatu ere bai, eta lapurrak preso zeukaten uraxe zan. Miraria zala eta albo-errietatik jende asko bildu zan.

Baita lapurren aurka joateko prestatu ere, an lotuta egondako gizona aurretik gidari zutela. Aren atzetik, San Juanen kofradiko gizonak. Eta aldi ontan, beren amorruekin, gaizkille guziak garaitu eta akaatu egin zituzten. Juan Lobo kapitana Pedro Mirafuentes-ek il zuan, bere lantzarekin alderik alde zulatuta, Valdemadre izeneko tokian. Orren oroigarri, arrizko gurutze bat altxatu zuten bertan.

Pozez oiuka eta kantari jetxi ziran menditik San Juanen kofradikoak. Torralba errira irixtean, zingira bat badago gaur ere antxe eta izen-zerrenda pasatu zuten. Etzan iñor ere falta! Danak onik etorriak ziran. Pozaren pozez dantzan asi ziran.

Arrezkeroztik, urtero, San Juan egunaren goizean, Juan Lobo gaizkille ura arrapatu zuteneko ospakizuna izaten da. Aren papera mutil batek egiten du. Baiña *Juan Lobo* esan bearrean, *el Moro* deitzen diote. Alamo-*duz* jazten dute, turbante eta guzi; bai arpegia erabat beztu ere. Mutil ori goizean goiz mendira joaten da, eta an izkutatu. Ordu pare pare batera, erriko gaiñontzeko mutilak ateratzen dira, *el Moro* ori arrapatzera. Batzuek andik eta emendik eraso, eta bestea gorde edo igeska, antxe ibiltzen dira, mendiaren egal eta zokoetan. Bitartean, jendea erritik begira.

San Juanen kofradiak irauten du; eta kofradikoak, bai gazteak eta bai zaarrak, dantzan egitera beartuak daude zingiraren ondoan San Juan goizean, beren aurrekoak egin zuten bezelaxe. Nik argazkiren bat edo beste ikusi ditut. Antxe ageri dira larogei urteko aitonak ere,

trajez eta korbataz jantzita, baiña besoak jaso eta dantzan ari dirala.

Urteen burura, Juan Merino izeneko apaiz bat etorri zan emengo kapillaua izatera. Juan de Codés izena artu zuan andik aurrera. Arek Ama Birjiñaren debozioa asko zabaldu zuan, leenaz gaiñera. Zapitxo batzuk ere bedein-katzen zituan Zeruko Amaren aldarean. Jendeak eraman eta gaixoen oetan jartzen zituan. Ori egiñik, asko sendatzen ziran.

Baiña medikuen irabaziak beeraka zijoazen. Zer egin zuten? Juan de Codés ori Inkisizioan salatu, aztikeriak egiten zituala eta. Salaketa ori Calahorra-ko Sepúlveda izeneko apaiz batek epaitu zuan: Juan de Codes deitu, erritaldi gogorra eman eta aurrerantzean olakorik ez egi-teko agindu zion.

Juan de Codés-ek obeditu zion. Baiña batean, eliz atarian zaldizko batzuk sentitu zituan. Eskutitz bat zekarten. Norena eta Calahorra-ko Sepúlveda orrena: gaxorik zegoala, medikuak etzutela sendatzen, oiñaze aundiak zituala eta zapitxo batzuk bedeinkatzeko eta bialtze-ko, arren!

Medikuak etziran orrekin konforme. Gaizkille batzuk pagatu zituzten, Juan de Codés nola edo ala garbitzeko. Gauzez etorri eta aren etxera sartu nai izan zuten, baiña ezin pausorik eman, eta ara igotzeko eskaillerarik ere ezin billatu.

Juan de Codes larogei urterekin il zan, eta Kodesko Amaren oiñetan lur eman zioten.

Kodesko Ama Birjiñaren santutegi onek eta inguruak beste zer kontaturik asko dute. Urrengo baterako utziko ditugu.

Onera datozen gazteei zera esango diegu: Ioar izeneko tontorrera ere igotzeko. Mendi ederra da, eta ango bistak! Iparraldean, Pirineoko tontor zuriak, Ortzanzurieta, Aralar, Aizgorri, Gorbea... Ego aldera, Moncayo, Urbión, Demanda... Ebro ibaiaren zabaldegia: Araba, Errioxa, N-parroako Erribera...

Nik neronek debozio aundia diot Kodesko Ama Birjiñari. Gaztetan mendizale batzuk bagiñan, eta taldeko bat inguru ontako erri batekoa zan. Arek erakutsita, emengo Amaren kantan ikasi genituan, eta Jainkoak bakarrik daki arrezkerotik zenbat tontorretatik kantatu degun:

*De la celestial Sión
donde habitas y nos ves,
Madre de Dios de Codés,
échanos tu bendición.*

El Diario Vasco, 2004-01-20

Apaiza eta piztia burrukan

Orain urte-mordoa, ipar aldeko Emile Larre apaizarekin itzegin nai nuan. Telefonoz deitu eta onela esan zidan:

-Zatoz biar goizeko amaiketarako Bankara.

Iritxi nintzanean, antxe zegoan bera. Baita Baigorriko erretorea ere. Andik laster, beste amabi edo amabost apaiz bildu ziran. Oitura alaxe zuten orduan: San Juan aurretik, eliz-lanik astunenak bukatutakoan, alkarrekin bazkari bat egitea.

Andik, Hairako basoan sartu giñan, eta aldapa gora ekin, mendi-lepo batera iritxi arte. Gure bazkaria ango eiztari-txabola batean izango zala. Artean denbora bagenduan eta Adartsa mendira igo giñan. Bista zabala angoa: Luzaide, gure oiñetan. Egoaldera eta ezker-eskubi mendiak: Auza, Adi, Lindux, Ortzanzurieta, Beorlegi, Ori... Iparraldera, Bee-Naparroa gure begien mende.

Jetxi eta bazkaltzen asi. Otordu oietan aurrena gai serioak erabiltzen dira. Batek auxe kontatu zuan: Napoleonen denboran, Baigorriko semea zan Harispe jenerala, Espaiñiako erri batera iritxi zala bere soldaduekin. Ango jauregi bat artu zuten ostatutzat. Apaltzerakoan, etziran ausartzen ardoa probatzen. Etxekoandreak, ori ikusirik, edan egin zuan. Bai ondotik frantzesak ere, Harispe ez beste guziak. Biaramon-goizean, etxekoandrea eta edan zuten guziak illotzik zeuden...

Urrena, gai alaien txanda. Batek Ebreotarrak basamortuan zijoazeneko ipui bat kontatu zuan. Noizbeinka Moises Sinai mendira igotzen zan, eta an Jainkoarekin itzegin. Batean, ordea, emakume-sail aundia etorri zitzaion, onela esanez:

-Erditzerakoan, guk oiñazeak izaten ditugu. Aurra-
ren aitak, berriz, batere ez. Ori ez dago ondo. Urrena Jainkoarekin itzegiterakoan, eska zaiozu, gure partetik, gizo-

nezkoak ere guk ainbat sufri dezatela une ortan, danak berdiñak geranez.

Moisesek pasa zion mandatua Jaungoikoari, eta onek ontzat artu. Andik laster, arotz baten emazteari irixi zitzaion erditzeko ordua. Gajoa miñetan zan, eta aren ondoan beraren senarra. Miñik bai ote zuan galdetzen zioten oni, eta ezetz. Imurtzirik txikiena ere etzuala. Danak arrituta.

Baiña andik laster zera zabaldu zan: alboko gizonak ordu artan tripako min aundiak izan zituala. Emakumeak orduan presaka joan ziran Moisesengana, zera esanez: Jaungoikoari eskatzeko, arren, gauzak leen bezelaxe segi zezatela.

Sukaldaria apaiz motz-lodikote bat zan. Bazkalondonan gure esker ona agertu genion, eta aren berri orduan eman zidaten. Ganix Ibarburu zeritzan, eta Bera-Bidasoan jaioa zan. Baiña andik laster familia Sarara aldatua.

Apaiz egiteko bezperan, bataio-ageria falta zitzaion, eta muga itxita egoten zan garaia zan. Bera, orduan, Baionan trena artu eta Donibane-Lohizunera. Andik, oiñez eta mendiz, Berara. Emen ageria jaso, eta ekin berriz ere, Donibanera oiñez eta Baionara trenez. Biaramon-goizean antxe zan, bear zan tokian, paper guziekin.

Lagunak zera eskatu zioten orduan: orein (*ciervo*) batekin zer gertatu zitzaion kontatzeko, arren. Pixka bat kosta zitzaion, baiña asi zan.

Urtea 1959-a izango zan, bera Zuberoako Larrainñen erretore zala. Batean, ango eiztariak basurdetara atera ziran, bera ere taldekoa zala.

Muga pasa eta gure apaiza Irati ibaia sortzen dan inguruan jarri omen zuten zai, Ori mendiaren azpian. Elurra ere bazan an eta emen.

Apaiza bakarrik geratu zan. Puska batera, orein bat agertu zitzaion, arra, Naparroako Aldundiak pizti oiek Alemaniatic ekarri berriak zituan eta. Oreiña berreun bat metrorra gelditu zan. Ordubete-edo egin zuten orrela, alkarren urbil, piztia belarra janez eta apaiza denbora-pasa.

Ala zirala, apaizak, basurderik etortzera beste pizti ura oztopo izango zualakoan, arri bat tira zion, uxatzearen. Bai zera! Oreiñak, burua makurtu eta eraso egin zion, zezen bat bezin sutu.

Apaizak ozta-ozta eldu zion adarretatik, eta an asi ziran biak nork nor menderatuko. Piztiak kolpeak jotzen zituan, eta apaizak eutsi. Onek lepoa biurtzen zion, baiña ezin lurreratu. Biak nekatzen zijoazen. Apaizak, ordea, eskopeta nolabait ere bizkarretik eskuraino jetxi zuan, eta oreiñari tiroa eman zion. Onek iges egin zuan, odola zeriola, eta apaiza an gelditu, neke-neke eginda, arnas larrian.

Lagunak etorritakoan, errira jetxi ziran, eta tabernan sartu. Bai apaizak gertatutakoa an kontatu ere, bertako guziak parre egiten zutela.

Biamamonean, eiztari batzuk ostera mendira igo ziran, odolari segi eta aberea ilda aurkitu zuten, tiroa artutako tokitik gertu eta putrez inguratua.

Burruka orren berri zabaldu zan. Bai periodista baten belarrietara iritxi ere, eta arek arazo guzia *Paris-Match* edo alako aldizkari batean kontatu zuan, *Apaiza eta piztia burrukan* izenburuarekin. Ortik, *Sociedad Protectora de Animales* elkartekoak gertatuaren berri ikasi zuten, eta bai gure apaiza salatu ere. Ala, onek multa pagatu bear izan zuan. Berak onela zion:

–Nik nere burua zaindu besterik egin al nuen?

Bazkaldar guzien parrak! Kafea artzeko unea zan eta ura ango giroa! Nik aitzakiren bat jarri eta irten egin nintzan. Andik gertu, errekatxo bat zan. Bertara joan eta nere burua freskatu nuan. Gero, pago baten itzalpean eseri nintzan. Bero egiten zuan. Ardi batzuk antxe zeuden abarogan.

An nengoala, nere lagunak kantari asi ziran. Apaizei *beleak* esan oi zaie; baiña aiek, batzuek goitik eta besteak beetik, erretxiñolak bezela kantatzen zuten. Ederra benetan pago tarteko txabolatik zetorren kantu-otsa: *Iduzki denean, Prima eijerra, Txarmangarria zira...* Ardiak ara

begira jarri ziran. Adartsa mendia ere kantari asi zan, oiartzuna andik zetorren eta. Ondoren, Bankara jetxi gihan eta an banatu.

Urte batzuk badira Ganix Ibarburu apaiza il zala. Joan dan udaran, Larraiñen izan nintzan. Bi gizon aurkitu nituan, aren galdea egin nien eta:

-Hura hemengo jaun erretora izan zen, bai. Ihizian eta arrantzan gostu handia zuena. Herriak maite zuen. Gu biak haren bereterrak (eliz-mutillak) izan ginen...

El Diario Vasco, 2004-03-12

Matsondoko Ama Birjiña eta idiazabaltar bat

Madrilleko bidea Arandan utzi eta ezkerrera artu det. Kilometro gutxira, Duero ibaia arrizko zubi zaar baten gainean igaro eta orra aurrean antziñako komentu eder-bikain bat; Arantzazuko kanta zaarrak dionez, «komentu poderoso», «arri labraduz egiñik». Arrigarria benetan eliz-atea. *Nuestra Señora de la Vid* izeneko irudia gordetzen da emen. Guk, euskeraz ari geranez, *Matsondoko Ama* esan genezaioke.

Aurrena, beraren leienda konta dezagun, liburu ontatik artuta: Joaquín Pérez Sanjulián: *Historia de la santísima Virgen María, del desarrollo de su culto y de sus principales advocaciones en España y en América*, Barcelona, (1995).

XII mendean, Gaztelako errege Alfonso VII eta bere zaldunak baso baten barrena zaldiz zijoazela, argi bat ikusi zuten. Bertaratu eta, negu gorria izan arren, ostoz eta maats-mordoz betetako matsondo bat ikusi zuten; eta gainean Zeruko Amaren irudi eder bat, argia zeriola. Erregea eta bere lagunak zaldietatik jetxi eta belauniko jarri ziran.

Premostratenses izeneko praileak asi berriak ziran Frantzian. Aien bizimodua artua zuten Gaztelako bi gaztek, aundikietakoak biak ere. Aietako batek ekin zion komentu au altxatzeari, erregearen laguntzaz. Praile oiek emen izan ziran, Espaiñiako komentuak gobernuak 1835-ean beretzat artu zituan arte. Gaur diranak agusti-noak dira.

XV mendean, emen gertuko gaztelu batean, Ramir Flores izeneko aundiki bat bizi zan, beste danak bere oinpean nai zituan oietakoa.

Batean, apaltzera konbidatu zuan beste gaztelu bateko nagusiak. Jauntxo eta zaldun mordo bat bildu zan, eta

ekin zioten danak lurralde ontako ardoa gogotik edateari. Nola ez? Pentsa: *Ribera del Duero*-ko mama gozoa izango zan eta.

Alako batez, *dan-dan* jo zuten atean. Nor ote ordu aietan? Atea zabaldu eta oiñutsik zijoan pelegrin bat.

–Zer nai zenduke, bada?

–Oso eguraldi txarra dago eta gau ontarako aterpea emango al didazute?

Baietz, bada, eta su ondoko txokoa utzi zioten. Aparia bukatzean, bertako nagusiak Ramir Flores dalako orri onela esan zion:

–Erne ibili zaite, gaurkoa bezelako gau batean deabruak ere inguruan izango dituzu eta.

Arek parre egin eta onela erantzun zuan:

–Nik ez diot bildurrik ez Jainkoari eta ez deabruari. Satanas bera etorri dedilla nere bidera, beste zeregiñik ez badu.

–Nik Zeruko Amari zugatik erregutuko diot, ondo premian zaude ta –esan zion pelegriñak.

Ramir Flores irten zan komentutik. Gau zitala zegoan. Bat-batean, tximista batek begiak itxutu zizkion, eta trumoiak belarriak gortu.

Ondoren, bi zaldun urbildu zitzaizkion, baiña beltzez jantziak eta kaskotik gora sua zeriota. Alde banatan jarri zitzaizkion, Ramin Flores jaunaren zaldiaren soka eskutik artu zuten eta, gure ipui zarrak diotenez, sorgiñak bezela joan ziran: «sasi guzien gañetik, laiño guzien azpitik».

Ramir ori bildurrez dar-dar zijoan; zaldun beltz aiek, berriz, parre algaraz. Jetxi eta arkaitz baten ertzean gelditu ziran. Azpian zulo aundi-beltz bat ikusten zan, sua eta kea zeriona.

Zaldun beltzak Ramir beso banatatik eldu eta ondora botatzera zijoazela, kanpai-otsa entzun zan. Zer ote zan? La Vid-eko komentu ontako ezkillak, gau erdiko ototzera deika.

Ramir orrek orduan ulertu zuan: zulo ikaragarri ura inpernua zan; zaldun aiek, deabruak; eta kanpai-otsaren bitartez aien atzaparretatik libratu zuana, Ama Birjiña. Ezkilla ixildu zan, zaldun beltzak zulo artan amildu ziran, eta lurrak bere aoa itxi zuan. Illargi betea ere azaldu zan laiño tartetik, eta orra aurrean La Vid-eko komentua. Esan bearrik ez dago Ramir jauna andik aurrera gizon berria izan zala.

Ni onera iritxi eta komentuko ezkaratzera zuzendu nintzan. An kuadro aundi bat ikusi nuan: praile bat, pobreei opil bana banatzen ari zana. Aren izena: Fray Sebastian Elorza Arizmendi.

Aren berri galdetu nuan, eta liburu bat eman zidaten bere bizitzarekin. Praile ori Idiazabalkoa zan, 1882-IX-25-ean Txomenarena etxean jaioa. Arizkorreta-Saletxe base-rrian ere bizi izan zan. Txikitatik mutil ona, Serotegiko Ama Birjiñari debozio aundia ziona. Emezortzi urterekin komentu ontara etorri zan, agustino sartzeko. Naiago izan zuan meza gabea izan. Bere urterik geienak emen egin zituan. Batean onela idatzi zien etxekoei:

«La próxima vez escribeme algo en euskera, por favor, para que no se me olvide; si no, a mí me pasará como a la vieja vizcaína, que no aprendió el castellano y olvidó el euskera. Tengo una gran pena de no haber traído un libro en vascuence cuando vine de ahí...».

Ez; kezka ori daukanak ez du amaren izkuntzarik aaztutzen. Erdera, berriz, ondotxo zekian arek, eskutitz ortan ikus ditekenez.


Urte askoan emengo atezaia izan zan. Aren kuttunak pobreak ziran. Andik edo emendik lortzen zuan aiei zer emana. Ortik ikusi nuan kuadroa. Eta kontuan ar deza-gun gerra ondoko urte estuak zirala.

Fray Sebastian Elorza Arizmendi ura 1942-ko abendu-ko Ama Birjiñaren egunean il zan, irurogei urterekin. Aldaretara eramateko asmotan dira, eta leen pausoak emanak daude.

Ni Gaztela erdiko monumentu bat ikustera joana nintzan, eta orra nere ustegabekoa: Euskal Erriarekin lotura sendo bat zeukala. Zergatik? Idiazabaltar arek Iparragirrerena ondo bete zualako: «eman da zabal zazu munduan frutua».

Ondoren komentua ikusi nuan: eliza, Ama Birjiñaren irudia, kapillak, klaustroa, bikaiñak danak ere. Onera datorrena ez da damutuko.

El Diario Vasco, 2004-06-01



La Vid, Burgos.

Galtzadako Santo Domingo

Santo Domingo de la Calzada erria Errioxan dago, Ebro ibaitik egoaldera, Oja ibaiaren ertzean. Ibai orrek eman dio lurraldeari izena: Río-Oja.

Santo Domingo Vitoria errian jaio zan, 1019 urtean. Mutikotan, gurasoak ardi zaintzen jarri zuten; eta gero, amar urterekin, Valvanera-ra bialdu, ango praileekin eskola ikastera. Bere maisuen bizimodua gustatu, ordea, eta aietako bat izatea eskatu zuan. Baiña, zergatik ez dakigula, etzuten onartu. Berdin gertatu zitzaion San Millán-en ere.

Orduan, Santo Domingo erria gaur dagoan ortan, ermita bat aurkitu zuan, eta bakardadean otoitz-bizitza egiten asi.

Baiña Aita Santuaren ordezeko bat etorri zan: San Gregorio. Garai artan xomorro batek gari guziak galtzen zituan, eta berari esker garbitu ziran soroak. Arengandik asko ikasi zuan Domingok, batetik bestera biok batera ibiltzen ziran eta. Baiña maisurik gabe laster gelditu zan, Logroñon il baizitzaion, gaur egun ere zutik dagoan etxe batean. San Gregorio orrek ermita edo santutegi ikusgarria du Naparroako Sorlada errian.

Domingo bere leengo ermitara itzuli zan. Zalantzan dago apaiz egin zan ala ez. Baiña lagun urkoari nola lagundu bereala ikusi zuan. Santiagoko erromesak andik barrena pasatzen baitziran. Baiña bide txarrak, zer janik ez, aterpe baldarrak, ibaiak pasatzerakoan arriskua... Eta, ori dana aski ez balitz, gaizkilleak eta besteren diruen zaleak, kristau baten bizitza bost xentimotan etzutenak.

Ala, gure santua bide berriak egiteari ekin zion, eta ez nolanaikoak, estrata edo galtzarak baizik. Ortik aren ize-nari erantsi zaion luzagarria: *de la Calzada*. Zubi bat al-



Santo Domingo de la Calzada, Errioxa.

txatu zuan Oxa ibaiaren gainean. Bai ere, San Juan de Ortégarekin batera, beste zubi bat Logroñon, Ebro ibaia-
ren gainetik. Erromesen ostatu izan zitezten, berriz, etxe
berriak eraiki zituan an eta emen. Bai gaixotegiak ere,
gaixoei kontu egiteko.

Denborarekin, santua bakardadean bizi zan lekuan,
etxe berri asko eraiki ziran, eta bera degu Santo Domingo
de la Calzada izeneko erria. Ango eliza katedral bikaina
da. Eliz-burua, santuak asia, erromanikoa. Gaiñerakoa,
geroztik egiña.

Batean, gure santuak beste santu baten bisita izan
zuan. Izen berekoa ura ere: Santo Domingo de Silos, eta
biak errioxatarrak.

Beste bein, zubi bat egiten ari zirala, arkua erori egin
zan. Arriak azpian arrapatuta bi langille il ziran. Baiña
Santo Domingok Zeruko Amari eskatu eta biak berpiztu
ziran.

Erromes bat bide-ertzean lo zegoala, gurdi baten kur-
pilla gainetik pasa eta il egin zuan. Santuak otoitz egin,
ordea, eta ura ere berpiztu.

Bein Domingok, baso baten ondoan zala, bear zuan
egurra salduko ote zion eskatu zion jabeari. Santuak igi-
tai bat eskuan zeukan eta besteak isekaz zera erantzun
zion:

-Igitai orrekin ebakitzen dezun egur guzia debalde
emango dizut.

Domingok gogotik ekin zion, bada, eta igitaiak, sa-
siak ez-ezik, arte eta aritz mardulenak ere kolpe batez bo-
tatzen zituan lurrera. Jabea korrika etorri zan, naikoa za-
la esatera.

Beste batean santuak idi-parea nai zuan. Saltzaille-
ak, isekaz, ezi gabeko zezen pare gaiztoa eskeiñi zion.
Konforme santua. Uztarrarian lotu eta ganadu mantxoago-
rik ez omen da oraindik ikusi.

Erromes batek, santuarekin asarretuta, makilka era-
bili zuan eta surtara bultza egin. Ondoren, bere bidean
aurrera jarraitu zuan. Baiña zubi batean beste erromes

batekin asarretu zan. Biak ezpatak atera eta antxe asi ziran nork nor zulatuko zuan. Bigarren erromesak, santua joka erabili zuan erromesaren eskua kolpe batez moztu zuan. Inguruan zebillen txakur batek eskua ortzetan artu eta nora eramango eta santua otoitzean zegoan tokira.

Santo Domingo larogeitamar urterekin il zan, 1109-ko maiatzaren 12-an, eta berak eraikitako elizan illobiratu zuten. Gaur egun ere antxe dago.

Santuarenganako debozioa, bereala asi zan. Ez erria bakarrik; baita erregeak eta aundikiak ere. Erromesak asko zabalduko zuten jaiera ori. Garai artan, Aita Santuak ez-ezik, obispoak ere santu-mailla ematen zioten beren ustez ala merezi zuanari, eta Domingorekin ere ori gertatu zan.

Españiako ingenieroak santu au dute beren zaindaritzat aukeratua.

Lan onentzako argibideak liburu ontatik artuak ditut: Agustin Prior: *El santo ingeniero y arquitecto riojano Santo Domingo de la Calzada*, Madrid, (1963).

Gaur ez dakit; baiña, 1963 urte ortan beintzat, liburu orrek agertzen duanez, oitura bereziak zituzten emengotarrak, beren erriko santuaren festa ospatzeko. Batzuen berri eman dezagun.

Festa aurreko amabi egunetan, goiz-illuntzetan, gizon bat kalez kale ibiltzen zan danborra joka. Zergatik ote? Santua orrelatsu ibiltzen zalako, pelegin galdurik billatuko ote zuan.

Festa egunean prozesioa: amasei neska, zuriz jantzita, otar batean santuaren irudia eta ogi aundi bana zeramatenak. Otarra, ederki apainduta. Aurretik, erriko bandera eta santuaren estandartea. Urrena, bi mando: bata, arkume batzuekin; bestea, urdaja, barbantzua, ogia, ardo-zagia eta abarrekin. Gurdi bat egur ere bai. Jaki oiek danak maniatu eta orra danak ere zerekin gosea kendu.

igitaiarena kontatu degu. Orren oroipenez, bi gurdi ekartzen zituzten egurrez kargatuta. Gurdiak eta idiak eliz barrura sartzan ziran garai batean, egur aiek bedein-

katzeko. Obispoari ederki kosta omen zitzaion ospakizun ori erriak kanpoan egin zezan.

Kurpillarena oroitzeko, argizaiezko kurpil moduko baten oparia egiten zioten santuari.

Baiña batedobatek onezkero esan du bere artean: «Eta miraririk ospetsuena, oilarra eta oilloarena alegia, noiz kontatu bear du onek?». Ori urrengo batean eskei-ñiko diogu irakurleari, gaurko ontan lekua bukatu zai-gu eta.

El Diario Vasco, 2004-06-12

Erretako oillar-oilloak kantari

Leengo batean Galtzadako Santo Domingoz mintzatu giñan: bizitza, berak irikitako bidea, altxatutako ostatu, gaixotegiak eta ibaien gaiñeko zubiak, egin zituan mirariak... Auetan ospetsuena, bera il eta gerokoa, orain konatatuko degu.

Bein, Santiagora bidean iru pelegrin etorri ziran Alemanitik, Kolonia aldetik: senar-emazte bi eta beren semea. Semeak emezortzi urte zituan eta Hugonell zeritzan. Santo Domingora iritxi eta gelditu nai izan zuten, santua-ren illobian errezatzeko.

Ostatura joan ziran. Baiña ango neskamea, mutil ura ikusi eta maitemindu egin zan. Pentsa: mutil lerden ederra izango zan, begi urdiñak eta ille oria... Ortaz gaiñera, erdal esaerak esaten duana: *Nunca dieciocho años fueron feos.*

Kontatu nai deguna Europa guzira zabaldu zan. Pelegriñak eramanda, dudarik gabe. Bai Zuberora ere. Ango pastoral batean, *Urkatuaren miraikulua* izenekoan, ostatuko neskameak Paskalina du izena, eta onela dio bakarriketa batean:

Ala beita miserable
neskatilen izatia,
reüsitzen ezin badie
amens bere pasionia.

(Bai errukarria dala neskatillen izatea, bere griña eta ametsa bete ezin badute).

Objet admirable batek
nai amuros errendatü,
bala kolpu batek bezala
ene bihotza sesitü.

(Begi-bista arrigarri batek nau maitale biurtu; bala-
-kolpe batek bezela nere biotza zauritu).

Eta ez jakin nurtzaz,
eztakit nunko den,
amoriuaren leinhüria
jarri zait bihotzen barnen.

(Eta ez jakin nor dan, eztakit nungoa den; amorioa-
ren landarea itsatsi zait biotzaren barruan).

Ezta, ez, inporta
nur nahi beita den,
harekila ünitü gabe
ezin niz igaraiten.

(Etzaio, ez, ajola, nornai izanda ere; arekin batu gabe
ezin biziko naiz).

Pelegrin gazte haren
manera eztiak,
dominatü uken du
ene zentzü guzia.

(Pelegrin gazte orren modu eztiak menderatu egin du
nere zentzu guzia).

Ala, neska ori badijoa Hugonell gaztearengana. Ba-
karririk artu eta onela dio:

Egündano amuriorik
eztit ükhen bestetan;
bena ikhusi bezain sarri
jarri zitadazüt zütan.

(Egundaiño ez det amuriorik besterengan izan; baiña
ikusi orduko zugana jarri zait).

Ene etxen heben
ohe hunik badüzü;
bena enia beno hoberik
batere eztüzu.

(Emen, nere etxean, oe onik bada; baiña nerea baiño oberik, bat ere ez).

Arren enekila, jauna,
gaur etzan behar düzü;
ene khorpitz eta arimaz
zure süsmis nükezü.

(Gaur nerekin oeratu bear dezu, jauna; nere gorputz eta animaz zurea nauzu).

Baiña mutil txintxoia izan ura eta ezezkoa eman zion neska tentatzaileari. Onen amorioa gorroto biurtu zan orduan bat-batean. Zer egin zuan? Ejipton Jakoboen seme Joseri egin ziotena: zillarrezko ontzi bat mutillaren poltsan sartu; eta iru pelegrin aiek ostatutik atera ziranean, agintariei salatu.

Auek mutillaren poltsa aztertu eta an zegoan zillarrezko ontzia. Garai artan eriotz-pena izaten zuten lapurrak. Bai gure mutillak ere. Urkamendi batean abe batek lepotik zintzilik jarri zuten.

Gurasoen naigabea! Egun pare bat negarrez pasa ondoren, beren bideari jarraitu zioten. Semea artean zintzilik zegoan urkamendiaren ondotik pasa bear zuten. Burua makur-makur eginda joango ziran. Baiña parera irixtean, ain ezaguna zitzaien abotsa entzun zuten:

-Aita! Ama!

Begiak altxa eta beren semea bizirik eta irriparrez ikusi zuten. Errugabea zanez, Santo Domingok bizirik gordea izan. Korrika korrejidore edo alkatearengana joan ziran:

-Gure semea bizirik dago! Urkamenditik aska ezazu-te leenbaileen!

Agintari ura bazkaltzen ari zan. Maaira ekarri berriak antxe zituan oillar eta oillo erreak, lurruna zeriotea. One-la erantzun zien:

-Zuen semea bizirik dagoela? Bai, oillar eta oillo auek bezela.

Ori esan eta oillar eta oillo erreak zutik jarri ziran eta batek kikirriki eta besteak kukurruku jo zuten. Eta maai gaiñean paseatzen asi ziran.

Joan eta Hugonell gaztea bereala jetxi zuten, eta be-
ra, gurasoak eta jende-mordoa santuaren illobiraiño eto-
rri ziran, eskerrak ematera.

Geroztik, Santo Domingoko elizan, ate gaiñean eta barru aldetik, kaiola aundi bat da, eta an oillar-oilloak ikusten dira, biak zuri-zuriak. Ala, eliza artan meza denboran kukurruku batzuk entzutea ez da arritzekoa.

Ori da, esan degunez, Santo Domingoren miraririk ospetsuena. Orrenbesterekin badaki irakurleak zergatik esaten dan: *Santo Domingo de la Calzada, que cantó la gallina después de asada.*

El Diario Vasco, 2004-06-19

«Plaza berriain aintzinean naiz...»

Urepeleko errian pilota-plaza berria egiña zuten, eta 1976 urteko abuztuko Andra Mariaren egunean bedein-katu eta estraiñatu bearra zan, ango festetan alegia.

Jende-multzo aundia bildu zan, bai erritik eta bai erbestetik ere. Xalbador zana ere an zan. Bedeinkazioa eta gainontzeko beste zeremoni guziak egin ziranean, edo egiten ari zirala, bertako bertsolari ospetsu orri bertsoaren batzuk kantatuko ote zituan eskatu zioten.

Baietz, bada; eta mikrofonora urbildu eta onela kantatu zuan, berak oi zuan seriotasunez:

Plaza berriain aintzinean naiz,
kantatzen dautzut gogotik,
plazain kargua herrian zer den
zuri erraitea gatik.
Euskal Herriko bil tokietan,
gaur eta egundainotik,
eliza dugu lehena bainan
zu elizaren ondotik.

Lurreratu da lehengo plaza
xume ta maitagarria,
hainbertze jori ihardokirik
ezindurik zen jarria.
Nola Urepel dugun pilota
maitatzen duen herria,
nork ez ote du gaur begi onez
ikusten plaza berria?

Gauza jakina da ez gaizkela
beti lanean arizan,
jostetak ere bere lekua
badauka gure bizitzan.

Plaza maitea, gure geroa
har zazu zure gerizan,
zutan laketu gazteen bidez
herri hunek irauñ dezan.

Bertso bikaiñak ziran eta ospakizun ura zer zan ego-ki adierazten zutenak. Jendeak gogoz txalotuak izango zira-rala esan bearrik ez dago.

Andik iru illabete eskas, azaroaren 7-an, Xalbadorri omenaldia eskeiñi bearra zegoan. Plaza berri ortan egin zitzaion, jendea Euskal Erri guzitik etorria zala. Baiña, dakigunez, iñork ere uste etzuan gertakizun illun batek eman zion festari bukaera: Xalbador bere eserlekutik al-txa eta oltzaduratik ixil-ixilik atera zala, aldameneko etxe batean azken arnasa emateko, jendeak, olakorik batere pentsatu gabe, *Gernikako arbola* kantatzen ari zan une berean.

Gertaera ori, Xalbadorrek berak beste gai bati buruz bertso-sail batean esaten duanez, «ihurtzuri bat bezala» izan zan Euskal Erriarentzat. Egun batzuetan etzan beste izbiderik izan gure artean. Alatsu izango zan, noski, bere sorterri Urepelen ere.

Emen, Xalbador itzali aurretik ala ondotik izan zan ez dakit, bein batez onela esan zuan norbaitek:

–Oroitzen al zirezte Xalbadorrek plaza berrian kanta-tu bertsuez? Bertsu ederrak, bainan, damurik, betiko gal-duak izanen dira.

Aldamenean zan batek onela erantzun zuan, ordea:

–Ez, bada! Jende tartetik olakok mañetofonaz hartu zituela uste dut. Berari galdatu beharko zaio.

Dalako hori Baionako-edo semea zan, baiña Urepele-ko alaba batekin ezkondua. Joan, eskatu zizkioten eta arek:

–Bai; hartu nituen. Baiña urrunetik eta jende tarte-tik. Hona hemen.

Bertso oien berri nik batere ez nekian, noski. Baiña Urepelera joan nintzan batean, Xalbadorren etxean bertso

oien gertaera kontatu zidaten. Nik, ori entzunik, onela galdetu nien:

–Eta bertso oiek nik ere entzun al nezazke? Kopiatzea gustatuko litzaidake.

Aien erantzuna:

–Bai, jauna, bai. Berealaxe gainera, zintaren kopia bat etxean dugunez.


Atera zuten zinta ori, mañetofon bati erantsi, marxan jarri eta Xalbadorren abotsa eta kantatzeko era ondo ezagutu nituan; baiña grabaketa txarra zan benetan, esan bezela jende tartetik eta urrunetik egiña; eta nik, ez nuan tutik ere ulertu. Etxekoentzat, ordea, dana garbi-garbi zegoan. Ala, berak esan eta nik idatzi, bertso zoragarri oien kopia bat patrikan nuala etxeratu nintzan.

Orain, ordea, nere pekatua aitortu bearrean naiz: paper orri ez dakit zer egin nion. Nere gelan izango dala dudarik ez det egiten; baiñan paper pilletan galdua edo izkutatua; edo-ta, orain esaten danez, desagertua. Makiña bat aalegin makiña bat aldiz egin ditut bera aurkitzearren, eta beti alperrik.

Azkenean zer egin det? Iparraldera pasa naizen batean, Xalbadorren alargunarengana joan eta ea bertso oiek dituan galdetu. Baietz, erantzun zidan; billatu eta igorriko zizkidala. Andik egun gutxira ate ondoan neuzkan, korreoz bialduta. Milla esker, Leoni!

Ala, urte askoren buruan bada ere, iru bertso oiek irakurleari eskeintzen dizkiot, gustokoak izango dituala-koan. Berriro diot: bertso bikaiñak dira; eta, nere iritzirako beintzat, Urepeleko pilota-plazaren orman letra aundiz idaztea merezi luketenak.

El Diario Vasco, 2004-09-22



Urepele, Baxenabarra.

Korrika-apustu gogoangarria

Virgen de Sancho Abarca izeneko ermita Aragoiko partean dago, Naparroako mugatik oso gertu, gain batean. Naparroako eta Aragoiko Sancho Abarca erregeak antxe eraiki omen zuan gaztelu bat, eta ortik Ama Birjiña orren izena.

Mendi onek, alde batera, Aragoiko Cinco Villas lurraldea du; bestera, Bardeak. Ni orain bi urte izan nintzan, otsaillean. Iparraldera, Pirineoko katea ikusten nuan, elurrarekin txuri-txuri, zeru urdiñaren azpian. Ego aldera, Moncayo, bera ere ederki elurtua. Ebro ibaia aundituta zetorren, eta ura ere ikusten zan, arre koloreko suge luze eta bigurri bat bezela, Tudela aldetik agertu eta Zaragozako bidean izkutatzen zana.

Santutegi onek ere badu bere istori edo leienda. Ama Birjiñaren irudi au Frantziakoa omen zan leenengo, Aspe araneke Sarranza errikoa. VII mendean mutil bat bei batzuk zaintzen omen zegoan. Egunero, zezen bat taldetik apartatu eta basoan sartzen zan. Zer ote zuan? Goiz batez, mutilla aren atzetik joan zan. Erreka bat igaro, beste aldean pixka bat ibili eta zezena belauniko jarri zan arri aundi baten aurrean. Mutilla urbildu eta orra Ama Birjiñaren irudi bat.

Erritarrak ez-ezik, obispoak ere albiste ori jaso zuan. Onek irudia Olorongo katedralera eramatea agindu zuan. Baiña irudiak, bera azaldutako tokira iges egin zuan. Orregatik, ermita bat antxe eraiki zioten.

Onen antzeko leienda Erronkariko Zuberoako Ama Birjiñak eta Saraitzuko Muskildakoak dute.

Baiña XVI mendean Zeruko Ama begi onez ikusten etzuten ereje batzuk sortu ziran Frantzian. Aien eskuetatik libratzearren, tokiz aldatuak izan ziran zenbait irudi, eta Espaiña aldean agertuak.

Ala, 1569-ko apirillaren 7-an, Ostegun Santu egunez, Garde erriko artzai bat mendi onen egalean zegoan ardi zai. Dakigunez, Erronkariko artaldeak alderdi auetara etortzen dira gaur ere negua pasatzera.

Mutil orrek Ibar abizena omen zuan; izenik ez da esaten. Zenbait aldiz argi bizi batzuk ikusi zituan gauzez kaxko ontan. Argi oiek ikusi zituzten beren erritik Tausteko gizon batzuek ere; baiña artzairen batzuek piztua izango zalakoan etzuten aintzat artu. Gardeko artzai orrek, ordea, bertaraiño joan eta Ama Birjiñaren irudia aurkitu zuan.

Pozaren pozez goitik beera korrika abiatu zan. Tausteko eiztari batekin topo egin zuan. Gertatuaren berri eman zion. Orduan biak batera igo ziran irudiarengana. Ura agurtu eta ondoren nor bere errira berria ematera, leia bizian korrika: naparra Fustiñanara; eta aragoitarra Taustera.

Orra, beraz, iñork prestatu gabeko apustua. Aragoitarra izan zan irabazlea, Tauste emendik gertuxeago dago eta.

Elizan sartu zan. Erria antxe zegoan bilduta, praile baten sermoia entzuten. Oni kasorik egin gabe, aldarera igo zan artzaia, eta menditik zergatik etorria zan andik adierazi. Taustetarrak elizatik irten eta eiztariak esandako tokira abiatu ziran, prozesio eder bat egiñik. Ama Birjiña aurkitu zuten, erretore jaunak irudia besoetan artu eta prest jarri ziran beren errira itzultzeko.

Ortan zirala, Fustiñanako gizon batzuk iritxi ziran: irudirik ez eramateko iñola ere, napar bati agertua zanez. Eztabaida gogorra izan zuten. Baiña aragoitarrak geiago ziran eta aiek nagusitu.

Fustiñanakoak, ordea, zera lortu zuten: Tausteko notarioa an zan eta arek ageri bat bertan egin zezala, irudia noiz eta nola azaldua zan adieraziz.

Ondoren abiatu ziran nor bere errira. Andik Taustera bi legua ta erdi bide dago. Bidean buruz zekizkiten errezo eta eliz-kanta guziak berritu omen zituzten.

Fustiñana eta Tausteren arteko auzia Zaragozako obispoak erabaki zuan azkenean, eta Tausteren alde, irudiak erri ontan bear zuala epaituz. Emengo parrokian dago geroztik, kapilla eder batean. Ermitan dagoana, berriz, kopia bat omen da.

Baiña erronkariarrak ez dira irudi ontaz aaztu. Au beren erritar bati agertu zala kontuan arturik, eta negu-partea inguru auetan pasatzen dutenez, maiz etortzen dira eliz ontara.

Ama Birjiñaren irudi onen beste mirari batzuk ere badira, baiñan emen lekurik ez degu oiek danak kontatzeko.

Ama Birjiña au zaintzearren eta debozioa zabaltzearren lan asko egin zutenak, bertan ermitaño bezela bizi edo bertara maiz etortzen ziran gizon batzuk izan ziran. Oietako bat, Migel Coscolla, Urtzainkikoa. Beste bat, Juan de Noballas izenekoa, frantzesak izatez. Irugarrena, Juan Baisonava, Escó errikoa.

Gizon auetaz ere zer kontaturik asko dago, baiña esan deguna: lekurik ez.

Leen esan dedan bezela, orain bi urte otsailleko egun batez izan nintzan ni bertan. Eguzki ederra zegoan. Nere begiak gozatu ederra izan zuten ango bista zabalak ikusten.

Leenengo, ermitan sartu eta Zeruko Amari otoitz egin. Alboan ostatu bat zegoan, eta antxe zerbait artu ondoren, Ama Birjiñaren istoria kontatzen duan libururik bai ote zuten galdetu nien. Baietz; eta ale eder-mardula atera zidaten: *Historia de Nuestra Señora de Sancho Abarca, Advogada de los Reynos de Aragón y Navarra... por el P. Fr. Basilio Iturri de Roncal...* Liburu ori aspaldikoa da, baiña 1992-an dotore berritua. Gaur emen esan ditudanak, andik artuak dira.

Orri bat ere eskuratu nuan: *Gozos a Nuestra Señora de Sancho Abarca, aparecida en las Bardenas Reales, venerada en la villa de Tauste y en sus términos*. Ona gozos edo kanta oien bertso bat:

*Un devoto pastorcillo
nos descubrió este tesoro
más estimable que el oro,
y, postrado a vuestros pies,
corrió a dar nuevas después
de hallazgo tan principal.
¡Oh, Virgen de Sancho Abarca,
libradnos de todo mal.*

El Diario Vasco, 2005-04-12



Virgen de Sancho Abarca, Zaragoza.

Ama Birjiña Erkudengoa

“Ama Birjiña Erkudengoa” irakurtzen da ermita txiki eta polit baten ateburuan. Nun dagoan? Altsasutik Etxegaratera kamio zaarretik goazela, eskubira bide bazterrean.

R. M. Azkuek beraren kanta eskeintzen du bere kantutegian, 726 zenbakian, Altsasuko Josefa San Roman zanaren aotik jasota. Doiñu ezti eta fiña eta bi bertso. Onako auek:

Ama Birjiña Erkudengoa,
elurretako zuria,
esku batean iguzkia ta
beste eskuan euria;
ark guretako gorderik dauka
egoki zaigun guztia.

Igurai on bat zeukagularik
ermita txiki artatik,
odeiak eta tenpestadeak
bialtzen gaitu bertatik,
eta frutuak oso ta leial
gordetzen ditu gugatik.

“*Igurai on bat*” Azkuek onela itzultzen du euskeratik erderara: “*una buena Pastora*”. Gure iritzirako, leenengo bertsoaren bukaera beste onela bearko luke: “*komeni zaigun guztia*”. Eta bigarrenaren “*gaitu*” orrek “*ditu*” bearko luke.

Orain, berriz, sail ontako beste bi bertso ekarri dizkit Altsasuko adiskide batek. Onela dira:

Ama Birjiña Erkudengoa,
pekatarien Ama zu;



Erkidengo Amabirjiña, Altsasua, Naparroa.

pekatutikan libratutzeko
argitasun bat eidazu,
edo bestenaz galdua naiz ni
desanparatzen banauzu.

Lurreko plantak ekusi ezker
nezesidade aundian,
altsasuarrak dute kostunbre
disponitzia errian,
ekar dezagun erkur indarra
iya gandegu premian.

Laugarren bertso onen azken bi lerroak ez dira uler-
tzen oso errezak. Baiña orrela bialdu dizkidate eta orrela
idatzi.

Bertso geiago ere izango dira, noski. Sail osoa ez da-
kit inun gordeko dan. Esan bearrik ez da, altsasuarrak
Erkudengo Amari fede beroz kantatzen dizkiotela kanta
auek beraren festa egunean.

Ermita onetaz zerbait geiago jakitearren, *Navarra, te-
mas de cultura popular* izeneko saillaren liburusketan
213-garrena artu det: *Folklore de Alsasua*, Jose M^a Jime-
no Jurio zanak idatzia.

Ermita au antziñako erri baten parrokia omen zan.
Erri ori XIV mendean galdu zan. Etxeak, beraz, erori eta
elizatxoak zutik iraun.

Ama Birjiña onen festa-eguna uztaillaren 2-an izaten
zan. Egun ortan ospatzen baitzan, garai batean beintzat,
Ama Birjiñak bere leengusu Santa Isabeli egin zion age-
rraldia.

Egun batzuk aurretik, guarda batek onela abisatzen
zien inguruko zelaietan gari edo belar-lanetan ari ziran
nekazariei:

–Alako egunetan eta alako ordutan, prozesioa emen-
dik pasako da. Erne egon!

Esandako ordu ortan prozesio ori, gurutzea aurretik
eta erri-jendea eta apaizak atzetik, Altsasutik irten eta er-

mita ontara etortzen zan, bidean *liberanos*, *Domine* eta *ora pro nobis* gogotik kantatuz.

Entzundakoan, nekazariak beren lanetatik gelditu egiten ziran, eta ez omen zuten kolperik jotzen prozesioa atzera erri aldera pasa arte.

Bitartean, ermitan meza ematen zan, eta ondoren gosaldu. Gorputza indarberritutakoan, irudia Altsasuko parrokira eramaten zuten, prozesioan berriz ere, urrengo egunetan bertan bederatziurrena egiteko.

Azken urteetan, berriz, gaurko mogimentuarekin kamioan oiñez ibiltzerik ez dagoanez, irudiaren eraman-ekarriak automobillez egiten zituzten.

Errogatibak ere egin oi ziran. Batean, Ama Birjiña ermitatik atera eta fededunak onela oiukatzen omen zuten euri eske bein eta berriro:

-Te rogamos, audi nos!

An gertuan teilleri bat omen zegoan, eta ango langilleci euririk ez komeni. Orduan berak onela asi ziran, eguraldi legorra eskatuz:

-Seco ta bero!

Orduan erretoreak -Don Kasto beraren izena- Zeruko Amaren irudiari begira jarri eta onela esan omen zuan:

-Ama Birjiña gajoa! Nori entzun bearko diozu?

Zoritxarrez, eta ainbat tokitan bezela, irudia lapurtua izan zan 1906 urte inguruan. Mantua teilleri orren ondolan agertu zan, bota ta utzia. Ordaiñez irudi berri bat ekarri zuten Balentziatik. Urte ura, ordea, oso legor omen zijoan. Ermitara joan, irudi ori ekarri eta bederatziurrena egin zioten errian euri eske. Ala ere, legorteak segi. Erritarrak kezketan eta Don Kasto orrek esan omen zien:

-Baiña nola nai dezute euririk egitea, Ama Birjiña Balentziakoa izanik?

Erritarren asarrea etzan orrekin eztitu. Zer egin zuten nekazari batzuek? Ermitara joan, irudia artu, errekarra eramane eta uretan sartu! Ez da arritzekoa, belarrik jaten ez duan astorik asko dago eta.

Gaur, berriz, kamio berria egin dute eta ermitatik apartetxo pasatzen da. Orain badago, beraz, gelditu eta bertaraiño joaterik. Egun gutxi dirala, orrela egin nuan nik. Arri ederrez eraikitako ermita da. Alde batera, Aizkorrri du; bestera Alzania; egoaldera Urbasa ikusten da. Eta pagadi bikaiñak jira guzian.

Baiña ermita urrutitxotik ikusi arren, orain artean bezela egingo det nik aurrerantzean ere, andik igarotzean: kantari gogotik asi:

Ama Birjiña Erkudengoa,
elurretako zuria...

El Diario Vasco, 2005-12-26

Soriako Ágreda eta Gipuzkoako Aia

Aia nun dan esan bearrik ez dago. Ágreda, berriz, Soriako probintzian da, saiets batean, Aragoi eta Naparroa gertu dituala. Alkarrengandik urruti samar, beraz, bi erri oiek; baiña badute, ala ere, bata bestearekin lotura bat.

Ágredan, XVII mendean moja ospetsu bat bizi izan zan, Sor Maria de Jesús, 1602-an jaioa eta 1665-ean illa. Berak amasei urte zituala, asmo berezia artu zuan familiarak: gizonetzkoak praile sartu, eta emakumezkoak moja, beren etxea komentu bihurturik.

Sor Maria, ogei ta bost urte bete gabea zalarik, *abadesa* aukeratu zuten, eta il arte kargu ortan segitu zuan, iru urtean izan ezik. Komentu berria ere eraiki zuan, gaur dagoena, alegia.

Batean, 1643-an, Felipe IV erregea Ágredatik barrena pasa zan, Madrilletik Zaragozara zijoala. Sor Mariarekin itzegin zuan eta andik aurrera eskutitz pilla egin zioten alkarri. Gorde diranak, seireun eta amalau omen dira. Zentzuz betetakoak Sor Mariarenak. Arrigarria da eskutitz oietan onek agertzen duan zuertasun eta jakinduria, bere denboran jaioterritik bein ere atera gabea izanik.

Liburu mardul bat ere idatzi zuan: *Mística ciudad de Dios* izenekoa, Ama Birjiñaren bizitzako gertakari guziak kontatuz, bai ebanjelioetan diranak eta bai ez diranak ere. Ez diran oiek nundik ote zituan? Berak ala esaten du: «*Dictada y manifestada en estos últimos siglos por la misma Señora a su esclava Sor María de Jesús*». Itz oiek nola ulertu bear ote diran ondo eztabaidatu dan gauza da. Baiña ori omen da berari aldaretarako bidea itxi diona.

Izkuntzaren aldetik, berriz, oso liburu ona da. Ala, *Real Academia Española de la Lengua* sortu berria zalarik, 1726 urtean, *Catálogo de Autoridades* izeneko zerrendan sartu zituan liburu au eta Sor Mariaren izena.

Liburu ori 1670-ean argitaratu zan leenengoz, eta gerroztik sarritan plazaratu da, bai gazteleraz eta bai izkuntza askotara itzulita ere.

Orain Aiara etorri gaitezten. Emen, Zialtzeta base-rian, 1922-11-27-an, nexka bat munduratu zan. Justina ezarri zioten izena. Garai artan bertsopaperak artean indarrean zeuden. Baserri ortara ere norbaitek ekartzen zituan, eta Justina orrek, koskortu zanean, etxeko suskaldean kantatzen zituan, gurasoak-eta entzule zirala. Bai bera bertsozaletu ere.

Justina ori Zarauzko Santa Klarako mojetara sartu zan amazapi urterekin. Leenengo Zarautzen, urrena Urduñan eta orain Gasteizen dala uste det.

Bertsoak aaztu gabe, ordea. Eta bertsoak jartzen asi zan. Erlijio-gaiak beti ere. Arantzazuko eliza berria, San Joserren bizitza, San Inazio, Santa Klara...

Gauzak orrela zirala, 1998-ko martxoaren azken egunetan telefono-dei bat izan genduan. Norena eta Aiako alkatearena: Juan Karlos Zuloaga. Ara joateko faborez, guretzat zerbait bazuala-eta. Biaramon goizean joan giñan. Udaletxeko atean an ikusi genduan gizaseme bat, arretaz eta irriparez begiratzen ziguna. Alkar agurtu genduanen, alkateak bereala sartu erazi zuan ateondoko ura. Sor Justinaren illoba zan, Jose Mari Orbegozo.

Alkateak eta illobak zera esan ziguten: Sor Justinak Ama Birjiñaren bizitza bertsoan idatzia zuala, eta ea Auspoak argitara emango zuan. Baietz erantzun genien, baiña alkarren argitaraldia izatekotan; Aiako Udalak lagunduz, alegia. Baietz esan ziguten, eta guk orduan esku-idazkiak ikusi bearko genituala.

Sor Justinak bere orriak aldizka bialduak zituan, leenengo mordoska 1997-02-08-an; eta azkena, 1998-03-25-an. Guretzako fotokopiak, berriz, danak batera etorri zitzaizkigun Aiatik Donostiara.

Sor Justinak zer nai zuan argi ta garbi dago: Ama Birjiñaren bizitzaren liburu-gai ori nola edo ala argitaratzea. Illobak ori lortuko zion uste osoan zegoan. Onek, be-

rriz, arazo ori ongi bideratu zuan: leenengo alkatearekin itzegin, erriaren aldetik laguntza izateko; eta gero gurekin, inprentarako prestatu eta kaleratuko ote genduan.

Fotokopiak irakurtzen asi nintzan. Izenburuak ongi adierazten zuan gaia: *Ama Birjiñaren bizitza. Sor María Jesús de Ágredaren "Mística Ciudad de Dios" liburutik bertsoan moldatua*. Sor Justinak, alegia, erderazko liburu ori irakurri, gustatu eta euskeratua. Bertsoan, ordea; ez prosaz. Orixe da bi erri oiek, Soriako Ágreda eta Gipuzkoako Aia alkartu dituan lotura, bateko XVII mendeko alaba bat eta besteko XX mendeko beste alaba bat dirala.

Baiña Sor Mariaren liburuan ez dagoan zerbait Sor Justinak bere kabuz idazten du:

Jakin dezagun, Ama Birjiña
bertsolaria genduan,
aingeruakin bertsok kantatzen
autsi egiten zituan.

Nundik atera ote zuan ori? Ama Birjiñak, izan ere, *Magnificat* kantatuz agurtu zuan bere leengusu Santa Isabel. Kanta berri bat sortu, alegia, eta ortik, dudarik gabe. Zera ikusten da, beraz: Aiako alaba onek gauza miresgarritzat daukala bertsolari-sena; eta, orregatik, Zeruko Ama ere doai orrekin apaindua ikusi nai duala.

Liburuaren prestakuntza etzan erreza izan, 1.532 bertso ziran eta. Zorionez, Auspoak neurri berriak artuak zituan luze-zabalean. Ala, bertsoak bi zutabetan idazteko ainbat leku bazegoan. Orrela egiñez, bertso guziak liburu batean sartzeko modu izan genduan.

Onela nion liburuaren azalean: «bearbada, iñoiz argitaratu dan saillik luzeena» izango zala. *Bearbada* batekin asten giñan, luzeagoa bagenduan eta: Atañoren *Jesusen bizitza*, 2.202 bertsoan, geroztik argitaratua.

Sor Justinaren *Ama Birjiñaren bizitza* 1999-an kaleratu zan. Liburu berria Sor Justinari eramatera Urduñara joan giñan. Gustora artu zuala esan bearrik ez dago. Erri ori mendiz inguratua dago, *Sierra Salvada* izenekoaz,

alegia. Begientzat atsegingarria ango ikuspegia, bein eta berriro ikusi eta aspertzen ez duana.

Ondorengo batean Ágredara joan nintzan. Erri ori oso goi dago, Soriako probintziaren saiets batean. Esan bezela, Aragoitik eta Naparroatik oso gertu. Eta Moncayo aundiaren oiñetan. Otsailla zan eta mendi au zuri-zuri ageri zan, zeru urdiñaren azpian.

Kaleetan barrena joan nintzan. Eliz eta etxeetan, kristau kutsua ez-ezik, moroena ere ederki nabari da. Sor Mariaren komentua erriaren irteera batean dago. Atarian beraren irudi bat, arrizkoa. Elizan sartu eta gorputza, usteldu gabea, aldare nagusiaren oiñean, kristalezko kutxa batean. Denbora puska bat gustora pasa nuan bertan, ango ixiltasun eta otoitz-giroan, nere idurimenak Ágredatik Aiara eta Aiatik Ágredara egan egiten zuala.

El Diario Vasco, 2005-03-15



Ágreda, Soria.

San Lorentzoren jaiotetxean

San Lorentzo ere, San Antonio bezela, “askoren biotzeko santu debotua” da Euskal Errian. Ala, Auñamendi Entziklopediak aren izeneko ermita auek aitatzen ditu Gipuzkoan bakarrik: Antzuolan, Aretxabaletan, Arroan, Beizaman, Berastegin, Bergaran, Elgoibarren, Gabirin, Ikaztegietan, Itxason, Eibarren, Oñatin eta Zumaian.

Oietan ezagunena, neretzat beintzat, Berastegikoa, mendi baten puntan. Iruñeko gaurko autobidea aren azpitik pasatzen da. Erriko festak ere beraren izenean eta egunean ospatzen dira, abuztuaren 10-ean.

Santu au III mendekoa degu, eta Hueskakoa. Eta kontuan ar dezagun alderdi ortan latinez eta euskeraz itzegingo zala antziñako denbora aietan.

Ni izan berria naiz aren jaiotetxean; obeto esateko, aren jaiotetxea izan zan tokian. Martxoko egun eguzkitsu bat zan. Egoaldetik urbildu nintzan, Cuarte eta Banariés errietatik igarota. Nere aurrean eliza aundi bat ikusten nuan, bizkartxo batean bakar-bakarrik, eta uraxe izan.

Kanpantorrea ladrilluz egiña. Eliza, berriz, arri-sillarez. Arratsaldeko eguzkiak bete-betean jotzen zuan eta urre-kolore zoragarria ematen zion.

Inguruan, bista zabalak. Ordeka oni *la Hoya de Huesca* deitzen diote, *la Cuenca de Pamplona*, *la Llanada de Vitoria* eta abar esaten dan bezela. Zeru urdiña goien; alderdi guzietara, galsoro ederrak, danak berde-berde, urte-saso ontan. An eta emen, almendro-saillak loretan txuri-txuri. Hueska ez da ikusten; baiña bai aruntzagoko mendiak: Caballera, Gratal, Gabardiella, Guara...

Ermita oni Loreto esaten diote. Onek Italiako Loreto-ko Amarekin zer ikusirik daukan ez nuke esango. Eraiki, berriz, Felipe II-aren aginduz egin zan, 1585 urte aldera. Errege onek, izan ere, oso maitea zuan San Lorentzo. Zergatik ote? Onen egunean lortu zualako frantzesen aurka



San Lorenzoren jaiotetxea, Huesca.

San Quintín izeneko garaipen aundia. Orretxegatik altxatu zuan Escorial izenekoa ere Madril ondoan.

Atearen gainean irudi eder bat, San Lorentzorena, esku ezkerrarekin parrilla bati eusten diola. Atean ere, beste bi parrillaren marrazkia. Ori zergatik dan, santuaren bizitza kontatuz azalduko degu.

Emen zan etxe batean jaio omen zan, esan degunez, III mendean, kristau sutsuak ziran gurasoengandik. Lorentzo ere ala izan zan txikitandik. Gaztetan Erromara joan zan. Bertako fededunak arrera ona egin zioten. Bai Aita Santuak ere.

Au Sixto zeritzan. Onek apaiz egin zuan, eta *arcediano* izendatu. Kargu ontan ziranak bi eginkizun izaten zituzten batez ere: bata, Aita Santuari elizkizunetan laguntzea; bestea, Elizaren ondasunen kontu izatea, andik pobreei-eta bear zana banatuz.

Baleriano zan garai artan Erromako enperadorea, orduarte kristauak errespetatu zituana. Baiña bat-batean aien etsai amorratua biurtu zan. Fedea ukatzen etzuana il erazten zuan. Bai Aita Santua preso artu ere. Lorentzo, berri ori ikasitakoan, ura zegoan kartzelara joan zan.

-Meza nola emango dezu orain -esan zion- zure betiko laguntzaillerik gabe? Nere fedea kolokan dagoala uste al dezu? Edo-ta bildurtia naizela? Ni beti zurekin izan nai det, semea aitarekin edo-ta ardia artzaiarekin bezela.

-Lasai -erantzun zion Aita Santuak- Zure txanda ere aurki izango da eta obe dezu erne egotea. Baiña orain joan eta Elizaren ondasunak pobreen artean banatu itzazu.

Lorentzok ala egin zuan: kristauak izkutuan ziran toki-tara joan eta Elizaren ondasunak pobreen artean banatu. Biaramon-goizean Aita Santua zegoan kartzelara joan zan, iltzera zeramaten garaian. Aren oiñetan belaunikatu eta zera esan zion:

-Zure mandatua bete det, ondasunak pobreen artean banatu, alegia. Orain zurekin eramán nazazu.

Eta Aita Santuak:

–Ni zaarra naiz eta zigor ariñak izango ditut. Zuri, berriz, iru egunen barru astunak emango dizkizute.

Ala gertatu zan. Soldaduak *ondasun* itza entzuna enperadoreari salatu zioten; kristauak altxorren bat nunbait gordeta bazutela, alegia. Ala, Lorentzo preso artu zuten.

–Kristaua al zera?

–Bai, jauna, bai.

–Ondasun arrigarriak omen dituzu.

–Bai, jauna, bai. Ona emen nun diran.

Berak ain maiteak zituan pobre eta elbarriak an bilduak ziran eta aiek erakutsi zizkion.

–Jupiter eta gure gainontzeko jainkoak gurtu itzazu. Bestela, gorriak ikusiko dituzu.

–Nik ez diranak gurtu? Ez-ta pentsatu ere! Bestetik, berriz, gorriak ikusteko gertu nago.

Orduan borreroen esku utzi zuten. Auek, leenengo, Lorentzoren ezurak beren tokietatik atera egin zituzten tiraka. Gero, errukirik gabe zigortu. Urrena, su aundi bat piztu. Azkenik, burnizko oe edo parrilla bat ekarri, brasaren gainean jarri, eta Lorentzo parrilla orren gainean etzan erazi, an pixkanaka erre zedin. Santua, ala ere, irriparrez. Are geiago: alako batean onela esan zien borroeroei:

–Alde ontatik ondo erreta nago. Buelta eman zaidazute, beste aldetik berdintsu erre nadin.

Ateraldi arrigarri au izango da, ziur aski, San Lorentzori ainbesteko ospe eta fama eman diona. Andik laster il zan. Eguna, 258 urteko abuztuaren 10-garrena zan. Orregatik, egun ortan ospatzen da santu orren festa.

Hueskatarrak oso maitea izan dute geroztik beren santu aundia, zaindaritzat dutena. Ala, abuztuaren 10-ean festa aundiak egiten dituzte urtero aren osperako.

Eliza itxita zegoan eta ezin barrura sartu. Inguruan ibili nintzan, ango bista ederrekin nere begiei gozatu bat emanez. Gero, emendik Hueskara zuzenean dijoan bidea artu nuan. Aldapatxo bat igo eta iriburu ori an azaldu zi-

tzaidan, pare bat kilometrora. Emen ere erriaren jiran etxe berri asko egin danez, aiek ikusten nituan; eta gaiñetik katedrala, au beti tokirik altuenean izaten da eta. Eskubira, berriz, muiño batean, San Jorje ermita txuria.

Baiña ezkerreko bide-ertzean, oroitarri bat ikusi nuan, idazki onekin: «*Dice la tradición que en este lugar S^a. Paciencia aguardaba a sus hijos San Lorenzo y San Orencio cuando venían de la escuela*».

«Ori da oroipenak ongi gordetzea –esan nuan nere artean–, ia bi milla urteko gertaerak dira eta!».

Ama ori, izan ere, semeen bidera ateratzera, oneraiño etorriko zan, emendik bere mutikoak Hueskatik atera orduko ikusiko zituan eta.

Nik ere jende asko ikusi nuan ara eta onera bide ortan, eguraldi ona zegoanez paseatzera irtena. Baiña andik aldentzeko ordua zan eta alaxe egin nuan, azken agurra emateko jota zaar bat kantatuz:

*Viva Huesca, que es mi pueblo,
San Lorenzo mi patrón...*

El Diario Vasco, 2006-05-23

Irin beraren opillak

Garai bateko bertsolariak edo bertso-jartzailleak bertso asko jarri zizkieten an eta emengo Ama Birjiñei. Alakoak ditugu, adibidez, Arantzazu, Itziar, Izaskun, Guadalupe, Kizkitza, Arrate, Begoña eta abar.

Leengo batean, berriz, oiei baiño bertso geiago eskeiñi zaion beste Ama Birjiña baten ermitan izana naiz. *Nuestra Señora de Salas* beraren izena. Ez dago Euskal Errian, Hueskako probintzian baizik, ango iriburuaren saiets batean, kilometro batera, eguzkiaren irteera aldera.

Arri-sillarez egiña dago. Atea erromanikoa du. Onen gaiñean, arrosaren antzeko leio dotore bat: *rosetón*.

Aurreko arboladian txoriak kantari ari ziran. Inguruko aulkietan, aitona batzuk alkarrekin izketan, Hueskatik paseatzen etorri ondoren. Iriburu au urbil ikusten zan, atzetik eguzkia zuala, eta gain-gaiñean katedrala. Iparraldera, berriz, galsoro berdeak eta an urrutian mendiak: Gratal, San Kosme, el Salto de Roldán, Guara...

Emen, aurrena, ermita bat izan omen zan, *Virgen de la Huerta* izenarekin. Gero, Salas erritik beste irudi bat ekarri zuten, eta ortik gaurko izena, leengo zaarra erabat galdu ez bada ere. Aragoiko Santxa erregiñak eraikitzen asi zan gaur ikusten dan eliza, XII mendearen asieran.

Bein, Jaime I erregeak iges egin bear izan zuan Monzongo gaztelutik, eta santutegi ontan babestu omen zan.

Baiña Ama Birjiña onen bertsoetara etorri gaitezen. Bertso-sail oiek Gaztelako errege zan Alfonso X Jakintsuak (1221-1284) jarri zituan, lareun ta bi guzira, *Cantigas* izenarekin. Ez gaztelera, ordea, galizieraz baizik. Gai asko erabiltzen ditu, esatekoak iturri askotatik artuta. Leireko prailearen eta txoriaren leienda ere kontatzen du.

Salasko Ama Birjiña onen mirariak azaltzeko saillak amazapi dira, eta galdera bat egin genezake: Alfonso X

erregeak, Toledon bizi zalarik, Andra Mari onen berri nundik ikasi zuan, ainbeste bertso jartzeko? Aitatu degun Jaime erregea, bein batez ermita ontan babestu zana, Alfonsoren suia zan. Ala, onek emango zizkion gaiak.

Baiña mirari oien berri eman dezagun. Bata, Salas erriko elizan Zeruko Amak aur bat nola piztu zuan. Beste, zaldun batek eizerako erabiltzen ziran *azor* izeneko egazti oietako bat nola galdu zuan. Baiña Salasko Ama oni errezatu eta bat-batean, elizan zala, egazti ori eskuetara etorri zitzaiola. Beste bein, Zeruko Amak bost deabru bota zituan gizon batengandik. Ama batek bere semea zaurituta zeukan, eta errezatu eta erabat sendatu zan.

Ama Birjiña oni jaiera aundia zion nekazari batek zera ikusi zuan: kazkabarrak etzuala bere maastia ikutu ere egin, eta ingurukoak, berriz, erabat txikitu zituala. Gizon batek, bere ondasunak jokoan galdu eta fedea ukatu zuan. Bai biraoka asi ere. Orduan mutu gelditu zan; baiña ermita ontan itza berriz etorri zitzaion. Bestea, Zeruko Amak elbarri bat nola sendatu zuan.

Borjako mora bat, kristauak orrela egiten zutela eta bera ere Ama Birjiña oni erretzatzen asi zitzaion. Baita bere seme illa berpiztu ere.

Emakume bati semeak il zitzaizkion. Ama Birjiñari errezatu eta onek aietako gazteena berpiztu zuan.

Senar-emazte batzuek, ermita ontara zetozela, beren seme txikia ibai batean galdu zuten. Ama Birjiñari erre-gutu eta seme ori emengo aldarean aurkitu zuten.

Mariñel bat, Mediterraneoan barrena zijoala, ekaitz bildurgarri batek arrapatu zuan, zituan ondasun guziak galtzeko arriskuan. Onik ateratzen bazan ermita ontara etortzeko promesa egin zuan, opari aundi bat ekarriz. Bai salbatu ere, eta txintxo asko etorri zan eskerrak ematera.

Beste mirari batzuk, gaixo bat eta beste nola sendatu zituan; itxu batzuek nola argitu zituan; pelegrin bati atera zitzaion erensugea nola il zuan eta abar.

Bazan eliza ontan kapillau bat Ama Birjiña oni debozio sutsua ziona. Baiña salaketa bat egin zioten: diru fal-

tsoa egiten zuala. Gaiztakeri ori iltzeko sententziarekin zigortzen zan orduan. Ala, soldaduak etorri ziran ura arrapatzera. Kapillaua, berriz, alboko kanposantura iges egin zuan, au leku santua zala eta emen preso artuko etzute-lakoan. Soldaduak, ordea, lekuaren santutasunari begiratu gabe, ara sartu ziran, kapillaua andik atera bearrez. Baiña Ama Birjiñak oiu indartsu bat egin zuan, lurra dardar jartzeraiño; eta kapillaua orrela salbatu zan.

Erdi Aroko leiendak dira auek danak: eta orrelakotzat artu bear diranak, gaurko irizbideekin orduko kristauen fedea epaitu gabe.

Euskal Erriko Ama Birjiñei jarritako bertsoetan ere kontatzen dira olako mirariak. Ona, adibidez, 1884 urteko bertso batzuek zer dioten Itziarko Amarengatik:

Ama Birjiñak Itziarkoak
egindako milagruak,
guzti-guztiyak ezin kontatu
diradelako askuak;
oien artian jartzera noa
bi guztiz señaletuak,
Euskalerrriyan jakin dezaten
nola diran gertatuak.

Birjiña Amaren alaja ederrak
elizatikan ostuta,
lapurrak zeukan bere burua
ustez aseguratuta.
Gau bat osuan birian joan zan
berekini aiek artuta,
baña goizian eliz onduan
billatu zuten lotuta.

Kautibo zeuan Itziarko bat
moro artian Afrikan,
lurreko kartzel mazmor batian
grilluz ondo loturikan;
Birjiña orri erregututa
lo batian jarririkan,

grillu ta guzi bere erriyan
esnatu zan lotatikan.

Azkeneko au kontatzen dute Naparroan ere, Legardako eta Kodesko Ama Birjiñengatik. Leienda auek danak, izan ere, irin beraren opillak dirala esan genezake.

Pentsamentu oiekin ordubetetxo bat gustora antxe pasa nuan. Andik aldegitakoan, leen oartu gabeko oroi-tarri moduko bat ikusi nuan, *Cofradía de Nra. Sra. de Salas y de la Huerta* dalakoak jarri erazitako idazki onekin:

*Peregrino que al llegar
a este santo lugar,
buen cristiano serías
si rezas un avemaría.*

Nik ala egin nuan, aldegin aurretik agurmari bat errezatuz, eguzkia Hueskako teillatuen atzetik izkutatzen zan bitartean.



Nuestra Señora de Salas, Huesca.

Zuberoako Santa Engrazia

Joan dan uztaillean Zuberoako Santa Engrazian izan nintzan. Egoaldetik, Erronkaritik alegia, egin nuan arako bidea. Belagoatik gora ekin nion, ezker-eskubi Euskal Erriko mendirik altuenak ikusten nituala: Txamantxoia. Lakartxela, Lakora, Iru Errege-Maia, Petretxema, Auñamendi... San Martin leitza-zuloaren ondotik pasa ta gero beeraka asi nintzan, iñoiz bukatzen etzan aldapa jetxiz. Noizbait bear eta ona, azkenean, Santa Engrazia erria.

Erri au zulo samarrean dago, mendi-malda aldapatsuen artean. Belardiak eta basoak inguru guztian. Base-riak an eta emen, baiña itxura berezikoak. Ixiltasuna nagusi, mendi-abereen zintzarri-otsa entzuten zala.


Nere pausoak eliza aldera zuzendu nituan. Aurrean an ikusten nuan, teillatu-alderdi bat bestea baiño luzeagoa duala, egal bat galdutako egaztia balitz bezela.

Eliza erromanikoa da. Ederra benetan. Erdi Aroan olako lan bat emen egin izanak zera esan nai du, nik us-te: zoko onek bazuala, nola edo ala, bere garrantzia. Piri-neo mendiak igaro aurreko pausalekua izango zan.

Zorionez, atea zabalik zegoan. Barrura sartu nintzan eta ezkerreko orman idazki bat ikusi nuan, tokiko istoria kontatzen duana. Nik orain emen eskeiñiko det, Zuberoako euskera pixka bat bada ere dasta dezagun.

Eliza au XI mendea baiño leenagokoa omen da. Eta mendi auetako lepo batean bazan Urdatx izeneko erri bat.

«Apathia hau XI-garren mentia baino lehen eginik izan zen. Erranik da, diala ezinago aspaldi, heben, lepho gora batetan, Zibero, Biarno, Arago eta Nafarroako xedetan, bazela herri txipi bat, Urdatx edo Lepho gaineko Urdatx deitürik.»



Santa Engrazia, Zuberoa.

Santa Magdalena izeneko eliza txiki baten ondoan bai omen zan ospitale bat, Karlos Andiaren denborakoa, Santiagora zijoazen pelegrin eta bidelariantzat:

«Santa Madalenaren uhuretan eraiki eliza ttipi baten kantian bazen Charlemagne-n denborakoa ospitale bat, Jondone Jakeserat juaile pelegri eta bidagantentako.»

Baiña zalantzan nago ori ondo dagoan, Karlos aundi ori 814-an il zanez, eta Santiagoren illobia, 813-an agertu zanez.

Gero, eliza orri Santa Engrazia deitu izan zioten. Engrazia Lusitaniako neska gazte bat zan, Narbonako zaldun batekin ezkontzera zijoala Zaragozan martir il zana, emezortzi lagunekin, 300-garren urtean.

«Gero, Urdatx-eko eliza Santa Grazirena deitürrik izan zen. Engrazi Luzitaniako neskatila gazte bat zen, bainan Galiako aithoren-sume batekin ezkontzera Narboneko eskualdilat, Zaragozan martir bezala hil zen, hamazortzi etxeko eta askazi harekin ezteciar juaiten zirenekin. Hori agithü zen 300-garren urtiaren altexian.»

Konstantino enperadoreak, gonbertitu zanean, kristauei elizak eraikitzeke baimena eman zien. Zaragozako iriak bat altxatu zuan santa orren oorez. Andik aurrera, Urdatx herriak Santa Engrazia izena artu zuan.

«Urte zenbait berantago, Konstantin handia konbertitu zen eta utzi zutian kiristiak eliza eraikitzera. Saragosako hiriak Engrazi martir gaztiaren uhuretan bat egin zian. Ordu hetan zen, uste denaz, Urdatx herriari Santa Grazi izena eman.»

Istorilari batek dionez, Santxo Ramirez erregeak, 1085-eko lege batez, Santa Engrazia bere mendeko lurrekin juntatu zuan eta: «Bat eta ezin zatituzko Trinitadearen izenean, Aragoi eta Iruñeko erregeak, Leireko Salbatoreari ematea nai det Santa Engrazia, Ziberoan sartzean Galiara eramaten duan eliza. Ematen eta uzten ditut ha-

tu, muga, mendi, bazka, etxe, zerga eta abar, beren mozkinekin, Espaiñian Galian bezala.»

«Ixtorio izkribatzale batek dio berantago Zantxo Ramirez erregiak, 1085-eko lege batez, Santa Grazi bere lurrer juntatu ziala: “Bat eta ezin zatituzko Trinitatiaren izenian, erri asko, Arago eta Iruñeko erregiak nahitu zait Leireko Salbatoreari ematia Bortuko Santa Grazi, Ziberoan sartzian Galiarat eremaiten dianaren apathia. Emaiten eta uzten dütüt hatu, muga, mendi, bazkagia, etxe-zaintegi, zerga eta detzima-etxe, lur eta miñabesi diren guziak, heren mozkinekin, Espaiñian Galian bezala.»

Itz guziak ez dira ulerterrezak, eta oiek itzuli gabe uzten ditut. Onela jarraitzen du: Gero Santa Engrazia jende zoriontsuak bezela bizi izan zan, ixtoriarik gabe, erlijio-gerretaraiño. Orduan, berriz, eliza erre zuten. Ormak eta bobedak arrizkoak ziranez, zutik iraun zuten. Baiña abadia bizi-lagunik gabe gelditu zan urte askoan.

«Gero, Santa Grazi bizitu zen jente irosak bezala, ixtoriarik gabe, Errelijione gerletarano. Eliza erre zien. Bena murriek harrizko beitziren, eta bobedak, etxeki zien. Kapitulia barreatu zen eta Apathia egoiliarrik gabe hanitx urtez egon zen.»

Arrezkeroztik, parrokiaren zerbitzurako zegoan apaiak abade edo *doyen* izena izan zuan, eta zetozen pelegriñei arrera egiten zien:

«Ondotik, parropiaren zerbützüko zen apezak, “abade” edo “doyen” izena uken zian eta jiten ziren pelegri bakanter batzarri egiten zian.»

Txeetasun geiago bagenuke Santa Engrazia gure errian nola ooratzen zuten adierazteko, paper zaharrak galdu ez balira erejeak emen sartu ziralarik, eta gero udala erre zanean, 1844 urtean.

«Xehetarzun haboro baginuke Santa Grazi nola uhurazten zien gure herrian, paper zaharrak galdü ez balira higanautak heben sartu zirelarik eta gero meria erre zenian, 1844-garren urtian.»

Zuberotar itz guziak ez dakit ondo ulertu ditudan. Itzuli gabe ere utzi ditut bakar batzuk. Baiña alde ontako irakurleari lana erreztu baldin badiot, naikoa det.

Testu ori kopiatzen minutu batzuk pasatu nituan. Gero eliza patxaraz ikusteari ekin nion. Zera iruditzen zitzaidan: barru artan denbora gelditua zala, eta Erdi Aroko usaia artzen nuala arnasaldi bakoitzean. Atzeko leio batean Santa Engraziaren irudia ikusten zan *vidriera* batean, eguzkiak bete-betean jo eta eliza guzia dotore argitzen zuala.

Eliz-atarian kanposantua dago, garbi eta ikusgarria, antziñako *estela* eder asko dituana.

Kanpora atera eta elizari jira guzia eman nion. Gero an ibili nintzan gora eta beera denbora-puxka batean, andik alde egiteak pena ematen zidala.

Gero abiatu eta iru-lau bat geldialdi egin nituan, Pirineoko ikuspegi ederrak nere barrura sartu eta eraman naiean.

· *El Diario Vasco*, 2006-06-01

Terueleko mendietan

Orain bi urte dirala, udaberrian, Madrillen izan nintzan. Gero, andik onerakoan ez nuen bide zuzenena artu. Cuenca, Guadalajara eta Terueleko probintziak alkar ikuitzen dutenean, eremu menditsu aundi bat bada, dana piñudi, arkaiztegi eta larre, ikusgarria benetan. An sortzen diran ibaiak, batzuk Atlantikora dijoaz: Tajo, Cuervo, Guadiela... Eta beste batzuk Mediterraneora: Turia, Júcar...

Ango bizkar batean, Terueleko probintziaren barruan, eta Orihuela del Tremedal erriaren partean, Zeruko Amaren santutegi bat da, *Virgen del Tremedal* izeneko, ia 1.800 metroko alturan.

Onera irixteko kamio polit bat artu bear da Orihuela dalako ortan. Egia esan, ermitak ezer apartekorik ez du. Baiña bikaiña da emendik begien mende artzen dan ikuspegia.

Ama Birjiña onek antziñako leienda bat badu, eta bai geroztikako istori latz bat ere. Biak konta ditzagun, esatekoak *Diccionario de historia eclesiástica de España, Madrid, 1975* liburutik artuta.

Mutil bat artzai zebillen mendi ontan, XII mendean. Alako batez, argiz betetako andre bat ikusi eta onek onela esan zion:

–Emaidazu morralean daukazun opilla.

Artzaia besomotza zan; eta esku ona morralean sartu eta opilla luzatu zion, onela esanez:

–Artzazu, andrea, zerana zerala.

Baiña andreak:

–Eskerrik asko. Baiña esku orrekin ez; bestearekin saia zaite.

–Ni besomotza naiz, ordea –erantzun zion umil asko mutillak–. Orregatik ez det balio artzaintzarako bestetarako.

–Ez du ajolarik. Proba ezazu beste eskuarekin.

Ala egin zuan artzaiak, eta zer ikusiko eta bere beso motza luzatzen eta eskua agertzen.

Errira, Orihuelara, korrika jetxi zan, eta erritarren poza, artzai besomotza osatuta ikusitakoan! Andre ura Zeruko Erregiña izango zala dudarik ez eta bertan ermita bat eraiki zioten. Geroztik erri eta inguru auetako fededunak debozio aundia izan diote beti.

Baiña frantzestean Villacampa gerrilleroak mendi auek artu zituan bere gordelekutzat. Batean aren aurka frantsesak etorri ziran, Herriot jenerala buru zutela, eta bai ermita au erre ere. Ama Birjiñaren irudia bertako kapillauari eskerrak salbatu zan.

Karlisten gerrateak ondoren. Inguru auetatik ere ibili ziran soldaduak, Baiña ez det uste ermita ontan ezeren okerrik egin zutenik.

Andik urteetara beste gerra bat: 1936-koa. Ermita au, eta bai beeko erria, Orihuela del Tremedal alegia, jaberik gabeko lurrian gelditu ziran; bi etsaien arteko eremuan, alegia. Ama Birjiñaren irudia arriskuan zalakoan, falanjista batzuek onera etorri, artu eta Terueleko seminaria eraman zuten.

Baiña gerra iri ontara ere iritxi zan. Bai gogor eta latz iritxi ere. Errukirik gabeko burrukak ez-zezik, elurrak eta jelak ortik onerakoak. Zenbat millaka mutil galdu ote ziran emen? Batzuk tiro edo metraillazo bat artuta; beste asko, berriz, otzak eramanda. Ona Altzako Patxi Otxoki zanak bere *Tiro tartean bertotan* liburuan zer dion:

«Concud (erri bat) artu ta elurra asi zuan. Bañan elurra egin zuan onenbestekoa bai: metroa-edo.

Illundu zuan ta gau guztian an egon giñan elurretan. Ta otza esaten zuten, guk ez dakigu, emezortzi gradu egin zuala utsaren azpitik.

Urrengo goizean, an etzan iñor ere gauza, ez fusilla dispartzeko ta ez kargatzeko. Danak otzak amorratzen. Danak olaxe: *dar-dar-dar...* Ibiltzeko ere ez giñan gauza gu.

...Jaungoikoak bakarrik daki Teruelen zenbat mutil geratu ziran. Ta bizirik atera giñanak ere ederki sufrituta, bat gaizki dagoanean, aren ondoan dagoana ere askoren faltan ez da egoten-da.

...Elurra kendu zuanean, kamioiak zeratu genituan. Zaku ikatzarekin nola kargatzen dira? Berdin-berdin, baiñan gizonakin: *taka-taka, taka-taka*, bat bestearen gaiñean. Pillak egin ta kamioiak martxa.»

Errepublikanoak iaioak ziran lurpeko minak irekitzen eta leertzen. Joko ori sarritan egin zuten gerra-denbora guzian. Mina oietako batek seminarioaren zati bat ankaz gora bota zuan. Baiña Ama Birjiñaren irudia onik agertu zan arri-pilla baten gaiñean.

Soldadu batzuek artu eta Santa Klara komentura eramán zuten, an obeto egongo zalakoan. Antxe zan Terueleko obispo jauna, Anselmo Polanco, gero afusillatua izango zana eta gaur aldaretarako bidean dana. Onek Ama Birjiñari aldare bat prestatu zion eta aren aurrean errezatzen aritzen omen zan.


Baiña Terueleko iria errepublikanoen mende erori aurretik, ama Birjiñaren irudia artu, maleta batean sartu eta Santa Klara komentu ortan bertan arri-pillen artean izkutatatu zuten.

Gero, errepublikanoak andik alde egindakoan, beste alderdikoak joan eta irudia atera zuten. Baiña bi pusketan omen zegoan eta Jesus Aurraren aurpegia kolpe bat artuta.

Gerra noizbait ere bukatu zanean, Ama Birjiñaren irudia eta ermita berritu zituzten. Eta gaur egun antxe daude, mendi gaiñeko santutegi ortan, fededunak otoitz egitera noiz etorriko diran.

Ni bi aldiz izana naiz, Aurrena orain ogei ta amar bat urte, uztaillaren asieran. Ermitatik aurrera mendi aietan barrena ere ibili nintzan. Artzai batekin antxe topo egin nuan. Andaluziakoa zan. Andik mendi oietara udara pasatzera etorria. Eta azkena, esan bezela, orain bi urteko udaberrian.

Egia esan, lantxo au idatzi ala ez zalantzan egon naiz luzaroan. Zergatik ote? Anai arteko gure azken gerratea aitatu bearra zegoalako. Auzi odoltsu arek gu danon biotzean ireki zuan zauria oraindik ere ondo itxi gabe daukagu. Orduko gertaeraren bat izketara ekarri ezker, politika bezela epaitzen degu, naiz eta irurogei ta amar urte igaro diran; eta ez istoria bezela, onezkero ala bear balu ere. Nik, beintzat, ori dala-ta, makiña bat kontaera eder utzi ditut orri auetara gabe. Emendik aurrera ausartuko ote naiz? Ez dakit...



Orihuela del Tremedal, Teruel.

Aurkibidea


Sarrera	7
Errioxako mendietan	11
Printzipea eta artza	17
Basurde-eiztari ausartak	21
Estibalizko Ama Birjiña	25
Oroel mendiko erensugea	29
San Pedro de Cardena	34
Catalañazor, Almanzorrek atabala galdu zuan erria	39
<i>Peña de Francia</i> santutegian	43
Beste San Fermin bat	47
Sotoscueva-ko lurpeko bideak	51
Bat-bateko bertsogintza Kantabrian	56
1912 urteko galerna	59
Ainsa, Sobrarbeko iriburua	63
Zuberoako Ama Birjiña	67
San Urbano, Odieta aranean	71
Longa jeneralaren berri	75
Artaxonako mandatari bizkorra	81
Alzaa jeneralaren bukaera	85
“Etzaitzte leenengo jarlekuan billa asi...”	89
Efesoko zazpi lotiak	93
Anozibarko sorgiñak	99
Naparroako Bizkaian barrena	103
Guadalupeko berriak	107
Ama Birjiña, lekuko edo testigu	113
Aragoiko Santo Domingo mendia	117
Uitziko Santa Engrazia	121

Txirritaren bertso ez-ezagun batzuk	126
Bilbotik Donostiara 1870 urtean	129
Eguzkiaren azpian ezer berririk ez	133
Enbor beraren ezpala	137
Gorbeia mendiko gurutzeak eun urte	142
Uretan azaldutako irudiak	147
Urrakiko bidean barrena	153
Arburuako Ama Birjiña	157
“Narru”	162
Jaizkibel mendiko arma-kontrabandoa	166
Erri bateko azken bizilagunak	169
Santa Elena, Pirineo mendietan	174
Lizarraga jenerala eta Pedro Migel Urruzuno	178
Emakumezkoak irabazitako gudaldia	182
Munduko ondasun guziak baiño geiago balio duana	186
Rocaforte-ko zikoin zuriak eta putre beltza	191
Xabierko erensugea	194
Deabruaren zubia ala Jesusen zubia?	199
Santa Nunilo eta Santa Alodia	203
San Julian, Ororbiako Zaindaria	208
San Fausto nekazaria eta Buxandako erria	212
Baztan Berri (<i>Nuevo Baztán</i>)	217
Xabierretik Xaberrira	222
Ai zer nolako irukotea!	227
Euskaldun bat Veracruz-en	232
Irureun urteko lo-aldi gozoa berriz ere	237
Kodesko Ama Birjiña, Juan Lobo gaizkillea eta abar	242
Apaiza eta piztia burrukan	246
Matsondoko Ama Birjiña eta idiazabaltar bat	250
Galtzadako Santo Domingo	255
Erretako oillar-oilloak kantari	260
«Plaza berriain aintzinean naiz...»	264
Korrika-apustu gogoangarria	268

Ama Birjiña Erkudengoa	273
Soriako Agreda eta Gipuzkoako Aia	278
San Lorentzoren jaiotetxean	283
Irin beraren opillak	288
Zuberoako Santa Engrazia	293
Terueleko mendietan	298

Auspoaren azken liburuak:

- 290: Xalbador
Odolaren mintzoa
- 291: Pedro Migel Urruzuno
Koroi eder bat
- 292-293: F. Apalategui
*Karlisten eta liberalen gerra-kontraerak * Relatos de guerra de carlistas y liberales (I) eta (II)*
- 294: Manuel Lasarte
Plaza-Gizonak
- 295: Nikolas Zendoia:
Egan dijoa.
- 296: Basarri:
Bat-Bateko bertsoak.
- 297: Pepe Artola
Ustez laguna detan.
- 298: Mattin eta Mari Treku
Mattin bertsularia
- 299: Antonio Zavala
Oiñez eta jakin miñez III



Antonio Zavala

Liburu hontan bildu diren idazlanak Donostiako *El Diario Vasco* egunkarian argitaratu ziren lehen aldiz, *Oiñez eta jakin miñez (I)* (Auspoa 249, 1997) eta *Oiñez eta jakin miñez (II)* (Auspoa 263, 1999) liburuetan jaso eta argitaratutakoen antzera.

Idazlan hauen egilea ibiltari porrokatua izan da, eta dijoan tokira dijoala, begiak erne eta argazki-makina prest joango da beti, bi eginkizun eramanez: bata, begiei gozatu eder bat ematea; eta bestea, tokian tokiko gertaera nagusienak aztertu, jaso eta irakurleari eskeintzea.

Bide hortatik ibiliz, bixitatu duen toki bakoitzaren berri emateaz gainera, antzinako makina bat elezahar eta istorio eder kontatzen ditu A. Zavalak artikulu-bilduma honetan, irakurlearen buruan ez ezik bihotzean ere ondo jaso eta gordetzea merezi dutenak. Garrantzi haundiko kontaketa hauek jakingarri ez ezik maitagarri ere badira, noski. Eta jaio eta bizi geran lurralde hau gehiago maitatzen erakusten digute, ezpairik gabe. Bai ote diteke gero horixe baino helburu ederragorik? *Joxemari Iriondo.*



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

ISBN 84-7907-520-1



9 788479 075200